

# ITVN BERIA.



ORIXE - KEREXETA - ZUGASTI

## ITUN BERRIA

«ITUN BERRIA» liburu onen azaleko irudia DURERO izen aundiko margolariaren «AZKEN-APARIA» dezute.

Zergatik ipiñi diogula liburu oni azal au?

Jesukristo'ren Apostoluak, ezkerreko azaletik batzuek eta besteak eskubikotik, liburuaren erdira begira-begira daude.

Zeri begira?

Or, liburu-barruan dagon JESUKRISTO'ri begira.

«ITUN BERRIA» Jaungoikoaren ITZA bait-da.

Eta Jaungoikoaren Itza Kristo Bera da!

---

### “GOI-BIDEA” SORTA

- I. Itun Berria (Orixe-Kerexeta-Zugasti).
- II. Jainkoaren erria eta Eliz-misterioa (Zabaleta-Gaztañaga).
- III. Eliz-Batzar Nagusiaren Erabakiak (gertututzen).
- IV. Gurutz-bideak (Garmendia).
- V. Jainkoaren billa (Orixe).

### “GIZA-BIDEA” SORTA

- 1.—Gaztetxo (Atxaga).
- 2.—Ezkontza-bidean (Atxaga).
- 3.—Senar-emazteak (Atxaga) (bukatzzen).
- 4.—Ezkontza (Oñatibia) (gertututzen).

Euskal Biblioteka Labayru



1016210  
RELIGION / N. 22


"ORIXE" - KEREXETA - ZUGASTI



# ITUN BERRIÄ

1967

ORMAETXEA'TAR NIKOLAS  
«ORIXE»

**JESUKRISTO GURE JAUNAREN  
BERRI ONA**





## JESUKRISTO'REN BERRI ONA

### Mateo Doneak dakarrenez

#### I

#### Jesukristo'ren jatorria.

<sup>1</sup> Abrahan'eneko Dabid'eneko Jesukristo'ren gizaldiaz garbitasunak. <sup>2</sup> Abrahan Isaak'en aita; Isaak Jakob'ena; Jakob Juda'ren eta senideena. <sup>3</sup> Juda, Pares'en eta Zara'ren aita (Tamar'engandik); Pares Esrron'en aita; Esrron Aram'ena; <sup>4</sup> Aram Aminadab'ena; Aminadab Naason'ena, Naason Salmon'ena; <sup>5</sup> Salmon Booz'en aita (Rahaben'gandik); Booz Obed'ena (Rut'engandik); Obed Isai'ren aita; <sup>6</sup> Isai, Errege Dabid'ena; Dabid Salomon'en aita, Urias'en emazte izanagandik; <sup>7</sup> Salomon Roboan'en aita; Roboan Abia'rena; Abia Asar'ena; <sup>8</sup> Asar Josapat'ena; Josapat Joran'ena; Joran Ozias'ena; <sup>9</sup> Ozias Joatan'ena; Joatan Akaz'ena; Akaz Ezekias'ena <sup>10</sup> Ezekias Manase'rena; Manase Amon'ena; Amon Josias'ena; <sup>11</sup> Josias Jekonias'ena eta senideena. Babiloni'ko erbestean.

<sup>12</sup> Babiloni'ko erbeste ondoan, Jekonias Salatiel'en aita; Salatiel Zorobabel'ena; <sup>13</sup> Zorobabel Abiud'ena; Abiud Eliakin'ena; Eliakin Azor'ena; <sup>14</sup> Azor Sadok'ena; Sadok

Akin'ena; Akin Eliud'ena; <sup>15</sup> Eliud Eleazar'ena; Eleazar Matan'ena; Matan Jakob'ena; <sup>16</sup> Jakob Jose'ren aita; Jose'ren emaztea Mari, Kristo deritzan Jesus'en Ama.

<sup>17</sup> Beraz, amalau gizaldi Abraham'engandik Dabid'engana; Dabid'engandik Babiloni'ko erbeste-aldiraño amalau gizaldi; eta Babiloni'ko erbeste-alditik Kristo'ganaño amalau gizaldi.

#### Jesus aurra nola sortu zan.

<sup>18</sup> Kristo'ren jaiotza, berriz, onela gertatu zan: Ama Mari Jose'rekin ezkondata, bateratu baño len, Ispiritu Santuz aurdun gertatu zan (\*). <sup>19</sup> Senarrak, zintzoa baitzan, lotsarazi nai ezik, ixilka etxetik bialtzea erabaki zun. <sup>20</sup> Bere artean onela ari zala, Aingeru bat agertu zitzaion ametsetan, eta: «Dabid'en seme Jose, esan zion: ez bildurrik euki Mari emaztetzat artzeko; beregan ernē zaiona Ispiritu Santuaren egitez baitu. <sup>21</sup> Seme bat egingo du, ta izena Jesus emango diozu; Ark aterako baidu erria bere pekatuetatik». <sup>22</sup> Guzi au zergatik gertatu zan? Jaunak Igarleari esana bete zedin: <sup>23</sup> *Ara, neskaxa batek sabelean semea erneko ta egingo du, ta Emmanuel esango diote*, au da, «gurekin Jainkkoa». <sup>24</sup> Jose'k, ametsetatik esnatuta, Aingeruak esana egin zun; andrea etxean artu; <sup>25</sup> eta alkargana gabe, seme bat egin zun, eta izena Jesus eman zion.

## II

#### Aztiak. (\*)

<sup>1</sup> Erodes erregeren egunetan, Judea'n, Belen'en, Jesus jaio zanean, Eguzkialdeko azti batzuk azaldu ziran Jerusalem'en <sup>2</sup> au galdezka: «Nun dago juduen Errege jaioberria? Aren izarra ikusi baitugu Eguzkialdean,

eta Ua gurtzera gatoz». <sup>3</sup> Au entzutean, Erodes larritu zan, eta Jerusalem osoa arekin. <sup>4</sup> Eta erriko Apaizburu ta letradu guziak bilduazi ta, galdezka ari zitzaien Kristo nun jaio ote zan. <sup>5</sup> «Judea Belen'en, erantzun zioten; onela baitago Profetak idatzirik: <sup>6</sup> *Eta zu, Belen, Judea-batzerra, etzera iñola txikiena izango Judea-erri aundietan; zugaridik aterako baita buruzagi bat, nere Israel-erria gidatuko duna.* <sup>7</sup> Ordun Erodes, Magoak aparte artuz, aiengandik jabetu zan izarra noiz agertua zan; <sup>8</sup> eta Belen'a bialduz: zoazte, esan zien, eta aur orren berri ekaidazute zintzo, ta arkitutakoan, otsegin neri, nik ere joanda gurtu dezadan». <sup>9</sup> Joan ziran erregeren esanera, ta Eguzkialdean ikusi-izar arek, bidea erakusten zien, Aurra zegoneko gain-paraera iritxi ziran arte. <sup>10</sup> Izarra ikustean, biziro poztu ziran. <sup>11</sup> Eta etxera sarturik, Aurra ikusi zuten Ama Mari'rekin, eta belauniko gur egin zioten; beren gordairuak iriki, eta esku-ikusiak eman zizkioten: urrea, intsentsua ta mirra. <sup>12</sup> Eta Erodes'engana ez itzultzeko erantzuna ametsetan arturik, beste bide batetik itzuli ziran beren erri-aldera.

#### Jesus Ijito-erria. Aur Errugabeak.

<sup>13</sup> Aiek aldegitan, Jose'ri Aingeru bat agertu zitzaion: «artu itzazu Aur-amak, esan zion, eta zoaz igesi Ijito-errira, ta zaude an nik otsegin arte, Erodes Aurra il-billa baitabil». <sup>14</sup> Jeiki zan, artu zitun Aur-amak gaez, eta Ijito'ra aldegin zun; <sup>15</sup> eta an egon zan Erodes'en eriotzeraño, Jaunak Profetaren bidez otsegiña gerta zedin: *Ijito'tik deitu det nere Semea.*

<sup>16</sup> Ordun Erodes, Aztiak engañatua, asarre bizitan sartu zan, eta Belen'go ta inguru guzietako aurrak illerazi zitun, bi urtez azpikoak, Magoak esan-garaiari zegokiola. <sup>17</sup> Eta Jeremias Igarlearen bidez Jaunak esan au gertatu

guziz. <sup>5</sup> Ordun deabruak iri santura eraman zun berekin, eta Elizetxearen erpiñean jarriazirik, au esan zion: <sup>6</sup> «Jainkoaren Semea ba'zera, egizu salto ortik beera. idatzirik baitago: *Aingeruei goraintziko die, ta eskuetan eramango zaitue, zure oñak arrian oztupo egin ez dezan*». <sup>7</sup> «Idatzirik zegok, esan zion Jesus'ek: *ez dek zirikatuko iri Jaun eta Jainkoa*». <sup>8</sup> Berriro deabruak mendi garai batera eraman zun, eta mundu guziko erriak eta aien edertasuna erakutsirik, <sup>9</sup> au esan zion: «Guzi ori emango dizut, belauniko agurtzen ba'nauzu». <sup>10</sup> «Alde emendik, Satan, esaten dio Jesus'ek; idatzirik zegok: *Jainko Jauna jauretsi ezak ta Ari bakarrari akio morroi*». <sup>11</sup> Ordun deabruak utzi egin zun, eta Aingeruak ari zitzaizkion serbitzen.

#### Zeruko Errege-erria.

<sup>12</sup> Joan giltzapean zegola aditzean, Jesus Galilea'ra lekutu zan. <sup>13</sup> Eta Nazaret utzirik, itxasaldeko Kaparnaun'a joan zan, eta an Zabulon eta Neptali mugetan, erria artu zun. <sup>14</sup> Isaias Igarleak esandako ura gerta zedin: *Zabulon-lurra ta Neptali-lurra, Jordan'ez aruzko itxasora bidean, erbestekoen Galilea*. <sup>16</sup> *Illunpean etzanik zegon erriak, argi aundia ikusi du; ta erio-ospelean etzanda zaudenai argia sortu zaie*. <sup>17</sup> Ordu ezker, agirian asi zan Jesus itzez esaten: «ezazute damu, zeruko Errege-erria urbil baitago».

#### Lenbizi deituak.

<sup>18</sup> Galilea'ko itxasondoan zebilela, bi anai ikusi zitun, Pedro ta Andres, sare-botatzen, arrantzale baitziran, eta <sup>19</sup> «Atozte, esan zien, nerekin; giza-arrantzale egingo zaituet». <sup>20</sup> Aiek bereala, sareak utzita, segi, etorri zitzaizkion. <sup>21</sup> Eta aurreraxeago beste bi anai ikusi zitun, Santiago Ze-

bedeo'rena ta anaia Joan, aita Zebedeo'rekin ontzian, sare-konpontzen, eta dei egin zien. <sup>22</sup> Aiek ere bertantxe, sareak eta aita utzita, segi egin zioten.

#### An eta emen Berri-Ona zabaltzen.

<sup>23</sup> Jesus an-emenka zebillen Galilea'ko Sinagogetan. Errege-erriaren Berri-Ona zabaltzen, eta gaitz eta min guztiak errian sendatzen (\*). <sup>24</sup> Artaz izen ona Siri osoan zabaltu zan, eta, nolanaiko gaitzez eta miñez zeudenak, deabrudunak, erortzeko mindunak eta perlesidunak Ari zekartzioten, eta sendatu egiten zitun. <sup>25</sup> Eta jendalde aundiak segitzen zion Galilea'tik, Dekapolis'tik, Jerusalem'dik, Judea'tik, eta Jordan'ez beste aldetik.

## V

#### Mendiko itzaldia: zeintzuk doatsu.

<sup>1</sup> Gizataldea ikusita, Jesus mendira igo zan, eseri zan, ikasleak ondora zitzaizkon, <sup>2</sup> eta ezpañak irikiz, onela ari zitzaien:

<sup>3</sup> Bai doatsu beren gogoz beartsu diranak, Zeru-erria berena baitute.

<sup>4</sup> Bai doatsu negar egiten dutenak, poztuko baitira.

<sup>5</sup> Bai doatsu biotz-beraak, lurraren jabe izango baitira.

<sup>6</sup> Bai doatsu zuzen danaren gose-egarri diranak, aseko baitira.

<sup>7</sup> Bai doatsu errukitsuak, iritxiko baitute errukia.

<sup>8</sup> Bai doatsu biotz-garbiak, ikusiko baitute Jainkoa.

<sup>9</sup> Bai doatsu pakezaleak, Jainko-seme esango baitiete.

<sup>10</sup> Bai doatsu zuzentasunagatik aurrean artuta derabiltzatenak, Zeru-erria berena baitute.

<sup>11</sup> Doatsu zuek, neregatik biraoka ta atzetik segika zarabiltzatenean, eta neregatik gezurretan edozer gaiztakeri zuen aurka esaten dutenean. <sup>12</sup> Poztu ta alaitu zaitzete, sari aundia baitezute. Zuen aurreko Igarleak ere, gaizki erabili zituten orrela.

#### **Ikasleen eginkizuna.**

<sup>13</sup> Lurraren gatza zerate zuek; gatza gezatzen ba'da, zerekin gazitu? Ez da on ezertako, kanpora bota eta gizonak aztaka dezaten bestetako. <sup>14</sup> Munduaren argi zerate zuek. Mendi gañeko erria ezin dagoke gorderik. <sup>15</sup> Ala berean, argi-zuzia ez dute piztuta lakaripean ipintzen; bai, ordea, argi-mutil gañean, etxeko guziei argi egin dezaien. <sup>15</sup> Egin beza dizdiz zuen argiak gizonen aurrean, zuen egite onak ikusiz, zeruko Aita goretsi dezaten.

#### **Kristo ta Legea.**

<sup>17</sup> Ez uste izan Legea ta Igarleak uts ematera etorri nai zenik; uts ematera ez-baña beteagotzera etorri naiz (\*). <sup>18</sup> Egi-egiz esan: zeru-lurra dirauten arte, *i* bat edo pits bat ez da galduko, guzia bede dedin arte. <sup>19</sup> Beraz, agindurik txikien oietako bat austen duna, eta gizonai ola erakutsi, txikiena izango da Zeru-errian; baño betetzen eta erakusten duna, aundia izango da Zeru-errian. <sup>20</sup> Ara Nik esan: zuen zuzentasuna idazlari ta pariseuena baño area-go ez ba'da, etzerate sartuko Zeru-errian.

#### **Bosgarren Agindua.**

<sup>21</sup> Aditu diezute antziñakoai esaten: *ez iñor il*; iltzen duna auzian errudun izango da. <sup>22</sup> Nik, berriz, au diozuet: senidearekin asarretzen dana, auzian errudun agertuko da: «kirten» esaten diona, Sanedriñ aurrean errudun; «otsa-

putz» esaten diona, su-lezerako errudun. <sup>23</sup> Beraz, aldare ondora zure oparia eskeintzera ba'zoaz, eta anaiak zure aurka zerbait dula an gogora ba'zaizu, <sup>24</sup> utzazu oparia aldare-aurrean, eta zoaz leenik anaiarekin onetzkoak egitera, ta ordun, itzulita eskeñi zazu zure oparia. <sup>25</sup> Etsaia ar zazu lenbailen onez-onean, bidean zoazen bitartean; etzaitzala eman ebazleari, ta ebazleak iruraiari, giltzapean sartu zaitzaten. <sup>26</sup> Egi esan, etzera andik aterako, azken-sosa ordaindu arte.

#### **Seigarren Agindua.**

<sup>27</sup> Aditu dezute esanik dagola: «*ez egin loikeririk*» <sup>28</sup> Nik are esaten dizuet: emakume bati irrikatuz begiratzten dionak, egin du bere biotzean aragikeria. <sup>29</sup> Ortaz, eskubiko begiak gaitzera ba'zarama, atera zazu zañetik, eta bota zuregandik; obe zaizu, bada, zere puxka bat galtzea, gorputz osoa ipernura bialtzea baño. <sup>30</sup> Ta eskubiko eskuak gaitzera ba'zarama, ebaki ta bota zazu zeregandik; obe zaizu, bada, puxka bat galdu, ta ez gorputz osoa ipernura bialdu.

#### **Bizi-alarguntza.**

<sup>31</sup> Esanik ere dago: *Emaztea zapuizten dunak, eman bezaio zapuiz-agiria*. <sup>32</sup> Nik, berriz, au diozuet: Iñork bere emaztea zapuizten ba'du, aragikeriz ezik, loikerira eragiten dio, ta zapuiztua emaztetzat artzen dunak, ezkontza loitzen du (\*).

#### **Bigarren Agindua.**

<sup>33</sup> Aditu ere dezute antziñakoai esan zitzaiena: *Ziñ egiñik ez ausi; eman, ordea, Jaunari zure ziñ-itzak*. <sup>34</sup> Nik, ordea, au diozuet: ez egin ziñik (jurementurik) iñola ere:



ez zeruagatik, Jainkoaren alxia baita; ez lurragatik, Aren oñazpikoa baita; ez Jerusalem'engatik, Errege aundiaren erria baita; <sup>36</sup> ez eta zere buruarengatik ziñik egin, ille bat bakarra zuri edo beltz ezin biurtu baitezue. <sup>37</sup> Zuen itza, bai, bai, ez, ez, bedi. Ortik aurrerakoa gaiztoagandik da.

#### Gaitz-ordañaren legea.

<sup>38</sup> Aditua dezute esan au: *begi ordañez begia, ortz-ordañez ortza.* <sup>39</sup> Nik, berriz, au diozuet: ez gogor egin gaiztagiñari; norbaitek eskubiko masaillean jotzen ba'zaitu, eskeñiozu bestea ere. <sup>40</sup> Ta zuri soñekoa kentzeko auzitara joan nai dunari, emaiouzu soingañekoa ere. <sup>41</sup> Ta norbai tek, zama artuta milla pauso eragiten ba'dizkizu, egizkiozu bi milla. <sup>42</sup> Eskatzen dizunari emaiouzu, ta zuk dirua aurreratzea nai lukenari, ez eman atzekoaldea.

#### Etsaiak maite.

<sup>43</sup> Aditu dezute esan au: *lagun urkoa maita zazu, eta etsaia gorrota zazu.* <sup>44</sup> Nik, berriz, au diozuet: maita itzazute etsaiak; egizute otoitz gorroto zaitutenen alde; orrela izango zerate zeruko Aitaren seme; <sup>45</sup> berdiñ aterrazten baitu eguzkia, on naiz gaiztoentzat, eta euria ekartzen, zintzo naiz biurrientzat. <sup>46</sup> Izan ere, maite zaitutena maite ba'dezute, zer sari merezi dezute? Ez al dute oinbeste egiten diru-biltzalleak ere? <sup>47</sup> Eta senideai bakarrai diosala egiten ba'diezute, zer egin dezute gañez? Ez al dute siñisgabeak ere oinbeste egiten? <sup>48</sup> Izan zaitetzte, beraz, erabat onak, zuen Goiko Aita erabat ona dan bezela.

## VI

#### Asmo zuzena.

<sup>1</sup> Begira egin gizonen aurrean zuen egite onak, aiek ikusi zaitzaten; bestela ez dezute izango saririk zeruko Jainkoagandik. <sup>2</sup> Beraz, limosna egiterakoan, turutotsik ez atera zure aurretik, azal-utsek sinagogetan ta kaleetan oi duten bezela, gizonek goretsi ditzaten. Egiz esan: beren saria artua dute. <sup>3</sup> Limosna zuk egiten dezunean, beraz, ez beza jakin ezkerak, eskubia zer ari dan. <sup>4</sup> Zure limosna izkutuan bedi, ta izkutuan begira daukazun Aitak, emango dizu ordaña. <sup>5</sup> Eta otoitz egiten dezunean, ez izan azal-uts oiek bezela; naiago baitute Sinagogetan eta plaza-baztarretan zutik otoitz egin, gizonen begietan agertzeko. Egitan, beren saria artua dute. <sup>6</sup> Zu, ordea, otoitz egitekoan, sar zaite zure gelara, ta atea itxirik, egiozu otoitz zure Aitari izkutuan, eta izkutuan begira daukazun Aitak, emango dizu saria. <sup>7</sup> Otoitzekoan, ez egin berriketarik, siñisgabeak bezela; itzaren itzez entzungo zaiela uste baitute. <sup>8</sup> Ez izan zuek orrela, zuen Aitak ezagutzen baititu zuen bearkizunak, zuek eske asi baño leenago.

#### Jaunaren otoitza.

<sup>9</sup> Zuek, beraz, egizute otoitz onela: *Zeruetako gure Aita, Santu artu bedi zure izena;* <sup>10</sup> *betor gugana Zure Erregetza; egin bedi Zure ala-naia zeruan bezela lurrean ere.* <sup>11</sup> *Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia,* <sup>12</sup> *ta barka izkiguzu gure zorrak, guk geren zordunai barkatzen dizkiegun bezela;* <sup>13</sup> *ta ez gaitzazula utzi tentaldian erortzen; ostera, atera gaitzazu gaitzetik.* <sup>14</sup> Izan ere, gizonai beren erruak barkatzen ba'dizkiezute, zeruko Aitak zuei barkatuko dizkizue; <sup>15</sup> baña gizonai beren erruak

barkatzen ez ba'dizkiezute, Aitak zuei ere ez dizkizue barkatuko.

### Barau egitea.

<sup>16</sup> Barau egitean ez jarri kopetillun, itxuratiak bezela, itsusitzen baitute beren aurpegia, barau egiten dutela gizonak ikusi dezaten. Egitan, beren saria artua dute. <sup>17</sup> Zuk, ordea, barau egitean, gantzutu zazu burua ta garbitu arpegia; <sup>18</sup> ez dezatela ikusi gizonak, barau zaudela; ordun, izkutuan dagon Aitak eta izkutuan begira daukazun Aitak, emango dizu saria.

### Jainkoaren arreta gugana.

<sup>19</sup> Ez metatu ondasunik lurrean, sitsak eta erdoiak jaten baititu, ta lapurrak azpijanenez ostu. <sup>20</sup> Bestera, metatu itzazute zeruan, an ez baititu jango sitsak, ez erdoiak; lapurrak ere ez azpijanik egingo ta ostuko. <sup>21</sup> Ondasuna daukazun tokian, an daukazu biotza ere. <sup>22</sup> Gorputzaren argia da begia. Beraz, zure begia onik ba'dago, zure gorputz osoa argitan dago; <sup>23</sup> baña zure begia gaxo ba'dago, zure gorputz osoa illunpetan egongo da. Ta zuregan daukazun argia illunpe baldin ba'da, zenbat areago illuna bera? <sup>24</sup> Inor ez diteke izan bi nagusiren morroi; edo bata maite ta bestea gorroto izango ditu, edo-ta batengana bilduko da, ta besteari esker gaizto emango dio. Ezin izan zaitezketen Jainkoaren eta diruaren morroi. <sup>25</sup> Orregatik, au diozuet: ez kezkatu zuen bi-ziatz, zer jan edo zer edango; ez gorputzaz ere, zer jantziko. Ez al da bizia janaria baño geiago, ta gorputza soñekoa baño geiago? <sup>26</sup> Begira aizeko egaztiei: ez dute ereiten, ez itaiez ebakitzen, ez mandiora biltzen, eta zeruko Aitak jaten ematen die. Ez al dezute zuek aiek baño askoz geiago balio? <sup>27</sup> Zuetan nork, asmatu-ala asmatuz, bere adiña ukondo bat ere luzeago egin dezake? <sup>28</sup> Eta jantziak

zerk kezkatzen zaitue? <sup>29</sup> Ikasi landako liliengandik, nola azitzen diran. Ez dute lanik egiten, ez iruten; bañan ara Nik esan, Salomon ere bere aundian ez zan jantzi oietako bat bezain ongi. <sup>30</sup> Beraz, gaur ba-dan eta biar sutara botatzen dan landako bakarra Jainkoak orrela jazten ba-du, ez al du zuekin geiago egingo, siniste gutxikokin? <sup>31</sup> Ez, bada, larritu, zer jango degu, zer edango, edo zer jantziko degu, esanez. <sup>32</sup> Ortaz siñisgabeak kezkatzen dira. Ba-daki, bada, zeruko Aitak, guzi oien bearrean zeratela. <sup>33</sup> Billa zazute leenik Jainko-erria ta Aren zuzentasuna, ta beste ori geigarri emango zaizue. <sup>34</sup> Ez, bada, biarkoaz larritu. Egun bakoitzak aski du bere nekea.

## VII

### Iritzi gaiztoak.

<sup>1</sup> Ez gaitz-iritzi ta etzaituete gaitziritziko. <sup>2</sup> Izan ere, besterik irizten dezuten iritziz, iritziko zaituete, ta neur-tzen dezuten neurritz neurtuko. <sup>3</sup> Nola ikusten dezu las-to-izpia anaiaren begian, eta ez dezu begiratzen aga zurean? <sup>4</sup> Edo-ta, nola esango diozu anaiari: utzi las-to-izpia begitik atera dezaizudan, zurean aga daukazu-la? <sup>5</sup> Azal-uts, ken zazu leenik aga zerorren begitik, eta ordun ikusiko dezu garbi anaiaren begitik lasto-izpia kentzeko. <sup>6</sup> Ez eman zakurrei santu dana, ta ez bota txir-la-arriak ere urdeai, aztakatu ez detzaten, eta zuengana itzulita ozkatu etzaitzaten.

### Otoitzaren balioa.

<sup>7</sup> Eska zazute ta emango zaizue; billa, ta arkituko dezute; otsegiñ eta irikiko zaizue. <sup>8</sup> Eskatzen dunak artzen baitu, ta billa dabillenak arkitzen, eta otsegiten du-

nari irikiko zaio. <sup>9</sup> Edo-ta, zuetan bai al da gizonik, semeak ogia eskatuta arria emango dionik? <sup>10</sup> Edo-ta, arria eskatuta sugea emango dionik? <sup>11</sup> Beraz, zuek, gaizto izanik, semeai gauza onak ematen baldin ba'dakizute, zenbat areago zeruetako Aitak emango dizkie gauza onak eskatzen dizkietenai? <sup>12</sup> Beraz, besteak zuekin egitea nai dezuten guzia, egizute zuek ere aiekin. Au baita Legea ta Igarleak.

#### Gaitezen zugar.

<sup>13</sup> Ate estutik zar zaitezte; aundia da, bada, ondamen-dira daraman bidea, ta zabala arako atea, ta asko sartzen dira artatik. <sup>14</sup> Estua da atea, ta mearra bizitzara daraman bidea, ta gutxik arkitzen dute.

<sup>15</sup> Kontu Igarle gezurtiekin! zuengana ardi-larruz jantzirik datoz, baña barrundik otso amorratuak dira. <sup>16</sup> Ondorenetik ezagutuko dituzute. Arantzak ematen aaldu maatsik? edota larrak pikurik? <sup>17</sup> Alaxe, zugatz onak fruitu onak ematen ditu, ta arbola ustelak-zitu txarrak. <sup>18</sup> Zugatz onak ez dakarte igali txarrik, ez eta arbola ustelak zitu onik. <sup>19</sup> Fruitu onik ematen ez dun zugatza, ebaki ta sutara bota oi dute. <sup>20</sup> Beraz, beren ondorenetik antzemango diezute.

#### Egin, ez itzezin.

<sup>21</sup> Jauna, Jauna! esaten dun guzia ez-baña, zeruko Aitaren ala-naia egiten duna sartuko da Zeru-errian. <sup>22</sup> Jauna, Jauna! esango didate askok egun artan; ez al gifiñan Zure izenaren Igarle izan? eta ez al genitun Zure izenean deabruak aizatu, ta Zure izenean mirari asko egin? <sup>23</sup> Ordun adieraziko diet: etzaituet beñiere ezagutu; zoazte Nigandik, gaiztakeri egilleok!

<sup>24</sup> Beraz, nere itzok entzuten eta betetzen dituna, arri-gañean etxea eraiki zun gizon zugurra bezela izango da. <sup>25</sup> Jetxi zan euria, etorri ziran errekek, aizeman zuten aizeak, eta etxe aren gañera erori ziran; bañan etzun lur jo, arkaitz-gañean sendotua baitzegen. <sup>26</sup> Eta nere itzok entzuten dituna, ta bete ez, ondar-gañean etxea altxa zun gizon tentela bezela izango da. <sup>27</sup> Egin zun euria, etorri ziran errekek, aizeman zuten aizeak, eta sartu ziran etxe aren gañera; erori zan, eta aren erorikoa aundia izan zan». <sup>23</sup> Jesus'ek itzaldi au bukatzean, jendaldea arriturik zegen Aren erakutsiaz; eskudunari dagokionez ari baitzitzaien, eta ez aien idazleak bezela.

### VIII

#### Jesus mirariak egiten. Lepraduna.

<sup>1</sup> Menditik jeixtean, gizaldeak atzetik zitun. <sup>2</sup> Eta ara nun, lepradun bat ondoratzen zaion, eta Aren aurrean belauniko «Jauna, esaten dio: nai ba'dezu, garbi nazakezu». <sup>3</sup> Eta Jesus'ek eskua luzatuz, ikututa, au esan zion: «nai det; garbi zaite». Ta bereala, lepratik garbi gelditu zan. <sup>4</sup> Jesus'ek: «begira, ez iñori esan, esaten dio; zoaz, agertu zakio apaizari, ta eskeñi iozu, agiri bezela, Moises'ek agindu zun oparia».

#### Euntariaren sinismena.

<sup>5</sup> Jesus Kafarnaun'a sartzean, euntari bat ondora ziztaion erreguz: <sup>6</sup> «Jauna, morroia perlesiz oiean daukat izugarritzko oñazeakin». <sup>7</sup> «Ni joango nitzaio ta sendatuko det», esan zion Jesus'ek. <sup>8</sup> «Ez, Jauna, erantzun zion euntariak: ez naiz ni nor, Zu nere etxepean sartu zaitezen; bañan esazu itzez bakarrik, eta morroia sen-

datuko zait. <sup>9</sup> Nik ere, nerau menpeko izanik, gudamutillak dauzkat nere mende, ta oni «oa» esaten diot eta ba-dijoa; besteari «ator» eta ba-dator, eta morroiari «egin zak au» ta egiten du». <sup>10</sup> Arritu zan Jesus au entzutean, eta atzetik zetozkionai, «egitan, esan zien: Israel'en ez det arkitu olako fededunik. <sup>11</sup> Esaten di- zuet: asko etorriko dira sortaldetik eta sartaldetik, eta an eseriko dira Zeru-errian Abraham'ekin, Isaak'ekin eta Jakob'ekin; <sup>12</sup> bañan Errege-erriko semeak kanpoko illunbetara botako ditute. An izango da negarra ta ortz-karraska!». <sup>13</sup> Eta Jesus'ek euntariari esan zion: zoaz, gerta bekizu siñistu dezuna». Ordu artan bertan sendatu zan morroia.

#### Asko sendatuak.

<sup>14</sup> Jesus Pedro'ren etxera joan zanean, onen amagiarreba oiean ikusi zun, berotasunekin; <sup>15</sup> eskua artu zion, eta aldegin zioten berotasunak. Jaiki zan, eta serbitzen asi. <sup>16</sup> Arratsaldean deabrudun asko ekarri zizkioten, eta bere itzez aizatu zitun aingeru gaizto aiek, eta gaxo zeuden guziak sendatu zitun; <sup>17</sup> Isaias Igarlearen bidez esana bete zedin: *Berak artu zitun gure aultasunak eta Berak leporatu gure gaitzak.*

#### Jainkoaren deia.

<sup>18</sup> Jesus'ek bere inguruan oinbeste jende ikusita, ontzia beste ertzera eramateko agindu zien. <sup>19</sup> Ordun, Idazlari batek, ondora etorrita: «Maisu, esan zion, jarraituko dizut noranai zoazela». <sup>20</sup> Jesus'ek ari: «azeriak ba-ditute zuloak, eta zeruko egaztiak kabiak; Gizonaren Semeak, orde, ez du burua nun ezarririk». <sup>21</sup> Beste ikasle batek au esan zion: «Jauna, emaidazu baimena nere Aitari

lur emateko». <sup>22</sup> «Utzazu, esaten dio Jesus'ek, illak lurperatu dezaztela beren illak».

#### Ekaitza baretu.

<sup>23</sup> Eta Jesus'ek, ontzi batera igorik, atzetik zitun bere ikasleak. <sup>24</sup> Itxasoa ber-bertan naastu zan, olatuak ontzia estaltzeraño; baña Bera lo zegon. <sup>25</sup> Ondora zitzaizkion ikasleak, eta: «Jauna, esancz, esnatu zuten: salba gaitzazu; galduak gera!» <sup>26</sup> Jesus'ek esan zien: «zeren bildur zerate, siñiste aulekoak?» Jeiki zan ordun, oiuegin zien aizeai ta itxasoari, ta barealdi aundia etorri zan. <sup>27</sup> Gizonak arriturik, «nor da au? zioten: aizeak eta itxasoa mendean dauzkan au?».

#### Gerasa'ko deabrudunak.

<sup>28</sup> Jesus beste ertzera iritxi zanean, Gerasa'tarren erri aldera, bi deabrudun etorri zitzaizkion bidera, illobietatik atereak, oso asarre, bide artatik iñor pasa etzitekela. <sup>29</sup> Eta oiuegin zuten: «Zer degu zurekin ikustekorik, Jainkoaren Seme? Bear baño leen al zatoz guri oñazeak ematera?» <sup>30</sup> Andik urruti xamarrera txerritalde aundi bat ari zan larratzean. <sup>31</sup> «Uxatzen ba'gaitzuzu, zioten deabruak, bialdu gaitzazu txerritalde artara». <sup>32</sup> «Zoazte», esan zien. Eta aiek, aterata, urdectara joan ziran. Bereala urdalde osoa aldapa bera itxasora amildu zan, eta uretan il ziran. <sup>33</sup> Txerrizaiak aldegin zuten errira, ta guzia kontatu zuten; bai eta deabrudunena ere. <sup>34</sup> Erri osoa Jesus'en billa atera zan, eta ikusi zutenean, aien mugetatik aldegin zezala eskatu zioten.

## IX

**Kafarnaun'go perlesiduna.**

<sup>1</sup> Igo zan txalupa batera, itxasoa igaro ta Bere errira etorri zan. <sup>2</sup> Berealaxe, perlesidun bat ekarri zioten oiean etzana. Jesus'ek, aien sinismena ikusiz, «ezazu uste on, seme», esan zion perlesidunari; pekatuak barkatu zaizkizu». <sup>3</sup> Eta idazlari batzuk, au zioten berekiko: «au birauka ari dek». <sup>4</sup> Jesus'ek, aien asmakeriak ezagutuz, au esan zien: «Zertako gaizki pentsatu zuen biotzetan? <sup>5</sup> Zer da esaten errezago, «pekatuak barkatzen zaizkizu», ala «zutitu ta zoaz?» <sup>6</sup> Gizonaren Semeak lurrean pekatuak barkatzeko eskubidea dula jakin dezazuten, «zutitu zait!» casten dio perlesidunari, ar zazu oia ta zoaz etxera». <sup>7</sup> Ta gizona jaiki ta etxera joan zan. <sup>8</sup> Au ikusirik, jendeak bildurtu egin ziran, eta Jainkoa gorensten zuten, gizonai olako eskua eman zielako.

**Mateo'ri deia.**

<sup>9</sup> Jesus'ek, andik aterata, Mateo zeritzan gizon bat ikusu zun, dirubiltzean eseria, ta esan zion: «segi neri». <sup>10</sup> Eta aren etxean, maiean zeudela, diru-biltzaille ta pekatari asko etorri ziran, eta maiean jarri Jesus'ekin eta Aren ikasleekin (\*). <sup>11</sup> Pariseuak, ikustean, au esaten zien Aren ikasleai: «zergatik jaten du zuen Maisuak diru-biltzailleekin eta pekatariekin?» <sup>12</sup> Baña Jesus'ek, au entzutean, «osasunez daudenak ez-baña, gaxo daudenak dira sendagille-bearrean, esan zien. <sup>13</sup> Zoazte, bada, ta ikasi zer dan arako ua: *errukia nai det, eta ez oparirik*. Zintzoak ez-baña pekatariak deitzera etorri bainaiz».

**Baraua.**

<sup>14</sup> Ordun, Joan'en ikasleak ondora zitzaizkion, eta «zergatik guk eta pariseuak sarritan egiten degu barau, ta zure ikasleak ez dute baraurik egiten?» <sup>15</sup> Jesus'ek au erantzun zien: «eztai-lagunak naigabetu al ditezke ezkonberria berekin daukateño? Etorriko dira ezkonberria kenduko zaien egunak, eta orduan egingo dute barau. <sup>16</sup> Iñork ez du adabatzen soñeko zârra oial jo gabearekin; adabakiak beregana tirako baitio soñekoari, ta zarrata aundiago egingo da. <sup>17</sup> Ez eta, ez dute zâgi zârretan ardo berririk sartzen; bestela zâgiak lértzen dira, ardoa ixurtzen da, ta zâgiak galdu egiten dira; bestera, ardo berria zâgi berrietan sartzen dute, ta orrela biek eusten diote.»

**Odoljarioa ta Jairo'ren alaba.**

<sup>18</sup> Orrela ari zan, eta aundiki bat ondoratu ta auspeztu zitzaion au ziola: «Jauna, nere alabak oraintxe iltzea egin du; bañan, atoz, ezarri iozu eskua gañean, eta piztuko da». <sup>19</sup> Zutitu zan Jesus eta ondoren joan zitzaion bere ikasleekin. <sup>20</sup> Eta ara!, amabi urtez odoljarioa zeukan emakume batek, atzetik urbilduta, soñeko-barrena ikutu zion <sup>21</sup> Au zion berekiko: «Onen soñekoa ikutze utsarekin, sendatuko naiz. <sup>22</sup> Jesus'ek atzera itzuli ta ikustean, au esan zion: «ezazu uste on, alaba; zure siñisteak sendatu zaitu». Ta emakumea bertantxe sendatu zan. <sup>23</sup> Jesus aundikiaren etxera zanean, eta txistulariak eta jendearen ixkanbilla aditzean, «alde ortik!» esan zien; «aurra illa ez-baña lo da-gu». <sup>24</sup> Ta burla egiten zioten. <sup>25</sup> Jendeari irten eragiñaz sartu zan, artu zun eskutik, eta aurra altxa egin zan. <sup>26</sup> Berri au errialde artan guzian zabaldu zan.

**Bi itsu ta mutu bat sendatuak.**

<sup>27</sup> Jesus andik zijoala, bi itsuk segitu zioten oiuka: «kupu-pitu zaitte gutaz, Dabid'en Seme!» <sup>28</sup> Ta etxera irixtean, itxuak ondora zitzaizkion, eta au esaten die Jesus'ek: «Ori ba-dezakedala uste al dezute?» «Bai Jauna», esan zioten. <sup>29</sup> Ordun, begiak ikutuz, au esan zien: «gerta bekizue siñisten dezutena». <sup>30</sup> Eta begiak iriki zitzaizkien. Jesus'ek zorrotz agindu zien: «begira, iñork ez dezala jakin». <sup>31</sup> Bañan aiek, joanda lurralde osoan zabaldu zuten.

**Mutua.**

<sup>32</sup> Aiek irten ziranean, gizon mutu bat ekarri zioten deabruduna, <sup>33</sup> ta deabrua uxaturik, mutua izketan asi zan. Jendeak arriturik au zioten: «Iñoiz olakorik ez da ikusi Israel'en». <sup>34</sup> Baña pariseuak au zioten: «Deabruen buru danaren partetik ari da deabru-botatzen».

**Berri-Ona Galilea'n.**

<sup>35</sup> Erri ta ballera guzietan zebillen Jesus, Sinagogetan erakusten, Zeru-erriko Berri-Ona zabaltzen, eta gaitz eta miñ guziak sendatzen. <sup>36</sup> Eta gizaldea ikusirik, kupitu egin zan, galdurik baitzebiltzen, ardiak artzai gabe bezela. <sup>37</sup> Ordun, au esan zien ikasleai: «Uzta ugari da, ta nekazari gutxi. <sup>38</sup> Eska iozute, bada, uzta-jabeari, bialdu ditzala langilleak bere uztera».

**X****Bidaliak lanera bialdu.**

<sup>1</sup> Eta amabi Bidaliak deiturik, eskubide eman zien aingeru likitsak uxatzeko, ta gaitz eta miñ oro sendatzeko. <sup>2</sup> Amabi Bidalien izenak auek dira: aurrena Simon Kepas

deritzana, ta aren anai Andres; Santiago Zebedeo'rena, ta anaia Joan; <sup>3</sup> Pilipe, Bartolome, Tomas eta Mateo, Zer-ga-biltzalea; Alpeu'ren Santiago, Tadeo'rekin, <sup>4</sup> Simon Kanaan'darra, ta Judas Iskariote, saldu zuna. <sup>5</sup> Amabi auek bialdu zitun au aginduz: «ez joan jentil-errietara, eta ez Samaria'ren errietan sartu. <sup>6</sup> Zoazte, ordea, Israel-etxean galdu diran ardiatar. <sup>7</sup> Otsegin zazute, Zeruko Errege-erria urbil dala. <sup>8</sup> Gaxoak senda itzazute; illak piztuazi; lepradunak garbi-erazi; deabruak aizatu; utsean artua, utsean eman. <sup>9</sup> Ez euki urrerik, ez zillarrik, ez txanponik; <sup>10</sup> ez bide-zorrorik, ez bi soñekorik, ez oñetakorik, ez ma-killik; langilleari jana zor baitzaio. <sup>11</sup> Sartzen zeraten errian naiz balleran, jakin zazute zein dan an gisako, ta gelditu arenean, andik aldegiñ arte. <sup>12</sup> Etxera sartzean, egin diosala; <sup>13</sup> ta etxea merezidun ba'da, betorkio zuen pakea; bestela, pake ori zuengana itzuli bekizue. <sup>14</sup> Ta etxean artzen ez ba'zaituete, ta zuen itza entzuten ez ba'dute, atera zaitzete erri artatik edo etxe artatik, eta astindu zazute oñetako autsa. <sup>15</sup> Egia esan; azken-eguna ariñago izango zaie Sodoma'ri ta Gomorra'ri, erri ari baño.

**Etsaikeri gogorak.**

<sup>16</sup> Ara, ardiak otso-tartera bezela bialtzen zaituet Nik. Zaitzete, bada, zugar suge-antzera, ta xalo uso-antzera. <sup>17</sup> Auzitara eramango zaituete; beren Sinagogetan zigorkatuko; <sup>18</sup> Neregatik nagusiengana ta erregeengana eramango, aien eta jentillen aurrean aitor egin dezazuten. <sup>19</sup> Baña, salatzen zaituete, ez ajolatu zer edo nola itzeñgingo, emango baitzazue ordu artan, esan bear dezutena; <sup>20</sup> zuek ez-baña, zuengan Aitarean Arnasa mintzatuko baita. <sup>21</sup> Eta anaiak anaia eriotzerako emango du, ta aitak semea; ta semeak gurasoen kontra altxako dira, ta ilko ditue; <sup>22</sup> eta nere Izenegatik guziak gorrotatuko zaituete; bañan azke-

neraño irauten duna, ondo aterako da. <sup>23</sup> Erri batean gaizki erabiltzen zaituetenean, beste batera iges egin. Egia esan, Israel'go erri guziak ez dituzute bukatuko Gizonaren Semea etortzerako.

### **Ez bildurrik euki.**

<sup>24</sup> Ikaslea ez da maisua baño geiago, ez eta morroia nagusia baño geiago. Etxeko jaunari Belzebul gaitz-izena jarri ba'diote, zenbat arago aren etxeoai? <sup>26</sup> Ez, bada, aiei bildurrik izan; ez baita ezer izkuturik, agertuko ez danik; ez eta ixil-gorderik jakingo ez danik. <sup>27</sup> Nik illunpean esaten dizuedana, esazute argitan; eta belarriara entzuten dutena, zabaldu zazute etxe-gañean. <sup>28</sup> Ez bildurrik izan gorputza illerazi bai, ta anima eziñ illerazi dutenai; bildurrago zakiote gorputz-animak ipernurako galduazi dezakenari. <sup>29</sup> Ez al dira saltzen sos batean bi txori? Eta aietan bat ez da eroriko zuen Aitak nai ezik. <sup>30</sup> Zuen buruko ille guziak ere kontaturik daude. <sup>31</sup> Ez, bada, bildurrik euki; txoritxo askok baño geiago balio baitezute. <sup>32</sup> Gizonen aurrean aitortzen nauna, Nik ere aitortuko det zeruetako nere Aitaren aurrean; <sup>33</sup> baño gizonen aurrean ukatzen nauana, Nik ere ukatuko det zeruetako nere Aitaren aurrean.

### **Jesukristo'ri segi, kosta-ala kosta.**

<sup>34</sup> Ez uste izan lurrera pakea ekartzera etorri naizela; pakea ez-baña ezpata. <sup>35</sup> Semea aitagandik bakantzera etorri naiz; alaba amarengandik, erraña amagiarrebagandik. <sup>36</sup> Eta gizonak etxeoak ditu etsai. <sup>37</sup> Aita naiz ama Ni baño maiteago dituna, ez da Neretzat lainñ; <sup>38</sup> ta gurutzea artuta segitzen ez didana, Neretzat lainñ ez da. <sup>39</sup> Bere bi-ziaren billa dabillanak, galduko du; ta Neregatik galtzen dunak, arkituko du.

### **Ongi-Etorri onaren saria.**

<sup>40</sup> Zuek artzen zaituztenak Ni artzen nau; ta Ni artzen naunak, Ni bialdu ninduna artzen du. <sup>41</sup> Igarlea, igarle dalako artzen dunak, igarle-saria izango du; zintzoa, zintzo-antzean artzen dunak, zintzo-saria artuko du; <sup>42</sup> ta txikitxo auetako bati, nere ikasle dalako, baso bat ur otz ematen dionak, ez du, noski, bere saria galduko.

## XI

### **Joan Bataiatzailea galde. Jesus'ek erantzun.**

<sup>1</sup> Amabi ikasleai argitasunok emanda, Jesus andik aien errietara joan zan erakustera ta Berri-Ona zabaltzera. <sup>2</sup> Eta Joan'ek giltzapean aditu baitzitun Kristo'k egiñak, bere ikasleetako bi bialdu zitun galdezka: <sup>3</sup> «Zu al zera Etorrtzekoa, ala besteren baten zai egon bear degu?» <sup>4</sup> – «Zoazte, erantzun zien Jesus'ek, eta esaiozute Joan'i: <sup>5</sup> Itsuak ikusten dute, errenak ba-dabiltz, lepradunak garbitzen dira, gorrak entzuten dute, illak pizten dira, beartsuei Berri-Ona otsegiten zaie, <sup>6</sup> eta doatsu, Neri orpo egiten ez didana!»

### **Jesus'ek Bataiatzailea goratzen du.**

<sup>7</sup> Auek andik zijoazela, Jesus jendeari Joan'engaz itzegiten asi zitzaion: «Zertara atera zerate mendira? Aizeak darabillen kañabera bat ikustera? <sup>8</sup> Edo zertara atera zerate? Jantzi legunez jantzitakoren bat ikustera? Jantzi legunez jantziak, erregeen Jauregietan daude. <sup>9</sup> Zertara atera zerate, bada? Igarle bat ikustera? Bai orixe, ta Igarle baño areagoa, esango dizuet. <sup>10</sup> Onetaz dago idatzirik: *Aru, nere mandataria bialtzen dizut Nik, Zure aurretik bidea antolatzaera.* <sup>11</sup> Egi-egiz esan; semeen artean ez da sortu

Joan Batista añaikorik. Baña Zeru-errian txikiena, ua bañon aundiago da (\*).<sup>12</sup> Baña Joan Bataiatzailearen egunetatik onera, Zeru-errian bultzaka ari dira, ta bultz egiten dutenak irabazten dute,<sup>13</sup> Igarle guztiak eta Legeak, Joan'en-ganaño igerri dute.<sup>14</sup> Eta ongi artu nai ba'dezute, ua da etortzeko zan Elias.<sup>15</sup> Belarririk dunak, entzun beza.<sup>16</sup> Zerekin alderatuko det gizaldi au? Plazan eserita dauden aurak bezela da, alkarri oiuka ari baitira:<sup>17</sup> *txixtua jo dizuegu, ta etzerate dantzatu; eresiak kantatu ditugu, ta ez dezute galtzarra jo.*<sup>18</sup> Etorri zan, bada Joan, ez jan eta ez edan, eta «deabrua du» diote;<sup>19</sup> etorri zan Gizonaren Semea jan eta edan, eta «orra gizon sabeldarraio (tripazai), ardozale, zergabiltzaileen eta pekatarien adiskidea; baña zugurtasunak bere egiñez garbitu du bere burua.»

### Erri sinisgabeci errita.

<sup>20</sup> Ordun, deadar egiten asi zan, miraririk geien egin zituneko erriei:<sup>21</sup> Ai, zu, Korozain! ai, zu, Betsaida! Zue-nean egin diran mirariak Tiro'n eta Sidon'en egin ba'lira, zokuz eta autsez damua erakutsiko zenuten.<sup>22</sup> Bañan, egia esan, azken-eguna ariñago izango zaie Tiro'ri ta Sidon'i, zuei baño.<sup>23</sup> Eta zu, Kafarnaun, zeruraño altxa al zera? Lurperaño sartuko zaitue! Zurean egindako mirariak Sodom'a'n egiñ izan ba'lira, gaur arte irau zezaken.<sup>24</sup> Bañan egia esan, azken-eguna ariñago izango zaio Sodom'a'ri zuri baño.

### Atozte nigana.

<sup>25</sup> Garai artan Jesus'ek izketan asita, au esan zun: «Gorosten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauzok jakintsuei ta zugurrei izkutatu dizkiezulako, ta aurtxoai erakutsi.<sup>26</sup> Bai, Aita, orrela atsegin izan zaizu.<sup>27</sup> Aitak guzia Nere gain

utzi du, ta ez du iñork osotara ezagutzen Semea, Aitak baizik, ez eta, ez du ezagutzen Aita, Semeak baizik, eta onek ezaguerazi nai dionak baizik.<sup>28</sup> Atozte Nigana neketan eta zamapean zaudetenok, eta Nik arinduko zaituet.<sup>29</sup> Ar zazute nere uztarria lepoan, eta ikasi Nigandik biozbera ta apal izaten, eta animetan atsedena artuko dezute;<sup>30</sup> nere uztarria leguna baita, ta nere zama ariña.

## XII

### Larunbatari utsi.

<sup>1</sup> Aldi artan, Jesus landatan barna zijoan larunbatez. Ikasleak gosetu egin ziran, eta gari-buruak moxtu ta jaten asi ziran.<sup>2</sup> Pariseuak, au ikustean: «ara! esan zioten, zure ikasleak larunbatez egitea zillegi ez dana, egiten». <sup>3</sup> Bañan Ark au erantzun zien: «Ez al dezute irakurri Dabid'ek egin zuna, bera ta berekin zitunak gosetu ziranean? <sup>4</sup> Jai-naren etxean sartu zala, alegia, ta ogi eskeñiak jan zitula; ez baitzitzaien zillegi ari ta arekin zijoazenai jatea, apai-zai bakarrik ezik? <sup>5</sup> Edota, ez al dezute irakurri Legean, apaizak larunbatean, Elizan larunbata austen dutela ta ez dirala errudun? <sup>6</sup> Baña, Nik esan; ba'dago emen Eliza bañon aundiago dana. <sup>7</sup> Errukia nai det eta oparirik ez zer dan ba'zenekite, etzenukete gaiztoetsiko errugabea. <sup>8</sup> Gizonaren Semea larunbataren ere, jabe baita.

<sup>9</sup> Andik Sinagogara joan zan. <sup>10</sup> Gizon bat zegon an esku-igarra. Ta Jesus salatzeko asmoan: «zillegi al da? galdetu zioten, larunbatean sendatzea?» <sup>11</sup> — «Nor da, zuen artean, esan zien Berak, ardi bat izan, eta larunbatean zurlora erortzen ba'zaio, artuta ateratzen ez dunik? <sup>12</sup> Ardia baño gizona zenbat obe gero. Zillegi da, beraz, larunbatean on egitea.» <sup>13</sup> «Zabaldu esku ori, esaten dio ordun gizo-



nari». Zabaldu zun eta bestea bezain onik gelditu zitzaion. <sup>14</sup> Baña pariseuak irten ziran, eta Jesus galtzeko erabakia artu zuten.

### Mesias biozbera.

<sup>15</sup> Ori jakinda, Jesus'ek alde egin zun andik. Askok segitu zioten, eta guziak sendatu zitun. <sup>16</sup> Eta zorrotz agindu zien etzezatela agertuazi, <sup>17</sup> Isaias Igarlearen bidez otseginik zegona gerta zedin: <sup>18</sup> *Ona emen aukeratu dedan nere mirabea; ene biotzari atsegin zaion kutuna; Aren gañean kokatuko det Nere Arnasa, ta erriei zuzentasuna otsegingo die.* <sup>19</sup> *Ez sesiorik, ez oiurik, ez du aterako, ta iñork ez du plazeian Aren mintzorik entzungo;* <sup>20</sup> *kañabera koskatua ez du ausiko, ta keetan dagon metxa ez du itzaliko, zuzentasuna nagusi atererazi arte.* <sup>21</sup> *Jendeak Aren izena izango dute itzaropide».*

### Gezur beltza desegina.

<sup>22</sup> Ordun, deabrudun itsu ta mutu bat ekarri zioten, sendatu zun eta mutua itzegiten eta ikusten asi zan. <sup>23</sup> Erri osoak arriturik au zion: «ez ote da au Dabid'en Semea?» <sup>24</sup> Baña pariseuak, ori entzutean, onela zioten: «onek ez du deaburik uxatzen, deabruen buru dan Belzebul'en laguntzaz ezik». <sup>25</sup> Eta aien asmakeria antzemanaz, au esan zien: «Erdibiturik dagon erria, bera desegingo da; ta berregan erdibiturik dagon erria naiz etxea, ez da zuti geldituko. <sup>26</sup> Ta Satanas'ek Satanas uxatzen ba'du, bere burua erdibitzen du; <sup>27</sup> ta Nik deabruak Belzebul'en laguntzaz aizatzen ba'ditut, zuen semeak zeñen laguntzaz aizatzen ditute? Orregatik, oiek izango dituzute ebazle. <sup>28</sup> Baña Nik deabruak Jainkoaren arnasez aizatzen ba'ditut, beraz, etorri zaizue Zeru-erria. <sup>29</sup> Edota, nola sartu diteke norbait in-

dartsu baten etxera, ango gauzak lapurtzera, leenbizi indartsua lotzen ez ba'du? Ordun ustuko dio etxea. <sup>30</sup> Nere alde ez dagona, kontra dago; ta nerekin biltzen ez dunak, banatu egiten du. <sup>31</sup> Orregatik diozuet: edozein pekatu ta birau barkagarri zaie gizonai; bañan Ispirituaren kontrako biraua, ez da barkagarri. <sup>32</sup> Gizasemearen kontra itz bai esaten duanari, barkatuko zaio; bañan Ispiritu Santuaren kontra esaten duanari, etzaio barkatuko, ez mundu on'tan, ez bestean (\*). <sup>33</sup> Edo esazute arbola ona dala ta zitua ere bai, edo zugaitza ustela, ta igalia ere bai. Fruituak eza-guerazten du zugaitza. <sup>34</sup> Sugekumeak! Nola zuek itz onik egin, gaizto izanik? Biotzari dariona itzegiten du agoak. <sup>35</sup> Gizon onak, gordairu onetik gauza onak ateratzen ditu; gizon gaiztoak, ordea, gordairu txarretik gauza txarrek ateratzen ditu. <sup>36</sup> Baña Nik au esaten dizuet: «Azken-egunean, gizonak emango dute itz alper guzien kontu. <sup>37</sup> Izan ere, zure itzez on iritziko zaitute, ta zure itzez gaizto.

### Sinismenik ez dutenentzat mirariak.

<sup>38</sup> Ordun, idazlari ta pariseu batzuk, tartetik sartuta esan zioten: «Maisu, Zuk egindako mirari bat nai degu». <sup>39</sup> «Gizaldi gaizto ta loitsu onek, erantzun zien, mirari bat nai du, ta etzaio emango Jonas Igarlearen miraria baizik. <sup>40</sup> Jonas egon baitzan iru egun eta iru gau balearen sabelean, orrela egongo da Gizonaren Semea iru egun eta iru gau lurraren biotzean. <sup>41</sup> Ninibe-tarrak azken-egunean gizaldi onekin jaikiko dira, ta gaizto iritziko dute, aiek damu-nekea artu baitzuten Jonas'ek otseginarekin; eta ona emen Jonas bañon areago dana. <sup>42</sup> Egoaldeko erregeña auzi-egunean gizaldi onen kontra jeikiko da, munduaren baztarretik etorri baitzan au Salomon'en jakintasuna entzutera; ta ona emen Salomon bañon areago dana.

<sup>43</sup> Aingeru likitsa gizonaren barrundik ateratzen danean, lur zakarretan ibiltzen da atsedean billa, ta ez du arkitzen. <sup>44</sup> Ordun, «itzuliko naiz, esaten du, etorri nintzaneko etxera;» ta ara irixtean uts, garbi ta apaiñ arkitzen du. <sup>45</sup> Ordun, joanda, bera baño makurragoko beste zazpi aingeru artzen ditu, ta sartu ta an bizitzen dira; ta gizon aren azkena, aurena baño okerrago gertatzen da. Orrela gertatuko zaio gizaldi biurri oni ere».

#### Jesus'en egizko sendia.

<sup>46</sup> Jendeai itzegiten ari zala, Jesus'en Ama ta aideak atzerago zeuden, Arekin itzezin nairik (\*). <sup>47</sup> Eta batek au esan zion: «Or dituzu Ama ta aideak, Zurekin itzezin naiean». <sup>48</sup> «Baña, nor da nere Ama? erantzun zion ari, ta nortzu dira nere aideak?» <sup>49</sup> Eta ikasleengana eskua luzatuz, «ona Nik Ama ta aideak» esan zun. <sup>50</sup> Izan ere, zeruko Aitaren ala-naia egiten duna, ori det anai, arreba ta ama.

### XIII

#### Ipuiak.

<sup>1</sup> Egun artan, etxetik irtenda, Jesus itxasondoan eseri zan. <sup>2</sup> Baña gizatalde aundia bildu zitzaion, ta ontzi batean eseritzera igo zan; ta jende guzia ondarrean zegon. <sup>3</sup> Eta itz asko egin zien ipui-antzean, onela:

#### Ereillea.

«Ereille bat ereitera atera zan. <sup>4</sup> Eta, ereitean, azi puxka bat bide-ertzean erori zan; egaztiak etorrita jan egin zuten. <sup>5</sup> Beste puxka bat, arri tartean erori zan, lur askorik etze gon tokira, ta bereala erne zan, lurra axala zalako; <sup>6</sup> ba-

ñen eguzkia irten orduko zimeldu, ta zaiñik etzulako, igartu egin zan. <sup>7</sup> Beste bat astalar artean erori zan, eta azi ta ito egin zuten. <sup>8</sup> Bañan beste azia lur onean erori zan, eta uzta eman zun; batek eun, besteak irurogei, ta besteak ogeitamar. <sup>9</sup> Entzuteko belarririk dunak, entzun beza».

#### Zergatik ipuiez?

<sup>10</sup> Ikasleak, ondora etorrita: «zergatik itzegiten diezu, ipui-antzean?» esan zioten. <sup>11</sup> «Zuentzat dago, erantzun zien, Zeru-erriaren muña ezagutzea; aientzat ez. <sup>12</sup> Dunari eman-go zaio, bada, ta ugarituko; bañan ez dunari, duna ere kendu egingo zaio. <sup>13</sup> Orregatik egiten diet ipui-antzean, begiratuaz ikus ez-dezaten, eta entzunaz, ez entzun eta ez aditu dezaten. <sup>14</sup> Eta oietan gertatzen da Isaias Igarleak otsegiña: *Entzungo dute, noski, bañan ez adituko; begiratuko, ta ez ikusiko.* <sup>15</sup> *Erri oni biotza tenteldu baitzaio; belarriak gortu zaizkio, ta begiak itxi; begiz ikusi ez dezan, buruz artu ez dezan, on biurtu ez dedin; Nik sendatu ez dezadan.* <sup>16</sup> Doatsu, bada, zuen begiak, ikusten baitute, ta zuen belarriak, entzuten baitute. <sup>17</sup> Egiz esan: Igarle askok eta zintzo askok ikusi nai izan zuten zuek ikusten ari zeratena, ta etzuten ikusi; entzuten dezutena entzun nai, ta etzuten entzun.

#### Ipuia adierazia.

<sup>18</sup> Beraz, adi zazute ereillearen ipuia. <sup>19</sup> Zeru-erriko erakuskizuna entzunda aditzen ez dunari, gaiztoa dator-kio, ta biotzean ereinda zeukana kentzen dio. Au da bide-ertzean ereiña. <sup>20</sup> Arri-kazkarrean ereiña, erakutsia entzuten duna da; ta pozik artzen du bereala artan; <sup>21</sup> bañan ez du zuztarrik, aldabera baita, eta larrialdia edo jazarpena etortzean, laister oztopatzen da ikasiarekin. <sup>22</sup> Astalar

artean ereiña, erakutsia entzuten duna da; baña munduko kezak eta aberastasunaren lausoak, erakutsia ito egiten dute, ta uzta gabe gelditzen da.<sup>23</sup> Baña lur onean ereiña, erakutsia entzuten eta buruz artzen duna da, ta uzta ematen duna, naiz eun, naiz irurogei, naiz ogeitamar.

#### Muri-belarra.

<sup>24</sup> Beste ipui bat erakutsi zien onela: «Zeru-erria, landan azi ona ereiten dun gizonaren antzeko da.<sup>25</sup> Jendea lo zegola, etorri zan etsaia, ta gari-tartean muri-azia ereinda joan zan.<sup>26</sup> Baña landarea azi zanean eta burutu, agertu zan muria ere.<sup>27</sup> Nagusiaren morroiak, urbilduta au esan zioten: «Jauna, ez al zenun erein azi ona zure landan? Nundik du bada murita?»<sup>28</sup> – «Etsaiak egin du ori», esan zien. – «Nai al dezu bildu dezagun?» esaten diote morroiak.<sup>29</sup> – «Ez, esaten die; ez dedilla gertatu, muria biltzean garia ere batean atera dezazuten.<sup>30</sup> Utziezute bie azitzen igite-orduraño, ta itatzekoan esango diet itariei: «bildu leenik muria, ta lotu zazute baletan, sutarako, ta garia bildu zazute nere mandiorako».

#### Bas-arbia ta legamia.

<sup>31</sup> «Zeru-erria bas-arbi antzera da. Artzen du gizonak, eta ereiten du bere soroan (\*).<sup>32</sup> Azi guzietan txikiena da: bañan azitzean, eltzekaririk aundiena da, ta zugatz egiten da; zeruko egaztiak aren adarretan kabi egitera ere etorzen baitira».

<sup>33</sup> Beste alegi bat jalki zien, onela: «Zeru-erria legamiaren antzera da; emakume batek iru lakari iriñetan sartzen du, guzia arrotu dedin arte».

<sup>34</sup> Jesus'ek guzi auk ipui-antzean esan zizkien jendeai, ta ipuirik gabe etzien itzegiten,<sup>35</sup> Igarlearen bidez

otsegindako au bete zedin: *Ipuietan irikiko det agoa; agertuko det, munduaren asieratik gorderik zegona.*

#### Muri-belarraren ipuia adierazia.

<sup>36</sup> Ordun, jendeak bialduta, etxera etorri zan, eta ikasleak ondora zitzaizkion, ziotela: «Adierazi iguzu landako muriaren mamia».<sup>37</sup> – «Azi ona ereiten duna, erantzun zien, Gizonaren Semea da.<sup>38</sup> Soroa, mundua da; azi ona, Zeru-erriko semeak; murita, gaiztoaren semeak;<sup>39</sup> ereiten dun etsaia, deabrua; uzta-biltzea, munduaren azkena, ta igitariak, Aingeruak.<sup>40</sup> Murita bilduta sutan erretzen dan bezela, ala izango da munduaren azkena.<sup>41</sup> Gizonaren Semeak bialduko ditu bere Aingeruak, bilduko ditute Errege-errian diran gaiztagin guziak,<sup>42</sup> eta su-labera botako ditute; an izango da negarra ta ortz-karraska!<sup>43</sup> Ordun zintzoak eguzkiak bezela argi egingo dute Aitaren errian. Entzuteko belarririk dunak, entzun beza.

#### Gordairua, txirla-arria ta sarea.

<sup>44</sup> Zeru-erria, soroan gordetako gordairua bezela da. Gizonak arkitzean izkutatu egiten du, ta pozez beterik, joanda dun guzia saltzen du, ta soro ua erosten.<sup>45</sup> Baita, Zeru-erria, txirla-arri eder billa dabillen merkataria bezela da.<sup>46</sup> Balio aundiko bat arkitzean, dun guzia saldu, ta erosi egiten du.<sup>47</sup> Are, Zeru-erria, itxasora botatzen dan sarea bezela da, mota guzietako arraiak atxitzeko;<sup>48</sup> betetzen danean, ondarrera ateratzen dute, eseri, ta onak saskira ta txarrak baztarrera botatzen ditute.<sup>49</sup> Orrela izango da munduaren azkena. Aterako dira Aingeruak; zintzoengandik gaiztoak bakantzera,<sup>50</sup> ta su-labera botako ditute: an izango da negarra ta ortz-karraska! Entenditzen al-dituzute guza guziok?»<sup>51</sup> – «Bai, Jauna», esan zioten.

<sup>51</sup> – «Orregatik, esan zien Jesus'ek, Zeru-errian jakintsu dana, bere gordairutik zaar eta berri ateratzen ditun etxe jaun baten antzeko da.»

### Nazaret'eko Sinagogan.

<sup>53</sup> Ipuiak bukatzean, alde egin zun Jesus'ek andik. <sup>54</sup> Eta bere sorterrira etorririk, Sinagogan ari zan erakusten, ta guziak arriturik zioten: «Nundik onek jakintasun ori ta mirari oiek? <sup>55</sup> Ez al-da au zurginaren semea? Onen ama ez al-da Mari, ta senideak Santiago, Jose, Simon eta Judas? <sup>56</sup> Eta arrebak ez al-daude guziak gure artean? Nundik, bada, oni guzi au?» <sup>57</sup> Eta orpo egiten zioten. Baña Jesus'ek au esan zien: «Igarlerik ospe gabe ez dago, bere sorterrian eta etxean ezik». <sup>58</sup> Eta etzun mirari askorik egin, aien sinisgabeagatik.

## XIV

### Joan Bataiatzailea'ren eriotza.

<sup>1</sup> Garai artan, Erodes laurden-buruak entzuna zeukan Jesus'en izen ona, <sup>2</sup> ta Jauregikoai au esan zien: «Joan Bataiatzailea da, illen artetik piztua, ta orregatik du oinbeste mirari egiteko eskua». <sup>3</sup> Erodes'ek, alegia, Joan atzi-loturik, kateatu egin zun eta giltzapean sartu, bere anai Pilipo'ren emazte Erodiás'engatik. <sup>4</sup> Au esaten baitzion Joan'ek: «etzaizu zillegi emakume ori edukitzea». <sup>5</sup> Ta ille-razi nairik, erriaren bildur zan, Igarletzat baitzeukaten. <sup>6</sup> Bañan Erodes'en urtebetetze egunean, Erodiás'en alabak dantzán egin zun guzien aurrean; <sup>7</sup> eta ainbeste gustatu zitzaion, ziñ ere egiñez agindu zion, zer-nai eska, emango ziola. <sup>8</sup> Neskatxak, amak zirikatuta: – «ekatzu, esan zion, onako azpil ontan, Joan Bataiatzailearen burua. <sup>9</sup> Erregea

triste jarri zan; baña zin egin zulako, ta mai-lagunengatik, eman zediola agindu zun; <sup>10</sup> eta Joan'i giltzapean lepoa moztuerazi zion. <sup>11</sup> Aren burua azpil gañean ekarrita neskatxari eman, eta onek amari eman zion. <sup>12</sup> Etorri ziran aren ikasleak, gorputza artu, ta lurpean sartu zuten; gero Jesus'i berri ematera joan ziran.

### Lenengoz ogiak ugaritu.

<sup>13</sup> Berri onekin, Jesus'ek alde egin zun andik ontzi batean, baztar batera bakarrik; eta jendea konturatu zanean, oñez etorri zitzaion errietatik. <sup>14</sup> Atera ta jendaldea ikustean, kupitu zitzaion, eta zituten gaxoak sendatu zizkien. <sup>15</sup> Ikasleak, ondora zitzaizkion arratsaldean, eta; – «toki au baztarra da, esan zioten, eta ordua joana; bial zazu jendea balleretara, joanda jatekoa erosi dezaten». <sup>16</sup> – «Ez dute joan-bearrik, esan zien Jesus'ek; emaezute jaten». <sup>17</sup> – «Emen ez degu, esaten diote, bost ogi ta bi arrai berterik». <sup>18</sup> – «Ekatzizute onera, esan zien». <sup>19</sup> Eta jendea larratzean eseriaz ta, bost ogiak eta bi arraiak artu, begiak zerura jaso, bedinkatu, ogiak puskatu, ta ikasleai eman zizkien, eta auek jendeari. <sup>20</sup> Guziak jan zuten asetzeraño, ta sobratu ziran puskakin, amabi saski bete bildu zituten. <sup>21</sup> Jan zutenak bost milla bat gizon ziran, emakume ta aurrak ezik.

### Itxasoan oñez.

<sup>22</sup> Bereala ikasleak ontzian sarrerazi zitun, eta aurrea artuazi zien beste ertzero, Berak gizataldea bialtzen zun bitartean. <sup>23</sup> Jendea bialduta, mendira igo zan bakarrik, otoitz egitera. <sup>24</sup> Arratsaldean bakarrik zegon an. Ontzia berriez, itxas-erdian, olatuak danbaka zerabilten, aizea aurpegira baitzetorkien. <sup>25</sup> Laugarren gaurdian (\*), Jesus aien-

gana joan zan, itxasoan oñez. <sup>26</sup> Bañan ikasleak, Ua itxasoan oñez ikustean, ikaratuta zioten: - «Irudituzkoa dek», eta bildurrez oiuka asi ziran. <sup>27</sup> Baña Jesus'ek bereala itzegin zien: «ezazute biotz! Ni naiz; ez bildur izan!» <sup>28</sup> - «Jauna, erantzun zion Pedro'k: Zu baldin ba'zera, etorriazi nazazu uraren gañean Zugana». <sup>29</sup> - «Atoz, esan zion; eta Pedro, ontzitik jetxita, uren gañean Jesus'engan zijoan. <sup>30</sup> Bañan aize zakarra sumatzean, ikaratu egin zan, eta murgiltzen asirik, «Jauna, oiue egin zun, atera nazazu». <sup>31</sup> Bereala Jesus'ek, eskua luzatuta eldu zion, eta: - «siniste gutxiko gizona, esaten dio, zergatik ezbaiegon?» <sup>32</sup> Biok ontzira igotzean, aizea gelditu egin zan, <sup>33</sup> eta an zeudenak auspez jarri zitzaizkion esanez: «Jainkoaren Semea zera, noski.»

#### Genesaret'en sendaketa.

<sup>34</sup> Itxas-adarra igarota, Genesaret aldera etorri ziran. <sup>35</sup> Ango jendeak Bera ezagutu zutenean, lurralde guzi artan berria zabaldu zuten ta zituten gaxoak ekarri zizkieten, <sup>36</sup> ta Ari soñeko-ertza bederik ikutzea eskatzen zuten; eta ikutu zuten guziak, sendaturik gelditu ziran.

## XV

#### Itxurati edo azal-utsak.

<sup>1</sup> Ordun pariseu ta idazle batzuk urbildu zitzaizkion Jerusalem'dik, au esanez: <sup>2</sup> «Zure ikasleak zergatik austen dute aurrekoen oitura? jaterako ez baitute eskurik garbitzen». <sup>3</sup> Baña Jesus'ek erantzun zien: - «Zergatik austen dezute zerok zuen oituragatik Jainkoaren agindua?» <sup>4</sup> Jainkoak esana baita: «gora etzazu aitamak; eta, aita naiz ama biraoka darabiltzana, il bedi». <sup>5</sup> Zuek, ordea, au diozute:

Aitari naiz amari «neretik protxuzko zenukena Jainkoari sagaratu diot» esaten dionak, <sup>6</sup> ez du ez aita ez ama goratu bearrik. Orrela ematen dezute uts Jainkoaren agindua zuen oituragatik (\*). <sup>7</sup> Azal-utsak! Ongi otsegin zun zuengatik Isaias Igarleak: <sup>8</sup> «*Erri onek ezpañez goratzen nau; baña biotza Nigandik urrutu dauka;* <sup>9</sup> *alperrik goresten naute giza-aginduak erakutsiz.* <sup>10</sup> Eta jendea Beregana deituz: «entzun eta aditu, esan zien, <sup>11</sup> agotik sartzen danak ez du gizona zikintzen; agotik ateratzen danak, bai, orrek zikintzen du gizona. <sup>12</sup> Ordun ikasleak ondoratuta: «bai al dakizu, esan zioten, pariseuak zure itzok entzunda mindu egin dirala?» <sup>13</sup> - «Nere Aitak landatu ez dun landare, erantzun zien, zañetik aterako dute. <sup>14</sup> Utzizute; itsu daude ta itsu-mutil dira. Ta itsu bat beste itsu baten mutil baldin ba'dijoa, biak zulora eroriko dira». <sup>15</sup> - «Azaldu iguzu ipui au, esan zion Pedro'k». <sup>16</sup> Eta Jesus'ek: «oraindik zozopil al zerate? <sup>17</sup> Ez al dakizute agotik sartzen dan guzia sabelera jetxi, ta simaurgira botatzen dala? <sup>18</sup> Bañan agotik irteten dana, biotzean sortzen da, ta orrek zikintzen du gizona. <sup>19</sup> Biotzetik datoz asmo txarrak, gizon-iltze, ezkontza-naaste, loikeri, lapurreta, gezur-aitor, biraok. <sup>20</sup> Oiek zikintzen dute gizona; bañan eskuak garbitu gabe jateak, ez du inor kutsatzen».

#### Galilea'tik kanpo.

<sup>21</sup> Andik irtenda, Jesus Tiro ta Sidon alderdietara baztatu zan. <sup>22</sup> Eta ara nun, emazte kanaandar bat inguru aietatik aterata oiuka asi zitzaion: «erruki zaite nitaz, Dabid'en Seme Jauna! nere alaba deabruak oñazeka darabil». <sup>23</sup> Bañan Jesus'ek etzion itzik erantzun. Ikasleak, ondoratuz: «bial zazu emakume ori, esaten zioten, oiuka gure atzetik baitator». <sup>24</sup> Jesus'ek au erantzun zien: «Israel-ctxeko ardi galduetara bialdua naiz; ez bestetara». <sup>25</sup> Bañan

andreak etorrita auspezturik esan zion: «Jauna, lagun zaidazu». <sup>26</sup> «Ez da eder, erantzun zion Jesus'ek, semeen ogia artuta txakurrai botatzea». <sup>27</sup> «Arek orduan: «Egia, Jauna, baña txakurxoak ere jaten ditute nagusien maietirik erortzen diran apurrak» (\*). <sup>28</sup> «Emakume, esan zion orduan Jesus'ek; aundia da zure siñismena. Gerta bekizu gogo dezuna.» Ta orduketik sendaturik gelditu zan alaba.

#### **Beste sendaketa batzuk.**

<sup>29</sup> Andik aldegin, Jesus Galilea'ko itxas-ertzera joanda, mendira igo zan, eta an eseri. <sup>30</sup> Jende asko ondora ziztaion, erren, itsu, gor, besamotz eta beste, ekarriz; ofiztan jarri zizkioten eta sendatu egin zitun. <sup>31</sup> Jendea arri-turirik zegon, mutuak mintzaten, besamotxak besodun, erre-nak ibiltzen, itsuak argi ikusita. Eta Gora! esaten zuten Israel'go Jainkoa.

#### **Bigarren aldiz ogiak ugaritu.**

<sup>32</sup> Jesus'ek ikasleai dei eginda: «kupitzen nau jende onek, esan zien; iru egun ba-dira Nerekin dabiltzala; ez dute ezer jan eta ez ditut baraurik bialdu nai, bidean akitu ez ditezen». <sup>33</sup> – «Nundik bildu mendian, esaten diote ikasleak, oinbeste jende asetzeko aiña ogi?» <sup>34</sup> – «Zenbat ogi dituzte?» esan zien Jesus'ek. – «Zazpi ta arraitxo batzuk», erantzun zioten. <sup>35</sup> Jendea escriazi zun lurrean, <sup>17</sup> artu zitun zazpi ogiak eta arraiak, eskerrak eman, zatitu, ta ikasleai eman zizkien, eta auek jendeari. <sup>37</sup> Guziak jan zuten, ase ziran, eta ondakin puskekin, zazpi saski bete, bildu zituzten. <sup>38</sup> Lau milla gizon ziran jan zutenak, emakume ta aurrak alde. <sup>39</sup> Jendea bialdu, ontzira igo, ta Madagan'go mugetara joan zan.

## XVI

#### **Zeruko ezaugarri eske.**

<sup>1</sup> Etorri ziran pariseu ta saduzeuak Ua zirikatzer, ta zeruko ezaugarri bat eskatu zioten. <sup>2</sup> «Arratsaldean, erantzun zien, «Arras-gorri, biar eguraldi» diozute; <sup>3</sup> eta goizean, «goiz-gorri, arrats-iturri». Zeru-aurpegiari antzematen diozute, ta etorkizunaren ezaugarriari ez? <sup>4</sup> Gizaldi gaizto ta sasiko au ezaupide billa dabil, bañan etzaio eman-go Jonas'en siñalea baizik». Aiek utzita joan egin zan.

#### **Pariseuen eta saduzeuen legamia.**

<sup>5</sup> Ikasleak beste ertzera ziranean, ogia eramate aaztu zitzaion. <sup>6</sup> Jesus'ek: «begira, esan zien, zaudete erne pariseuen eta saduzeuen legamiarekin». <sup>7</sup> Aiek beren artean. «ogirik ez baitegu ekarri, zioten». <sup>8</sup> Jesus'ek igerrita esan zien: «Zer ari zerate zuen artean ogirik ez dezutela, siñiste gutxiko gizonok? <sup>9</sup> Oraindik ez al-dezute ulertzen eta ez al-zerate gogoratzen bost milla gizonen eta bost ogiena, ta zenbat saski bildu zenituzten? <sup>10</sup> Eta lau milla gizonen zazpi ogiena, ta zenbat saski bildu zenituten? <sup>11</sup> Ez al diozute igerritzen, erne pariseuen eta saduzeuen legamiarekin esan nizueta, ta ez nula ogirik aitatu?» <sup>12</sup> Ordun konturatu ziran, ogi-legamiz ez-baña pariseuen eta saduzeuen crakutsiz esan ziela.

#### **Pedro'k Kristo aitortu.**

<sup>13</sup> Jesus Pilipo Zesarea alderdira joanda, au galdetzen zien ikasleai: «Gizonaren Semea nor dala diote jendeak?» <sup>14</sup> – «Batzuk Joan Bataiatzaillea, erantzun zioten; besteak Elias, besteak Jeremias edo Profetaren bat». <sup>15</sup> – «Eta zuek, esaten die Jesus'ek, nor naizela diozute?» <sup>16</sup> – «Kristo zera Zu, esan zion Simon Pedro'k tartetik; Jainko biziaren Se-

mea». <sup>17</sup> – «Doatsu zu, Simon Bar Yona, erantzun zion Jesus'ek: aragiak eta odolak ez-baña zeruetako Aitak erakutsi dizu ori. <sup>18</sup> Nik, berriz, Arkaitz zerala diozut zuri, ta arkaitz orren gañean altxako det nere Eliza, ta inpernuko atea etzaizkio nausituko (\*). <sup>19</sup> Ta zeru-erriko giltzak zuri emango dizkitzut, eta zuk lurrean lotzen dezuna, zeruan loturik geldituko da; ta lurrean askatzen dezuna, zeruan ere askatua». <sup>20</sup> Ordun ikasleai, Kristo zala iñori ez esateko agindu zien.

#### **Pasicaren berri aurretik.**

<sup>21</sup> Ordutik asi zan Jesus ikasleai esaten, Jerusalem'a joan bearra zala, ta zaar, apaizburu ta idazlariengandik neke asko ta eriotza jasan ondoren, irugarren egunean piztu bear zula. <sup>22</sup> Ta Pedro'k aparte artuta desapio-antzean esan zion: «ez, arren, Jauna, etzaizu olakorik gertatuko». <sup>23</sup> Bañā Jesus'ek itzulita: «Utikan, Satan! esan zion Pedro'ri, oztopogarrri zakit; Jainko-gauzen susmorik ez-baña giza-gauzena baidezu». <sup>24</sup> Ordun esan zien Jesus'ek bere ikasleai: «Nere ondoren etorri nai dunak, uka beza bere burua, artu beza bere gurutzea ta segi bezait. <sup>25</sup> Bere burua onik atera nai dunak, galdu egingo du, baña Nigatik bizia galtzen dunak, arkitu egingo du. <sup>26</sup> Bestela, zertarako litzaioke gizonari mundu guzia irabaztea, bere burua galduko ba'lu? Edota, zer emango du gizonak bere buruaren orde? <sup>27</sup> Gizonaren Semea Aitarean argitasunean etorriko baita Aingeruekin, eta ordun emango dio bakoitzari, egin ditunen saria. <sup>28</sup> Egiz esan: ba-dira emen daudenetako batzuk, Gizonaren Semea Zeru-errira etorri arte ilko ez diranak.

## XVII

### **Jesus itxuraldatu.**

<sup>1</sup> Sei egunez gero, Jesus'ek Pedro, Santiago ta anaia Jon berekin artu, ta mendi garai batera eramán zitun, <sup>2</sup> eta itxuraldatu egin zan aien aurrean. Aren aurpegia eguzkiak bezela argi egin zun, eta Aren jantziak argia bezain zuri biurtu ziran. <sup>3</sup> Ontan, Moises eta Elias agertu ziran Areen izketan. <sup>4</sup> Eta Pedro'k, tartetik: «Jauna, esan zion Jesus'i; on zaigu emen gelditzea. Nai ba'dezu, egin ditzagun emen iru txabola: bata Zuretzat, bestea Moises'entzat, bestea Elias'entzat». <sup>5</sup> Izketan ari zala, odei argi batek estali zitun, eta odeietik mintzo batek au zion: «Auxe da, atsegin zaidan nere Seme kuttuna: entzuiozute». <sup>6</sup> Au entzutean, ikasleak auspez erori ziran bildur-ikaraz. <sup>7</sup> Jesus ondora zitzaien, eta ikutuz au esan zien: «zuti zaitezte ta ez bildur izan». <sup>8</sup> Aiek begiak altxata etzuten iñor ikusi, Jesus besterik. <sup>9</sup> Menditik jeixtean, «ez esan iñori ikuskari au», agindu zien Jesus'ek, Gizonaren Semea illen artetik piztu dedin arte.

<sup>10</sup> «Zergatik, bada, diote idazlariak, galdegin zioten ikasleak, Elias leenik etortzekoa dala?» <sup>11</sup> – «Elias bada-tor, noski, erantzun zien, guzia eraberritzera. <sup>12</sup> Eta are diozuet: Elias etorri zan, eta etzuten ezagutu; osterā nai zutena egin zioten. Orrela Gizonaren Semeak ere aien aldetik nekeak artuko ditu». <sup>13</sup> Ordun konturatu ziran Joan Bataiatzailearengaz itzegin ziela.

### **Erori-miña zun mutikoa.**

<sup>14</sup> Aiek gizataldeagana urbiltzean, gizon bat ondora etorritā aurrean belaunikatu zitzaion esanaz: <sup>15</sup> «Jauna, erruki zakio nere semeari, erori-miña baitu, ta oso gaizki dago. <sup>16</sup> Askotan sutara erortzen da ta maiz uretara; Zure

ikasleai ekarri diet, eta ezin sendatu izan dute». <sup>17</sup> «Gizakume siñisgoror eta biurriak! esan zien Jesus'ek; noiz arte nagoke zuekin? noiz arte supritu bear zaituet? Ekaidazute onera». <sup>18</sup> Jesus'ek errita egiñez deabrua atera zion, eta mutikoa ordutixe sendaturik gelditu zan. <sup>19</sup> Ordun ikasleak, Jesus'engana aparte bildurik: «zergatik, galdetu zioten, guk eziñ uxatu izan degu?» <sup>20</sup> «Zuen siñiste urriagatik, esan zien. Egia esan, basarbiaren azia aiñako fedea ba'zenute, mendi oni «oa emendik ara» esango zeniokete, ta aldatuko litzake, ta eziñik etzendukete izango. <sup>21</sup> Baña deabru-mota au, otoitzak eta barauak bestek ez du aizatzen.

#### **Bigarren aldiz Pasiocaren berri.**

<sup>22</sup> Galilea'n barna zebiltzala, au esan zun Jesus'ek: «Gizonaren Semea gizonen eskuetan utziko dute, <sup>23</sup> ilko dute, ta irugarren egunean piztuko da». Eta biziro goibeldu zan.

#### **Eliz-dirua.**

<sup>24</sup> Kafarnaun'a irixtean, diru-biltzailleak Pedro'ri urbildu zitzaizkion onela: «Zuen Maisuak ez al-du ordaintzen didrakma? (\*). <sup>25</sup> – «Bai», erantzuten du. Eta etxera ziranean, Jesus aurreratu zitzaion esanaz: «zer derizkiozu, Simon; munduko erregeak nortzuegandik lakatzen ditute pagabearrak: beren semeengandik, ala arrotzengandik?» <sup>26</sup> – «Arrotzengandik, erantzun zion». – «Beraz, semeak libre daude, esan zion Jesus'ek. <sup>27</sup> Bañan okasiorik ez jartzeagatik, zoaz itxasora amua botatzera, ta igotzen dan leenengo arraia atera ezazu, iriki iozu agoa, ta an *estater* bat arkituko dezu (\*). Artu ta emaezu nere ta zuen aldetik».

## XVIII

#### **Zeru-errian nor aundiena?**

<sup>1</sup> Une artantxe, ikasleak Jesus'i ondora zitzaizkion, onela: «zein da, bada, aundiena Zeru-errian?» <sup>2</sup> Eta aur bati dei egiñik, erdian ipiñi zun au esanez: <sup>3</sup> «Egia esan; aldatzen ez bazerate, ta aur bezela biurtzen, etzerate sartuko Zeru-errian. <sup>4</sup> Beraz, aur au bezain txiki biurtzen dana, ori sartuko da Zeru-errian. <sup>5</sup> Ta olako aur bat nere izenean artzen dunak, ni artzen nau.

#### **Eskandaloa.**

<sup>6</sup> Ni siñisten nauten txikitxo auetako bati gaizta-bidea erakusten dionari, obe litzaioke asto-errotarri bat zintzilikajari lezaioten, eta itxaso zabalean pulunpatu lezaten. <sup>7</sup> Zorigaitz munduari eskandaloangatik! Eskandaloak etorriko dira, noski, baña, doakabea, eskandaloa dakarren ua! <sup>8</sup> Beraz, zure eskuak naiz oñak bide gaiztora eramaten ba'zaitu, ebaki ta bota zazu zuregandik. Obe zaizu bizira besamotx edo erren sartu, bi esku ta bi begirekin betiko sutara bota zaitzaten baño (\*). <sup>9</sup> Eta zure begiak gaiztora ba'zarama, atera zaiñetik eta bota; obe zaizu bizira begibakar sartzea, bi begiekin ipernuko sutara bota zaitzaten baño. <sup>10</sup> Begira, ez gutxitzate euki txikitxo auetako bat ere; egia esan, auen Aingeruak beti nere Aitaren aurpegia ikusten ari dira. <sup>11</sup> Gizonaren Semea, galdu zana salbatzera etorri baita».

#### **Ardi galdua.**

<sup>12</sup> Zer deritzazute? Gizon batek eun ardi baldin ba'ditu, ta bat bidegaltzen ba'zaio, ez al-ditu beste larogei ta emeretziki mendian utziko, ta ez al-da bazartuaren billa joango? <sup>13</sup> Ta arkitzen ba'du, geiago poztuko da, noski



arengatik, bazartu etziran larogei ta emeretziengatik baño.  
<sup>14</sup> Ala, bada, zeruko zuen Aitak ez du nai txikitxo aueta-ko bat ere galdu dedin.

#### **Ancia zentzaraztea.**

<sup>15</sup> Beraz, anaiak uts egin ba'du, zoazkio ta egiozu erri-tan aparte. Aditzen ba'dizu, senidea irabazi dezu. <sup>16</sup> Ba-ñan aditzen ez ba'dizu, artu etzazu oraindik bat edo bi zurekin, bi edo iru testiguren agoz auzia garbitu dedin. <sup>17</sup> Eta aditzen ez ba'die, esaiozu Elizari; ta Elizari ere adi-tzen ez ba'dio, bekizu arrotz eta diru-biltzaille bezela. <sup>18</sup> Egia esan; zuek lurrean lotzen dezutena, zeruan ere lotu-rik geldituko da; ta zuek lurrean askatzen dezutena, zeruan ere askaturik geldituko da.

#### **Otoitza elkarrekin.**

<sup>19</sup> Egia esan, berriz ere: zuetan bik lurrean alkar artzen ba'dute, edozer eskatzeko, zeruko Aitak emango die. <sup>20</sup> Bi edo iru nere izenean bildurik ba'daude, an nago Ni, aien erdian.

#### **Morroï kupira-gabea.**

<sup>21</sup> Ordun Pedro'k urbilduta onela galdegin zion: «Jau-na, zenbat aldiz barkatuko diot anaiari, nerekin utsegiten ba'du? Zazpi aldiz? <sup>22</sup> Eta Jesus'ek: «zazpi aldiz ez-baña zazpitan zazpi amar aldiz (\*). <sup>23</sup> Orregatik Zeru-erria, mor-roiekin kontuak atera nai zitun errege baten antzeko da. <sup>24</sup> Kontu-garbiketean asi orduko, amar milla talentu zor ziz-kion bat ekarri zioten (\*). <sup>25</sup> Ezin ordaindu baitzitun, saldu zezatela agindu zun Jaunak, bera, andre, aur eta zituana-kin zorra pagatzeko. <sup>26</sup> Ordun morroiak, auspezturik: «eza-zu gibel nerekin, esaten zion; guzia ordainduko dizut».

<sup>27</sup> Errukiturik, Jaunak joaten utzi zion eta zorra barkatu zion. <sup>28</sup> Bañan andik ateratzean, morroi arek, eun dena-ric zor zizkion lagunetako batekin topo egin zun (\*). Eldu zion itokarrean, «paga zak zor dekana» esanez. <sup>29</sup> Lagunak, auspezturik: «arren, esaten zion: ezazu gibel nerekin, eta ordainduko dizut. <sup>30</sup> Bañan arek etzun nai, ta giltzapean sartu zun zorra ordaindu arte. <sup>31</sup> Aren lagunak, gertatu za-na ikusirik, biziro sumindu ziran, eta gertatua nagusiari esatera joan ziran. <sup>32</sup> Ordun nagusiak, dei eginda au esa-ten dio: «Morroi biurria! zor guzi ua barkatu nian eska-tu idalako. <sup>33</sup> Ez al uan ik lagunaz kupitu bear, ni itzaz kupitu nintzan bezela?» <sup>34</sup> Ta nagusiak, asarreturik, oña-zeak antzera bialdu zun zor guzia ordaindu zezan arte. <sup>35</sup> Orrela egingo du zuekin zeruko Aitak ere, bakoitzak be-re anaiari biotzez barkatzen ez ba'dio.

## XIX

#### **Ezkontzea ta gai gelditzea.**

<sup>1</sup> Jesus'ek, itzaldiok bukatuta, alde egin zun Galilea'tik, eta Judea mugetara joan zan, Jordan'ez beste aldera. <sup>2</sup> Gi-zalde aundiak segitu zion, eta an sendaketak egin zitun. <sup>3</sup> Pariseu batzuk, ondora etorrira zer-atera asi zitzaizkion: «zillegi al da emaztea zapuiztea edozergatik?» <sup>4</sup> – «Ez al de-zute irakurri, esan zien, Jainkoak leenbizi arr-emeak egin zitula? <sup>5</sup> eta au esan zula: *orregatik gizonak aitamak utzi-ko ditu, ta emazteari lotuko zaio, ta biak aragi bat izango dira.* <sup>6</sup> Beraz, bi ez-baña, aragiz bat dira. Ta, Jainkoak bat egiña, gizonak ez beza bakandu». <sup>7</sup> Aiek ostera: «Nolatan agindu zun, bada Mois'ek, zapuiztagiria emanda bizi-alar-gun uzteko?» <sup>8</sup> – «Zuen biotz gogorragatik, erantzun zien, utzi zizuen emazteari zapuiztagiria ematea; baño leenbi-».

zitik ez zan ola. <sup>9</sup> Beraz, au esaten dizuet: emaztea zapuiz-  
ten dunak, loikeriagatik ezik, eta beste batekin ezkondu,  
loikeri egiten du; ta loikeri egiñarekin ezkontzen danak,  
ezkontza naasten du». <sup>10</sup> – «Onela ba'da senar-emazteekiko  
auzia, esaten diote ikasleak, ez du balio ezkontzeak». <sup>11</sup>  
Baña Jesus'ek au esan zien: «askori etzaie buruan sartzen  
erakutsi au, eman zaienai ezik. <sup>12</sup> Ba-dira, bada, amaren  
sabeletik xikiro jaiok, eta ba-dira bestek txikiratuak, eta  
baita, Zeru-erriagatik berak berena txikiratu dutenak. Adi-  
tu dezakenak adi beza».

#### Jesus aurrekin.

<sup>13</sup> Ordun aur batzuk ekarri zizkioten, aiei eskuak eza-  
rr: ta otoitz egin zezaien. Eta ikasleak errita egin zioten.  
<sup>14</sup> Baña Jesus'ek au esan zien: «Utziezute aurrei, ta ez era-  
gotzi Nigana etortzen, olakoena baita Zeru-erria». <sup>15</sup> Ta  
aiei eskuak ezarririk, alde egin zun.

#### Aberatsen arrixkua.

<sup>16</sup> Eta batek, ondora etorrira esan zion: «Maisu, zer  
onik egingo det betiko bizia irixteko»? <sup>17</sup> Eta Jesus'ek:  
«Onaz zer galdetzen didazu? Bat bakarra da ona: Jainkoa;  
bizian sartu nai ba'dezu, gorde aginduak». <sup>18</sup> – «Zein-  
tzuk?» esaten dio. Eta Jesus'ek: *Ez iñor il, ez loikeririk  
egin, ez lapurtu, ez atera iñoren gezur-testigu; <sup>19</sup> aitamai  
begirune iezu, maita zazu lagun urkoa zere burua bezala.*  
<sup>20</sup> – «Guziok gorde ditut, diotsa gazteak. Zer det are egi-  
tekoirik?» <sup>21</sup> – «On guzizko izan nai ba'dezu, diotsa Je-  
sus'ek, zoaz, saldu, dezun gordairua; eta atoz, Neri jarrai. <sup>22</sup> Itz  
izango dezu zeruan gordairua; eta atoz, Neri jarrai. <sup>22</sup> Itz  
oekin goibel joan zan gaztea, ondasun asko baitzitun.  
<sup>23</sup> Eta Jesus'ek ikasleai: «Ziñez esan, aberatsa nekez sartu-

ko da Zeru-errian. <sup>24</sup> Are esan: errezago da ganbelu bat  
jostoratzaren begitik pasatzea aberats bat Zeru-errian sar-  
tzea baño». <sup>25</sup> Au aditzean, ikasleak arriturik zioten: «Nor  
salbatu diteke?» Jesus'ek begiratuz esan zien: <sup>26</sup> Gizonai  
au eziña zaie; Jainkoarentzat, ordea, eziñik ez da».

#### Beartsuei zeruan saria.

<sup>27</sup> Ordun Pedro'k artetik: «Ona emen gu, ditugunak  
utzita zure segi. Zer izango da guretzat?» <sup>28</sup> – «Egitan dio-  
zuet, esan zien Jesus'ek: neri jarraitu zenidatenak, piztu-  
tzean, Gizonaren Semea bere Jaun-alkian esertzen danean,  
zuek ere eseriaziko zaitue amabi alkitan, Israel'go amabi  
leiñuak epaitzen. <sup>29</sup> Eta naiz etxe, naiz senide, guraso, se-  
me, naiz soro, nere izenagatik uzten ditunak, eun alako  
artuko du, ta betiko bizia irixtiko. <sup>30</sup> Eta leenengo asko  
azken izango dira, ta azkenak leenen.

## XX

#### Maastiko langilleak.

<sup>1</sup> Zeru-erria ola da: goiz goizetik bere maastirako lan-  
gilleak saritan artzera atera zan etxe-jauna bezela. <sup>2</sup> Egu-  
neko denario bana langilleekin itza artuta, bere maastira  
bialdu zitun. <sup>3</sup> Atera zan irugarren orduan (\*), eta beste ba-  
tzuk ikusi zitun enparantzan geldi, ta: <sup>4</sup> «zoazte zuek ere  
nere maastira, esan zien, eta bidezko dana emango di-  
zuet». <sup>5</sup> Bai aiek joan ere. Berrira atera zan seigarren eta  
bederatzigarren orduan, eta beste oinbeste egin zun. <sup>6</sup> Eta  
amaikagarrena aldean, beste batzuk arkitu zitun alper, eta:  
«zer zaudete eman, esaten die, egun guzian alperrik?»  
<sup>7</sup> Eta aiek: «iñork ez baikaitu saritan artu». – «Zoazte, ba-  
da, esan zien, zuek ere nere maastira». <sup>8</sup> Arratsaldean maas-

ti-jabeak bere morroi-nagusiari au esan zion: «Dei egiek langilleai, eta paga zaielik saria, azkenekoz aurrera». <sup>9</sup> Ta amaikagarren ordukoak etorrira, denario bana jaso zuten. <sup>10</sup> Lenengoak etortzean, geiago izango zutela uste zuten; bañan aiek ere denario bana artu zuten. <sup>11</sup> Eta jasotzean, marmarizka asi ziran nagusiaren aurka: <sup>12</sup> «Azken auek ordubete bakarra ari izan dira, ta gurekin berdin egin dituzu, egun osoko nekea ta beroa eraman ditugunokin». <sup>13</sup> Bañan arek aietako bati: «adiskide, esan zion, ez dizut bidegaberik egin. Ez al giñan izketatu denario batean? <sup>14</sup> Ar zazu zurea, ta zoaz. Bañan azken oni, zuri aña eman nai diot. <sup>15</sup> Ez al dezaket egin, nai dedana neronenarekin? Edota begi gaiztoz ikusten al dezu ni on izatea? <sup>16</sup> Oñela, azkenak leenen izango dira, ta leenak azken».

#### **Pasioa gogora irugarrengoz.**

<sup>17</sup> Jesus Jerusalem'a igotzean, amabi Ikasleak berekin artu zitun aparte, ta bidean au esan zien: <sup>18</sup> «Begira, Jerusalem'a goaz, eta Gizonaren Semea Apaizburuen eta idazlarien mende jarri, ta eriotzera galduko dute, <sup>19</sup> ta jentillei emango die, astindu ta Gurutzatu dezaten; bañan irugarren egunean piztuko da.

#### **Aundinaia.**

<sup>20</sup> Ordun, Zebedeo'ren semeen ama, bere aiekin ondora zitzaion Jesus'i belauniko, zerbait eskatzera. <sup>21</sup> «Zer nai dezu? esan zion Ark, eta, «eseriaz itzazu nere bi semeok, zure Jaurerrian, bata zure eskubitara, bestea zure ezkerretara». <sup>22</sup> – «Ez dakizute zer eskatzen dezuten, esan zien Jesus'ek. Nik edango detan ontzikoa edan aal dezaitezute?» – «Bai, Jauna», esan zioten. <sup>23</sup> Eta Ark: «Nere ontzia edango dezute, noski, baña nere eskubi-ezkerretan

eseriaztea, ez dagokit neri; baña nere Aitak moldatu die-nantzako da». <sup>24</sup> Au entzutean, beste amarrak asarretu egin ziran bi anaïen aurka. <sup>25</sup> Baña Jesus'ek, deituta au esan zien: «Jentillen Buru diranak, mende gogorrean dauzkate: erriak, eta aundizuak, beren indarrez zapaltzen ditute. <sup>26</sup> Ez bedi olakorik zuengan; bestera, zuetan aundi izan nai duna, zuen serbitzari bedi; <sup>27</sup> ta zuetan leenengo izan nai duna, zuen mendeko bedi. <sup>28</sup> Ala Gizonaren Semea, bestek serbitzera ez-baña besterik serbitzera etorri zan, eta bere bizia askoren alde erosi-ordain ematera.

#### **Bi itsu Jeriko'n.**

<sup>29</sup> Aiek Jeriko'tik irtetean, jende askok segitu zien. <sup>30</sup> Eta bi itsuk, bide-baztarrean eseriak, Jesus pasatzen zaila aditzean: «Dabid'en Seme Jauna! oi u egin zuten; erruki zakigu!» <sup>31</sup> Jendeak errita egin zien ixildu zitezzen; bañan aiek oi u egiten zuten are: «Dabid'en Seme Jauna, erruki zakigu!» <sup>32</sup> Gelditu zan Jesus, eta otsegiñez esan zien: «zer egitea nai dezute?» – «Jauna, begiok iriki dituzela». <sup>34</sup> Jesus'ek, errukituta begiak ikutu zizkien, eta bertan argitu zitzaizkien, eta atzetik jarrai zioten.

#### **XXI**

#### **Jerusalem'era.**

<sup>1</sup> Jerusalem'a urbildu ta Oliamendi'ko Betpage aldera iritxi ziranean, bi ikasle bialdu zitun mandatu onekin: <sup>2</sup> «Zoazte aurrean daukazuten erritxo ortara, ta bereala arkituko dezute asto eme bat lotua, eta arekin kumea; askatu ta ekatzizute. <sup>3</sup> Ta inork ezer esaten ba'dizue, «Jaunak bear ditu» esaiozute; baña bereala ekarriko dizkizute». <sup>4</sup> Zergatik gertatu zan au? Igarleak esana bete zedin: <sup>5</sup>

«Esaiozute Sion'go alabari: orra nun datorkizun zure Errege, biozberaa, uztarpeko astakume gañean eseria». <sup>6</sup> Joan ziran, bada, ikasleak Jaunak agindua egitera, <sup>7</sup> ta ekarri zituen astoa ta astakumea, bota zizkien soñekoak bizkarrera, ta gañera igo zan Jesus. <sup>8</sup> Eta jendalde aundiak lurrean zabaldu zitun bere soñekoak; beste batzuk, arbola-muskillak ebakiz lurrean banatzen zituzten. <sup>9</sup> Aurretik eta atzetik segitzen ziotenak, oiuka zioten: «Hosana Dabid'en Semeari! Doatsua Jaunaren izenean datorrena! Hosana goi-aldeetan!» <sup>10</sup> Eta Jerusalem'a sartzean, erri guzia dar-daratu zan, eta «Nor da au?» zioten. <sup>11</sup> «Jesus Igarlea da au, erantzuten zun jendeak: Galilea Nazaret'ekoa».

#### **Merkatariak eliz-atxitik alde.**

<sup>12</sup> Sartu zan Jesus, Jaunaren Etxean, eta sal-erosketan ari ziranak andik bialdu, eta dirularien maiak eta uso-saltzailleen alkiak irauli zitun, au ziola: <sup>13</sup> «Idatzia dago: *Nere etxea otoitz-etxe da; baña zuek lapur-zulo biurtu dezute*».

<sup>14</sup> Eta Jauretzean Arengana bildu ziran itsu ta erren, sendatu zitun. <sup>15</sup> Bañan Apaizburu ta idazlariak, egin zitun mirariak ikusirik, eta aurrak Jauretzean «Hosana Dabid'en Semeari» oiuka, asarre zeuden eta onela zioten: <sup>15</sup> «Aditzen al dezu auek zer dioten?» – «Bai», erantzun zien Jesus'ek. «Ez al dezute iñoiz irakurri: *Aurren eta titikoen agotik atera dezu gorapena?*» <sup>17</sup> Ta aiek utzita, uritik kanpora, Betani'ra atera zan, eta an egin zun gau.

#### **Piku-ondo legorra.**

<sup>18</sup> Biamonean, oso goiz urira itzulita, gosetu egin zan. <sup>17</sup> Piku-ondo bat ikusi zun bide-ertzean; urbildu zan, eta ostoa besterik etzion arkitu (\*). «Ez bekik beñere alerik sor-

tu» esan zion, eta piku-ondoa bereala igartu egin zan. <sup>20</sup> Au ikusita ikasleak arriturik zioten: «Nola igartu da dagoneko?» <sup>21</sup> – «Egiz esan, erantzun zien Jesus'ek: sinismena ba'zenute ta zalantzarik ez, pikuarena egiñ ez ezik, mendi oni «zuti adi ta salta itxasora» esan, eta gertatuko litzake. <sup>22</sup> Otoitzean fedez eskatzen dezutena, artuko dezute».

#### **Jesus'en esku-mendea.**

<sup>23</sup> Jauretzean etorrita erakusten ari zala, ondora zitzaizkion Apaizburu ta erriko zaarrak, au ziotela: «Noren eskuz egiten dezu ori? eta zeñek eman dizu eskubide ori?» <sup>24</sup> – «Nik ere galdetuko dizuet zerbait, erantzun zien Jesus'ek, eta erantzuten ba'didazute, Nik ere esango dizuet zer eskubidez egiten dedan au. <sup>25</sup> Ots, Joan'en Bataioa nundik zan? zerutik, ala gizonengandik?» Aiek alkarrekin ari ziran: «Zerutik esaten ba'diogu, beraz, zergatik etzenioten siñistu? esango ziguk. <sup>26</sup> Eta gizonagandik esaten ba'diogu, jendearen bildur gatzik, guziak Igarlea baitzeukaten Joan. <sup>27</sup> «Ez dakigu», esan zioten Jesus'i. «Nik ere ez dizuet esango, erantzun zien, zer eskubidez egiten dedan au».

#### **Jainkoaren ala-naia.**

<sup>28</sup> Zer deritzazute? Gizon batek bi seme zitun, eta zaarrenari au esan zion: «Seme, zoaz gaur maastira, lanera». <sup>29</sup> – «Ez det nai, erantzun zion; baña gero, damututa joan egin zan». <sup>30</sup> Bigarrenari joanda gauza bera agindu zion. «Ba noa, Jauna», erantzun zion; bañan ez zan joan. Biotan zeñek egin zun Jainkoaren ala-naia? «Leenengoak», erantzun zioten. <sup>31</sup> Eta Jesus'ek: «Egiz esan, pagu-biltzailleak eta ema-galduak aurea artzen dizute Jainkoaren Jau-

errian. <sup>32</sup> Izan ere, Joan etorri zitzaizuen zuzenbidea otseginēz, eta etzenioten siñistu; pagu-biltzaille ta ema-galduak, ostera, siñistu zioten. Baña zuek, bera ikusita ere, ez damutu ta ez siñistu egin zenuten.

### Maastiko giza-iltzalleak.

<sup>33</sup> Adizute beste ipui bat: Etxe-jaun batek maastia landatu zun, esitu, toleara egin, dorre bat altxa, maastizaiei errentan utzi, ta alde egin. <sup>34</sup> Maatsaroa iritxi zanean, maastizaiei bere morroiak bialdu zizkien maatsa biltzera. <sup>35</sup> Maastizaiaik morroiak eldu, bata zauritu, bestea il, beste arrikatu, egin zituten. <sup>36</sup> Berriro, leen baño morroi ugariego bialdu zitun, eta aiekin berebat egin zuten. <sup>37</sup> Azkenik bere semea bialdu zien, berekiko ziola: «Nere semeari begirune izango diote». <sup>38</sup> Baña maastizaiaik, semea ikusita, au zioten alkarri: «Au dek oñordekoa, ots! il dezagun, eta geldi gaitezen jabegai!» <sup>39</sup> Eldu zioten, maastitik bota eta il egin zuten. <sup>40</sup> Beraz, maasti-jabeak datorrenean zer egingo die maastizai aiei? <sup>41</sup> Gaiztoak gogor joko ditu, ta maastia beste maastizai batzuei emango die errentan, bere garaiean zitua ekarri dezaioten. <sup>42</sup> Ez al dezute beñere irakurri Idaztietan, esaten die Jesus'ek: *Etxegilleak baztatu zuten arria giltzarri gertatu zan? Jaunak egin du ori, ta arrigarri da begietan.* <sup>43</sup> Orregatik diozuet: Zeru-erria kenduko zaie, ta bere zitua ematen dun erriari emango zaio. <sup>44</sup> Arri onen gañera erortzen dana, apurtuko da; ta au gañera erortzen zaiona, apurtuko du». <sup>45</sup> Apaizburu ta pariseuak alegi au entzutean, aientzat ari zala igerri zioten, <sup>46</sup> eta atzi-lotu egin nai zuten; baña jendearen bildur ziran, Igarletzat baitzeukaten.

## XXII

### Errege-eztaiak.

<sup>1</sup> Jesus berriro alegiz mintzatu zitzaien, onela: <sup>2</sup> «Zeru-erriak errege baten antza du. Bere semearen eztaiak zitun, <sup>3</sup> eta morroiak bialdu zitun eztaietara deitzera, ta deituak etzuten etorri nai izan. <sup>4</sup> Berriro beste morroi batzuk bialdu zitun, au esanez: «Deitu itzazute eztailagunak; otordua moldatua daukat, txekorrak eta aratxeak lepo egiñak dauzkat, guzia gertu dago; atozte eztaietara. Bañan aiek, jaramonik egin gabe, bakoitza bere sorora ta bere egitekora joan ziran. <sup>6</sup> Gañerakoak, aren morroiak itxusitu ta ill egin zituzten. <sup>7</sup> Erregek ordun, asarretuta, bere gudariak bialdu zitun, giza-iltzalle aiek illerazi zitun, eta aien erriari su eman zion. <sup>8</sup> Ordun esan zion morroiei: ezta-otordua gerturik dago baña deituak etziran gai artarako. <sup>9</sup> Zoazte, bada, bide-gurutzera, ta arkitzen dituzuten guziak deitu itzazute eztaietara. <sup>10</sup> Atera ziran morroiak bideetara, ta arkitu zitutenak bildu zituten, on eta gaizto, eta eztaietaxa deitutakoz bete zan. <sup>11</sup> Erregek, mai-lagunak ikustera sartu zanean, gizon bat ikusi zun an, ezta-jantzirik gabe (\*); <sup>12</sup> eta: – «adiskide, esaten dio, nola sartu zera emen ezta-jantzirik gabe?» Arek etzun itzik atera. <sup>13</sup> Ordun Erregek morroiei: – «lotu zazute esku ta oin, esan zien, eta bota zazute kanpoko illunpetara; an izango da negarra ta ortz-karraska! <sup>14</sup> Asko baitira deituak, baña gutxi aukeratuak».

### Zesar'i pagabearra.

<sup>15</sup> Ordun pariseuak alde egin zuten eta alkar artu, Ua izketan trabatzeko. <sup>16</sup> Beretako ikasleak bialdu zizkieten Erodiar batzugin, au esatera: «Maisu, ba-dakigu egizale zerala, ta Jainko-bidea egiz erakusten dezula, ta

ez dizula iñoren ajolik, eta norbaitkeririk ez dezula. <sup>17</sup> Ezazu, bada; zer derizkiozu? Zillegi al da Zesar'i zerga ematea, ala ez?» <sup>18</sup> Baña Jesus'ek, aien maltzurkeria ezagutuz, au esan zun: «Zer ari zakidate zer-atera, azal-utsak? <sup>19</sup> Ia, ikus txanpona». Denario bat ekarri zioten. «Norenak dira giza-itxura au ta itz auek?» <sup>20</sup> – «Zesar'enak», erantzun zioten. <sup>21</sup> Ordun, esan zien; «emaiozute Zesar'i Zesar'ena, ta Jainkoari Jainkoarena». <sup>22</sup> Au entzutean arritu egin ziran, eta Ua utzita joan egin ziran.

#### Piztuko gerala, egia.

<sup>23</sup> Egun artan saduzeu batzuk ondora zitzaizkion, illen piztea ukatzen duten oietakoak; eta, au galdegin zioten: <sup>24</sup> «Maisu, Moises'ek au esan zigun: *Norbait ilko balitza aurrik gabe, orren anaia alargunarekin ezkonduko da, ondorekoa eman dezaion.* <sup>25</sup> Gurean zazpi anai ziran, bada, ta leenengoa ezkondu ta il egin zan, eta ondorengorik ez-ta, emaztea anaiari utzi zion. <sup>26</sup> Beste oinbeste bigarrenak eta irugarrenak, zazpitarano. <sup>27</sup> Oien atzetik emaztea ere il zan. <sup>28</sup> Piztutakoan, zazpitan zeñen emazte izango da? guziak euki baitzuten». <sup>29</sup> «Oker ari zerate, esan zien Jesus'ek, Idatziak eta Jainkoaren indarra ezagutzen ez dituzutelako. <sup>30</sup> Piztutakoan, ez da senarrik, ez emazterik: zeruko Aingeruak bezela izango dira. <sup>31</sup> Eta illen pizteaz, ez al dezute irakurri Jainkoak esana? <sup>32</sup> *Ni Abraham'en, Isaac'en eta Jakob'en Jainkoa.* Illena ez-baña biziena da Jainkoa». <sup>33</sup> Au adituta arritzen zan jendea Aren erakutsiaz.

#### Lenengo agindua.

<sup>34</sup> Saduzeuak ixillarazi zitula entzutean, pariseuak bildu ziran, <sup>35</sup> eta aietan Legean iaioa zan batek zer-atera galdegin zion: <sup>36</sup> «Maisu, zein da Legean agindurik aundie-

na? <sup>37</sup> *Maita zazu zure Jainko Jauna, esan zion, biotz osoz, anima guziz, eta ezagumen osoz.* <sup>38</sup> Au da agindurik aundiena ta leena. <sup>39</sup> Bigarrena onen antzeko da: *lagun urkoa zere burua bezela maiteko dezu.* <sup>40</sup> Bi agindu auctan sartzen dira Legea ta Igarleak.

#### Mesias nundik?

<sup>41</sup> Pariseuak bildurrik zeudela, Jesus'ek au galdegin zien: <sup>42</sup> «Zer irudi zaizue Kristo'rengatik? Noren Semea da?» – «Dabid'ena» diote. <sup>43</sup> – «Beraz, esaten die, nola Dabid'ek goi-argiz «Jauna» deitzen dio esanaz: <sup>44</sup> *Jaunak nere Jaunari au esan zion: «eseri zakit eskubitan, Nik etsaiak oinpean jartzen dizkizudan arte?»* <sup>45</sup> Beraz, Dabid'ek Jaun esaten ba'dio, nola du Seme?» <sup>46</sup> Eta iñork etzion itzik erantzun, eta egun artatik aurrean ez zan iñor ausartu Ari ezer galdetzen.

## XXIII

#### Itxurakeria ta aundi-naia.

<sup>1</sup> Ordun Jesus'ek jendaldeari ta ikasleai au esan zien: <sup>2</sup> «Mois'en alkian idazlariak eta pariseuak eseri dira. <sup>3</sup> Egizute, bada, ta gorde, esaten dizueten guzia; bañan ez jardun aien antzera; esan eta ez egin, egiten baitute. <sup>4</sup> Zama aundiak eta eziñ-eramanekoak lotzen ditute, ta gizonai erantsi; baña berak ez ditute beatz-bakarrez ikutu ere nai. <sup>5</sup> Beren zeregin guziak, jendeak begira dezaien egiten ditute. Zabaltzen ditute beren larrutxak eta zabaltzen soñekoen mendelak (\*); <sup>6</sup> maiburu izan nai dute otorduetan; leenengo alkiak artu nai ditute sinagoetan; <sup>7</sup> eta diosala plazetan, eta Rabi izena entzun-zale dira. <sup>8</sup> Baña zuek ez utzi iñori Rabi esaten; bat baita zuen Maisu, ta

zuek guztiok anai zerate. <sup>9</sup> Ezta iñori lurgañean aita deitu ere; bat bakarrik da, ba, zuen Aita zerukoa. <sup>10</sup> Ez eta ondo artu zuei irakasle esatea, bat bakarra baita zuen Irakaslea. Kristo. Ta zuetan aundiena, zuen morroi bedi. <sup>12</sup> Altxatzen dana eratxiko baitute, ta jeixten dana jasoko.

### Idazlari ta pariseuai errita.

<sup>13</sup> «Ai zuek, idazlari ta pariseu azal-utsak! gizonai Zerur-erria ixten baitiezute; baña zuek etzerate sartzen, eta sartu nai dutenai ez diezute uzten! <sup>14-15</sup> Ai zuek, idazlari ta pariseu azal-utsak! itxaso-legorrak iraultzen dituzute jarraizale bat irabazteko; ta irabazitakoan, zuek alako biko inpernu-sume egiten dezute. <sup>16</sup> Ai zuek, itsu-gidariak! esaten baitezute: «Elizaren gain egindako ziña ezer ez da; bañan Eliz-aurrearen gain egindakoa, bete-bearra da. <sup>17</sup> Zo-zoak! itsuak! Zer ote da aurrena? urrea? ala urrea santutzen dun Eliza? <sup>18</sup> Eta «aldarearen gain egindako ziña ezer ez da; bañan an eskeñiaren gain egiten dana, bete-bearra da. <sup>19</sup> Itsuak! Zer da geiago? Eskeña, ala eskeña santutzen duna? <sup>20</sup> Aldarearen gain ziñ egiten duanak, arengatik eta aren gañean dagon guziagatik ziñ egiten du; <sup>21</sup> eta Elizaren gain ziñ egiten dunak, arengatik eta an dagonarengatik egiten du ziñ. <sup>22</sup> Eta zeruaren gain ziñ egiten dunak, Jainkoaren alkiagatik egiten du ziñ, eta an eserita dagonarengatik. <sup>23</sup> Ai zuek, idazlari ta pariseu azal-utsak! Batan-belarraren, ezamilloaren eta kumin-belarraren amarranak pagatzen dituzute; Legean nagusien diranak, orde, zuzentasuna, errukia ta siñistea, alde uzten dituzute. Auek egin bearrekoak dira; aiek ez dira uztekoak. <sup>24</sup> Gidari itsuak! Eltxoa iragazi ta ganbelua iretsi egiten dezute. <sup>25</sup> Ai zuek, idazlari ta pariseu azal-utsak! basoa ta platera

azaletik garbitzen dituzute, ta barrundik lapurretaz eta zinkinkeriz beterik zaudete! <sup>26</sup> Pariseu itsua! garbi etzak leenik barrundik basoa ta platera, kanpotik ere garbi geldi ditezen. <sup>27</sup> Ai zuek, idazlari ta pariseu azal-utsak! illobi zurituak dirudizute, kanpotik eder, baña barrundik gorputz illen ezurrez eta ustelkeriz beteak! <sup>28</sup> Orrela zuek ere, azaletik zintzo ematen dezute gizonen aurrean; baña barrundik itxurakeriz eta biurrikeriz beteak zaudete. <sup>29</sup> Ai zuek, idazlari ta pariseu azal-utsak! illobiak altxatzen diezizute Igarleai, eta gizon zintzoen oroit-arriak apaintzen dituzute, <sup>30</sup> eta onela diozute: gurasoen aldiari bizi izan bagina, ez giñan aien lagun izango Igarleen odolean. <sup>31</sup> Beraz, zerok zerate testigu, Igarleak ill zituten aien semeak zeratela. <sup>32</sup> Bete zazute zuek ere tontorka, gurasoen neurria. <sup>33</sup> Sugeak! suge-gorrien arraza! Nola igesegingo diozute inpernuko epaiari? <sup>34</sup> Orregatik, begira! Nik bialtzen diezizuet Igarle, jakintsuak eta letradunak. Aietan batzuk ul eta gurutzean jarriko dituzute, beste batzuk, Sinagogetan astinduko dituzute, ta erriz erri esetsiko dituzute. <sup>35</sup> Erori dedilla zuen gain lurrean ixuri dan odol errugabe guzia; Abel zintzoaren odoletik asita Barakias'en seme zan Zakarias'en odoleraño; Elizatik aldarera bitartean il baitzenu-ten. <sup>36</sup> Egiz esan, au guzia etorriko zaio gizaldi oni.

<sup>37</sup> Jerusalem Jerusalem! Igarleak iltzen eta zugana bialduak arrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz bildu nai izan ditut zure semeak, olloak egalpean txitak bezela, ta etzenun nai izan! <sup>38</sup> Begira, etxea utsa utziko dizuete. <sup>39</sup> Esaten dizuet, bada, ez nauzutela ikusiko ordu ontatik, zuek itzok esan arte: «onetsia Jaunaren izenean datorrena!»

## XXIV

**Jerusalen'en ondamendia.**

<sup>1</sup> Irten zan Jesus Jauretaketik; ba-zijoan, eta ikasleak urbildu zitzaizkion Jauretzeko alderdiak ikusteko. <sup>2</sup> Bañan Ark au esan zien: «Ikusten al dezute guzi au? Egia esan, ez da emen geldituko arri bat bestearen gañean». <sup>3</sup> Oliamendi'n eserita, ikasleak aparte urbildu zitzaizkion. «Noiz, esan zioten, gertatuko da ori? (\*)», ta zer ezaugarri izango da zure etorrerarena ta munduaren azkenarena? <sup>4</sup> Jesus'ek au erantzun zien: «Begira, iñork lilluratu etzaitzaten! <sup>5</sup> Askok etorriko baitira nere izena artuta «Ni naiz Kristo» esanez, eta gizon asko lausoaraziko dute. <sup>6</sup> Guda-goraberak eta gerra-zantzuak entzungo dituzute. Ez ikaratu ori gertatzean, oraindik ez baita azkena. <sup>7</sup> Jendea jendearen aurka altxako da, ta erria erriaren aurka, ta go-sete ta lur-ikarak izango dira an-emenka. <sup>8</sup> Baña guzi ori, miñen asiera izango da. <sup>9</sup> Ordun, oñazetara bialduko zaituete, ilko, ta erri guziak gorroto artuko dizuete nere ize-nagatik. <sup>10</sup> Ta askok gaiztora joko dute, ta alkar salduko ta gorrotatuko dute; <sup>11</sup> Igarle gezurti asko aterako dira, ta makiñabat jende lilluratuko dute; <sup>12</sup> eta gaiztakeriak gañez egiten duanean, maitasuna oztuko da; <sup>13</sup> bañan azkene-raño dirauna, ua aterako da ondo. <sup>14</sup> Zeru-erriko Berri-On au, mundu guzian zabalduko da, erri guzien agiritako; eta ordun etorriko da azkena.

<sup>15</sup> Beraz, Daniel Igarleak esandako ondamendi nazkagarria toki santuan ikusten dezutenean, -irakurleak igerrri bezaio-, <sup>16</sup> ordun, Judea'n daudenak mendira iges egin bezate; <sup>17</sup> ta etxeko goitegian dagona, ez bedi jetxi etxetik ezer artzeko; <sup>18</sup> ta soroan ari dana ez bedi itzuli soingañeko billa. <sup>19</sup> Ai aurdun eta azitzen ari diranak egun aietan! <sup>20</sup> Egizute otoiitz, zuen igesa neguan ez larunbatean

gerta ez dedin. <sup>21</sup> Larrialdi aundia izango baita ordun, mundua mundu danetik izan eta izango ez dan bezelakoa. <sup>22</sup> Ta egun aiek laburtuko ez ba'lira, iñor ez litzake onez aterako; bañan egun aiek zerurakoengatik laburtuko dira <sup>23</sup> Ordun, norbaitek «ona emen Kristo edo ara an» esaten ba'dizue, ez siñistu. <sup>24</sup> Aterako baitira sasi-Kristo ta gezur-Igarleak, eta zantzu ta mirariak egingo ditute, al ba'litza, aukeratuak ere engañatzeko. <sup>25</sup> Ara Nik aurretik esan: <sup>26</sup> Beraz, «mendan dago» esaten ba'dizute, ez atera; «ara etxe-barruan», ez siñistu. <sup>27</sup> Izan ere, tximistak Sortaldetik aterata Sartalderaño argi egiten dun bezela, alaxe izango da Gizasemearen etorrera. <sup>28</sup> Gorputz illa dagon tokira bilduko dira arranoak.

**Jainko semearen etorrera.**

<sup>29</sup> Egun larri aiek igaro orduko, berriz, eguzkia illunduko da, illargiak ez du argirik emango, zeruko izarrak eroriko dira, zeruko orpoak aldero egingo dute. <sup>30</sup> Ordun agertuko da zeruan Gizasemearen agerpidez, ta lurbira guziko jendeak bularra joko dute, ta ikusiko dute Gizonaren Semea odei-gañetik etortzen, indar eta argitasun aundian. <sup>31</sup> Bialduko ditu Aingeruak turuta aundi batekin, eta bilduko ditute zerurakoak lau aize-zokoetatik, zeruaren mutur batetik besteraño. <sup>32</sup> Ikasi ipui bat piku-ondotik. Adarrak guritzen eta ostoak leertzen zaizkionean, ba-dakizute udara urbil dala. <sup>33</sup> Ala zuek ere, gauza guziok ikustean, jakin zazute, (Gizasemea) urbil, ateetan dala. <sup>34</sup> Egia esan, ez da amaituko gizaldi au, guzia gerta dedin arte. <sup>35</sup> Zerulurrak igaroko dira; baña nere itzak, ez.

**Azken-eguna noiz?**

<sup>36</sup> Bañan egun eta ordu artaz, iñork ez daki; ez Aingeruak, ez Semeak ere; Aitak bakarrik (\*). <sup>37</sup> Noe'ren den-



boretan bezela izango da Gizonaren Semearen etorrera. <sup>38</sup> Ugolde aurreko egunetan jan eta edan, senartu ta emaztetu egiten baitziran Noe kutxan sartu arte, <sup>39</sup> ta etziran konturatu, guziak ugaldeak eraman zitun arte; alaxe izango da Gizasemearen etorrera ere. <sup>40</sup> Ordun, soroan bi lagun dira; bata artu ta bestea utzi egingo dute (\*); <sup>41</sup> bi emakume igaran eiotzen ari izango dira; bata artu ta bestea utzia izango da. <sup>42</sup> Egon, bada, erne, ez baitakizute Jauna zer egunetan etorriko zaizuen. <sup>43</sup> Baña jakin zazute, etxe-ko jaunak, lapurra zer gaualditan datorren ba'leki, erne legoke, ta ez luke utziko bere etxea azpijaten. <sup>44</sup> Zaudete, beraz, erne zuek ere, uste ez dezuten orduan Gizonaren Semea etorriko baita.

<sup>45</sup> Zein da, bada, mirabe zur eta zintzoa, guzien morroi-buru nagusiak jarri duna, bere garaiean janari emateko? <sup>46</sup> Bai doatsu mirabe ori, nagusia etortzean ola ari dala arkituko ba'lu! <sup>47</sup> Egiz esan, ondasun guzien buru jarriko du. <sup>48</sup> Baña morroi gaiztoa, «nere nagusiak luzatzen dik» bere artean esango ba'lu; <sup>49</sup> bere lagunak jotzen asiko ba'litza, ta mozkortzen diranakin jaten edaten, <sup>50</sup> morroi aren nagusia uste ez dun egunean eta uste ez dun orduan etorriko zaio; <sup>51</sup> ta txeatuko du, ta azal-utsen saria emango dio. An izango da negarra ta ortz-karraska!

## XXV

### Amar neskatxena.

<sup>1</sup> Ordun, Zeru-erria amar neskatxen antzeko izango da; krisaillu bana artuta senargaiari bidera atera baitzitzazkion. <sup>2</sup> Aietan, bost ergel ziran, eta bost zugur. <sup>3</sup> Ergelak, noski, krisailluak artzean, etzuten artu berekin oliorik. <sup>4</sup> Baña zugurrak, krisailluekin batean, olio ere artu zuten

beren ontzietan. <sup>5</sup> Senargaiak luzatzen zula-ta, kuluxkaka asi ziran, eta loak artu ere zitun. <sup>6</sup> Gauerdian oiuaq entzun ziran; «or da senargaia; irten zakiote bidera». <sup>7</sup> Neskatxa guziak ordun esnatu ziran, eta moldatu zituten krisailluak. <sup>8</sup> Eta ergelak zugurrai au esan zieten: «Ekatzute zuen oliotik, gure krisailluak itzali egiten baitira». <sup>9</sup> Ta zugurrak erantzun: «obe dezute saltzailleengana joan eta zerrontzat erosi, guretzat eta zuentzat gutxi izan ez dedin». <sup>10</sup> Eroster a joan ziran bitartean, senargaia etorri zan, eta gerturik zeudenak eztaietara sartu ziran, eta atea itxi egin zan. <sup>11</sup> Azkenean, beste neskak ere ba-datoz, «Jauna, Jauna» esanez, iriki iguzu! <sup>12</sup> Bañan arek erantzun: «Egia esan, etzaituet ezagutzen. <sup>13</sup> Zaudete, bada erne, ez baitakizute egunik, ez ordurik.

### Talentuak.

<sup>14</sup> Berebat, bidez joatean, morroiak deituta bere ondasunak utzi zizkien gizona bezela da. <sup>15</sup> Batari bost talentu eman zizkion, besteari bi, besteari bat, bakoitzaren abildadeari dagokionez, eta alde egin zun. <sup>16</sup> Bost talentu artu zituana, bereala joan zan aiekin arrixkatzera, ta beste bost irabazi zitun. <sup>17</sup> Orobat, biekikoak, beste bi irabazi zitun. <sup>18</sup> Baña bakarra artu zunak, joanda lurra aitzurtu, ta nagusiaren dirua gorde egin zun. <sup>19</sup> Andik epe luzera, morroi aien nagusiak, etorrita kontuak artu zizkien. <sup>20</sup> Bost talentu artu zitunak, ondonatu ta beste bost erakutsi zizkion; eta, «Jauna, bost talentu eman zenizkidan; orra beste bost irabaziak». <sup>21</sup> – «Bejondaizula, esan zion, morroi zintzo ta leiala! gutxian zintzo izan zeralako, askoan buru jarriko zaitut; sar zaite Jaunaren poz-lekuan». <sup>22</sup> Etorri zan bi talentukikoa ere, ta «Jauna, esan zion: bi talentu eman zenizkidan; orra beste bi irabazi». <sup>23</sup> – «Bejondaizula, morroi zintzo ta leiala, esan zion nagusiak; gutxian zin-

tzo izan zera, askoan buru egingo zaitut; sar zaite nagusiaren poz-lekura». <sup>24</sup> Talentu bakarra artu zuna ere ondora zitzaion, eta, «Jauna, esan zion: ba-dakit gizon zorrotza zerala; eroin ez dezun tokian itatu, ta banatu ez dezun tokian biltzen dezula. <sup>25</sup> Bildurrez, joanda zure talentua lurrean gorde det. Or dezu zurea». <sup>26</sup> – «Morroi gaizto ta nagia! erantzun zion nagusiak: ba'zenekin eroin ez dedan tokian itatzen, ta banatu ez dedan tokian biltzen dedala. <sup>27</sup> Ortaz, nere diru-etxean sartu bear zenun, nik itzultzean irabaziarekin jaso nezan. <sup>28</sup> Ots! kendu iozute talentu ori, ta eman, amar ditunari. <sup>29</sup> Dunari emango zaio ta gañetsiko zaio; bañan ez dunari, dun ua ere kenduko zaio. <sup>30</sup> Eta morroi alper ori, bota zazute kanpoko illunpera. An izango da negarra ta ortz-karraskal!

#### Azken-epaia.

<sup>31</sup> Gizonaren Semea bere Aingeru guziekin argitsu datorrenean; eta bere argi-alkian esertzen danean; <sup>32</sup> erri oro aurrera dakartziotenean, eta artzaiak ardiak antxumeetik bezela, batzuk besteengandik bakantzen ditunean, <sup>33</sup> eta ardiak eskubitan eta antxumeak ezkerretan ipintzen ditunean, <sup>34</sup> ordun esango die Erregeak eskubikoai: «Atozte nere Aitaren bedeinkatuok! jabetu zaitezte, zuentzat moldatu dedan Jaurerriaz. <sup>35</sup> Gose nengon, bada, ta jaten eman zenidaten; egarri nengon, eta edaten eman zenidaten; arrotz nintzan, eta etxera sartu ninduzuten; <sup>36</sup> larrugorri nengon eta jantzi ninduzuten; gaixo, ta ikertu ninduzuten; giltzapean, eta Nigana etorri ziñatan. <sup>37</sup> Zintzoak ordun, «Jauna, erantzungo dute: noiz ikusi zindugun goserik eta jaten eman? egarri ta edaten eman, <sup>38</sup> noiz arrotz eta etzalekua eman? edo larrugorri ta jantzi zindugun? <sup>39</sup> noiz gaxo edo giltzapean, eta ikustera joan gintzaizun?» <sup>40</sup> – «Egitan, esango die Erregeak: nere anai txikienetako

batekin egin zenutenean, nerekin egin zenuten». <sup>41</sup> Ordun esango ere die ezkerretan dauzkanai: «alde Nigandik, mardarikatuak, betiko sutara! deabruentzat eta bere aingruentzat gerturik baitago. <sup>42</sup> Gose nengon, bada, ta etzenidaten jaten eman; egarri nengon eta etzenidaten edaten eman; <sup>43</sup> bidez ibilli nintzan eta etzenidaten etzalekurik eman; larrugorri ta ez ninduzuten jantzi; gaxo ta kartzelan, eta ez zintzaidaten agertu ikustera». <sup>44</sup> Aiek ordun ola erantzungo dute: «Jauna, noiz ikusi zindugun gose, egarri, bidez bide, gaxo, kartzelan, eta ez genizun lagundu?» <sup>45</sup> Eta ola erantzungo die: «Egiz esan, txiki auetako batekin egin etzenutenean, nerekin ere etzenuten egin». <sup>46</sup> Eta auek betiko oñazetara joango dira, ta zintzoak betiko bizitzara.

#### XXVI

##### Pasio-aurrea.

<sup>1</sup> Jesus'ek itzaldiok bukatzean, <sup>2</sup> «ba-dakizue, esan zien bere ikasleai, Pazkoa etzidamu dala, ta Gizonaren Semea Gurutzeko eriotzara emango dutela». <sup>3</sup> Garai artan Apaizburu ta erriko zaarrak eta erri-gurasoak, Kaifas zeritzan Apaiz nagusiaren Jauregian bildu ziran, <sup>4</sup> eta Jesus maltzurkeriz lotzea erabaki zuten, illerazteko. <sup>5</sup> Bañan «ez jaiegunean» zioten, errian zalapartarik sortu ez dedin.

##### Betani'n ukenduz igurtzi.

<sup>6</sup> Jesus Betani'n, Simon lepradunarenean zegola, <sup>7</sup> emakume bat etorri zitzaion (\*), alabastrozko ukendu-ontzi bat eskuan, txit galestia, ta buru-gañera ixuri zion, maiean zegola. <sup>8</sup> Ikustean, ikasleak asarre zioten: «zertarako ondamen ori? <sup>9</sup> Saldu ziteken, bada, galesti, ta beartsuei eman». <sup>10</sup> Jesus'ek adituta au esan zien: «zergatik zakiote negarga-

rri emakume oni? Gauza ona egin du nerekin. <sup>11</sup> Beartsuak ba-dituzute beti zuekin; Ni, ordea, ez nauzute beti zuekin eukiko. <sup>12</sup> Ukendu au nere gañera ixurtzean, il-obirako egin du. <sup>13</sup> Egia esan; Berri-Ona nunai zabaldu dedin. mundu osoan, itzegino ere dute emakume onek egin du-na, oroitzeko».

<sup>14</sup> Ordun, amabietako bat, Judas Iskariote, Apaizburuengana joan zan, <sup>15</sup> eta: «zer eman nai didazute, esan zien, eskuetara ekarri orde?» Aiek ogeitamar zillar-diru eskeñi zioten. <sup>16</sup> Arrezkero, egokira billa zebillen aiei eskuetaratzeko.

#### Azken-aparia.

<sup>17</sup> Ogi azigabeen lenengo egunean, ikasleak Jesus'i ondora zitzaizkion galdezka: «Nun nai dezu Pazkoa antola dezaizugun?» <sup>18</sup> – «Zoazte urira, esan zien, alakoren etxera, ta esaiozute: ¿Maisuak au dio: nere garaia urbil da; zure etxean ospatu nai det Pazkoa nere ikasleekin». <sup>19</sup> Aiek Jesus'ek agindua egin zuten, eta antolatu zuten Pazkoa.

<sup>20</sup> Illunabarrean Amabi ikasleekin, maiean jarri zan. <sup>21</sup> Eta otordukoan, «egitan, esan zien, zuetan batek salduko nau». <sup>22</sup> Oso goibeldurik, banaka galdetzen asi zitzaizkion: «Ni al naiz, Jauna?» <sup>23</sup> eta Berak entzunaz esan zuan: «Nerekin erratilluan eskua sartu dunak, salduko nau. <sup>24</sup> Izan ere, Gizonaren Semea ba-dijoa, idatzirik dagoenez; baña, doakabea Gizonaren Semea salduko dun ua! Obe luke jaio ez balitza!» <sup>25</sup> Ordun, Judas saltzailleak, «ni al naiz, Jauna?» galdegin zion. – «Zuk esan dezu», erantzun zion.

#### Enkaristia.

<sup>26</sup> Aparitakoan Jesus'ek ogi bat artu zun, onetsi, zati-tu, ta ikasleai eman zien, esanaz: «Artu ta jan; au Nere

gorputza da». <sup>27</sup> Eta ontzia arturik, eskerrak egin eta eman-enez, au esan zien: «Edazute guziok ontatik, <sup>28</sup> au Nere odola baita, Testamentu Berrikoa; askoren alde ixuria, pekatuak barkatzeko. <sup>29</sup> Eta ara Nik esan: ez det edango aur-rera maats-ardo ontatik, Aitaren Jaurerrian berria zuekin edan dezadan arte».

#### Ikasleen aultasuna aurretik otsegiña.

<sup>30</sup> Eta eseriak abestuta, Olia'mendiruntz atera ziran. <sup>31</sup> Ordun Jesus'ek: «Zuek guziok gau ontan orpo egingo didazute; idatzirik baitago: *Joko det artzaia, ta artaldeak ardiak sakabanatuko dira*; <sup>32</sup> baña piztutakoan, zuen aurretik joango naiz Galilea'ra». <sup>33</sup> Pedro'k erantzun zion: «Guziak orpo egiten ba'dizute ere, nik ez dizut egingo». <sup>34</sup> Eta Jesus'ek: «Egiz esan: gaur bertan, ollarrak jo baño leen iru aldiz ukatuko nauzu». <sup>35</sup> Eta Pedro'k: «Zurekin il bear ba'nu ere, etzaitut ukatuko». Beste oinbeste esan zuten ikasle guziak.

#### Getsemani'n.

<sup>36</sup> Ordun Jesus aiekin joan zan Getsemani izeneko landa batera, ta au esan zien ikasleai: «eseri emen Ni otoi-tzera noan bitartean». <sup>37</sup> Eta Pedro ta Zebedeo'ren bi semeak berekin eramanik, naigabetzen eta larritzen asi zan. <sup>38</sup> «Iltzeko moduko naigabeak dauzkat, esan zien; zaude-te emen esnai nerekin». <sup>39</sup> Eta aurreraxego joanda, auspez erori zan, eta onela esan zion otoi-tzean: «Aita, al ba'da, pasa bedi ontzi au Nigandik; Zuk nai bezela bedi, ordea, ez Nik nai bezela». <sup>40</sup> Joan zan ikasleengana ta lo arkitu zitun. Eta Pedro'ri au diotsa: «Zer gero? Eziñ al-zifiaten egon ordubete nerekin esnai? <sup>41</sup> Zaudete esnai ta egiñ otoi-tz, tentaldiak artu etzaitzaten. Gogoá gertu dago, ba-

kion eta au esan zioten: «Egitan, i ere aietakoa aiz; izke-tak berak salatzen au». <sup>74</sup> Ordun asi zan birauka ta zinka: «Ez det ezagutzen gizon ori!» Bertantxe ollarrak jo zun. <sup>75</sup> Eta Pedro'ri, Jesus'ek gogora zitzaion: «Ollarrak jotzerako, iru alditan ukatuko nauzu». Eta atarira aterata, negar egin zun saminki.

## XXVII

**Judas'en azkena.**

<sup>1</sup> Eguna argitu zunean, Apaizburu ta erri-guraso gu-ziak batzarre bat egin zuten Jesus'en aurka, Ari eriotza emateko. <sup>2</sup> Eta loturik eramanda, Ponzio Pilato'ren mende utzi zuten. <sup>3</sup> Ordun Judas saltzailleari, galdu zutela ikustean, damutu egin zitzaion, eta Apaizburuei ta erri-gurasoai ogeitamar zillar-diruak itzuli zizkien (\*), <sup>4</sup> esanaz: «Pekatu egin det, errugabearen odola salduz». — «Guri zer? esan zioten; eorrek ikus». <sup>5</sup> Eta diruak Jauretxean bota, eta aruntzago joanda, bere burua urkatu zun. <sup>6</sup> Apaizburuak diruak artu ta: «ez da zillegi, esan zuten, Jauretzeko eltze-txoan sartzea, odol-sari baitira». <sup>7</sup> Baña batzarrea egiñik, aiekin eltzegille baten soroa erosi zuten, erbestekoen il-erri-tako. <sup>8</sup> Orregatik, soro ari odol-soro esan zitzaion, gaurko eguna arte. <sup>9</sup> Ordun gertatu zan Jeremias Igarleak esana: *Artu zituten ogeitamar zillar-diruak, Israel-semeak prezio artan salgai eman zutenaren saria.* <sup>10</sup> *Eta eltzegille baten soro-ordez eman ere, Jainkoak agindu zidan ez.*

**Jesus Pilato'ren aurrean.**

<sup>11</sup> Eta Jesus, Buruzagiaren aurrera agertu zan, eta onek au geldegin zion: «Zu al zera Juduen Erregea?» — «Zuk diozu», erantzun zion Jesus'ek. <sup>12</sup> Bañan Apaizburuen eta

erri-gurasoen salakuntzai ezer etzien erantzun. <sup>13</sup> Ordun Pilatos'ek: «Ez al dezu aditzen zure aurka dioten guzia?» <sup>14</sup> Jesus'ek, ordea, etzun ezer erantzun; arritu ere baitzan oso Buruzagia.

<sup>15</sup> Pazko-jaiean Buruzagiak erriari, nai zun lotua askatu zezala uzten zion. <sup>16</sup> Bazeukan, bada, orduntxe soñu aundiko lotu bat, izenez Barrabas. <sup>17</sup> Beraz, an bilduei: «zein askatzea nai dezute? galdegin zien, Barrabas, ala Kristo deritzan Jesus?» <sup>18</sup> Baitzekin, bada, bekaizkeriz emana zutela. <sup>19</sup> Auzi-maiean zegola, emazteak abisua bialdu zion: — Etzaitz sartu zintzo orrenean, gaur ametsetan asko ikusi baitet orregatik. <sup>20</sup> Bañan Apaizburu ta erri-gurasoak, Barrabas eskatzeko eragin zien jendeai, ta Jesus galduazteko. <sup>21</sup> Ta Buruzagiak: «bietan zein askatzea nai dezute?» galdetzean, «Barrabas» erantzun zuten. <sup>22</sup> Beraz, zer egingo det Kristo deritzan Jesus'ekin? — «Gurutzera bedi», esan zuten denak. <sup>23</sup> — «Zer gaitz egin du, bada?», arek. Aiek oi u aundiagoz, «Gurutzera bedi» esan zuten. <sup>24</sup> Ikusiz Pilatos'ek ezer ateratzen etzula, ta, bestera, ixkanbilla gorago zijoala, ura artuta erriaren aurrean eskuak garbitu zitun, au esanaz: «ez det errurik odol ontan; zuek ikus». <sup>25</sup> Erri guziaren erantzuna: «Ixuri bedi orren odola gure gain eta gure semeen gain». <sup>26</sup> Askatu zien, bada, Barrabas, eta Jesus, zigorkatu ondoren, Gurutzerako eman zien.

**Arantzazko buruntza.**

<sup>27</sup> Ordun, Buruzagiaren guda-mutillak gudaletxera eramatu zuten, eta soldadu-talde osoa bildu zuten Aren ingurura. <sup>28</sup> Erantzi zuten, eta estalki gorri bat jantzi zioten. <sup>29</sup> Arantzazko koroï bat eiota, buru-gañean ipiñi zioten, eta kañabera bat eskubian. Gero, aurrean belauniko burla egiten zioten: «Agur, Juduen Errege!» <sup>30</sup> Eta lixtuka,

kañaberarekin buruan jotzen zuten. <sup>31</sup> Iseka egin ondoren, estalkia kendu zioten, soñekoak jantzi zizkioten, eta Gurutzera eraman zuten.

### Jesus gurutzean.

<sup>32</sup> Irteeran, Zirene'ko gizon bat topo egin zuten, izena Simon, eta Aren Gurutzea eramanerazi zioten. <sup>33</sup> Golgota. (Kaskezurtegi) deritzan leku batera irixtean, <sup>34</sup> ardoa eman zioten, beazunez naastua; baña txurruptatu ta etzun edan nai izan. <sup>35</sup> Jesus Gurutzeratu zutenak, Aren jantziak alkarren artean zotzean banatu zituten. <sup>36</sup> Eta an eserita zeuden Bera zaintzen. <sup>37</sup> Buru-gañean oben-agiria idatzi zioten: «AU DA JESUS NAZARETARRA, JUDUEN ERRFGEA. <sup>38</sup> Arekin batean bi lapur gurutzera zituten, bata eskubitan eta bestea ezkerretan. <sup>39</sup> Pasatzen ziranak maxi egiten zioten buruari eragiñez eta esanez: <sup>40</sup> «Ik, Jauretxea desegingo ta iru egunean altxako uan orrek, libra zak eure burua. Jainkoaren Semea bai aiz, jetxi adi Gurutzetik». <sup>41</sup> Era ortan, Apaizburuak idazlari ta zaarrakin, burlaka zioten: <sup>42</sup> «Besterik jaregin dik, eta bere burua ezin. Israel'go Errege ba'dek, jetxi bedi bertan Gurutzetik, eta siñistuko diagu. <sup>43</sup> Jainkoagan zian uste ona, askatu zala orain, maite ba'du, «Jainkoaren Semea naiz» esaten baitzun». <sup>44</sup> Baita Arekin gurutzera zeuden bi lapurrak ere iraiñ egiten zioten.

### Jesus'en eriotza.

<sup>45</sup> Seigarren ordutik bederatzia arte lur osoa illunduta gelditu zan. <sup>46</sup> Bederatzigarren ordu aldean, Jesus'ek oiubizkorrez au esan zun: «Eli, Eli, lamma sabachtani!», au da, Jainko, nere Jainko! zergatik eskutik utzi nauzu? <sup>47</sup> Au zeuden batzuk, entzutean, «Elias'i otsegiten ziok orrek»,

zioten. <sup>48</sup> Eta bereala, batek laxterka, esponja artu, ozpiñetan busti, kañabera baten muturrean esarri, ta edaten eman zion. <sup>49</sup> Baña besteak, «utziok, zioten, Elias askatzeraz ote datorkion». <sup>50</sup> Eta Jesus'ek berriro oiubizkorrez, azken-arnasa atera zun. <sup>51</sup> Eta bereala, Jauretxeko estalkia erdibi egin zan goitik beeraño; lurrak dardar egin zun, eta arriak zartatu ziran, <sup>52</sup> ill-obiak iriki ziran, eta ilda zeuden zintzo askoren gorputzak piztu ziran, <sup>53</sup> eta ill-obietaatik aterata, Jesus piztu ondoren, uri santura sartu ziran, eta askori agertu zitzaizkien.

<sup>54</sup> Euntariak bere aldetik, eta arekin Jesus zaitzen zeudenak, lurr-ikara ta gertatzen ziranak ikusita, bildur aundiz zioten: «Egitan, au Jainkoaren Semea zan». <sup>55</sup> Ba-zeuden an emakume asko ere, urrutitik begira, Jesus'i serbitzeko Galilea'tik segitu ziotenak. <sup>56</sup> Aien artean zeuden Mari Madalen eta Mari, Santiago'ren eta Jose'ren ama, ta Zebedeo'ren semeen ama.

### Jesus ill-obira.

<sup>57</sup> Illunabarrean Arimatea'ko gizon aberats bat etorri zan, izenez Jose, Jesus'en ikaslea, ua ere. <sup>58</sup> Pilatos'engana agertu zan eta Jesus'en gorputza eskatu zion. Eta Pilatos'ek, emateko agindu zun. <sup>59</sup> Jose'k gorputza artuta maindire garbi batean bildu zun, <sup>60</sup> eta arkaitzean zuaitutako ill-obi berrian sartu zun. Ill-obiaren agora arri aundi bat piririka arrimarazi ta joan zan. <sup>61</sup> An zeuden Mari Madalen eta beste Mari, ill-obira aurpegiz eserita.

<sup>62</sup> Urrengo egunean, Paraskueu biaramonean, Apaizburu ta pariseuak Pilatos'en aurrera joan ziran, <sup>63</sup> au esatera: «Jauna, gogoan daukagu gizon engañagarri arek bizi zala esan zuna: «Irugarren egunean piztuko naiz». <sup>64</sup> Zaitu arazi zazu, beraz, ill-obia, etziramona arte, ikasleak etorri-

ta lapurtu ez dezaten, eta erriari esan: – Piztu da illen ar-  
tetik –, eta leenengo iruzur ori azkenekoa bañon okerra-  
go ez dedin». <sup>65</sup> Pilatos'ek erantzun zien: «Ba-dituzute ill-  
-obi-zaiak; joanda zaitu zazute, dakizuten bezela». <sup>66</sup>  
Aiek, joanda seguratu zuten illobia, arriari zildai bat ipi-  
ñiaz, eta mutillen zaizean.

## XXVIII

**Piztuera nola?**

<sup>1</sup> Larunbata pasata astearen leena argi-urratean, Mari.  
Madalen eta beste Mari, ill-obia ikustera joan ziran. <sup>2</sup> Be-  
reala, lurr-ikara aundi bat gertatu zan; Jaunaren Ainge-  
rua, zerutik jetxia urbildu zan ill-obiko arria piririkatu, ta  
bertan eseri zan. <sup>3</sup> Aurpegia tximixta bezela ta soñekoa  
elurra bezain zuri zeuzkan. <sup>4</sup> Zaitzailleak bildurr-ikaraz,  
ilda bezela gelditu ziran. <sup>5</sup> Aingeruak, berriz, emakumeen-  
gana joanda: «Ez bildurtu, esan zien; ba-dakit, bada, Je-  
sus Gurutzetuaren billa zabilatzatela. <sup>6</sup> Ez dago emen. Piz-  
tua da, Berak esan bezela. Atozte ta ikus, nun jarria ze-  
gon. <sup>7</sup> Zoazte bereala ikasleai esatera: – Piztu da illen ar-  
tetik, eta zuen aurretik dijoa Galilea'ra. An ikusiko dezu-  
te. Ara nik esan». <sup>8</sup> Usu ta arin, ikaraz, baña txit alai, joan  
ziran ikasleai berri ematera. <sup>9</sup> Bereala Jesus bidera atera  
zitzaian, eta «Agur» esan zien. Aiek, ondoraturik, oñai  
eldu ta agurtu egin zuten. <sup>10</sup> Jesus'ek orduan: «ez geiago  
bildurrik, esan zien. Esaiezute anaiai Galilea'ra noala, ta  
an ikusiko nautela».


**Azpi-dirua gezurra esateko.**


<sup>11</sup> Aurrera zijoazela, obi-zai batzuk urira joan ziran  
gertatu guzia Apaizburuei esatera. <sup>12</sup> Zaarrak batzarrean

bilduta, soldaduei diru politikxo ematea zuten erabaki.  
<sup>13</sup> «Esazute, esan zieten, ikasleak gauzez etorri, ta gu lo geun-  
dela ostu egin dute». <sup>14</sup> Ta Buruzagiak ots ori adituko  
ba'lu, guk limurtuko degu ta kezketatik aterako zaituegu». <sup>15</sup>  
Artu zuten dirua, ta esan bezela egin zuten. Eta soñu au  
zabaldu da Juduen artean gaur arte.

**Jesus Galilea'n agertzen.**

<sup>16</sup> Amaika Ikasleak Galilea'ra joan ziran, mendira, Je-  
sus'ek agindu-lekura. <sup>17</sup> Ta ikustean agurtu egin zuten; ba-  
ña batzuk dudan jarri ziran. <sup>18</sup> Eta Jesus'ek ondoratuta itz  
egin zien: «Emana zait eskumende osoa zeru-lurretan. <sup>19</sup>  
Zoazte, bada, ta erakutsi iezute jende guziei, Aitaren eta  
Semearen eta Ispiritu Santuaren izenean bataiatuaz, eta  
<sup>20</sup> Nik agindu dizuedan guzia erakutsiz. Eta ara, Ni zue-  
kin nago egunero, munduaren azkenegia».





**JESUKRISTO'REN BERRI ONA**  
**Markos Doneak dakarrenez**

I

**Joan Bataiatzailea.**

<sup>1</sup> Jainkoaren Seme dan Jesukristo'ren Berri-Onaren asiera. <sup>2</sup> Isaias Igarlearenean idatzita dago: «Or bialtzen dizut mandataria, zuri bidea txukuntzera. <sup>3</sup> Basamortuan oiuka ari danaren mintzoa: moldatu zazute Jaunaren bidea; zuzendu itzazute Aren bidetxurrak». <sup>4</sup> Agertu zan Joan basamortuan damu-bataioa otsegiten, pekatuak barkatzeko. <sup>5</sup> Judea erri-aldeko guziak eta Jerusalem'goak ari zetozkion bataiatu zetzan, beren pekatuak aitortuta. <sup>6</sup> Joan gabelu-illez jantzia zegon, gerrian larru-ugalarekin; eta salta-matxiñak eta basa-ertzia jaten zitun. <sup>7</sup> Eta oiuka zion: «Nere atzetik dator ni baño bizkorrago dana; ez bainaiz gauza, makurtuta Aren oñetakoak askatzeko. <sup>8</sup> Nik urez bataiatzen zaituet; Arek, ordea, Ispiritu Santuz bataiatuko zaitue.»

**Jesus'en bataioa ta tentaldiak.**

<sup>9</sup> Egun aietan Jesus Galilea'ko Nazare'tetik etorri zan, eta Joan'ek bataiatu zun Jordan'en. <sup>10</sup> Uretatik irtearekin, zeruak idikirik ikusi zitun, eta Ispiritu Santua uso-antzean beregana jaixten, <sup>11</sup> eta ots au entzun zan zerutik: «Zu zaitut nere Seme kuttuna, Zugan det atsegin». <sup>12</sup> Eta bereala Ispirituak basamortura eragin zion, <sup>13</sup> eta berrogei egunez egon zan an, Satanas'ek zirikatua, ta basa-piztiekin bizi izan zan; bañan Aingeruak zitun serbitzari.

**Itzaldiak eta mirariak.**

<sup>14</sup> Joan lotu zuten ezker, Jesus Galilea'ra joan zan Berri-Ona otsegiñez eta esanez: <sup>15</sup> «Garaia betea da; Jainko-Erria gañean da; damutu zaitzete ta siñistu Berri-Onari. <sup>15</sup> Ta Galilea itxas-ondotik pasatzean, Simon eta Andres, anaiak, sare-botatzen ikusi zitun; arrantzale baitziran. <sup>17</sup> «Atozte nerekin, esan zien Jesus'ek, eta Nik giza-arrantzale egingo zaituet». <sup>18</sup> Bereala, sareak utzita jarraitu egin zioten. <sup>19</sup> Aurreraxego, Zebedeo'ren Santiago ta Joan, anaiak, ikusi zitun itxas-ontzian barruan, sare-konpontzen. <sup>20</sup> Eta deitu egin zien. Aiek, aita Zebedeo ontzian mutillekin utzita, atzetik etorri zitzaizkion.

<sup>21</sup> Ba-dijoaz Kafarnaun'a, ta laister, larunbatean Sinagogan erakusten ari zan. <sup>22</sup> Arriturik zeuden Aren erakutsiaz, nagusiro erakusten baitziren, eta ez idazlariak bezela. <sup>23</sup> Ba-zegon ordun ango Sinagogan gizon bat aingeru loiak artua, oiuka: <sup>24</sup> «Zer degu Zurekin, Jesus Nazare'arra? Gu galtzera etorri al zera? Ba-dakit nor zeran: Jainkoaren Santua». <sup>25</sup> Jesus'ek eskainka esan zion: «ixil adi ta irten ortik (\*). <sup>26</sup> Eta aingeru loaia, iraultzizka ta oiuka atera zitzaion. <sup>27</sup> Denak arriturik gelditu ziran, -zer da au?-galdezka, Erakutsi berria, ta olako agintarekin?; aingeru

loiei agindu egiten die, ta aiek obeditu». <sup>28</sup> Galilea muga guzietan arin zabaldu zan Arekiko soñua.

<sup>29</sup> Eta bereala, Sinagogatik irtenda, Simon'en eta Andres'en etxera joan zan, Santiago'rekin eta Joan'ekin. <sup>30</sup> Simon'en amagiarreba berotasunekin zegon, eta bereala aientatik itzegin zioten. <sup>31</sup> Jesus ondora joanik, eskutik artu, ta berotasunak utzi zun, eta mirabe lanetan asi zitzaien.

<sup>32</sup> Arratsaldean, eguzkia sartu ondoren, gaxo ta deabrudun guziak deramazkiote, <sup>33</sup> eta erri osoa atalondoan pillean zegon. <sup>34</sup> Berak askotariko miñez zeuden ainbat, sendatu zitun, eta gañera, deabru asko aizatu ere. Eta galarazi egiten zien Bera nor zan esaten, nor zan ba-zekitelako.

<sup>35</sup> Goizean, oraindak illun, jeikita toki bakartu bate-  
ra joan zan, an otoitz egitera. <sup>36</sup> Simon'ek eta lagunak, billa ibillita, <sup>37</sup> arkitu zuten eta au esan zioten: «Guziak zure billa dabiltza». <sup>38</sup> Eta Berak: «goazen beste norabait, mugako errietara, an ere itzegitera; ortarako atera bainaiz». <sup>37</sup> Eta Galilea osoan, Sinagogetan itzegitera joan zan, eta deabru-bialtzen ari zan.

**Lepradun bat sendatu.**

<sup>40</sup> Lepradun bat datorkio belauniko otoika: «nai ba'-dezu, garbitu nazakezu». <sup>41</sup> Jesus'ek, kupiturik, eskua luzatu, ikutu, ta «nai det, garbi zaite» erantzun zion. <sup>42</sup> Bertan, leprarik gabe, garbi gelditu zan. <sup>43</sup> Eta Jesus'ek bialdu zun zorrotz esanez: <sup>44</sup> «Begira iñori esan!; baña zoaz Apaizagana erakustera, ta eskefiu iozu zure garbikuntza-sari Moisék agindua, aientzat aitorbide izan dedin. <sup>45</sup> Ua, ordea, joanda gertatua zabaltzen asi zan. Arrezkero Jesus



ezin ziteken agerian iñungo erritan sartu ere; oster, ba-soaldean, bakartegian zebillen, eta nundinai zetozkion.

## II

### Perlesiduna sendatzen.

<sup>1</sup> Zenbait egunen buruan berriro Kafarnaun'a sartu zan, eta etxean zegola jakin zuten. <sup>2</sup> Ate aurrean ere, lekuri ez uzteko aiña jende bildu zitzaion eta mintzaldi bat egin zien. <sup>3</sup> Eta, ara, perlesidun bat ekarri zioten, lau lagunek eramana. <sup>4</sup> Jendearengatik, Aren aurrera ezin urbildu, eta, zegon etxeko tellatua altxa, zulo bat egiñ, eta andik beera jetxi zuten oetxoan (\*). <sup>5</sup> Jesus'ek, aien sinismena ikustean, esaten dio perlesidunari: «seme, pekatuak barkatu zaizkizu.» <sup>6</sup> An eserita zeuden idazlari batzuk, au zioten beren artean: <sup>7</sup> «Zer ari da ori orrela, biraoka? Zenek barkatu ditzake pekatuak, Jainkoak ezik?» <sup>8</sup> Eta bertan Jesus'ek bere argiz ezagututa au esaten die: «Zer darabiltzute zeren biotzean? <sup>9</sup> Zer da errezago, perlesidunari esatea: barkatuak dituzu pekatuak, ala, zuti zaite, ar zazu bizkarrean oetxoa, ta zoaz? <sup>10</sup> Beraz, Gizonaren Semeak lurrean obenak barkatzeko eskubide dula ezagutu dezazuten: <sup>11</sup> «adizu, esaten dio perlesidunari: altxa zaite, ar zazu bizkarrean oetxoa, ta zoaz etxera.» <sup>12</sup> Zutitu zan, eta bereala, zerraldoa bizkarrean arturik, guzien aurrean atera zan. Danak arriturik gelditu ziran, eta Jainkoa goratuz, – ez degu beñere olakorik ikusi – zioten.

### Jesus'ek Mateo deitzen du.

<sup>13</sup> Atera zan berriro itxas-ondora ta gizalde osoa beregana zijoakion, eta erakusten ari zitzaion. <sup>14</sup> Andik pasatzean, Lebi Alfeu'rena ikusi zun, pagu-biltzeko maiean

eserita, eta «segi neri» esan zion. Jeiki ta jarraitu egin zion. <sup>15</sup> Aren etxean jaten ari zala, pagu-artzaille ta pekatari asko ere maiean jarri ziran Jesus'ekin eta ikasleekin, asko baitzitun atzetik (\*). <sup>16</sup> Idazlari ta pariseuak, Jesus pekatariekin eta pagu-biltzailleekin jaten ikustean, au esan zien ikasleai: – zerga-biltzailleekin eta pekatariekin jaten ari da. <sup>17</sup> Eta Jesus'ek, au aditzean «onik daudenak ez-baña gaixo daudenak dute sendagille-bearra, esan zien; zintzoak ez-baña pekatariak deitzera etorri bainaiz».

### Barau egitea.

<sup>18</sup> Joan'en ikasleak eta pariseuak barau-eguna zuten, berriz, eta etorrita au esaten diote: Zergatik Joan'en ikasleak eta pariseuak barau egiten dute, zureak, ordea, ez? <sup>19</sup> «Eztaietara deituak, diotse Jesus'ek, barau egiñ al dezakete senar berria berekin daukateño? Ezkonberria berekin daukateño, ez dezakete baraurik egin. <sup>20</sup> Bañan etorriko zaizkie ezkonberria kendu-egunak, eta ordun egingo dute barau. <sup>21</sup> Iñork ez du josten oial gordiñezko adabaki bat soñeko zaar batekin; bestela, adabaki berriak tira egingo lioke zaarari, ta zarrata aundiago litzake. <sup>22</sup> Zaragi zaarretan ere ez du iñork ardo berririk sartzen; ardoak zaragiak ausi bailezazke, ta ardo ta zaragi galduko lirake. Ostera, zaragi berrietan ardo berria».

### Larunbata jai egitekoa.

<sup>23</sup> Larunbatez soroetan barna zijoan, eta ikasleak galburuak moxten asi ziran. <sup>24</sup> Ordun pariseuak, begira, esan zioten: nola egiten dute larunbatean, zillegi ez dana? <sup>25</sup> Eta «ez al dezute beñere irakurri, esan zien Jesus'ek, Dabid'ek zer egin zun gosetu zanean eta arenak? <sup>26</sup> Jainkoaren etxera sartu zala, Abiatar Apaiznagusi zala, ta,

apaizak bestek jan ez dezazken ogi eskeñiak jan zitula; bai arekin zijoazenak ere?» <sup>27</sup> Eta are esan zien: «larunbata gizonarentzat egiña da; ez, gizona larunbatarentzat. <sup>15</sup> Ortaz, Gizonaren Semea larunbataren ere jabe da» (\*).

### III

#### **Esku igarra sendatu.**

<sup>1</sup> Berriro Sinagoga sartu zan, eta an ba-zegon gizon bat esku-igarra. <sup>2</sup> Ernai ta adi zeuden, larunbatean sendatuko ote zun, Bera salatzeko. <sup>3</sup> Eta esku-igarrari «zuti erdian» esan zion. <sup>4</sup> Eta aiei: «Zillegi al da larunbatean on egitea? ala kalte?; bizia gordetzea, ala galtzea?». Aiek ixilik zeuden. <sup>5</sup> Inguru-begira, asarre ta goibel zegon, aien biotz-gogorkeriz, eta «luza esku ori» esaten dio gizonari. Luzatu zun, eta eskua sendatu zitzaion. <sup>6</sup> Atera ziran parriseuak, eta bertatik, erodiarrakin, Ua galtzea erabaki zuten.

#### **Mirariak Tiberiades ondoan.**

<sup>7</sup> Baña Jesus bere ikasleekin, itxas-ondora lekutu zan. Eta Galilea'r askok jarraitu zioten. <sup>8</sup> Eta egiten zitunak entzunda, jendalde aundia ere etorri zan Judea'tik, Jerusalem'dik, Idumea'tik, Jordan'ez aruztik, eta Tiro ta Sidon inguruetatik. <sup>9</sup> Eta ikasleai ontzitxo bat bakandu zezatela agindu zien, gizalde aundiagatik, zapaldu etzazaten. <sup>10</sup> Asko sendatzen baitzitun, eta miñik zuten guziak Arenalga balantzatzen ziran ikutu-naiean. <sup>11</sup> Eta aingeru loiak Ua ikustean, belauniko jartzen zitzaizkion oiuka: «Zu Jainkoaren Seme zera». <sup>12</sup> Bañan Ark zorrotz agintzen zien Ua ez agertuazteko.

#### **Amabi aukeratu.**

<sup>13</sup> Gero mendira igo zan; gogo zitunai dei egin zien, eta etorri zitzaizkion. <sup>14</sup> Amabi aukeratu zitun, lagundu zezaioten. <sup>15</sup> Itzegiteko ta deabruak uxatzeko eskubide emanda bialdu zitun. <sup>16</sup> Amabi auek dira aukeratuak: Simon, oni Pedro izena jarri zion, <sup>17</sup> Santiago Zebedeo'rena, Joan, Santiago'ren anaia; auei Boanerges izena jarri zien, au da, turmoi-seme; <sup>18</sup> Andres eta Pilipe, Bartolome ta Mateo, Tomas eta Santiago Alfeurena; Tadeo ta Simon kananeu; <sup>19</sup> eta Judas Iskariote, saldu zuna.

#### **Ez eta bai idazlariekin: Jesus nagusi.**

<sup>20</sup> Etxera ziranean, berriro jendalde aundia bildu zitzaion: jan ere ezin baitzezaketen. <sup>21</sup> Au aditzean, aideak Ua geldierazteko atera ziran, «burutik egin zaio» baitzio-ten. <sup>22</sup> Eta Jerusalem'dik etorritako idazlariak «Belzebul dauka» zioten, eta deabruen buru danaren laguntzaz aizatzen ditu deabruak. <sup>23</sup> Ordun, deitu ta ipuiez asi zitzaien. <sup>24</sup> «Satanas'ek nola aizatu dezake Satanase? Beregan erdibi egiñik dagon erriak, ez dezake irau. <sup>25</sup> Eta etxe bat beregan erdibitzen ba'da, ez da zutik geldituko. <sup>26</sup> Beraz. Satanase bere aurka ari ba'da, erdibi egiña dago, ta ezin dezake irau; azkenetan da. <sup>27</sup> Bestera; inor ez diteke bizkorren etxean sartu, ta ango guziak ostu, leenbizi bizkorra lotzen ez ba'du. Ordun ustuko dio etxea. <sup>28</sup> Egiz esan: gizonai barkatuko zaizkie oben guziak, bai birauak ere; <sup>29</sup> bañan Ispiritu Santuaren aurka birau egiten dunak, ez du barkamenik zekulan, eta pekatu aren errudun izango da betiko. <sup>30</sup> «Aingeru loa dauka» esaten zuten, bada.

#### **Jesus'en Ama ta aideak.**

<sup>31</sup> Ba-datoz Aren Ama ta aideak eta urruti xamarretik deituazi zuten. <sup>32</sup> Jendalde aundia zeukan inguruan eserita

eta onela esan zioten: «Or dituzu atzean Ama ta lengusuak zure billa». <sup>33</sup> – «Zein ditut Nik Ama ta lengusu? esan zien». <sup>34</sup> Eta inguruan zeuzkanai begira, au esan zun: «Ona nere ama ta aideak. <sup>35</sup> Jainkoak naia egiten dun au izango det anai, arreba ta Ama».

#### IV

##### Ereillearen ipuia.

<sup>1</sup> Eta berriro itxas-ondoan erakusten ari zan. Baña gizalde aundia etorri zitzaion eta ontzira igota itxasoan eseri bearra ere izan baitzun. <sup>2</sup> Ipuiez erakuspen asko ematen zien, eta bere erakuts-aldian onela ari zan:

<sup>3</sup> Entzun!: ereille bat ereitera irten zan. <sup>4</sup> Eta ereitean, azi batzuk bide-ondora erori ziran, eta txoriak etorrira jan egin zituten. <sup>5</sup> Beste batzuk, lurra lodi ez zan arri-tartean, eta laister erne ziran, lurrak mamerik etzulako. <sup>6</sup> Bañan, eguzkia sortu zanean, erre egin ziran, eta zuztarrrik etzutelako, igartu. <sup>7</sup> Beste batzuk arantza artean, eta arantzak aundi egin ziranean, ito ziran eta etzuten uztarik eman. <sup>8</sup> Besteak berriz, lur onean; eta lastotan, eta aletan uzta ekarri zuten: batzuk ogeitamar, beste batzuk irurogei, ta beste batzuk eun. <sup>9</sup> Eta onela zion: –entzuteko belarririk dunak, entzun beza.

<sup>10</sup> Bakarrik gelditu zanean, Amabiekin batean inguru zeudenak, ipuietaz galdegin zioten. <sup>11</sup> Eta au esan zien: «Zuei emana zaizue Jainko-erriaren mamia ezagutzeko aukera; beste arrotzai, ordea, guzia ipuiez adierazten zaie, <sup>12</sup> «begira ta ikusi ez dezaten, entzunda aditu ez dezaten, baldin atzera eginda barkatu dakien». <sup>13</sup> Eta ipui oni ez al diozute antzematen? Nola antzemango diezute, bada, ipui guziei? <sup>14</sup> Ereilleak itza ereiten du. <sup>15</sup> Bide-ondokoak,

ereiten zaienak dira; bañan entzun orduko, ba-dator Satanas, eta erein zaien itza kentzen die. <sup>16</sup> Arri artean, ereiñak, berriz, itza entzun orduko pozik artzen dutenak dira; <sup>17</sup> bañan ez dute berekin zaiñik, eta koloka daude, ta estualdia edo ez-bearra itzarengatik etortzean, gaitzera bidea artzen dute. <sup>18</sup> Beste batzuk, arantza artean ereiñak, itza entzuten dute; <sup>19</sup> baña munduko kezkek, aberastasunen lausoak, eta beste griña txarrak, itotzen dute itza, ta alper egiten. <sup>20</sup> Lur onean ereiña, artzen dutenak, itza entzuten dutenak dira, ta ondo artzen eta batek ogeitamar, besteak irurogei, ta besteak eun ematen dute.

##### Beste ipui batzuk.

<sup>21</sup> Esaten ere zien: «Lakaripean edo oe-azpian ipintzeko al dakarte krisallua?, ala, argimutillaren gañean? <sup>22</sup> Ez baita ezer gorderik, agertuko ez danik; ezta itzalpekorik ere, argitara ez datorkenik. <sup>23</sup> Entzuteko belarririk dunak, entzun beza. <sup>24</sup> Esaten ere zien: «Ernai entzun nere esana; neur-tzen dezuten neurritz neurtuko zaituete, ta tontorka. <sup>25</sup> Dunari emango baitzaio, ta ez dunari, duna ere kenduko zaio».

<sup>26</sup> Eta oraindik: «Jainko-erria, gizonak lurrera botatzen dun azia bezela da: <sup>27</sup> gizona gau ta egun lo ta ernai dagon bitartean azia ernatzen da ta azitzen, ark nola ez dakila. <sup>28</sup> Lurrak berez ematen du zitua, lenbizi lastoa, gero burua, gero buruan ale beta. <sup>29</sup> Eta eldu danean, itaia artzen du, ebakitzeko garaia baita. <sup>30</sup> Are oraindik: «Zerekin alderatuko degu Jainko-erria, edota zer alegintzan adieraziko? <sup>31</sup> Basarbiaren azia bezela da. Lurrean ereiten danean, azi guzietan kaxkarrena da (\*); <sup>32</sup> bañan ereinda gero, gora dator, eta barazki guziak bañon aundiago egiten da, ta zeruko egaztiak aren itzalean egiten dute ka-

bia: ain aundi baititu adarrak». <sup>33</sup> Eta olako ipui askoren bidez ematen zien erakutsia, aiek buruz artzeko moduan. <sup>34</sup> Eta ipuirik gabe etzien itzegiten; bañan ikasleai bakarrean adierazten zizkien guziak.

### Ekaitza baretua.

<sup>35</sup> Egun berean, illunabarrean, «goazen besta aldera» esan zien. <sup>36</sup> Eta jendea bialduta, eramaten dute, ontzian zegon bezela, beste ontziak lagun zitula. <sup>37</sup> Ordun, zurrunbillo zakarra sortu zun, eta olatuak ontziaren geñetik saltatzen ziran, ia ia pulunpatzeko aiflean. <sup>38</sup> Jesus lo zegon txopan, bururdi-gañean. Esnarazi ta: «Maisu, esaten diote, ez al zaizu ajola gu galtzea?» <sup>39</sup> Ta zuti jarrita, oi u egin zion aizeari ta itxasoari, ta ola esan: «ixo! mututu!» Aizea bareturik, onaldi aundia etorri zan. <sup>40</sup> «Zergatik, esan zien, oin bildurti? Oraindik ez al dezute sinismenerik?» <sup>41</sup> Oso izuturik gelditu ziran, alkarri esanka: - Nor da au? aizeak eta itxasoak ere esaneko baititu.

## V

### Gerasa'ko deabruduna.

<sup>1</sup> Joan ziran itxasoz aruntza, Gerasa'taren aldera. <sup>2</sup> Ontzitik atera zaneko, gizon bat bidera zitzaion il-obietatik. aingeru loidunak artua. <sup>3</sup> Il-obietan bizi zan, eta iñork etzezaken katez lotuta euki. <sup>4</sup> Askotan lotu baitzuten girgilluz eta katez, bañan austen zitun kateak, eta girgilluak puskatzen, eta iñork etzezaken ezi. <sup>5</sup> Gau ta egun ill-obietan zegon aldegin gabe, ta mendietan zebillen, oiuka ta gorputza arriz joka. <sup>6</sup> Jesus urrutitik ikustean, korrika etorrira aurrean auspeztu zitzaion, oiuka: <sup>7</sup> «Zer det nik zurekin ikustekorik, Jesus txit Goikoaren Semea? Jainko arren!

ez nazazu oñazetu!» <sup>8</sup> Jesus'ek esan zion: «atera adi, aingeru loaia gizon onengandik». <sup>9</sup> Eta «nola dek izena?» galdegin zion. Ark erantzun zion: «Taldea, asko baikera». <sup>10</sup> Eta arren eta arren eskatzen zion, etzezala bialdu arrialde artatik. <sup>11</sup> An, mendi-magalean, txerritalde aundi bat ari zan larratzean. <sup>12</sup> Eta «bialdu gaitzazu txerrietara» eskatu zioten. <sup>13</sup> Baietz, Jesus'ek; eta aingeru loaia, andik aterata, txerrietan sartu ziran, eta txerritaldea, bi milla edo, aldapa beera amildu ziran itxasora, ta an ito. <sup>14</sup> Txerriyaiak iges eginda, errian eta baserrietan otsa zabaldu zuten gertatuarena, ta ikustera etorri ziran. <sup>15</sup> Eta Jesus'engana urbildurik, deabruduna, taldea barnean euki zuna, eseri ta jantzia ikusi zuten. <sup>16</sup> Ikusle izanak, deabrudunarekin eta txerriekin gertatua kontatu zien. <sup>17</sup> Ordun, artatik aldegin zezala eskatu zioten. <sup>18</sup> Eta Bera ontzian sartzean, leen deabrudun zanak, Berekin eraman zezala eskatzen zion. <sup>19</sup> Etzion utzi, bañan au esan zion: «Zoaz etxe-koangana ta azaldu iezu Jaunak, kupiturik, zuri egin dizun guzia». <sup>20</sup> Joan zan eta Dekapoli'n zabalitzen asi zan Jesus'ek egin ziona. Ta arriturik zeuden guziak.

### Jairo'ren alaba ta odoljarioduna.

<sup>21</sup> Jesus ontzian beste ertzera itzuli zanean, jende asko bildu zan, eta itxas-ondoan zegon. <sup>22</sup> Ba-datorbio Sinagogako Buruetako bat, izenez Jairo, ta ikusi orduko, oñetan auspeztu zitzaion. <sup>23</sup> «Arren eta arren, alaba iltzear daukat; atoz, eskuak ezarri izkiozu, sendatu ta bizi dedin». <sup>24</sup> Jesus arekin joan zan, eta jendalde aundia zun atzetik estu-estuka.

<sup>25</sup> Eta amabi urte artan odoljario zegon emakume bat, <sup>26</sup> medikutan asko ikusia, zitunak gastatua, obeasunik baltete etzuna ta okerrago jarria, <sup>27</sup> Jesus'en berri entzunda,

jendarte-atzetik ondora eldurik, soñekoa ikutu zion.<sup>28</sup> «Soñekoa bederik ikutzen ba'diot, sendatuko naiz» bai zion.<sup>29</sup> Eta bertan odoljariora gelditu zitzaion, eta sumatu zun gorputzean gaitza sendatu zitzaiola.<sup>30</sup> Laxter Jesus'ek, indar bat irten zitzaiola sumaturik, jendaldearen artean atzera begira, «nork ikutu ditu nere jantziak», zion.<sup>31</sup> Eta ikasleak esan zioten: «Ikusten dezu jendeak estekatzen zaitu-la, ta nork ikutu nau, diozu?»<sup>32</sup> Ta inguru-begira zebillen; ua egin zunaren billa.<sup>33</sup> Ordun emakumea, gertatu zitzaiona jakini, bildur-ikaraz auspez jarri zitzaion, egi osoa esateko.<sup>34</sup> Bañan Ark, «alaba, esan zion, zure sinismenak sendatu zaitu; zoaz pakean, eta sendatua zaitte zure gaitzetik».

<sup>35</sup> Oraindik izketan ari zala, Sinagoga-buruaren etxetik datoz esaten: il zaizu alaba; zertako nekarazten dezu Maisua?<sup>36</sup> Baña Jesus'ek, esaten zutena entzunik, «ez bildurrik izan, diotsa Sinagoga-buruari; siñistu, bakarrik».<sup>37</sup> Eta etzun iñor artu nai izan lagun, Pedro, Santiago, Joan, Santiago'ren anaia besterik.<sup>38</sup> Iritxi ziran Sinagoga-buruaren etxera, ta ango ixkanbilla, negarra ta karraxia ikusi,<sup>39</sup> ta sartzean au esaten die: «Zertako ixkanbilla ta negarra? nexka ez da il, lo dago».<sup>40</sup> Parra egin zioten. Bañan Ark, denak kanpora aterarazi, ta nexkaren aitamak artzen ditu, ta berekin zeramazkinak, eta nexka zegon tokira sartu zan.<sup>41</sup> Eta eskutik elduta, «*Taliha kumi* esaten dio, au da, «*zuti, nexka! Nik agintzen dizut*».<sup>42</sup> Eta bertan zutitu zan nexka, ta ibiltzen asi zan; ba-zitun amabi urte.<sup>43</sup> Guziak zur eta lur gelditu ziran; eta zorrotz agindu zien iñork etzezala jakin, eta ari jaten emanarazi zien.

## VI

**Nazaret'eko Sinagogan.**

<sup>1</sup> Andik irtenda, bere errira joan zan, ikasleekin,<sup>2</sup> eta larunbatean Sinagogan izketan asi zan. Jendalde aundiak au zion arriturik: ¿Nundik oni ori guzia? Zer jakindua eman zaio? Eta egiten ditun mirariak?<sup>3</sup> Ez al da au arotza, Mari'ren Semea, Santiago, Judas eta Simon'en aidea? Eta ez al daude emen gure artean onen lengusu emaztekiak? Eta gaitzera bide artzen zuten Arekin.<sup>4</sup> Jesus'ek au esan zien: «Igarle batek ez du esker txarrik, bere errian, aideen artean eta bere etxean ezik».<sup>5</sup> Eta eziñ egiñ izan zuan an miraririk; bakar batzuei eskuak ezarri ta aiek sendatu baizik.<sup>6</sup> Arrituta zegon aien siñisgabeaz. Eta inguruko baserrietan ari zan erakusten.

**Amabiak mixiotara.**

<sup>7</sup> Amabiak deiturik, binaka bialtzen asi zan, aingeru loien gain eskubide emanik;<sup>8</sup> eta biderako ezer ez artzeko agindu zien, makilla ezik; ez ogirik, ez bidezorrik, ez gerrikoan dirurik;<sup>9</sup> abarkak, bai; aldatzekorik ez.<sup>10</sup> Esaten ere zien: «sartzen zeraten etxean, zaudete bertan erri artatik atera arte».<sup>11</sup> Eta ez ongi-etorri ta ez entzun egiten dizuten tokitik, irten zaitzete, ta astindu zazute oñetako autsa, aien aurkako aitortzat».<sup>12</sup> Jun eta damua otsegin zuten;<sup>13</sup> deabru asko aizatzen zituten, gaxo asko olioiz igurtzitzen eta sendatzen.

**Joan Bataiatzaileari lepo egiña.**

<sup>14</sup> Aren izena soñuetan baitzebillen, Erodes'ek entzunda au zion: – Joan Bataiatzailea piztu da illen artetik, eta orregatik ari du indar miraritsua.<sup>15</sup> Beste batzuk – Elias da – zioten; beste batzuk berriz, Igarleren bat.<sup>16</sup> Bañan

au entzutean, Erodesek – Joan piztu da, zion, nik lepoa moztu niona. <sup>17</sup> Izan ere, Erodesek Joan lotuerazi zun eta espetxean kateatu, anai Pilipe'ren emazte Erodias bereztat artua zeukalako. <sup>18</sup> «Ez da zillegi» esaten baitzion Joan'ek Erodesei, «zure anaiaren emaztea edukitzea». <sup>19</sup> Eta Erodias'ek gorroto artu zion, eta il nai zun; bañan ezin (\*). <sup>20</sup> Erodesek Joan'i begirunea zion gizon zintzo ta santua zalako, ta bere alde ateratzen zan; aren burubidez ere, maiz egiten baitzun gauza asko ta pozik entuzten zion. <sup>21</sup> Etorri zan ordea, egun bat aukerakoa: Erodesek bere urtebetetzean, Galilea'ko lenendari ta aundikiei otordu bat eman zien; <sup>22</sup> Erodias'en alaba sartu zan, dantzan egin zun, eta Erodesei ta mai-lagunei atsegin izan zitzairen. Erregek neskaxari esan zion: «eska zazu nai dezuna, ta emango dizut.» <sup>23</sup> Eta ziñ egin zion: «zer eska, ua emango dizut, nere Errege-erriaren erdia ba'da ere.» <sup>24</sup> Andik irtenda, neskak amari esan zion: «zer eskatuko det?» eta amak: «Joan Bataiatzaillea'ren burua nai det bereala». <sup>25</sup> Korrika, Erregearengana joanda, ola eskatu zion: «Joan Bataiatzaillea'ren burua nai det bereala azpil batean.» <sup>26</sup> Errege goibeldu zan, bañan egindako ziñagatik eta mai-lagunengatik, etzun atsekabetu nai izan <sup>27</sup> eta morroi bat bialduz aren burua azpillean ekartzeko agindu zion. Joanda kartzelan lepoa moztu <sup>28</sup> ta burua azpillan ekarri zun; nekari eman zion, eta onek amari. <sup>29</sup> Aren ikasleak, au entzutean, etorri, gorputza artu, ta illobian sartu zuten.

#### Amabien itzulera.

<sup>30</sup> Bidaliak berriro Jesus'engana bildurik, egiñen eta erakutsien berri eman zioten, eta Jesus'ek, <sup>31</sup> «atozte mendi-baztarrera bakarrean, eta atsedean pizka bat artu»; asko baitziran joan-etorri zebiltzanak, eta jateko ere etzuten betarik. <sup>32</sup> Ontzian, baztar batera joan ziran, bakarrik.

<sup>33</sup> Bañan joaten ikusi zituten eta asko konturatu ziran, eta oñez korrika aurreratu zitzaizkien erri guzietatik. <sup>34</sup> Ontzitik irtetean jendalde aundia ikusi zun Jesus'ek, eta kuitu zitzaion aiengatik, ardiak artzai gabe bezela baitze biltzen. Eta erakusten asi zitzairen luze aña zabal.

#### Ogiak ugazitu lenengoz.

<sup>35</sup> Oso berandu zala, ikasleak ondora zitzaizkion, esatera: «toki baztarra da au, ta oso berandutu du; <sup>36</sup> bialdu itzazu inguruko ballera ta bordetara, jateko zerbait erosi dezaten». <sup>37</sup> «Emaiezute jana», crantzun zien. Eta aiek. «Berreun denarioren ogia erosiko al-degu?» <sup>38</sup> Jesus'ek oraindik: «Zenbat ogi dituzute? Joan eta ikus». Eta jakitean: «bost ogi eta bi arrai» esaten diote. <sup>39</sup> Taldeka larratzean eseritzeko agindu zien guziei; <sup>40</sup> eta eunka ta berrogei ta amarnaka salletan eseri ziran. <sup>41</sup> Ordun, bost ogiak eta bi arraiak artu, begiak zerura jaso, bedeinkatu ta ogiak zatitu zitun, eta ikasleai eman zizkien, banatu zizazkieten. bi arraiak ere denai eman zizkien. <sup>42</sup> Guziak jan zuten, ase arte; <sup>43</sup> ta amabi otarra ogi-kondarrez ta arraizkiz beterik jaso zituten. <sup>44</sup> Ta ogietatik jan zutenak bost milla gizon ziran.

#### Olatuen gañean.

<sup>45</sup> Bereala ikasleak ontzira sarrerazi zitun, eta zijoazela aurretik Betsaida aldera agindu zien, Berak jendea bialdu bitartean. <sup>46</sup> Bialdu zitunean, mendira joan zan otoiitz egitera. <sup>47</sup> Illunduta gero, ontzia itxas-erdian zegoen, eta Berak bakarrik legorrean. <sup>48</sup> Ontzikoak, arraunketan nekaturta ikusi zitun, aizea aurpegira zetorkiela-ta, laugarren gaualdi aldera, ur gañean oñez etortzen ikusi zuten, ia aurrea pasa arte. <sup>49</sup> Bañan aiek, Ua itxasoan oñez ikustean, oi

egin zuten, irudituzkoa zalakoan. <sup>50</sup> Ikusita guziak ikaratu baitziran. Bañan Ark bereala itzezin zien: «eup! Ni naiz; ez bildurtu!» <sup>51</sup> Aien ontzira sartu zan, eta aizea bereala paketu zan; eta askoz arrituago gelditu ziran; <sup>52</sup> ez baitzitzaien oraindik buruan sartu ogiena: biotza astun zeukaten.

### Beste mirari batzuk.

<sup>53</sup> Txangoa eginda, Genesaret'eko legorrera iritxi ziran, eta an gelditu. <sup>54</sup> Ontzitik irteteen Jesus ezagutu zuten. <sup>55</sup> Eta errialde guzi aietatik korrika gaxoak oetxotan zekazten, Bera omen zegoen tokira. <sup>56</sup> Sartzen zan tokian, erri, errixka ta bordetan, gaxoak zelaietan ipintzen zituten, eta Aren soñeko-barrena bederik ikutzea eskatzen zuten; eta ikutzen zuten guziak sendatzen ziran.

## VII

### Jesus itxurakeriaren aurka.

<sup>1</sup> Bildu zitzaizkion Jesus'i pariseuak eta Jerusalem'dik etorritako idazlari batzuk. <sup>2</sup> Ikasleetako batzuk ogia esku narratxakin jaten zutela ikusi zuten, au da, garbitu gabeakin. <sup>3</sup> Pariseuak, alegia, ta judu guziak, ez dute jaten eskuak begiratuki garbitu gabe, zaarren oiturari dagokionez; <sup>4</sup> eta plazatik etortzean, bañua artu gabe ere ez dute jaten. Eta olako beste oitura asko ditute ikasiak: potoak, txarroak, tupiñak eta oien garbiketak. <sup>5</sup> Ordun pariseuak eta idazlariak au galdegin zioten: «Zergatik zure ikasleak, zaarren oitura gorde gabe, ogia esku narratxakin jaten dute?» <sup>6</sup> Bañan Ark onela erantzun zien: «Azal-utsak! Oso ederki igerri zion aurretik zuetaz Isaias'ek, idatzirik dagon au: *Erri onek ezañez goratzen nau; baña biotza Ni-*

*gandik urruti dauka.* <sup>7</sup> *Alperrik agurtzen naute, gizonen agindu diran erakutsiak, erakutsiz.* <sup>8</sup> Jainko-aginduen ajo-lagabe, gizonen oiturai eusten diezute (ontzien garbiketetan t.a.). <sup>9</sup> Eta are: – Bai; Jainko-legea austen dezute, aurrekoen oiturai eusteagatik. <sup>10</sup> Esan baitzun Mois'ek: *ezaiezi begirune aitari ta amari; eta, aita, naiz ama, biraoka dabiltzana, erioz il bedi.* <sup>11</sup> Baña zuek au diozute; – neretik protxuzko zaizukena, Jainkoarentzat bego; <sup>12</sup> eta ez diozute ezer egiten uzten aitamangatik. <sup>13</sup> Onela, uts ematen dezute Jainkoaren agindua, agoz ago ikasitako oiturarekin; eta olako gauza asko egiten dituzute.»

### Zer da zikin, zer garbi?

<sup>14</sup> Berriro, jendeari otsegiñez: «entzun Neri, esan zien, eta aditu, guziok. <sup>15</sup> Gizonaz kanpo ez da ezer, argana sartuta zikindu dezakenik; baña gizonagandik irteten danak, orrek zikintzen du gizona. <sup>16</sup> Entzuteko belarririk dunak, entzun beza». <sup>17</sup> Eta jendea utzita etxera sartu zanean, ikasleak ipuiarena galdegin zioten. <sup>18</sup> «Oraindik ezagueria gabe al zaudete? esan zien. Ez al dakizute gizonagana kanpotik sartzen danak ez dezakela zikindu? <sup>19</sup> biotzera ez-bañña sabelera sartzen baita, eta andik simaurtegiara ateratzen.» Onela, janari guziak garbi artzen zitun. <sup>20</sup> Eta au erantsi zun: «Gizonagandik irteten danak, orrek bai, zikintzen du gizona. <sup>21</sup> Barrundik sortzen dira, biotzetik, gogorakizun txar, lizunkeri, lapurreta, eriotz-egite, <sup>22</sup> ezkontza-naaste, diru-gose, gaiztakeri, maltzurkeri, sabelkeri, bekaizkeri, birau, arrokeri, zorakeriak. <sup>23</sup> gaitz guziok barrundik irteten dira, ta auek zikintzen dute gizona.»

### Galilea'z kanpo.

<sup>24</sup> Andik gora, Tiro ta Sidon'go mugetara joan zan. Etxean sartu eta etzun nai iñork jakiterik; bañan ezin pa-

sa, ezaguna izan gabe.<sup>25</sup> Bereala, artaz itzegiten entzunda, emakume bat etorri zitzaion —alaba deabruak artu zeukan— eta auspez jarri zitzaion.<sup>26</sup> Arrotza zan emakume ua, siropeniziarra, ta alabagandik deabrua bialdu zezala eskatzen zion.<sup>27</sup> Jesus'ek ari: «utzi, lenbizi ase ditezela semeak; ez baitago ongi semeen ogia artuta txakurrei botatzea». <sup>28</sup> Bañan arek: «Bai, Jauna, txakurtxoak ere, maipetik, semeen apurrak jaten ditute» (\*). <sup>29</sup> Eta Jesus'ek: «itz oiengatik, zoaz, atera da deabrua zure alabarengandik.» <sup>30</sup> Joan zan etxera, ta nexka oiean etzana arkitu zun deabruak utzia.

### Gor-mutua.

<sup>31</sup> Tiro aldetik, Sidon'en barna Galilea'ko itxas-aldera joan zan, Dekapoli pasata (\*). <sup>32</sup> Gor-mutu bat dakarkiotte, eskuak ari ezartzeko eskatuz. <sup>33</sup> Artu zun jendearengandik aparte eta beatzak belarrietan sartu zizkion, eta listuz mingaña ikutu zion; <sup>34</sup> gero, zerura begira, zizpuruka, esan zion: «Eppheta, au da, idiki zaite.» <sup>35</sup> Bertantxe idiki zitzaizkion belarriak, eta mingain-lokarria askatu, eta garbi itzegiten zun. <sup>36</sup> Iñori ez esateko agindu zien; baña Berak aginduago ta aiek zabalduago. <sup>37</sup> Arriturik: «guzia ondo egiten du, zioten: gorrai entzunerazi ta mutuai mintzarazi egiten die.»

## VIII

### Bigarrengoz ogiak ugartu.

<sup>1</sup> Egun aietan berriro gizaldi aundia agertu zan, eta jatekorik ez baitzuten, dei egin zien Ikasleai, eta «kupitzen nau jende onek, esan zien: iru egun Nerekin deramazki ta jatekorik ez du; <sup>2</sup> baraurik etxera bialtzen ba'dituz, bi-

dean aulduko dira, batzuk urrutitik etorriak baitira.» <sup>4</sup> —«Nola emen ogiz ase, erantzun zioten, mendi baztar ontan?».— «Eta, zenbat ogi daukazute?» galdegin zien. —«Zazpi» esan zioten. <sup>6</sup> Jendea eseriazi zun lurean, eta zazpi ogiak arturik, eskerrak emanaz zatitu zitun eta bere ikasleai eman zizkien, gizatalde artean zabal zitaten; eta banatu zizkioten. <sup>7</sup> Bai ere zituten arrai bakar batzuk eta bedeinkatuz, aiek ere banatzeko agindu zien. <sup>8</sup> Jan zuten, ase ziran, eta gelditu ziran puskez, zazpi saski bildu zituten. <sup>9</sup> Lau millaren bat ziran, eta ala bialdu zitun.

### Ezaugarri bat eskatzen diote.

<sup>10</sup> Eta berealaxe, ikasleakin ontzira igota Dalmanuta aldera joan zan. <sup>11</sup> Atera ziran pariseuak eta Arekin izka asi ziran, zirika, zerutik mirari-eske. <sup>12</sup> Barrungo zizpuru aundiz au esan zien: «zer ari da gizaldi au mirari-eske? Itzaizue, noski, miraririk emango.» <sup>13</sup> Ta aiek utzirik, berriro ontzira igoaz, beste ertzera joan zan.

### Pariseuaren legamia.

<sup>14</sup> Ogiak aztu zitzaizkien, eta bat bakarra zuten berekin ontzian. <sup>15</sup> Eta ondo-esanean, «begira, esan zien, zaudete ernai pariseuen eta Erodes'en legamiarekin.» <sup>16</sup> Aiek sesioan ari ziran alkarrekin, ogirik etzutela. <sup>17</sup> Jesus'ek, igerrita, «zer ari zerate ez eta bai, esan zien, ogirik ez daukazutela? Oraindik ez dezute ezagutzen eta aditzen. Biotza gordin daukazute. <sup>18</sup> Begiak bai, ta ez dezute ikusten; belarriak, bai, ta ez entzuten. <sup>19</sup> Ez al dezute gogoan, bost millari banatu nizkienean, zenbat saski ondakin puskaz beteak bildu zenituten?» —«Amabi», esan zioten. <sup>20</sup> «Eta lau millari zazpi banatzean, zenbat saski ondakin puska bildu zenituten?» eta —«zazpi», esan zioten. <sup>21</sup> «Eta oraindik etzaizute buruan sartzen?»



**Betsaida'ko itsua.**

<sup>22</sup> Iritxi ziran Betsaida'ra eta itxu bat dakarkiotu ikutu dezan. <sup>23</sup> Itxua eskutik artuz, balleratik kanpora eraman zun; begietara listu egin zion, eta eskuak ari ezarririk, «ezer ikusten al dezu?» galdetu zion. <sup>24</sup> Ikusten asi zanean. «ikusten ditut gizonak, zion, ibiltzen; eta arbolak dirudizkil.» <sup>25</sup> Berrero eskuak ezarri zizkion begietan, eta argi ikusten zun urrutira ere. <sup>26</sup> Ordun, etxera bialdu zun, ballerara ere ez sartzeko esanaz.

**Pedro'k Kristo aitortzen du.**

<sup>27</sup> Jesus ikasleekin Filipino Zesarea'ko baserrietara irten zan, eta, «Ni nor naizela diote?» galdegin zien bidean ikasleai. <sup>28</sup> «Joan Bataiatzaillea», esan zioten batzuk; Elias, beste batzuk; Igarleren bat, beste batzuk berriz.» <sup>29</sup> «Baña zuek, galdegin zien, nor naizela diozute?» Eta Pedro'k «Kristo'a zera zu», erantzun zion. <sup>30</sup> Eta zorrotz agindu zien iñori ez esateko.

**Bakoitzak bere gurutzea.**

<sup>31</sup> Eta adierazten asi zitzaien Gizonaren Semea asko ikusi-bearra zala, ta zaarrak, Apaizburuak eta idazlariak, gaiztoetsiko zutela ta illeraziko; bañan irugarren egunean piztuko zala. <sup>32</sup> Eta argi ta garbi zion, esan ere. Ordun Pedro'k berekin artu zun Jauna, eta bestera esaten zion erritan. <sup>33</sup> Baña Berak, ikasleai begira, onela eraso zion Pedro'ri: «alde Nigandik, Satan, Jainko-gauzei ez baña giza-gauzei esker ematen diezu-ta.»

<sup>34</sup> Eta jendea ta ikasleak batean deiturik, au esan zien: «Nere ondoren etorri nai dunak, uka beza bere burua, ar beza bere gurutzea, ta betor Nerekin. <sup>35</sup> Bere bizia gorde nai dunak, galduko du; baña bere bizia Nigmatik eta Be-

rri-Onagatik galtzen dunak, arkituko du. <sup>36</sup> Zer balio dio gizonari mundu guzia irabazteak, bere bizia galtzen ba'du? <sup>37</sup> Eta zer emango du gizonak bere biziaren ordañez? <sup>38</sup> Gizaldi loi ta pekatari onen aurrean Nitaz eta Nik erakutsietaz lotsatzen dana, Gizonaren Semea ere lotsatuko da artaz, zere Aitaren ospez Aingeruakin datorrenean.

## IX

<sup>1</sup> Eta au esan zien: «Egiz esan; emen ba-claude ilko ez diran batzuk, Jainkoaren erria nagusiro datorrela ikusi arte.»

**Jesus itxuraz aldatu.**

<sup>2</sup> Sei egunen barruan Jesus'ek Pedro, Santiago ta Joan artu ta aparte eraman zitun mendi goi bakartsu batera, ta aien aurrean itxuraldatu egin zan. <sup>3</sup> Aren jantziak argitsu ta oso zuri biurtu ziran; lurrean iñungo zuri-jotzaillek zuritu ez lezazken moduan. <sup>4</sup> Eta Moises ta Elias agertu ziran Jesus'ekin izketan. <sup>5</sup> Pedro'k ordun, artetik sartuta: «Rabi, esan zion Jesus'i, on zaigu emen gelditzea; iru txahola egingo ditugu; bata zuretzat, bestea Moises'entzat eta bestea Elias'entzat.» <sup>6</sup> Etzekien zer ari zan; izuturik baitzeuden. <sup>7</sup> Ordun odei bat bildu zan itzal egiten ziela, ta odei artetik mintzo bat entzun zan: «Au det nere Semea, kuttuna; entzun iozute.» <sup>8</sup> Bereala, ingurura begira, Jesus besterik etzuten ikusten beren artean.

<sup>9</sup> Menditik jeixtean, ikusi zutena iñori ez adierazteko agindu zien, Gizonaren Semea illen artetik piztu arte. <sup>10</sup> Aiek gertaera au berentzako gorde zuten, illen artetik piztea zer zan eziñ-asmatur. <sup>11</sup> Eta galde egin zioten: «Zer diote idazlariak, Elias leenik etortzekoa dala?» <sup>12</sup> «Bai,

Elias'ek aurrena etorrira guzia eraberrituko du, esan zien; eta nola dago idatzirik Gizonaren Semeak asko ikusi ta esker txarra artuko dula? <sup>13</sup> Nik, ordea, Elias etorri dala diozuet, eta artaz nai zutena egin zutela, idatzita dagonez».

#### Gazte deabruduna.

<sup>14</sup> Eta ikasleetara bildurik, gizalde aundia ikusi zun aien inguruan, eta idazlari batzuk aiekin sesioan. <sup>15</sup> Bereala, Ua ikustean, jende guzia arriturik gelditu zan, eta diosala egitera etorri zitzaizkion. <sup>16</sup> «Zer berriketa ari dezute oiekin?» galdegin zien. <sup>17</sup> Jendeetako batek, «Maisu, esan zion: or ekarri dizut semea deabru mutuduna, <sup>18</sup> ta artzen dun bakoitzean, lurrera botatzen du, aparra dariola, ortz-karraskan eta elbarriturik uzten du. Esan diet zure ikasleai aizatu dezaten, bañan ezin izan dute». <sup>19</sup> «Oi gizaldi siñisgabea, erantzun zien: noiz arte egongo naiz zuekin? noiz arte burutuko zaituet? Ekatzute mutilla», ta, ekarri zioten. <sup>20</sup> Deabruak, ikusi zuneko, biurritu zun mutikoa gogorkiro, ta lurrean iraultzizka ari zan, aparra zeriola. <sup>21</sup> «Zenbat denbora da au gertatzen zaiola?» galdegin zien gurasoai; eta, «aurtzarotik», erantzun zion arek. <sup>22</sup> Eta askotan sutara botatzen du, ta uretara, galdu naiean; baña zerbait aal ba'dezu, erruki zakigu ta lagun iguzu». <sup>23</sup> Eta Jesus'ek: «al ba'dezu?» esan zien; siñistunari guzia eginkizun zaio» (\*). <sup>24</sup> Bereala mutikoaren aitak oiuka dio: «Siñisten det, lagun zaidazu siñistetxo ontan». <sup>25</sup> Jesus'ek, jendea pillaka zetorrela ikusirik, deabru loiari onela eraso zion: «Deabru mutu ta gorra, Nik agintzen diat: irten adi ortik, eta ez adi geiago ortan sartu!» <sup>26</sup> Orduan oiuka irten zan, bizkor dardaraziz; mutikoa ilda bezela gelditu zan; esaten ere baitzuten askok: illa dago. <sup>27</sup> Baña Jesus'ek, eskutik elduta altxarazi zun, eta mutikoa zuti gelditu zan. <sup>28</sup> Etxera sartu zanean, ikasleak aparte galdegin zioten: «zer-

gatik guk eziñ aizatu izan degu?» <sup>29</sup> Eta, «arraza au, erantzun zien, ez diteke aizarazi, oitotzez eta barauz ez ba'da».

#### Pasioa aitatzen bigarren aldiz.

<sup>30</sup> Andik irtenda, Galilea'n barna zijoazen, eta etzun nai iñork jakin zezan; <sup>31</sup> ikasleai erakusten ari baitzan, eta onela esaten zien: «Gizonarene Semea gizonen eskuetara emango dute; ilko dute, ta irugarren egunean piztuko da, ilda egonik». <sup>32</sup> Olako esanik etzitzaie buruan sartzen; bildur ziran, berriz, Ari galdetzeko.

#### Umiltasuna ta besterekiko eraman-bearra.

<sup>33</sup> Iritxi ziran Kafarnaun'a, ta etxera ezkerro, au galdegin zien: «Zer izketa ari zenuten bide ortan?» <sup>34</sup> Bañan aiek ixildu egin ziran, zeñ aundiago'ka baitzetozen bidean. <sup>35</sup> Eseri zan, eta Amabiak deiturik, au esan zien: «Aurrena izan nai duna, bedi guzietan azkena, ta guzien serbitzaria». <sup>36</sup> Gero, aur bat artu, aien erdian ipiñi, ta ua laztanduz, esan zien: <sup>37</sup> «Olako aur bat nere izenean artzen dunak, Ni artzen nau, ta Ni artzen naunak, Ni ez-baña, Ni bialdu nauna artzen du». <sup>38</sup> Joan'ek ordun: «Nor bait zure izenean deabruak aizarazten ikusi degu, ta ez baitabil gurekin, galarazi egin diogu». <sup>39</sup> Baña Jesus'ek, «ez galarazi, esan zun; iñor ez diteke, nere izenean mirari bat egin, eta nere kontra gaizki-esaka ari. <sup>40</sup> Gure aurka ez dagona, gurekin dago. <sup>41</sup> Eta Kristo'ren ikasle zeratelako iñork poto bat ur ematen ba'dizute, egiz esan, ez du galduko bere saria».

#### Eskandaloa.

<sup>42</sup> Ni sinisten nauten txikitxo auetako bati gaiztorako bidea ematen dionari, obe litzaioke asto-errotarri bat le-

potik erantsi ta itxas-erdira botako ba'lukete. <sup>43</sup> Zure eskuak gaiztora ba'zaramazki, moztu zazu; obe dezu bizira eskumotz sartu, bi eskuekin ipernuko su eziñ-itzalira bota zaitzaten baño.. <sup>44</sup> Ta zure oñak gaiztora ba'zaramazki, moztu zazu; <sup>45</sup> obe dezu bizira ankamotz sartu, bi ankakin ipernura bota zaitzaten baño (\*). <sup>46</sup> Ta zure begiak gaiztora ba'zarama, atera zazu zañetik; <sup>47</sup> obe dezu Jainko-errian begibakar sartu, bi begiz ipernura bota zaitzaten baño. <sup>48</sup> An ez da iltzen aien arra, ta ez itzaltzen sua. <sup>49</sup> Guziak suak gatzatuko ditu, ta opari ori gatzez gazituko dute. <sup>50</sup> Ona da gatza; baño gatza gezatu ba'ledi, zerekin gazitu? Euki zazute gatza zuengan, eta zaudete pakean alkarrekin».

## X

**Ezkontza lokarria.**

<sup>1</sup> Andik irtenda, Judea mugara iritxi zan, Jordan'ez aruztik, eta gizaldeak berriro biltzen zaizkio, ta erakusten ari zitzaien, oi zunez. <sup>2</sup> Pariseu batzuk ere ondora zitzaizkion, azpikeriz galdeka, zillegi al zitzaion gizonari emaztea zapuiztea. <sup>3</sup> Baña, «zer agindu zizuen Mois'ek?», erantzun zien. <sup>4</sup> Eta aiek: «Mois'ek? Zapuizt-agiria idatzi ta etxetik bialtzea». <sup>5</sup> Ordun Jesus'ek: «zuen biotz gogorragatik idatzi zun Mois'ek agindu ori. <sup>6</sup> Bañan asieran etzan ola; Jainkoak ar-emeak egin zitun. <sup>7</sup> Orregatik gizonak utziko ditu aitamak, eta emazteari bilduko zaio, <sup>8</sup> ta biak aragi bakarra izango dira arrezkero; beraz, bi aragi ez-bañan aragi bakarra dira. <sup>9</sup> Beraz, Jainkoak bateratu zuna, gizonak ez beza bakandu. <sup>10</sup> Ta ikasleak etxean berriro orrezaz galdegin zioten, <sup>11</sup> eta au esan zien: «Bere emaztea zapuizten eta beste batekin ezkontzen danak, berearekin

ezkontza austen du; <sup>12</sup> ta emazteak bere gizona zapuiztu eta bestearekin ezkontzen ba'da, ezkontza austen du».

**Jesus aurren artean.**

<sup>13</sup> Aurtxo batzuk zekazkioten eskuak ezarri zezazkien; ikasleak errita egiten zieten zekaztenai. <sup>14</sup> Baña Jesus'ek, ikustean, onela eraso zien asarre: «utzi aurrei Nigana etortzen; ez galarazi: olakoena baita Jainko-erria. <sup>15</sup> Egiz esan: Jainko-erria aurtxo auek bezela artzen ez duna, ez da artan sartuko. <sup>16</sup> Eta laztanka bedekinkatu zitun, eskuak ezarritz.

**Gazte aberatsa.**

<sup>17</sup> Jesus bidera zala, gazte bat atera zitzaion korrika, auspez, galdetzer: «Maisu on, zer egingo det betiko bizia irixteko?» <sup>18</sup> «Zer esaten didazu on, esan zion Jesus'ek. Ez da onik iñor, Jainkoa baizik. <sup>19</sup> Ba-dakizkizu mandamentuak: ez iñor il, ez ezkontzarik naastu, ez ostu, ez izan gezur-testigu, ez egin tranparik; aitamai begirune iezu». <sup>20</sup> «Maisu, esan zion arek: guzi ori egin det gaztedanik». <sup>21</sup> Orduan Jesus'ek maitero begiratu zion, eta, «baten bearean zaude, esan zion: ara, dituzunak saldu ta beartsuei emazkiezu, ta zeruan ondasuna eukiko dezu; eta atoz nere segi, gurutzea artuta». <sup>22</sup> Itz oiekin, bekaña zimurtuta gorbil joan zan, ondasun asko baitzitun.

**Ondasunen arrixkua.**

<sup>23</sup> Ordun Jesus'ek, inguru-begira, «zein nekez sartuko dira aberatsak Jainko-errian», esan zien ikasleai. <sup>24</sup> Arritu ziran itzokin ikasleak; baño Jesus'ek berriro: «Enetxoak, bai neke zaiela beren ondasunetan uste on dutenai, Jainko-errian sartzea! <sup>25</sup> Errezago pasako da ganbelu bat orratzaren begitik, aberats bat Jainko-errian sartuko dan baño.

<sup>26</sup> Aiek arrituago, – nor salbatuko da? zioten beren artcan. <sup>27</sup> «Gizonai eziña zaie, esan zien Jesus'ek, begira-begira; ez Jainkoari; Jainkoak guzia dezake».

#### **Beartsuei saria.**

<sup>28</sup> Ordun Pedro asten zaio: «Guk, guzia utzita jarraitu dizugu. <sup>29</sup> «Egi egiz, erantzun zion Jesus'ek; ez da inor, etxe, senide, guraso, seme-alaba edo lur, neregatik eta Berri-Onagatik utzita, <sup>30</sup> mundu ontan eun alako artuko ez dunik, etxe, senide, guraso, seme-alaba, edo lur, jazarpenekin ba'da ere; eta beste munduan berriz, betiko bizia. <sup>31</sup> Eta lenbiziko asko, azken izango dira, ta azkenak aurren.

#### **Irugarrenez Pasioa aitatu.**

<sup>32</sup> Jerusalem'a bidean Jesus aurretik zijoan, eta aiek arrituta bildurrez jarraitzen zioten. Berriro, Amabiak berekin artuta, Jerusalem'en gertatu bear zitzaiona esaten asi zitzairen: <sup>33</sup> «Ara, Jerusalem'a goaz, eta Gizonaren Semea Apaizburu ta Idazlarien eskuetan jarria izango da; erioztzera galdua, ta jentillen mende utziko dute; <sup>34</sup> burla ta listu egin, zigorrez astindu ta il egingo dute; bañan irugarren egunean piztuko da.

#### **Aundincia ta inbiria.**

<sup>35</sup> Santiago ta Joan, Zebedeo'ren semeak, ondoratutik esan zioten: «Maisu, emaguztu, arren, eskatzen dizuguna». <sup>35</sup> «Zer eskatzen dezute», esan zien. <sup>37</sup> Aiek: «eseri gaitzela zeruan, bat zure eskubitan, eta bestea ezkerretan». <sup>38</sup> – «Ez dakizute zer eskatzen dezuten, esan zien Jesus'ek. Nik edango dedan ontzia edateko gauza al zerate? edo Ni bataiatuko nauteneko bataioa artzeko». <sup>39</sup> – «Bai, Jauna», esan zioten. Baña Jesus'ek: «Nik edan-ontzia edango

dezute, ta Nik artzen dedan bataioa artuko; <sup>40</sup> baña zuek nere eskubi-ezker eseri eraztea ez dagokit neri; tokia, moldatu zaienentzat da.

<sup>41</sup> Beste amarrak, au aditzean, Santiago eta Joan'en aurka asarretu ziran. <sup>42</sup> Baña Jesus'ek deituta au esan zien: «Ba-dakizute erri-buruak erria gogor artzen dutela menpean, eta geiegizkoak egiten dizkiotela. <sup>43</sup> Ez orrela zuen artean; ostera, zuetan aundi izan nai duna. besteren serbitzari izango da; <sup>44</sup> ta zuetan leenena izan nai duna, zuen morroi izango dezute; <sup>45</sup> Gizonaren Semea ez da etorri bestek serbitu dezan, baña besterik serbitzera, ta bere bizia askoren bizi-saritzat ematera».

#### **Bartimeo itsua.**

<sup>46</sup> Iritxi ziran Jeriko'ra, ta Jesus bere ikasleekin eta jende askorekin Jeriko'tik irtetean, Timeo'ren semea, Bartimeo, eskale itsua, bide-ertzean zegon eserita. <sup>47</sup> Jesus Nazaret'arra zetorrela entzutean, oiuka asi zan: «Dabid'en Seme Jesus, erruki zakit!» <sup>48</sup> Askok desapio egiten zioten ixildu zedilla; bañan ark areago oiui: «Dabid'en Semea. erruki zakit!» <sup>49</sup> Jesus'ek geldituta, «otsegiozute», esan zien. Eta dei egin zioten itsuari, onela: alimo! altxa adi; ire deika zegok!». <sup>50</sup> Eta ua, soin-gañekoa bota lurrera, ta saltoka urbildu zan Jesus'engana. <sup>51</sup> «Zer nai dezu?» esan zion Jesus'ek. «Ikusi, Jauna», erantzun zion itsuak. Eta Jesus'ek: «Zoaz, zure sinismenak sendatu zaitu». <sup>52</sup> Bereala ikusten asi zan, eta atzetik zijoakion.

## XI

**Jesus nagusiro sartzen da Jerusalem'a.**

<sup>1</sup> Jerusalem'a urbilduz, Oliamendiko Betfage'ra ta Betani'ra iritxi ziranean, ikasleetako bi bialdu zitun <sup>2</sup> mandatu onekin: «zoazte aurre-aldeko baserri ortara, ta sartu-orduko, astakume bat arkituko dezute lotua, oraindik iño: gañera igo etzaiona. Askatu, ta ekarri. <sup>3</sup> Ta norbaitek –zer ari zerate– esaten ba'dizue, –Jaunari bear egiten dio– esaiozute, ta bereala itzuliko dizue». <sup>4</sup> Joanda astakumea atean lotua arkitu zuten kanpotik, eta askatu zuten. <sup>5</sup> An zeudenetako batzuk, –zertako askatzen dezute astakumea? esaten zieten. <sup>6</sup> Aiek, Jesus'ek esana erantzun zieten, eta eramaten utzi. <sup>7</sup> Ba-daramaiote astakumea Jesus'i, ta beren soñekoak bizkar-gañera botarik, an eseri zan. <sup>8</sup> Askok bidea beren soñekoz iñaurtzen zuten, eta beste batzuk, zugaztietan ebakitako osto-muskillez. <sup>9</sup> Eta, bai aurretik, bai atzetik zijoazenak, «Hosana!» zioten oiuka: «doatsua Jaunaren izenean datorrena. <sup>10</sup> Doatsua gure aita Dabid'engandik datorren Errege-erria! Hosana gaindegietan!»

<sup>11</sup> Jerusalem'en Elizetxean sartu zan; inguru guziak miatu, ta, berandutzean, Betani'ra joan zan Amabiekin.

**Pikua madarikatzen.**

<sup>12</sup> Biaramonean, Betani'tik irtenda gosetu egin zan. <sup>13</sup> Eta ostotan zegon piku-ondo bat urrutitik ikusita, an zerbait arkitzen ote zun joan zan, eta bertaratzean, osto basterik etzion arkitu, ez baitzan piku-denbora. <sup>14</sup> Ordun, au esan zion, ikasleak aditzen zutela: «ez beza iñork iñoiz ire fruiturik jan!» (\*).

**Merkatariak Eliz-etxetik aizatzen ditu.**

<sup>15</sup> Iritxi ziran Jerusalem'a, ta Jauretsera sarturik, sal-erosketan ari ziranak bialtzen asi zan. Diru-trukarien maiak eta uso-saltzailleen alkiak irauli zitun, <sup>16</sup> eta etzien uzten Eliz-etxe barruan eskuan ezer eramaten. <sup>17</sup> Onela erakusten zien *nere etxea otoitz-etxe da jende guziarentzat; zuek, ordea, lapur-zulo biurtu dezute.* <sup>18</sup> Eta Apaizburu ta idazlariak aditu zuten, eta Ua nola galduko zebiltzen, bildur baitzioten jende guzia bere erakuskintzaz zeukalako. <sup>19</sup> Illuntzean uritik irten ziran.

**Sinismenaren balioa.**

<sup>20</sup> Goizaldean, piku-ondo saietsetik pasatzean, zañetik igartua ikusi zuten. <sup>21</sup> «Rabi, esaten dio Pedro'k, Zuk birau egin zenion piku-ondoa igartu da». <sup>22</sup> Eta Jesus'ek, «ezazute uste on Jainkoagana. <sup>23</sup> Egi egiz esan: mendi oni *«ken adi ortik eta salta adi itxasora»*, biotzean kolokatu gabe, gertatuko dala siñistuz, esaten dionari, gertatuko zaio. <sup>24</sup> Orregatik diozuet: otoitzean eskatu-ala siñistu zazute artuko dezutela, ta artuko dezute. <sup>25</sup> Eta otoitzerakoan, zerbait norbaiten aurka baldin ba'dezute, barka iozute, zeruetako Aitak ere zuen pekatuak barka dezaizkizuen. <sup>26</sup> Alegia, zuek barkatzen ez ba'dezute, zeruko Aitak ere ez dizkizue barkatuko zuen pekatuak.

**Jesus'en esku altsua.**

<sup>27</sup> Berrero Jerusalem'a datoz, eta Jesus Jauretzean zebillela, Apaizburu, idazlari ta agureak urbiltzen zaizkio, eta, <sup>28</sup> «zer eskubidez egiten dituzu olakoak? galdetzen dio-te, ta, nork eman dizu egiteko eskubide ori?» <sup>29</sup> Baña Jesus'ek: «Nik ere galdetxo bat egingo dizuet, esan zien; erantzun idazute, ta ordun esango dizuet zer eskubidez

egiten ditudan. <sup>30</sup> Esazute: Joan'en Bataioa zerutik ala gizonangandik zan? <sup>31</sup> Aiek, ordea, au zioten berekiko: «Zerutik» esaten ba'diogu, -zergatik etzenioten, bada, siñistu? esango digu; <sup>32</sup> «gizonangandik» esaten ba'diogu, bildur zioten erriari, guziak Joan egizko Profeta baitzeukaten. <sup>33</sup> Eta, «ez dakigu», esan zioten. <sup>34</sup> Eta Jesus'ek: «Nik ere ez dizuet esango noren eskuz egiten ditudan gauza auek».

## XII

### Maasti-zai biurriak.

<sup>1</sup> Eta ipuiez itzegiten asi zitzaien: «Gizon batek maasti bat landatu zun, eta esitu; aitzurrez tolar bat zulatu, dorrea ereiki, ta maasti-zai batzuei eman zien errentan, eta alde egin zun. <sup>2</sup> Bere garaiean, morroi bat bialdu zien maastizaiei maastiko uztaren saria lakatzera. <sup>3</sup> Bañan atzilotu egin zuten, kolpatu, ta esku-utsik bialdu. <sup>4</sup> Berriro beste morroi bat bialdu zien, eta zanpa-zanpa eginda, itzez itsusitu zuten. <sup>5</sup> Beste bat bialdu zun oraindio, ta eriotza eman zioten; berebat, beste asko bialdu, ta batzuk kolpatu ta besteak il egin zituten. <sup>6</sup> Bere semea gelditzen zitzaion oraindik, eta bialdu zien - nere semeari begirune izango diote - pentsatuz. <sup>7</sup> Baña maastizai aiek «ots! esan zioten alkarri: oñordekoa dek au; otsea, il dezagun, eta gu izango gatzik jabeak!» <sup>8</sup> Atzilotu zuten, il, eta maastitik kanpora bota, <sup>9</sup> Zer egingo du, bada, maasti-jabeak? Etorrita garbituko ditu maastizaiak, eta beste batzuei emango die. <sup>13</sup> Ez al dezute irakurri Liburu Santuan au: *etxegilleak baztartu zuten arria, au gertatu da giltz-arri.* <sup>11</sup> Jaunak egin du; au, ta arrigarri zaie gure begiei». <sup>12</sup> Atzitu egin nai

zuten; bañan erriari bildur zioten, ezagutu baitzuten ipuia berentzat esan ziela. Eta alde egin zuten Arengandik (\*).

### Zesar'i pagabearra.

<sup>13</sup> Gero, pariseu ta Erodiar batzuk bota zizkioten, zer-atera. <sup>14</sup> Etorrita onela esaten diote: «Ba-dakigu, Maisu, egizale zerala, ta ezdizula iñorengatik ajolik; ez baitiozu giza-aurpegiari begiratzen, eta Jainko-bidea egitan crakusten dezu. Zillegi al da Zesar'i pagabearra ematea, ala ez? emango al diogu, ala ez?» <sup>15</sup> Aien maltzurkeria asmatuz, au esan zien: «zer zabilzate, neri zer-atera? Ekatzute denario bat, ikusi dezadan». <sup>16</sup> Eraman zioten eta: «norena da irudi ta idazkun au?», galdegin zien. «Zesar'ena», esan zioten. <sup>17</sup> Beraz, Jesus'ek erantzun eta esan zien: «emaiozute Zesar'i Zesar'ena, ta Jainkoari Jainkoarena». Arriturik utzi zitun.

### Ille artetik piztea.

<sup>18</sup> Urbildu zitzaizkion saduzeu batzuk ere, piztea ukatzen duten oietakoak, eta: <sup>19</sup> «Maisu, galdegin zioten, Mois'ek agindua degu: norbaiten anaia il ba'ledi, emaztea aurrik gabe utzirik, emazte orrek anaia artu dezala, ta anaiari ondorengoa eman dezaiola. <sup>20</sup> Zazpi anai ziran, bada; zaarrena, andrea artuta ondorekorik gabe il zan; <sup>21</sup> bigarrena ere, ua artuta, aurrik gabe il zan; berebat irugarrena. <sup>22</sup> ta zazpiretan iñork etzun ondorekorik utzi. Andrea ere il zan, guzien atzetik. <sup>23</sup> Beste munduan, pizten diranean, zeñen emazte izango da? zazpiak euki baitzuten emazte». <sup>24</sup> «Oker ari zerate, esan zien Jesus'ek, ez Liburu Santurik eta ez Jainkoaren eskumenderik ezagutzen ez dezutelako. <sup>25</sup> Ille artetik piztean, ez dago sartzerik ez emazteterik; oster, zeruan Aingeru bezela

izango dira. <sup>26</sup> Piztutze-kontu ortan, berriz, ez al dezute irakurri Mois'en Idaztian Jainkoak lar-artetik esan ziona? *Ni naiz Abraham'en, Isaak'en eta Jakob'en Jainkoa.* <sup>27</sup> Ille-na ez-baña biziena da Jainkoa. Oso oker ari zerate».

### Agindurik aundiena.

<sup>28</sup> Izketa au entzuten egon zan idazlari bat, ondora zitzaion, eta ederki erantzun ziela ikusiz, au galdegin zion: «Zein da agindu guzietan leena? <sup>29</sup> Jesus'ek erantzun zion: «au da leena: *Entzun, Israel, Gure Goiko Jauna da Jaun bakarra;* <sup>30</sup> *ta zure Jainko Jauna, biotz osoz, gogo osoz, ezagumen osoz eta kemen guziz maiteko dezu.* <sup>31</sup> Bigarrena onen antzekoa da: *Zure lagun urkoa, zere burua bezela maita zazu.* Ez da auek bañon agindu aundiagorik. <sup>32</sup> «Oso ederki, Maisu, erantzun zion idazlariak; egitan esan dezu Jainkoa bakarra dala, ta Ua besterik ez dagola; <sup>33</sup> eta biotz-biotzez, ezagumen osoz eta kemen guziz maitatu bear degula, ta lagun urkoa maitatzeak, erre-opari ta opari guziak baño geiago balio dula, askoz ere». <sup>34</sup> Jesus'ek, zein zugarri erantzun zun ikustean, «etzaude urruti, esan zion, Jainko-erritik». Arrezkero, iñork etzun bekokirik izan Ari galdegiteko.

### Mesias nundik?

<sup>35</sup> Jesus, itzaren jabe, onela ari zan Jauretxean erakusten: «Nola diote Idazlariak Kristo Dabid'en Seme dala? <sup>36</sup> Dabid'ek berak au esan zun Ispiritu Santuz: *Jaunak nere Jaunari au esan zion: Eseri zakit eskubitan, etsaiak zangopean ipintzen dizkizudan arte.* <sup>37</sup> Dabid'ek berak esaten dio: nola du Seme?» Eta jendalde aundiak pozik entzuten zion.

### Idazlarien griña okerrak.

<sup>38</sup> Eta bere erakuskintzan, au zion: «Begira idazlariengandik! Arro arro jantzirik ibiltzea gustatzen zaie, plazetan diosalak artuz; <sup>39</sup> Sinagogetan leen-tokiak, otorduetan maiburuak; <sup>40</sup> alargunen ondasunak iresten ditute, ta otoitz-keiñu aundiak egiten. Auek auzi latza izango dute».

### Alargunaren sosa.

<sup>41</sup> Dirutegian eserita, jendeari begira zegon, eltzetora dirua nola botatzen zuten. Eta aberats askok, aunitz botatzen zuten. <sup>42</sup> Etorri zan, ordea, alargun txiro bat, eta bi sos bota zitun; bost kuarto. <sup>43</sup> Ikasleai deituta au esan zion: «egia esan, alargun beartsu onek danak baño geiago bota du eltzetora; <sup>44</sup> beste guziak, alegia, gañez dutenetik bota dute; onek, bere aulean, zitunak bota ditu; jateko zeuzkanak» (\*).

## XIII

### Jerusalem'en ondamendia ta munduaren azkena.

<sup>1</sup> Jauretzetik irtetcan, ikasleetako batek: «Maisu, esaten dio, ikus zer arri-lanak eta zer etxe-alderdiak!» <sup>2</sup> – «Ikusten dituzu arri-lan guzi oiek? dio Jesus'ek; ez da or geldituko arririk arri-gañean, lur jo gabe» (\*). Eta gero Oliamendi'n, eserita begiz begi Jauretxe'a begira, zeudela, Pedro'k, Santiago'k Joan'ek eta Andres'ek, aparte galdegin zioten: <sup>4</sup> Esazu, Jauna, noiz gertatuko da ori ta zer ezagubide izango da gauza guzi oiek gertatzera dijoazela? <sup>5</sup> – «Begira, erantzun zion Jesus'ek: <sup>6</sup> etzaitzatela iñork engañatu. Asko etorriko dira nere izena artuz eta esanez. «Ni naiz» eta askotzak lausoeraziko ditue. <sup>7</sup> Gerra ta gerra-soñuak entzutean, ez ikaratu; gerta-bearra da ori; bañan oraindik ez da azkena. <sup>8</sup> Izan ere, erria erriaren or-

pcka altxako da, ta nazioa nazioaren aurka. Lurr-ikarak tokika ta gosea ere izango dira. Miñen asiera da au.

<sup>9</sup> Begira zeren buruei: auzitara eramango zaitucte, Sinagogetan zigorraldiak artuko dituzute, kargudunen eta erregeen aurrera eramango zaituete Ni naizela bide, aientzat testigu. <sup>10</sup> Bañan ordurako, Ebanjelioa zabaldu-bearra da jende guzietan. <sup>11</sup> Lotzeko zaramaztanean, berriz, ez kezketan jarri zer itzegingo. Ordu artan, esazute ematen zaizutena; zuek ez-bañan Ispiritu Santua mintzatuko baita <sup>12</sup> Eta anaiak anaia eriotzera salatuko du, ta aitak semea, ta semeak gurasoen aurka altxako dira, ta eriotza emango diete. <sup>13</sup> Neregatik guziak gorrotoz artuko zaituete; bañan azkeneraño irauten duna, ua onik aterako da.

<sup>14</sup> Beraz, ondamendi nazkagarria bear-ez-tokian zuek ikustean (irakurleak ari beza), ordun, Judea'n daudenak biyoaz mendietara; <sup>15</sup> ta etxearen goitegian dagona, ez be-di beera jetxi, ezer artzera; <sup>16</sup> eta sorora dijoana, ez bedi itzuli soñekoaren billa. <sup>17</sup> Egun aietan, doakabeak aurdun diranak, eta bularra ematen ari diranak! <sup>18</sup> Egizute otoiitz, ori neguan gerta ez dedin. <sup>19</sup> Egun aiek larriak izango diru, bada; Jainkoak mundua egin zuneetik oraiñarte, ta gero ere, izango diran ez-bezelakoak. <sup>20</sup> Eta Jaunak egun aiek laburtuko ez ba'litu, iñor ez litzake salbatuko; baña zerurako aukeratu zitunangatik, laburtuak dauzka. <sup>21</sup> Ordun, norbaitek «emen dago Kristo, edo an» esaten ba'dizue, ez siñistu. <sup>22</sup> Aterako dira, bada, gezur-kristo ta sasi-igarleak, eta jendea, al ba'litz zerurakoak ere, engañatzeko aiñako gauza arrigarriak egingo ditute. <sup>23</sup> Baña zuek ernai ibilli: ara esan aurretik guzia.

#### Gizonaren Semearen etorrea.

<sup>24</sup> Bañan egun aietan, estualdia pasata, eguzkia illunduko da, ta illargiak ez du argi egingo; <sup>25</sup> izarrak eroriko

dira zerutik, eta zeruko orpoak ikaratuko dira. <sup>26</sup> Ordun ikusiko dute Gizonaren Semea odei artean etortzen, indarrez eta argitasunez. <sup>27</sup> Bialduko ditu Aingeruak, eta lau aize-muturretatik bilduko ditu zerurakoak: munduaren ipur-ditik zeruaren beste alderaño. <sup>28</sup> Ar zazute piku-ondotik erakutsia; aren muskillak samurtzean eta ostoa leertzean. ezagutzen dezute udara urbil dala, ateetan dala. <sup>29</sup> Ala zuek ere, oiek ikusitakoan, jakizute ateurrean aurki dezutela. <sup>30</sup> Egiz esan, ez da amaituko gizaldi au gauza guzi aiek gertatu gabe. <sup>31</sup> Zeru-lurrak pasako dira; baña nere itzak ordea, ez. <sup>32</sup> Egun ari, edo ordu ari dagokionez, iñork ez daki: ez Zeruko Aingeruak, ez Semeak ere; Aitak bakarrik. <sup>33</sup> Zaudete zur; zaudete esnai; ez baitakizute une aren berri. <sup>34</sup> Ala, gizon batek, bidez joanda, etxea ta zitunak morroien eskuetan utzita, bakoitzari bere eginkizuna emanez, atezaiari erne egon zedilla agindu zion. <sup>35</sup> Erne, bada, ez baitakizute etxe-nagusia noiz datorren; ala eguerdian, ala ollarrak jotzean, ala eguna argitzean. <sup>36</sup> Baldin eta bat-batean etorrita lo arkitu ez zaitzaten. <sup>37</sup> Eta zuei esaten dizuedana, guziei esaten diet: egon erne!».

#### XIV

##### Sanedrin-batzarrea Jesus galizeko.

<sup>1</sup> Andik bi egunera, ogi-illen Pazkoa zan. Eta Apaizburu ta idazlariak Ua nola atzitu zebiltzan, azpikeriz, eriotzarako. <sup>2</sup> Ez, ordea, jaiegunean, zioten, errian zalapartik sortu ez dedin.

##### Betani'ko ukendu-gantzua.

<sup>3</sup> Jesus Betani'n zegola, Simon lepradunarenean maiean, emazteki bat etorri zan, nardo jatorrezko ukendu balio-



tsua ontzi batean zekarrela; ausi zun ontzitzoa, ta burura ixuri zion. <sup>4</sup> Batzuk asarre agertzen ziran. «Zertako ukendu-galtze ori? <sup>5</sup> Gantzu ori saldu ziteken irureun denarioz goitik, eta beartsuei eman». Su ta gar zeuden emaztekiaren aurka. <sup>6</sup> Baña Jesus'ek «utziozute, esan zien; zergatik zaikiote nekagarri? Egite ona egin du nerekin; <sup>7</sup> izan ere beartsuak zuekin dauzkazute beti, ta nai dezutenean on egin zaiezukete; baña Ni ez naukazute beti. <sup>8</sup> Onck al duna egin du: nere gorputza aurretik gantzutu du ill-obirako. <sup>9</sup> Egia esan, Berri-Ona mundu osoan zabaltzen dan tokian. onck egin zuna ere aitatuko da, ontaz oroitzeko».

#### Judas saltzaille.

<sup>10</sup> Ordun, Judas Iskariote, Amabietako bat, Apaizburuengana joan zan aieri eskuetara eramateko. <sup>11</sup> Poztu ziran entzutean, eta dirua agindu zioten. Eta eramateko egokira billa zebillen.

#### Azken-aparia.

<sup>12</sup> Ogi altxagabeen egunean, Pazko-oparia eskeintzean, ikasleak au esaten diote: «nun nai dezu Zuk, jateko Pazkoa antolatu dezagun?» <sup>13</sup> Ordun, bi ikasle bialdu zitun: «zoazte, esan zien, errira, ta gizon bat topo egingo dezute, lur-suilla bizkarrean; segiozute, <sup>14</sup> ta sartzen dan tokian esaiozute ango nagusiari: – Au dio Maisuak: nun da nere jan-gela, nere ikasleekin Pazkoa jan dezadan? <sup>15</sup> Eta ark etxe-goitegian jan-gela aundi bat erakutsiko dizue, apaindua ta artarako. Moldatu zazute guretzat. <sup>16</sup> Joan ziran ikasleak iritxi ziran errira, ta Ark esan bezela arkitu zuten; eta Pazkoa antolatu. <sup>17</sup> Illunabarrean ba-dijoa Amabiekin. <sup>18</sup> Aparitan ari zirala, «egiz esan, esaten die: Jesus'ek, nerekin jaten ari dan zuetako batek, saldu egingo nau». <sup>19</sup> Goibeltzen jarri ziran, eta galdetzen asi zi-

tzaizkion urrenez urren: – Nik, Jauna?» Eta beste batek: «Ni izango al naiz?» <sup>20</sup> – «Amabietako bat, esan zien, nerekin plateran bustitzen ari dana. <sup>21</sup> Eta Gizonaren Semea ba-dijoa, idatzita dagonez; baña doakabea, Gizonaren Semea saltzen duna! Obe luke jaio ez ba'litza».

<sup>22</sup> Eta aparitakoan, Jesus'ek, artu zun ogia, bedeinkatu, zatitu, eman, eta esan zien: «au Nere Gorputza da; ar zazute». <sup>23</sup> Gero, ontzia artu, eskerrak emanda banatu zien, eta guziak edan zuten. <sup>24</sup> «Au Nere Odola da, esan zien, Testamentukoa, askoren alde ixurtzekoa. <sup>25</sup> Egitan esan: ez det geiago edango maats-ardo ontatik, zuekin Jeinko errian berria edan dezadan eguneraño». <sup>26</sup> Eta eresiak abestuz, Oliamendi'ra atera ziran. <sup>27</sup> «Guziok orpo egingo didazute; idatzirik baitago: *Joko det artzaia, ta ardiak sakabanatuko dira.* <sup>28</sup> Baña pizten naizenean, aurrea artuko dizuet Galilea'ra. <sup>29</sup> Pedro'k ordea: «guziak orpo egiten ba'dute ere, nik ez» esan zun. <sup>30</sup> «Zaude ziur, esan zion Jesus'ek, gau ontan berean, oillarrak bi aldiz otsegin baño len, irutan ukatuko nauzu. <sup>31</sup> Pedro'k oraindio: «zuerkin il bear ba'nu ere, beñere etzaitut ukatuko». Beste oinbeste esan zuten guziak.

#### Getsemani'n.

<sup>32</sup> Iritxi ziran Getsemani zaion baratzara ta: «geldi zaitzte emen, esan zien ikasleeri, Ni oititzera noan bitartean». <sup>33</sup> Eta berekin artu zitun Pedro, Santiago ta Joan, eta latz-ikara ta erorialdia sumatzen asi zan. <sup>34</sup> «Goibel nago barrundik, esan zien, erio-zorian. Geldi emen, eta egon esnai». <sup>35</sup> Eta pixka bat aurreratuz, auspez erori zan, eta, aal ba'litza, ordu ua pasa zediola eskatzen zun. <sup>36</sup> *Abba, Aita, zion: guzia dezakezu; kendu nere aurretik kaliza au; baña Nik naia ez baña Zuk naia egin bedi.* <sup>37</sup> Etorrita lo arkitu zitun, eta: «Simon, esan zion Pedro'ri, eziñ egon

ziñan esnai ordubete? <sup>38</sup> Egon erne otoitzean, tentaldia etorri ez dedin. Gogo-naia zutik dago; aragia aul, ordea». <sup>39</sup> Berrero aldendu zitzairen, eta Aren otoitza, leena berriz esatea zan. <sup>40</sup> Berrero etorrita lo arkitu zitun, begiak nagi baitzeuzkaten, eta etzekiten zer erantzun. <sup>41</sup> Irugarren aldiz etorrita: «egizute lo onezkero, esan zien, eta artu atsedan; au bukatu baita. Ordua da; ara! Gizonaren Semea pekatariei eskuetara emana. <sup>42</sup> Jeiki ta goazen. Saltzaillea emen da».

#### Jesus atzi-lotua.

<sup>43</sup> Oraindik izketan ari zala, ara Judas. Amabietakoa, ta arekin giza-sail bat, ezpata-makillakin, Apaizburu, idazlari eta Agurek bialdua. <sup>44</sup> Saltzailleak siñale au eman zien: «Nik muñ emango diodana uaxe da; eramazute ondo lotuta». <sup>45</sup> Bereala, etorrita urbilduz, «Rabbi», esaten dio, ta muñ ematen. <sup>46</sup> Aiek ordun atzitu ta lotu egin zuten. <sup>47</sup> Bañan an zegon batek, ezpata aterata, Apaizburuaren morroia jo zun, eta belarria moztu zion. <sup>48</sup> Jesus'ek, tartetik itza artuta, «lapur-billa bezela irten al zerate, esan zien, Ni lotzera? <sup>49</sup> Zuen aurrean ari nintzan egunero Jauretzean erakusten, eta ez ninduzuten atzitu. Bañan Idaztiak bete-bearrak dira». <sup>50</sup> Ordun, Jesus utzita alde egin zuten guziak. <sup>51</sup> Eta gazte bat, izara utsez jantzia, atzetik asi zitzaion. <sup>52</sup> Eldu zioten; bañan arek, izara aien eskuetan utzita, iges egin zien larru gorrian (\*).

#### Jesus Sanedrin-aurrean.

<sup>53</sup> Eraman zuten Jesus Apaizburuagana, ta an bildu ziran Apaiznagusi, Agure ta idazlariak. <sup>54</sup> Pedro atzetik ziokion, urrutitxo, Apaizburuaren atariraño, eta an jari zan morroiekin sutan berotzen. <sup>55</sup> Apaiznagusiak eta Sanedrin osoa testigu-aitor billa zebiltzan Jesus'en aurka.

eriotza emateko, <sup>56</sup> ta etzuten arkitzen, aitorketan ez baitzuten alkar artzen. <sup>57</sup> Batzuk an jeiki ziran Aren aurka gezurr-aitorra egiteko. <sup>58</sup> «Guk entzun diogu esaten: Nik porrokatuko det giza-eskuz egiña dan Jauretze au, ta iru egunetan altxako det beste bat, ez giza-eskuz egiña». <sup>59</sup> Ala ere, aitortzean etzuten alkar artzen. <sup>60</sup> Jeiki zan erdian Apaizburua, ta: «ez al dezu ezer erantzuten, galdegin zion Jesus'i. Zer esaten dute auek zure kontra?» <sup>61</sup> Ixilik zegon Jesus, ezer erantzuteke. Berrero Apaiz buruak onela galdegin zion: «Zu al zera Kristo'a, Doatsuaren Semea?» (\*) <sup>62</sup> «Bai, Ni naiz, Jesus'ek; eta ikusiko dezute Gizonaren Semea Guzialdunaren eskubitan eseria, zeruko odci-artean etortzen». <sup>63</sup> Ordun Apaizburuak soñekoak urratuz: «zer-teko testiguak? esan zun; entzun dezute biraua. <sup>64</sup> Zer derizkiozute?» Guziak eriotzera galdu zuten, errudun zala-ta. <sup>65</sup> Eta batzuk listuka ta aurpegia tapatzen asi zitzaizkion, eta masallekoka: «asma zak zeñek jo auan», esaten zioten, eta borreroak ere, zartakoka ari zitzaizkion.

#### Pedro'k iru aldiz ukatzen.

<sup>66</sup> Pedro beeko atarian zegola, Apaizburuaren neska-me bat dator, eta Pedro ikustean, <sup>67</sup> ari begira-begira esan zion: «Zu ere Nazaretarrarekin zenbiltzan, Jesus'ekin». <sup>68</sup> Uka arek onela: «ez dakit eta ez det asmatzen zez diozun». Atera zan ate-aurrera, ta oillarrak ots egin zun. <sup>69</sup> Ori ikusita, neskamea berrero an zeudenai esaten asi zan: «au aietakoa da». <sup>70</sup> Uka berrero arek. Eta andik bereala, an zeudenak berrero onela ziotsaten Pedro'ri: «Aietakoa aiz, noski, Galilea'rra, alegia». <sup>71</sup> Bañan au birauka ta ziñ eginka asi zan: «ez det ezagutzen ere, dalako gizon ori». <sup>72</sup> Eta bertantxe bigarren aldiz kukurruko. Ordun Pedro'ri Jesus'ek esana gogora zitzaion: «oillarrak bitan otsegin baño leen, irutan ukatuko nauzu». Ta negarrari eman zion.

## XV

**Jesus Pilatos'en aurrean.**

<sup>1</sup> Eguna argitzean, Apaiznagusi, Agure, idazlari ta batzarreko guziak, billera egin zuten; Jesus lotu ta Pilatos'en eskuetan utzi zuten. <sup>2</sup> Pilatos'ek: «Zu al zera Juduen Erregea?» galdegin zion, eta Berak, «zuk diozuna» erantzun zion. <sup>3</sup> Eta Apaiznagusiak askoetaz salatzen zuten. <sup>4</sup> Pilatos'ek berriro: «ez al dezu ezer erantzuten? Ikus zenbat gauza erantsi dizkizuten». <sup>5</sup> Baña Jesus'ek, andik aurrera etzun ezer erantzun; arritu ere baitzan Pilatos.

**Jesus Barrabas'en urrengo.**

<sup>6</sup> Pestaburuz, eskatu oi zuten giltzapeko bat, libre uzten zien. <sup>7</sup> Giltzapean Barrabas izeneko bat zegoen, matxiñada batean biurriekin eriotza egin zuna, <sup>8</sup> eta jendaldea, eman oi ziena eskatzen asi zan, ara joanda. <sup>9</sup> Pilatos'ek: «askatuko al det Juduen Erregea?», esan zien, <sup>10</sup> baitzekin Apaiznagusiak bekaizkeriz emana zutela. <sup>11</sup> Baña Apaiznagusiak erriari Barrabas libre utzi zezala bultz egin zioten. <sup>12</sup> Pilatos'ek berriro: «zer egingo diot, beraz, Juduen Errege derizkiozuten orri?» <sup>13</sup> «Gurutzera bedi!» oi u egin zuten ostera. <sup>14</sup> Baña, Pilatos'ek: «zer kalte egin du, bada?» eta, aiek oi u aundiagoz: «Gurutzera ori!» <sup>15</sup> Pilatos'ek ordun, erriari eder egiteko, Barrabas askatu zien, eta Jesus, zigortu ondoren, Gurutzean josteko eraman zuten.

**Arantzazko koroia.**

<sup>16</sup> Gudariak Jauregi barrura, gudari-etxera sarrerazi zuten, eta gudari-talde osoa deitzen dute; <sup>17</sup> gorri miñezko bizkar-jantzia ezarri, eta arantzaz eiotako koroia bat ipiñi zioten. <sup>18</sup> Eta agurka asi zitzaizkion: «Agur, Juduen Erre-

ge!» <sup>19</sup> Ta burua kañaberaz kolpatzen zioten, listu egiten, eta belaunikatuz, burua makurtzen. <sup>20</sup> Orrela burla egiñ ondoren, bizkar-txabuxa erantzi, eta soñekoak jantzi zizkioten.

**Gurutzera.**

<sup>21</sup> Atera zuten, Gurutzean josteko, eta andik pasatzen zan bati eramanerazi zioten Gurutzea, sorotik zetorren Zirene'ko Simon'i, Alejandro eta Rufo'ren Aitari. <sup>22</sup> Bada-daramate Kaskezurmendira – Golgota deritzaio – <sup>23</sup> eta mirraz naastutako ardoa eman zioten; bañan etzun edan (\*). <sup>24</sup> Gurutzera dute, ta Aren jantziak banatu egin zituten, zotzean zeñek zein eraman. <sup>25</sup> Irugarren ordua zan Gurutzera zutenean. <sup>26</sup> Aren auzi-agiria au zan: **JUDUEN ERREGA**. <sup>27</sup> Arekin beste bi lapur Gurutzera zituten, bat eskubitan eta bestea ezkerretan. <sup>28</sup> (Artan bete zan idatzita zegoen au: *Gaiztagiñen arteko egin zuten*). <sup>29</sup> Eta andik pasatzen ziranak itsusiak egiten zizkioten, buruari eraginda ziotela: «ara, Jauretzea purrukatu ta iru egunean altxako zuna, <sup>30</sup> askatu zak ire burua Gurutzetik jexiz». <sup>31</sup> Aien artean Apaiznagusiak ere burla egiten zioten idazlariekin onela: «besterik libratu dik, eta bere burua ezin. <sup>32</sup> Mesias Israel'go Erregea jetxi bedi orain Gurutzetik, ikusita siñistu dezagun». Arekin gurutzean zeudenak ere iseka egiten zioten. <sup>33</sup> Seigarren orduan, lurbira osoa illunpean gelditu zan, bederatzigarren ordura arte. <sup>34</sup> Ta bederatzigarrenean, Jesus'ek oi u aundiz au esan zun: *Eloi, Eloi, lamma sabachtani?* au da, *Jainko, nere Jainko, zergatik eskutik utzi nauzu?* <sup>35</sup> An zeuden batzuk, au entzutean, «begira, zioten, Elias'i oska ari dek». <sup>36</sup> Eta norbaitek, korrika, esponja bat ozpiñetan busti ta kañaberaren muturrean jarrita, edateko eman zion, tartean au ziola: «itxoin; ikusi dezagun Elias ote datorkion Gurutzetik eraixtera».

**Eriotza ta obiratzea.**

<sup>37</sup> Baña Jesus'ek oi uundiz azken-arnasa eman zun. <sup>38</sup> Eta Jauretxeko estalkia erdibi egin zan goienetik barren. <sup>39</sup> Euntariak aurrean iltzen ikustean, esan zun: «egitan, gizon au Jainkoaren Semea zan». <sup>40</sup> Ba-ziran emakume batzuk ere, urrutixegotik begira; aien artean Mari Madalen, Mari, Santiago gaztearen eta Jose'ren ama, ta Salome. <sup>41</sup> Aiek Galilea'n zeudenean, lagun eta mirabe zitzazkion; eta beste emazteki asko Arekin Jerusalem'a bildu ziranak.

<sup>42</sup> Illunabarrean Paraskebe eguna, larunbat aurea zalako, <sup>43</sup> Arimatea'r Jose etorri zan, batzarre nagusiko gizon argitsua; Jainko-erriaren begira zegon au ere, ta ausartu zan Pilatos'engana Jesus'en gorputz-eske joaten. <sup>44</sup> Arritu zan Pilatos illa omen zalako, ta euntariari dei egiñez, ordurako illa al zan galdegin zion. <sup>45</sup> Arengandik baietza jakitean, Gorputza Jose'ri utzi zion. <sup>46</sup> Onek izara bat erosi ta gorputza jexirik, izaraz bildu zun, eta arri-zuloan egin-dako ill-obi batean ezarri, eta losa bat piririka eraman zun il-obiko atakara. <sup>47</sup> Mari Madalen eta Jose'ren Mari, begira gelditu ziran nun sartzen zuten.

**XVI****Piztu zan.**

<sup>1</sup> Larunbata ezkerro, Mari Madalen'ek, Mari Santiago'renak eta Salome'k, gantzukiak erosi zituten, Ua aiekin igurtzitzeko. <sup>2</sup> Eta astearen leenean, goiz-goizetik ill-obira dijoaz eguzkia irteteen. <sup>3</sup> Onela ari ziran alkarrekin: «nork irauliko digu ill-obiko ataka-arria?» <sup>4</sup> Begiak altxata, arria alde eragiña ikusi zuten, eta ez zan makala! <sup>5</sup> Sartu ziran ill-obira, ta gazte bat ikusi zuten eserita, eskubitan,






soñeko zuriz jantzia, ta izutu egin ziran. <sup>6</sup> Bañan Ark. «ez ikaratu, esan zien: Jesus Nazaret'ekoaren billa zatozte? Piztu da; ez dago emen. Ikus zer tokitan ipiñi zuten. <sup>7</sup> Baña, zoazte, esaiezute ikasleai ta Pedro'ri, aurretik joango zaizuela Galilea'ra; an ikusiko dezute, Berak esan bezela». <sup>8</sup> Igesi atera ziran ill-obitik, ikara latzak arturik baitzeuzkan, eta iñori ezer etzioten esan, bildurrez (\*).

**Agertzen zaie.**

<sup>9</sup> Astearen leenean, eguna argitzean, Jesus, pizturik, leenbizi Mari Madalen'i agertu zitzaion, zazpi deabrutatik libratu zunari. <sup>10</sup> Au besteai, Arekin ibili ziranai, esatera joan zan, naigabez eta negarrez baitzeuden. <sup>11</sup> Aiek, bizi zala, ta ikusi zula aditzean, etzuten siñistu. <sup>12</sup> Arrezkero, aietako biri, baserrira zijoazela, itxuraz-beste agertu zitzaion. <sup>13</sup> Auek besteai berri ematera itzuli ziran; bañan etzuten siñistu auei ere (\*). <sup>14</sup> Azkenik, amaikai agertu zitzaion maiean zeudela, ta siñisgogor eta biotz-gogor artu zitun, illengandik pizturik ikusi zutenai siñistu etzielako.

**Bidaliak Berri-Ona zabaltzen.**

<sup>15</sup> Au esan zien: «zoazte mundu zabalean, eta otsegi-zute Berri-Ona jende guziei. <sup>16</sup> Siñisten duna ta bataiatzen dana, zerurako da; siñisten ez duna, berriz, ipernurako. <sup>17</sup> Siñistunak siñale auek emango ditute; nere izenean debruak aizatuko ditute, izkuntza berrietan mintzatuko dira; <sup>18</sup> suge-gorriak eskuetan artu, naiz zerbait eriogarri edan, ez die kalterik egingo; gaxo daudenak sendatuko ditute, eskuak gañean ezarrita». <sup>19</sup> Jesus Jauna, itza bukatzean, zerrura altxa zan, eta Jainkoaren eskubitan eseri. <sup>20</sup> Aiek, andik joanda, baztar guzietan zabaldu zuten Berri-Ona. Jauna berekin laguntzaille zutela, beren erakuskizuna mirarien bidez indartuz.



## JESUKRISTO'REN BERRI ONA Lukas Doneak dakarrenez

### I

#### Itzaurrea.

<sup>1</sup> Gure artean gertatu diranen berriak txukuntzen saiatuak asko baitira, <sup>2</sup> asieratik beren begiz ikusi ta beren agoz zabaldu zutenai entzunda. <sup>3</sup> Neri ere, aurrenetik aztarrenak zearo artuta, urrenez-urren idaztea gogoak eman dit, zuri Teopil, Jainkozale bikain orri, <sup>4</sup> ikasi dituzunen egi jatorra jakin dezazun.

#### Joan Bataiatzailea.

<sup>5</sup> Judea'ko Errege Eroses'en egunetan, ba-zan apaiz bat, Zakarias, Abia'ren txandakoa, Andrea, Aaron'en alabetakoa zun, Isabel zeritzana. <sup>6</sup> Zintzo bizi ziran biak Jainkoaren aurrean, Jaunaren lege ta aginduetan iñoren esateko gabe. <sup>7</sup> Aurrik etzuten, Isabel agorra baitzan, eta biak urteetan eldutxoak ziran. <sup>8</sup> Bein batean bere sailleko txanda zula-ta, apaiz lanean ari zala, Jaunaren etxean sartzea ta intsentsua eskeintzea zotzean egokitu zitzaion, <sup>9</sup> apaizak oitura dutenez. <sup>10</sup> Eta erri guzia atarian zegon otoitzean,

intsentsu orduan. <sup>11</sup> Artan, Jaunaren Aingeru bat agertu zitzaion zutik, intsentsu aldarean eskubitan. <sup>12</sup> Zakarias ikaratu zan au ikustean, eta izualdi latzak artu zun. <sup>13</sup> Baiña Aingeruak au esan zion: «ez bildurtu, Zakarias, zure otoi-tza entzuna da, ta zure emazte Isabel'ek aur bat egingo dizu, ta izena Joan emango diozu. <sup>14</sup> Atsegin eta pozgari izango zaizu, ta au jaiotzean jende asko poztuko da. <sup>15</sup> Jaunaren aurrean aundi izango baita. Ez du ardorik ez edaririk edango, ta Ispiritu Santuz beteko da amaren sabeletik. <sup>16</sup> Jainko Jaunagana Israel-seme asko ekarriko ditu, ta aren aurrean ibilliko da Elias'en arnasez eta indarrez, <sup>17</sup> gurasoen biotzak semeengana ekartzen, eta eskuragaitzak zintzoen zentzura, Jaunari erri bikain bat moldatzeko». <sup>18</sup> Zakarias'ek Aingeruari: «Zertan ezagutuko det au?, - esan zion -, ni zarra bainaiz eta andrea urtectan aurretatua». <sup>19</sup> Aingeruak au erantzun zion: «Ni Gabriel naiz, Jainkoaren aurrean ari naizena, ta zuri itz egitera bialdu nau, berri on au ematera. <sup>20</sup> Baiña begira, zu mutu geldituko zera, ezin itz egiñez, auek gertatu arte, ez baitiezu siñestu nere itzei, beren garaian betetzekoai». <sup>21</sup> Erria bitartean Zakarias'en zai zegon, eta arritzen ziran Jauretxean berandutzen zulako. <sup>22</sup> Andik irtetzean ezin itzezin zien, eta igarri zioten, Jauretxean ikuskari bat ikusi zula. Arek, berriz, keñuka ari zitzairen, eta mutu gelditu zan.

<sup>23</sup> Bere txanda-egunak bukatuta, etxera joan zan. <sup>24</sup> Egun aien ondoren, emazte Isabel aurdun gelditu zan, eta bost illabetez gorderik egon zan: <sup>25</sup> «Onela, zion, jokatu da Jauna nerekin, gizartean neri lotsa kendu nai izan didanean».

#### **Jainkoaren Semea gizon egiten da.**

<sup>26</sup> Andik sei illabetera, Jainkoak Gabriel Aingerua bialdu zun Nazaret deritzan Galilea'ko erri batera, <sup>27</sup> Da-

bid'en etxeko Jose zeritzan gizon batekin ezkon-itza emana zeukan neskatxa batengana, ta neskatxaren izena Mari. <sup>28</sup> Arengana sarturik, «Agur! graziaz betea, esan zion, Jauna zurekin, bedeinkatua zera emakumeen artean.» <sup>29</sup> Au entzutean Mari ikaratu egin zan, eta bere buruarekin ari zan, diosal ua zer ziteken. <sup>30</sup> Eta Aingeruak: «ez bildurtu, Mari, esan zion, Jainkoaren aurrean grazidun gertatu baitzera. <sup>31</sup> Begira, seme bat erneko zaizu sabelean, eta egingo dezu, ta izena Jesus emango diozu. <sup>32</sup> Au aundia izango da, eta txit Goikoaren Semea deituko diote; ta Jainko Jaunak aita Dabid'en jaun-alkia emango dio; <sup>33</sup> eta Jakob'en etxean errege izango da betiko, ta aren erregealdiak ez du bukaerarik izango». <sup>34</sup> Mari'k, berriz, Aingeruari esan zion: «nola diteke ori, ez baitet ezagutzen gizonik?» <sup>35</sup> Eta Aingeruak: «Gogo Donea zugana jexkiko da, esan zion, eta txit Goikoaren indarrak itzal egingo dizu. Ortaz, zugandik jaioko dan seme santua, Jainkoaren Seme deituko dute. <sup>36</sup> Eta adizu: zure aide Isabel'i ere, semea erne zaio bere zartzaroan, eta, agor omen zana, sei illabetez aurdun dago. <sup>37</sup> Jainkoarentzat ez baita eziñik.» <sup>38</sup> Ordun Mari'k esan zun: «ona emen Jaunaren mirabea; gerta bekik zuk diozuna.» Eta Aingeruak alde egin zun.

#### **Mari Birjiña Isabel'enera.**

<sup>39</sup> Egun aietan Mari, korrika-txikin atera zan Judea goierriko erri batera. <sup>40</sup> Zakarias'enean sartu zan, eta Isabel'i agur egin zion. <sup>41</sup> Mari'ren diosala entzutean, aurrak Isabel'i punpa egin zion sabelean, eta Isabel Gogo Donez bete zan. <sup>42</sup> Eta oi u aundiz, ots egin zun: «doatsu zu emakumeetan, eta doatsu zure sabeleko semea. <sup>43</sup> Nundik neri, nere Jaunaren Ama neregana etorri? <sup>44</sup> Izan ere, zure diosal-otsa nere belarrietara orduko, aurra saltoka asi zait sabelean pozez. <sup>45</sup> Eta doatsu zu, Jaunak esan dizki-

zunak beteko dirala sinistu dezulako.» <sup>46</sup> Ordun Mari'k onela esan zun:

*Aunditzat dauka nere animak Jauna.*

<sup>47</sup> *Pozez pil-pil dago nere barruna,  
Jainkoa baita nere osasuna.*

<sup>48</sup> *Bere mirabe au kaxkar ikusi dulako,  
doatsu deituko naute gizaldien gizalditako.*

<sup>49</sup> *Aundiak egin baitizkit guzia dezakenak,  
eta santua aren izena.*

<sup>50</sup> *Aren errukia gizalditik gizaldira  
aren bildur baldin ba'dira.*

<sup>51</sup> *Indar eragin dio bere besoari,  
desegin dio aundinaia biotz arroari.*

<sup>52</sup> *Bota ditu beren alkitik aundikiak,  
eta gora jaso ditu txikiak.*

<sup>53</sup> *Ondasunez bete ditu gose zeudenak,  
eta esku-utsik bialdu asko zutenak.*

<sup>54</sup> *Bere gain artu du Israel bere morroia,  
errukia gogora zaiola.*

<sup>55</sup> *Ala zun itza gurasoai emana,  
Abrahan'i ta ondorengoai betiko esana.*

<sup>56</sup> Iru illabetetsu egon zan Mari Isabel'ekin, eta etxera itzuli zan.

### **Joan Bataiatzailearen jaiotza.**

<sup>57</sup> Isabel'i erdi-egunak etorri zitzaizkion eta seme bat egin zun. <sup>58</sup> Auzoak eta aideak entzun zuten Jaunak arekin errukia aundia izan zula, ta atsegiñak erakusten zizkioten. <sup>59</sup> Zortzigarren egunean, aurrari berea moxtera joan ziran, eta aitaren izenez Zakarias asi zitzaizkion esaten.

<sup>63</sup> Baiñan amak au zion: «ez; Joan izango du izena.»

<sup>64</sup> Eta amari esan zioten: «iñork ez du izen ori zuen

etxean.» <sup>62</sup> Keñuka adierazi zioten aitari, zer izen jarri nai zion; <sup>63</sup> oltxo bat eskatu zun, eta onela idatzi: «Joan du izena.» Arritu ziran guziak. <sup>64</sup> Bereala ideki zitzaion agoa. ta aren mingaña Jainkoa goratzen asi zan. <sup>65</sup> Auzo guziak bildurrez bete ziran, eta Judea Goierri guzian berriok zabaltzen ari ziran. <sup>66</sup> Entzuten zituten guziak, au zioten beren artean: «zer aterako ote da muttiko au? Jainkoaren eskua bere alde baitauka». <sup>67</sup> Eta Zakarias aita, Gogo Donez bete zan eta onela igarri zun:

<sup>68</sup> *Onetsia Israel'en Jainko Jauna,  
bere erriari agertua egin baitio, askatzeko.*

<sup>69</sup> *Osasun-indar aundia altxa digu  
bere morroi Dabid'en etxean.*

<sup>70</sup> *Berak esan baitzien gurasoai  
profetan agoz aspaldietan.*

<sup>71</sup> *Gure etsai ta gorrotari guziengandik  
guri osasuna emateko.*

<sup>72</sup> *Gure gurasoai erruki izateko,  
ta bere Alkartasun Santua gogoratzeko.*

<sup>73</sup> *Ziñ egin zion*

*gure aita Abrahan'i:*

<sup>74</sup> *etsaien eskutik libratuko gindula,  
bildur gabe ua serbitu dezagun.*

<sup>75</sup> *Gure egun guzitan,*

*zintzo ta santu biziz, Aren begietan.*

<sup>76</sup> *Eta zu, aurra, txit Goikoaren igarle deituko zaitute  
Jaunaren bidea txukunduz aurretik joango zakio-ta.*

<sup>77</sup> *Aren erriari osasun-bidea erakusteko,  
beren pekatuen barkamen bitartez.*

<sup>78</sup> *Jainkoaren errai errukitsuengatik,  
goiz-argia etorri zaigu goitik.*

<sup>79</sup> *Illunpean eta erio-itzalean etzanak argitzera,  
ta pake-bidean gure oñak zuzentzera.*

<sup>80</sup> Aurra bere aldetik azitzen eta bizkortzen ari zan, eta mendi baztarretan ibilli zan, Israel-erriari agertze eguneraiño.

## II

### Jesus'en jaiotza.

<sup>1</sup> Egun aietan dei bat otsegin zun Zesar Augusto'k, mundu guziak izena eman zezan. <sup>2</sup> Lenengo izen-emate au, Siria'ko kargudun Zirino zala egin zan. <sup>3</sup> Guziak izenak ematera zijoazen, bakoitza bere errian. <sup>4</sup> Jose ere, Nazaret'eko erritik, Galilea'tik, Belen deritzan Dabid'en erri-  
ra joan zan, Dabid'en etxeko ta erriko baitzan, <sup>5</sup> aurdun zeukan emazte Mari'rekin, izena ematera. <sup>6</sup> An zeudela. erditze-ordua etorri zitzaion, <sup>7</sup> eta an erdi zun bere leen-  
-semea; bildu zun aur-oialez, eta ikullu-aska batean eza-  
rri zun; ez baitzegon lekurik arrotz-etxean (\*).

### Artzaiak.

<sup>8</sup> Inguru artan artzai batzuk ari ziran izarpean artaldeak zaitzen. <sup>9</sup> Eta Jaunaren Aingerua agertu zitzaien, eta Jainkoaren argitasunak argiz inguratu zitun, eta latz ikaratu ziran. <sup>10</sup> «Ez ikaratu, esan zien Aingeruak, pozaldi aundi baten berri dakartzuet erri guziarentzat. <sup>11</sup> Gaur jaioa zaiñue Salbatzaillea, Kristo Jauna, Dabid'en errian. <sup>12</sup> Eta au dezute siñale: aur bat arkituko dezute, oialetan bildua, ta ganbela batean ezarria.» <sup>13</sup> Bat-batean, Aingeruari zeruko gudari-talde bat bildu zitzaion, onela Jainkoa goretziz: <sup>14</sup> *Ospe Jainkoari goietan, eta pake lurtean asmo oneko gizonai.* <sup>15</sup> Aingeruak andik zerura aldegin zutenean, artzaiak au zioten alkarri: «goazen Belen'a, ta ikusi dezagun Jaunak jakiñarazi digun gertakari au.» <sup>16</sup> Korrika joan

ziran, eta an arkitu zituten Mari, Jose, ta aurra askan etziña. <sup>17</sup> Ikusitakoan, zabaldu zuten aur onezaz esan zitzaieñā. <sup>18</sup> Entzuten zuten guziak arritu egiten ziran artzaien esanaz. <sup>19</sup> Mari'k, noski, gauza guziok gordeak zeuzkan, bere biotzean ausnartuz (\*). <sup>20</sup> Eta artzaiak, esan zitzaien bezela, ikusi ta entzun zutenarekin, Jainkoa goratuz eta ospatuz itzuli ziran.

### Aurraren izena.

<sup>21</sup> Aurrari berea moxteko zortzi egunak bete ziranean, izena Jesus jarri zioten; onela izendatu baitzun Aingeruak, sabelean erne zedin baiño len.

### Elizan sartzea.

<sup>22</sup> Eta Moisi'en legez, garbikuntza egunak iritxi ziranean, Jerusalem'era eraman zuten, Jaunaren aurrera. <sup>23</sup> Onela agintzen du Jaunaren legeak: *ama berriren seme dana, opari egingo zaio Jaunari;* eta <sup>24</sup> Jaunaren legean esana dagonez, *uxapal biko bat, edo bi usokume, opari eskeiñiko dira».*

### Simeon.

<sup>25</sup> Ba-zan Jerusalem'en gizon bat, izena Simeon; zintzo ta Jainko-bildur, Israel'go pozaldiaren begira zegona, ta Gogo Donea berekin zeukana. <sup>26</sup> Ispiritu Santuak au aditzaera eman zion: ez zala ilgo Jaunaren Kristo'a ikusi gabe. <sup>27</sup> Gogo Doneak eraginda, ba, Jauretxera joan zan; eta gurasoak Jesus aurra an sartzean, Legeak artaz agindurik zeukana betetzeko, <sup>28</sup> berak ere besoetan artu zun, eta onela Jauna goretzi:

<sup>29</sup> *Oraintxe zure mirabe au pakean uzten dezu, Jauna, zerrorrek itz eman bezela;*



<sup>30</sup> *ikusi baitute begiok Zugandiko osasuna,*  
<sup>31</sup> *erri guzien aurrean ipiñi dezuna,*  
<sup>32</sup> *jentillak argierazteko argitasuna*  
*ta Zure erri Israel'en edertasuna.*

<sup>33</sup> Aurraren aitamak arriturik zeuden Arengatik esaten ziranakin. <sup>34</sup> Simeon'ek bedekazioa eman zien, eta Ama Mari'k au esan zion: «adizu! Aur au jarririk dago Israel-errian, ezaren eta baiaren banderatako, asko erori ta altxa ditezten; <sup>35</sup> zu berriz, ezpata batek zulatuko zaitu animaraño, biotz askoen asmoak agertu ditezten.»

#### Ana Igarlea.

<sup>36</sup> An zegon gaiñera Ana igarlea, Panuel'en alaba, Aser'en arrazakoa, urtez okitua; neskaxtetatik zazpi urte bizi izan zan bere senarrarekin, <sup>37</sup> eta laurogei ta lau urteko alarguna zan. Ez zan Jauretsetik ateratzen, gau ta egun ango lanetan, barau ta otoitz. <sup>38</sup> Beraz, ordu artan bertan agertu zan Jainkoa gorestera, eta Jerusalem'en Salbatzaillaren zai zeuden guziei, Aurraz itzegiten zien. <sup>39</sup> Eta Jaunaren legez agindutako guziak bukatu zitutenean, Galilea'ra itzuli ziran, beren erri Nazaret'a.

#### Jesus jakintsu ta menpeko.

<sup>40</sup> Aurra azitzen eta indartzen ari zan, jakintasunez beatea, ta beregan zeukan Jainkoaren grazia.

<sup>41</sup> Aren gurasoak urtero zijoazen Jerusalem'a Pazko-jaietara. <sup>42</sup> Aurrak amabi urte betetzean, jaietara joan ziran, oitura zanez. <sup>43</sup> Egunak bukatuta, gurasoak itzultzean Jesus aurra Jerusalem'en gelditu zan, aiek etzekitela. <sup>44</sup> Lagun artean zalakoan, egun bat bide egin zuten, eta Aren billa zebiltzan aideen eta ezagunen artean. <sup>45</sup> Eta ez arkitzean, Jerusalem'a itzuli ziran Aren billa. <sup>46</sup> Eta andik iru egune-

ra Jauretxean arkitu zuten, Irakasleen erdian eserita, aiei entzun eta galde. <sup>47</sup> Arriturik zeuden entzule guziak Auru erantzun zuurrekin. <sup>48</sup> Ikusi zutenean arritu ziran, eta Amak onela esan zion: «seme, zergatik ola jokatu zera gurekin? Aita ta biok naigabeturik genbiltzan zure billa.» <sup>49</sup> – «Zergatik nere billa?, esan zien; ez al dakizute Ni Aitarenean egotekoa naizela?» <sup>50</sup> Eta aiek etzuten ulertu esan ziena. <sup>51</sup> Aiekin jetxi zan Nazaret'a, eta aien mende e-gon; Aren Amak berriz, gauza guziok biotzean gorderik zeuzkan. <sup>52</sup> Eta Jesus aunditzen ari zan, jakiñez, adiñez eta graziz, Jainko eta gizonekiko.

### III

#### Joan Bataiatzailea baso-baztarrean.

<sup>1</sup> Tiberio Zesar amabosgarren urtean agintari zala, Pontzio Pilato Judea'ko kargudun zala, ta Erodes eta anaia Iturea'ko ta Trakonide aldeko Laurdenburu zirala, <sup>2</sup> Anas eta Kaifas apaizburu zirala, Jainkoaren itza belarrira zitzaiion Zakarias'en seme Joan'i baso-baztarrean. <sup>3</sup> Eta, Jordan-alderdi osora joan zan damu-bataioa otsegitera pekatuen barkaziorako, <sup>4</sup> Isaias Profetaren itzaldietan idatzirik dagonez: *basoan oiuka ari danaren mintzoa; moldatu zazute Jauna'ren bidea; zuzendu itzazute Aren bidetxurrak; <sup>5</sup> sakon guziak beteko dira, muñoak berdinduko; oker dana zuzenduko da, ta latza legunduko.* <sup>6</sup> *Eta gizaki orok ikusiko du Jainkoagandiko osasuna.*

<sup>7</sup> Bataio-eske zetozkion taldeai au esaten zien: «sugekumeak!, nork erakutsi dizute datorkizuen asarretik iges egiten?» <sup>8</sup> Egizkizute, bada, damurako balio duten zeregiñak, eta ez esan alkarri: «Abraham dugu aita». Nik esaten dizuet: Jainkoak atera dezazke arri auetatik Abraham'-

en semeak. <sup>9</sup> Eta aizkora antxe dago arbola-erroan sartua; eta zitu onik ez dakarren arbola, ebaki eta sutara botatzeko da.»

<sup>10</sup> Eta jendeak galdegiten zion: «Zer egingo degu, bada?» <sup>11</sup> Eta, «bi soñeko ditunak, bat eman bezaio ez dunari, ta jatekoa dunak orobat.» <sup>12</sup> Etorri ziran diru-biltzailleak ere bataiatu zetzan, eta «Maisu, esan zioten, zer egingo degu?», eta <sup>13</sup> «Ez eskatu ezer, esan zien, tasaz kanpora.» Berebat galdegiten zioten gudariak: <sup>14</sup> «Eta guk zer egingo?» Eta, «ez iñor izuerazi, erantzun zien; gezurretan ez salatu ta zaudete kontentu zeron irabaziekin.»

<sup>15</sup> Jende guzia kezketan baitzegon, eta berenkiko galdezka Joan Kristo ote zan, au erantzun zien guziei Joan'ek: <sup>16</sup> «Nik urez bataiatzen zaituet; baña ni baño bizkorrago dana ba-dator, Aren oñetako ugalak askatzeko aña ez bainaiz ni, Ark bataiatuko zaitue Ispiritu Santuz eta suz. <sup>17</sup> Eskuan dauka sardea eultzia aizatzeke, ta garia mandiora eramateko; eta agotza eziñ-itzalizko sutan erreko du.» <sup>18</sup> Auek eta beste gauza asko otsegiñez erakusten zion Berri-Ona erriari.

<sup>19</sup> Bañan Erodes Laurdenburuak, bere anaiaren emazte Erodias'engatik eta egin zitun gaiztakeri guziengatik agotan artua zegola <sup>20</sup> lengoetaz gaiñera au egin zun: Joan gela beltzean itxierazi.

#### Jesus bataiatua.

<sup>21</sup> Erri guzia bataiatzen ari zula, ta Jesus ere bataiatu rik, otoitz egin bitartean, zerua zabaldu zan, <sup>22</sup> eta Ispiritu Santua uso-antzean jetxi zitzaion, eta zeruko mintzo batek au otsegin zun: «Zu zaitut Semea, kuttuna, Zugan det atsegin.»

#### Jesus'en aurrekoak.

<sup>23</sup> Jesus, agertzen asi zanean, ogeitamar bat urte zitun, eta Jose'ren seme omen zan. Jose Heli'ren semea, <sup>24</sup> au Matat'ena, au Lebi'rena, au Melki'rena, au Janai'rena, au Jose'rena, <sup>25</sup> au Matatias'ena, au Amos'ena, au Esl'i'rena, au Nagai'rena, <sup>26</sup> au Maat'ena, au Matatias'ena, au Semein'ena, au Josek'ena, au Yoda'rena, <sup>27</sup> au Joanan'ena, au Resa'rena, au Zorobabel'ena, au Salatiel'ena, au Neri'rena, <sup>28</sup> au Melki'rena, au Asdi'rena, au Kosan'ena, au Elmadan'ena, au Er'ena, <sup>29</sup> au Jesus'ena, au Eliezer'ena, au Jorin'ena, au Matat'ena, au Lebi'rena, <sup>30</sup> au Simeon'ena, au Juda'rena, au Jose'rena, au Jonan'ena, au Eliakin'ena, <sup>31</sup> au Melea'rena, au Menna'rena, au Mataza'rena, au Natan'ena, au Dabid'ena, <sup>32</sup> au Jese'rena, au Jobed'ena, au Booz'ena, au Sala'rena, au Naason'ena, <sup>33</sup> au Aminabad'ena, au Admin'ena, au Arni'rena, au Ebron'ena, au Fares'ena, au Juda'rena, <sup>34</sup> au Jakob'ena, au Isaak'ena, au Abraham'ena, au Tare'rena, au Nakor'ena, <sup>35</sup> au Seruk'ena, au Ragaur'ena, au Falek'ena, au Eber'ena, au Sala'rena, <sup>36</sup> au Kainan'ena, au Arfaxad'ena, au Sem'ena, au Noe'rena, au Lamek'ena, <sup>37</sup> au Matusala'rena, au Enok'ena, au Jared'ena, au Maleel'ena, au Kainan'ena, <sup>38</sup> au Enos'ena, au Set'ena, au Adan'ena, au Jainkoa'rena.

#### IV

#### Baran ta tentaldiak.

<sup>1</sup> Jesus, beraz, Gogo Doneaz beterik, Jordan'dik itzuli ta Ispirituak eragiñik <sup>2</sup> baso-baztarrean zebillen berrogei egunez, deabruak zirikatua. Etzun ezer jan egun aietan, eta ondorean gosetu egin zan. <sup>3</sup> Deabruak au esan zion ordun: «Jainkoaren Semea ba'zera, esaiozu arri oni

ogi biurtu dedilla». <sup>4</sup> «Idatzirik zegok, erantzun zion Jesus'ek: *gizona ez da ogi utsez biziko.*» <sup>5</sup> Gero deabruak mendi garai batera eramanda, mundu guziko erriak bat-batean erakutsi zizkion. <sup>6</sup> Eta au esan zion: «Oien guzieren eskubidea ta ospea emango dizkizut, emanak zaizkit bada, ta nai dedanari emango dizkiot. <sup>7</sup> Beraz, nere aurrean belaunikatzen ba'zera, guzia zure.» <sup>8</sup> «Idatzirik zegok, erantzun zion Jesus'ek: *Zure Jainko Jaun bakarra gurtuko dezu, ta Ari bakarrik serbituko diozu.*» <sup>9</sup> Ordun, Jerusalem'a eraman zun, eta Jauretxeko erpiñean jarri, ta au esan zion: «Jainkoa'ren Semea ba'zera, amildu zaite emendik bera; <sup>10</sup> idatzirik baitago: *Aingeruak agindurik dauzka, zaindu zaitzaten, eta eskuetan jasoko zaitute. zure oiñak arrian oztopo egin ez dezan.*» <sup>12</sup> «Esanik zegok, erantzun zion Jesus'ek: ez dezu zirikatuko zure Jainko Jauna.» <sup>13</sup> Eta tentaldia bukatu, deabruak alde egin zion egokiera billatu arte.

### Jesus Sinagogetan.

<sup>14</sup> Eta Jesus Ispirituak eraginda, Galilea'ra itzuli zan, eta Arekiko otsa inguru guzi aietan zabaldu zan. <sup>15</sup> Sinagogetan erakusten ari zan, guzieren txalo tartean. <sup>16</sup> Nazaret'a etorri zan, — an azi baitzuten —, eta oi zunez, larunbatean Sinagogara sartu zan, eta irakurtzera zutitu. <sup>17</sup> Isaias Igarlearen liburua eskuetara zioten, eta bildua zabaldu zunean, tokigune au arkitu zun idatzirik (\*): <sup>18</sup> *Jaunaren arnasa neregana; Arek gantzutu nindun; beartsuei Berri-Ona zabaltzera bialdu nindun; lotuei, askatuko zituten berri ematera; itsuak argitzera; zapalduak arintzera;* <sup>19</sup> *Jainkoaren grazi-urtea otsegitera.* <sup>20</sup> Ta idaztia bildurik, eta mutillari emanez eseri zan. Sinagogakoen begi guziak Arengana zorrotzurik zeuden. <sup>21</sup> Eta onela asi zitzairen: «Gaur gertatu da esan au zuen belarrietan». Eta guziak

bai-keñu egiten zuten, <sup>22</sup> eta arritzen ziran aren agoari zeriokan itz oiekin eta, «Ez al da au Jose'ren Semea?», zioten. <sup>23</sup> Eta Ark au esan zien: «Ipui au aterako didazute, noski: sendagille, senda ezak ere burua. Kafarnaun'en gertatu dan guzia egin ezak emen ere, eure errian.» <sup>24</sup> Egia, esan zien, Igarleari etzaio bere errian ongi-etorririk egiten. <sup>25</sup> Baiñan adizute garbi: Israel'en Elias'en denboran alargun asko ziran, zerua iru urte ta iru illabetez itxi zanean, lurralde guziaren goseterako; <sup>26</sup> baiñan aietako batengana orde, Sidon'go Sarepta'ko alargun batengana bialdu zuten Elias. <sup>27</sup> Eta lepradun asko ziran Israel'en Eliseo Igarlearen egunetan, baiñan aiek etzuten iñor garbitu, Siria'ko Naaman baizik.» <sup>28</sup> Sinagogan gauza auek entzun zitutenak, asarrez bete ziran; <sup>29</sup> eta altxata, erritik aizatu zuten eta erria eraikirik zegon mendi-tontor batetik amilduazi nai zuten; <sup>30</sup> baiñan Bera, aien artetik, bere pausoan aurrera joan zan. <sup>31</sup> Eta Kafarnaun'a jetxi zan, larunbatetan erakusteko. <sup>32</sup> Ta Aren erakutsiak arritzen zitun, nagusiro itzegiten baitzien.

### Mirari batzuk.

<sup>33</sup> Sinagogan gizon bat zegon Aingeru loiairen mende, eta oi u aundika. «Ai!, otsegin zun, zer da Zure ta gure artean, Nazaret'eko Jesus? <sup>34</sup> Gu galtzera etorri al zere? Ba-dakit nor zeran: Jainkoaren Santua.» <sup>35</sup> Ta Jesus'ek, «ixo, agindu zion; atera adi.» Deabruak erdian lur joerazi zion, eta miñik egin gabe atera zitzaion. <sup>36</sup> Guziak arri-turik gelditu ziran, eta au zioten alkarri: «Zer da au? Nagusiro ta bizkor agintzen die deabru loiai, ta ateratzen dira.» <sup>37</sup> Eta ark egiñen otsa lurralde artako erri guzietan zabaldu zan.

<sup>38</sup> Sinagoga'tik irtenda, Simon'en etxera sartu zan. Onek amagiarreba berotasun aundiakin zedukan, eta aren

alde erregutu zioten.<sup>39</sup> Arengana makurtuz, sukarrari agindu, ta utzi egin zion. Bereala jeikita serbitzen asi zitzaien.

<sup>40</sup> Eguzkia sartzean, edozer gaitzez gaixoak zeuzkatenak, Arengana zekazten, eta eskuak bakoitzari ezarritz, sendatu egiten zitun.<sup>41</sup> Askoren barrundik deabruak oiuka irteten ziran: «Jainkoaren Semea zera Zu.» Eta errita egiten zien, eta itzegiten debekatu, bai baitzekiten Ua Kristo zala.

<sup>42</sup> Eguna argitzean, baso-baztar batera atera zan eta jendeak billa zebiltzion. Iritxi ziran Arengana, ta eutsi nai zioten andik aldendu etzedin;<sup>43</sup> baiñan Ark au esan zien. «beste errietara ere joan bearra naiz, Jainko-erriaren otsa zabaltzera; ortara bialdua baitnaiz.»<sup>44</sup> Eta Judea'ko Sinagogetan erakusten ari zan (\*).

## V

### Arrantza arzigarria.

<sup>1</sup> Jendea pillaka zetorkion Jainkoaren itza entzutera, ta Genesaret'eko ur-barruti ondoan zuti zegola,<sup>2</sup> bi ontzi ikusi zitun aren ertzean. Arrantzaleak jetxita sareak garbitzen ari ziran.<sup>3</sup> Igo zan aietan batera, Simon'ena zan, eta legorretik pixka bat aldendu zezala agindu zion; eserita, ontzitik erriari ari zitzaien erakusten.<sup>4</sup> Itzaldia bukatzean, «boga itxaso barrura, esan zion Simon'i, ta bota itzazute sareak arrantzara».<sup>5</sup> «Maixu, erantzun zion Simon'ek, gau osoan lanean, eta ez degu arrairik atxitu. Baña zure esanera botako ditut sareak».<sup>6</sup> Orrela eginda, arrairilla aundia bildu zuten, ia sareak eten-zorian.<sup>7</sup> Eta keñu egin zien beste ontziko lagunai etorrita lagundu zezaien. Etorri ziran ta bi ontziak bete zituten, murgiltzeko zorian.

<sup>8</sup> Au ikustean, Simon Pedro Jesus'en oñetara erori zan, «alde, Jauna, niregandik, ziola, pekataria bainaiz».<sup>9</sup> Bera ta berekin zitunak bildur-ikarak artu zitun arrantza ikusita;<sup>10</sup> berebat Santiago ta Joan, Zebedeo'ren semeak, Simon'ek lagun baitzitun. Eta Jesus'ek Simon'i, «ez bildurtu, esan zion, emendik aurrera giza-arrantzale izango zera».<sup>11</sup> Eta ontziak legorrera ekarriz, guziak utzita, segi joan zitzaizkion.

### Lepraduna ta perlesiduna sendatuak.

<sup>12</sup> Urian zegola, gizon bat lepraz beteaa auspez erori zitzaion eske: «Jauna, nai badezu, sendatu nazakezu».<sup>13</sup> Ta eskua luzatuz, ikutu ta au esan zion: «nai det; sendatu zaitte». Ta bertan utzi zun leprak.<sup>14</sup> Eta Berak, ez iñori esateko agindu zion; bai, ordea, agertu zedilla, arren, apaizarengana ta eskeiñi zezala garbitu orde Mois'en legekoa, apaizaren testigutzarako.<sup>15</sup> Arekiko otsa oso zabaldu zan, eta jendalde aundiak urbiltzen zitzaizkion entzuteko ta beren gaitzetatik sendatu zetzan.<sup>16</sup> Baña Bera barkategietara lekutzen zan, otoitzera.

<sup>17</sup> Egun batez, erakusten ari zala, Galilea'tik, Judea'tik eta Jerusalem'dik etorritako pariseu ta lege-irakasle batzuk eserita zeudela, Jainko-indarrak sendatzera eragiten zion.<sup>18</sup> Eta ara, gizon batzuk, perlesidun bat zekarten oetxo batean, eta sarrerazi ta Bere aurrean ipiñi nai zioten.<sup>19</sup> Nundik sartu arkitzen ez, jende-pillarengatik, eta tellatura igota andik beera oetxoan, Jesus'en aurrean ipiñi zuten, erdian.<sup>20</sup> Jesus'ek aien sinismena ikusirik, «gizona, esan zion, zure pekatuak barkatuak dituzu».<sup>21</sup> Orduan, idazlari ta pariseuak pentsatzen asi ziran: «nor da birauka ari dan au? Pekatua nork barkatu, Jainkoak ezik?»<sup>22</sup> Baña Jesus'ek, aiek buruan iraultzen zutena eza-

gutuz, <sup>23</sup> «zertarako ari zerate zuen buruetan ola irizten?, esan zien. Zer da errezago esaten: pekatuak barkatu zaizkizu, ala, jeiki ta zoaz? Beraz, <sup>24</sup> Gizonaren Semeak lurrean pekatuak barkatzeko eskubide ba-dula jakin dezazuten, «jeiki zaitte, esaten dio perlesidunari, artzazu oetxoa ta zoaz etxera». <sup>25</sup> Eta bertan jeiki zan aien aurrean, etzanik egon zaneko oetxoa artu, ta etxera abiatu zan Jainkoa goresten. <sup>26</sup> Guziak arriturik gelditu ziran, Jainkoa goretsiz, eta bildurrez beterik au zioten: «arrigarriak ikusi ditugu gaur».

#### Mateo'ri deia.

<sup>27</sup> Gero andik irtenda, pagu-biltzaille bat, izena Lebi, ikusi zun bere lan-maian eserita, eta «segi neri», esan zion. <sup>28</sup> Zutitu, guzia utzi, ta jarraitu egin zion. <sup>29</sup> Eta Lebi'k otordu aundi bat eman zion bere etxean. Ba-ziran an pagu-biltzaille asko, ta aiekin maiean zeuden beste batzuk. <sup>30</sup> Pariseuak eta idazlariak marmariz ari zitzaizkien ikasleai: «zergatik ari zerate jan eta edan pagu-biltzailleekin eta pekatariekin?». <sup>31</sup> Au erantzun zien Jesus'ek: «osasunaz daudenak ez-baña, gaxorik daudenak dute sendagille berra. <sup>32</sup> Zintzoak ez-baña, pekatariak damura deitzera etorri bainaiz».

#### Baraua.

<sup>33</sup> Aiek ordun au esan zioten: «Joan'en ikasleak barau ta otoitz maiz egiten dute; orobat pariseuak ere; baño Zure ikasleak jan ta edan ari dira». <sup>34</sup> «Eztaietara deituei barau egiñaraziko al diegu?, erantzun zien Jesus'ek, senarra berekin duten bitartean? <sup>35</sup> Senar berria kenduko zaieneko egunak etorriko dira; egun aietan, bai, egingo dute barau. <sup>36</sup> Soñeko-gai berriaren adabakirik iñork ez du

ebakitzen soñeko zarrari erasteko, berria galduko du, ta artatik atera zun puska etzaio egoki etorriko zarrari. <sup>37</sup> Ez ere du iñork ardo berririk zaragi zaarretan sartzen; ardo berria, zaragiak autsita ixuriko baita, eta zaragiak galduko dira. <sup>38</sup> Ostera, ardo berria zaragi berrietan sartu bearda. <sup>39</sup> Eta iñork ez du ardo zaarra edan ondoren, bereala berririk nai; zaarra ohea da, esaten baitu».

## VI

#### Larunbata jai egitekoa.

<sup>1</sup> Bein larunbatez gari soroetan barna zebillen Jesus ikasleekin; auek, galburuak moxtu, eskuetan jaiki ta jan egiten zituten. <sup>2</sup> Eta pariseu batzuk au esan zuten: «zergatik egiten dezute larunbatean egitea zillegi ez dana?» <sup>3</sup> «Ez al dezute irakurri, esan zien Jesus'ek, Dabid'ek egin zuna, bera ta arekin zeudenak goseak zeudelarik? <sup>4</sup> Jaiaren etxean sartu zala, eskeiñitako ogietatik artuta jan zutela, berak eta lagunegiten ziotenak? auei ez-baña apai-zai bakarrai zillegi baitzitzaien jatea. <sup>5</sup> Gizonaren Semea, esan zien gañera, larunbataren ere Jaun da Jabe da».

<sup>6</sup> Beste larunbata zan, eta Sinagogan sartuta erakusten ari zan. Gizon bat zegon an eskubiko eskua igarra zeukana. <sup>7</sup> Idazlari eta pariseuak ernai zeuden larunbatez sendatuko ote zun, salatzeko. <sup>8</sup> Baña Arek, aien bururapenak ezagutuz, «zuti zaitte, esan zion esku-igarrari, ta atera erdira». Zutitu ta atera zan. <sup>9</sup> Ordun Jesus'ek, «Zillegi al da, esan zien, larunbatean on egitea ala gaitza? bizia aurrera ateratzea, ala galtzea?» <sup>10</sup> Eta inguruko guziei begira, «luza ezazu esku ori», esan zion. Bai ark egin ere, ta eskua sendo gelditu zitzaion. <sup>11</sup> Bañan aiek, zoroz gañez eginda, Jesus'i zer egingo ote zioten, ari ziran.

**Apostolu-deia.**

<sup>12</sup> Egun aietan, mendi aldera joan zan otoitzera, eta Jainkoari otoika pasa zun gaua. <sup>13</sup> Eguna zabaltzean, dei egin zien ikasleai, ta aietan amabi aukeratu zitun, Apostolu izena ematen ziela: <sup>14</sup> Simon, izena Pedro jarri ziona, ta aren anai Andres, Santiago ta Joan, Pilipe ta Bartolome, <sup>15</sup> Mateo, Tomas eta Alfeu'ren Santiago eta Simon, Zelote zeritzana. <sup>16</sup> Judas, Santiago'ren anaia, ta Judas Iskariote, saldu zuna. <sup>17</sup> Ta aiekin jexita, zelai batean gelditu zan; ikasle asko baitziran an, eta erritarrak, Judea guzitik, Jerusalem'dik, eta Tiro ta Sidon'go itxas-egikoak, <sup>18</sup> entzuztera ta beren gaitzetatik sendakuntza irixteko etorriak; eta aingeru loiak oiñazeketan zerabiltenak, sendatzen ziran. <sup>9</sup> Jendalde guziak ikutu egin nai zun, guziak sendatzeko indarra baitzerion.

**Zeintzuk doatsu.**

<sup>20</sup> Eta Jauna, begiak ikasleengana altxata, onela ari zan: «Bai doatsu beartsuak, zeru-erria zeron baitezute. <sup>2</sup> Bai doatsu orain gose zaudetenak, aseko baitzerate. Bai doatsu orain negarrez ari zeratenak, egingo baitezute parra. <sup>22</sup> Doatsu izango zerate gizonak gorroto zaituetenean, uxatu ta itxusitzen zaituetenean, eta zuen izena Gizonaren Semeagatik gaizto jotzen dutenean. <sup>23</sup> Poztu zaitzete ta egin pozez salto egun artan, sari betea izango baitezute zeruan. Igarleai ere ori egiten zieten aien gurasoak.

**Araoak.**

<sup>24</sup> Bestera, ai zuek aberatsak, zuen pozaldia izan baitezute! <sup>25</sup> Ai zuek, orain aserik zaudetenak, gosetuko baitzerate. Ai zuek, orain parrez zaudetenak, negarrez eta zotinka egon bearko baitezute! <sup>26</sup> Doakabeak zuek gizon

guziak goratzen zaituetenean; sasi-igarleai beste oinbeste egiten zieten aien gurasoak.

**Maite alkar.**

<sup>27</sup> Baña Nik, entzuleak, «maita itzazute etsaiak, esaten dizuet; egiezute ondo gorroto zaituetenai; <sup>28</sup> ondo egin biraoka ari zaizkizutenai; egin otoitz gezur beltza crauntsiko dizuenai. <sup>29</sup> Masail batean jotzen zaitunari, eskēñi iczu bestea ere, ta soingañekoa kentzen dizunari emaiozu soñekoa ere. <sup>30</sup> Eske datorkizunari emaiozu, ta zerbait arrapatu dizunari, ez eskatu. <sup>31</sup> Ta egiezute gizonai, aiek zuei egitea nai zenuketena. <sup>32</sup> Maite zaitutenak maite ba'dituzute, zer esker du orrek? Pekatariak ere maite ditute beren maitatzailleak. <sup>33</sup> Eta ongi egiten dizuetenai ongi egiten ba'diezute, zer esker du orrek? Pekatariak ere oinbeste egiten dute. <sup>34</sup> Ta ordaña artzekotan ematen ba'dezute, zer esker du orrek? Pekatariak ere ematen die pekatarietari gero ordañez artzekotan. <sup>35</sup> Baña zuek, maita itzazute etsaiak, guziei ongi egin, ta eman, ordañaren zai egon gabe. Zuen saria aundia izango da, ta txit Goikoaren seme izango zerate, Bera, ona baita esker gaiztokoakin eta biurriekin. <sup>36</sup> Zaitzete errukitsu, zuen Aita errukitsu dan bezela.

<sup>37</sup> Ez gaizki iritzi, ta etzaitzete gaizki iritziko; ez gaiztetsi ta etzaitzete gaiztetsiko; barkatu besteri, ta barkatuko zaizue. <sup>38</sup> Eman, eta emango zaizute; neurri ona, zalkatua, betea, tontorka, ta altzora irauliko dizuet; besterik neurritzen dezuten neurri berarekin neurtuko zaitzete.

**Zeritatik ezagutzen gizona?**

<sup>39</sup> Ta ipui au esan zien: itsu bat izan al diteke bestea-ren aurreko? Ez al dira biek zulora eroriko? <sup>40</sup> Ikaslea ez da irakaslea bañon areago; ikastunena izango da irakas-

lea bezelakotsu. <sup>41</sup> Zertako zagokio begira anaiaren begiko lasto-ixpiari, ta zerorrenean daukazun abea ez dezu ikusten? <sup>42</sup> Eta nola esan zuk anaiari: anaia, utzidak ire begitik lasto-ixpia ateratzen, erorrenean abea ikusten ez ta? Azaluts! atera zak abea erorren begitik, eta ordun garbi ikusiko dek anaiaren begitik lasto-ixpia kentzeko. <sup>43</sup> Ez baita arbola onik zitu txarra ematen dunik, ez eta arbola txarrik zitu ona ematen dunik. <sup>44</sup> Fruitutik ezagutzen da zugaitza. Elorriak ez du pikurik ematen, larrak ere ez maats-mordorik. <sup>45</sup> Gizon onak bere biotzeko gordairutik ateratzen du ona, ta gaiztoak bere gaiztotik txarra. Biotzari dariona esaten du agoak.

#### Entzun eta egin.

<sup>46</sup> Zergatik otsegiten didazute, Jauna! Jauna!, ta ez dezute egiten Nik esanik? <sup>47</sup> Nigana etorri, nere itzak entzun eta egiteratzen dituna, esango dizuet noren antzeko dan. <sup>48</sup> Etxe bat altxatzen dun gizona bezela da, aitzur-tzen du, sakontzen du, ta zimendua arkaitz-gañean jar-tzen dio. Ba-dator ugaldea, ibaiia amiltzen da etxe-gai-ñera, ta ez da alderotzen, zimendu onak baititu. <sup>49</sup> Baña entzunda egiten ez duna, lurgañera zimendurik gabe etxea altxatzen dunaren antzeko da: ba-dator ugaldea ta bereaia lurreen da, dana purrukata.

## VII

#### Euntariaren fedea.

<sup>1</sup> Erriari egiñ itzaldiok bukatuta, Kafarnaun'a sartu zan. <sup>2</sup> Eta euntari batek, oso maite zun morroi bat iltzeaz zeukan, <sup>3</sup> eta Jesus'i izketan entzunda, juduetako agure batzuk bialdu zizkion, etorri zedilla aren morroia sendatze-

ra. <sup>4</sup> Ta aiek Jesus'engana urbiltzean, bein eta berriz Ari eskatzen zioten: «merezki du Zuk ori egitea, <sup>5</sup> gure arrazakoa baita, eta Sinagoga bat craiki digu». <sup>6</sup> Jesus aiekin zijoan eta etxetik urruti etzeudela, euntariak adiskide batzuk bialdu zizkion esatera: «Jauna, etzaitezela nekatu, ni ez naiz nor Zu nere etxera sartu zaitezen. <sup>7</sup> Orregatik Zugana joaten ere ez naiz ausartu; bañan esazu, itzez bakarrik, eta morroia sendatuko zait. <sup>8</sup> Nik ere, menpeko izanik, gudamutillak dauzkat nere mende, eta oni «oa» esaten diot, eta ba-dijoa; besteari, «ator» eta ba-dator; eta morroiari «egin zak» eta egiten du». <sup>9</sup> Jesus au entzutean arritu zan, eta ondoren zetorkion jendetzari esan zion: «egia esan, Israel'en ere ez det arkitu ortarañoiko federik». <sup>10</sup> Eta bialduak etxera itzuli orduko, morroia onik arkitu zuten.

#### Nain'go gaztea.

<sup>11</sup> Andik, Nain zeritzan erri batera joan zan, eta Arekin, ikasleak eta jende asko zijoan. <sup>12</sup> Erriko ateetara urbildu zanean, ara, illik daramate, ama alargun baten seme bakarra; ta erritik segizio aundia zun. <sup>13</sup> Jauna, alarguna ikustean, kupitu zan, eta «ez negarrik egin», esan zion. <sup>14</sup> Eta ondoratuta, il-kutxa ikutu zun, eta zeramatenak gelditu egin ziran. «Gazte, esan zion, Nik agintzen dizut: jaiki zait». <sup>15</sup> Eta illa zana, eserita izketan asi zan; gero Jesus'ek bere amari eskuratu zion. <sup>16</sup> Guziak bildurrak artu zitun, eta Jainkoa onela goersten zuten: «Igarle aundi bat agertu zaigu gurean, eta Jainkoak agertua egin dio bere erriari». <sup>17</sup> Gertaera au Judea'n eta inguru guzian zabaldu zan.

**Joan Bataiatzaillearen mandatariak.**

<sup>18</sup> Guzi auen berri eramán zioten bere ikasleak Joan'í, eta Joan'ek bi ikasleri dei eginda, <sup>19</sup> galdetzerá bialdu zitun: «Zu al zera etortzekoa, ala besteren baten zai egon bear degu?» <sup>20</sup> Eta gizonak Arengana urbiltzeán, onela esan zioten: «Zu al zera etortzekoa, ala beste baten zai egon bear degu?» <sup>21</sup> Ordu artantxe, asko sendatu zitun beren gaitzetatik, aulak eta deabrudunak, eta itsu askori eman zien argia. <sup>22</sup> «Zoazte, crantzun zien, eta esaiozute Joan'í ikusi dezutena: itsuak ikusten dute, errenak babilta, lepradunak garbi gelditzen dira, gorrak entzuten dute, illak pizten dira, ta beartsuái Berri-Ona otsegiten zaie; <sup>23</sup> ta doatsu Neri orpo egiten ez didana».

**Joan Bataiatzaillea goratzen da.**

<sup>24</sup> Mandatariak aldegin zutenean, Joan'engaz itzegiten asi zitzaien jendeai: «zer ikustera atera zerate mendira? Aizeak darabillen kañabera?» <sup>25</sup> Baña zer ikustera atera zerate? jantzi panparroiez, jantzitako gizona? Panparroi jezten diranak eta guri bizi diranak, erregeen jauregietan daude. <sup>26</sup> Zertara atera ziñaten bada? Igarle bat ikustera? Bai, Nik esan, eta Igarle bañon areagoa. <sup>27</sup> Onetzaz idantzita dago: *Ara, nere mandataria bialtzen dizut Zure aurrea, bidea txukundu dezaizun.* <sup>28</sup> Ema-semectan ez da, esaten dizuet, Profetarik Joan baño aundiagorik. Baña Jainko-errian, txikiena au baño aundiago da» (\*). <sup>29</sup> Ta erri entzule osoak eta pagu-biltzailleak ezagutu zuten Jainkoagandiko zuzentasuna, Joan'en bataioa artuz; <sup>30</sup> baña pariseuak eta Lege-irakasleak uts eman zuten Jainkoaren asma, ark bataiatzen ez utzita.

<sup>31</sup> «Norekin alderatuko ditut, bada, gizaldi ontako gizonak, eta noren antza dute? Plazan eserita dauden aurrak

dirudite. <sup>32</sup> Batzuk besteai onela kantatzen die: «txilibitua jo genizuten eta etziñaten dantzatu; guk aiene esan eta zuek ez negarrik egin». <sup>33</sup> Etorri zan, bada, Joan Bataiatzaillea, ez ogirik jan ez ardorik edan egiten zula, ta «deabruduna da» diozute. <sup>34</sup> Etorri zan Gizonaren Semea jan eta edan, eta «orra gizon tripazaia diozute, edalea, pagu-biltzailleen eta pekatarien adiskidea». <sup>35</sup> Baña zugurtasuna, bere seme guziak ezagutu zuten aintzat.

**Emazte galdua ta pariseua.**

<sup>36</sup> Pariseu batek bere etxera jatera deitu zun, eta aren etxean sartuta maiean jarri zan. <sup>37</sup> Ba-zan an erriko emakume pekatari bat; pariseuarenean bazkaritan ari zala jakin zun, eta arri nabarrezko ontzi bat, ukenduz betea <sup>38</sup> artu, atzetik Aren oñetan jarri, ta negarrez bere malkoz bustitzen zizkion, bere ille adatsez txukatzen, musukatzen, eta ukenduz igurtzitzen. <sup>39</sup> Au ikustean, deitu zun pariseuak, onela zion berekiko: «gizon au Profeta ba'litza. ezagutuko luke zein eta zer emakume-mota dan ikutzen duna: pekataria dala». <sup>40</sup> Eta Jesus'ek, «Simon, erantzun zion: badizut zerbait esateko». «Maisu, arrek, esazu». <sup>41</sup> «Diruemaille batek bi zordun zitun; batak bosteun denario ez zizkion, eta besteak bostamar. <sup>42</sup> Zerekin pagaturik etzutela, biei barkatu zien. Aietan zefiek izango du maiteago?» <sup>43</sup> «Geiago barkatu zaion arek, nik uste», esan zion Simon'ek. «Ondo derizkiozu» esan zion. <sup>44</sup> Eta emakumeari begira, «ikusten dezu emakume au?» esan zion Simon'í. «Sartu naiz zure etxera ta urik ez didazu eman oñak garbitzeko; orrek, ordea, oñak bere malkoz busti ta bere adatsez txukatu dizkit. <sup>45</sup> Ez didazu muñ eman, au, ordea, sartu danetik, ez da atertu nere oñak musukatzen. <sup>45</sup> Ez dezu igurtzi olio z nere burua, eta onek ukenduz igurtzi dizkit oñak. <sup>47</sup> Orregatik esaten dizut, barkatu zaiz-



kiola pekatuak ugari, asko maite izan baitu. Gutxiago barkatuak, gutxiago maite du. <sup>48</sup> Eta emazteari au esan zion: «zure pekatuak barkatu zaizkizu». <sup>49</sup> Ta maiekoak beren artean asi ziran: «nor da au, pekatuak ere barkatzen baititu?» <sup>50</sup> Eta Jesus'ek emakumeari esan zion: «Zure sinistreak libratu zaitu; zoaz pakean».

## VIII

**Emakume zintzoak.**

<sup>1</sup> Arrezkero erriz erri ta baserriz baserri zebillen, Jainko-erria otsegin eta iragarri. Arekin zijoazen Amabiak; <sup>2</sup> baita aingeru loiak, eta gaitzak arturik eduki zitun emakume batzuk: Mari Madalen, zazpi deabru atera zizkiona, <sup>3</sup> Erodes'en morroi-buru, Kusa'ren emazte Joana, Susana, eta beste zenbait, beren ondasunez laguntzen ziotenak.

**Ereillearen ipuia.**

<sup>4</sup> Jendalde aundia ta errietatik etorri zitzaizkionak bildurik, au esan zien ipui-antzean: <sup>5</sup> Ereillea azi-ereitera joan zan, eta ereitean, pixka bat, bide ondora erori zan, aztatatu zuten eta aizeko egaztiak jan zuten. <sup>6</sup> Beste puxka bat arri-gañera erori zan, eta jαιο orduko igartu egin zan, ez baitzun ezorik. <sup>7</sup> Beste puxka arantzatartera erori zan, eta arantzak arekin batean azitzean, ito egin zuten. <sup>8</sup> Bestea lur onera erori zan, eta jαιο ta eun alako eman zuen. Au esanda, goragotik otsegin zun: «Entzuteko belarririk dunak, entzun beza». <sup>9</sup> Ikasleak, ipui ua zer zan galdegin zioten. <sup>10</sup> «Zuei emana zaizue, esan zien, Jainko-erriko ixil-gordeak ezagutzea; baña besteai ipuietan, ikusi ta ikusi ez dezaten, eta adituta aditu ez dezaten. <sup>11</sup> Alegiak au du: azia Jainkoaren itza da. <sup>12</sup> Bide ondo-

koak, entzuten dutenak dira; gero deabrua datorkie ta Jainkoaren itza biotzetatik kentzen die, sinistu ez ta salbatu ez ditezen. <sup>13</sup> Arri gañekoak, berriz, itza pozik entzuten dutenak dira, bañan ez dute zuztarrik, alditxoan sinisten dute, bañan tentaldian atzera egiten dute. <sup>14</sup> Arantza artean erori zana, entzuten dutenak dira, baña beren kezketan, ondasunetan eta biziaren atsegiñetan itotzen dira, ta ez dira eltzen. <sup>15</sup> Lur onean eroria, berriz, biotz onez eta zabaldez entzuten dutenak dira; eutsi egiten diote, ta iraupe-naren bidez ematen die uzta.

**Jainko-erria ezagutu-bearra.**

<sup>16</sup> Argia piztuta ez du iñork ontzipean izkututzen, edo opean jartzen, ostera, argi-mutillean ipintzen du, sartzen diranak ikusi dezaten. <sup>17</sup> Ez da ezer izkaturik agertuko ez danik, ez eta ixilgorderik argi ta garbi jakingo ez danik. <sup>12</sup> Kontu, beraz, nola aditzen dezuten! Dunari emango zaio, ta ez dunari duntxoia ere kendu egingo zaio.

**Jesus'en aideak.**

<sup>19</sup> Ama ta aideak etorri ziran Jesus'engana ta eziñ ondora zitzaizkion jendearen jendez: <sup>20</sup> batzuk ala adierazi zioten: «Ama ta aideak or dituzu atzerago, Zu ikusi naiean.» <sup>21</sup> Baña, au erantzun zien: «Jainkoaren itza entzun eta betetzen dutenak ditut Ama ta adiskide.»

**Ekaitza baretua.**

<sup>22</sup> Egun batez, bere ikasleekin ontzi batera igo zan, eta «goazen, esan zien, ur-barrutiaren beste ertzera.» Asi ziran aruntz. <sup>23</sup> Bidean loak artu zun. Eta alako aize-zurrunbilloa sortu zan urean, ondatzeko ere arrixkuan baitzeuden. <sup>24</sup> Ondoratuta esnarazten dute onela: «Maisu,

Maisu! galduak gera!» Berak ordea, zutituta, arao egin zien aizeari ta olatuai; gelditu ziran, eta barealdi egin zan.<sup>25</sup> «Non da zuen fedea?» esan zien ordun, eta bildur-ikaraz arriturik au zioten: «Nor da au, arren, aizeari ta urari ere agindu eta obeditzen baitiote».

#### Gerasa'ko deabruduna.

<sup>26</sup> Eta Galilea'ren aurrez aurre, Gerasa'tarran aldean ertzeratu ziran.<sup>27</sup> Eta legorreratzean, erriko gizon bat agertu zan, deabruduna, aspaldietan larru-gorri zebillena; etxean ez eta ill-obietan bizi zana.<sup>28</sup> Jesus ikustean, oñetara erori zitzaion, oiuka ziola: «Zer degu ikustekorik Zuk eta nik, Jesus, txit Goikoaren Seme? Ez, arren ni oñazetu!»<sup>29</sup> agindu egiten baitzion aingeru loiari, irten zedilla argandik. Askotan menperatu zun, alegia, ta katez lotu ta girgilluz estutzen baitzuten; baña lokarri aiek etenda, deabruak mendietara bialtzen zun.<sup>30</sup> «Nola dezu izena?», galdegin zion Jesus'ek, eta «Taldea», erantzun zion, deabru asko sartu baitzitzaizkion.<sup>31</sup> Eta etzetzala leizera bialdu erregutzen zioten.<sup>32</sup> Txerritalde aundia zebillen an larratzean; eta aietan sartzen uztea eskatu zioten; bai utzi ere;<sup>33</sup> eta deabruak, gizonagandik irtenda zerrietara sartu ziran, eta txerritaldea urera amildu zan amildegia bera, ta an ito.<sup>34</sup> Txerrizaiak au ikustean, errira ta baserrietara au esatera igesegin zuten.<sup>35</sup> Atera ziran, bada, ikustera, ta Jesus'engana etorrita, an arkitu zuten deabruak utzia, eseri ta, jantzi ta zentzu osoan Jesus'en oñetan. Eta bildurrak artu zitun.<sup>36</sup> Eta deabruduna nola libratu zan ikusi zutenak, taka-taka esaten zuten.<sup>37</sup> Alderdi artako jendetza guziak, Gerasa'tarrak, andik aldegin zezala eskatzen zion, bildur aundiz ikaraturik baitzeuden. Eta Ua ontzian sartuta itzul egin zan.<sup>38</sup> Deabruak utzi zuten gizon ark, Arekin joan naia erakutsi zun; baña Berak, «zoaz

etxera, esan zion, eta esazu Jainkoak egin dizuna.»<sup>39</sup> Eta joanda erri guzian zabaldu zun Jesus'ek egin ziona.

#### Jairo'ren alaba ta odoljarioduna.

<sup>40</sup> Itzultzean, jendeak Jesus ondo artu zun, guziak Aren zai baitzuden.<sup>41</sup> Ontan, gizon bat etorri zan Jairo zeritzana, Sinagogan Buru, ta Jesus'i oñetan auspez eskatzen zion etxera sartu zediola,<sup>42</sup> amabi urteko alabatxo bakarra iltzear baitzeukan. Ara zijoala, jendeak bultzaka zera-man.

<sup>43</sup> Eta ara, emakume bat, amabi urtez odoljarioa zekana, zitunak medikutan gastatua, iñork sendatu eziña.<sup>44</sup> atzetik urbildu zitzaion, eta soñeko-barrena ikutu ta bereala gelditu zitzaion jarioa.<sup>45</sup> «Zeñek ikutu nau?» esan zun Jesus'ek. «Nik ez» danak, eta Pedro'k eta lagunak: «Jendeak inguratzen eta estutzen zaitu.»<sup>46</sup> Jesus'ek, ordea: «Norbaitek ikutu nau; ezagutu baitet indarra jario zaidala.»<sup>47</sup> Emakume ua, agerian utzi zutela-ta, ikara-ikaraz urbildu zitzaion, eta oñetara erori, eta erri guziaren aurrean aitortu zun zergatik ikutu zun, eta bereala sendatu zala.<sup>48</sup> «Alaba, esan zion Jesus'ek, zure sinismenak sendarazi zaitu; zoaz pakean.»

<sup>49</sup> Oraindik izketan ari zala, Sinagoga-buruaren etxetik bat, onela: «alaba il zaizu, ez nekarazi aurrera Maisua».<sup>50</sup> Baña Jesus'ek entzutean, «ez bildurtu, erantzun zion: siñiste utsak sendaraziko du.»<sup>51</sup> Aien etxera iritxi zanean, iñor sartzen etzun utzi berekin, Pedro, Joan, Santiago, ta nexkaren gurasoak baizik.<sup>52</sup> Negarrez ari ziran guziak eta aieneka, aurrarengatik; eta Jesus'ek «ez negarrik egin, esan zien: aurra illa ez-baña lo dago» (\*).<sup>53</sup> Ta parra egiten zioten, baitzekiten ilda zegola.<sup>54</sup> Baña Berak eskutik elduta, «aurra, esnatu zaite», esan zion.<sup>55</sup> Eta arnasa etorri i-

taz lotsatu egingo da, bere edertasunean, Aitarenean eta Aingeruenean datorrenean.<sup>27</sup> Eta, egia esan, ba-dira emen aurrean daudenetik, Jainko-erria ikusi gabe ilko ez diranak.

### Jesus'ek antza aldatu.

<sup>28</sup> Andik zortzi egunera, itzaldi auek eginda, Berekin artu zitun Pedro, Joan eta Santiago, ta mendira igo zan otoitzera.<sup>29</sup> Otoitz egin bitartean Aren aurpegia antz aldatu, eta soñekoa zuri diz-diz egin zan.<sup>30</sup> Eta ara, bi giza-seme izketan ari zitzaizkion: Moïse eta Elias.<sup>31</sup> Aiek beren argitasunean agerturik, Jerusalem'en gertatzeko eriotzaz mintzo zitzaizkion.<sup>32</sup> Pedro ta lagunak lo-pisu zeuden; bañan esnatuta, ikusi zuten Aren edertasuna, ta Berekin zitun bi gizonak.<sup>33</sup> Auek aldegitan, «Maisu, esan zion Pedro'k Jesus'i: ondo gaude emen; egin ditzagun iru txabola: Zurretzat bat, Moïse'entzat bestea, Elias'entzat bestea.» Etzekin zer ari zan.<sup>34</sup> Onela mintzo zala, odei batek etorrita itzal egin zien; eta aiek odeiean sartzean ikararak artu zitun.<sup>35</sup> Odeietik mintzo bat sortu zan, esanaz: «Ona emen nere Semea, kuttuna; entzun oni». <sup>36</sup> Eta mintzoak otsegitan, Jesus bakarrik gelditu zan. Aiek ixilik ziran eta ifñori etzioten kontatu, orduko, ikusi zutena.

### Gazte deabruduna.

<sup>37</sup> Biamonean, aiek menditik jeixtean, talde aundia etorri zitzaïen bidera.<sup>38</sup> Eta bereala, gizon batek jendetatetik otsegin zion: «Maisu, begiratu bat egiozu nere seme bakarrari; <sup>39</sup> etsaiak menpean artzen du, ta bertan oiuka asten da, dardar eragiten dio lerdea dariola, ta nekez aldegiten dio, elbarritu ondoren. <sup>40</sup> Esan diet Zure ikasleai, bota dezatela, ta ezifñ izan dute.» <sup>41</sup> — «Ai gizaldi siñisgo-

gor eta biurria, erantzun zien Jesus'ek, noiz arte egongo naiz zuekin eta noiz arte suprituko zaituet? Ekatzu onara semea.» <sup>42</sup> Eta ondora zetorkiola, deabruak lur joerazi zion, eta gogor astindu zun. Baña Jesus'ek aingeru loïari oiù egin, mutikoa sendatu, ta aitaren eskuetan utzi zun.<sup>43</sup> Arriturik gelditu ziran guziak, Jaungoikoa zein aundi dan.

### Pasioa iragartzen die.

Egin zitun gauzeekin guzi'k arrituta zeudela, berriz esan zien bere ikasleai: <sup>44</sup> «gogoan artu itzok: Jainko-Semea giza-eskuetara eramango dute.» <sup>45</sup> Bañan aiek etzuten esan ori, buruan artu, ta gordea zitzaïen, ezin ulerturik: eta artaz galde egiteko bildur ziran.

### Apaltasuna ta eraman ona.

<sup>46</sup> Bururatu zitzaïen eta nor aundiagoka asi ziran beren artean. <sup>47</sup> Baña Jesus'ek, aien buru-barruak ezagutuz, aur bat artu, bere ondoan ipiñi, ta au esan zien: <sup>48</sup> «Nere izenean aur au ondo artzen dunak Ni artzen nau; ta Ni artzen naunak, Ni bialdu nauna artzen du; zuetan txikiena, aundiena baita.» <sup>49</sup> Eta Joan'ek, tartea artuz, «Maisu, esan zion, ikusi degu bat Zure izenean deabruak aizatzen, eta galarazi egin diogu gurekin ez dabilelako.» <sup>50</sup> Jesus'ek erantzun zion: «Ez galarazi; zuen aurka ez dagona, alde baitago.

### Jerusalem aldera.

<sup>51</sup> Mundu ontatik aldegin-garaia zula, Jerusalem'a joatea erabaki zun ausarki, <sup>52</sup> eta mandatariaik bialdu zitun aurretik. Zijoazela, Samari'ko ballera batean sartu ziran, Arentzat gertu-bearrak prestatzera. <sup>53</sup> Eta etzioten arrera-

rik egin, Jerusalem'a zijoalako. <sup>54</sup> Santiago ta Joan, ikasleak, «Jauna, esan zioten, au ikusita; nai al dezu zerutik sua jetxierazi dezagun, auek kixkal ditezen?» <sup>55</sup> Jesus'ek itzulita errita egin zien. <sup>56</sup> Eta beste ballera batera joan ziran.

### Jainko-deiak eskatzen duna.

<sup>57</sup> Bidez zijoazela, batek au esan zion: «Jarraituko dizut, noranai zoazela.» <sup>58</sup> Jesus'ek au erantzun zion: «Azariak zuloak ba-ditute, ta zeruko egaztiak kabiak; baña Gizonaren Semeak ez du, burua nun ezarri.» <sup>59</sup> Eta beste bati au esan zion: «Jarrai neri». Bañan alako arek, «Jauna, erantzun zion: utzadazu aurrena nere aita illobiratzten.» <sup>60</sup> Eta Jesus'ek esan zion: «utziezu illei, beren illak obiratzten; eta zoaz Jainko-erria otsegitera.» <sup>61</sup> Beste batek au esan zion: «Jarraituko dizut, Jauna, bañan utzidazu etxe-koai azken-agurra egiten.» <sup>62</sup> Eta Jesus'ek au esan zion: «eskuz goldeari elduta atzera begiratzten duna, ez da gai Jainkoaren errirako.»

## X

### Ikasleak misioetara.

<sup>1</sup> Arrezkero, Jaunak beste irurogei ta amabi aukeratu zitun, eta bere aurretik binaka bialdu, Bera joango zan erri ta errixkatara. <sup>2</sup> Onela itzegin zien: «Uzta ugaria da, baña langilleak urri. Esaiozute, arren, uzta-jabeari, bialdu ditzala langilleak uzta biltzera. <sup>3</sup> Begira, arkumeak otso-tartera bezela bialtzen zaituet. <sup>4</sup> Ez eraman poltsarik, ez zorrorik, ez oñetakorik; eta ez jardun bidean diosalketan (\*). <sup>5</sup> Sartzen zeraten etxean, esazute aurrena: «pakea etxe oni»; <sup>6</sup> ta an pake-semerik baldin ba'da, zuen pakea aren-

gan kokatuko da; bestela, zuengana itzuliko. <sup>7</sup> Eta geldi zaitezte etxe artan, dutenetik jaten edaten, langilleari zor baitzaio bere saria. Ez ibilli etxez etxe. <sup>8</sup> Eta ondo artzen zaitueten errian, jan zazute ematen dizutena; <sup>9</sup> senda itzazute an dauden gaxoak eta esaiezute: urbil daukazute Jainko-erria. <sup>10</sup> Baña ondo artzen etzaitueten errian, atera zaitezte aien larrañetara ta esaiezute: <sup>11</sup> oñetan itsatsi zaitgun autsa ere or astintzen dizutegu. Baña jakin ezazute. Jainko-erria urbil daukazute. <sup>12</sup> Egia esan; egun ua eramangarriago izango zaio Sodoma'ri erri oni baño.

### Zorigaitz erri gaiztoai.

<sup>13</sup> Zorigaitz zuri, Korozain, zorigaitz zuri Betsaida! Zurean egin diran mirariak Tiro'n eta Sidon'en gertatu ba'li-ra. aspaldi damutuko ziran, zakueta eta autsean escrita. <sup>14</sup> Baña, Tiro'ri ta Sidon'i azken-auzia ariñago izango zaite zuei baño. <sup>15</sup> Eta zu, Kafarnaun, igoko al zera zerurano? Sartuko zaitute lurperano. <sup>16</sup> Zuei entzutea, Neri entzutea da; ta zuek uxatzea, Ni uxatzea. Ni uxatzen nuanak, berriaz, bialdu ninduna uxatzen du.

### Ikasleak etxera berriro.

<sup>17</sup> Irurogei ta amabiak pozez beterik itzuli ziran esanaz: «Jauna, deabruak ere menpera ditugu Zure izenean.» <sup>18</sup> Bañan Berak esan zion: «ikusten nun Satanas, tximixta bezela zerutik erortzen. <sup>19</sup> Eman dizuet, almena sugeak eta arrubiak oinperatzeko, ta etsai-indar guziak garaitzeko, ta ezerk ez dizue kalterik egingo. <sup>20</sup> Ez poztu, ala ere, Aingeru loiak menpean dituzutelako; bai ordea, poztu zaitezte zuen izenak zeruan idatzirik daudelako.

**Aita ta Semea zein diran.**

<sup>21</sup> Bertantxe, Gogo Donearen poz-eragiñez, au esan zun: – Gora zu, Aita, zeru-lurren jabea, gauzok jakintsuei ta zugurrei izkutatu, ta aurtxoai erakutsi dizkiezulako. Bai, Jauna, ori baitzaizu atsegin. <sup>22</sup> Aitak guzia emana dit, eta iñork ez du ezagutzen Semea nor dan Aitak baizik; eta Aita nor dan, Semeak baizik, eta Semeak adierazi nai dion ark baizik». <sup>23</sup> Eta ikasleai bakarrik begira, au esan zun: «Bai doatsu, zuen begiaz au ikusten dezutelako. <sup>24</sup> Ara, bada, esan: Igarle askok eta Erregeak ikusi nai izan zuten zuek ikusten dezutena, ta etzuten ikusi; ta zuek entzuten dezutena entzun nai, ta etzuten entzun.»

**Samari'ar ona.**

<sup>25</sup> Artan, altxa zan lege-gizon bat eta au galdegin zion zer-atera: «Maisu, zer egin bear det betiko biziaren jabe izateko?» <sup>26</sup> – «Legean zer dago idatzirik? erantzun zion. Zer irakurtzen dezu?» <sup>27</sup> – «Maiteko dezu zure Jaun eta Jainkoa, erantzun zion, biotz osoz, anima osoz, indar guztiz, eta adimen guziz; eta lagun urkoa zerau bezela.» <sup>28</sup> – «Ederki erantzun dezu, esan zion Jesus'ek; egizu ori ta biziko zera. <sup>29</sup> Bañan arek, bere burua txuritu naiez, au esan zion Jesus'i: «Eta nor da nere lagun urkoa?» <sup>30</sup> Jesus'ek orduan esan zion: Gizon bat, Jerusalem'dik Jeriko'ra jeixtean, lapurren eskuetan erori zan. Erantzi zuten, zauritu, eta alde egin zuten, erdi-illean utzirik. <sup>31</sup> Ain zuzen, apaiz bat zijoan bide artatik, ikusi, ta, saietsa emanenez, aurrera egin zun. <sup>32</sup> Orobat Lebi'tar batek, bide bertik zijoala, ikusi, ta ixkiñ egiñez, alde egin zun. <sup>33</sup> Baña Samaria'r bat, bidez zijoana, ondora zitzaion, eta ikusita kupitu egin zan. <sup>34</sup> Makurturik, zauriak lotu zizkion, zaurietan olio ta ardoa ixuriz; igo zun asto-gañera, eraman

zun ostatura, ta an zaitu zun. <sup>35</sup> Biaramonean, bi denario aterata ostalariari eman zizkion esanaz: zaitu ezazu, eta ortik aurrera gastatzen dezuna, nik ordainduko dizur. <sup>36</sup> Oictan zein uste dezu lapurren eskuetan eroriaren lagun urkoa izan zala?» <sup>37</sup> – «Artaz kupitu zana», erantzun zion. «Zoaz, esan zion Jesus'ek, eta egizu beste oinbeste.»

**Mari ta Marta.**

<sup>38</sup> Bidez zijoala, baserri batera iritxi zan; eta, Marta zeritzan emakume batek, bere etxean artu zun (\*). <sup>39</sup> Aizpa bat zun onek, izena Mari, Jaunaren oñetan eserita Aren itza entzuten ari zana. <sup>40</sup> Baña Marta kezkatua zebillen etxeko lanetan, eta ondora etorrita esan zion: «Jauna, ez al zaizu ajola nere aizpak ni bakarrik lanetan uztea? Esaiozu, bada lagundu nazan.» <sup>41</sup> Baña Jaunak erantzun zion: «Marta, Marta, gauza askok ajolatzen eta asaldatzen zaitu; <sup>42</sup> eta bat bakarra da nai-ta-ezkoa. Mari'k saillik oberena aukeratu du, ta etzaio kenduko.»

**XI****Jesus'ek otoitz egiten erakusten du.**

<sup>1</sup> Nunbait ere otoitz egiten ari zala, bukatzean, ikasleetako batek au esan zion: «Jauna, erakutsi iguzu otoitz egiten, Joan'ek bere ikasleai bezela.» <sup>2</sup> Ark onela esan zien: «otoitz egitean esazute: Aita, goretsi bedi Zure izena, betorkigu Zure Erregealdia, <sup>3</sup> iguzu gaur eguneroko ogia, <sup>4</sup> ta barka izkiguzu gure pekatuak, guk ere barkatzen baitiegu zor diguten guziei; eta ez gu sarrerazi tentaldian.»

<sup>5</sup> Eta au esan zien: «zuetako batek adiskide bat izanda gauerdian etortzen ba'zaio ta esan: adiskide, ekatzizu

iru ogi, <sup>6</sup> lagun bat etorri zait, bada, bidez etxera, ta ez daukat zer emanik, <sup>7</sup> eta ark erantzungo ba'lu barrundik: — ez ni nekarazi; atea itxia dago ta semeak oiean ni bezela; ezin jeiki naiteke ematera. <sup>8</sup> Nik uste, noski, adiskide-antzean ez ba'da ere, jeikiko dala, ta bear dun guzia emango diola. <sup>9</sup> Ara nik esan: eska ta emango zaizue; zoazte billa ta arkituko dezute; otsegin eta irikiko zaizue. <sup>10</sup> Eskatzen dunak artzen du; billa dabillanak arkitzen, eta otsegiten dunari irikiko zaio. <sup>11</sup> Zuen artean zein aitak emango dio semeari, ogia eskatuta arria? Eta arrai ordez sugea? <sup>12</sup> Edota arraultza eskatzen ba'dio, arrubia? <sup>13</sup> Beraz, zuek gaizto izanik semeai gauza onak ematen baldin ba'dakizute, zeruko Aitak zenbat areago emango die Gogo Donea eskatzen diotenai?»

#### Jainkoaren eskua.

<sup>14</sup> Deabru mutua uxatzen ari zala, ark igeseginda, mutua mintzatzan asi zan, Jendeak arritu ziran. <sup>15</sup> Baña ba-ziran au ziotenak: «Deabruen buru dan Belzebul'ekin aizatzen zekik deabruak.» <sup>16</sup> Beste batzuk, zirika, zeruko mirari bat eskatzen zioten. <sup>17</sup> Bañan Arek, aien asmakeriak ezagutuz, au esan zien: «Beregan erdibi egiña dagon erria, ondatuko da; eta etxea etxearen gañera eroriko da. <sup>18</sup> Beraz, Satanas beregan erdibi egiña ba'dago, nola dagoke zutik aren erria? Belzebul'ekin deabruak aizatzen ditudala baitiozute. <sup>19</sup> Nik deabruak Beltzebu'ren bidez uxatzen ba'dituz, zuen semeak noren bidez uxatzen ditute? Orregatik aiek izango dituzute ebazle. <sup>20</sup> Baña deabruak Jainkoaren eskuz uxatzen ba'dituz, beraz etorri da zuengana Jainko-erria. <sup>21</sup> Gizon bizkor batek bere Jauregia armaz zaitzen dunean, aren ondasunak seguru daude. <sup>22</sup> Bañan bera baño bizkorrago dana etortzen ba'zaio ta garaitzen ba'du, bere konpianzako armak kenduko dizkio, ta ken-

tzekoak kenduko dizkio. <sup>23</sup> Nere alde ez dagona, aurka dago, ta nerekin biltzen ez dunak, banatu egiten du. <sup>24</sup> Giznagandik irtendako aingeru loia baztarrez-baztar atsedend-billa dabillenean, eta arkitu ez, au dio berekiko: «atera nintzaneko etxera itzuliko naiz.» <sup>25</sup> Eta ara irixtean, garbi ta apañ arkitzen du. <sup>26</sup> Ordun, joanda beste zazpi aingeru ekartzen ditu bera baño okerragoak, sartzen zaizkio bizitzera, ta gizon aren azkeneko egoera, lenengoa baño txarrago da.»

<sup>27</sup> Ortan ari zala, emakume batek, jende-tartetik oiuka au esan zion: «bai doatsu dala ekarri zaitun sabela ta edan dezun bularra.» <sup>28</sup> Baña Jesus'ek au esan zun: «doatsuago Jainkoaren itza entzuten eta egiteratzen dutenak.

#### Jonas'en miraria.

<sup>29</sup> Jendea pillaka zetorrela, onela asi zan Jesus esaten: «Gizaldi au biurria da; Zeruko zantzu bat eskatzen du, ta etzaio emango Jonas'en zantzia besterik. <sup>30</sup> Jonas, Ninibe'tarrai zantzu izan zitzaizen bezela, alaxe izango zaio Gizonaren Semea gizaldi oni. <sup>31</sup> Eguerdiko erregiña altxako da auzi egunean, gizaldi ontakoen aurka, ta gaiztetsiko ditu, bera munduaren baztarretik etorri baitzan Salomon'en jakintasuna entzutera, ta emen ba-dago Salomon baño aundiagoa. <sup>32</sup> Ninibe'tarrak ere gizaldi ontakoen aurka jaiki ta gaiztetsiko dute auzi-egunean, Jonas'en deiez penitentziz garbitu baitziran; eta ona emen Jonas baño geiago dana.

#### Kristo gure argia.

<sup>33</sup> Argi piztua iñork ez du baztarrean uzten, ez lakari-pean ere, argimutillan baizik, sartzen diranak garbi ikusi dezaten. <sup>34</sup> Gorputzaren argia begiak dituzu; begiak onik

ba'daukazu, gorputz osoa argitan egongo zaizu; bañan gaxo ba'daude, zure gorputza illunpetan.<sup>35</sup> Begira, bada, zure argia zugaran illunpe ez dedin.<sup>36</sup> Eta gorputz osoa argitan ba'daukazu, batera zoko illunik gabe, guziak argi egingo du, zu argiak argitzen zaitun bezela.

#### Pariseuak eta irakasleak.

<sup>37</sup> Izketan ari zan, eta pariseu batek bere etxera deitu zion bazkaltzera. Sartu ta maiean jarri zan.<sup>38</sup> Pariseuari arritu zitzaion bazkal aurreko garbitzea egiñ etzulako.<sup>39</sup> Ta Jaunak esan zion: «Orain zuek pariseuok katillua ta platera azaletik garbitzen dituzute, baña barruna lapurkeriz ta gaiztakeriz betea daukazute.<sup>40</sup> Zentzugabeak! Azalekoa egin zunak ez al zuan barrunago ere egin? <sup>41</sup> Zuek emazute limosna, barrungotik, eta guzia garbi eukiko dezute.<sup>42</sup> Ai, bada, zuek, pariseuok, batan-belarraren, ezamilloaren eta belar guzien amarrenak pagatzen dituzute, ta Jainkoagana zuzenbidea ta maitasuna alde batera uzten! Auek egin-bearrak dira, baña ua utzi gabe.<sup>43</sup> Ai zuek, pariseuok, Sinagogetan len-tokia ta plazetan diosala maite dezutenok! <sup>44</sup> izkutu dauden ill-obiak bezela zerate. Gizonak oinpean derabiltzate, konturatu gabe.<sup>45</sup> Ordun Lege-irakasle batek au esan zion: «Maisu, orrela mintzatuz, gu ere itxusitzen gaituzu.» <sup>46</sup> Eta »ai zuek ere, erantzun zion, Lege-irakasleak! Gizonai eziñ-eraman alako zamak leporatzen dizkiezute, ta zerok ez diezute beatz-ikutuz ere laguntzen.<sup>47</sup> Ai zuek ere, zuen gurasoak il zituten Profetantzat illobiak antolatzen dituzutenok! <sup>48</sup> Orrela, zuen gurasoen egiñak ontzat ematean aitortu zerate, aiek illerazi ta zuek illobiak altxa egiten baitiezute.<sup>49</sup> Orregatik esan ere zun Jainkoaren jakintasunak: «Bialduko dizkiet Igarleak eta Apostoluak, eta, aietako batzuk il eta beste batzuk gaizki erabilliko ditute.<sup>50</sup> Beraz, gizaldi oni, mundua

mundu danetik ixuri dan Profetan odolaren kontu eskatuko zaio; <sup>51</sup> Abel'en odoletik Zakarias'eneraño, Jauretxearen eta aldarearen tartean il baitzuten. Bai; eskatuko zaio gizaldi oni. Ara Nik esan.<sup>52</sup> Ai zuek, lege-irakasleok! Jakintasunaren giltza-jabe egin zerate, ta ez zuek sartu ta ez besteri utzi egiten dezute.» <sup>53</sup> Andik irtetea, pariseuak eta idazlariak gogor eraso zioten, orpo-galdera asko egiñez, <sup>54</sup> itzen bat arrapatuko ote zioten.

## XII

#### Egia aitortu bizkor.

<sup>1</sup> Artea jendea millaka ari zan ugaritzen, alkar aztakatzeko zorian, eta lenik ikasleai au esaten asi zan: «Begira pariseuen orantzatik, azal-uskeritik. <sup>2</sup> Ez baita izkurturik agertuko ez danik; ez eta ixilgorderik jakingo ez danik. <sup>3</sup> Orregatik, illunbetan esaten dezuten guzia argitan entzungo dute, ta gela-txokoan belarrira itzegiten dezutena, etxe-gañetan otsegingo dute. <sup>4</sup> Ara Nik esan: adiskideak, ez bildurrik izan gorputza il besterik egiñ ez dezakenai. <sup>5</sup> Nik esango dizuet zeñen bildur izan: ezaiozute bildur, ilda gero inpernura bota zaitzaketenai. Bai, esan: Oni bilduri <sup>6</sup> Ez al dira saltzen bost txori bi kuartoan? eta aietan bat etzaio aztutzen Jainkoari. <sup>7</sup> Zuen buruko illeak ere batbanatuak daude-ta. Ez bildurtu; txori askok baño geiago bali dezute zuek. <sup>8</sup> Ara esan gañera: gizonen aurrean aitortzen nauna, Gizonaren Semeak ere aitortuko du Jainkoaren Aingeruen aurrean. <sup>9</sup> Ta gizonen aurrean ukatzen nauna, ukatuko det Jainkoaren Aingeruen aurrean. <sup>10</sup> Eta Semearengaz gaizki mintzo danari, barkatuko zaio; bañan Ispiritu Santuaren aurka birau egiten dunari, etzaio barkatuko. <sup>11</sup> Sinagogetara, naiz agintari ta nagusietara za-

ramaztenean, ez larritu nola zuen alde egin eta zer erantzun. <sup>12</sup> Erakutsiko baitizue Gogo Doneak une artan, esatea or zaizuena.

### Diru-gosea.

<sup>13</sup> Jendetarteko batek esan zion: «Maisu, esaiozu nere anaiari, jabegoa nerekin erdibanatu dezan». <sup>14</sup> «Gizona. erantzun zion: nork nau Ni zuen artean ebazle eta banatzaile? <sup>15</sup> Ta esan zien gañera: begira diru-gosetik! Ugari daukanari ere, ez datorkio bizia ondasunetik». <sup>16</sup> Eta ipui au esan zion: – Aberats baten lurrak uzta aundia eman zion. <sup>17</sup> Eta onela zion bere artean: – Zer egingo det? Ez baitaukat uzta eukitzeko lekurik? <sup>18</sup> Au egingo det, esan zion: mandioak desegin, zabalagotu, ta an sartu nere uzta guziak, eta ondasunak. <sup>19</sup> Gero au esango diot nere buruari: Adi zak; urtetako ondasun asko daukak pillean; atsedean zak, jan, edan, eta ondo bizi adi. <sup>20</sup> Bañan; «Zoroi! esan zion Jainkoak; gaur bertan eskatuko dite bizia; eta bildu dekana zeñentzat?» <sup>21</sup> Ala izango da, beretzat bildu ta Jainkoarekiko aberats ez dana.

### Jainkoari gutaz ajola ote zaio?

<sup>22</sup> Orregatik dizuet, esan zien ikasleai: ez larritu bizijanariz; ez eta gorputzeko jantziz. <sup>23</sup> Bizia janaria baño geiago da, ta gorputza jantzia baño areago, <sup>24</sup> Ara beleak: ez dute ereiten, ez itaitzen, ez dute mandiorik ez aletegirik, eta Jainkoak jana ematen die. Txorien aldean asko balio dezute zuek. <sup>25</sup> Ta zuetan nork, asmatu-ala asmatuz, ukondo batez ere bizia luzatu dezake? <sup>26</sup> Eta gutxienik dana ezin ba'dezute, gañerakoaz zer kezkatu? <sup>27</sup> Ara liliak nola azi oi diran; ez dira ari lanean, ez ardatzean, eta egia esan, Salomon ere bere goraldi aundian ez zan jantzi auetako bat bezela. <sup>28</sup> Beraz, gaur bai ta biar labera hota

bear dan landako belarra Jainkoak ola jazten ba-du, zenbat areago, zuek, fede gutxiko gizonak?

<sup>29</sup> Ez ibilli estu zer jango, zer edango; <sup>30</sup> oien ondotik jentillak dabilta urduri. Ba-daki, bada zuen Aitak, oien bear zeratela. <sup>31</sup> Saia zaitezte Jainko-erri billa, ta oiek geigarri emango zaizkizute. <sup>32</sup> Ez izutu, artaldetxo, Jainkoari atsegin izan baitzaio zuei bere erria ematea. <sup>33</sup> Saldu izazute dezutena, ta egin limosna. Egiñ itzazute zulatzen ez diran poltsak, zeruan aituko ez diran ondasunak. An ez dago lapurrik, ez xirtxikatzen dun pipirik. <sup>34</sup> Izan ere, zuen ondasuna dagon tokian, an egongo da biotza ere.

### Ernai egon.

<sup>35</sup> Zaudete, gerrian garrikoa, ta argiak pizturik; <sup>36</sup> zaitezte, eztaietatik datorren nagusiari ark otsegitean atea idiki zai daudenak bezela. <sup>37</sup> Bai doatsu nagusia datorrenean ernai arkitzen ditun morroi aiek! Gerri-zapia jantziko du, noski, ta maiean eseriaziko ditu, ta serbitzen jarriko zaie. <sup>38</sup> Ta bigarren gaualdian naiz irugarrenean orrela arkitzen ba'ditu, doatsuak aiek! <sup>39</sup> Begira, etxenagusiak, lapurra noiz datorren ba'leki, ernai egonda ez luke utziko etxea zulatzen. <sup>40</sup> Zuek ere zaudete ernai, Gizonaren Semea usterik gutxienean etorriko baitzaizue. <sup>41</sup> Pedro'k ordun, «Jauna, esan zion: ipui au guretzat al dezue, ala guzientzat?» <sup>42</sup> Jaunak au erantzun zion: «Zein da, bada, morroi-nagusi zintzo ta zugarra, etxekoai gari-neurria banatzeko buru ipiñiko duna? <sup>43</sup> Bai doatsu morroi au, nagusiak etxeratzean ola ari dala arkitzen ba'du! <sup>44</sup> Ondasun guziek zaitezten ipiñiko du, noski. <sup>45</sup> Baña morroi orrek onela ba'dio berekiko: – Nagusiak berandutzen du – ta neskame-mutilla kolpeka asiko balitza, ta jaten, edaten eta mozkortzen, <sup>46</sup> morroi orren nagusia uste ez dun egunean eta gutxiarik uste dun orduan etorriko da, zati-zati egingo du, ta



siñisgabeekin utziko (\*). <sup>47</sup> Nagusiaren ala-naia jakinda, er-nai etzegin morroiak, edo ark naia egin etzunak, jipoi ika-ragarria artuko du. <sup>48</sup> Baña jakin ezean egin ditunak, zar-tako gutxiago artuko ditu. Asko ematen zaionari, asko es-katzen zaio, ta askoren zai jarriari, geiago eskatuko zaio.

#### Jesus'en alde edota aurka.

<sup>49</sup> Lurrari su ematera etorri naiz, eta bai naican nago-la erre dedin! <sup>50</sup> Baña lenik miñ-bataio ederra artzeko nago. Bai estu Ni, gertatu dedin! <sup>51</sup> Lurrera pakea ekartzera etorri nintzala uste al dezute? Pakea ez-baña gerra. <sup>52</sup> Emendik aurrera, etxe batean bost, iru bien aurka ta bi iruren aurka jarriko dira. <sup>53</sup> Aita semeagandik, semea ait-tagandik, ama alabarengandik eta alaba amarengandik erraiña amagiarrebagandik eta amagiarreba errañagandik bakandurik egongo dira. <sup>54</sup> Esaten ere zion jendaldari: «sartaldean odoi bat altxatzen ikusten dezutenean, —euria da, diozute bereala, ta alaxe da. <sup>55</sup> Eta egoak jotzen du-nean, —beroa dator—, diozute, ta ala gertatzen da. <sup>56</sup> Azal-utsak! zeru-lurrei itxura artzen diozute, ta nola ez garai oni? <sup>57</sup> Zergatik ez diozute zerok zuzen irizten? <sup>58</sup> Zure etsaierekin auzi-maisuagana zoazenean, alde egio-zu bidean, juezari eman ez zaitzan, eta juezak iruraiari, ta irurialak giltzapean sartu ez zaitzan. <sup>59</sup> Egia esan, etzera andik aterako, azkeneko xentimoa ordaindu arte.

### XIII

#### Damu-bearra.

<sup>1</sup> Une artan agertu ziran norbaitzuk, au gaztiratuz: Pi-latos'ek Galilea'rren oparia, beraien odolez naasten zula. <sup>2</sup> Uste al dezute, erantzun zien Jesus'ek, galilear auek galilear guzietan gaitzotzak izan zirala ori supritu zutelako?

<sup>3</sup> Ez, noski; baña damutzen ez ba'zaizue, guziok berdin galduko zerate. <sup>4</sup> Ta Siloc'ko dorrea erori zitzaien emezortzi aiek ere, eta illik gelditu, uste al dezute Jerusalem'en ba-karrak zirala errudun? <sup>5</sup> Damutzen ez ba'zaizue, ordea, guziok berdin galduko zerate. <sup>6</sup> Ordun ipui au esan zien: Norbaitek bere maastian piku-ondo bat zeukan aldatua, ta igali-billa etorrita etzun arkitu. <sup>7</sup> Onela esan zion maastizaiari: «iru urte dira piku-ondo ontara piku-billa natorrela ta ez diot arkitzen. Ebaki ezazu; zertako dago alper lurrean?» <sup>8</sup> — «Jauna, erantzun zion, utzazu aurten ere guzia atxurtu, eta simaurra bota dezaiodan, <sup>9</sup> ia geroan alearik ematen dun; ezean, ebakiko dezu.»

#### Larunbatez sendaketa.

<sup>10</sup> Larunbatez, Jesus Sinagoga batean ari zan erakusten. <sup>11</sup> eta emakume bat zegoan an emezortzi urte artan deabruagandiko gaitza zeukana: makurtua zegoan, zuzen jarri etzitekela. <sup>12</sup> Jesus'ek ikustean, otsegiñ eta esan zion: «Emakume, zure gaitzak utzi zaitu.» <sup>13</sup> Eskuak ezarri zizkion, eta bereala zuzendu zan, Jainkoa goستن zula. <sup>14</sup> Jesus'ek sendaketa larunbatez egin zulako, Sinagoga-buruak asarreturik esan zion erriari: —ba-dira sei egun lana egiteko; oietan etorri ta senda zaitzte, ta ez larunbatean. <sup>15</sup> «Azal-utsak, esan zien Jesus'ek: zuetan nork ez du larunbatean ukullutik idia naiz astoa askatzen ta edatera ateratzen? <sup>16</sup> Eta Satanas'ek emezortzi urte auetan loturik zeukan Abraham'en alaba au, ez al zen komeni larunbatean lokarri ortatik askatzea? <sup>17</sup> Ola itzegiñez lotsatu zitun etsai guziak; erri osoa, berriz, pozik zegoan, egiten zitun mirariengatik.

**Arbi-azia ta orantza.**

<sup>18</sup> Onela ari zan: «Zerekin alderatuko degu Jainko-erria, ta zer dirudi? <sup>19</sup> Basarbi-azia bezela da; gizonak ereiten du bere baratzen, azitzen da, ta arbola aundi egiten da, ta zeruko egaztiak artan egiten ditute kabiak. <sup>20</sup> Zerekin alderatuko det Jainko-erria? <sup>21</sup> Emakume bategen artuta irin-neurritan sartzen dun orantzarekin, guzia arrotu dedin arte.»

**Ataka estua.**

<sup>22</sup> Erri ta ballera ibilliz, erakusten ari zan, Jerusalem'a bidean. <sup>23</sup> Eta norbaitek, «gutxi al dira salbatzen diranak?» esan zion. <sup>24</sup> Berak erantzun zien: «Saia zaitetzte ate es-tutik sartzen; askok sartu naiko dute, ta eziñ. <sup>25</sup> Etxenagusiak jeikita atea ixten dunean, kanpoan geldituko zerate, ta ate-joka asiko: – Jauna, idiki iguzu atea! – Ez dakit nongoak zeraten, erantzungo die. <sup>26</sup> Ordun asiko zerate esaten: – Zure aurrean jan eta edan egin degu, ta gure plazetan erakutsi dezu –. <sup>27</sup> Bañan Ark au esango dizue: – Ez dakit nongoak zeraten, alde nigandik gaiztagille guziok! <sup>28</sup> An izango da negarra ta ortz-karraska, Abraham, Isaak, Jakob eta Igarle guziak ikusten dituzutenean Jainko-errian, eta zuek kanpora bialduak! <sup>29</sup> Etorriko dira Sortaldetik eta Sartaldetik, Iparretik eta Ego-aldetik. eta maiean jarriko dira Jainko-errian. <sup>30</sup> Eta ara: azkenak aurren izango dira, ta aurrenak azken.»

**Eriotzari buruz.**

<sup>31</sup> Orduntxe berean urbildu zitzaizkion pariseu batzuk esatera: «Zoaz emendik, Erodes'ek il egin nai baitzaitu.» <sup>32</sup> «Joanda esaiozute azeri orri, esan zien, gaur-biarretan deabru-aizatzen eta sendaketan ari naiz, eta etzi

da nere bukaera. <sup>33</sup> Baña gaur-biar-etziatan bidez noa, Igarlerik ez baititeke il Jerusalem'dik kanpora. <sup>34</sup> Jerusalem, Jerusalem, Igarleak il eta bialduak arrikatzen dituzuna! Zenbat aldiz bildu nai izan ditut nere semeak, olloak txitak egalpean bezela, ta zuek ez nai! <sup>35</sup> Ara, etxea utsik geldituko zaizue. Eta ez nazute ikusiko, au esateko uea datorren arte: «doatsu Jaunaren izenean datorrena!»

**XIV****Pariseu baten etxean.**

<sup>1</sup> Larunbatean pariseu nagusi baten etxera bazkaltzera sartu zalarik, pariseuak zelatan zegozkion. <sup>2</sup> Eta Aren aurrean gizon bat zegon ur-miñez. <sup>3</sup> Jesus'ek au galdegin zien Lege-irakasle ta pariseuai: «Zillegi al da larunbatean sendatzea, ala ez?» <sup>4</sup> Ixilik aiek. Berak eskutik elduta sendatu egin zun. <sup>5</sup> Eta ordea, aiengana biurturik au esan zien: «Semea naiz idia putzura erortzen ba'zaio, nor da zuetan, larunbata dala-ta bereala aterako ez duna?» <sup>6</sup> Eta etzuten tutik erantzun.

<sup>7</sup> Eta deituak maiean len-tokiak artzen zituela ikusita, ipui au esan zien: «Norbaitek eztaietara deitzen ba'zaitu, <sup>8</sup> ez artu len-lekua; ba-liteke, bada, zu baño gisakoago bat deitua izatea, <sup>9</sup> ta biok deitu zinduztenak zuri esatea: utzi oni lekua; ordun lotsez zoazke azken-lekura. <sup>10</sup> Bestera, deitu zaitutenean, ar zazu azken-tokia, ta deitzalleak etorrita esango dizu: adiskide, zoaz gorago. Orrela, mai-lagunen artean ospedunago izango zera. <sup>11</sup> Gorago igo nai duna, beerago botako dute, ta beian gelditzen dana, gorago jasoko.»

<sup>12</sup> Esan ere zion bazkal-deitzailleari: «otordu on bat ematean, ez deitu adiskide, ez senide, ez aide, ez auzo

aberatsak; onoko auek izan ere, berenera deituko zaitue, ta orrela ordainduko. <sup>13</sup> Baña otordua ematean, deitu itzazu beartsuak eta elbarriak, errenak eta itsuak <sup>14</sup> eta doatsu izango zera, ordañik ezin eman baitizute; baña zintzozen saria artuko dezue berpiztean.

#### Otordu aundia.

<sup>15</sup> Deitutako batek au entzunda, «bai doatsu, esan zion, Jainko-errian mai-lagun dana!» <sup>16</sup> Bañan ark au erantzun zion: «Gizon batek otordu aundi batera, lagun asko deitu zitun. <sup>17</sup> Otordurakoan, morroiak bialdu zitun, «aparia gertu dago, ta atozte» esatera. <sup>18</sup> Baña guziak aitzakitan asi ziran. Lenak au esan zion «-landa bat erosi det, eta ikustera joan-bearra daukat: barkatu, arren. <sup>19</sup> Beste batek: - Bost idi pare erosi ditut, eta aiek ezitzera noa; barka zaidazu, arren. <sup>20</sup> Irugarren batek: - ezkondu egin naiz eta ezin noake. <sup>21</sup> Morroiak etxera zanean nagusiari kentatu zion. Ordun nagusiak asarreturik, «atera adi azkar, esan zion morroiari, plazetara eta erriko kaleetara, ta ekatzik onara beartsu, elbarri, erren eta itsuak.» <sup>22</sup> - «Egin det, Jauna, zuk esana, esan zion, eta oraindik lekua daukazu». <sup>23</sup> - «Atera adi bideetara ta esietara, esan zion morroiari, ta gogorrean ere sarrerazi etzak, nere etxea bete dedin. <sup>24</sup> Ara Nik esan: aurrena deitutako gizon aietan, iñork ez du nere otordurik miastuko.

#### Zeure burua ukatu Kristo'ri jarraitzeko.

<sup>25</sup> Jende asko atzetik zetorkion, ta aiengana itzulita au esan zien: <sup>26</sup> «Nigana datorrena, bere aita ta ama, emaztea ta aurak, senideak, eta bere bizia ere atzerago uzten ez ba' ditu, ez diteke izan nere ikasle (\*). <sup>27</sup> Eta Gurutzea bizkarrean, nere ondoren ez datorrena, ez diteke izan nere

ikasle. <sup>28</sup> Nor da, bada, zuetan, etxe bat altxa nai eta, eserita, ua bukatzeko gastu-joa egingo ez dunik? <sup>29</sup> Zimenduak ezarrita bukatzen ez ba' du, jakitean, apika asiko zaizkio burlaka esanaz: <sup>30</sup> «gizon au etxegiten asi zan, eta ez du bukatu». <sup>31</sup> Orobat errege batek beste baten aurka guda egitekoan, ez al du lenik astiro begirutzen, amar milla gizonekin buru egin ote dezaioketan, ogei millarekin gaiñera datorkionari? <sup>32</sup> Ostera, ua oraindik urruti dāgola mandatariak bialduz, onezkoak eskatzen ditio. <sup>33</sup> Orrela, bada, zuetan bere ondasunai uko egiten ez dicna, ez diteke izan nere ikasle. <sup>34</sup> Gatza ona da; baña gezatzen ba' da, eltzea zerekin ondu? <sup>35</sup> Ez da gauza, ez hurrerako, ez simaurtegirako. Entzuteko belarririk dunak, entzun beza.

#### XV

#### Ardi galdua ta diru galdua.

<sup>1</sup> Pagu-biltzaille ta pekatari guziak an zetozkion entzutera. <sup>2</sup> Idazlari ta pariseuak, berriz, marmariz ari ziran. Au pekatariekin dabil, eta aiekin jaten du. <sup>3</sup> Ordun, ipui au agertu zien: <sup>4</sup> «Zuetan zeñek, eun ardi izan eta bat galdu, ez ditu uzten mendian larogei ta emeretzia eta bakarraren billa dijoa arkitu arte? <sup>5</sup> Arkitzean, bizkarrean artzen du pozez beterik; <sup>6</sup> eta etxera irixtean, adiskideak eta auzoak deitzen ditu onela: Poztu zaitzete nerekin, ardi galdua arkitu det-eta. <sup>7</sup> Orrelaxe, zeruan poz aundia goa emango du damutu dan pekatari bakarrak, damu-bearrean ez dauden larogei ta emeretzi zintzoak baño.

<sup>8</sup> Edota zein emaztek, amar drakma izan eta bat galdu, ez du argia pizten eta etxea isasten, eta arretaz billatzen, arkitu arte? <sup>9</sup> Arkitzean, adiskide ta auzoak deitzen ditu onela: emazkidazute atsegiñak, drakma galdua arkitu di-

ñat-eta. <sup>10</sup> Aitortzen dizuet: orrela poztuko ditu Jainkoaren Aingeruak, damutu dan pekatari bakarrak.

### Seme ondatzaillea.

<sup>11</sup> Esan zien ere: «Bi seme zitun gizon batek. <sup>12</sup> Gazteenak –aita, esan zion: ekatzu nere senide-partea. Eta aitak banatu zien bie. <sup>13</sup> Egun gutxi barru, gazteena, guzia bildu ta urrutietara joan zan, eta an ondatu zun bere ondasuna, bizitza lasaia egiñez. <sup>14</sup> Zitunak gastatutakoan, lurralde artan gosete aundia sortu zan, eta bearretan gertatu. <sup>15</sup> Eta ango gizon batenera joan zan morroi. Onek bere larretara txerrizai bialdu zun. <sup>16</sup> Txerriak jaten zuten azkurritik sabela bete nai zun, bañan iñork etzion uzten. <sup>17</sup> Zentzura etorri zanean, –zenbat langille, esan zun, nere aitarenean, ogia nai ezik, eta ni emen goseak erdi-illik! <sup>18</sup> Jaiki ta aitarengana joango naiz esatera: «Aita, pekatu egin det Zeruaren eta zure aurka. <sup>19</sup> Zure seme-izenik ez det merezi. Artu nazazu morroien artean. <sup>20</sup> Ala jeiki ta aitagana joan zan. Oraindik urruti zegola, aitak ori ikusi, kupitu, ta korrika semearengana irten zan, eta besoak lepora zizkion, musuz beteaz. <sup>21</sup> «Aita, esan zion semeak: pekatu egin det Zeruaren eta zure aurka; ez det zure seme-izenik merezi». <sup>22</sup> Bañan aitak morroiari: «Atera bereala jantzirik onena, ta jantzi iozute, eta jarri eskuan eraztuna, ta oñetan oskiak ipiñi izkiozute. <sup>23</sup> Ekarri zekor guritua, il, eta jan dezagun alaikiro, <sup>24</sup> nere seme au illa bainun eta piztu zait; galdu zan eta arkitu degu. Ta asi zan pesta. <sup>25</sup> Anaia zarrena soroan zan, eta etxera urbiltzean, musika ta dantzak entzuten zitun. <sup>26</sup> Morroi bati otsegin zion, eta, zer gertatzen zan galdegin. <sup>27</sup> «Anaia etorri zazu, erantzun zion; aitak aratxea il du, onik arkitu baitu». <sup>28</sup> Asarrèraren asarrez etzun etxera sartu nai izan, bañan aita erreguka irten zitzaion. <sup>29</sup> «Oinbeste urtez, erantzun

zion aitari, morroi nauzu, zure agindurik beñiere autsi gabe ta egundo ez didazu eman antxume bat, lagunekin otordu bat egiteko. <sup>30</sup> Ta zure seme orri, zitunak emazte galduekin ondatuta etorri danean, txekor guria il diozu.» <sup>31</sup> – «Seme, erantzun zion: zu beti nerekin zauzkat, eta nere guzia zure dezu. <sup>32</sup> Komeni zan, bai, jai egitea, zure anaia illa baitzendun eta piztu zaizu; galdu zan eta azaldu zaigu.

### XVI

#### Morroí zintzo-eza.

<sup>1</sup> Esan ere zien ikasleai: «Ba-zan aberats bat, nagusi-orde batekin, eta au salatu egin zioten, zitunak ondatzen zizkiola-ta. <sup>2</sup> Otseginda au esan zion: «Zer aditzen det zutaz? Emazu zure lanaren kontu, ezbaitzaiteke izan emen nagusi-orde. <sup>3</sup> Ordun, ordezkoak au esan zun: –zer egingo det nagusiak lanbidea kentzen ba'dit? Aitzurrerako ez naiz gauza, eskeak lotsa ematen dit. <sup>4</sup> Bai, ba-dakit zer egin, lanbidea kentzen didaneko, besteak etxean ar nazaten. <sup>5</sup> Beraz, nagusiaren zordun guziak banaka deitu, ta leenari au esan zion: «Zenbat zor diozu gure nagusiari?» <sup>6</sup> Arek esan zion: eun zaragi olio. «Eserita idatzi zazu berrogeitamar; tori agiria.» <sup>7</sup> Gero besteari: «eta zuk zenbat zor diozu?» Arrek, esan zion: eun anega gari. «Tori agiria, ta idatzi zazu or larogei.» <sup>8</sup> Nagusiak ondo iritzi zion, ordezko ari, zugarri jokatu zalako; mundu ontako semeak zurrago baitira beren artean, argiaren semeak baño. <sup>9</sup> Ara nik esan: «bildu itzazute adiskideak bidegabe-ko ondasunekin, iltzen zeratenean betiko egoitzan ondo artu zaitzaten. <sup>10</sup> Gutxian zintzo dana, askoan ere zintzo da, ta gutxian gaizto dana, askoan ere gaizto. <sup>11</sup> Beraz, bidegabezko ondasunetan zintzo izan ez-ta, nork utziko zai-

tue egizkoa zaitzen? <sup>12</sup> Eta besterenarekin zintzo izan ez-ta, nork emango dizue zerona? <sup>13</sup> Inor ez diteke izan bi nagusiren morroi; bata gorroto ta bestea maite izango baititu. Edota batari esker ona emango dio, ta besteari txarra. Eziaña da Jainkoa ta ondasunak serbitzea.»

#### Pariseu okerrak.

<sup>14</sup> Pariseu diru-goseak, ori entzunda burla egiten zioten. <sup>15</sup> Eta –zuek, esan zien, zintzoz arrotzen zerate giza-aurean; baña Jainkoak ezagutzen ditu zuen biotzak. Eta gizonan aurrean aunditza agertzen dana, Jainkoaren auan nazkagarri da. <sup>16</sup> Legea ta Igarleak, Joan bitartean izan ziran; ordu ezkeru, Jainko-erria zabaltzen ari da, ta bakoitza indarrez dator artara. <sup>17</sup> Errezago da, ordea zeru-lurraz pasatzea, Legearen ixpi bat baño. <sup>18</sup> Emaztea zapuiztu ta besteren batekin ezkontzen danak. ezkontza loitzen du, ta zapuiztu arekin ezkontzen danak, ezkontza likisten du.

#### Aberats beti-jai ta Lazaro eskalea.

<sup>19</sup> Ba-zan aberats bat, purpuraz eta liño piñez jantzi oi zana; otordu oparoak egiten zitun egunero. <sup>20</sup> Baña beartsu bat, Lazaro zeritzana, aren atalondoan etzanda zegon, zauri ustelez betea. <sup>21</sup> Aberatsaren maietik erortzen zanetik ase-naiean zegon; baña zakurrak berari, ondoratuta zauriak milixkatzen zizkioten. <sup>22</sup> Il zan beartsua, ta Aingeruak Abraham'degira eraman zuten; aberatsa ere il zan, eta obiratu zuten. <sup>23</sup> Ipernuan oñazetan zegola, begiak altxata, Abraham ikusi zun urrutira, ta Lazaro arenean. <sup>24</sup> «Aita Abraham, otsegin zion: erruki zaite nitzaz, eta bialdu idazu Lazaro, aren beatz-muturrak bustita uretan, mingaiñ au ezotu dezadan; oñazez bainago gar ontan». <sup>25</sup>

«Seme, erantzun zion Abraham'ek, gogora ezazu, zeure bizian ondasunak artu zenitula, Lazaro'k berriz gaitzak. Orain emen pozik dago eta zu oñazetan. <sup>26</sup> Ontaz gañera, zuen eta gure artean leize aundia dago; emendik orrera pasa nai dutenak ere ezin baitute; ez-ta orkoak onera ere». <sup>27</sup> «Ordun, esan zion aberatsak, arren aita, bial zazu Lazaro gure aitarenera, <sup>28</sup> bost senide baititut eta egia esan dezaien, oñaze-leku ontara ez datozen». <sup>29</sup> Abraham'ek au esan zun: «Or dauzkate Moises eta Igarleak; entzun bezaie». <sup>30</sup> Bañan «ez, aita Abraham, esan zion, ildakoren bat agertzen ba'zaie, damutuko zaie.» <sup>31</sup> Eta au erantzun zion: «Moisi ta Igarleai entzuten ez ba'diete, ilda agertutakoai ere ez diete siñetsiko.

## XVII

#### Eskandaloa.

<sup>1</sup> Au esan zien ikasleai: «Eskandaloa ezin galarazi ditke; baña doakabea ekarriazten duna! <sup>2</sup> Obe luke lepoari errotarri bat erantsita itsasora botako ba'lute, txiki aue-tako bati gaiztora bidea eman baño. <sup>3</sup> Kontu zeren buruekin! Anaiak okerra egiten ba'du, egiozu errita, ta damutzen ba'zaio, barka iozu. <sup>4</sup> Ta egunean zazpitan okerra egiten ba'dizu, ta beste oinbestetan etortzen ba'zaizu barka-eske, barka iozu».

#### Siñiste ta apaltasuna.

<sup>5</sup> Apostoluak au esan zioten Jesus'i: «Geitu iguzu sinismena». <sup>6</sup> Eta Jaunak: «Arbi-azia aiñako sinismena ba-zenute, piku zoro oni: –atera adi ta itsasoan landa adi –esango ba'zeniotekete, obedituko lizuteke.

<sup>7</sup> Zuetan batek, morroi, naiz artzai bat dula, landatik

etortzean, bereala – aurrera adi maiera –<sup>8</sup> esango al dio? edota bestera: – moldatu idak aparia, jantzi ezak gerrikoa neri serbitzeko nik jan-edan egiñ arte, ta gero ik egingo dek aparia? –<sup>9</sup> Morroiari esker emango al dio, agindua egin diolako? <sup>10</sup> Orrela zuek ere, agindutako guzia egite: dezutenean, – morroi ezerezak gera – esazute; egin bear gendunaxe egin degu.

#### Amar lepradunak.

<sup>11</sup> Jerusalem'a bidean, Samari ta Galilea artetik zijoan; <sup>12</sup> eta ballera batera sartzean, amar lepradun atera zitizkion bidera. Urruti xamar gelditu <sup>13</sup> ta oiuka esan zioten: «Jesus, Maisua, erruki zakigu». <sup>14</sup> Ikusi zitun, eta «zoazte apaizangana» esan zien. Eta ara, bidean garbi gelditu ziran. <sup>15</sup> Aietan bat, sendatu zala-ta, gora Jainkoa! otsegiñez itzuli zan, <sup>16</sup> eta Aren oñetan auspeztu zitzaion, eskerak emanez. Au Samariarra zan. <sup>17</sup> Ordun Jesus'ek. «ez al ziran garbi gelditu amar? esan zun. Nun dira bederatzia? <sup>18</sup> Iñor ez da etorri eskerrak ematera, arrotz au besterik. <sup>19</sup> Zutitu ta, zoaz, esan zion; sinismenak sendatu zaitu».

#### Jainkoaren erregealdia.

<sup>20</sup> «Noiz dator Jainkoaren Erregealdia?» galdegin zioten pariseuak. «Jainko-erria ez da agerian etorriko (\*). <sup>21</sup> Ez dute esango «ara an» edo «ona emen», Jainko-erria zeron barruan baitaukazute». <sup>22</sup> Eta ikasleai au esan zien: «Gizonaren Semea ikusi nai dezuteneko egunak etorriko zaizkizute, ta ez dezute ikusiko. <sup>23</sup> «Ona emen» edo «ara an» esango dizuete. Ez joan aren atzetik. <sup>24</sup> Zeruko mutur batetik bestera tximixta dijoan bezela, alaxe izango da Gizonaren Semea bere egunean. <sup>25</sup> Baña leenik asko supri-

tuko du, ta gizaldi onek lekutu egingo du. <sup>26</sup> Noe'ren egunetan gertatua gertatuko da Gizonaren Semcarenetan ere. <sup>27</sup> Jan eta edan, senartu ta emaztetu ari ziran, Noe kutxa aundira sartu zanean. Etorri zan ugaldea, ta guziak iretsei zitun. <sup>28</sup> Orobat gertatu zan Lot'en egunetan ere: jan, edan, erosi, saldu, landareak aldatu ta etxeak altxa ari ziran; <sup>29</sup> baña Lot Sodoma'tik irten zaneke, zerutik euria ta kirats-autsa jetxi ziran, eta guziak galdu ziran. <sup>30</sup> Orrela izahago da Gizonaren Semcaren agertze eguna (\*).

<sup>31</sup> Egun artan, etxegañean dagona, ez bedi jetxi etxean dauzkan bizitze-tresnak ateratzera; berebat sorotan ari dana, ez bedi atzera itzuli. <sup>32</sup> Gogoan iduki Lot'en andrea-rena. <sup>33</sup> Bere bizia irabazi nai dunak, galduko du; ta gal-tzen dunak eutsiko dio. <sup>34</sup> Begira: gau artan bi egongo dira oe batean: bata artu egingo dute, bestea utzi. <sup>35</sup> Bi emakume eiotzen ariko dira; bata artu ta bestea utzi egingo dute. <sup>36</sup> «Nun izango da ori, Jauna» galdegin zioten, eta <sup>37</sup> «Gorputza dagon tokira bilduko dira arranoak», crantzun zien.

#### XVIII

#### Jueza ta alarguna.

<sup>1</sup> Otoitza beti egin bear dala aspertu gabe, ta ipui au esan zien: <sup>2</sup> «Ba-zan erri batean juez bat, Jainko-bildur gabea, gizonai ere begirunerik etziena. <sup>3</sup> Ba-zan erri artan bertan alargun bat, onela zetorkiona: «Egidazu zuzenbide, nere etsaiaren kontra». <sup>4</sup> Eta aldi betean, etzun nai izan; baña gero onela esan zun berekiko: Jainko-bildurrik ez dedan arren, eta gizonangatik ajolik ez, <sup>5</sup> alargun au nekagarri zaidalako, zuzenbidea egingo diot, noizbait arramazka ba'letorkit ere. <sup>6</sup> «Entzun, esan zien Jaunak, juez okerrak zer dion! <sup>7</sup> Eta Jainkoak ez al du zuzenbide egin-

go zerurakoekin, gau ta egun otoiiza ari zaizkionakin, eta zai edukiko al ditu? <sup>8</sup> Bereala emango die beren eskubidea. Baña Jainkoaren Semeak, datorrenean, arkituko al du federik lurrean?»

#### Pariseua ta pagu-biltzaillea.

<sup>9</sup> Beren buruak zintzo egin ta besteai esker gaizto ematen zien batzuei, ipui au jarri zien: <sup>10</sup> Bi gizon Jauretsera igo ziran otoiizera: pariseua bata, diru-biltzaillea bestea. <sup>11</sup> Pariseua, zutik, onela ari zan otoiizean: Eskerrak, ene Jainkoa, beste gizonak bezela ez naizelako, ots, lapur, biurri, ezkontza-ause; ez-ta arako zerga-biltzaille ori bezela. <sup>12</sup> Astean bi aldiz barau egiten det, ditudanen amarrak ematen ditut. <sup>13</sup> Baña diru-biltzaillea, atzetik, ez zan ausartzen begiak zerura altxatzen, eta galtzarra eskuz joaz onela zion: «Erruki zakio, Jaungoikoa, pekatari oni». <sup>14</sup> Nik esaten dizuet: au etxera zintzotuago joan zan bestea baño. Arrotzen dana zapalduko dute, ta makurtzen dana altzaraziko.

#### Jesus aurrekin.

<sup>15</sup> Aurtxoak ere ekartzen zizkieten, eskuak ezarri zezaizkien. Au ikustean, ikasleak errita egiten zieten. <sup>16</sup> Baña Jesus'ek, au esanez otsegiten zien: «Utzi ta ez eragotzi aurrak Nigana etortzen; olakoena baita Jainko-erria. <sup>17</sup> Egitan esan; Jainko-erria aur auek bezela artzen ez duna, ez da artan sartuko».

#### Gazte aberatsa.

<sup>18</sup> Aundiki batek au galdegin zion: «Maisu ona, zer egin bear det betiko biziaz jabetzeko?» <sup>19</sup> Jesus'ek au erantzun zion: «Zergatik deritzadazu ona? Jainkoa baizik iñor ez da onik. <sup>20</sup> Ba-dazkizu aginduak: «Ezkontza ez loitu,

ez iñor il, ez izan gezur-aitorle, goratu itzazu aitamak». <sup>21</sup> Aren erantzuna: «gaztedanik ori guzia egin det». <sup>22</sup> Jesus'ek, entzutean esan zion: «baten bearrean zaude oraindik: dituzunak saldu ta beartsuei eman, eta zeruan ondasunak izango dituzu, ta atoz Nere jarrai». <sup>23</sup> Au entzutean goibel gelditu zan, oso aberatsa baitzan. <sup>24</sup> Orrela ikusita Jesus'ek au esan zion: «Bai nekez sartzen dirala zeruan aberatsak! <sup>25</sup> Errezago baita ganbelu bat orratzaren begitik sartzea, aberats bat Jainko-erria sartzea baño». <sup>26</sup> Entzuleak ordun esan zuten: «nor zerura diteke beraz?». <sup>27</sup> Eta Jesus'ek: «Gizonak ezin dezakena, Jainkoak egin dezake». <sup>28</sup> Ordun Pedro'k: «guk, ditugunak utzi ditugu, ta zure ondoren gabiltza». <sup>29</sup> Eta Jesus'ek esan zien: «Egia esan; ez da iñor, etxe, andre, senide, aide ta seme Jainko-erriagatik utzita, <sup>30</sup> mundu ontan asko geiago artuko ez dunik, eta betiko bizia gero.

#### Pasioaren berri.

<sup>31</sup> Eta Amabiak berekin artuta, «begira, esan zien, Jerusalem'a goaz, eta Gizonaren Semeari, Igarleak idatzi zuten guzia gertatuko zaio. <sup>32</sup> Izan ere jentillei emana, burlatua, itxusitua, ta txistuz josia izango da. <sup>33</sup> Zigorak emanda ilko dute, ta irugarren egunean berpiztuko da». <sup>34</sup> Aiek, ordea, tutik etzuten ulertu, ta esana izkutu zitzaaien, zer esan zien ezagutu gabe.

#### Jeriko'n itsua.

<sup>35</sup> Jeriko'ra irixtean, bide-ertzean eskale zegoen itsu batek, <sup>36</sup> jendea pasatzen sumatuta, zer gertatzen zan galdegin zun. <sup>37</sup> «Nazaret'eko Jesus pasatzen da», esan zioten. <sup>38</sup> Ordun arek ots egin zion: «Jesus, Dabid'en semea, erruki zakit». <sup>39</sup> Aurrena zijoazenak, errita egiten zioten, ixil-

tzeko; bañan arek oi u aundiagoaz: «Dabid'en Semea, erruki zakit.»<sup>40</sup> Gelditu zan Jesus, eta Beregana ekartzeko agindu zun; itsua ondora zitzaionean,<sup>41</sup> «zer egitea nai dezuz?» galdegin zion, eta, «ikus, Jauna!»<sup>42</sup> «Ikusi. bada, esan zion Jesus'ek; zure fedea sendatu zaitu.»<sup>43</sup> Eta bertantxe begi-argi gelditu zan, eta, Jainkoa goraldiaz, ondoren joan zitzaion. Erri osoak ere au ikusirik Jainkoa ospatzen zun.

## XIX

**Zakeo.**

<sup>1</sup> Jeriko'ra sartu zan eta an zebillen. <sup>2</sup> Ba-zan an gizon bat Zakeo zeritzana diru-biltzaille nagusia, aberatsa; <sup>3</sup> Jesus ezagutzeko ikusi-naiekoa, bañan etzezaken jendearen gañetik, ñañoa zan-da. <sup>4</sup> Aurrea artuz, piku-zoro batera igo zan ikustera, andik pasatzekoa baitzan. <sup>5</sup> Jesus bertara zanean, begiak altxata au esan zion: Zakeo, jetxi aguro, gaur zuenean gelditzea komeni zait-eta. <sup>6</sup> Jetxi ta bereala pozik artu zun etxean. <sup>7</sup> Ori ikustean, guziak marmariz asi ziran: «pakatari baten etxean gelditzen da». <sup>8</sup> Zakeo'k, ordea, zutik, au esan zion Jaunari: «Jauna, nere ondasunen erdia beartsuei emango diet, eta noribait zerbait ostu ba'diot, lau alako biurtzen diot». <sup>9</sup> Eta Jesus'ek au esan zion: «etxe ontan gaur sartu da osasuna, au ere Abraham- seme baita. <sup>10</sup> Gizonaren Semea, galdu zana biltzera ta salbatzera etorri zan.

**Mina-diruen ipuia.**

<sup>11</sup> Entzuten ari zirala, Jerusalem'dik urbil zegolako, ta Jainko-erria bereala agertuko zala uste zutelako, ipui ari jarri zien: <sup>12</sup> «Aundiki bat, urrutietara joan zan, ango

errege eginda itzultzekotan. <sup>13</sup> Bere amar morroi deiturik, amar mina-diru eman zizkien, eta esan: - Saiatu irabazian ni natorren bitartean - (\*). <sup>14</sup> Bañan erritarrak gorrotoz artu zuten, eta mandatariak bialdu zizkioten, - ez degu erregerik nai - esatera. <sup>15</sup> Itzuli zan erregetza arturik, eta dirua eman zien morroiak deitu zitun, norik zenbat irabazi zun jakiteko. <sup>16</sup> Lenengoa onela etorri zan: - Jauna, zure minak amar mina eman ditu. <sup>17</sup> - Oso ederki, erantzun zion, gutxian zintzo izan zeralako, amar erriren buru izango zera. <sup>18</sup> Etorri zan bigarrena, onela: - Jauna, zure minak bost mina eman ditu. <sup>19</sup> Oni beste oinbeste esan zion: - zaitte, bada, bost erritan agintari. <sup>20</sup> Etorri zan beste bat onela: - Jauna, ona emen zure mina, zapian bilduta euki det, <sup>21</sup> zure bildur bainintzan, gizon zorrotza zeralako; ipiñi ez dezuna artzen, eta ereiten ez dezuna itaitzen baitez. <sup>22</sup> - Morroi gaizto, esaten dio nagusiak: zerroren agotik gaizto irizten zaitut. Ba-zenekin oso latza nintzala, ipiñi ez dedana artzeko, ta erein ez dedana itaitzeko. <sup>23</sup> Zergatik etzendun ipiñi diru-etxean, nik, itzultzean irabaziarekin atera nezan? <sup>24</sup> Kendu iozute mina, esan zien an zeudenai, eta emaiozute amar mina ditunari. <sup>25</sup> Jauna, ba-ditu amar mina, esan zioten. <sup>26</sup> - Egia esan: dunari emango zaio, ta ez dunari, duna ere kenduko. <sup>27</sup> Ni errege nai ez ninduten nere etsai oiek, ekarri ta il itzazute nere aurrean». <sup>28</sup> Itzok bukatuta, aurrera zijoan, Jerusalem'a igotzen.

**Ospe aundiko sarrera Jerusalem'en.**

<sup>29</sup> Betfage ta Betani ondora urbiltzean, Oliamendi ondoan, bi ikasle bialdu zitun mandatura: <sup>30</sup> «Zoazte aurreko aldeko baserri ortara, ta sarreran astotxo lotu bat arkituko dezute, oraindik inor gañean jarri etzaiona; askatu ta ekarri. <sup>31</sup> Eta, - zergatik askatzen dezute, norbaitek esaten



ba'dizue, - Jaunak bear du, esaiozute». <sup>32</sup> Joan ziran mandariariak, eta esan bezela arkitu zuten. <sup>33</sup> Askatzen ari ziralara, etxeakoak esan zieten: - zergatik askatzen dezute astotxoak? <sup>34</sup> - Jaunak bear dulako, erantzun zioten. <sup>35</sup> Orduan Jesus'ei ekarri zioten. Beren soñekoak asto-gañera bota ondoren Jesus gañera igoerazi zuten, <sup>36</sup> Eta aurrera zijoala, jendeak soñekoak zabaltzen zizkioten lurrean. <sup>37</sup> Oliamendi'ko mendi-barrenera iritxi zanean, ikasle guziak, pozez beterik, oiuka Jainkoa goستن asi ziran ikusi zituten mirariengatik esanaz: <sup>38</sup> «Gora Erregea, Jaunaren izenean datorrena! Pakea zeruan eta ospea gaindegietan!» <sup>39</sup> Jendar-teko pariseu batzuk, «Maisu, esan zioten: galarazi iezu ikasleai.» <sup>40</sup> Auek ixilduko ba'lira, erantzun zien, arriak ere oiue egingo lukete».

#### Jesus negarrez.

<sup>41</sup> Urbildu-ala, uria ikusirik, negar egin zun arengatik: <sup>42</sup> «Ai!, esan zun, ezagutuko ba'zenu gaur zuk ere, pakerako bidea! Bañan orain kukuturik dago zure begientzat. <sup>43</sup> Etorriko dira, bai, egunak, zure etsaiak luebakiz, inguratuko, esituko, estutuko zaitute nundinai. <sup>44</sup> Zuri ta zure barrungo semeai lur joeraziko dizute, ta ez dute utziko arririk arriaren gañean; agertaldi eguna ezagutu ez dezulako».

#### Saltzailleak Jauretsetik bota.

<sup>45</sup> Jauretsetean sartuta, saltzailleak andik aizatzen asi zan. <sup>46</sup> «Idatzirik dago, esan zien: *nere etxea otoitz-etxe izango da; baña zuek lapur-zulo egin dezute*».

<sup>47</sup> Eta egunero Jauretsetean erakusten asi zan; bañan apaizburu, idazlari ta erriko nagusiak, Ua galdu naiean zebiltzan; <sup>48</sup> ez zuten, ordea, asmatzen nola, erri guzia agotik zintzilika baitzeukan, entzuten.

## XX

#### Jesus'en eskubidea.

<sup>1</sup> Bein batez, Jauretsetean erriari Berri-Ona erakusten ari zitzaiola, apaizburu, idazlari ta erri-gurasoak urbildu zitzaizkion: <sup>2</sup> «Zer eskubidez, esan zioten, egiten dituzu gauzok? zeñek emanda?» <sup>3</sup> - «Nik ere, erantzun zien, galde bat egingo dizuet. <sup>4</sup> Esazute: Joan'en bataioa zerutik ote zan ala gizonangandik?» <sup>5</sup> Aiek, berriz, onela ari ziran berrenkiko: zerutik esaten ba diogu, - zergatik etzenioten siñistu? - esango du. <sup>6</sup> Gizonangandik esaten ba'degu, erri osoak arrikatu egingo gaitu, Joan Igarlea zala jabeturik baitago. <sup>7</sup> Eta, etzekitela nundik, erantzun zioten. <sup>8</sup> «Nik ere ez dizuet esaten, erantzun zien Jesus'ek, zer eskubidez ari naizen».

#### Masti-zai biurriak.

<sup>9</sup> Eta erriari alegi au esaten asi zan: «Gizon batek maasti bat landatu zun, maastizai batzuei eman zien errentan, eta luzaroko aldegin zun. <sup>10</sup> Bere garaiean, maizter aietara morroi bat bialdu zien, maatsak ekarririk, eman zezaiotela. Baña maastizaiak astindu egin zuten, eta esku utsik bialdu. <sup>11</sup> Beste morroi bat igorri zien, eta ua ere astinduta, itsuski erabillita bialdu. <sup>12</sup> Oraindik irugarrena bialli zien; aiek, ordea, ua ere zaurituta uxatu zuten. <sup>13</sup> Maasti-jabeak ordu, - zer egingo det? - esan zun berekiko. Nere seme kuttuna bialduko diet; bear-bada, ondo artuko dute. <sup>14</sup> Baña maastizaiak ua ikustean, zer erabaki zuten? Au da jabegaia; il dezagun, gerau jabe egiteko. <sup>15</sup> Botta zuten, noski maastitik, eta ilda utzi... Zer egingo du, beraz aiekin maasti-jabeak? <sup>16</sup> Etorriko da, ta alako maizterrak zuzituko ditu, ta maastia beste batzuei emango die. Au entzunda: - ez dezala Jainkoak nai, esan zuten. <sup>17</sup> Ba-

ña begiak aiengana zitula, au esan zien: «Zer adierazten du, bada, arako idatzi arek?: *Etxegilleak baztartu zuten arria, ua gertatu da giltzarri?*»<sup>18</sup> Arri onen gañera erortzen dana, auts egingo da; ta au erortzen zaiona, onek zapalduko du.

### Zesar'i pagabearra.

<sup>19</sup> Idazlari ta apaizburuak atzitu nai zuten ordun, bañan erriari bildur zioten, ezagutu baitzuten ipuia, aientzat zala. <sup>20</sup> Zelatan gelditu ziran, eta zintzo-azalezko ispia batzuk bialdu zizkioten itzetik eltzeko, agintariaren eskura ta menpean jartzeko. <sup>21</sup> «Maisu, galdegin zioten, beraz, bada-kigu izketan eta erakusten zuzen ari zerala, eta nor dan begi eman gabe Jaunaren bidea egiz erakusten dezula. <sup>22</sup> Zillegi al zaigu Zesar'i zerga pagatzea, ala ez?»<sup>23</sup> Aien maltzurkeria ikusirik, «ekatzute denario bat, esan zien. <sup>24</sup> Noren irudia ta itzak dauzka?» – «Zesar'enak», erantzun zioten. <sup>25</sup> «Beraz, esan zien, emaiozute Zesar'i Zesar'ena, ta Jainkoari Jainkoarena.»<sup>26</sup> Eziñ eldu izan zioten itz bati ere, erriaren aurrean, eta erantzunaz arriturik, ixilik gelditu ziran.

### Berpiztea.

<sup>27</sup> Baña saduzeo batzuk ondora zitzaizkion – ez baitute berpizterik siñisten – eta onela galdegin zioten: <sup>28</sup> «Maisu, Mois'ek au agindu zigun: norbaiten anaia, andre alargun semegabea utzita ilko ba'litz, anaiak artu dezala emazte, eta utzi dezaiola ondorengoa. <sup>29</sup> Zazpi anai ziran, bada, lenengoa, ezkondata semerik gabe il zan. <sup>30</sup> Bigarrenak, <sup>31</sup> eta irugarrenak, eta berebat zazpiak, emaztetzat artu zuten, eta aurrik gabe il ziran. <sup>32</sup> Azkenik, andrea ere il zan. <sup>33</sup> Berpiztean, aietako zeñen emazte izango da? guziak euki baitzuten emazte.»<sup>34</sup> Jesus'ek au erantzun zien:

«Mundu ontako jendeak senartzen eta emaztetzen dira; <sup>35</sup> baña beste artan, artukizun izatea merezi dutenak, berpiztean ez dira senar ez emazte izango. <sup>36</sup> Ezin ilko dira, Jainkoaren seme baitira, Aingeruak bezela, berpiztez ala gertatuak. <sup>37</sup> Eta illak pizten dirala? Mois'ek berak adierazten digu larr-ondotik, Abraham'en Jainkoa, Isaak'en Jainkoa, Jakob'en Jainkoa, esaten dunean. <sup>38</sup> Illena ez-baña biziena da Jainkoa. Arentzat guziak bizi baitira. <sup>39</sup> Ordun idazlari batzuk au esan zuten: «Ederki esan dezu, Maisu.»<sup>40</sup> Ta etziran ausartu geiago galdetzen.

### Jainkoaren Semea.

<sup>41</sup> Bañan Ark esan zien: «Nola diote, Kristo Dabid'en semea dala? <sup>42</sup> Dabid'ek berak Salmuetan esaten baitu: *Jaunak nere Jaunari au esan zion: eseri zakit eskubitan.* <sup>43</sup> *etsaiak oinpekotzat jartzen dizkizudan bitartean?* <sup>44</sup> *Dabid'ek Jauna esaten diona, nola du seme?»*

### Iskribau doakabeak.

<sup>45</sup> Eta ikasleai au esan zien, erri osoak aditzen zula. <sup>46</sup> «Ernai idazlariekin! Jantzi arroak ditute maite, plazetan diosalak, Sinagogetan leen-tokiak, eta otorduetan leen-alkiak. <sup>47</sup> Alargun etxeak iretsi, otoitz luzeen aitzakiz. Auzi zorrotzagoa izango dute, noski, oiek.

## XXI

### Alargunaren txanpona.

<sup>1</sup> Begiak altxata, aberats batzuk ikusi zitun dirua eltzetxora botatzen. <sup>2</sup> Alargun beartsu bat ere ikusi zun, bi xentimo botatzen, <sup>3</sup> eta onela esan zun: «Egitan, alargun

gaixo onek beste guziak baño geiago bota du. <sup>4</sup> Beste guziak, sobra zaienetik bota baitute Jainko-oparietara; bañan onek, bere beartsuan, bizirako bear zun guzia bota du.»

### Jerusalen'en eta munduaren azkena.

<sup>5</sup> Esan baitzioten norbaitzuk Jauretzea arri ederrez eginā zegola, ta opariz, eta au esan zun: <sup>6</sup> «Ikusten dezuten ontatik, etorriko dira egunak, arririk-arri gañean apurtu gabe ez baita geldituko.» <sup>7</sup> – «Maisu, galdegin zioten: noiz gertatuko da ori? ta zer siñale agertuko da oiek gertatze-koan?» <sup>8</sup> – «Begira, erantzun zien, etzaitzela engañatu; askok nere izena artuko baitute – ni naiz – esanez; garaia etorri da –. Ez segi aici. <sup>9</sup> Eta gerrak eta biurrialdiak aditzen dituzutenean, ez ikaratu; leenik au gertatu-bearra da; bañan azkena ez dator bereala. <sup>10</sup> Eta aurrera ari zan: Arrazak, arrazan aurka ta erriak errien aurka jeikiko dira, <sup>11</sup> eta lurr-ikara aundiak izango dira, ta an eta emen gosea, izurria, izukariak eta zeru-siñale aundiak. <sup>12</sup> Auek gerta baño len, lotuko zaituete; persegituko, Sinagogetara eramango, ta kartzeletara; ta erregeen eta agintariengana agertaziko zaituete, nere izenarengatik. <sup>13</sup> Orrek aitortzarako balioko dizue. <sup>14</sup> Ala ere, ez kezkatu, zeron alde nola egin. <sup>15</sup> Nik emango dizuet zuen etsai guziak eutsi ta ausi eziñeko mingain ta jakintasuna. <sup>16</sup> Gurasoak berak, senide, aide ta lagunak, salatuko zaituete, ta batzuk iltzaille ere bai izango dituzute. <sup>17</sup> Ta guziok Nigatik gorrotatuko zaituete. <sup>18</sup> Baña buruko ille bat ere etzaizue galduko. <sup>19</sup> Iraupenak aterako ditu onik zuen biziak.

<sup>20</sup> Jerusalem gudari-taldez inguratua ikusten dezutenean, jakiñ ezazute ondamendia urbil dala. <sup>21</sup> Ordun, Judea'n daudenak, igesegin bezate mendietara; ta erri barrukoak alde egin bezate; ta sorroan ari diranak ez betoz errira.

<sup>22</sup> Bengantza egunak baitira, idatzitako guzia gerta dedin. <sup>23</sup> Ai, egun oietan aurdun daudenak eta iñudeak! Larri aundia sortuko da lurrekoentzat, eta gorrotoa erri onentzat. <sup>24</sup> Batzu ezpatak joko ditu; ta besteak loturik eramango ditue errialde guzietara; eta jentillak zapalduko dute Jerusalem, erbeste-aldia bete dedin arte. <sup>25</sup> Siñale aundiak ere agertuko dira eguzkian, illargian, izarretan, eta lurrean errien estualdia, itxasoaren orro ta olatuen otsarekin; <sup>26</sup> gizonak ikara larri izango dute munduari datorkionagatik; zeruko orpoak ere aldarro egingo dute. <sup>27</sup> Ordun ikusiko dute Gizonaren Semea odeiean etortzen, nagusi ta aundi. <sup>28</sup> Gertaera auek astean, ezazute biotz! gora buruak! askatasuna urbil baitaukazute. <sup>29</sup> Eta ipui au esan zien: «Begira piku-ondoa ta beste zugatzak; <sup>30</sup> aiek leertzen ikustean, artatik ezagutzen dezute udara urbil dala. <sup>31</sup> Berebat, beste auek gertatzean, jakiñ ezazute Jainko-erria urbil dala. <sup>32</sup> Egia esan: ez da gizaldi au igaroko, guzi oiek gertatu gabe. <sup>33</sup> Zeru-lurrak pasako dira; baña nere itzak ez dira pasako. <sup>34</sup> Begira, gero, zuen biotza sabelkeri, mozkorkeri, bizitze-kezkak astundun ez dezan, <sup>35</sup> eta egun ori, ustekabean, segara bezela gerta ez dizai-zuen, lurbira osoan diran guziak arrapatuko baititu. <sup>36</sup> Ernai, bada, uneoro otoitzean, datorrena datorrela onik aterra zaitezten, Gizasemearen aurrera agertzeko.» <sup>37</sup> Egunez Jauretxean orrela ari zan, erakusten, gauetz Oliamendin egoten zan, izarpean.

### XXII

#### Judas'en saldukeria.

<sup>1</sup> Ba-zetorren ogi illen pesta, Pazkoa, <sup>2</sup> eta apaizburu ta idazlariak, ua nola illerazi zebiltzan, erriaren bildur baitziran. <sup>3</sup> Iskariote zeritzan Amabietako batengan Iska-

riote izengoitia zun Judas'engan, Satanaz sartu zan. <sup>4</sup> Eta apaizburu ta agintariengana joan zan, aien eskuetara nola ekarri. <sup>5</sup> Poztu ziran eta dirua ematea erabaki zuten. <sup>6</sup> Agindu zien, eta egokiera billa zebillen nola eraman, jendea oartu gabe.

### Azken aparria.

<sup>7</sup> Pazko-bildotsa iltzeko ogi illen eguna eldu zanean, <sup>8</sup> Pedro ta Joan bialdu zitun mandatari: «zoazte, ta moldatu iguzute guk jateko Pazkoa.» <sup>9</sup> – «Non nai dezu moldatzea?» galdegin zioten. <sup>10</sup> «Zuek urian sartu orduko, gizon bat topo egingo dezute pitxar-ura daramana; zoazte aren ondotik, sartuko dan etxeraño, <sup>11</sup> ta etxenagusiari esaiozute: «Maisuak au dio: nun daukazu gela, nere ikasleakin Pazkoa jan dezadan?» <sup>12</sup> Etxearen goitegian gela aundia erakutsiko dizue, iñaur-oialez apaindua; an moldatuko dezute.» <sup>13</sup> Joan ziran, eta esan bezela arkitu zuten eta Pazko aparria antolatua.

<sup>14</sup> Ordua etorri zanean, maiean jarri zan bere ikasleakin. <sup>15</sup> Eta onela esan zien: «Pazko au zuekin jatea bizi-ziro opa izan det, Pasioa baño leen. <sup>16</sup> Egitan, ez baidet bein geiago jango, Jainko-erria betetzen dan arte.» <sup>17</sup> Eta edan-ontzi bat artuta, eskerrak emanez, au esan zun: «Artu ta banatu ezazute zuen artean. <sup>18</sup> Berriz esan: ez det bein geiago maats-ardo ortatik edango, Jainko-erria etorri dedin arte.» <sup>19</sup> Gero, ogia artuta eskerrak eman, zatitu ta banatu zien, au esanez: «Au nere gorputza da, zuen alde emana. Egizue au, Ni gogoratuz.» <sup>20</sup> Berebat apal-ondoan, edan-ontzia artu, ta onela esan zien: «Au da Alkartasun Berriko ontzia, zuengatik ixuriko dedan odolarena. <sup>21</sup> Baña, begira, etsaiei emango naukien aren eskua, nerekin dago mai-gaiñean. <sup>22</sup> Gizonaren Semea ba-dijoa, erabakia

dagonez; baña doakabea Ua salduko dun gizona!» <sup>23</sup> Ta elkarri galdezka asi ziran, aietan nor egingo ote zun egiteko ori.

<sup>24</sup> Sesioa ere atera zuten, beren artean, nor aundiago. <sup>25</sup> Baña Jesus'ek au esan zien: «Erregeak, erriak azpiraturik dauzkate, ta aien ordezkioak ongi-egille izena artzen dute. <sup>26</sup> Ez ordea zuek; ostera, zuetan aundien dana, gazteena bezela bedi, ta buru dana, morroi bezela. <sup>27</sup> Izan ere, zein da aundiago? maiean eserita dagona, ala serbitzen ari zaiona? Ez al da maiean dagona? Orra, bada, Ni erdian naukazute, serbitzari bezela. <sup>28</sup> Zuek irauñ dezute nerekin nere latzaldietan. <sup>29</sup> Aitak neri bezela, nik zueri erria ematen dizuet, <sup>30</sup> nere errian eta nere maiean jan eta edan dezazuten, eta alki aundietan eseri zaitezten, Israel'go amabi arrazaen auzi-maieko.

<sup>31</sup> Simon, Simon, begira: Satanaz'ek eskatuak zaudete, garia bezela baiean garbitzeko: <sup>32</sup> baña Nik otoitz egin det zure alde fedean utsegin ez dezazun; zuk, berriz, zupertzen zeranean, sendotu itzazu zure anaia.» <sup>33</sup> Arek, orde, – «Jauna, esan zun: gertu nago zurekin giltzapeira ta eriotzara ere joateko.» <sup>34</sup> – «Pedro, ara Nik esan, erantzun zion: ez du gaur ollarrak joko, ezagutzen nazula zuk iru aldiz ukatu arte.» <sup>35</sup> Eta au esan zien: «Sakelarik eta bidezrorrik eta oñetakorik gabe bialdu zinduedanean, zerbait paltatu al zitzaizuen?» – «Ezer ez», erantzun zuten. <sup>36</sup> Au erantsi zien: «Orain sakela dunak artu dezala; berebat bidezrorra; ta ez dunak, soingañekoa saldu dezala ta erosi dezala ezpata. <sup>37</sup> Esaten dizuet, bada, gertatuko dala nerekin idatzirik dagon au: *Gaiztagintzat artu zuten. Neri dagokidanez, nerekioka bukatzera dijoa.*» <sup>38</sup> «Jauna, ona emen bi ezpata», esan zioten. – «Bego ori» erantzun zien.

**Getsemani'n.**

<sup>39</sup> Atera ta joan zan oi zunez Oliamendira. Ikasleak atzetik. <sup>40</sup> Ara ziranean: «egizute otoitz, esan zien, tentaldian ez sartzeko». <sup>41</sup> Bera berriz, arrika bat bide aldendu zitzaien, eta belauniko, onela ari zan otoitzean: <sup>42</sup> «Aita, nai ba'dezu, kendu nigandik ontzi au; baña Nik naia ez-baña Zuk naia egin bedi». <sup>43</sup> Artan, Aingeru bat agertu zitzaion zerutik, kemena ematera. <sup>44</sup> Ta il-zorian jarrita, otoitz luzegoa egiten zun, eta odol-izerdi tantak zerizkion lurreraño. <sup>45</sup> Altxa zan otoitz-lekutik, joan zan ikasleengana, ta lotan arkitu zitun, naigabeak eraginda. <sup>46</sup> «Lo zaudete? esan zien. Zutitu ta egiñ otoitz, tentaldiak artu etzaitzaten.»

<sup>47</sup> Onela ari zala, giza-sail bat agertu zan, Judas zerritzana, Amabietakoa aurretik zutela; ta Jesus'i urbildu zitzaion muñ emateko. <sup>48</sup> «Judas, esan zion, musu batekin saltzen al dezu Gizonaren Semea?» <sup>49</sup> Ikasleak, zetorrena ikusirik, «Jauna, esan zioten, ezpataz joko al ditugu?» <sup>50</sup> Eta aietako batek, apaizburuaren mirabeari, jo ta eskubiko belarria ebaki zion. <sup>51</sup> «Bego, utzi»; esan zien Jesus'ek, eta belarria ikutuz, sendarazi zion. <sup>52</sup> Lotzera zetozkionai, apaizburu, Jauretxeko agintari ta erri-gurasoai, onela esan zien: «lapur batengana bezela zatozte ezpata makillekin?» <sup>53</sup> Egunero zuekin nengon Jauretxean eta ez minduzuten lotu. Bañan au dezute ordua, ta illunaldiaren indarra.»

**Pedro'k uka eta uka.**

<sup>54</sup> Lotu zuten, bada, ta artuta apaiz nagusiaren etxera eramane zuten. Pedro'k atzetik jarraitzen zion. <sup>55</sup> Atari erdian sua piztu zuten, eta inguruan eserita zeuden. Aien artean Pedro ere bai. <sup>56</sup> Neskame batek eserita sutondoan ikusi zun, eta ondo begiratu, «Au ere Arekin zebillen», esan zun. <sup>57</sup> Bañan Pedro'k uka, onela: «Emakume, ez det

ezagutzen.» <sup>58</sup> Eta geroxago, beste batek ikusita esan zion: «Zu ere aietakoa zera.» Eta Pedro'k: «Ez, gizona.» <sup>59</sup> Andik ordu betera edo, beste batek biribil aitortu zun: «Egia, au ere Arekin zebillen, galilearra baita.» <sup>60</sup> Pedro'k oraindik: «Gizona, ez dakit zer esaten dezun.» Eta bertantxe, izketan ari zala, ollarrak ots egin zun. <sup>61</sup> Itzuli zan Jauna, begiratu zion Pedro'ri, ta Pedro'ri Jaunaren itz au gogorra zitzaion: «gaur ollarrak otsegin baño len, iru aldiz ukatuko nauzu.» <sup>62</sup> Andik aterata, negar samiña egin zun. <sup>63</sup> Jesus zaitzen zutenak, burlaka ta joka zerabilten, <sup>64</sup> eta begiak tapatuta, «asma zak orain nork jo auen», esaten zioten. <sup>65</sup> Eta olako beste itsuskeri asko.

**Batzarre nagusian.**

<sup>66</sup> Eguna argitzean, erriko gurasoak, apaizburuak eta idazlariak bildu ziran, eta auzi-lekura eramane zuten. <sup>67</sup> «Esaiguzu: Zu al zera Kristo? galdegin zioten; esazu.» – «Baietz esaten ba'dizuet, erantzun zien, ez dezute siñistuko; <sup>68</sup> ta Nik galderik egiten ba'dizuet, ez didazute erantzungo. <sup>69</sup> Baña laister, Gizonaren Semea Aitaren eskubi altsuan eseriko da.» <sup>70</sup> – «Beraz, galdetu zioten ago batez: Zu al zaitugu Jainkoaren Semea?» – «Zuek diozute, erantzun zien Arek; ala naiz». <sup>71</sup> Aiek orduan: «Ontara ezkerro zertako beste aitotrik? Bere agotik entzun diogu.»

## XXIII

**Pilatos'en eta Erodes'en aurrean.**

<sup>1</sup> Zutitu ziran denak batean eta Pilatos'engana eramane zuten; <sup>2</sup> onela asi zitzaizkion salatzen: «Guk ikusi degu au gure erria nasten, Zesar'i pagabearra ukatzen, eta Bera Kristo dala esaten». <sup>3</sup> Pilato'k, «Zu al zera Juduen Errege? galdegin zion; eta Jesus'ek, «zuk diozu» erantzun zion.

Ordun Pilatos'ek apaizburuei ta jendaldeari esan zien: «ez diot arkitzen auzi-gairik gizon oni». <sup>5</sup> Bañan aiek gogorra- go ekiten zioten: «erria zorarazten du, Judea guzian eraku- tsiz, Galilea'tik asita oneraño». <sup>6</sup> Au aditzean Pilatos'ek galilearra al zan galdegin zun. <sup>7</sup> Eta Erodes'en menpeko zala jakinda, ari bialdu zion, ua ere Jerusalem'en baitzan egun aietan.

<sup>8</sup> Biziro poztu zan Erodes Jesus ikustean. Aspalditxo ikusi-naia baitzeukan, entzunaz gañera, mirariren bat egin- go ote zion zegoan <sup>9</sup> Galdera asko egin zizkion, bañan Ark ez erantzunik. <sup>10</sup> Apaizburu ta idazlariak, besterik, an ari ziran salaketan amorratzen. <sup>11</sup> Erodes'ek ere esker txar- ra eman zion bere gudari-saillarekin, burla egin zion, soñeko zuri bat jantzi, eta Pilatos'i bialdu zion. <sup>12</sup> Egun artan adiskidetu ziran Erodes eta Pilatos, artean etsai bai- tziran.

### Berriro Pilatos'enean.

<sup>13</sup> Deitu zitun Pilatos'ek apaizburu ta erriko agintariak. <sup>14</sup> eta onela esan zien: «Gizon au errian baztar-naastale bezela ekarri didazute; galderak zuen aurrean egin dizkiot, eta ez diot auzigairik arkitzen, salatzen dizkiozutenetan. <sup>15</sup> Ez Erodes'ek ere; berriz guri bialdu digu. Ez du, beraz, ezer egin eriotzerakorik. <sup>16</sup> Zigorak emanda bere esku utziko det.»

<sup>17</sup> Pestakoan bat askatu bear zien, <sup>18</sup> eta guziak oi- u egiten zuten ago batez: «Ken ori ta askatu Barrabas». <sup>19</sup> Au kartzelan zegoan, errian zalaparta sortuazi ta erio- tza egin zulako. <sup>20</sup> Pilatos'ek berriro itzezin zien Jesus askatu naiean. <sup>21</sup> Bañan aiek, «gurutzera ori! gurutzera!» zioten oiuka. <sup>22</sup> Irugarren aldiz esan zien: «Onek zer gaitz egin du, bada? Iltzekorik ez diot arkitu. Askatuko det bada,

ederrak emanda». <sup>23</sup> Bañan aiek are ta are oiuka ari zi- ran, gurutzera zedilla, gero ta oi- u aundiagoz. <sup>24</sup> Eta Pi- latus'ek, zedilla, erabaki zun, aiek eskatzen zutena. <sup>25</sup> Za- laparta sortu ta eriotza egin zitulako kartzelan zeukatena, aiek nai bezela askatu, eta Jesus beren gogara utzi zien.

### Galbariora bidean.

<sup>26</sup> Zeramatela, sorotik zetorren Simon Zirene'tar bat artu zuten, eta gurutzera leporatu zioten, Jesus'en atzetik eraman zezan. <sup>27</sup> Erritar talde aundia zijoan ondotik, ema- kumeak ere, galtzarra joaz eta aieneka. <sup>28</sup> Auengana itzu- li, ta esan zien: «Jerusalem'go alabak, ez egin negarrik Neregatik, zerongatik eta zuen semeengatik, bai, egizute negar; <sup>29</sup> etorriko dira egunak au esanez: – bai doatsu aur-agorrek, aurrik erne ez duten erraiak, eta esnerik eman ez duten bularrak! <sup>30</sup> Ordun, mendiei esaten asiko dira: – erori gure gañera, ta muñoai – gorderazi gu. <sup>31</sup> Egur ezeean au egin ba'dute, bada, zer egingo dute igarrea?»

### Jesus gurutzean.

<sup>32</sup> Ba-zeramazten beste bi gaiztagille ere Arekin, erio- tza emateko. <sup>33</sup> Galbario mendira iritxi ziranean, an guru- tzeratu zuten, eta gaiztagiñ aiek, bata eskubitan eta bestea ezkerretan (\*). <sup>34</sup> Jesus'ek au zion: «Aita! barka iezu, ez bai- takite zer ari diran». Eta Aren jantziak zotzean banatu zituten. <sup>35</sup> Erria begira zegoan. Agintariak ere burlaka ari zitzaizkion: «besterik libratu dik; libratu beza bere bu- rua, Jainkoaren Kristo autatua baldin ba'da». <sup>36</sup> Gudariak ere iseka egiten zioten, ondoratu ta ozpiña emanez. <sup>37</sup> «Ju- duen Errege baiiaz, libra ezak eure burua». <sup>38</sup> Buru-gañean au zedukan, griegoz, latinez eta ebreoz idatzirik: AU DA JUDUEN ERREGA.

<sup>39</sup> Gurutzean zeuden gaiztagiñetako bat, onela ari ziztaion irainka: «Ez al aiz i Kristo? Libra gaitzak i ta gu».  
<sup>40</sup> Baña besteak errita egin zion esanaz: «ez al dek Jainko-bildurra bederik, oñaze berean agola?»  
<sup>41</sup> Guk, noski, merrezia besterik ez diagu gure egiñegatik; onek, ordea, ez dik ezeren gaitzik egin.  
<sup>42</sup> Eta Jesus'i: «Jauna, oroi zaitz nitzaz, zure Jaurerrira orduko.»  
<sup>43</sup> «Egia esan, erantzun zion: gaur nerekin egongo zera atsedentokian.»  
<sup>44</sup> Seigarren ordu aldera, illunak artu zun lur osoa bederatzigarren ordura arte (\*).  
<sup>45</sup> Eguzkia illundu zan; Jauretzeko estalkia erdibitu.  
<sup>46</sup> Eta Jesus'ek oiutundiz au esan zun: «Aita! Zure eskuetan uzten det nere arnasa». Au esanez eman zun azken-arnasa.  
<sup>47</sup> Euntariak, gertatua ikusirik, onela goreszten zun Jainkoa: «Egitan, gizon au zintzoa zan.»  
<sup>48</sup> Eta zer-ikusio joan zan jendalde osoa, gertatua ikustean, etxera zetorren, galtzarra joaz.  
<sup>49</sup> Aren ezagun guziak, urrutixago zeuden begira. Bai, Galilea'tik segika etorri zitzaizkion emakumeak ere.

### Jesus illobian.

<sup>50</sup> Ordun, Sanedrin batzarreko bat, Jose izena, gizon on eta zintzoa,  
<sup>51</sup> ez baitzuen ederretsi aien erabaki ta egiñei. Judea'ko Arimatea'koa, Jainko-erriaren zai zegona,  
<sup>52</sup> Pilatos'engana agertu zan Jesus'en Gorputz-eske.  
<sup>53</sup> Eta gurutzetik eraxita, maindire batean bildu zun, eta iñor egon ez zaneko arkaitz zuloan ezarri zun.  
<sup>54</sup> Paraskebe eguna zan, larunbat egun-argitze aldera.  
<sup>55</sup> Galilea'tik lagundu zioten emakumeak arrituta, atzetik jarraitu zioten, eta ikusi illobia, eta Aren Gorputza nola ipiñi zuten.  
<sup>56</sup> Eta etxera itzulita, usaikiak eta ukendua gertu zituten; larunbatean, ordea, atsedentatu, agindua zanez.

## XXIV

### Jesus berpiztua.

<sup>1</sup> Baña, astearen leenean, eguna argitzean, illobira itzuli ziran, usaikiak antolatuta.  
<sup>2</sup> Eta arria illobi-agotik piririka itzulia arkitu zuten.  
<sup>3</sup> Sartu ziran, eta etzuten an arkitu Jesus'en gorputza.  
<sup>4</sup> Ontaz kezkatu zeudela, ara bi gizon aien aurrean soñeko zuri argitsuz.  
<sup>5</sup> Ikaraturik, eta begiak lurrean zitutela, «zer zabilzate illen artean, bizi danaren billa?»  
<sup>6</sup> Ez dago emen; piztu da. Gogora ezazute Galilea'n zegola esan zizuena:  
<sup>7</sup> alegia, «Gizonaren Semea pekatarien eskuetan ipiñiko zutela, ilko zutela, ta irugarren egunean piztuko zala».  
<sup>8</sup> Gogora zituten Aren itzok.  
<sup>9</sup> itzuli ziran illobitik, eta guziaren berri eman zien Amaikai ta beste guziei.  
<sup>10</sup> Mari Madalen, Joan, ta Santiago'ren Mari ziran, eta auekin zeudenak, berriok Apostoluei ekarri zitketenak.  
<sup>11</sup> Itzok zorakeri iduritu zitzaizkien, eta etzuten siñisten.  
<sup>12</sup> Baña Pedro, jeikita illobira joan zan korrika; makurtuta, izarak besterik ez zitun ikusi, ta arriturik etxeratu zan.

### Emaus'ko ikasleak.

<sup>13</sup> Egun artan bertan, aietan bi, Emaus'ko baserri batera zijoazen, Jerusalem'dik irurogei estadio bidera.  
<sup>14</sup> Gertatu auetaz ari ziran, eta  
<sup>15</sup> aiek itzez iraultzean, ara! Jesus Bera, urbilduta aien bidelagun.  
<sup>16</sup> Baña begiak lautoturik zeuzkaten Ua ezagutzeko.  
<sup>17</sup> «Zer izketa ari detzute bide ontan?» Berak esan zien. Aiek goibel gelditu ziran.  
<sup>18</sup> Batek, Kleopas zeritzana, au erantzun zion: «Zi al zera Jerusalem'en arrotz bakarra, egunotan an gertatu diranak ez jakiteko?»  
<sup>19</sup> «Zer?» esan zien Jesus'ek. Eta aiek erantzun: «Jesus Nazaret'ekoarena, Igarlea, gizon altsua, itzez eta egitez, Jainkoaren eta erri guziaren aurrean.

<sup>20</sup> Gure apaizburu ta agintariak eriotzerako epaia iritxi, ta Gurutzean josi zutela. <sup>21</sup> Uste genun uste, ark libratuko zula Israel; bañan gaur irugarren eguna da gauzok gertatu zirala. <sup>22</sup> Ori bai, gure arteko batzuk izutu gaitute; oso goiz joan dira illobira. <sup>23</sup> Ta gorputza an etzegola ikusita, Aingeruak agertu omen zaizkie, Ua bizi dala esanaz. <sup>24</sup> Ta guretar batzuk joan dira illobira, ta emakumeak esan bezela arkitu dute guzia; baña Bera ez dute ikusi.

<sup>25</sup> Ordun Jesus'ek esan zien: «zozoak eta nagiak, Profetan esana siñisteko! <sup>26</sup> Ez al zan bearrezko Kristo'k ola pasatzea bere zeruan sartzeko?» <sup>27</sup> Eta Mois eta Igarle guziak aurrez urren irauliz, Liburu Santuetan Artaz arkitzen dana azaldu zien. <sup>28</sup> Iritxi ziran zijoazeneko baserri artara, eta Berak, aurrera-keiñu egin zun. <sup>29</sup> Baña geldierazi egin zuten: «geldi zaite gurekin, berandu baita, eta illuntzen ari du». Ta aiekien egoteko gelditu zan. <sup>30</sup> Maiean jarrita, ogia artu, bedeinkatu, zatitu, ta eman zien. <sup>31</sup> Aien begiak ordun, argitu ziran, eta nor zan ezagutu zuten. <sup>32</sup> Bañan Bera begietatik alde egin zien; eta onela ari ziran alkarrekin: «Ez al geneukan biotza su ta gar, bidean Idatzia itzez itz azaltzen zizkigunean?» <sup>33</sup> Bereala zutituta Jerusalem'a itzuli ziran; eta Amaiak eta aien lagunak batean arkitu zituten, <sup>34</sup> au esaten: «Piztu da Jauna egitan, eta Simon'i agertu zaio». <sup>35</sup> Aiek ere, bidekoa kontatu zieten, eta ogia banatzean ezagutu zutela.

#### **Bidalia agertu.**

<sup>36</sup> Orrela ari ziran, eta Berbera agertu zitzaian erdi-erdian. «Pakea zuei, esan zien; Ni naiz, ez ikaratu». <sup>37</sup> Estu ta larri, bildur-ikaraz beterik, beste munduko bat ikusten zutelakoan zeuden. <sup>38</sup> «Zerk izutzen zaitue, ta zer ustekeri sortzen da zuen barruan? <sup>39</sup> Ikus nere esku-oñak;

Nerau naiz. Ukitu Ni, ta ikusi, Aingeruki danak ez du ezur ta mamerik, Nik ditudala ikusten dezutenez». <sup>40</sup> Au esanda, esku-oñak erakutsi zizkien. <sup>41</sup> Baña oraindik ez zuten siñisten pozez eta arriturik, eta: «bai al dezute jaketorik?» esan zien. <sup>42</sup> Aiek prejitu puxka bat eman zioten. <sup>43</sup> Berak artuta aien aurrean jan zun.






#### **Zeruetara igotzen.**

<sup>44</sup> «Oraindik zuekin nengola, esan zien, au esan ni-zuen: Mois'en Legean, Igarleen eta Salmuetan idatzirik dagona, gertatzea komeni zala». <sup>45</sup> Ordun idiki zien ezagumena, Idatzia ulertzeko. <sup>46</sup> Onela dago idatzirik: Kristo nekepean ibillia izan, eta illen artetik piztu zedilla irugarren eguncan. <sup>47</sup> Eta Jerusalem'dik asita erri guzietan otsegin zedilla damua ta pekatuen barkapena. <sup>48</sup> Gauza auen aitortzalleak zuek zerate. <sup>49</sup> Adizute: Nere Aitak agindua. Neronek zuen gañera bialduko dizuet. Zuek, berriz, zaudete urian, goiko indarrez jantziko zaituten arte».

#### **Jesus'en igoera.**

<sup>50</sup> Gero atera zitun Betani aldera, ta eskuak jasoz, onespena eman zien. <sup>51</sup> Eta bedeinka bitartean, aiengandik al-denduz zijoan, zerura bidean. <sup>52</sup> Gurtu zuten, eta Jerusalem'a itzuli ziran poz aundiz. <sup>53</sup> Eta beti Jauretze aldean zebiltzan, Jainkoa gorensten.





## JESUKRISTO'REN BERRI ONA Joan Doneak dakarrenez

### I

#### Sarrera.

- <sup>1</sup> Asieran Itza ba-zan, eta Itza Jainkoagan zegon, eta Itza Jainko zan (\*).
- <sup>2</sup> Asieran Ua Jainkoagan zegon.
- <sup>3</sup> Guziak Berak egiñak ditu, ta Ua gabe ez da egin egin-dakorik ezer.
- <sup>4</sup> Bizia zeukan berekin, eta bizia gizonen argi zan.
- <sup>5</sup> Eta argia illunpean ageri da, ta illunak etzun beretzat artu.
- <sup>6</sup> Agertu zan gizon bat Jainkoak bialdua: Joan zeri-tzaion.
- <sup>7</sup> Au testigutzara etorri zan, argiaren alde aitor egitera, guziak aren bidez siñistu zezaten.
- <sup>8</sup> Argia ez, baña argiaren testigu zan au.
- <sup>9</sup> Argi jatorra itza zan, Ark argierazten baititu mundu ontara datozen gizon guziak.
- <sup>10</sup> Munduan zegon, eta mundua Berak egiña du, ta munduak ez du ezagutu.

- <sup>11</sup> Bere etxera etorri zan, eta beretarrak etzuten etxeau artu.
- <sup>12</sup> Artu zutenai, ordea, Aren izena siñisten dutenai, Jainko-seme izateko eskubidea eman zien:
- <sup>13</sup> Auek, ez odoletik, ez aragi-naietik, ez giza-naietik, baña Jainkoagandik dira jaiokak.
- <sup>14</sup> Eta Itza aragi egin zan, eta gure artean bizi izan zan; eta ikusi gendun Aren argitasuna, graziz ta egiz betea; Aitaren Seme bakarrari dagokion argitasuna (\*).
- <sup>15</sup> Joan'ek aitor egiten du Artaz: «Au zan nik esan nuna: dio oiuka, atzetik etorriko zaidana aurean jarri zait, Ni baño leenago baitzan».
- <sup>15</sup> Eta Ari betean zaionetik, grazia graziaren gain artzen degu guziok.
- <sup>17</sup> Legea baitegu Mois'ek emana; grazia ta egia da, berri, Jesukristo'k ekarria.
- <sup>18</sup> Jainkoa ez du iñork iñoiz ikusi; Aitarengan dagon Seme bakarrak eman digu Aren berri.

#### Joan aitortzaille.

<sup>19</sup> Joan'i «nor zera zu» galdetzera juduak Jerusalem'dik apaizak eta Lebi'tarrak bialdu zizkiotenean, <sup>20</sup> ark aitortu egin zun, eta ez ukatu; aitortu: «Ez naiz ni Mesias», <sup>21</sup> - «Ordun, zer?» galdegin zioten, «Elias al zaitugu?» - «Ez naiz», esan zun. - «Igarlea al zera?» - «Ez», erantzuna. <sup>22</sup> - «Nor zera, beraz, bialdu oiei erantzuna eman dezaiegun? Zer diozu zeure buruaz?» <sup>23</sup> - «Ni, basoan onela oiuka ari danaren mintzoa naiz; berdindu iozute Jaunari bidea, Isaias Igarleak ziona». <sup>24</sup> Bialdu aietan bazariran pariseuak. <sup>25</sup> «Oraindik ere, - zergatik ari zera bataiatzen? - galdegin zioten, ez Mesias, ez Elias, ez Igarlea izanik?» <sup>26</sup> - «Nik urez bataiatzen det, esan zien Joan-ek; baña zeron erdian daukazute ezagutzen ez dezutena,

- <sup>27</sup> Aren oñetakoan edeak askatzeko ere ez bainaiz on».
- <sup>25</sup> Betani'n gertatu zan au, Jordan'ez aruztik, Jon bataiatzen ari zan tokian.

<sup>29</sup> Biaramonean, Jesus beregana zetorkiola ikusita: «Au da, esan zun, Jainko-Bildotsa, munduaren pekatua kentzen duna». <sup>30</sup> Au zan nik esana: nere atzetik dator aurea artu didan gizona, ni baño leen baitzan. <sup>31</sup> Ez nun ezagutzen; baña ni urez bataiatzera etorri ba'naiz, Ua Israel'i agertuazteko da». <sup>32</sup> Joan'en testigutza: «nik ikusi det Ispiritu Santua uso-antzean zerutik jeixten, eta Arengan kokatzen. <sup>33</sup> Egitan, ez nun ezagutzen; bañan urez bataiatzera bialdu nindunak, au esan zidan: Ispiritua jeixten eta kokatzen zaiola ikusten dezun Ua, Uaxe da Gogo Deunez bataiatzen duna. <sup>34</sup> Bai, ikusi det, eta Au Jainkoaren Semea dala aitortzen det.»

#### Lenengo Ikasleak.

<sup>35</sup> Biaramonean Joan oraindik an zegon, bere bi ikaslerekin. <sup>36</sup> Jesus pasatzean, Ari begira: «Ona Jainko-Bildotsa» esan zun. <sup>37</sup> Biak, ori entzutean, Jesus'en atzetik asi ziran. <sup>38</sup> Jesus'ek, atzera begira-ta ba-zetozela ikusi zitun. «Zer nai dezute?», galdegin zien. - «Rabi, Maisu, erantzun zioten; nun bizi zera?» <sup>39</sup> - «Etorrita ikus», esan zien, Joanda ikusi zuten bada, nun bizi zan, eta egun artan Arekin gelditu ziran. Amarrak inguru ziran (\*). <sup>40</sup> Simon Pedro'ren anai Andres zan, Joan'i entzunda Jesus'i segitu zioten aietako bat. <sup>41</sup> Onek, iñork baño leen topo egin zun bere anai Simon'ekin, eta «Mesias arkitu diagu», esan zion, au da, Kristo. <sup>42</sup> Eraman zun Jesus'engana, ta begira-begira esan zion: «Joan'en seme Simon zera zu; Kepas izango da zure izena, au da, Arri». <sup>43</sup> Biaramonean Jesus'ek Galilea aldera joan nai, ta Pilipe topo egin zun, eta «ja-

rrai neri» esan zion. <sup>44</sup> Pilipe Betsaida'rra zan, Andres'en eta Pedro'ren errikoa. <sup>45</sup> Pilipe'k Natanael topo egin zun eta au esan zion: «Legeak, Moises'ek eta Igarleak otsegin zutena, arkitu degu. Jesus da, Jose'ren semea, Nazaret'arra». <sup>46</sup> – «Nazaret'ik ezer onik atera al diteke?» erantzun zion Natanael'ek. Etorri ta ikus, esan zion Pilipe'k. <sup>47</sup> Jesus'ek Natanael Beregana zetorkiola ikusi ta au esan zun: «ona emen israeldar jatorra, azpikeri gabea». <sup>48</sup> – «Nundik ezazgutzen nauzu?» esan zion Natanael'ek. – «Pilipe'k deitu zaitun baño leen, erantzun zion Jesus'ek, pikupean zeundela ikusi zaitut». <sup>49</sup> – «Rabi, erantzun zion Natanael'ek: Zu Jainkoaren Semea zera; Zu Israel'go Errege zera». <sup>50</sup> Eta Jesus'ek: «pikupean ikusi zaitudala esan dizudalako siñisten dezu? Aundigoak ikusteko zaude. <sup>51</sup> Egi egitan, esan zion: zerua zabaldua ikusiko dezute, ta Jainkoaren Aingeruak igo ta jetxi, Gizonaren Semearen gañera.

## II

**Kana'ko eztaiak.**

<sup>1</sup> Iru egun barru, eztaiak ziran Galilea'ko Kana'n, eta Jesus'en Ama an zegon. <sup>2</sup> Deitu zuten eztaietara Jesus ere, bere ikasleekin. <sup>3</sup> Ardorik gabe gelditu baitziran, eta, «ez dute ardorik, esan zion Amak Jesus'i. <sup>4</sup> «Zuri ta neri zer Andrea? erantzun zion Jesus'ek; etzait oraindik ordua iritxi». <sup>5</sup> Amak serbitzariei au esan zien: «egizute esaten dituzena». <sup>6</sup> Ba-zeuden an sei arri-ontzi juduen garbiketarako, bakoitza bi edo iru neurrikoak (\*). <sup>7</sup> «Bete etzazute ontzi oiek urez», esan zien Jesus'ek. Bete zituten goraño. <sup>8</sup> «Atera orain eta eraman mai-zaiari», esan zien. Aiek eramaki. <sup>9</sup> Mai-zaiak, ur ardo biurtua txurupatu zuneko, nun-

dik zan jakin gabe (ba-zekiten, noski, ua atera zuten serbitzariak), senar berriari deituta esan zion: <sup>10</sup> «Beste guziak ardo ona atera oi dute leenbizi, ta jendea birbizten danean txarrena. Ta zuk ardo ona orain arte gorde dezu». <sup>11</sup> Au da Jesus'ek lenengoz Galilea'ko Kana'n egitu zun miraria. An agertu zun bere ospea, ta ikasleak siñistu zuten nor zan. <sup>12</sup> Gero Kafarnaun'a jetxi zan Amarekin, senide ta ikasleekin, eta an gelditu ziran egun bakar batzuetan.

**Bialtzen ditu saltzailleak Jauretzetik.**

<sup>13</sup> Juduen Pazkoa urbil zegon, eta Jesus Jerusalem'a igo zan. <sup>14</sup> Jauretxean (Jaunaren etxean) idi, ardi ta uso-saltzailleak arkitu zitun, eta dirulariak, maietan eserita. <sup>15</sup> Soka-kin zartaillu bat eginda, Jauretzetik bota zitun denak ardi ta idiekin, diru-maiak irauliz eta diruak sakabanatuz. <sup>16</sup> Eta uso-saltzailleai au esan zien: «Ken oiek ortik; Nere Aitaren etxea ez biurtu merkatu». <sup>17</sup> Ikasleai Idaztieta-ko itz auek gogora zitzaizkien: «Zure etxeaganako arretak irrikitzen nau.» <sup>18</sup> Ordun juduak, tartetik sartuz, au esan zioten: «Zer agerpide ematen dezu orrela jarduteko?» <sup>19</sup> Eta Jesus'ek: «puska zazute Jauretxe au, ta iru egunean altxako det». <sup>20</sup> – «Berrogei ta sei urte bear izan zituten au egiten, eta Zuk iru egunean altxako?» (\*). <sup>21</sup> Bañan Arek Bere gorputzaren Jauretxea esan nai zien. <sup>22</sup> Beraz, ikasleak, Jesus illen artetik piztu zanean, au esan zula gogoratuz, Idaztiak eta Jesus'ek esana siñistu egin zuten.

<sup>23</sup> Pazkoetan, Jerusalem'en egon zan bitartean, askok siñistu zioten mirari aiek ikusita. <sup>24</sup> Baña Jesus'ek etzien barruna zabaltzen, ezagutzen baitzitun denak, <sup>25</sup> eta iñoren berri jakin-bearrik etzeukan, baitzekin zer zegon gizon bakoitzaren barruan.

## III

**Nikodemo'rekin izketan.**

<sup>1</sup> Ba-zan pariseuen artean gizon bat, aundiketakoa.  
<sup>2</sup> Au gauzez etorri zitzaion billa, ta: «Rabi, esan zion, ba-dakigu Jainkoak bialdutako Maisua zerala, iñork ez baitezake egin zuk egiten dezun miraririk, Jainkoa berekin ez ba-dauka». <sup>3</sup> – «Egi egitan, erantzun zion Jesus'ek: iñork ez dezake ikusi Jainko-erria, goitik jaiο ez ba'da» (\*). <sup>4</sup>  
 – «Nola diteke, erantzun zion Nikodemo'k, gizona jaiο, zaarra dalarik? Amasabelera sartu al diteke atzera, ta jaiο?» <sup>5</sup>  
 – «Egi egitan, erantzun zion Jesus'ek: uretik eta Arnasetik jaiοtzen ez ba'da, ez diteke iñor sartu Jainko-errian.  
<sup>6</sup> Aragitik jaiοa, aragi da, Arnasetik jaiοa, arnas. <sup>7</sup> Etxaitz arritu goitik jaiο-bearra daukazutela esan ba'dizut. <sup>8</sup> Aizeak noranai ufa egiten du, ta ez dakizu, ez nundik datorren, ez nora dijoan. Ori gertatzen zaio Arnasetik jaiο danari». <sup>9</sup> – «Nola diteke ori?» otera Nikodemo'k. <sup>10</sup> Jesus'ek: «Israel'en Maisu zauzkate, ta gauzok ez dakizkizu? <sup>11</sup> Egi egiz esan: guk dakiguna esaten degu, ta ikusi deguna aitortzen degu; baña zuek ez dezute ondo artzen guk aitortua. <sup>12</sup> Lurrekoetaz ari naizela siñisten ez ba'didazute, nola siñistu zerukoetaz itzegiten dizuedanean? <sup>13</sup> Iñor ez da igo zerura, andik jetxi dana baizik: zeruan dagon Gizonaren Semea baizik. <sup>14</sup> Mois'ek sugea mendian altxa baitzun? alaxe komeni da Gizonaren Semea altxa dezaten, <sup>15</sup> siñisten dun guzik Aren bitartez betiko bizia izan dezan. <sup>16</sup> Izau ere Jainkoak mundua zertaraño maite izan du? Bere Seme bakarra emateraño, Ua siñisten duna galdu ez-baña betiko bizi dedin. <sup>17</sup> Jainkoak Bere Semea, mundua galtzeko ez-baña zeruratzeko bialdu baitu. <sup>18</sup> Ua siñisten duna ez dago galdua; siñisten ez duna, bai; ez baitu siñistu Jainko-Seme bakarraren izena. <sup>19</sup> Ontan dago auzia: argia mun-

dura etorri dala, ta gizonak naiago izan dutela illuna, argia baño; aien egitenak gaiztoak baitziran. <sup>20</sup> Izan ere, gaizki ari danak argia gorroto du, ta ez dator argira, aren egitenak agertu ditezen. <sup>21</sup> Bañan egitan ari dana, argira dator, aren egitenak Jainkoagan egiñak agertu ditezen.

**Joan'en azkeneko aitorra.**

<sup>22</sup> Arrezkero, Jesus bere ikasleekin Judea aldera etorri zan, eta an bizi zan aiekin, bataiatuz. <sup>23</sup> Joan ere bataiatzen ari zan Aion'en, Salin-ondoan, an ura ugari baitzan, eta asko baitzetozkion bataioa artzera. <sup>24</sup> Oraindik Joan espexera gabea zan.

<sup>25</sup> Joan'en ikasleak eta judu batek sesioa atera zuten, bataioarengaz. <sup>26</sup> Atera ziran Joan'en billa, ta: «Rabi, esan zioten; Jordan'ez aruztik Zurekin zegon Ua ere, Zuk aitor egin zeniona, bataiatzen ari da, ta guziak ara dijoaz». <sup>27</sup> «Iñork ez dezake beretzat artu, erantzun zien Joan'ek, zerrutik eman etzaiona. <sup>28</sup> Nik esanaren testigu zerate: ez naiz ni Kristo: Aren aurretik bialdua naiz. <sup>29</sup> Emaztegaia duna, senargai da; baña senargaiari entzuten ari zaion adiskidea, pozez betetzen da ari entzunarekin. Orrelako poza da ni bete nauna. <sup>30</sup> Ari altxatzea dagokio; neri, berriz, kaxkartzea. <sup>31</sup> Goitik datorrena guzien gañetik dago; lurretik datorrena lurkoi da, ta lurrekoaz mintzo da. <sup>32</sup> Ikusi ta entzun dunaren aitorra egiten du; bañan aren testigutze ez du iñork artzen. <sup>33</sup> Ondo artzen dunak berriz, Jainkoa egizale dala sendo ezartzen du. <sup>34</sup> Jainkoak bialdu duna Jainko-itzez mintzo da, arnasa neurri gabe ematen baitio. <sup>35</sup> Aitak Semea maite du, ta dana eskuetan utzi dio. <sup>36</sup> Semea siñisten dunak betiko bizia du; Semea siñistu nai ez dunak, ez du ikusiko betiko bizia; alakoak Jainko-asarea berekin dauka.

## IV

**Jesus Samari'n azaltzen da.**

<sup>1</sup> Jesus'ek, Joan'ek bañon ikasle geiago ta bataio geiago egiten zitula pariseuak aditzean, <sup>2</sup> (Jesus Bera ez-baña ikasleak baitzitun bataiari), <sup>3</sup> Judea utzita berriro Galilea'ra itzuli zan. <sup>4</sup> Samari'tik pasatzea nai ta ez-koa zan.

<sup>5</sup> Iritxi zan, bada, Sikar deritzan Samari'ko erri batera, antziña Jakob'ek seme Jose'ri eman zion soro-ondora. <sup>6</sup> An arkitzen da Jakob'en putzua. Jesus, bideak nekatua, putzu-ondoan takatx eseri zan. Eguerdi aldea zan. <sup>7</sup> Samari'ko andre bat etorri zan urketara, ta Jesus'ek: «ekatzu ura» esan zion. <sup>8</sup> Ikasleak errira joanak ziran janari-billa. <sup>9</sup> Andre samariarrak onela dio: «nola Zuk, judu izanik, edateko ura eskatzen didazu, samariar oni?» (Izan ere, juduak eta samariarrak ez baitute alkarrekin artu-emanik). <sup>10</sup> Jesus'ek erantzunaz dio: «Jainkoaren doaia ezagutuko ba'zenu, ta ura zeñek eskatzen dizun, zerorrek eskatuko zenion eta ur bizia emango zizun». <sup>11</sup> «Jauna, esan zion emaztekiak: zerekin atera ez dezu, ta putzua barren dago. Nundik ekarri Zuk ur bizia? <sup>12</sup> Aita Jakob bañon areago al zera Zu? Ark eman zigun putzu au, ta ontatik edaten zuten, berak, semeak eta ganaduak». <sup>13</sup> «Ur au edaten duna, erantzun zion Jesus'ek, berriro egarrituko da; <sup>14</sup> baña Nik ematen diodan urretik edaten duna, ez da geiago egarrituko; Nik emango diodan ura iturri biurtuko zaio barruan, betiko bizirako» (\*). <sup>15</sup> «Jauna, esan zion andreak, ekatzu ur ortatik, berriro egarritu ez nadin, eta atzera onera etorri-bearrik ez dezadan». <sup>16</sup> «Zoaz, esan zion Jesus'ek, otsegiozu senarrari, ta atoz». <sup>17</sup> «Ez det senarrik, erantzun zion emaztekiak». «Arrazoi dezu, esan zion Jesus'ek, senarrik ez dezula; <sup>18</sup> bost izan dituzu, bada, ta orain daukazuna ez dezu senar». <sup>19</sup> «Jauna, Igarle zera

Zu: ikusten det. <sup>20</sup> Gurasoak mendi au zuten adora-leku, ta zuek Jerusalem dala diozute gurtu-lekua». <sup>21</sup> «Siñista zazu, andrea, esan zion Jesus'k; ba-dator garaia, ez mendi ontan eta ez Jerusalem'en Jainkoa adoratzekoa. <sup>22</sup> Zuek, ez dakizutena gurtzen dezute; guk, dakiguna; osasuna juduengandik baitator. <sup>23</sup> Baña garaia dator, eta au da, egizko adoratzailleak Aita gogoz eta egiz jauretsiko baitute, Olako gurtzailleak nai ditu Aitak. <sup>24</sup> Aita gogo da, ta Ua adoratzen dutenak, gogoz eta egiz jauretsi bear dute». <sup>25</sup> «Ba-dakit, esan zion andreak, Mesia's, Kristo deritzana. etortzekoa dala. Etortzen danean, Ark esango digu guzia». <sup>26</sup> «Ni naiz, esan zion Jesus'ek; zurekin ari naizana».

<sup>27</sup> Ordun, Ikasleak etorri ziran, eta arrituta zeuden andre batekin izketan ari zalako. Ala ere iñork etzion galdetu zer dezu edo zer ari zera orrekin. <sup>28</sup> Ordun emakumea, suilla an utzita errira joan zan ariñ, jendeari esatera: <sup>29</sup> Atozte, egin dedan guzia asmatu didan gizon bat ikustera. Ez ote da Mesias? <sup>30</sup> Atera ziran erritik, eta bertara etorri zitzaizkion.

<sup>31</sup> Bitartean, ikasleak janarazi egin nai zioten: «Rabi, jan zazu». <sup>32</sup> «Nik ba-det, esan zien, zuek ez dakizuten janari bat». <sup>33</sup> Ikasleak onela ari ziran beren artean: «nor-beitek jatekorik ekarri ote dio?» <sup>34</sup> «Nere janaria, esan zien Jesus'ek, bialdu naunaren ala-naia egitea da, ta Aren lana burutzea. <sup>35</sup> Ez al dezute esaten zuek: lau illabete daude emendik uztara. Beraz, altxa begiak eta ikus landak oritzen itairako. <sup>36</sup> Itariak bere saria jasotzen du; betiko bizirako uzta jasotzen du; <sup>37</sup> ta ereillea ta itaria berdin pozten dira. Orrela gertatzen da esaera: batek erein eta bestek itaitu. <sup>38</sup> Lurra landu ez dezuten tokira bialdu zaituet igitara; beste batzuk landu dute, ta lanaren etekiña bien artean daukazute.

<sup>39</sup> Erri artako samariar askok siñistu zuten emazte aren esanagatik: «egin dedan guzia esan dit». <sup>40</sup> Samaria'rrak, Jesus'engana iritxi ziranean, aiekin geldi zedilla arren, egin zioten. Eta an bi egun egin zitun. <sup>41</sup> Eta askoz geiagok siñistu zuten Berari entzutean. <sup>42</sup> Eta emazteari onela esan zioten: orain siñisten diñagu ik esanagatik ez-baña, gero<sup>k</sup> entzun diogulako; ta ba-zekiñagu au dala munduaren Salbatzaillea.

### Jauregitar bat sendatzen.

<sup>43</sup> Egun aien buruan andik Galilea'ra atera zan. <sup>44</sup> Jesus'ek Berak aitortua zien, Igarleak etzula esker onik bere errian. <sup>45</sup> Galilea'ra irixtean, ondo artu zuten Galilea'rrak, Jerusalem'en pestakoan egin zitun mirariak ikusi zutelako; aiek ere pestetan baitziran. <sup>46</sup> Joan zan, bada, berriro Galilea'ko Kana'ra, ura ardo biurtu zuneko artara. Ba-zan an, Kafarnaun'en semea gaxo zeukan jauregitar bat. <sup>47</sup> Jesus Judea'tik Galilea'ra etorri zala aditzean, bidera irten zitzaion, joan zedilla iltzear zeukan semea sendaraztera. <sup>48</sup> «Miraririk eta arritzekorik ikusten ez ba'dezute, ez dezute siñisten, esan zion Jesus'ek». <sup>49</sup> «Jauna, esan zion jauregiko mirabeak: atoz, nere semea il dedin baño leen». <sup>50</sup> «Zoaz, esan zion Jesus'ek: semea bizirik daukazu». Siñistu zun gizon ark Jesus'en esana, ta abitu egin zan. <sup>51</sup> Zijoala, morroiak atera zitzaizkion, semea bizi zula. <sup>52</sup> «Zer ordutan obekiratu da», galdegin zien, eta «atzo eguerdiko ordubatean utzi zion berotasunak», erantzun zioten. <sup>53</sup> Ezagutu zun aitak, ordu artan esan ziola Jesus'ek: «bizi dezu semea». Eta etxeko guziak siñistu zuten arekin. <sup>54</sup> Au da, Jesus'ek Judea'tik Galilea'ra etortzean egin zun bigarren miraria.

## V

### Urtegiko perlesiduna.

<sup>1</sup> Au ezkerro, juduak pesta bat ospatzen zuten Jerusalem'en eta Jesus ara joan zan. <sup>2</sup> Ba-da Jerusalem'en Ardi-ate-ondoan, hebreoz Bezata zaion urtegi bat, bost aterpe dituna. <sup>3</sup> Aterpe auetan gaxo asko zeuden etzanik; itsu, erren; perlesidun, ura noiz mugituko begira. <sup>4</sup> Jaunaren Aingerua tarteka ara jeixten baitzan, urari eragitera, eta ordun, ara aurrena sartzen zana, edozein gaitzetatik sendaturik gelditzen zan. <sup>5</sup> Ba-zegon an gizon bat, ogei ta emezortzi urtetan gaxorik. <sup>6</sup> Jesus'ek, etzanik ikustean, eta ain luzaro egoera artan zegola ezagaturik: «Nai al dezu sendatu?» esan zion. <sup>7</sup> «Jauna, erantzun zion gaxoak: gizonik ez det, ura mugitzean urtegiara sartuazi nazakenik; orregatik, ni ara orduko, beste batek aurrea artzen dit». <sup>8</sup> «Zuti zaitte, esan zion Jesus'ek, artu zure zerraldoa ta zebiltza». <sup>9</sup> Bereala sendatu zan eta ba-zebillen, zerraldoa bizkarrean. Larunbata zan. <sup>10</sup> Sendatuari juduak onela ziotzaten: «Larunbata dek, eta etzaik zillegi zerraldoa bizkarrean eramatea». <sup>11</sup> «Sendarazi naunak esan dit, erantzun zion: ar zazu zerraldoa, ta zoaz». <sup>12</sup> Aiek galde oraindik: «Zein da ori esan dikana?: ar zak zerraldoa ta oa?» <sup>13</sup> Baña sendatuak etzekin, an pillaka zegon jende artean izkutatu baitzan Jesus. <sup>14</sup> Gerogoan Jesus'ek Jauretxean arkitu zun, eta esan zion: «Ikusten dezu sendatu zerala; emendik aurrera ez pekatuik egin, okerragorik gerta ez dezaizun». <sup>15</sup> Gizona juduengana joan zan, Jesus zula sendatzailea esatera. <sup>16</sup> Ordun juduak estu artu zuten Jesus, larunbatean ori egin zulako. <sup>17</sup> Baña Jesus'ek onela erantzun zien: «Nere Aita oraiñ ere ari da, ta Ni ere ari naiz». <sup>18</sup> Au zuten juduak arrazoi aundigoa Ua illerazteko:

larunbata ausi ez ezik, Jainkoa Aita zula baitzion, bere burua Aita aña egíñez.

### Semeak Aitarekin lan.

<sup>19</sup> Onela mintzatu zan Jesus: «Egi egitan esan, Semeak ez dezake egin berez, Aita egiten ikusten duna baizik, Aitak egiten duna, orobat Semeak ere. <sup>20</sup> Aitak Semea maite baitu, ta egiten dun guzia erakusten dio. Auek bañon aundigoak ere erakutsiko dizkio, ta arriturik geldituko zerate. <sup>21</sup> Aitak illak pizten eta bizitara ekartzen ditun bezela, Semeak ere nai dunari ematen dio bizia. <sup>22</sup> Aitak ez du iñor epaitzen; auzi-lan guzia Semeari eman dio, <sup>23</sup> guziak Semea goretsi dezaten, Aita goresten duten bezela. Semea goresten ez dunak, bialdu dun Aita ere ez du goresten. <sup>24</sup> Egi-egitan esan, nere itza entzun eta Ni bialdu nauna siñisten dunak, betiko bizia dauka, ta ez dauka auzipean pasatzerik; eriotzetik bizira aldatzen da. <sup>25</sup> Egi-egitan esan: eldu da garaia, ta au da, illak entzungo baitute Jainko-Semearen mintzoa, ta entzuten dutenak biziko dira. <sup>26</sup> Aita, biziaren jabe dan bezela, Semea ere, bizi-jabe egin du. <sup>27</sup> Eta epaitzeko eskubidea eman dio, Gizonaren Semea dalako. <sup>28</sup> Ez arritu onetzaz: illobietan dauden guziak Aren deia entzuteko garaia bai, ba-dator. <sup>29</sup> Zuzen ari izan diranak bizitzeko piztuko dira, ta oker ari izan diranak, ipernurako. <sup>30</sup> Nik ez dezaket nerez ezer egin. Aditzen dedanez epaitzen det, eta nere epaia zuzena da, nere gogoa ez-baña bialdu naunarena egin nai baitet. <sup>31</sup> Ni Neronen testigu ateratzen ba'naiz, nere aitorrak ez du balio; <sup>32</sup> beste batek egiten du nere aitorra, ta Nitaz egiten dun testigutza, ba-dakit egia dala. <sup>33</sup> Bialdu zenizkioten Joan'i mandatariak, eta au izan zait egizko ziñaldari. <sup>34</sup> Ez det Nik giza-testigurik artzen; au esaten ba'dizuet, zuen salbaziorako da. <sup>35</sup> Joan sutargi diztiratsu zan,

eta zuek aren argitan poz-alditxoaa artu nai izan dezute. <sup>25</sup> Baña Nik ba-det aren testigutza baño oberik: Aitak egiñerazi dizkidan egitenak; egiten ditudanak zaizkit aitor, Aitak bialdu naua. <sup>37</sup> Bialdu naun Aita ere testigu izan zait; baña zuek ez dezute Aren itzik beñere entzun, ez aurpegirik ikusi, <sup>38</sup> ta Aren itza ez daukazute zerongan, ez baitiozute siñistu bialdu dunari. <sup>39</sup> Zuek idaztiak miazten dituzute, betiko bizia aietan daukazutela siñisten baitezute. Aiek ere aitor ditut; <sup>40</sup> eta zuek ez dezute Nigana etorri nai bizia eukitzeko. <sup>41</sup> Nik ez det nai gizonangandik osperik. <sup>42</sup> Ezagutzen zaituet, gañera: ez dezute Jainkoa maite. <sup>43</sup> Aitaren izenean etorri naiz Ni, ta ez nauzute ondo artzen; besteren bat bere izenean ba'letor, au bai, artzen dezute. <sup>44</sup> Nola siñistu, zuek alkarrengandik ospea artzen dezutenok, eta Jainkoangandik datorren ospeatik ajolik ez dezutenok? <sup>45</sup> Ez uste izan Nik Aitaren aurrean salatuko zaituedanik; Mois'ek salatuko zaitue, argan baitezute itxaropide. <sup>46</sup> Mois'i siñistuko ba'zeniote, neri ere siñistuko zenidateke; Nitaz idatzi baitzun arek. <sup>47</sup> Bañan arek iskribituari siñisten ez ba'diozute, nere itzei nola siñistu?»

## VI

### Ogiak ugaritu.

<sup>1</sup> Arrezkero, Jesus, Galilea Tiberiades'ko itxasoaren beste ertzera joan zan. <sup>2</sup> Jendalde aundia zun atzetik, ikusten baitzituen gaxoetan ari zitun mirariak. <sup>3</sup> Jesus mendira igo zan, eta ikasleakin eseri. <sup>4</sup> Urbil zegon Pazkoa. juduen jaia.

<sup>5</sup> Jesus'ek, begiak altxata jendalde aundia ikusi zun, Bere atzetik etorria. Pilipe'ri esan zion: «nun erosi talde

oni jaten emateko ogia?» <sup>6</sup> Zer-atera esan zion au; baitzekin zer egitera zijoan. <sup>7</sup> Pilipe'ren erantzuna: «Berreun denario ere ez genuzke aski ogia erosteko, bakoitzak puxka bat artu dezan». <sup>8</sup> Ikasleetako batek, Pedro'ren anai Andres'ek, au esan zion: <sup>9</sup> «Ba-da emen mutiko bat, bost garagar-ogi ta bi arrai dituna; baña zer da ori orrenbestenterentzat?» <sup>10</sup> «Eseriaz etzazute», esan zien Jesus'ek. Toki belartsuan zeuden an. Eseri ziran, bada, bost milla ba: edo. <sup>11</sup> Ordun Jesus'ek ogiak artu, eskerrak eman, eta eserita zeudenai banatu zizkien, nai aiña. Beste oinbeste egin zun arraiekin. <sup>12</sup> Ase ziranean, «bildu itzazute, esan zien ikasleai, gelditzen diran puskak, ezer galdu ez dedin». <sup>13</sup> Amabi saski bildu zituten bost garagar-ogietatik gelditu ziranekin. <sup>14</sup> Jesus'ek egindako mirari aiek ikusita, onela zion jendeak: «Au da, noski, mundura etortzekoa an Igarlea. <sup>15</sup> Jesus'ek, beraz, artu ta Errege egiteko etorriko zitzaizkiola ezagutu zunean, berriro mendira igesegin zun, bakarrik.

#### Uren gañean oñez.

<sup>16</sup> Arratsaldean ikasleak itxasora jetxi ziran, <sup>17</sup> eta ontzira igorik, Kafarnaun aldera zijoazen, beste ertzero. Illuna zan, eta Jesus etzegen oraindik aiekin. <sup>18</sup> Aize zakarra etorri zan, eta itxasoa arrotzen zijoan. <sup>19</sup> Ogeita bost edo ogeitamar estadio bidean arraunketa egiñik, Jesus ikusi zuten ontzira urbiltzen, ur-gañean zutik. Ikaratu ziran. <sup>20</sup> Baña Jesus'ek, «Ni naiz» esan zien; ez bildurtu. <sup>21</sup> Ontzira igoerazi zuten, bañan ontzia bereala, aiek zijoazen ertzean gertatu zan.

#### Kafarnaun'go Sinagogan Eukaristiaz mintzo.

<sup>22</sup> Biaramonean, beste ertzean gelditu ziranak, ontzi bakarra ikusi zuten an, eta Jesus etzala igo ontzira ikaslea-

kin; aiek bakarrik joan zirala. <sup>23</sup> Bañan etorri ziran ontzi batzuk Tiberiade'tik, Jaunak bedeinkatutako ogiak jan zituten tokitik urbil. <sup>24</sup> Jesus an etzegola ikustean, ezta ikasleak ere, sartu ziran ontzietan, eta Kafarnaun'a pasa ziran Jesus'en billa. <sup>25</sup> Beste ertzean arkitu zutenean, «Maisu, esan zioten, noiz etorri zera onera?» <sup>26</sup> – «Egi egitan, esan zien Jesus'ek, mirariak ikusiagatik ez-baña, ogiz ase ziñatelako zabiltzate nere billa. <sup>27</sup> Billa zazute, aitzen dan ogia ez-baña, betiko biziraño dirauna: Gizonaren Semeak ematen dizuena; au baita Aitak bere silluz markatu duna». <sup>28</sup> Ordun au esan zioten: «zer egin bear degu Jainko-lanak egiteko?» <sup>29</sup> – «Jainko-lana au da, erantzun zien Jesus'ek: bialdu zunari siñistea». <sup>30</sup> – «Zer ezaupide emango diguzu ikusteko ta Zuri siñisteko? esan zioten. Zer lan egiten dezu?» <sup>31</sup> – «Jesus'ek: «Gurasoak mendian mana jan zuten, Idaztiak diona: *zeruko ogia eman zien jaten*. <sup>32</sup> – Egi egitan, erantzun zien Jesus'ek: Moise'ek etzizuten eman zeruko ogirik; nere Aitak ematen dizue zeruko ogi jatorra. <sup>33</sup> Jainkoaren ogia, zerutik jeixten dana ta munduari bizia ematen dion ogia da». <sup>34</sup> – «Jauna, esan zioten: emaguzu beti ogi ortatik». <sup>35</sup> Jesus'ek erantzun: «Ni naiz bi-zi-ogia; Nigana datorrena ez da gosetuko; neri siñisten didana ez da sekulan egarrituko. <sup>36</sup> Esan dizuet: ikusi nauzute, ta ez didazute siñisten. <sup>37</sup> Aitak eman didan guzia Nigana dator, eta Nigana datorrena ez det atzera bialduko. <sup>38</sup> Nere gogoia ez-bañan Aitarena egiteko jetxi bainaiz zerutik. <sup>39</sup> Eta Jainkoaren ala-naia au da: eman didanetik ezer galdu ez-baña, piztu dezadala azken-egunean. <sup>40</sup> Au da, bada nere Aitak naia: Semea ikusita Ari siñisten; dionak, dezadala betiko bizia, ta Nik piztuaziko det azken-egunean.

<sup>41</sup> Marmariz ari ziran juduak, Ni naiz zerutik jetxi dan ogia esan zulako. <sup>42</sup> Ez al da au, zioten, Jose'ren Seme Je-



sus? Ez al ditugu ezagutzen onen gurasoak? Nola dio, bada, orain, zerutik jetxi naiz? <sup>43</sup> «Ez marmaririk atera, esan zien Jesus'ek. <sup>44</sup> Iñor ez datorke Nigana, bialdu naun Aitak ez ba'dakar; eta Nik piztuaziko det azken-egunean. <sup>45</sup> Igarleetan au dago idatzia: *guziak Jainkoak eskolatuko ditu*. Aitaren ikaskizuna aditua ta artan eskolatua, Nigana dator. <sup>46</sup> Iñork ez du ikusi Aita, Jainkoagandik datorrenak ezik: orrek, bai, ikusi du Aita. <sup>47</sup> Egi egitan esan: siñisten dunak betiko bizia dauka.

#### **Eukaristi-ogia.**

<sup>48</sup> Ni naiz bizi-ogia. <sup>49</sup> Zuen gurasoak jan zuten mana mendian, eta ill egin ziran. <sup>50</sup> Au da zerutik jetxi dan ogia, jateko ta ez iltzeko. <sup>51</sup> Ni naiz zerutik jetxitako ogi bizia. Ogi au jaten duna, betiko biziko da. Eta Nik eman-go dedan ogia, nere aragia da giza-bizirik». <sup>52</sup> Ordun asi ziran juduak ez eta bai alkarren artean: nola eman dezai-guke onek bere aragia jateko? <sup>53</sup> «Egi egitan, esan zien Jesus'ek: Gizasemearen aragia jaten eta Aren odola edaten ez ba'dezute, ez dezute zuengan bizirik izango. <sup>54</sup> Nere aragia jan eta nere odola edaten dunak, betiko bizia dauka, ta Nik piztuaziko det azken-egunean. <sup>55</sup> Nere aragia egiz janari da, ta nere odola egiz edari da. <sup>56</sup> Nere aragia jaten eta nere odola edaten duna, Nigan dago, ta Ni argan. <sup>57</sup> Bizi dan Aita Jainkoak Ni bialdu naun bezela, ta bizi naun bezela, Ni jaten nauana ere, Nik biziko det. <sup>58</sup> Au da zerutik jetxi dan ogia; ez zuen gurasoak jan zutena bezelakoa; aiek il egin ziran. Ogi au jaten duna, betiko biziko da. <sup>59</sup> Au da Kafarnaun'go Sinagogan erakutsi zuna.

#### **Ikasleak ieman.**

<sup>60</sup> Entzunda gero, ikasle askok ola zioten: izketa zailla dek au. Nork aditu zezaioket? <sup>61</sup> Bere barruan ezagutu Je-

sus'ek ikasleak marmariz ari zitzaizkiola, ta «orrek atzera eragiten dizue? esan zien. <sup>62</sup> Eta Gizonaren Semea leen zegon tokira igotzen ikusten ba'dezute? <sup>63</sup> Arnasak ematen du bizia; aragiak ez du balio; Nik zuei esan-itzak arnas eta bizi dira. <sup>64</sup> Ba-dira, ordea, zuen artean, siñisten ez dutenak». Jakin ere ba'zekin Jesus'ek leendanik, zeintzuk siñisten etzuten, eta zeñek salduko zun. <sup>65</sup> Ikus, esan zun aurrera, zergatik esan dizuedan: iñor ez dator Nigana, Aitaren doaez ezik». <sup>66</sup> Ordutik, ikasle askok atzera egin zuten, eta etzioten segitzen.

#### **Pedro'k Jesus aitortzen du.**

<sup>67</sup> Jesus'ek ordun Amabiei, au esan zien: «Zuek ere aldegin nai al dezute?» <sup>68</sup> Simon Pedro'k erantzun zion: «nora goazke, Jauna? betiko bizirako itzak dituzu. <sup>69</sup> Guk siñisten degu, ta ba-dakigu Jainkoaren Santua zerala Zu». <sup>70</sup> – «Ez al zaituet Nik aukeratu Amabiok?, eta zuetan bat deabru da». <sup>71</sup> Simon Iskariote'ren seme Judas'engatik ari zan. Ark, Amabietako batek, salduko zun.

## VII

#### **Jesus Jerusalem'a txabola-jaietan.**

<sup>1</sup> Au ezkeru, Jesus Galilea'n zebillen; etzun Judea'ra joan nai, juduak il egin nai baitzuten. <sup>2</sup> Juduen txabola-pesta urbil zegon. <sup>3</sup> «Zoaz Judea'ra, esan zioten aideak, Zure ikasleak ere, egiten dituzunak ikusi detzaten; <sup>4</sup> iñor ez da gordetzen, agertu-naiean ba'dago. Zuk olakoak egiten dituzun ezkeru, ager zakio munduari». <sup>5</sup> Senideak ere etzioten siñisten (\*). <sup>6</sup> «Oraindik ez da etorri nere garaia, esan zien Jesus'ek; zuei edozer garai on zaizue. <sup>7</sup> Munduak zuek ezin gorrotatu zaitue, baña Ni gorroto nau, Ark egi-

ñak gaizto salatzen baititut. <sup>8</sup> Zoazte zuek pestara; Ni ez noa, nere garaia ez baita oraindik etorri. <sup>9</sup> Au esanda, Galilea'n gelditu zan. <sup>10</sup> Ala ere, senideak pestara joan ziranean, Bera ere joan zan; baña ixilka, agertu gabe. <sup>11</sup> Pestakotan juduak billa zebiltzion, eta, «nun da Ua?» zioten. <sup>12</sup> Mordoxkatan kuxu-muxu ari ziran Arengaz: «gizon ona da», zioten batzuk»; «ez, erria engañatzen du», beste batzuk. <sup>13</sup> Bañan iñor ez zan biribil mintzo Arengaz, juduen bildurrez.

<sup>14</sup> Pesta-erdian, Jesus Jauretsera igo ta erakusten asi zan. <sup>15</sup> Arrituta zioten juduak: «nola daki onek eskolarik ikasten ari gabe?» <sup>16</sup> «Nik erakutsia, erantzun zien Jesus'ek, nerea ez-baña bialdu nauanarena da. <sup>17</sup> Ta norbaitek Aren gogokoa egin nai ba'du, ikusiko du, Nik erakutsia Jainkoagandik dan, ala nere gisa ari naizen <sup>18</sup> Bere gisa ari dana, bere ospe-billa dabil; baña bialdu dunaren osperean billa dabillena, egizale da; ez du berekin gezurrik. <sup>19</sup> Ez al zizuen eman Mois'ek Legea? ta zuetan iñork ez du betetzen. Zergatik il nai nauzute?» <sup>20</sup> – «Deabrua daukagatik, erantzun zion jendeak; nork il nai au?» <sup>21</sup> – «Nik egin dedan zerbaitek arritu zaitue. <sup>22</sup> Mois'ek bere-moxketa agindu zizuen – Mois'engandik ez-bañan erri-gurasoengandik datorrena –, ta larunbatean egiñ oi dezute. <sup>23</sup> Gizon batek, Mois'en Legea betetzeko, bere-moxketa larunbatean artzen du; zergatik asarretzen zakidate gizon bat larunbatean oso sendatu dedalako? <sup>24</sup> Itxuraz ez-baña zuzenbidez epaia emazute».

<sup>25</sup> Ordun, Jerusalem'dar batzuk: «ez al da au, zioten, il nai duten Ua?» <sup>26</sup> Begira zein zabal ari dan, eta iñork ez dio ezer esaten. Agintariak ezagutu ote dute egitan, au Mesias dala? <sup>27</sup> Guk ba-dakigu nongoa dan; Mesias, berriaz, datorrenean, iñork ez du jakingo nongoa dan». <sup>28</sup> Ordun Jesus'ek, Jauretsean erakusten ari zala, oiuka zion:

«Ni ezagutzen nauzute, ta nungoa naizen baldin ba'dakizute, Ni ez naiz nere ez etorri; baña bialdu nauana egizale da, ezagutzen ez ba'dezute ere. <sup>29</sup> Nik, bai, ezagutzen det, Arengandik bainaiz, eta Ark bialdua». <sup>30</sup> Ua lotzeko asmoa zuten ordun, bañan iñork etzion eldu, garaia ez baitzitziaion etorri. <sup>31</sup> Jendalde aundiak siñistu zun, eta – Mesias'ek datorrenean, mirari geiago egingo al ditu gizon onek baño? zioten. <sup>32</sup> Jabetu ziran pariseuak erriaren esamesa auctaz, eta goardiak bialdu zituten Ua lotzeko.

### Laster Aitagana.

<sup>33</sup> Jesus'ek au esan zun ordun: «Alditxo bat besterik ez det egingo zuekin, bialdu naun Arengana bainoa. <sup>34</sup> Nere billa ibillita ez nauzute arkituko; Ni nagon tokira ezin zatokete zuek». <sup>35</sup> Nora joango ote zaigu, zioten juduak alkarri, guk arkitu aal ez izateko? helendarren artean daudenetara joango ote da, aici erakustera? <sup>36</sup> Zer esan nai izan du itz oiekin «Nere billa ibillita ez nauzute arkituko, ta, Ni nagon tokira ezin zatokete zuek?»

### Ur bizia agintzen du Jesus'ek.

<sup>37</sup> Pesta azkenekoan, egunik aundienean, Jesus'ek zutik oitu au egin zun: egarri dagona betor Nigana ta edan beza. <sup>38</sup> Ni siñisten nauanari, Idatziak dionez, kolkotik ur bizi iturriak aterako zaizkio. <sup>39</sup> Ua siñisten zutenak artuko zuten Arnasagatik esan zun au; oraindik ez baitzan etorri Arnasa, Jesus oraindik goretzia etzalako.

### Nungoa ote da? sesioa.

<sup>40</sup> Entzun zioten jendarteko batzuk zioten: au da, noski, Igarlea. <sup>41</sup> Beste batzuk: Mesias da; baña beste batzuk au ateratzen zuten: Mesias Galilea'tik al da etortzekoa?

<sup>42</sup> Ez al dio Idaztiak, Mesias Dabid'en azitik etorriko da-  
la. Belen'dik, Dabid'en erritik? <sup>43</sup> Jendea sesioan asi zan  
Arenгатik. <sup>44</sup> Aietako batzuk lotu nai zuten, bañan iñork  
etzion eldu. <sup>45</sup> Berriro morroiak apaiz nagusien eta pari-  
seuen billa etorri ziran. «Zergatik ez dezute lotu?» esan  
zioten auek. <sup>46</sup> «Iñoiz gizonik ez da agertu au bezela min-  
tzo danik», erantzun zieten. <sup>47</sup> «Baña, zuek ere txorarazi  
al zaitue? esan zuten pariseuak. <sup>48</sup> Bai al da agintari naiz  
pariseurik, oni siñistu dionik? <sup>49</sup> Legea ere ezagutzen ez  
duten erritarrok, doakabe dira!» <sup>50</sup> Aietan batek, Nikode-  
mo'k, Arekin len egon baitzan gauzez, au esan zien:  
<sup>51</sup> «gure Legeak iñor galtzen al du ari entzun gabe? ta zer  
egin dun jakin gabe?» <sup>52</sup> – «Zu ere Galilea'rra al zera?  
erantzun zioten. Artu ondo aztarrenak, eta ikusiko dezu  
Galilea'tik ez dala Igarlerik ateratzen». <sup>53</sup> Eta bakoitza be-  
re etxera itzuli zan.

## VIII

**Emakume ezkontza-auslea.**

<sup>1</sup> Andik Jesus Oliamendi'ra joan zan. <sup>2</sup> Bañan argi-xin-  
tarekin berriro Jauretxean zegon, eta erri osoa ondora ze-  
torkion. Eserita erakusten ari zitzairen. <sup>3</sup> Idazlari ta pari-  
seuak emakume bat eraman zioten, ezkontza austen arra-  
patu zutena, ta, erdira atera ta: <sup>4</sup> «Maisu, esan zioten,  
emakume au ezkontza austen arrapatu degu oraintxe.  
<sup>5</sup> Olako emazteak arrikatzeko agintzen digu Moise'k Le-  
gean, eta Zuk zer diozu?» <sup>6</sup> Azpikeriz esan zioten ori, sa-  
latzeko asmoan. Baña Jesus, makurtuta, lurean idazten asi  
zan beatzarekin. <sup>7</sup> Galde ta galde, Jesus xuxendu zan,  
eta ola esan zien: «zuetan errugabe dagonak, tira bezaio  
lenengo arria». <sup>8</sup> Ta berriro makurtu zan, lurean idazte-

ra. <sup>9</sup> Itz auek entzutean, alde egin zuten urrenez urren,  
zaarrenak aurrera. Jesus bakarrik gelditu zan, erdian ze-  
gon emakumearekin. <sup>10</sup> Ordun, zutituta esan zion: «nun  
dira, andrea? ez al zaitu iñork galdu?» <sup>11</sup> – «Iñork ez, Jau-  
na», erantzun zion. «Nik ere etzaitut gaiztoesten, esan zion  
Jesus'ek. Zoaz, eta ez egin aurrera pekatu-rik.

**Jesus munduaren argia.**

<sup>12</sup> Berriro Jesus'ek, judutar taldeai itzegin zien au esa-  
naz: «Ni naiz munduaren argia; nere ondoren datorrena  
ez dabil illunbetan; izango du, ordea, bizi-argia. <sup>13</sup> Pari-  
seuak au esan zioten: «Zu bakarra zera, esaten dezunaren  
aitorle; aitor orrek ez du indarrik». <sup>14</sup> – «Bai, erantzun zien  
Jesus'ek. Ni nere buruaren testigu naiz, eta ala ere nere  
aitorrek balio du, baitakit nundik natorren eta nora noan;  
baña zuek ez dakizute ez, nundik natorren eta nora noan.  
<sup>15</sup> Zuek aragi-bidez epaitzen dezute: Nik ez det iñor epai-  
tzen, <sup>16</sup> eta epaitzen ba'det, nere epaia jatorra da; bakarra  
ez-baña bialtzen naun Aita baitet lagun. <sup>17</sup> Idatzirik dau-  
kazute Legean, bi lagunen aitorrak balio dula. <sup>18</sup> Nik nere  
burua det testigu, baña baita bialdu naun Aita ere». <sup>19</sup>  
– «Nun dezu Aita», galdegin zioten, eta Jesus'ek erantzu-  
na: – «ez Ni, ez Aita, ez gaituzute ezagutzen. Ni ezagu-  
tuko ba'ninduzute, Aita ere ezagutuko zendukete». <sup>20</sup> Di-  
rutegian esan zitun itzok, Jauretxean erakusten ari zala.  
Etzun iñork lotu, ez baitzitzaion etorri garaia.

<sup>21</sup> Oraindik izketan: «Ni ba-noa ta billa ibilliko za-  
kidade; baña zuen pekatuan ilko zerate. Ni noan tokira  
ezin zoazkete». <sup>22</sup> – «Bere burua il bear ote du?» zioten  
juduak, «Ni noan tokira zuek ezin zatozkete» esan baitu.  
<sup>23</sup> «Zuek beekoak zerate, Ni goikoa. Zuek mundu ont-  
akoa; Ni ez naiz mundu ontakoa. <sup>24</sup> Zuen pekatuetan ilko

zeratela esan dizuet. Bai, ni naizela siñisten ez ba'dezute, zuen pekatuetan ilko zerate». <sup>25</sup> - «Nor zera Zu», esan zioten, eta Jesus'ek: «asieratik esan dizuet orain esaten ari naizena. <sup>26</sup> Asko det zuei esateko ta gaiztotzat emateko; baña bialdu nauna egizale da, ta Ari aditua esaten ari naiz munduan». <sup>27</sup> Etzuten ulertu Aitarengaz itzegiten ziela. <sup>28</sup> Au esan zien orduan Jesus'ek: «Gizonaren Semea gora jasotzen dezutenean, ordun ezagutuko dezute Ni naizela, ta nere gisa ez dedala ezer egiten; bai, ordea, Aitak erakutsia esaten dedala. <sup>29</sup> Bialdu nauna nerekin daukat; ez nau eskutik utzi, Ari gogo zaiona egiten baitet beti». <sup>30</sup> Itzok adituta askok siñistu zioten.

#### Jesus eta Abraham.

<sup>31</sup> Ordun Jesus'ek, siñistu zioten juduei au esan zien: «Nere itzari eusten ba'diozute, egitan, nere ikasle izango zerate. <sup>32</sup> Ordun ezagutuko dezute egia, ta egiak zeron esku egingo zaitue». <sup>33</sup> «Abraham'en azitik gatoz eta ez gera iñoiz iñoren menpeko izan. Nola diozu geron jabe izango gerala?» <sup>34</sup> - «Egi egitan esan: pekatu egiten dun edozein, pekatuaren menpeko da. <sup>35</sup> Morroia ez da beti etxean gelditzen; semea beti an dago. <sup>36</sup> Beraz, Semeak libratzen ba'zaitue, egitan zeren esku izango zerate. <sup>37</sup> Ba-dakit, bai, Abraham'en azitik zatoztela; bañan ill egin nai nauzute, ta nere itza ez da zuengan gelditzen. <sup>38</sup> Nik, Aitagan ikusi dedana esaten dizuet, eta zuek Aitari entzun diozutena egiten dezute». <sup>39</sup> - «Abraham degu aita», erantzun zioten. «Abraham-seme ba'zerate, ark egiñak egiñ etzazute. <sup>40</sup> Zuek, berriz ill egin nai nauzute, Jainkoagandik entzundako egia esan dizuedalako. Olakorik etzun egin Abraham'ek. <sup>41</sup> Zuen aitaren egiñak egiten dituzute». - «Gu ez gera sasikume, esan zioten: Jainkoa beste Aitarik ez dugu». <sup>42</sup>

- «Jainkoa Aita ba'zenute, maiteko ninduzukete, Jainkoagandik irtenda etorri bainaiz. Ez naiz nere buruz etorri; Ark bialdu nau. <sup>43</sup> Zergatik ez dezute ulertzen nere izkuntza? Zergatik eziñ entzun nere itza? <sup>44</sup> Deabrua dezute aita, eta aren asmoak bete nai dituzute. Ua giza-iltzaille zan asieratik, eta etzion egia eutsi; egirik ez baitauka berekin. Gezurra dionean, beretik ari da, gezurraren aita baita. <sup>45</sup> Baña zuek, egia esaten dedalako, ez didazute siñisten. <sup>46</sup> Zuetan zeñek erantsiko dit neri pekatu-rik? Egia esaten ba'dizuet, zergatik ez didazute siñisten? <sup>47</sup> Jainkoagandik danak, Jainkoaren itzak entzuten ditu; zuek entzuten ez ba'nauzute, Jainkoagandik etzeratelako da». <sup>48</sup> «Ez al degu arrazoiarekin esaten samariarra ta deabruduna aizela?» <sup>49</sup> - «Deabruduna ez-bañan Aita gorensten ari naiz, eta zuek Ni itxusitu egiten nauzute. <sup>50</sup> Ni ez naiz ari nere ospe-billa; ba-da, ori bere gain artu, ta nere alde epaituko duna. <sup>51</sup> Egi egiz esan, nere itzari eusten diona, ez da beifñere ilko». <sup>52</sup> - «Oraintxe, bai, ziur gaudela deabrudun aizela. Abraham il uan, Igarleak ere bai, ta ik au diok: «nere itzari eusten dionak ez du iñoiz eriotza probatu-ko». <sup>53</sup> Gure aita Abraham zana baño geiago al aiz i? Igarleak ere il ituan. Zein izan nai dek?» <sup>54</sup> - «Nik nere burua ospatzen ba'det, nere ospea ezer ez da; zuena dala diozuten Jainkoak ospatzen nau. <sup>55</sup> Zuek, ordea, ez dezute Ua ezagutzen; Nik bai. Eta ezagutzen ez dedala esaten ba'det, zuek bezain gezurti nintzake. Bañan ezagutzen det, eta Aren itzari eusten diot. <sup>56</sup> Zuen aita Abraham, nere eguna ikusteko irrikitzen zegon; ikusita poztu egin zan». <sup>57</sup> - «Berrogeitamar urte ez dituk, ta Ik Abraham ikusi?» esan zioten juduak. <sup>58</sup> «Egi egiz esan, Abraham jajo baño leenago, Ni ba-naiz». <sup>59</sup> Arriak artu zituen Ari botatzeko; baña Jesus gorde egin zan eta Jauretzetik irten.

## IX

**Itsu jaioa sendatzen du.**

<sup>1</sup> Joanean, gizon bat ikusi zun, jaiotzez itsu. <sup>2</sup> «Maisu, galdegin zioten ikasleak, zeñek egin du pekatu, onek ala gurasoak, au itsu jaiio zedin?» <sup>3</sup> – «Ez onek eta ez gurasoak, erantzun zien Jesus'ek; baizik ere, Jainkoak egiñak, orrengan agertu ditezen, gertatu da ori. <sup>4</sup> Eguna argi dala, bialdu nauanaren lanak egin bear ditut; etortzen da gaua, lanik ez egitekoa. <sup>5</sup> Munduan nagon bitartean, munduaren argia naiz». <sup>6</sup> Au esanda listu egin zun, eta listuz loa egiñik, loiez igurtzi zitun itsuaren begiak, eta <sup>7</sup> «zoaz, esan zion, garbi zaite Siloe'ko urtegian». (Siloe ta Bialdua, bat dira.) Itsua joan zan, garbitu, ta begi-argi itzuli zan. <sup>8</sup> Auzoak eta eskean ikusi zutenak au esan zuten orduan: «ez al da au or eskale zegona?» <sup>9</sup> – «Bai, bera da, zioten batzuk; ez, aren antzekoa, beste batzuk». – «Ni naiz», zion berak. <sup>10</sup> «Nola idiki zaizkik begiak? esaten zioten <sup>11</sup> «Jesus esaten dioten gizon orrek, loa egin, begiak igurtzi, ta, zoaz, esan zidan, Siloe'n garbitzera. Ordun joan, garbitu, ta ikusten det». <sup>12</sup> – «Nun da ori?» galdegin zioten, eta, «ez dakit», erantzun zien.

<sup>13</sup> Pariseuen aurrera eraman zuten itsu egona. <sup>14</sup> Larunbata zan Jesus'ek loa eginda begiak idiki zizkionean. <sup>15</sup> Pariseuak ere galdegin zioten begiak nola argitu zitzaizkion, eta – loa jarri zidan begietan, esan zien, garbitu nitun, eta ikusten det. <sup>16</sup> Pariseu batzuk au zioten: – gizon ori ez da Jainkoaren partekoa, larunbata ez baitu jai egiten. Beste batzuk berriz: – pekatari batek nola egin ola-ko mirariak? Alde banatara ari ziran. <sup>17</sup> Berriro galde itsuari: «zer dala irudi zaik begiak idiki dizkian ori?» – «Igarle dala», erantzun zun gizonak.

<sup>18</sup> Ala ere juduak etzuten siñistu nai gizon au itsu egon

zala ta argitu zala, ta gurasoai dei egin zien. <sup>19</sup> «Au al da, galdegin zieten, itsu jaiio zala diozuten semea? Nolatan ikusten du orain?» <sup>20</sup> Gurasoak au erantzun zuten: «guk ba-dakigu semea degula ta itsu jaiio zala. <sup>21</sup> Bañan ez dakigu orain nola ikusten dun, eta begiak nork idiki dizkion. Galdegiozute berari: edadean dago. Berak itzegingo du bere alde». <sup>22</sup> Juduen bildurrez itzezin zuten ola gurasoak; Mesias'tako ezagutzen zutenak Sinagogatik botatzea erabaki baitzuten. <sup>23</sup> Orregatik esan zuten gurasoak: «adiña ba'du, galdegiozute berari».

<sup>24</sup> Bigarren aldiz deitu zuten itsu egona, ta, «emaio:ks ospe Jainkoari, esan zioten (\*). Guk ba-zekiagu gizon ori pekatari dala». <sup>25</sup> – «Pekadari dan, ala ez, nik ez dakit; auxe dakit: leen itsu nengola, ta orañ argi». <sup>26</sup> – «Zer egin zian? esan zioten. Nola idiki zizkian begiak?» <sup>27</sup> – «Esan dizuet leen ere, erantzun zien, eta ez dezute aditu. Berriz aditu nai al dezute? Zuek ere Aren ikasle biurtu nai al dezute?» <sup>28</sup> Orduan, gaizki-esanez bete zuten, eta «adi, nai ba'dek, esan zioten, orren ikasle; gu Moise'n ikasle gaxik. <sup>29</sup> Jainkoak Moisi itzezin ziola ba-zekiagu; bañan au etzekiagu nungoa dan». <sup>30</sup> – «Ori da, bada, arrigarri, erantzun zien gizonak: neri begiak idiki, ta ez dakizutela noren partekoa dan. <sup>31</sup> Jainkoak pekatariet entzuten ez die-la, jakiña da; baña Jainkozale danari, ta Aren ala-naia egiten dunari, ari entzuten dio. <sup>32</sup> Egundano ez degu aditu iñork itsu jaiio bati begiak argitu dizkionik. <sup>33</sup> Gizon au Jainkoagandik etorri ez ba'litz, ez lezake ezer egin». <sup>34</sup> – «Pekatu utsa aiz jaiotzatik, erantzun zioten, eta ik guri lezioak eman?» Eta bialdu egin zuten.

<sup>35</sup> Jakin izan zun Jesus'ek andik bialdu zutela, ta topo egiñez au galdetu zion: «siñisten al dezu Gizonaren Semea?» <sup>36</sup> – «Zein da, Jauna, siñistu dezadan?» esan zion.

<sup>37</sup> «Ikusten nauzun au, esan zion Jesus'ek; zurekin ari naitzen au». <sup>38</sup> Arek orduan: «siñisten det, Jauna», ta belau-niko jarri zitzaion. <sup>39</sup> Jesus'ek ordun: «auzitara etorri naiz mundura, ikusten ez dutenak ikusi dezaten, eta ikusten dutenak itsu biurtu ditezten». <sup>40</sup> An zeuden pariseuak aditu zuten eta au esan zioten: «gu ere itsu al geudek?» <sup>41</sup> — «Itsu ba'zeundete, erantzun zien Jesus'ek, etzenukete pekatirik; bañan «ikusten degu» diozute, ta ori duzute pekatua».

## X

**Artzai Ona.**

<sup>1</sup> Egi egiz esan: artegian atetik ez-ta beste nundibait sartzen dana, lapur eta ostuzale da; <sup>2</sup> atetik sartzen dana, ori da ardi-zai. <sup>3</sup> Oni atezaiak atea idikitzen dio, ta ardiak aren abotsa ezagutzen dute. <sup>4</sup> Ardiei beren izenez dei-egiten die, ta larrera ateratzen ditu. Atera ditunean, aurretik dijoakie, ta aiek atzetik, mintzoan ezagutzen baitute. <sup>5</sup> Bañan arrotzari ez diote jarraituko; iges egingo diote, arrotzaren mintzorik ez baitute ezagutzen. <sup>6</sup> Ipui au esan zien, bañan etzitzaien buruan sartu Ark zer esan nai zien. <sup>7</sup> Berrero Jesus'ek: «Egi egiz esan, Ni naiz ardi-atea. <sup>8</sup> Nere aurretik etorri diran guziak lapur eta ostuzale dira; bañan ardiak etzieten aditu. <sup>9</sup> Ni naiz atea. Nigandik sartzen dana, salbatuko da; sarrera-irtera ta larreak aukeran arkituko ditu. <sup>10</sup> Lapurrak ostu, il, galdu besterik ez du egiten. Ni ontara etorri naiz: bizia dezaten, eta gañezka dezaten. <sup>11</sup> Ni naiz artzai ona. Artzai onak bere ardi-aren alde bizia ematen ba-daki; <sup>12</sup> morroiak, artzai ta ardi-jabe ez danak ikusten du otsoa datorrela, ta ardiak utzi-ta iges egiten du, ta otsoak ozkatzen eta sakabanatzen di-

tu. <sup>13</sup> morroi baita eta ez dio ajolik ardiengatik. <sup>14</sup> Ni naiz artzai ona; nereak ezagutzen ditut, eta nereak ezagutzen naute. <sup>15</sup> Aitak ala ezagutzen nau, ta Nik Aita ezagutzen det, eta nere ardi-aren alde bizia ematen det. <sup>16</sup> Ba-ditut ardiak artegi ontako ez diranak. Aiek ere ekarri bear ditut; nere mintzoa entzungo dute, ta artalde bat izango da artzai baten menpean. <sup>17</sup> Orregatik maite nau Aitak; bizia ematen baitet, berrero artzeko. <sup>18</sup> Ez dit iñork kentzen; eskubide daukat emateko ta eskubide berriz artzeko. O-lako agindua artu det Aitagandik».

<sup>19</sup> Berriz ere sesioa atera zuten juduak itz oiengatik. <sup>20</sup> «deabrua du, ta zoratu egin zaio; zertako aditu orri?» <sup>21</sup> Beste batzuk, «ez, zioten, itz oiek ez dira deabrudunarenak. Deabru batek idiki al dezake itsuen begiak?»

**Jesus Jainkoaren Semea.**

<sup>22</sup> Jerusalem'en Galdor-pesta zan orduan. Negua zan. <sup>23</sup> Jesus Jauretxean zebillen arontz-onontza, Salomon'en aterpean. <sup>24</sup> Inguratu zuten juduak, eta, «noiz arte eukiko gaituzu zalantzan, esan zioten. Mesias baldin ba'zera, esai-guzu garbi». <sup>25</sup> Jesus'ek: «Esan dizuet eta ez dezute siñisten. Aitaren izenean egiten ditudan lanak ditut aitorle. <sup>26</sup> Baña zuek ez dezute siñisten, ez baitzerate nere ardiak. <sup>27</sup> Nere ardiak nere mintzoa entzuten dute; Nik ezagutzen ditut eta segi datozkit. <sup>28</sup> Betiko bizia ematen diet, ez dira beñiere galduko, ta iñork ez dizkit kenduko. <sup>29</sup> Eman dizkidan Aita, denak bañon aundiago da, ta iñork ez du ezer lapurtuko nere Aitaren eskutik. <sup>30</sup> Aita ta biok bat gera».

<sup>31</sup> Berrero juduak arriak artu zituzten Ua arrikatzeko. <sup>32</sup> «Egite on asko egin det Aitaren partetik zuen aurrean; aietako zeñengatik arrikatzen nauzute?» esan zien. <sup>33</sup> «Egi-

te onangatik ez-baña biraoarengatik arrikatzen zaitugu, erantzun zioten juduak; alegia, gizon izanik Jainko omen zeralako». <sup>34</sup> Jesus'ek erantzuna: «Ez al daukazute Legean idatzirik: *Nik esan nun; Jainko zerate?*» <sup>35</sup> Jainko esaten du bada, Legeak, Jainkoak itzegin zienangatik, eta Idatzia ez diteke uts eman. <sup>36</sup> Eta Nigatik, Aitak sagaratuta mundura bialdu naunagatik «biraoka ari zera?» diozute, «Jainkoaren Semea naiz» esan dedalako? <sup>37</sup> Aitaren zeregiñik egiten ez ba'det, ez neri siñistu; <sup>38</sup> bañan egiten ba'dit. neri ez ba'da ere, aici siñistu, ta jakin, eta ezagutu, Aita Nigan dagola ta Ni Aitagana». <sup>39</sup> Eldu nai izan zioten, bañan iges egin zien.

<sup>40</sup> Eta berriro Jordan'ez aruntza joan zan, Joan baitatzen ari zan tokira, eta an gelditu. <sup>41</sup> Asko etorri zitzaizkion: «Joan'ek etzun mirari bat egin; baña gizon onetaz esan zuna, egia da». <sup>42</sup> Eta ango askok siñistu zioten.

## XI

### Lazaro ilda piztua.

<sup>1</sup> Betania'r Lazaro, Mari ta Marta bi aizpen baserrikoa, gaxo zegon. <sup>2</sup> Mari au, Jauna gantzu-usaiez igurtzi zuna zan, eta oñak bere ille-adatsakin txukatu zizkiona. Anaia Lazaro gaxorik zeukaten. <sup>3</sup> Bi aizpak mandataria bialdu zioten Jesus'i: «Jauna, maite dezuna gaxo dago». <sup>4</sup> Jesus'ek aditzean, «gaitz au ez da erio-gaitza esan zun; bestera, Jainkoari ospe emateko izango da. Jainkoaren Semea gorestekoa». <sup>5</sup> Jesus'ek maite zitun, Marta ta aizpa ta Lazaro. <sup>6</sup> Au gaxo zegola entzunda ere, bi egunez gelditu zan zegon tokian. <sup>7</sup> Orduntxe esan zien ikasleai: «goazen Judea'ra». <sup>8</sup> «Maisu, esan zioten ikasleak; Juduak oraintsu arrikatu nai zinduten, eta ara zoaz berriro?» <sup>9</sup> Eta Jesus'ek

onela erantzun zien: «ez al ditu egunak amabi ordu? Egunez dabilena ez da oztopatzen, ikusten baitu mundu ontako argia; <sup>10</sup> baña gauetz baldin ba'dabil, oztopo egiten du, ez baitu argirik». <sup>11</sup> Au esanda bereala, onela jarraitu zun. «gure adiskide Lazaro lo dago, ta esnatzera noakio». <sup>12</sup> «Jauna, esan zioten ikasleak, lo ba'dago, sendatuko da». <sup>13</sup> Jesus'ek eriotza esan nai zun, bañan aiek loa ziola uste izan zuten. <sup>14</sup> Ordun Jesus'ek garbi esan zien: «Lazaro jilla da; <sup>15</sup> ta poz artzen det zuengatik an ez egona, siñista dezazuten. Baña goazen ara». <sup>16</sup> Tomas'ek, Didimo zeritzanak: «goazen gu ere, esan zien beste ikasleai, arekin iltzeko». <sup>17</sup> Irixtean, Lazaro lau egun aietan ill-obian zegola arkitu zun. <sup>18</sup> Jerusalem'dik Betani'ra amabost estadio besterik ez daude. <sup>19</sup> Judu asko etorri zitzaizkien Marta'ri ta Mari'ri, anaiarengatik atsekabeak erakustera. <sup>20</sup> Marta Jesus zatorrela jakitean, bidera atera zitzaion; Mari eserita etxean gelditu zan. <sup>21</sup> «Jauna, esan zion Marta'k, emen izan ba'ziña, ez zan ilko gure anaia. <sup>22</sup> Ba-dakit ala ere, eskatzen diozuna emango dizula Jainkoak». <sup>23</sup> «Anaia piztuko zaizu», esan zion Jesus'ek. <sup>24</sup> «Ba-dakit, erantzun zion Marta'k, piztueran, azken-egunean, piztuko dala». <sup>25</sup> «Ni naiz piztea ta bizia, esan zion Jesus'ek. Ni siñisten nauna, ilda ere piztuko da; <sup>26</sup> ta bizi dana ta siñisten nauna, ez da ilko betiko. Siñisten dezu au?» <sup>27</sup> «Bai, Jauna, esan zion, siñisten det Kristo'a, Jainkoaren Semea zerala, mundu ontara etortzeko zana». <sup>28</sup> Au esanda, aizpa Mari'ri deitzera joan zan, eta agopetik esan zion: «Maisua or dago, ta dei egiten dizu». <sup>29</sup> Entzutean, Mari zutituta presaka atera zitzaion. <sup>30</sup> Oraindik ez zan Jesus baserrian sartu; Marta'k topo egin zun tokian gelditua zan. <sup>31</sup> Etxean Mari'ri gaxoka ari zitzaizkion juduak, bat-batean zutituta zijoala ikusi zuten, eta jarraitu egin zioten, ill-obira negar egitera zijoalakoan.

<sup>32</sup> Mari, Jauna zegon tokira irixtean, ofietara auspez erori zitzaion: «Jauna, emen izan ba'ziña, anaia etzitzai-gun ilko». <sup>33</sup> Ua ta arekin etorritako juduak negarrez ikus-tean, Jesus'i barrundik antsia atera zitzaion. <sup>34</sup> «Nun jarri dezute?» galdegin zien kupiturik. «Jauna, etorri ta ikus», esan zioten. <sup>35</sup> Jesus'ek negar egin zun. <sup>36</sup> Juduak ordun: «bai maite zula», esan zuten. <sup>37</sup> Batzuk, ordea, au zioten: «itsuari begiak idiki zizkion onek ez al zezaken galarazi gizon onen eriotza?» <sup>38</sup> Jesus berriro, barrundik zizpuruka, ill-obira urbildu zan. Artzulo bat zan, arrizko atakarekin. <sup>39</sup> «Kendu baztarrera arri ori», esan zun Jesus'ek. Zana-ren arreba Marta'k erantzun zion: «Jauna, usaia dario; lau egun deramazki». <sup>40</sup> «Ez al dizut esan, erantzun zion Jesus'ek, siñisten ba'dezu Jainkoaren ospea ikusiko dezula?» <sup>41</sup> Kendu zuten, bada, arria. Ordun Jesus'ek, begiak zerura jasorik, «Aita, esan zun, eskerrik asko entzun nauzulako. <sup>42</sup> Ondo dakit beti entzuten nauzula; bañan inguru-ruan dauzkadan gizon auengatik esaten dizut, Zuk bialdu nauzula siñistu dezaten». <sup>43</sup> Au esanda, oi uundia egin zun: «Lazaro, atera zait!» <sup>44</sup> Il zana atera zan, esku-oiñak zatarrez lotua, aurpegia zapi batekin estalia. «Askatu za-zute, esan zien Jesus'ek, eta dabillega».

### Jesus'i eriotz-eskeinko.

<sup>45</sup> Egin zun au ikusita, Mari'ren etxera etorritako judu askok siñistu zioten Jesus'i. <sup>46</sup> Baña beste batzuk, pari-seuengana joan ziran, Jesus'ek egiña kontatzera. <sup>47</sup> Apaiz-nagusi ta pariseuak batzarrea deitu zuten, eta esan: «Zer egingo degu? gizon onek mirari asko ari ditu. <sup>48</sup> Ortan uzten ba'diogu, danak siñistuko diote, erromatarrak etorriko dira, ta purrukatuko ditute gure lurra ta erria». <sup>49</sup> Aie-tan batek, Kaifas'ek, urte artan apaiznagusi baitzan (\*), au esan zien: «Zuek ez dakizute ezer. <sup>50</sup> Etzaizue buruan

sartzen, obe dala gizon bakarra erri guziaren ordez il, eta ez, erri osoa galtzea». <sup>51</sup> Etzun au bere buruz esan; bañan apaiznagusi zanez, aurretik igerri zion, Jesus zala il-bearra erriarengatik. <sup>52</sup> Eta ez erriaren bakarrarengatik; baita banaturik zebiltzen Jainko-semeak bateratzeko ere. <sup>53</sup> Egun artan, eriotza ematea erabaki zuten. <sup>54</sup> Jesus etzebillen agerian juduen artean. Urbilleko mendi batera baztatu zan, Efren zeritzan erri batera, ta antxe zegon bere ikas-leekin.

<sup>55</sup> Juduen Pazkoa laister zala-ta, baztarralde artako asko Jerusalem'a joanak ziran Pazkoa baño len, beren garbikundera. <sup>56</sup> Jesus'en billa zebiltzan, eta Jauretxean geldituta au ziotsaten alkarri: «Zer irudi zaizute? Etorriko ote da jaictara, ala ez?» <sup>57</sup> Apaizburu ta pariseuak ots au egin zuten: nun zegon iñork baldin ba'zekin, adierazteko, lotu zezaten.

## XII

### Mari'k Jesus'i igurtziketa.

<sup>1</sup> Pazkoa baño sei egun leenago, Jesus Betani'ra etorri zan, ilda piztu zun Lazaro zegon tokira. <sup>2</sup> Otordu bat eskeñi zioten an. Marta zan serbitzari. Lazaro, mai-lagunetako bat. <sup>3</sup> Mari'k, libra bat nardo-uriñ bikaña ta balio aundikoa artuta, arekin igurtzi zizkion Jesus'i oiñak, eta bere ille-adatsakin txukatu. Eta etxe guzia iriñ usaiez bete zan. <sup>4</sup> Ikasleetan batek, salduko zun Judas Iskariote'k, au esan zun: <sup>5</sup> «zergatik ez du saldu gurin ori irureun denariotan, beartsuei emateko?» <sup>6</sup> Etzun au esan beartsuetaz ajola ziolako; lapurra baitzan, ordea, ta poltsa-zai zan ez-kero, ara botatzen ziotenetik ostu egiten zun. <sup>7</sup> «Utziogu, esan zion Jesus'ek, guriñ ori, nere ill-obiratzeko egunerako



gorderik zeukan. <sup>8</sup> Beartsuak beti dauzkazute, bada, zuekin; baña Ni ez nauzute beti eukiko».

<sup>9</sup> Judu asko etorri ziran ara, an zegola jakitean; Jesus'engatik bakarrarengatik ez-bañan illen artetik piztuarazi zun Lazaro'rengatik. <sup>10</sup> Ordun, apaiznagusiak, Lazaro ere illeraztea erabaki zuten. <sup>11</sup> Judu askok alde egiten baitzieten, eta Jesus siñisten baitzuten.

#### Jerusalen'en nagusi sartzen da.

<sup>12</sup> Biaramonean pestara etorritako jendalde aundiak, jakin izan zun, Jesus Jerusalem'a zetorrela. <sup>13</sup> Palma-adarrak artuta bidera atera zitzaizkion deadarka. Hosana! Gora, Jaunaren izencan datorren Israel'go Erregeal!

<sup>14</sup> Jesus'ek astotxo bat arkitu zun, eta aren gañera igo zan idatzirik dagonez: <sup>15</sup> «Ez bildurtu, Sion'go alaba, orra or zure Errege, astakume-gañean datorrena». <sup>16</sup> Ikasleak etzuten au entenditu bereala; baña Jesus goretsia izan zanean, ordun gogora zitzaien ala idatzirik zegola, ta ala egin zula. <sup>17</sup> Lazaro'ri illen artetik piztuazi ta obitik aterra zedilla agindu zionean, an zeudenak testigu ziran. <sup>18</sup> Orregatik atera ere zitzaion jendalde aundia bidera; aditu baitzuten Jesus'ek mirari ori egin zula. <sup>19</sup> Ordun pariseuak alkarrari: «begira, ez dezute ezer aurreratzen: mundu guzia atzetik datorkio».

#### Jesus, ilda nagusi.

<sup>20</sup> Pestako adoraziora zijoazenen artean, ba-ziran helen-dar batzuk ere. <sup>21</sup> Auek Galilea Betsaida'ko Pilipe'rengana urbildu ziran, eta eskari au egin zioten: «Jauna, Jesus ikusi nai degu». <sup>22</sup> Pilipe, Andres'i esatera joan zun. Andres'ek eta Pilipe'k, joanda Jesus'i esan zioten. <sup>23</sup> Jesus'ek au erantzun zien: «etorri da garaia, Gizonaren Semea goretsia

dedin. <sup>24</sup> Egi egiz esan: gari-alea lurpean sartuta iltzen ez ba'da, bakarrik geldituko da; bañan iltzen ba'da, uzta ugari emango du. <sup>25</sup> Bizia maite dunak, galduko du, ta mundu ontan bizia gutxitzat daukanak, betiko bizitzarako gordeko du. <sup>26</sup> Inork serbitu nai ba'dit, betor nere ondora, ta Ni nagon tokian egongo da nere serbitzaria ere. Ni serbitzen naunak, Aitak goratuko du. <sup>27</sup> Orain larri nago neregan. Eta zer esan? Aita, atera nazazu ordu ontetik? Ortarakoxe etorri bainaiz ordu ontara. <sup>28</sup> Aita, goretsi zazu Zure izena! Ordun, mintzo bat etorri zan zerutik: «goretsi det, eta goretsiko berrero». <sup>29</sup> An egonda entzun zun jendaldeak, turmoi-otsa zala zion; beste batzuk: «Aingerua mintzatu zaio». <sup>30</sup> «Nigatik ez-baña zuengatik entzun da mintzo au, erantzun zien Jesus'ek. <sup>31</sup> Mundu ontako auzia orain da. Mundu ontako nagusia orain botako dute emendik. <sup>32</sup> Eta Nik, lurretik altxatzen nautenean, danak Nigana ekarriko ditut». <sup>33</sup> Orrela, zer eriotzez ilko zan adierazi zun. <sup>34</sup> Jendaldeak, ostera: «Legeak, Kristo betiko izango dala erakusten digu. Nola diozu Gizonaren Semea lurretik altxatzea komeni dala? Zein da Gizonaren Seme ori?» <sup>35</sup> Jesus'ek orduan: «Oraintxe denbora gutxiko argia dezute zuekin. Zabilzate argia dezuteño, illunak artu etzaitzaten; illunbetan dabillenak, ez daki nora dijoan. <sup>36</sup> Argia daukazuteño, siñistu iozute argiari, ta argi-seme izango zerate». Au esanda Jesus urruti gorde zitzaien.

#### Judu sinisgogorrek.

<sup>37</sup> Aien aurrean oinbesteko mirariak egin zitun arren, etzioten siñistu, <sup>38</sup> Isaias Igarleak esana gerta zedin: *Jauna, norik siñistu dio gure mandatuari? Eta Jainkoaren besou nori agertu zaio?* <sup>39</sup> Etzezaketan siñistu, esanik ere baitzeukan Isaias'ek: <sup>40</sup> *Begiak iusutu dizkie ta biotza gogortu,*

*begiz ikusi ez dezaten, biotzez aditu ez dezaten, zentzatu tu sendatu ez ditezen* (\*).<sup>41</sup> Au esan zun Isaias'ek Aren ospea ikusi zunean, eta Arengaz itzegin zunean.<sup>42</sup> Ala ere, buruzagien artean askok siñistu zioten; bañan etziran zabal mintzatzen, Juduen bildurrez, Sinagogatik bota etzetzaten.<sup>43</sup> Maiteago baitzuten gizonengandik datorren ospea, Jainkoagandik datorrena baño.<sup>44</sup> Jesus'ek oiur egiñez au esan zun: «Ni siñisten naunak, Ni ez-baña, bialdu nauna siñisten du;»<sup>45</sup> ta Ni ikusten nauna, bialdu ninduna ikusten ari da.<sup>46</sup> Ni, argia, ontara etorri naiz mundura; Ni siñisten nauna ilunbetan geldi ez dedin.<sup>47</sup> Nere itzak entzun bai, ta gorde ez, egiten dituna, Nik ez det epaituko, mundua epaitzera ez-baña gaizkatzera etorri bainaiz.<sup>48</sup> Ni botatzen naunak, eta nere itzak jasotzen ez ditunak epaillea ba-du. Nik esan dedan itza bera, ori izango du jueza azken-egunean.<sup>49</sup> Nik ez baitet Neronengaz itzegin, bestera, bialdu naun Aitak agindu dit zer esan eta zer egin.<sup>50</sup> Eta ba-dakit Nik, Aren agindua betiko bizia dala. Beraz, Nik diodana, Aitak esan bezela esaten det».

### XIII

#### Oin-garriketa.

<sup>1</sup> Pazko-pesta aurrean, Jesus'ek, mundu ontatik Aitagana pasa-garaia zala jakinki, munduan zeuzkan bereak maıtatu izanik, azkeneraño maite izan zitun.<sup>2</sup> Apaltzen asita, deabruak Judas Iskariote'ri Simon'en semeari, Ua salatze-ko asmoa sartu zionean,<sup>3</sup> baitzekin Jesus'ek Aitak guzia eskuetara eman ziola, ta Jainkoagandik zetorrela Arengana joateko,<sup>4</sup> jeiki zan maiteki, erantzi zun soin-gañekoa, ta esku-oial batekin gerria bildu zun.<sup>5</sup> Gero, balde batera ura bota ta ikasleai oñak garbitzen asi zan, eta gerrian

bildurik zeukan oialarekin txukatzen.<sup>6</sup> Iritxi zan, bada, Simon Pedro'gana, ta, «Jauna, esan zion: Zuk neri oñak garbitu?»<sup>7</sup> – «Ni zer ari naizen, erantzun zion Jesus'ek, ez dakizu oraindik; gero ikasiko dezu».<sup>8</sup> – «Ez dezu, erantzun zion Pedro'k, neri oñak garbitzen sekulan lanik izango». Jesus'ek ordun: «garbitzen ez ba'zaitut, ez dezu nerekin artukizunik».<sup>9</sup> – «Beraz, Jauna, esan zion Pedro'k, oñak ez ezen, bai eskuak eta burua ere».<sup>10</sup> Jesus'ek: «Garbitua dagonak ez dauka garbi-bearrik; garbi dago osoa. Zuek garbi zaudete, bañan ez guziok».<sup>11</sup> Ba-zekin zeñek salduko zun, eta orregatik esan zun: etzaudete guziok garbi.

<sup>12</sup> Oñak garbitu ondoan, jantzi zitun bere jantziak, jarrri zan maiean berriro, ta, «bai al dakizute, esan zien, zer egin dizuedan?»<sup>13</sup> Zuek Irakasle ta Jaun izenez deitzen nauzute, eta ondo, ala bainaiz.<sup>14</sup> Beraz, Nik, Maisu ta Jaun izanik oñak garbitu ba'dizkizuet, zuek ere alkarri garbitu bear dizkiozute.<sup>15</sup> Erakutsia eman dizuet, Nik zuei egin bezela zuek ere egin dezazuten.<sup>16</sup> Egi-egiz esan: morroia ez da nagusia bañon areago, ez-ta bialdua, bialdu dun Ua baño.<sup>17</sup> Au jakinda, doatsu zerate betetzen ba'dezute.<sup>18</sup> Ez det zuen guziengatik esaten, baitakit zeintzuk aukeratu nitun; bañan Idatzia gerta-bearrekoa da: *Nere ogitik jaten dunak, orpo egin dit*.<sup>19</sup> Oraintxetik esaten dizuet, gertatzean, Ni naizela siñistu dezazuten.<sup>20</sup> Egi egiz esan: Nik bialdua artzen dunak, Ni artzen nau, ta Ni artzen naunak, bialdu ninduna artzen du».

#### Judas'ek salduko.

<sup>21</sup> Au esanda, barruna larritu zitzaion, eta ola esan zien: «egi egiz esan, zuetan batek saldu egingo nau».<sup>22</sup> Ikasleak alkarri begira asi ziran, zeñengatik zion jakin gabe.<sup>23</sup> Aietan bat, Jesus'en kuttuna, Jesus'en galtzar-on-

doan zegon maiean. <sup>24</sup> Simon Pedro'k keñuka esan zion: galdegiozu zeñengatik ari dan. <sup>25</sup> Onek, Jesus'en galtzarrean burua zula, «Jauna, esan zion; zein da?» <sup>26</sup> Eta Jesus'ek: «bustitzera noan otamen au ematen diodana». Eta agomena artu, busti ta Judas'i, Simon Iskariote'ren semeari eman zion. <sup>27</sup> Bertantxe, aukoa artzearekin, Satanaz sartu zitzaion barruan. Jesus'ek esan zion: «egin bear dezuna, egizu lenbailen». <sup>28</sup> Jaten ari zan iñork etzun entenditu zergatik zion ori. <sup>29</sup> Poltsa Judas'ek baitzeukan, ta batzuku uste izan zuten: –erosi zazu pestarako bear deguna; edota, beartsuei zerbait emateko agintzen ziola. <sup>30</sup> Judas bereala atera zan, mokadua artuta. Gaua zan.

#### Agindu berria.

<sup>31</sup> Ua irtenda, Jesus'ek au esan zien: «Orain Gizonaren Semea goretsia da, ta Jainkoa Arekin. <sup>32</sup> Jainkoa Argan goretsia izan ba'da, Jainkoak Ua ere goretsiko du, ta laister. <sup>33</sup> Semetxoak, ez naiz egongo luzaro zuekin. Nere billa asiko zerate, baña juduai esan niena esaten dizuet zuci ere. Ni noan tokira, zuek ezin zatozkete. <sup>34</sup> Agindu berria ematen dizuet: maita zazute alkar, Nik maitatu zaituedan bezela. <sup>35</sup> Ontan ezagutuko dute guziak, nere ikasleak zeratela: alkar maite izatean».

#### Pedro'k ukatuko.

<sup>36</sup> «Jauna, nora zoaz?» esan zion Simon Pedro'k. «Ni noan tokira, erantzun zion Jesus'ek, ezin zatozke orain atzetik; geroago jarraituko didazu». <sup>37</sup> – «Zergatik ez orain? esan zion Pedro'k; bizia emango det Zure alde». <sup>38</sup> – «Zuk bizia eman nere alde? erantzun zion Jesus'ek. Egi egiz esan, oillarrak jo baño len, iru aldiz ukatuko nauzu».

## XIV

### Zerura dijoa ta itzuliko da.

<sup>1</sup> Ez bioz-larritu. Jainkoa siñistu zazute: Ni ere bai. <sup>2</sup> Nere Aitarenean egon-leku asko daude, bestela esango nizuen; tokia prestatzera noa. <sup>3</sup> Eta joanda prestatzen dizuedanean, etorrita atzera nerekin artuko zaituet, Ni nagon tokian zuek ere egon zaitezten. <sup>4</sup> Eta noanera bidéa ba-dakizute. <sup>5</sup> «Jauna, esan zion Tomas'ek: ez dakigu nora zoazen, eta ara bidea nola jakin?» <sup>6</sup> Jesus'ek: «Ni naiz bidea, egia ta bizia. Iñor ez dijoa Aitagana, nere bidez ezik. <sup>7</sup> Ezagutzen ba'nauzute, Aita ere ezagutuko dezute. Onezkeru, ezagutzen dezute ta ikusi dezute». <sup>8</sup> – «Jauna, esan zion Pilipe'k: erakus iguzu Aita, ta ori aski zaigu». <sup>9</sup> – «Oinbeste ba-da zuekin nagola, erantzun zion Jesus'ek, eta ez nauzute ezagutzen? Pilipe, Ni ikusten nauna, Aita ikusten ari da. Nola diozu erakus iguzu Aita? <sup>10</sup> Ez al dezu siñisten Ni Aitagan nagola, ta Aita Nigan? Nik esaten dizkizuedan itzak, ez ditut nerez esaten: Nigan dagon Aita ari da Bere lanak egiten. <sup>11</sup> Siñista idazute: Ni Aitagan nago ta Aita Nigan. Nik egiñai, beintzat, siñista iezute! <sup>12</sup> Egi egiz esan, Nigan siñistea dunak, Nik egiñak egingo ditu, ta aundiagoak ere, Aitagana bainoa. <sup>13</sup> Eta nere izenean eskatzen dezuten guzia, egingo det, Aita Semeagan goretsia izan dedin. <sup>14</sup> Nere izenean zerbait eskatzen ba'didazute, egingo det. <sup>15</sup> Maite ba'nauzute, eutsi nere aginduai. <sup>16</sup> Ta eskatuko diot Aitari, ta beste Pozemaille bat emango dizue, beti zuekin dagokena; <sup>17</sup> egiaren Arnasa; munduak ez dezake ondo artu, ez baitu ikusten, ez ezagutzen. Zuek ezagutzen dezute, zuekin bizi baita, eta zuengan daukazute. <sup>18</sup> Etzaituet utziko umezurtz; atzera etorriko nizaizue. <sup>19</sup> Laister munduak ez nau ikusiko. Zuek ikusiko nauzute, Ni bizi bainaiz, eta zuek ere biziko zerate.

<sup>26</sup> Egun artan ikusiko dezute Ni Aitagana nagola, ta zuek Nigan, eta Ni zuengan. <sup>21</sup> Nere aginduak jaso ta egiten dituna, ori da maite nauna; ta maite nauna Aitak maiteko du, ta Nik maiteko det, eta agertuko nizaio». <sup>22</sup> «Jauna, esan zion Judas'ek – ez Iskariote'k – nola agertuko zakigu guri, ta ez munduari?» <sup>23</sup> – «Iñork maite ba'nau, erantzun zion Jesus'ek, nere itzari eutsiko dio, ta nere Aitak maiteko du, ta Arengana etorriko gera, ta argan artuko degu bizilekua. <sup>24</sup> Maite ez naunak, nere itzei ez die eusten; entzuten didazuten itza, nerea ez-baña bialdu naun Aitarena da. <sup>25</sup> Orain, zuekin nagola, esaten dizuet. <sup>26</sup> Baña Pozemaille dan Gogo Doneak, Aitak nere izenean bialduko dunak, guzia erakutsiko dizue, ta Nik zueri esana gogoraziko dizue. <sup>27</sup> Pakea uzten dizuet; nere pakea ematen; ez dizuet ematen munduak bezela. Ez estutu ta ez ikaratu. <sup>28</sup> Aditu didazute au esaten: ba-noa ta itzuliko naiz zuengana. Maite ba'ninduzute, poztuko ziñateke Aitagana noalako, Aita Ni bañon aundiago baita. <sup>29</sup> Orrela bada, gertatu baño len esan dizuet, gerta dedinean siñistu dezazuten. <sup>30</sup> Oraintxe ez itz asko zuekin; mundu ontako nagusia urbil baitago. Ez du nerekin ezer. <sup>31</sup> Baña jakitea dauka munduak Aita maite dedala, ta Aitak eman zidan agindua betetzen dedala. Zuti; goazen emendik.

## XV

### Matsa ta ayenak.

<sup>1</sup> Ni naiz egizko maatsondoa, ta Aita da nekazaria. <sup>2</sup> Nigan maatsik ez dakarren ayena, ebaki egiten du, ta ematen duna muskildu, geiago eman dezan. <sup>3</sup> Esan dizkizuedan itzen bitartez garbi zerate. <sup>4</sup> Zaudete Nigan, Ni zuengan nagon bezela. Ayenak ez baitzake maatsik eman

maatsondoa iraun ezik, ez-ta zuek ere Nigan ez ba'zaudete. <sup>5</sup> Ni naiz maatsondoa; zuek ayenak. Ni Argan bezela Nigan dagonak, uzta ugari ematen du; Ni gabe ezin baitezute ezer egin. <sup>6</sup> Nigan ez dagona, baztarrera botako dute ayena bezela, ta igartuko da: bildu ta sutara botatzen dute su egin dezan. <sup>7</sup> Nigan ba'zaudete ta nere itzak zuengan ba'daude, eska-ala eska, izango dezute. <sup>8</sup> Onak goersten du Aita: zuek uzta ugari emateak: ordun izango zerate nere ikasle. <sup>9</sup> Aitak maitatu naun bezela maitatu zaituet Nik ere; iraun zazute Ni maitatzen. <sup>10</sup> Nik aginduak egiten ba'dituzute, Ni maitatzen iraungo dezute; Nik ere Aitaren aginduak egin, eta Ua maitatzen irauten dedalako. <sup>11</sup> Zergatik esaten dizuet au? Nere poza zuengan egon dedin, eta zuen poza betea dedin.

<sup>12</sup> Au da nere agindua: maita zazute alkar, Nik maitatu zaituedan bezela. <sup>13</sup> Ez da maitasun aundiagorik, adiskideengatik bizia ematea baño. <sup>14</sup> Zuek adiskide zaituet, Nik esana egiten ba'dezute. <sup>15</sup> Aurrera etzaituet morroi deituko; morroiak ez baitaki nagusia zer ari dan; adiskide esaten dizuet, Aitari entzun guzia aditzera eman baitizuet. <sup>16</sup> Ez nautzate zuek Ni aukeratu; Nik aukeratu zaituet zuek. Ontarako zauzkatet; zuek igalia emateko, ta irauten dun igalia. Ordun, Aitari nere izenean eskatzen diozuten guzia, emango dizue. <sup>17</sup> Au agintzen dizuet: alkar maita zazutela.

### Gorrota mundua.

<sup>18</sup> Munduak gorroto ba'zaitue, Ni zuek baño leenago gorrotatu nau, gero. <sup>19</sup> Mundutar ba'ziñate, munduak bere duna maiteko luke; baña mundutar etzeratelako, Nik mundutik aukeratu zaituedalako, munduak gorroto zaitue. <sup>20</sup> Gogoan eduki esan nizuena: ez da morroia nagusia bañon

areago. Ni persegitu ba'naute zuek ere persegituko zaituete; nere itzari eutsi ba'diote, zuenari ere eutsiko diote. <sup>21</sup> Bañan au, nere izenagatik egingo dizuete, ez baitute eza gutzen bialdu nauna. <sup>22</sup> Ni etorri ez ba'nintza ta itzegin ez ba'nie, pekatuik ez lukete; bañon orain ez daukate beren pekatua zuritzerik. <sup>23</sup> Ni gorroto naunak, Aita ere gorroto du. <sup>24</sup> Aien aurrean iñork ez aiñako egiñak egin ez ba'nitu, ez lukete pekatuik; bañan orain ikusi dute, ta gorroto naute; Ni ta Aita ere. <sup>25</sup> Legean idatzia gerta dedin, noski: *alperrik gorrotatu ninduten*. <sup>26</sup> Aitagandik bialduko dizuedan Poz-emaillea datorrenean, Aitagandik datorren Egi-arnasa, Ua izango zait aitorle. <sup>27</sup> Zuek ere testigu izango zaituet, aurrenetik nerekin baitzaudete.

## XVI

<sup>1</sup> Atzeratu etzaitzeten esan dizuet au. <sup>2</sup> Sinagogatik botako zaituete; etorriko da ordua, zuei eriotza ematen diuzenak Jainkoa adoratzan dula uste izango duna. <sup>3</sup> Ez Aita ta ez Ni ezagutzen ez gaitutelako egingo dute ori. <sup>4</sup> Orregatik esan dizuet: ori gertatzean, Nik esanik neukala oroituz zaitezten. Ez nizuen esan aurrenetik, zuekin bainengon.

### Ispiritu Santua bialduko.

<sup>5</sup> Bañan orain, bialdu nindunagana noa, ta zuetan iñork ez dit galdegiten «nora zoaz?». <sup>6</sup> Bañan au esaten dizue dalako, biotza goibel daukazute. <sup>7</sup> Beraz, egia esan: obe zaizue Ni joan nadin; joaten ez ba'naiz, Poz-emaillea etzazue etorriko; baña joaten ba'naiz, bialduko dizuet. <sup>8</sup> Eta datorrenean, ark lotsaraziko du mundua, pekatuaren, zuzentasunaren eta auziarengatik; <sup>9</sup> pekatuarengatik, ez bai-

naute siñisten Ni; <sup>10</sup> zuzenarengatik, Aitagana bainoa ta ez nauzute ikusiko; <sup>11</sup> auziarengatik, mundu ontako nagusiē epaia emana baitago. <sup>12</sup> Oraindik gauza asko daukazuet esateko; baña zuek eziñ eraman dezute ondo, orain. <sup>13</sup> Egiaren Arnasa datorrenean, Ark erakutsiko dizue, ta etorkizunen berri emango. <sup>14</sup> Ark goretsiko nau Ni, nere tik artuta berri emango baitizue. <sup>15</sup> Aitak dun guzia nera det; orregatik esan dizuet: neretik artuta berri emango dizue.

### Bereala etorriko.

<sup>16</sup> Laister ez nauzute ikusiko, ta geroxago berriro ikusiko nauzute». <sup>17</sup> Ordun ikasleak ola ari ziran beren artean: «zer da dion au?» Laister ez nauzute ikusiko, ta geroxago berriro ikusiko nauzute», eta «Aitagana noa?» <sup>18</sup> Zer da «geroxago ori?» Ez dakigu zer esan nai dun». <sup>19</sup> Ezagutu zun Jesus'ek galde-naiean zeudela, ta onela esan zien: «itzokin zer esan nai dedan ari zerate?: «laister ez nauzute ikusiko, ta geroxago berriro ikusiko nauzute». <sup>20</sup> Egi egiz esan: negar eta aiene egingo dezute; mundua, berriz, poztuko da. Zuek goibelduko zerate, baña zuen tristura poz biurtuko da. <sup>21</sup> Emakumea, erditze-aurrean begi-illun dago, etorri baitzaio ordua; bañan aurra jaio danean miñak aztu oi zaizkio, gizon bat mundura etorri dan pozez. <sup>22</sup> Zuek ere betillun zaudete orain, baña berriro ikusiko zaituet, eta argituko zaizue biotza, ta poz ori iñork ezin kenduko dizue. <sup>23</sup> Egun artan ez didazute galde geiagorik egingo. Egi egiz esan: Aitari eskatzen diozuten guzia emango dizue nere izenean. <sup>24</sup> Oraindañokoan ez dezute ezer eskatu nere izenean. Eska ta artuko dezute, zuen poza betea dedin. <sup>25</sup> Guzi au ipuien bidez esan dizuet; ordu da onezkero ipuiez ez itzegiteko: argi ta garbi itzegino dizuet Aitarengaz. <sup>26</sup> Ordun nere izenean eskatuko dezute, ta

ez det esaten Aitari zuen alde eskatuko diodanik; <sup>27</sup> Aitak berak ere maite baitzaitue zuek maite ba'nauzute, ta Jainkoagandik naizela siñisten ba'dezute. <sup>28</sup> Aitagandik irtenda etorri naiz mundura; berriro, mundua utzita Aitagana noa.»

<sup>29</sup> «Orain, bai, esan zioten ikasleak, garbi mintzo zerala, ta ipuirik asmatu gabe. <sup>30</sup> Ba-dakigu orain guzia dakizula, ta ez dizugu galdetu bearrik. Orregatik siñisten degu Jainkoagandik etorri zerala». <sup>31</sup> «Orain siñisten?» erantzun zien Jesus'ek; <sup>32</sup> «Begira: ba-dator ordua, ta etorri da, zuek alde banatara joanda bakarrik utziko nauzutena; bañan ez nago bakarrik: Aita det lagun. <sup>33</sup> Neregan pakea dezazuten esan dizuet au. Munduan nekepean bizi bearko dezute; bañan egon lasai: Nik menderatu det mundua.»

## XVII

### Jesus'en otoitza Bere alde.

<sup>1</sup> Onela mintzatu zan Jesus; gero, begiak zerura jasotta, «Aita, esan zun, argitu zazu zure Semea, Zure Semeak Zu argitu zaitzan. <sup>2</sup> Eta gizon guzien gain eskua eman zention ezkerro, Ari emanai, eman dezaiaela betiko bizia. <sup>3</sup> Au da betiko bizia: ezagu zaitzatela Zu, egizko Jainko bakaarra, ta bialdu dezun Jesukristo. <sup>4</sup> Argitu zaitut lurrean, eman didazun egitekoa bukatzearekin. <sup>5</sup> Orain argitu nazazu, Aita, mundua mundu baño len Zupan neukan argitasunarekin.

### Ikasleen alde.

<sup>6</sup> Agertu diet Zure Izena, mundutik aterata eman zenezikidan gizonai. Zureak zenitun, eta Zuk eman dizkizidazu, ta zure itzari eutsi diote. <sup>7</sup> Ba-dakite orain, eman di-

dazun guzia Zugandik datorrela, <sup>8</sup> Zuk neri eman-itzak eman baitizkiet; jaso ditute, ta ederki ezagutu Zugandik irten naizela, ta siñistu dute Zuk bialdua naizela. <sup>9</sup> Auengatik eskatzen dizut; munduarengatik ez-baña, Zuk eman zenizkidan auengatik, zureak baitituzu. <sup>10</sup> Nere guzia Zure, ta Zure guzia nere, ta auek argiarazi naute. <sup>11</sup> Ni ez nago munduan oraintxe; auek, bai. Ni Zugana noa. Santu zeran Aita! eman dizkidazunik zaitu itzazu Zure Izenean, gu biok bezela bat ditezen. <sup>12</sup> Auekin nengon artean, Zuk neri emanak zaitzen nitun Zure Izenean. Bañun nik aien ardura, eta bat ez zan galdu, seme galgarrria ezik, Idatzitakoa gerta zedin. <sup>13</sup> Bañan orain Zugana noa, ta oraindik munduan egonik esaten ditut gauza auek, nere poza berengan betea dezaten. <sup>14</sup> Esan dizkiet Zure itzak, eta munduak gorroto ditu, ez baitira mundutar, Ni ere mundutar ez naizen bezela. <sup>15</sup> Ez dizut eskatzen mundutik atera ditzazun; ostera, zaitu itzazula gaiztoagandik. <sup>16</sup> Ez dira lurkoi, Ni ere lurkoi ez naizen bezela. <sup>17</sup> Santutu itzazu egiarentzat, Zure Itza egia baita. <sup>18</sup> Zuk mundura bialdu nauzun bezela, Nik ere mundura bialdu ditut. <sup>19</sup> Eta auengatik nere burua santutzen det, auek ere egiarentzat santutu ditezen.

### Zintzo guzien alde.

<sup>20</sup> Erregutzen dizut, auengatik bakarrik ez-baña, Zure itzari esker Ni siñisten nauengatik (\*). <sup>21</sup> Zu neregan zauden, eta Ni zuregan nagon bezela, bat izan ditezela guziak; auek ere Gudan bat izan ditezela, Zuk bialdua naizela munduak siñistu dezan. <sup>22</sup> Eman zenidan argia Nik ere eman diet, Gu geran bezela bat izan ditezen. <sup>23</sup> Ni aienengan eta Zu Nigan, oso bat egiñik egon gaitezen, eta ezagutu dezala munduak Zuk bialdu nauzula, ta maite izan dituzula, Ni ere maite izan nauzun bezela. <sup>24</sup> Aita, nere-

tzat eman dizkidazunak ere, Ni nagon tokian egotea nai det; lurra egin baño lendik maite nauzulako, eman zenidan aintza ikus dezaten. <sup>25</sup> Aita zuzena, munduak etzaitu ezagutu, baño Nik ezagutu zaitut, eta auek ezagutu dute Zuk bialdua naizela. <sup>26</sup> Zure izena ezaguerazi diet eta ezagueraziko, Zuk didazun maitasuna aiengan egon dedin, eta Ni aiengan».

## XVIII

### Lotzen dute Jesus.

<sup>1</sup> Au esanda, Jesus bere ikasleekin Zedron-errekaz aruntza joan zan. Baratza zegon an, eta an sartu zan bere ikasleekin. <sup>2</sup> Judas, saltzailleak, ba-zekin ango berri, Jesus eta ikasleak ara maiz biltzen baitziran. <sup>3</sup> Beraz Judas, gerrari-sail bat eta Apaizburu ta pariseuen morroiak artuta, krisaillu, lastargi ta armak eskutan zitutela, ara joan zan. <sup>4</sup> Ordun Jesus, baitzekin gertatuko zitzaiona, aurre-ratu zan eta onela esan zien: «noren billa zabiltzate?» <sup>5</sup> Ta aiek, «Nazaret'eko Jesus'en billa». – «Ni naiz», erantzun zien. Judas, saltzaillea, aiekin zan. <sup>6</sup> Ni naiz esatean, atzeraka eginda lurrera erori ziran. <sup>7</sup> Berriro galdegin zien: «Noren billa zabiltzate?» – «Nazaret'eko Jesus'en billa». <sup>8</sup> – «Esan dizuet Ni naizela», erantzun zien Jesus'ek. «Beraz, nere billa ba'zatozte, utzi auei joaten». <sup>9</sup> Orrela gertatu bear zun Ark esana: *eman zenizkidan aietatik bat ez da galdu*. <sup>10</sup> Ordun Simon Pedro'k zeukan ezpata aterata, Apaiznagusiaren morroia jo ta belarria moztu zion. Morroi onen izena Malko. <sup>11</sup> «Sar zazu ezpata ori zorroan, esan zion Pedro'ri Jesus'ek. Aitak eman didan ontzikoa ez al det edango?»

### Anas'en eta Kaifas'enean.

<sup>12</sup> Ordun, gerrariak, agintariak eta juduen borroeroak, Jesus atzitu ta lotu egin zuten. <sup>13</sup> Leenbizi Anas'enera eramán zuten, Kaifas'en suaienera; <sup>14</sup> onek adierazi baitzien juduei: «obe da gizon bakarra il dedin, erri osoa galdu dedin baño».

<sup>15</sup> Simon Pedro ta beste ikasle bat Jesus'en atzetik asi ziran. Beste ikasle au Apaiznagusiak ezaguna zun, eta Jesus'ekin batean sartu zan Apaiznagusiaren atarira. <sup>16</sup> Bi tartean Pedro atalaurrean gelditu zan. Apaiznagusiak ezaguna zun beste ikasle ua, atera zan, atezaiari itzegin zion, eta Pedro sarrerazi zun. <sup>17</sup> Ordun, neskame gazte atezaiak, onela esan zion Pedro'ri: «ez al zera zu ere gizon orren ikasleetako bat?» – «Ez naiz», erantzun zion. <sup>18</sup> Mirabe ta borroeroak, su eginda berotzen ari ziran, otz ari baitziran. Pedro ere aiekin ari zan berotzen.

<sup>19</sup> Apaiznagusiak Jesus'i, ikasleen eta erakusten zuna-ren galde egin zion. <sup>20</sup> «Nik agerian itzegin diot munduari; beti Sinagogetan ari izan naiz eta Jauretxean erakusten, ara biltzen baitira judu guziak, eta gordean ez det ezer itzegin. <sup>21</sup> Galdegiezu entzun nautenai, zer erakutsi dedan: endo dakite zer esan dedan». <sup>22</sup> Au entzunda, borroetako batek masailleko bat eman zion Jesus'i, au esanez: «Au al da Apaiznagusi bati emateko erantzuna?» <sup>23</sup> – «Gaizki itzegin ba'det, erantzun zion Jesus'ek, ikus zertan; bañoan ongi itzegin ba'det, zergatik jotzen nauzu?» <sup>24</sup> Anas'ek Apaiznagusi Kaifas'engana bialdu zun loturik. <sup>25</sup> Artean Simon Pedro, berotzen ari zan. «Ez al aiz i, galdegin zioten, orren ikasleetako bat?» Ukatu ark: «ez naiz». <sup>26</sup> Apaiznagusiaren morroi batek – Pedro'k belarria moztu zion aren aide zan – ostera esan zion: «ez al indudan nik ikusi baratzen Orrekin?» <sup>27</sup> Pedro'k berriro ukatu. Bereala jo zun oillarrak.

**Jesus Pilatos'en aurrean.**

<sup>28</sup> Kaifas'enetik auzitegira eraman zuten Jesus. Oso goiz zan. Ala ere aiek etziran sartu auzitegian, Pazkoa jatekoan kutsurik ez eukitzeko. <sup>29</sup> Atera zan, bada Pilatos aiek zeuden tokira, ta au esan zien: «zertaz salatzen dezute gizon au?» <sup>30</sup> – «Gaiztagiña ez ba'litza, ez genizun loturik ekarriko». <sup>31</sup> – «Artu ta epaitu zazute zeron Legera, esan zien Pilatos'ek». – «Etzaigu zillegi guri, esan zioten juduak, iñor illaraztea». <sup>32</sup> Orrela gertabearra zan Jesus'ek esana, nolako eriotzez ilko zan adieraziz. <sup>33</sup> Berrero Pilatos auzitegira sartu zan. Jesus deitu zun, eta esan zion: «Juduen Errege al zaitugu?» <sup>34</sup> – «Zerorren gisa esaten al dezu ori, erantzun zion Jesus'ek, ala bestek esan dizu Nitaz?» <sup>35</sup> – «Judu al naiz ni? erantzun zion Pilatos'ek: Zure erriak eta Apaizak nere mende utzi zaituzte; zer egin dezu?» <sup>36</sup> – «Nere Errege-erria ez da mundu ontakoa. Nere erria mundu ontakoa ba'litz, nere aldekoak burruka egingo zuten, juduen eskuetara emana ez nendin; baña nere erria ez da emengoa». <sup>37</sup> – «Beraz Errege zaitugu? esan zion Pilatos'ek». – «Zuk esana, erantzun zion Jesus'ek. Errege naiz. Ni ontako jaio ta etorri naiz mundura: egiaren aitortle izateko. Egizale danak, nere mintzoa entzuten du». <sup>38</sup> – «Zer da egia?» esan zion Pilatos'ek. Au esanda, juduak zeuden tokira atera zan berrero. «Nik ez diot arkitzen auzigairik gizon oni, esan zien. <sup>39</sup> Bañan oitura dezute Pazkoaz bat libre uztea: utziko al det bere esku juduen Erregea?» <sup>40</sup> Aiek berrero oiuka: «au ez; Barrabas». Barrabas, orde, lapurra zan.

## XIX

**Zigorrak eta epaia.**

<sup>1</sup> Ordun Pilatos'ek artuta zigorraz egin zun. <sup>2</sup> Gero gudariak, arantzazko koroi bat eio zuten, buruan ipiñi, eta kapa gorri min bat jantzi zioten, <sup>3</sup> eta ondora etorrira. «agur, Juduen Errege!» esaten zioten, eta masallekoka ari zitzaizkion. <sup>4</sup> Berrero Pilatos'ek aterata au esan zien: «emen dakartzuet atarira, auzirakorik arkitzen ez diodala jakin dezazuten». <sup>5</sup> Atera zan Jesus, arantzazko burestunarekin eta kapa gorri gorriarekin. «Or dezute gizona», esan zien Pilatos'ek. <sup>6</sup> Apaiznagusi ta morroiak ikustean, «Gurutzerari ori! Gurutzerari!» oiugin zuten. Pilatos'ek esan: «Artuta josi zazute zerok Gurutzean. Nik ez diot iltzekorik arkitzen». <sup>7</sup> – «Guk ba-degu legea, erantzun zioten juduak, eta legez il-bearrekoa da, bere burua Jainkoaren Seme egin baitu». <sup>8</sup> Itz auek entzutean, Pilatos ere larritu zan. <sup>9</sup> Sartu zan auzitegira ta, «nongoa zera?» galdegin zion. Bañan etzion erantzun Jesus'ek. <sup>10</sup> Ordun Pilatos'ek: «ez al dakizu eskubide daukadala Zu libre uzteko, naiz illerazteko?» <sup>11</sup> Jesus'en erantzuna: «etzenuke nere gain eskubiderik, goitik emana ez ba'zenu. Beraz, zure eskuetara nau-nak, pekatu aundiagoa du».

<sup>12</sup> Ordu ezkerro Pilatos Ua nola askatu zebillen. Baña juduak oiuka: «au libre uzten ba'dezu, etzera Zesar'en adiskide. Bere burua Errege egiten duna, Zesar'en etsaia da. <sup>13</sup> Pilatos'ek, au aditzean, aterarazi zun Jesus kanpora, ta auzi-maiean eseri zan, Litostroto deritzan tokian, ebreoz Gataba. <sup>14</sup> Pazko bezpera zan, seirak inguru (\*). «Ona emen zuen Errege», esan zien Pilatos'ek juduai. <sup>15</sup> Aiek oiuka: «eriotza, eriotza orri! Gurutzerari!» – «Zuen Errege Gurutzerari?», esan zien Pilatos'ek. «Ez degu, esan zioten,



Zesar beste Erregerik», erantzun zioten Apaiznagusiak.  
<sup>16</sup> Ordun, Gurutzerako eman zien.

### Jesus gurutzean.

<sup>17</sup> Artu zuten Jesus, eta gurutzea bizkarrean zula, Kaskezur mendira atera zan, hebreoz Golgota. <sup>18</sup> An josi zuten gurutzean beste bi lagunekin alde banatara, ta Jesus erdian. <sup>19</sup> Pilatos'ek gurutze-buruan idatzitako agiria jarriazi zun. Idatzia au zan: «Nazaret'eko Jesus, juduen Errege». <sup>20</sup> Agiri au judu askok irakurri zuten, Jesus Gurutzatu-tokia erritik bertan baitzegon, eta hebreoz, latinëz eta griegoz idatzia zegon. <sup>21</sup> Juduen Apaiznagusiak Pilatos'i esatera joan zitzaizkion: «ez da komeni «Juduen Erregea» esatea; baizik ere, Berak esana zula: «Juduen Errege naiz». <sup>22</sup> «Dagona bego», esan zien Pilatos'ek. <sup>23</sup> Gudariak, Jesus Gurutzerara ondoren, Aren jantziak artuta lautan bakandu zituten, soldadu bakoitzarentzat bana. Soin-barrukoa ere artu zuten. Soin-barrukoa jostura gabea zan, goitik beera batean eioa. <sup>24</sup> «Ez dezagun zatitu, esan zioten alkarri; txotx egin dezagun norentzat». Onela gertatu zan Idatzia esana: *Nere jantziak beren artean banatu zituten eta nere soin-barrukoaz zotz egin zuten.* Gudariak ba, onela egin zuten.

### Jesus'en azken-itzak eta eriotza.

<sup>25</sup> Jesus'en Gurutze ondoan, zutik zeuden Aren Ama, ta aizpa Mari Keleofas, eta Mari Madalen. <sup>26</sup> Jesus'ek bere Ama ta maite zun ikaslea alkarrekin ikusita, «orra or zure semea» esan zion Amari; <sup>27</sup> eta gero ikasleari: «seme, orra or zure Ama». Ordu ezkerero, ikasleak bere etxean artu zun.

<sup>28</sup> Gero Jesus'ek, guzia bukatu zala jakinda, Idatzi-

takoa gerta zedin, au esan zun: «egarri nago». <sup>29</sup> Ba-zegon an baso bat ozpin, betea; esponja bat ozpiñetan busti, kañabera bati lotu, ta agora urbildu zioten. <sup>30</sup> Jesus'ek, ozpiña txurruptatzean, «au bukatu da» esan zun, eta, burua makur, azken-arnasa eman zun.

### Obiratzea.

<sup>31</sup> Jai-bezpera zan; larunbatean gorputzak Gurutzean gelditi etzitezzen –larunbat ori jai txiti aundia baitzan – juduak Pilatos'i eskatu zioten, belaunezurak ausi ta eratxi zetzatela. <sup>32</sup> Gudariak bada, etorri ta Arekin gurutzean zeudenai, lenengoari berna-egurak ausi zizkioten; gero bigarrenari; <sup>33</sup> Jesus'engana etorrita illa ikusi baitzuten, etzioten berna-egurak ausi; <sup>34</sup> baña gudari batek saietsa lantaz zulatu zion, eta bereala odola ta ura atera zitun. <sup>35</sup> Au ikusi zunak aitortu egiten du, ta testigutza au egia du. Ta berak ba-daki egia dala, zuek ere siñistu dezazuten. <sup>36</sup> Idatzitakoa gerta zedin egin zuten ori: *ez diozute ezurrik ausiko.* <sup>37</sup> Beste Idaztun batek au dio: *Begiratuko diote zulatzen dutenari.*

<sup>38</sup> Gero, Jesus'en ikasle zan Jose Arimatea'k –juduen bildurrez gordean bederik – Pilatos'i baimena eskatu zion Jesus'en gorputza jasotzeko. Eman zion Pilatos'ek. Etorrita jaso zun, bada. <sup>39</sup> Etorri zan Nikodemo ere, aurren-berri artan gauez etorri zitzaion ua. Onek, mirra ta altzibarra naaste ekarri zitun, eun libra inguru. <sup>40</sup> Artu zuten Jesus'en gorputza, ta gantzu-uriñak emanda, paxetan bildu zuten, obiratzeakoan juduak egiñ oi dutenez. <sup>41</sup> Gurutzatu izan zan tokian baratza zegon, eta baratzean ill-obi berri bat. Artean etzuten an iñor eortzi. <sup>42</sup> An sartu zuten, bada, Jesus, pesta bezpera zalako, ta ill-obia bertan zegolako.

## XX

**Ill-obia utsik.**

<sup>1</sup> Astearen leen-egunean, goizetik, oraindik illun zego-la, Mari Madalen ill-obira joan zan, eta arria ill-obitik alderatua ikusi zun. <sup>2</sup> Korrika Simon Pedro'ren eta Jesus'ek maite zun beste ikasle arengana joan zan, eta, «eraman dute Jauna ill-obitik esan zien, eta ez dakigu nun ipiñi duten». <sup>3</sup> Atera ziran Pedro ta beste ikaslea, ta iritxi ziran obira. <sup>4</sup> Biek korrika zijoazen, baña beste ikasle ura, Pedro bañon arriñagoa, leenik iritxi zan, aurrea artuta. <sup>5</sup> Makurtuta, paxak lurrean ikusi zitun, bañan ez zan sartu. <sup>6</sup> Iritxi zan Pedro ere atzetik, sartu zan, eta paxak lurrean ikusi zitun, <sup>7</sup> baita aurpegi-zapia ere; au paxakin ez-baña aparte bilduta zegon. <sup>8</sup> Ordun, ill-obira leenbizi iritxi zan ikaslea ere sartu zan, eta ikusi ta siñistu egin zun. <sup>9</sup> Izan ere etzituten ulertu Idatziak; illen artetik piztekoa zala. <sup>10</sup> Ikasleak atzera etxera itzuli ziran.

**Mari Madalen'i agertu.**

<sup>11</sup> Ala ere Mari, ill-obi ondoan gelditu zan negarrez. Negarrez makurtu zan obira; ta bi Aingeru ikusi zitun zuriz jantziak, <sup>12</sup> Jesus egon-tokian eserita, bata buru aldean, bestea onetan. <sup>13</sup> «Emakume, esan zioten, zeri negar egiten diozu?» – «Jauna eraman didate, erantzun zien, eta ez dakit nun ipiñi duten». <sup>14</sup> Au esanda, itzulirik, Jesus ikusi zun bertan zutik, bañan ez zan konturatu Ua zanik. <sup>15</sup> «Zer dezu negarrez, esan zion Jesus'ek; zeñen billa zabiltza?» – «Jauna, esan zion, baratza-zaia zalakoan, zuk aldatu ba'dezu, esaidazu nun jarri dezun, eta joangonaiz jasotzera». <sup>16</sup> «Mari!» esan zion Jesus'ek. Ark ezagututa «Raboni!» esan zion hebreoz, au da, Irakasle. <sup>17</sup> «Ez Ni ikutu, esan zion Jesus'ek, oraindik ez bainaiz igo

Aitagana. Baña zoaz nere anaien billa, ta esaiezu: «ba-noa nere ta zuen Aitagana, nere Jainko ta zuen Jainkoagana». <sup>18</sup> Mari Madalen joan zan, bada, Jauna ikusi zula ta zer esan zion ikasleai esatera.

**Ikasleai agertu.**

<sup>19</sup> Arratsalde berean, astearen leenean, ikasleak bildurik zeudela ta ateak, juduen bildurrez itxirik zeuzkatela, Jesus, etorrita erdian jarri zitzaien, ta: «Pakea zuei», esan zien. <sup>20</sup> Au esatean, eskuak eta saietsa erakutsi zizkien. Poztu ziran ikasleak, Jauna ikusita. <sup>21</sup> «Pakea zuei» esan zien berriro. «Aitak bialdu naun bezela bialtzen zaituet Nik ere». <sup>22</sup> Ondoren, arnas egin zien gañean, ta au esan zien: «Ar zazute Ispiritu Santua. <sup>23</sup> Pekatuak barkatzen dizkiezutenai, barkatuko zaizkie; eta loturik uzten dizkiezutenai, loturik geldituko zaizkie» (\*).

<sup>24</sup> Tomas, Amabietako bat, izenez Didimo, etzegin aiekin Jesus etortzean. <sup>25</sup> «Jauna ikusi degu», esan zioten ikasleak. Baña ark au erantzun zien: «Neronen begiz iltze-siñaleak ikusten ez ba'ditut, eta nere beatza iltze-zuloetan eta eskua saietsean sartzen ez ba'ditut, ez det siñistuko». <sup>26</sup> Andik zortzigarrenean, ikasleak berriro etxean zeuden, eta Jesus aiekin. Ateak itxirik zeudela, Jesus etorrita erdian jarri zitzaien. «Pakea zuei», esan zien. <sup>27</sup> Tomas'i gero: ««ekatzu onera beatz ori; begira nere eskuai: luza esku ori, ta sar zazu nere saietsean; eta siñisgogor ez-baña, siñistun izan zaitte». <sup>28</sup> «Nere Jaun eta Jainkoa!» erantzun zion Tomas'ek. <sup>29</sup> «Ikusi nauzulako siñistu dezu esan zion Jesus'ek. Doatsu dira ikusi ez eta siñistu dutenak».

<sup>30</sup> Beste mirari asko egin zitun Jesus'ek ikasleen aurrean, liburu ontan aitatzen ez diranak. <sup>31</sup> Auek ontarako ida-

tziak dira: Kristo, Jainkoaren Semea dala siñistu deza-  
zuten, eta, ori siñistuz, Aren izenean bizia dezazuten.

## XXI

**Tiberiades ondoan agertzen.**

<sup>1</sup> Oraindik gero, Jesus ikasleai Tiberiades itxas-ondoan agertu zitzaien. Onela agertu zan: <sup>2</sup> Simon Pedro, Tomas Didimo, Natanael Galilea Kanakoa, Zebedeo'ren semeak eta beste bi ikasle, alkarrekin zeuden. <sup>3</sup> Arrantzara noa, esan zien Pedro'k. Goazen zurekin, esan zioten. Joanda sartu ziran ontzian; baña gau artan etzuten ezer arrapatu. <sup>4</sup> Argitzean, Jesus ur-ertzean agertu zitzaien, bañan etzekiten Jesus zanik. <sup>5</sup> «Mutikoak! esan zien Jesus'ek: arrairik ba'dezute?» «Ez», erantzun zioten. <sup>6</sup> «Bota zazute sarea ontziaren eskubitara, esan zien, eta arkituko dituzute». Bota zituten, eta eziñ atera zuten sarea arrai pillez bete. <sup>7</sup> Ordun, Jesus'ek maite zun ikasle arek, «Jauna da» esan zion Pedro'ri. Simon Pedro'k, Jauna zala aditzean, gañekoa jantzita – jantzi-arin baitzegon –, itxasora salto egin zun. <sup>8</sup> Beste ikasleak ontzian zetozen, arrai-sarea arrastaka zutel; ertzetik berreun ukondo zeuden, ez geiago. <sup>9</sup> Legorrera ezkerro, txingar bizi pillo gañean arrai bat ikusi zuten; baita ogia ere. <sup>10</sup> «Ekarri onera, esan zien Jesus'ek, arrapatu dituzuten arrai bakarrak». <sup>11</sup> Igo zan Simon Pedro ontzira, ta sarea lurrera atera zun, eun ta berogeitamar arrai aundirekin. Guzi oiekin sarea ez zan leertu. <sup>12</sup> Jesus'ek esan zien: «etorri ta jan». Ikasleetan iñor ez añ ausartu «nor zera» galdetzen, baitzekiten Jauna zala. <sup>13</sup> Ordun Jesus urbildu zan, ogia artuta eman zien; berebat arraia ere. <sup>14</sup> Oraingoan irugarren aldiz agertu zitzaien Jesus ikasleai, illen artetik piztu ondoren.


**Pedro Elizaren buru.**

<sup>15</sup> Gosal-ondoan, Simon Pedro'ri Jesus'ek au esan zion: «Simon Joan'en semea, auek baño maiteago al nauzu?» «Bai, Jauna, erantzun zion: Zuk dakizu maite zaitudala». «Larra itzazu nere arkumeak», esan zion Jesus'ek. <sup>16</sup> Berriro galdegin zion: «Simon Joan'ena, maite al nauzu?» «Bai, Jauna, erantzun zion; ba-dakizu maite zaitudala». «Larra itzazu nere ardiak» esan zion Jesus'ek. <sup>17</sup> Irugarrenez galdetu zion: «Simon Joan'ena, maite nauzu?» Pedro goibel gelditu zan, iru aldiz «maite nauzu» galdegin ziolako (\*). Eta, «Jauna, erantzun zion: Zuk dana dakizu: ba-dakizu maite zaitudala». «Larratu itzazu nere ardiak, esan zion Jesus'ek. <sup>18</sup> Egi egiz esan: gazte ziñanean, gerrikoa jantzita noranai joan oi ziñan; zaartzean besoak zabalduko dituzu, beste norbaitek jantziko zaitu, ta nai ez dezun tokira eramango zaitu». <sup>19</sup> Onela adierazten zion nolako eriotzez Jainkoa goretsiko zun. «Jarrai neri», esan zion gero.

<sup>20</sup> Pedro'k burua itzulita, Jesus'ek maite zeukan ikaslea zetorrela ikusi zun, aparikoan Aren galtzarrean etziñik egon zana, eta, «Jauna, zeñek egingo dizu iruzur?» esan zion. <sup>21</sup> Ikustean, Pedro'k Jesus'i au esan zion: «Eta au zer? Jauna». <sup>22</sup> Jesus'ek erantzun: «Ni itzuli arte orrela egin dedin nai ba'det, zuri zer? Zuk jarrai neri». <sup>23</sup> Anaien artean otsa zabaldu zan, etzala ilko ikasle au. Baña Jesus'ek, ilko etzala ez-baña «Ni itzuli arte au emen egotea nai ba'det, zuri zer?» esan zion.

**Azkena.**

<sup>24</sup> Ikasle au da gertaera auen aitorle ta idazle. Ta guk ba-dakigu egizko aitorra dala. <sup>25</sup> Beste gauza asko egin zitun Jesus'ek. Bat-banako idatzi bear ba'lira, mundu osoa ez litzake aski, nik uste, idatzi danak barruan artzeko.




# APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK

KEREXETA'TAR JAIME'K BIZKAIERAZ EGIÑA

ETA

ZUGASTI APAIZAK GIPUZKERARA BIURTUTA



## APOSTOLUEN EGIÑAK

(Lukas Doneak idatzita)

### I

#### Sarrera.

<sup>1</sup> Len ere, nere Teofilo, Jesus'ek asieratik egin eta erakutsi zuanari buruz itzezin nuan, \* <sup>2</sup> Berak aukeratutako Apostolui Espiritu Santuaren bidez aginduak emanda, zerura jaso izan zan egunerarte. \* <sup>3</sup> Bere nekaldi-ondoren ere, Bere burua bizirik argibide askoz erakutsi zien, berrogei egunez ayei agertuaz eta Jaungoikoaren erreinuari buruz itzegiñaz.

#### Jesukristo'ren zerura igotzea.

<sup>4</sup> Eta azkenik, ayekin jaten ari zala, Jerusalem'dik ez irteteko agindu zien, baizik eta Aitak itz-emanen zai egoteko; itz-eman oyek -esan zien-, nere aotik entzun dituzute. \* <sup>5</sup> Izan ere, Jon'ek urez batayatu zuan; zuek, ordea, egun asko baño len, Espiritu Santuaz batayatuak izango zerate. <sup>6</sup> An bilduta zeudenak galdera au egiten zioten: «Jauna, aldi ontan berriztuko al dezu Israel'go erreinua?».

<sup>7</sup> Eta Ark (Jesus'ek) esan zien: «Ez dagokizute zuei Aitak bere eskubidez erabakita dauzkan denborak eta uneak jakitea. <sup>8</sup> Baño, zuen gañera etorriko dan Espiritu Santuaren almena artuko dezute, ta Jerusalem'en, Judea osoan, Samaria'n eta lurraren baztarretaraño ere, nere aitorle ta testigu izango zerate».

<sup>9</sup> Au esanda, ayen begien aurean goraka igotzen asi zan, eta odei batek ezkutatu zuan ayen begietatik. <sup>10</sup> Bera zerurontz zijoan artean, ayek Ari begira-begira zeudela, soñeko zuriz jantzitako bi gizon agertu zitzaizkien ondolan, <sup>11</sup> eta ala esan zien: «Galileatar gizonok! Zertan zaudete or zerura begira? Zuengandik zerurako jasoan izan zaitzuten Jesus ori, zerura joaten ikusi dezuten bezela etorri ere etorriko da».

<sup>12</sup> Orduan, Oliondo izeneko menditik Jerusalem'era biurtu ziran; Jerusalem'dik gertu dago-ta, larunbateko bidea, guztitara ere (\*). <sup>13</sup> Iritxi ziranean, Pedro ta Santiago ta Jon, eta Andres, Pilipe ta Tomas, Bartolome ta Mateo, Alfeo'ren Jakobo ta Simon Zelotes eta Jakobo'ren Judas zeuden goiko bizilekura igo ziran. <sup>14</sup> Guztiok gogo batez otoitzean iraun zuten, emakume batzuekin eta Jesus'en Ama Maria'rekin eta Jesus'en anayakin (senitartekoakin) batean.

#### **Matias aukeratzen dute.**

<sup>15</sup> Egun ayetan, eun da ogeiren bat lagun bilduta zeudela, Pedro'k anayen erdian zutiturik, ala esan zien: <sup>16</sup> «Anayok! Jesus arrapatu zutenen buru izan zan Judas'ekin, Dabid'en aoz Espiritu Santuak Idaztian artzaz esandakoa bete bearra zan. <sup>17</sup> Gutarra ta lanean gure laguna izanarren, <sup>18</sup> soro bat erosi zuan diru txarrez, eta bere burua urkaturik, erditik lertu zan, eta bere errai guztiak lurrean

zabalduta gelditu ziran. <sup>19</sup> Eta Jerusalem'en guztiak jakin zuten ori; eta orregatik, soro ari, beren izkuntzan Hazeldama, edo odol-soraa deritzayo. <sup>20</sup> Eresien liburuan idatzita dago-ta: Utsik bego ayen bizilekua, ta iñor ez bedi bizi an; eta aren egitekoa beste batek artu beza» (\*).

<sup>21</sup> Beraz, egoki da Jesus Jauna gure artean sartu ta irten zebillela, beti gurekin ibilli ziranetako norbait aukeratzera, <sup>22</sup> Jon'en batayotik asita Jesus gure artetik jasoa izan zan egunerarte gurekin egondakoa, Aren piztueraren aitorle gurekin batean izan dedin». <sup>23</sup> Eta bi aukeratu zituzten: Barsaba - Zuzena zeritzan Jose - ta Matias. <sup>24</sup> Eta otoitz egiñik, auxe esan zuten: «Guztien biotzak ezagutzen dituzun Jaun orrek, ager zaiguzu biotatik nor aukeratu dezun <sup>25</sup> apostolu-eginkizun eta lanbide au bere gain artzeko, Judas'ek, zegokion tokira joateko, bere erruz galdu zuan ezker». <sup>26</sup> Eta zotz eginda, Matias'i erori zitzaion, eta amaika apostoluakin alkartu zan.

## II

### **Espiritu Santuaren etorrera.**

<sup>1</sup> Pentekoste-egunean guztiak leku batean bilduta zeuden; <sup>2</sup> eta bat-batean, zerutik aize-boladarena bezelako burrundara sortu zan, eta ayek zeuden etxe guztia bete zuan. <sup>3</sup> Eta su-antzeko mingañoak ikusi zituzten, bakoitzaren gainean banatzen eta gelditzen zirala. <sup>4</sup> Eta guztiak Espiritu Santuz bete ziran eta beste izkuntzetan itzegiten asi ziran, Espiritu Santuak eragiten zienez (\*). <sup>5</sup> Eta Jerusalem'en eguzkipeko baztar guztietatik etorritako jaungoikozale asko arkitzen ziran. <sup>6</sup> Eta berri ori zabaldu zanean, jendea antxe bildu zan, eta bakoitzak norbere izkuntzan entzunik, arrituta zeuden. <sup>7</sup> Ikaratuta ta arrituta, onela

zioten guztiak: «Itzegiten duten guztiak ez al dira, ba, galilearrak? <sup>8</sup> Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak gure jatorriko izkuntzan? <sup>9</sup> Partiarrek, Mediatarrak, Elameitarrak, eta Mesopotomia'n, Judea'n, Kapadozia'n, Asia'n, <sup>10</sup> Frigia'n, Panfilia'n, Ejito'n eta Zirene-aldeko Libia'n bizi liran guztiak, Erromatar arrotzak, <sup>11</sup> Judar eta judartzaletuak, Kretarrak eta Arabiarrak, Jainkoa goratzen gure izkuntzetan ari dirala entzun diegu». <sup>12</sup> Guztiak arriturik eta kezkatu, alkarri ala esaten zioten: «Zeer da au?». <sup>13</sup> Beste batzuek, berriz, parrez ala zioten: «Ardoz beteak daude».

#### **Pedro'ren itzaldia.**

<sup>14</sup> Orduan, Pedro'k, beste amaikakin batean zutiturik, aotsa jaso ta auxe esan zien: «Judutar gizonok eta Jerusalem'en arkitzen zeraten guztiok! Jakin zazute auxe, ta nere itzak entzun itzazute. <sup>15</sup> Auek ez daude mozkortuta, zuek uste dezuten bezela, egunaren irugarren ordua danta (\*). <sup>16</sup> Baño ontan, Joel igarleak esandakoa gertatzen da: <sup>17</sup> «Azken-egunetan – dio Jainkoak – gizaki guztiak nere Espiritua ixuriko diet, eta zuen seme-alabak iragarri egingo dute; zuen mutillak ikuskizunak izango dituzte eta zuen zaarrak ametsak; <sup>18</sup> egun ayetan, nere morroi ta mirabeai nere Espiritua ixuriko diet, eta aurrez iragarri egingo dute. <sup>19</sup> Goyan, zeruan, mirariak eta bean, lurean, arrigarriak egingo ditut: odola, sua ta ke-mordoak. <sup>20</sup> Eguzkia illundu ta illargia odoldu egingo dira, Jaunaren egun aundi ta ospetsua etorri baño len. <sup>21</sup> Eta Jainkoaren izena aitortzen duana onik aterako da (\*). <sup>22</sup> Israel'go gizonok!, entzun itzok: Jesus Nazaretarra Jainkoak agertu dizute. Aren bidez zuen artean egin zituan mirariz, egite arrigarritz eta ezaugarritz, zeurok dakizutenez; <sup>23</sup> Jesus au, ba, Jainkoak ala erabaki ta aurrez zekianez, zuek artu ta gaiztoen eskuz gurutzean josi ta il egin dezute. <sup>24</sup> Baño, Jainkoak

berrero piztu ta eriotz-oñazeetatik askatu egin zuan, eriotzak ezin mendean euki bait-zezakean. <sup>25</sup> Dabid'ek onela dio Artzaz: «Jauna beti nere aurrean ikusten nuan, nere eskubi-aldean dago-ta, nik kolokarik egin ez dezadan. <sup>27</sup> Beraz, nere biotza pozez bete zan, eta nere mingaña alaitu egin zan eta nere aragiak itxaropenean izango du atsedean; <sup>27</sup> ez bait-du nere anima inpernuan utziko, ezta zure Santuak usteltzerik izan dezan ere ez dezu onartuko. <sup>28</sup> Bizitzako bideak erakutsi dizkidazu, ta zure aurpegiaz pozez beteko nauzu» (\*).

<sup>29</sup> Ene anayok!, argi ta garbi esan dezaitzuteket Dabid aitalena ilda dagoala ta obiratuta, ta aren illobia gaur arte gure artean dagoala. <sup>30</sup> Baño, igarle izanik, ba-zekian bere aulkian aren jatorriko bat eseriko zana, Jainkoak ziñ egin zionez. <sup>31</sup> Eta etorkizuna ikusirik, Kristo'ren piztuerari buruz auxe esan zuan: «Ez da inpernuan utzia izan, ezta usteltzerik ere ez du Aren aragiak ikusiko» (\*). <sup>32</sup> Jesus au berrero piztu du Jainkoak, eta gu guztiok gera, izan ere, aitorle ta testigu. <sup>33</sup> Beraz, Jainkoaren eskubi-aldera jaso izan dan ezkerro, eta Aitak agindutako Espiritu Santua artuta, Jesus'ek guri ixuri digu, zeurok ikusten eta entzuten dezutenez. <sup>34</sup> Ez da Dabid zerura igo dana; baidzik eta berak ala dio: «Nere Jaunari Jaunak diotsa: eseri zaitez nere eskubi-aldean, <sup>35</sup> zure etsayak oiñazpikotzat ipintzen dizkitzudan arte» (\*). <sup>36</sup> Beraz, Israel-etxeok guztiak jakin bezate benetan, zuek gurutzean josi dezuten Jesus au, Jainkoak Jaun eta Kristo egin duala» (\*).

#### **Itzaldiaren ondorenak.**

<sup>37</sup> Itzaldi au entzunda, biotzez damutu egin ziran, ta Pedro'ri ta beste apostolui esan zieten: «Anayok! Zeregin bear degu?». <sup>38</sup> Eta Pedro'k erantzun zien: «Damu zaitezte, ta artu beza batayoa zuetako bakoitzak, zuen

pekatuen barkamenerako Jesukristo'ren izenean; eta Espiritu Santuaren doaya artuko dezute. <sup>39</sup> Agintza au zuentzat eta zuen seme-alabentzat eta Jainko gure Jaunak dei egingo dien urrutietako guztientzat da-ta» (\*). <sup>40</sup> Beste itz askotan ere aitormen egiten zuan eta burubide au ematen zien; «Alde egizute gizaldi oker ontatik». <sup>41</sup> Eta esan zuana benetan artu zutenak, (\*) batayatuak izan ziran; eta egun artan iru millaren bat lagun alkartu zitzaizkien. <sup>42</sup> Eta apostoluen erakusbidean, senide-batasunean, ogi-zatitzean eta otoitzean zintzo irauten zuten. <sup>43</sup> Apostoluak Jerusalem'en mirari ta arrigarri asko egiten zituzten-da, guztiak bildurrez bete ziran. <sup>44</sup> Eta fededun guztiak bat ziran, eta zuten guztia guztientzat batean zeukaten. <sup>45</sup> Eta zituzten ondasunak salduta, ordaña guztien artean zabalitzen zuten, bakoitzaren bearkizunari zegokionez. <sup>46</sup> Eta egunero gogo batez elizara joaten ziran; eta etxeetan ogia zatiturik, alaitsu ta apalik, guztiok batera jaten zuten, <sup>47</sup> Jainkoa goratuaz eta erriaren ederra irabazirik. Eta salbatu bear ziranak, Jaunak egunetik egunera ugaritzen zituan.

### III

#### **Pedro'k erren bat sendatzen du.**

<sup>1</sup> Pedro ta Jon, alkarrekin elizara zijoazen, bederatzi-garren otoitz-orduan (\*). <sup>2</sup> Eta amaren sabeletik errena zan gizon bat lepoan eraman, eta egunero, Ederra izeneko ate-ondoan uzten zuten, elizan sartzen ziranai limosna eskatzeko. <sup>3</sup> Pedro ta Jon elizan sartzen ikusi zituanean, limosnatxo bat eskatu zien. <sup>4</sup> Pedro'k, Jon'ekin ari begiratuaz, onela esan zion: «Begira guri». <sup>5</sup> Eta ura begira-begira gelditu zitzayen, ayengandik zerbaít eskuratuko zualakoan. <sup>6</sup> Baño, Pedro'k auxe esan zion: «Ez urrerik, ez

zillarrik ez det; baño dedana emango dizut: Jesukristo Nazaretarraren izenean jaiki ta ibilli zaitea». <sup>7</sup> Eta eskubiko eskutik elduta, zutitu egin zuan. Eta bat-batean oiñak eta orpoak sendotu egin zitzaizkion. <sup>8</sup> Eta salto bat egiñaz, zutitu egin zan eta ibiltzen asi, eta elizan ayekin sartu zan, ibilliaz, saltoka ta Jainkoa goratzen. <sup>9</sup> Erri guztiak ikusi zuan ibiltzen eta Jainkoari goraka; <sup>10</sup> eta guztiak ezagutu zuten uraxe zala elizako Ate-Eder ondoan eserita egoten zan eskalea, ta gertatu zitzayonaz arritu ta txundituta gelditu ziran.

✠

#### **Pedro donearen bigarren itzaldia.**

<sup>11</sup> Eta ark (errenak) Pedro ta Jon eskutik elduta zeuzkala, erri guztia inguratu zitzayen, arrituta, Salomon'ena deritzan aterpera. <sup>12</sup> Eta Pedro'k, ori ikusita, erriari auxe esan zion: «Israeldarrok!; zergatik zaudete orrekin arrituta?; edo-ta, zergatik zaudete guri begira, gere indarrez edo gure errukiz gizon oni ibilpidea eman diogulakoan? <sup>13</sup> Abraham'en, Isaak'en eta Jakob'en Jainkoak, gure aurrekoen Jainkoak goratu du, zuek etsayen eskuetan utzi ta Pilatos'en aurrean, ark askatu nai zuanean, ukatu zenduten bere Semea Jesus.

<sup>14</sup> Zuek, ordea, Santu ta Zintzoa ukatu egin zenuten, eta gizon-iltzallea eman zezaitzutela eskatu; ta <sup>15</sup> biziaren iturburua il egin zenuten. Baño, Jainkoak illen artetik piztu egin du, ta orretzaz gu gera aitorle ta lekuko. <sup>16</sup> Eta Aren izenaren sinisgarritzat, ikusten eta ezagutzen dezuten gizon au Aren Izenak sendatu du, ta Argandik dan sinis-menak guztion aurrean osasuna eman dio.

<sup>17</sup> Ba-dakit, ordea, senideok, zuek eta zuen agintariak ezjakiñez egin zenutela ori. <sup>18</sup> Jainkoak, berriz, bere Kristo'a'k nekeak igaro bear zituala igarleen aoz esandakoa



orrelaxe bete du. <sup>19</sup> Beraz, damu zaitzete ta onbidera etorri, pekatuak kendu dakizkitzuten; <sup>20</sup> Jaunaren aldetik atsegin-egunak etorri ditezten eta lendik agindu izan zaizuten (Jesuskristo bidali dezan; <sup>21</sup> Jesus onek gauza guztiak berri-zeko garaya iritxi arte, lurraren asieratik izan diran bere igarle zintzoen aoz Jainkoak aspalditik esandako ordu ura etorri arte, zeruak egon bear du-ta.

<sup>22</sup> Moises'ek aurrez esan zuan: «Jaunak zuen anayen artetik igarle bat sortuko dizute, ni bezela; ark esango dituzten guztia entzun zazute. <sup>23</sup> Eta, alako igarle ari entzuten ez diona erriaren erditik aterea izango da» (\*). <sup>24</sup> Samuel'engandik asi ta gero itz egin duten igarle guztiak re, alako egunak iragarri dituzte. <sup>25</sup> Igarleen semeak eta gure aurrekoakin Jainkoak egindako Alkartasunaren semeak zerate zuek, Abraham'i Berak esan zionez: «Zure azian lurreko senitarte guztiak bedeinkatuak izango dira» (\*). <sup>26</sup> Zuei bidaldu dizute Jainkoak lenen bere Semea berriro piztuta gero, okerbideetik biurtzen ba-zerate, bedeinkatu zaitzaten».

#### IV

##### **Pedro ta Jon Batzar-lekuan.**

<sup>1</sup> Ayek erriari itzegiten ari zirala, apaizak, eliz-zaitzallea ta sadukeotarrak gañera etorri zitzaizkieten, <sup>2</sup> asarre bizian, ayek biak erriari erakusten ari ziralako ta Jesus illen artetik piztu zala aitortzen ziotelako. <sup>3</sup> Eta eskuak erantsita, biaramonerarte giltzapean sartu zituzten, illunabarra zan-da. <sup>4</sup> Baño, itza entzun zutenetako askok sinistu egin zuten; eta gizonezkoen taldea bost milla inguru-koa ba-zan. <sup>5</sup> Biaramonean, ayen nagusi, zaar eta iskri-

bauek Jerusalem'en bildu ziran, <sup>6</sup> baita apaiz nagusi Anas, eta Kaipas eta Jon, eta Alexander eta apaiz-salleko guztiak ere. <sup>7</sup> Eta Pedro ta Jon erdian artuta, ala galdetu zieten: «Nolako indarrez, edo-ta noren izenean egin dezute zuek ori?». <sup>8</sup> Orduan Pedro'k, Espiritu Santuaz beteta onela esan zien: «Erriko nagusi ta Isarrel'go zaarrok, entzun! <sup>9</sup> Gaxo baten osasuna dala-ta, norengatik sendatu, dan gaur galdetzen diguzuten ezkerok, <sup>10</sup> jakin zazute zuek, eta israeldar guztiak ere bai, zuek gurutziltzatu ta Jainkoak illen artetik piztu duan Jesu-Kristo Nazaretarraren izenean dagoala gizon ori zuen aurrean sendatuta. <sup>11</sup> Auxe (Jesu-Kristo) da bai, zuek, etxe-egilleok baztartutako arria, orain giltzarri biurtua. <sup>12</sup> Ta osasunik ez dago beste inorenengan, gizonai eguzkipean ez bait-zaye beste izenik eman, arengandik osasuna izan dezagun». <sup>13</sup> Pedro'ren eta Jon'en ausardia ikusirik, eta gizon ezikiak eta ezjakiñak zirala jakin zutenean, arritu egiten ziran; eta ezagutu zuten Jesus'en ikasle zirala. <sup>14</sup> Baño, sendatutako gizon ura ayekin zegola ikusirik, ezin zezatekean aurka ezertxo ere esan. <sup>15</sup> Eta ayei batzarretik alde egiteko aginduta, erabakitzen ari ziran, <sup>16</sup> esanaz: «Zer egingo ote diegu gizon auei? Izan ere, Jerusalem'go guztientzat agirian dago auek egin duten miraria, ta ezin dezakegu ukatu. <sup>17</sup> Ala ere, errian gero ta geyago zabaldu ez dedin, agindu dezayegun Izen ori ez dezayotela herriro inori ezertarako aitatu, ez orretzaz itzik egin». <sup>18</sup> Beraz, biyai deituta, agindu zieten ino-laz ez zezatela Jesus'en izenean ezer esan ez erakutsi. <sup>19</sup> Orduan Pedro'k eta Jon'ek crantzun eta esan zieten: «Zeurok ikusi zazute, Jainkoaren aurrean bidezkoago dan Jainkoarena baño zuen esana egitea; <sup>20</sup> geurok ikusi ta entzun deguna ezin dezakegu-ta ixillik euki». <sup>21</sup> Orduan ayek apostoluai gogor itzezin ondoren, bialdu egin zituzten, erriaren bildurratik zigortzeko biderik arkitu etzie-

telako; gertatu zanagatik guztiak Jainkoa goratzen ari bait-ziran. <sup>22</sup> Alako mirariz sendatutako gizona berrogei urtetik gorakoa zan.

#### Fededunen esker-otoitza.

<sup>23</sup> Eta beren buruak azke ikusi zituztencan, beretarretara biurtu ziran, eta apaiz-nagusiak eta zaarrak esandako guztia azaldu zieten. <sup>24</sup> Eta ayek (fededunak), ori entzutean, aotsa biotz batez Jainkoarengana jaso zuten, esanaz: «Jauna! Zu zera zerua ta lurra, itxasoa ta oyetako gauza guztiak egin dituzuna; <sup>25</sup> Zuk esan zenuan Espiritu Santuaren bidez, zure morroi ta gure asaba dan Dabid'en aoz: «Zergatik ari dira arrotzak orroka ta erriak uskerietan? <sup>26</sup> Lurreko erregeak jaiki ta nagusiak alkartu egin dira Jaunaren eta Aren Kristoa'ren aurka» (\*). <sup>27</sup> Izan ere, erri ontan Erodes eta Pilatos arrotzakin eta Israel'go erriarekin alkartu egin ziran, igurtzi zenduan zure Morroi Jesus donearen Izenaren aurka, <sup>28</sup> zure almenez eta hurubidez erabakita zegoana bete zedin. <sup>29</sup> Eta orain, Jauna, ayen zemarketak ikusi, ta emayezu zure morroyai zure itza argi ta zabal erakusteko kemena. <sup>30</sup> Zabaldu zure eskua, zure Morroi Jesus santuaren izenean sendaketak, mirariak eta arrigarriak egin ditezen». <sup>31</sup> Eta otoitz au egin zutenean, bilduta zeuden tokia dardarka asi zan; eta guztiak Espiritu Santuaz bete ziran, eta Jaungoikoaren itza bildur gabe zabalitzen zuten.

#### Fededunen batasuna.

<sup>32</sup> Sinistedun-taldearen biotza, berriz, bakarra zan; baita gogoa ta anima ere; eta ayetako batek ere etzuan esaten ezer berca zuanik; gauza guztiak guztientzat ziran, izan ere. <sup>33</sup> Eta Apostoluak Jesus Jaunaren piztuer a-

men aundiz aitortzen zuten, eta guztiengan grazia ugaria zan.

<sup>34</sup> Beartsurik etzan bat bakarrik ere ayen artean; jabe guztiak beren soro ta etxeak salduta, ordaña ekarri <sup>35</sup> ta Apostoluen ofetan uzten zutelako; ta bakoitzari bear aña andik ematen zitzaion. <sup>36</sup> Orduan, Apostoluak Barnabas (edo berdin dana. Atsegin-seme) izen-ordea ipiñi zioten Jose'k Txipre'n jayoa ta lebitar zanak, <sup>37</sup> berca zuan soro bat saldu ta ordaña ekarri ta Apostoluen ofetan utzi zuan.

## V

#### Ananias eta Safira.

<sup>1</sup> Ananias izeneko gizon batek, bere emazte Safira'rekin itzeginda, zelai bat saldu zuan; <sup>2</sup> eta, emazteak zekiala, artutako ordañetik zerbait gorde egin zuan; eta gañerakoa ekarri eta Apostoluen ofetan ipiñi. <sup>3</sup> Baño, Pedro'k esan zion: «Ananias, nola artu dizu Satanas'ek biotza, Espiritu Santuari gezurra esanaz, zelai-saritik zati bat gorde dezu-ta? <sup>4</sup> Saldu baño len ez al zenduan zurea?; eta salduta gero ere ez al zeneukan zere esku? Zergatik erabaki dezu, bada, orrelakorik zure biotzean? Ez diezu gizonai esan gezurra, Jainkoari baizik». <sup>5</sup> Itzok entzunda, erori eta il egin zan. Eta gertaera au entzun zuten guztiak bildur aundiz bete ziran. <sup>6</sup> Eta gazte batzuk jaikita, gorputza artu ta illobiratzera eraman zuten. <sup>7</sup> Eta iru ordu barru, aren (Ananias'en) emaztea ere sartu zan, zer gertatu zan jakin gabe. <sup>8</sup> Orduan, Pedro'k esan zion: «Esaidazu; zelai ori onenbestean saldu al zenduten?». Eta emakumeak: «Bai, onenbestean» erantzun zuan. <sup>9</sup> Orduan Pedro'k esan zion: «Zer dala-ta alkarri itz-eman diozute Jaunaren Espiritua-

ri gezurra esateko? Orra or ate-ondoan zure senarra obiratu dutenen oiñak; zu ere oyek eramango zaituzte». <sup>10</sup> Ta an bertan, aren (Pedro'ren) oiñetan erori ta il egin zan. Eta gazte ayek sartuta, emakumea ilda arkitu zuten; eta aterata, bere senarraren ondoan illobiratu zuten. <sup>11</sup> Eta eliza osoan bildur aundia sortu zan, baita gertatu ziranak entzun zituzten guztien artean ere.

### Eliza geitzen.

<sup>12</sup> Apostoluen eskuz errian mirari ta arrigarri asko eginen ziran. Fededunak Salomon-aterpean biltzen ziran, guztiak gogo batez. <sup>13</sup> Besteetako iñork etzuan ausardirik ayengana inguratzeko; baño, erriak goratu egiten zituan. <sup>14</sup> Jaunagan sinisten zuten lagun berriak gero ta geyago zetozen, gizon eta emakume. <sup>15</sup> Gaixoak ere, kaleetara aterata, zerraldo ta oyetan ipintzen zituzten, Pedro zetorrenean, onen itzalak bederen ayetakoren bat ikutu ta sendatu zezan. <sup>16</sup> Baita inguru-errietatik ere jende asko zetorren Jerusalem'era, gaxo ta etsai zikiñen mendekoak ekarriaz; eta ayek ere guztiak sendatu egiten ziran.

### Apostoluak berriro ere erasopean.

<sup>17</sup> Orduan, apaiz-nagusia ta bere alderdikoak – sadukeoak, noski – ikusi-eziñez bete ziran; <sup>18</sup> eta apostoluai eskuak erantsirik, erriko giltzapean sartu zituzten. <sup>19</sup> Baño, Jainkoaren aingeruak, gabez espetxeko atepak zabaldua, atera egin zituan, esanaz: <sup>20</sup> «Zoazte elizara, ta an erakutsi zayozute erriari bizibide oni dagokiona». <sup>21</sup> Ayek, ori entzunda, goizean elizan sartu ta erakusten asi ziran. Baño, apaiz-nagusia ta onen alderdikoak alkaturik, batzarra ta Israel'go zaar guztiak bildu zituzten; eta *morroyak* bialdu zituzten espetxera Apostoluak ekarri zitzen. <sup>22</sup> Morroyak ara (espetxera) iritxi ziranean, eta atea ideki,

etzituzten an billatu; ta bihurturik, berria eman zuten, <sup>23</sup> esanaz: «Espetxe guztia arretaz ondo itxia arkitu degu, baita ate aurrean zaitzalleak zintzo; baño, ateak zabaldu ondoren, iñor ez degu barruan arkitu». <sup>24</sup> Itzok entzunda, eliz-zaitzalleak eta apaiz-nagusiak zer izan zitekean kezketan jarri ziran. <sup>25</sup> Baño, norbaitek, etorrita, berri au eman zien: «Ara!; espetxean sartu zenituzten gizon ayek elizan dituzute erriari erakusten». <sup>26</sup> Orduan eliz-zaitzallea ara joan zan, eta ekarri zituan, ayei iñolako indarririk egin gabe; erriak arrika emango zien bildur bait-ziran. <sup>27</sup> Ekarririk zituztenean, batzarraren aurrean ipiñi zituzten; eta apaiz-nagusiak galde egin zien, esanaz: <sup>28</sup> «Izen ortan ez erakusteko agindu genizuten, agindu; eta Jerusalem osoa bete dezute zuen erakusketaz, eta gizon orren odola gure gañera erakarri nai dezute». <sup>29</sup> Baño, Pedro'k eta Apostoluak, erantzun eta ala esan zuten: «Bidezkoa da Jainkoaren esana, gizonena baño lenago egitea». <sup>30</sup> Zuek abetik zintzilik josi ta il zenduten Jesus piztu egin du gure Aitalenen Jainkoak. <sup>31</sup> Auxe goratu du bere eskuz Zuzendari ta Salbatzalletzat, Israel'i pekatuen damua ta barkamena emateko. <sup>32</sup> Gu gera esaten ditugun egi auen aitortle, eta, bere esanctara jartzen diranai Jainkoak eman dien Espiritu Santua ere bai». <sup>33</sup> Itzok entzunaz erreta, Apostoluak illerazteko asmotan zebiltzan.

### Gamaliel'en burubidea.

<sup>34</sup> Baño, Gamaliel zeritzan eta erri osoarentzat izen aundiko lege-maixu zan pariseotar batek, batzarrean zutituta, gizon ayek (Apostoluak) andik pixka baterako atera zitzatela agindu zuan; <sup>35</sup> eta *batzarkideai* ala esan zien: «Israeldarrok! Begira zazute, gero, gizon oyekin egin nai dezutena. <sup>36</sup> Ba-dakizute oraintsu arako Teudas ura jaiki zala bera norbait zala esanaz, eta lareunenbat gizonezko

bildu zitzaizkion; baño, ura il zutenean, aren jarraitzalleak sakabanatu ta galdu ziran. <sup>37</sup> Aren (Teudas'en) ondoren, Judas galilcatarra ere jaiki zan izendatze-egunean, eta erria bereganatu zuan. Ura ere galdu zan, eta aren jarraitzalle guztiak ere sakabanatuta gelditu ziran. <sup>38</sup> Beraz, oraingo ontan, auxe diotzute: ez ikutu gizon oyek; utzi zayezute pakean; burubide ta ekiñaldi au gizonena ba'litz, berez galduko da-ta; <sup>39</sup> baño, Jainkoarena ba'litz, ezin ondatu al izango dituzute; etzaitzela etsai gertatu». <sup>40</sup> *Gamaliel'en* iritzi au ontzat artu zuten. Eta Apostolui dei egiñik, zigorrez astindu ondoren, Jesus'en izenean itzik ere ez egiteko agindu zieten; eta azke utzi zituzten. <sup>41</sup> Ayek, ordea, pozik joan ziran batzar-lekutik, Jesus'en izenagatik lotsagarri gertatu ziralako. <sup>42</sup> Eta egunero elizan eta etxez-etxe Jesukristo ezagutu-erazten ari ziran eten gabe.

## VI

### Esteban. Zazpi aukeratuak.

<sup>1</sup> Egun ayetan, ikasleak geitzen ari ziralata, grezitarak ebreetarren aurka marmarrean asi ziran, eguneroko janaribanatzean ayen alargunak aintzat artzen etzituztelako (\*). <sup>2</sup> Beraz, amabi *Apostoluak*, ikasle guztiak bildurik, ala esan zieten: «Ez da egoki mai-lanarengatik guk Jainkoaren itza uztea. <sup>3</sup> Beraz, anayok, aukeratu itzazute zuen artean zazpi gizon, izen oneko ta Espiritu Santuaz eta seenez beteak, lan ori beren gain utzi dezagun. <sup>4</sup> Eta guk oitza gure gain bego eta itzaz egiteko lana». <sup>5</sup> Ta iritzi ori ontzat artu zuten batzarreko guztiak; eta sinistez eta Espiritu Santuaz betetako Esteban eta Pilipe, Prokoro, Nikanor, Timon, Parmenas eta Nikolas, Antiokia'ko jarraitzallea, aukeratu zituzten. <sup>6</sup> Auek Apostoluengana aurkez-

tu zituzten, eta Apostoluak otzoitz egiñaz, eskuak gañean ipiñi zizkieten. <sup>7</sup> Eta Jainkoaren itza zabaltzen ari zan, eta ikasle-salla asko geitzen zan Jerusalem'en; baita apaizetako asko ere siniste-mendera etorri ziran.

### Esteban langille zintzoa.

<sup>8</sup> Esteban'ek graziz eta indarrez beterik, mirari asko egiten zituan errian. <sup>9</sup> Orduan, Libertino zeritzan sinagogako batzuek Esteban'en aurka eztabaidan asi ziran; baita Zirene, Alexandri, Zilizi ta Asia'ko sinagogetakoak ere (\*). <sup>10</sup> Baño, aren (Esteban'en) izketako jakinduri ta espirituari ezin gogorrik egin zieten. <sup>11</sup> Orduan, gizonetzko batzuek erosi zituzten, Moises'en eta Jainkoaren kontra birao-itzak entzun zizkiotela esateko. <sup>12</sup> Ta erria, zaar eta ixkribauak axaxatu egin zituzten; eta berari eskuak erantsita, lotu ta batzarrera eraman zuten. <sup>13</sup> Eta gezurrezko lekuko (edo testigu) batzuek ekarri zituzten, eta ayek esan zuten: «Gizon au elizaren eta legearen aurka itzegiten ari da gelditu gabe. <sup>14</sup> Jesus Nazaretarrak toki au ondatu, ta Moises'ek emandako oiturak aldatu egingo dituala esaten geurok entzun diogu». <sup>15</sup> Orduan, batzarreko guztiak arengan (Esteban'engan) begiak josita, bere aurpegia aingeru-aurpegia bezelakoa agertu zitayen.

## VII

### Esteban'en itzaldia.

<sup>1</sup> Orduan apaiz-nagusiak ala esan zuan: «Orri orrela ote da?». <sup>2</sup> Ta ark (Esteban'ek) esan zuan: «Anai ta aitok, entzun: Jainko aundia agertu zitayon Abraham gure aitalenari, Mesopotami'n bizi zala, Karam'en bertako egin baño len, <sup>3</sup> eta ala esan zion: «Zure erritik eta senitarte-

tik irten, eta zatoz Nik erakutsiko dizudan lurraldera» (\*).<sup>4</sup> Orduan, Kaldea-lurraldetik irtenda, Karan'en gelditu zan, Eta andik, aren aita il ondoren, zuek orain bizi zeraten lur ontara ekarri zuan Jaunak.<sup>5</sup> Eta etzion oin beteko lur-zatirik ere beretzako eman; baño agindu bai, lur au ari ta aren ondorengoai emango ziela agindu zion, ordu-rarte semerik etzuan arren.<sup>6</sup> Baita beste au ere esan zion Jainkoak: «Zure ondorengoak atzerrian arrotz biziko dira lareun urtez mendean eta azpiratuta.<sup>7</sup> Eta menpetuko dituan erria Nik epaituko det. – esan zuan Jainkoak –, eta ondoren, andik irtenda, lur ontan mirabetuko nautte (\*).<sup>8</sup> Erdainkuntza-itumena\* ere eman zien; eta orrela, *Abraham'ek* Isaak sortu zuan, eta Jakob'ek amabi erri-gurasoak (\*).<sup>9</sup> Erri-gurasoak, ikusi-eziñez, Jose saldu egin zuten Ejito'ra; baño, Jainkoa arekin zegoan,<sup>10</sup> eta neke guztietatik atera egin zuan; Ejito'ko errege zan Faraon'enganako sarbidea ta jakinduria eman zizkion; eta Faraon'ek Ejito'ko ta bere etxe osoko buru jarri zuan.<sup>11</sup> Orduan, Ejito osoan eta Kanaan'en gosete aundia ta larrialdi negargarria sortu ziran; eta gure asabak etzuten jaktekorik.<sup>12</sup> Orduan, Jakob'ek Ejito'n janaria ba-zala entzunda, gure asabak ara bialdu zituan lenengo aldiz.<sup>13</sup> Bigarrenean, Jose bere anayai agertu zitzayen, eta *Faraon'ek* Jose'ren jatorria jakin zuan.<sup>14</sup> Orduan, Jose'k Jakob bere aita ta senitarte guztia eraman-erazi zituan, irurogei ta amabost lagun guztitara.<sup>15</sup> Beraz, Jakob Ejito'ra jetxi zan eta bera ta gure asabak ere antxe il ziran.<sup>16</sup> Eta gero, Sikem'era aldatu, ta Sikem'en zan Emor'en semeai Abraham'ek diruz erositako illobian sartuak izan ziran.<sup>17</sup> Baño, Jainkoak Abraham'i zin eginda agindutakoaren garaya urreratzen zala, Israel'go erria Ejito'n asko ugaritu

\* Erdainkuntza-itumena: pacto de la circuncisión.

zan,<sup>18</sup> Ejito'n Jose ezagutzen etzuan errege berri bat jaiki zan arte.<sup>19</sup> *Errege* onek, gure erriaren aurka maltzurkeri beltza eginda, gure asabak aurrean erabilli zituan, beren umetxoak utzierazirik, bizi etzitezzen.<sup>20</sup> Aldi artantxe jayo zan Moises, eta Jainkoarentzat atsegingarri izan zan; eta iru illebetz aitarenean azi zuten.<sup>21</sup> Baño, au ere arriskuan utzi zutenean, Faraon'en alabak semetzat artu zuan eta azi.<sup>22</sup> Eta Moises'i Ejitoarren jakintza guztiak erakutsi zizkion; eta itzez eta egitez altsua izan zan.<sup>23</sup> Baño, berrogei urte zituala, bere anai israeldarrak ikusteko gogo sortu zitzayon.<sup>24</sup> Eta *israeldar* bati bidegabekeria egiten ejitoar bat ikusirik, aren alde atera zan, eta ejitoarrai bizia kenduta, ari egindako bidegabekeria zuzendu egin zuan.<sup>25</sup> Uste izan zuan anayak igerriko ziotela Jainkoak aren bidez eman nai ziela askatasuna; baño ayek (anayak) etzuten igerri.<sup>26</sup> Biaramonean batzuek borrokan zebiltzala, ayen artean sartu zan, eta pakeak egiten sayatu zan esanaz: «Gizonak! Anayak zerate zuek; zergatik ari zerate alkarri gaizki egiten?». <sup>27</sup> Baño, lagun urkoai gaizki egiten zionak, *Moises'i* bultza egin zion, esanaz: «Nork ipiñi zaitu gure buru ta auzi-garbitzalle? <sup>28</sup> Ala, ni ere il egin nai ote nauzu, atzo Ejitoarra bezela?». <sup>29</sup> Orduan itzok entzunda, Moises'ek iges egin zuan, eta Madian'go lurraldean arrotz bizi izan zan, eta bi seme izan zituan an.<sup>30</sup> Eta berrogei urte igarota, Sinai mendiko basoan aingeru bat agertu zitzayon, sisi-sugar artean.<sup>31</sup> Ori ikusirik, Moises arrituta gelditu zan; eta begiratzeko inguratu zanean, Jaunaren aots au iritxi zitzayon:<sup>32</sup> «Ni naiz zure asaben Jainkoa: Abraham'en eta Isaak'en eta Jakob'en Jainkoa» (\*). Moises'ek, ordea, bildurraren bildurrez, begiratzeko ere kemenik etzuan.<sup>33</sup> Eta Jaunak onela esan zion: «Erantzi itzazu ofietakoak; zu zauden tokia lur santua da-ta.<sup>34</sup> Ikusi det, ikusi, nere erriaren larrialdia Eji-

to'n eta aren negar-zotiña entzun det, eta ayek askatzera jetxi naiz; zatoz, bada, ta Ejito'ra bidalduko zaitut». <sup>35</sup> Moises au, bada, «nork ipiñi zaitu gure buru ta auzi-garbitzalle?» esanaz, ayek ukatu zuten Moises au bialdu zien Jainkoak nagusi ta salbatzalle, sasian agertu zitzaion aingeruaren bidez. <sup>36</sup> Onetxek (Moises'ek) atera zituan Ejito'n eta Itxaso Gorrian eta basamortuan, berrogei urtez arrigarriak eta mirariak egiñaz. <sup>37</sup> Moises au da Israeldarrai esan ziena: «Ni bezelako igarle bat sortuko dizute Jainkoak zuen senitartetik; entzun zayozute ari». <sup>38</sup> Auxe da, basoan erria bilduta zegoala, Aingeruarekin Sinai-mendian itz egin zuana, ta gure aitalenakin bizi izan zana, ta bizitzadun itzak guretzat artu zituan. <sup>39</sup> Baño, gure aitalenak etzioten entzun nai izan; baizik eta zaputz egin zioten, eta biotzez Ejito'ra biurtu ziran, <sup>40</sup> Aaron'i esanaz: «Egizkiguzu jainkoak gure aurretik joan ditezen: Ejito'tik atera gaituan Moises orri zer gertatu zayon ez dakigu-ta». <sup>41</sup> Eta egun ayetan zekor bat egin zuten, eta irudi ari oparia eskeñi zioten, eta beren eskuz egin zutenaz pozik zeuden. <sup>42</sup> Orduan, Jainkoak alde egin zuan ayengandik, eta zeruko izarrak gurtzen utzi zituan, igarleen liburuan idatzita dagoanez: «Israel'go etxe!, berrogei urtez basamortuan erre-opariak\* eskeñi ote zenizkidan? <sup>43</sup> Eta Molok'en txabola ta zuen jainko Errenfan'en izarra artu zenituzten, zeurok egindako irudiak gurtzeko. Beraz, Babilonia baño aruntzago aldatuko zaituztet». <sup>44</sup> «Aitor-txabola\* gure aitalenakin basamortuan zegoan, Moises'i ikusi zuan ereduaren antzera, Jainkoak egiteko agindu ziona. <sup>45</sup> Eta gure aitalenak artu ta ekarri egin zuten, beren aurretik Jainkoak aizatutako errien jabe, Josue'ren

\* Erre-opariak: holocaustos.

\* Aitor-txabola: el Tabernáculo del testimonio.

agindupean jarri ziranean, Dabid'en egunerarte. <sup>46</sup> Onek (Dabid'ek) Jainkoaren begiak bete zituan eta Jakob'en Jainkoari aterpea billatzeko eskatu zuan. <sup>47</sup> Baño eliza egin ziona Salomon izan zan. <sup>48</sup> Ez da, ala ere, Altsua eskuz egindako aterpeetan bizi, igarleak dionez: <sup>49</sup> «Auxe dio Jaunak: Zerua da nere jarlekua, ta lurra nere oiñazpikoa. Zein etxe egingo didazute?, edo-ta, zein izango da nere atsegin-tokia? (\*). <sup>50</sup> Ez al ditu gauza guztiak nere eskuak egin, ala? <sup>51</sup> Lepagogor eta biotz-belarri erdaindu-gabeok; Espiritu Santuari gogor egiten diozute zuek beti; zuen gurasoak bezelakoak zerate zuek ere. <sup>52</sup> Zein igarle etzuten zuen gurasoak aurrean erabilli? Eta Zuzenaren etorrera iragarri zutenak il egin zituzten ayek; eta Zuzen au zuek ukatu ta il egin dezute orain. <sup>53</sup> Legea ere, aingeruen birtatez artu zenuten, eta etzenuten bete».

#### Esteban'en eriotza.

<sup>54</sup> Eta *Esteban'en* itzok entzutean, ayen biotzak amorrutuz eta ortzak karraskaz asi ziran Esteban'en aurka. <sup>55</sup> Baño, ark, Espiritu Santuaz beterik eta zerura begira, Jainkoaren aintza ikusi zuan, eta Jesus Jainkoaren eskualdean zutik. <sup>56</sup> Eta ala esan zuan: «Ara!, zeruak zabalik ikusten ditut, ta Gizasemea Jainkoaren eskualdean zutik». <sup>57</sup> Orduan ayek, karraxika, beren belarriak estali zituzten, eta guztiak batera aurka etorri zitzaizkion, <sup>58</sup> eta erritik kanpora atera, ta arrika eman zioten. Eta an testigu bildu ziranak, beren jantziak Saulo izeneko mutil baten onetan utzita, <sup>59</sup> Esteban'i arrika ematen zioten; eta onek oitoztzu au zion: «Jesus Jauna, ar zazu nere gogoa!». <sup>60</sup> Eta belunikaturik, deadarka esan zuan: «Jauna! Ez zayezu pekatu au egotzi!». Eta ori esanda, il egin zan. Ari emandako eriotza, berriz, Saulo'k ontzat eman zuan.

## VIII

**Saulo, Elizaren aurka.**

<sup>1</sup> Egun ayetan eraso aundia sortu zan Jerusalem'go Elizaren aurka; ta guztiak, Apostoluak izan ezik, Judea'ko ta Samaria'ko bazterraldeetara zabaldu ziran. <sup>2</sup> Baño, gizonetzko Jainkozale batzuek Esteban arduraz illobiratu zuten eta illeta aundiak egin zizkieten. <sup>3</sup> Bitartean Saulo eliza ondatzen zebillen, eta etxez-etxe sarturik, gizon eta emakumeak atera ta espetxera eramaten zituan. <sup>4</sup> Baño, zabaldu ziranak, ara ta onera zebiltzan, Itza (Berri Ona) erakusten (\*).

**Felipe Samaria'n.**

<sup>5</sup> Eta Felipe'k Samaria'ko errira jexita, angoai Kristoren berri eman zien (\*). <sup>6</sup> Eta guztiak gogo batez entzuten zuten Felipe'k ziena, egiten zituan mirariak ikusirik. <sup>7</sup> Eta etsaidun askorengandik deabru zikiñak deadarka iriteten ziran, eta elbarri ta erren asko sendatu egiten ziran. <sup>8</sup> Beraz, erri artan poz aundia izan zan. <sup>9</sup> Simon izenekoa bat bizi zan an, len azti-gayetan lana egindakoa; ta Samaria erria zoraturta zeukan, bera aundizki bat zala esanaz. <sup>10</sup> Guztiak, aundizki ta txiki, adi-adi egoten zitzaizkion, eta ala esaten zuten: «Auxe da aundia deritzan Jainkoaren indarra!». <sup>11</sup> Eta ari begira zeuden, bere aztikeriz aspaldidanik zorabiatuta zeuzkan-da. <sup>12</sup> Baño, Felipe'k erakusten zien Jainkoaren Erreiñua ta Jesukristo'ren izena sinistu zutenean, guztiak, gizon eta emakume, batayoa artzen zuten. <sup>13</sup> Orduan, Simon'ek berak ere sinistu zuan; eta batayoa artuta, Felipe'ren jarraitzalle egin zan. Eta egiten ziran mirari ta arrigarri aundiak ikusita, ikaraturik zegoan,

**Pedro ta Jon Samaria'n.**

<sup>14</sup> Jerusalem'en zeuden Apostoluak, Samaria'k Jainkoa'ren itza artu zuala entzun zutenean, Pedro ta Jon bidaldu zizkieten ara. <sup>15</sup> Eta auek iritxi ziranean, ayen (Samarriarren) alde otoitz egin zuten, Espiritu Santua artu zezaten. <sup>16</sup> Oraindik ayetako inorenkana ez bait-zan etorri; Jesus Jaunaren izenean batayoa artzea besterik etzuten egin. <sup>17</sup> Orduan, eskuak gañean ipiñi zizkieten, eta Espiritu Santua artu zuten (\*). <sup>18</sup> Simon'ek, Apostoluen esku-ipintzeaz Espiritu Santua ematen zala ikusirik, dirua eskeñi zien, (\*) <sup>19</sup> esanaz: «Neri ere almen ori emaidazute, eskuak gañean nik ipintzen dizkiodanak ere Espiritu Santua ar dezan». <sup>20</sup> Baño Pedro'k ala esan zion: «Galdu zaitez zere diruarekin; Jainkoaren doaya diruz irixten dala uste izan dezu-ta. <sup>21</sup> Ez dezu zuk ez eskubiderik ez egitekori arazo ontan; zure biotza ez bait-da zuzena Jainkoaren aurrean. <sup>22</sup> Damutu zaitez, bada, zure gaiztakeri orretzaz; eta egiozu otoitz Jainkoari, zure biotzeko asmo txar ori barka dezaizun; <sup>23</sup> beazun mikatzez beterik eta gaiztakeri-katez lotua ikusten zaitut-eta». <sup>24</sup> Orduan, Simon'ek erantzun eta esan zuan: «Otoitz egiozute zuek Jainkoari nere alde, esan dezutenetik ezer gerta ez dakidan». <sup>25</sup> Ondoren, Jauna aitortu ta Aren itza zabaldua, Jerusalem'era biurtu ziran, Berri Ona baserri askotan zabalduaz.

**Felipe Etiopia'n batayoa ematen.**

<sup>26</sup> Jaunaren Aingeruak itzezin zion Felipe'ri, esanaz: «Jeiki zaitez eta zoaz egoalderuntz, Jerusalem'dik Gaza'ra jeisten dan mendi-bidera». <sup>27</sup> Eta altxa ta an joan zan. Eta Etiopia'ko erregiñ Kandare'ren inguruko gizon iren (eunu-

co) bat, aren ondasun guztien arduraduna, arkitu zuan, Jainkoa gurtzera Jerusalem'era etorria; (\*)<sup>28</sup> ta atzera etxera zijoan bere gurdian eserita, Isaias'en idaztia irakurtzen.<sup>29</sup> Eta Espirituak Felipe'ri esan zion: «Urreratu zaitez azkar gurdi ortara». <sup>30</sup> Felipe'k gurdia inguraturik, Isaias Igarlearena irakurtzen ari zala entzun zion: eta au esaten dio: «Irakurtzen ari zeran ori ulertzen ote dezu, gero?». <sup>31</sup> Ark erantzun zion: «Nola ulertuko det, bada, inork azaltzen ez ba'dit». Eta Felipe'ri, igotzeko ta berarekin exertzeko eskatu zion. <sup>32</sup> Irakurtzen ari zan zatia auxe zan: «Ardia bezela eriotzera eraman zuten; eta motxallearen aurrean bildots ixillak bezela, etzuan aorik zabaldu. <sup>33</sup> Aren auzia lotsagarri erabaki dute. Nork azalduko du Aren jatorria? Bere bizia lurretik kendua izango da-ta?» (\*). <sup>34</sup> Orduan gizon irenak Felipe'ri itzegiñez, ala esan zion: «Igarleak ori norengatik dio? esaidazu arren; bere buruagatik ala beste norbaitegatik?» <sup>35</sup> Eta Felipe'k bere aoa ideki, eta atal onetarik asita, Jesus'en berri eman zion. <sup>36</sup> Eta bidean aurrera zijoaztela, ura zegon toki batera itxi ziran eta gizon irenak diotsa: «Ona emen ura; zerk galerazten du ni batayatzee?». <sup>37</sup> Eta Felipe'k erantzun zion: «Biotz-biotzez sinisten ba'dezu, ezerk ere ez». Ark erantzun eta esan zion: «Sinisten det Jesukristo Jainkoaren Semea dala». <sup>38</sup> Eta gurdia gelditzeko agindu zion. Eta biak, Felipe ta gizon irena uretara jetxi ziran, eta Felipe'k batayoa eman zion. <sup>39</sup> Baño uretatik atera ziranean, Felipe Jaunaren Espirituak eraman zuan, eta arrezkero etzuan geyago ikusi gizon irenak; eta bidean alai joan zan. <sup>40</sup> Felipe, berriz, Azoto'n arkitu zan, eta andik Zesarea'ra joan zan, Jesu-Kristo'ren Berri ona erri guztietan erakusten zuala.

## IX

**Saulo'ren onbideratzea.**

<sup>1</sup> Baño Saulo, Jaunaren ikasleen aurka zemaketak eta eriotza zeramazkila, apaiz-nagusiarengana joan zan, <sup>2</sup> eta Damasko'ko sinagogentzat agiriak eskatu zizkion; kide ontakorik inor billatzen ba'zuan, guztiak, gizon eta emakume, lotuta, Jerusalem'era ekartzeko. <sup>3</sup> Beraz, bidean zijoala, Damasko-ondora iritxi zan; eta bat-batean, goiko dizdira argitsuz inguratuta gelditu zan. <sup>4</sup> Eta, lur-jota, aots bat entzun zan, ari esaten: «Saulo, Saulo!, zergatik erasotzen nauzu?». <sup>5</sup> Ta erantzun zion: «Nor zaitut zu, Jauna?». Ta Jaunak: «Zuk erasotzen dezun Jesus naiz ni; gogor zaizu eztenari ostikola ibiltzea». <sup>6</sup> Ark (Saulo'k) dardaraka ta ikaratuta, onela esan zion: «Jauna, nik zer egitea nai dezu?». Eta Jaunak ala esan zion: «Jaiki zaitez eta sartu errira; an esango dizute egin bear dezuna». <sup>7</sup> Aren bidelagunak arrituta zeuden, aotsa entzun bai, baño inor ikusten etzutelako. <sup>8</sup> Orduan, jeiki zan Saulo lurretik; baño, begiak zabalduarren etzuan inor ikusten. Beraz, eskutik artuta, Damasko'ra eraman zuten. <sup>9</sup> Eta iru egunetz ikusten etzuala egon zan; eta etzuan ez jan, ez edan. <sup>10</sup> Ananias izeneko ikasle bat ba-zan Damasko'n; oni Jaunak irudimenez ala esan zion: «Ananias». Onek, «Emen naukazu, Jauna» erantzun zion. <sup>11</sup> Eta Jaunak ari: «Jaiki ta zoaz Zuzena deritzan kalera, ta galde zazu Saulo Tarso-tarras, Juda'renean; otoitzean ari da; <sup>12</sup> eta (Saulo'k) Ananias izeneko gizon bat ikusi zuan irudipenez berarengana joaten eta eskuak berari ematen, ikusmena artu zezan». <sup>13</sup> Baño Ananias'ek onela erantzun zion: «Jauna, askori entzunda nago, gizon orrek Jerusalem'en zure zintzoai egin dizkien kalteak; <sup>14</sup> eta emen bertan ere zure izenpean dauden guztiak atxitzeko ta lotzeko eskubidea artua du



apaiz-nagusiengandik». <sup>15</sup> Eta Jaunak berriz: «Zoaz; atzerriai, erregeai ta Israel'go semeai nere izena agertzeko langille aukeratua daukat-eta ori. <sup>16</sup> Nik jakineraziko dizkiot nere izenagatik artu bear dituan nekeak». <sup>17</sup> Joan zan, bada, Ananias eta etxean sartu zan; eta eskuak aren gainean zabaldua, esan zion: «Saulo, nere anaya! Onerakcan bidean agertu zaizun Jesus Jaunak bidalduta nator-kizu, ikusmena ar dezazun, eta Espiritu Santuz bete zaitzen». <sup>18</sup> Eta bat-batean, ezkama bezelako batzuk erori zitzaizkion begietatik, eta berriro ikusten asi zan. <sup>19</sup> Eta jan zuanean, indartu zan. Eta egun batzuetan Damasko'ko ikasleakin egon zan.

#### Sauloren lenengo lanak.

<sup>20</sup> Eta bereala, Jesus Jainkoaren Semea zala erakusten asi zan sinagogetan. <sup>21</sup> Eta entzule guztiak, arrituta, ala zioten: «Ez al da, bada, au izen orren alderdikoak Jerusalem'en astintzen zituana, ta emengoak ere lotuta, apaiz nagusiarengana eramateko etorri zana?». <sup>22</sup> Saulo'k, ordea, Damasko'ko judutarrak gero-ta sendoago ta gogorrago lotsetzen zituan, «Au Kristo da» esanaz. <sup>23</sup> Eta aldi luzea igarota gero, judutarrak ura iltzea erabaki zuten. <sup>24</sup> Bañe ayen maltzurkeriak ezagutu egin zituan Saulo'k. Eta gau ta egun atezai zeuden ura iltzeko. <sup>25</sup> Orduan ikasleak ura (Saulo) gabaz arturik, ormetatik beera otar batean sartuta jetxi zuten. <sup>26</sup> Eta Saulo Jerusalem'era iritxi zanean, ikasleakin bat egin nairik zebillen; baño, guztiak bildur zioten, ura ikasle zanik ez bait-zuten sinisten oraindik. <sup>27</sup> Orduan, Barnabas'ek Saulo artu ta Apostoluen aurrera eramane zuan; eta bidean Jauna ikusi zuala ta Jaunak esan zizkion itzak ere agertu zizkien, baita Jesus'en izenean Damasko'n lanari kementsu ekin ziola ere. <sup>28</sup> Arrezkero, Jerusalem'en arekin ibilli zan, sartu ta irten; eta Jaunaren

izenean bildur gabe itzegiten zuan (\*). <sup>29</sup> Grezitarrakin ere eztabaidak izaten zituan (\*); eta auek ura iltzeko asmoa zebilkiten. <sup>30</sup> Eta anayak ori jakinda, Zesarea'ra eramane eta andik Tarso'ra bidaldu zuten.

#### Pedro Lidia'n eta Jope'n.

<sup>31</sup> Eliza, berriz, Judea osoan, Galilea'n eta Samaria'n pakean zegoen, eta azitzen ari zan, Jainkoaren bildurrean ibilliaz, eta Espiritu Santuaren pozez beterik. <sup>32</sup> Pedro guzti-ai ikustaldia egiten zebillela, Lidia'n bizi ziran zintzoengana ere joan zan. <sup>33</sup> Eta zortzi urtez oyeane zegoen Eneas izeneko gizon bat arkitu zuan an, elbarria zandana. <sup>34</sup> Eta Pedro'k esan zion: «Eneas, Jesu-Kristo'k sendatzen zaitu; jeiki zaitetz eta zerorrek egin zazu zere oya». Eta Eneas bat-batean jeiki egin zan. <sup>35</sup> Lidan ta Saronan bizi ziran guztiak ikusi zuten, eta Jaunarengana biurtu ziran. <sup>36</sup> Jope'n ere, Tabita, edo berdin dana, Basauntz izeneko emakume bat bazan, egiten zituan lan on eta limosnaz be-tea. <sup>37</sup> Eta egun aycetan gaxotu ta il egin zan; eta gorpuzta garbitu ta gantzutu ondoren, etxeko goi-gela batean ipiñi zuten. <sup>38</sup> Lidia Jope-ondoan dago, ta ikasleak Pedro antxe zala entzunda, bi gizon bidaldu zizkieten, eskari au egitera: «Zatoz lenbaitlen gurera». <sup>39</sup> Orduan, Pedro jeiki ta ayekin joan zan. Ara iritxi zanean, goiko gelara eramane zuten; eta andre alargun guztiak inguratutik, Basauntzek, ayekin bizi zala, egiten zizkien soñekoak eta jantziak erakusten zizkieten. <sup>40</sup> Pedro'k guztiak bialdu ondoren, belauniko otoitz egin zuan; eta gorputzarengana inguratutik, auxe esan zion: «Tabita, jeiki zaitetz!». Eta, arek begiak zabaldu zituan; eta Pedro ikusirik, eseri egin zan. <sup>41</sup> Eta Pedro'k berari eskua emanda, zutitu egin zuan; eta zintzo ta andre-alargunai deituta, bizirik biurtu zien. <sup>42</sup> Jope osoan jakin zan gertaera au; ta askok sinistu zu-

ten Jaunagan. <sup>43</sup> Pedro, berriz, egun askotan gelditu zan Jope'n, Simon izeneko larrugin baten etxean.

## X

### Aingerua agertzen zayo Kornelio eunburuari.

<sup>1</sup> Zesarea'n ba-zan gizon bat, Kornelio izenez, Itatika zeritzan gudari-salleko euntaria; <sup>2</sup> Jainkozalea ta Jainkoaren bildurrekoa zan bere etxeko guztiakin; erriari limosna asko egiten zizkion, eta Jainkoari beti otoitzka ari zitzayon. <sup>3</sup> Onek, bada, egunaren bederatzigarren orduan-edo, irudipenez Jainkoaren aingerua argiro ikusi zuan bere gelan sartu ta ziotsala: «Kornelio!». <sup>4</sup> Kornelio'k, aregana begira-begira, eta bildurrez beterik onela esan zion: «Zer da, Jauna?». Ta aingeruak: «Zure otoitzak eta limosnak Jainkoarenganaño igo dira, zure oroigarritzat». <sup>5</sup> Orain, beraz, bidali zazu norbait Jope'ra, arako Pedro izeneko Simon'en billa; <sup>6</sup> Pedro au, etxea itxas-ondoan daukan Simon larrugin batenean dago ostatuz; aretxek esango dizu zer egin bear dezun». <sup>7</sup> Itzegin zion aingeruak alde egin zuanean, *Kornelio'k* bi morroiri ta bere mendeko gudari jainkozale bati dei egin zien; <sup>8</sup> eta gertatutakoa ayei agerturik, Jope'ra bidaldu zituan.

### Pedro'k Jope'n ikusi zuana.

<sup>9</sup> Biaramonean, ayek bidez-bide errira urreratzen ari ziralara, etxegañeko solairura igo zan Pedro otoitz egitera, seigarren ordu inguruan (\*). <sup>10</sup> Eta gosetu zanean, zerbait artu nai izan zuan; ateratzen zioten bitartean, zorabiatuta gelditu zan. <sup>11</sup> Eta zerua zabalik ikusi zuan, baita izara aundi antzeko zerbait ere, lau muturretatik elduta zerutik lurrera jeisten. <sup>12</sup> Zorro artan, ba-ziran era guztietako piz-

tjak: lau-oñeko abereak, narraztiak, eta zeruko egaztiak. <sup>13</sup> Eta aots bat entzun zuan, ziotsala: «Pedro!; altxa zaitetz, eta ill eta jan zazu». <sup>14</sup> Baño, Pedro'k esan zuan: «Ez orrelakorik, Jauna; gauza loi ta zikiñik ez det egundaño jan-da». <sup>15</sup> Eta aotsak berriro bigarren aldiz ari: «Jainkoak garbitu duna zuk ez loitzat artu». <sup>16</sup> Bigarren aldiz ere orixe bera gertatu zan; eta izara bezelako ura be-reala zerura biurtu zan. <sup>17</sup> Pedro, ikuskizun au zer izan zitekean buruausten zebilela, ara, Kornelio'k bidaldutako gizonezkoak, Simon'en etxea billatuta gero, an ate-aurrean zeuden. <sup>18</sup> Eta dei eginda, izenordez Pedro zeritzan Simon ostatuz an zegoan galdetu zuten. <sup>19</sup> Bitartean, Pedro ikuskizuna ausnartzen ari zala, Espirituak onela esatu zion: «Begira; iru gizonezko dituzu or zure billa. <sup>20</sup> Jeiki, bada; jetxi zaitetz eta joan oyekin kezkarik gabe, Nik bidaldu dizkitzut-eta». <sup>21</sup> Orduan Pedro'k, Kornelio'k bidaldutako gizonezko ayengana jtxita, ala esan zien: «Ona emen ni; ni naiz zuek billatzen dezutena. Zer dala-ta etorri zerate?». <sup>22</sup> Ayek au esan zioten: «Kornelio eunburuak, gizon zintzo ta Jainkoaren bildurrekoak eta judutarren erri osoaren aurrean ezagunak, zuri bere etxera dei egiteko ta zuk esaten diozuna entzuteko agindua artu du, zeruko aingeru santu baten bidez». <sup>23</sup> Orduan Pedro'k sarrerazi ta berekin artu zituan; eta biaramonean, jeiki ta ayekin joan zan; eta Jope'ko anai batzuk ere ariekin joan egin ziran.

### Pedro Kornelio'ren etxean.

<sup>24</sup> Biaramonean, Zesarea'n sartu zan *Pedro*. Kornelio, berriz, aren zai zegon, bere senide ta adiskiderik aundicnai dei eginda. <sup>25</sup> Eta Pedro sartu zanean, Kornelio bidera irten zitzayon, eta oiñetaraño auzpezturik, agur egin zion. <sup>26</sup> Baño Pedro'k jaso egin zuan, esanaz: «Altxa zaitetz, ni

ere gizona naiz-ta». <sup>27</sup> Arekin izketan, etxera sartu zan, eta an lagun asko arkitu zituan bilduta; <sup>28</sup> eta onela itzegin zien: «Ba-dakizute judutarrak galerazia daukatela atzerrikoakin biltzea ta alkartzea; baño, Jainkoak erakutsi di iñor ere loitzat eta zikintzat ez artzen. <sup>29</sup> Orregatik, bada, dei egin didatenean, etorri egin naiz iñolako kezkarik gabe. Orain, bada, esaidazute: zertarako dei egin didazute?» <sup>30</sup> Eta Kornelio'k au erantzun zion: «Lau egun dira gaur, bederatzigarren orduan, (\*) nere etxean otoitz egiten ari nitzala; eta ontan, zuriz jantzitako gizonezko bat aurrez-aurrez jarri zitzaidan, <sup>31</sup> eta ala esan zidan: «Kornelio, zure otoitzak entzun ditu Jainkoak eta zure limosnak aintzat artu ere bai. <sup>32</sup> Bidaldu zazu, bada, norbait Jopé'ra, izen-ordez Pedro dan Simon'i dei egitera; au, etxea itxas-ondoan daukan Simon larrugiñarenean dago ostatuz». <sup>33</sup> Orregatik, bereala bidaldu ditut zure billa; eta zuk etortzeaz ondo egin dezu. Orain, bada, zure aurrean gaude emen guztiok, Jaunak agindu dizun guztia entzuteko».

#### Pedro'ren itzaldia.

<sup>34</sup> Orduan, Pedro'k bere aoa zabaldu ta onela itzegin zuan: «Benetan ezagutzen det Jainkoak norkeririk ez duela; <sup>35</sup> baizik eta, edozein erritan, Aren bildur dana ta zuzen dabillena, atsegin zayola. <sup>36</sup> Jainkoak Israel'go semeai bere Itza (Berri Ona) bidaldu zien, guztien Jauna dan Jesu-Kristo'ren bitartez pakea agerturik. <sup>37</sup> Ba-dakizute zer gertatu zan, Galilea'n lenbizi ta Judea osoan gero, Jon'ek erakutsitako batayo-ondoren: <sup>38</sup> Jesus Nazaretarra, Jainkoak Espiritu Santuz eta indarrez igurtzi zuala, eta en egiñaz eta etsayak menperatutako guztiak sendatuaz igaro zala, Jainkoa Arekin zegoalako. <sup>39</sup> Ark judutarren lurretan eta Jerusalem'en egindako guztien lekuko ta testigu gu gera. Ayek, berriz, abe batetik zintzilik, bizia kendu

zioten. <sup>40</sup> Baño, irugarren egunean Jainkoak piztu egin zuan, eta agerian azaltzea nai izan zuan; <sup>41</sup> baño ez erri guztiari, guri baizik, Jainkoak lendik aukeratutako aitorleai, ta Ura illen artetik piztuta gero, Arekin jan eta edan egin degunoi. <sup>42</sup> Ura (Jesu-Kristo) illen eta bizien epaille Jainkoak ipiñia dala erriai erakusteko ta aitortzeko agindu zigun. <sup>43</sup> Aren sinistedun guztiak, pekatuaren barkamena Bere izenean artzen dute, igarle guztien aitormenez».

#### Espiritu Santua jeixten zaye.

<sup>44</sup> Eta Pedro itz auek esaten ari zala, entzule guztien gañera Espiritu Santua jetxi zan. <sup>45</sup> Atzerritarren gañera ere Espiritu Santuaren doaya zeriola ikusita, Pedro'rekin etorri ziran erdaindatutako fededun guztiak arriturik zeuden; (\*) <sup>46</sup> ayei ere arrotzen izkuntzetan itzegiten eta Jainkoa goratzen entzuten zien-da. Orduan, Pedro'k auxe esan zuan: «Auck ere, guk bezela, Espiritu Santua artu duten ezkerok, nork galerazi dezayeteke batayoko ura?» <sup>47</sup> Eta Jesu-Kristo Jaunaren izenean batayoa eman zezayetela agindu zuan. Eta gero, ayeikin an egun batzuetan geldidilla eskatu zioten.

## XI

#### Pedro Jerusalem'era biurtzen da.

<sup>1</sup> Jainkoaren itza atzerritarrak ere artu zutela entzun zuten Judea'n zeuden Apostoluak eta anayak. <sup>2</sup> Eta Pedro Jerusalem'era biurtu zanean, erdainduak arekin eztabaidan asi ziran, <sup>3</sup> esanaz: «Zer dala-ta sartu zera erdain-gabeen etxean eta ayeikin jan dezu?» <sup>4</sup> Orduan, Pedro gertatutako guztia agertzen asi zitzayen, esanaz: <sup>5</sup> «Jope urian otoitzean ari nitzala, zorabiotan irudipen bat ikusi nuan; iza-

ra aundi antzeko zorro bat ikusi nuan, lau muturretatik elduta zerutik jeisten, eta nereganaño iritxi zan. <sup>6</sup> Eta begira-begira negokiola, lurreko lau-oñeko abere, pizti ta narraztiak eta zeruko egaztiak ikusi nituan an, <sup>7</sup> Eta aots bat ere entzun nuan, neri itzegiten: «Pedro!; altxa zaitez, eta ill eta jan zazu». <sup>8</sup> Nik erantzun nuan: «Ez orrelakorik, Jauna!; gauza loi ta zikiñik egundaño ez da nere aotik sartu-ta». <sup>9</sup> Baño, berriro zerutik aotsak erantzun zidan: «Jainkoak garbitu duana zuk loitzat ez artu». <sup>10</sup> Ta ori irutan gertatu zitzaidan, eta gero dana guztia zerura bihurtu zan. <sup>11</sup> Eta berealaxe iru gizonezko eldu ziran ni negon etxera, Zesarea'tik neregana bialdutakoak. <sup>12</sup> Eta aye-kin kezkarik gabe joan nedilla esan zidan Espiritu Santuak. Sei anayok ere nerekin etorri ziran, eta gizon aren etxean sartu giñan. <sup>13</sup> Eta bere etxean Aingerua ikusi zuala esan zigun, aurrez-aurre auxe esanaz: «Jope'ra nortait bidaldu zazu, ta izenordez Pedro deritzan Simon erakarri. <sup>14</sup> Ark esango dizunaz zu ta zure etxeko guztiak salbatuko zerate». <sup>15</sup> Eta itzegiten asi nitzanean, Espiritu Santua jetxi zitzayen, len gure gañera bezela. <sup>16</sup> Eta Jaunak esandako au ekarri nuan gogora: «Jon'ek urez batayatu zuan; zuek, ordea, Espiritu Santuz izango zerate batayatuak». <sup>17</sup> Beraz, Jesu-Kristo Jauna sinistu degunoi emandako doaya bera Jainkoak ayei ere eman ba'zien, nor nitzan ni Jainkoari eragozpenak ipintzeko?» <sup>18</sup> Itzok entzunda, ixildu egin ziran eta Jainkoa goratu zuten, sanaz: «Or, bada!; atzerritarrai ere eman die Jainkoak bizitarako damu-garbaya».

#### Antiokia'ko Eliza.

<sup>19</sup> Eta Esteban'en odol-ixurtzea zala-ta, sakabanatu ziranak, Fenizia, Txipre ta Antiokia'raño iritxi ziran, Berri Ona judutarrai besterik erakutsi gabe. <sup>20</sup> Ayetako batzuk

Txipre'tarrak eta Zirene'tarrak ziran; eta auk Antiokio'ra joanda, grezitarrai ere itzezin zieten, eta Jesus Jaunaren berri eman. <sup>21</sup> Eta Jaunaren eskua zan ayekin; eta lagun askok sinistu, ta Jaunarengana biurtu ziran. <sup>22</sup> Eta gertaera auen entzutea Jerusalem'go Elizaren belarrietara iritxi zan; eta Bernabe bidaldu zuten Antiokia'ra. <sup>23</sup> Ara iritxi ta Jaunaren grazia ikusi zuanean, pozez bete zan, eta guztiak gogoberotzen zituan biotz osoz Jaunarengan irauteko; <sup>24</sup> gizon ona bait-zan eta Espiritu Santuz ta sinismenez batea. Ala, Jaunari asko geitu zitzazkion. <sup>25</sup> Andik, Bernabe Tarso'ra joan zan, Saulo'ren billa; ta arkitu zuanean, Antiokia'ra eraman zuan. <sup>26</sup> Eta urte betean egon ziran ango Elizan, lagun askori erakusten. Eta ikasleak Antiokia'n artu zuten lenengoz KRISTAU-izena. <sup>27</sup> Egun ayetan igarle batzuek jetxi ziran Jerusalem'dik Antiokia'ra. <sup>28</sup> Eta Agab izeneko ayetako batek, altxata, lur osoan gosete aundia izango zala iragarri zuan; gosete au Klaudio Zesar'en denboran izan zan. <sup>29</sup> Orduan ikasleak, bakoitzak al zuanez, Judea'n bizi ziran anayai laguntza pixka bat bialtzea erabaki zuten; <sup>30</sup> eta alaxe egin zuten, Bernabe'ren eta Saulo'ren eskuz zarrai (Jerusalem'go apai-zai) bialdurik.

## XII

### Elizaren aurka bigarren eraso Jerusalem'en.

<sup>1</sup> Aldi artan, Erodes erregea eliztar batzuk astintzen asi zan. (\*) <sup>2</sup> Eta Santiago, Jon'en anaya, ezpataz il zuan. <sup>3</sup> Eta judutarrai ori atsegingarri zitzayela ikusirik, Pedro'ri ere eldu egin zion. Otil-egunak ziran. <sup>4</sup> Eta, artuta, giltzapean sartu zuan, launaka lau gudaridun taldeen zaipean, Pazko-ondoren erriaren aurrera ateratzeko asmoz.

<sup>5</sup> Pedro giltzapean zegoen bitartean, Elizak otoitz egiten zion Jainkoari aren alde, eten gabe. <sup>6</sup> Eroses'ek ura (Pedro) erriari agirian atera nai zion aurreko gabean bertan. Pedro lo zegoen bi gudariren erdian, bi katez lotuta; zaitzalleak, berriz, ate-aurrean zeuden, espetxea zaitzen. <sup>7</sup> Artan, Jaunaren Aingerua agertu zan gela ura argitzen; eta Pedro sayetsean jo, ta esnatu egin zuan, esanaz: «Jeiki azkar». Eta *Pedro'ri* eskuetatik kateak erori egin zitzaizkion. <sup>8</sup> Eta Aingeruak ala esan zion: «Lotu gerrikoa, ta jantzi oñetakoak». Eta alaxe egin zuan. *Aingeruak* esan zion: «Estali zaitetz soñekoaz, eta jarraitu neri». <sup>9</sup> Eta irten zan eta jarraitu zion. Etzekian, ordean, aingeruak egitea zuana egia zanik, baizik eta irudipena ikusten zegoala uste zuan. <sup>10</sup> Lenengo gudari-salla ta bigarrena igaro-ondoren, errira daraman burnizko atera iritxi ziran, eta *atea* berez zabaldu zitzaizen. Andik irtenda, kale bat igaro zuten, eta Aingeruak bat-batean alde egin zion. <sup>11</sup> Orduan Pedro'k bere senera bihurturik, ala esan zuan: «Oraintxe dakit egiz Jaunak bere Aingerua bidaldu didala, Eroses'en eskuetatik eta judutar erri osoaren ikusmiratik atera nindezan». <sup>12</sup> Eta *gertatutakoa* gogoan zerabilkila, Maria'ren etxera joan zan; Maria au, Markos zeritzan Jon'en ama zan, eta arenean bilduta, lagun asko ari ziran otoitzean. <sup>13</sup> Eta Pedro'k eskaratzeko atea jo zuanean, Errode izeneko neskamea urreratu zan atera, zer entzungo; <sup>14</sup> eta Pedro'ren itza entzun zuanean, pozaren-pozez etzion aterik idiki; eta barrura bizkor joanda, Pedro ateondoan zala esan zion. <sup>15</sup> Baño ayek esan zioten: «Zu etzaude burutik ondo!» Neskameak, berriz, bayetz, eta alaxe zala. Eta ayek zioten: «Aren aingerua da». <sup>16</sup> Bitartean, Pedro'k atea jo-ta-jo jarraitzen zuan; eta idiki ziotenean, ura ikusita arriturik gelditu ziran. <sup>17</sup> Baño berak, ixildu zitezen eskuaz kiñu egiñaz, espetxetik Jaunak nola atera zuan

azaldu zien; eta esan zien: «Jakiñerazi zayozute au Santiago'ri ta anayai». Eta andik aterata, beste toki batera joan zan. <sup>18</sup> Eta eguna argitu zanean, gudarieren artean, eztabaida gogorra sortu zan Pedro'ri gerta zezayokeanaz. <sup>19</sup> Eta Eroses'ek, ura (Pedro) non billatu ibilli zan arren, etzuan arkitu; ta zaitzalleak egiña azterturik, eriotzara bialdu zituan. Eta Judea'tik Zesarea'ra jetxita, antxe gelditu zan.

#### Eroses'en azkena.

<sup>20</sup> *Eroses* Tiro'ren eta Sidon'en aurka asarre zan. Baño, ayek alkar artuta, arengana joan ziran; eta erregearen gela-zaitzalle Blasto'ren bitartekotza irabazita, pakea eskatu zioten, ayen lurraldeak Eroses'en laguntzarekin bizi bear zuten-da. <sup>21</sup> Eta aukeratutako egunean, Eroses'ek, errege-soñekoz jantzirik, auzi-tokian eseri, eta itzaldi bat egin zien. <sup>22</sup> Eta erriak deadarka ala zion: «Jainkoaren aotsa da au ta ez gizonarena». <sup>23</sup> Baño Jainkoari aintza biurtzen etziolako, aingeruak bat-batean zauritu egin zuan, eta arrak janda il zan. <sup>24</sup> Jainkoaren itza, berriz, geitzen eta zabaltzen ari zan. <sup>25</sup> Eta Bernabe ta Saulo, beren eginbearra beteta, Jerusalem'dik Antiokia'ra biurtu ziran, Markos zeritzan Jon berakin zutela. (\*).

### XIII

#### Eliza atzeritarren artean. Bernabe ta Saulo atzeritarrengana.

<sup>1</sup> Ba-ziran igarle ta erakusle batzuek Antiokia'ko Elizan; Bernabe, Simon beltza, Luzio Zirene'tarra, Manahen Eroses tetrarkarekin batean azitakoa ta Saulo (\*). <sup>2</sup> Jaunaren serbitzuan eta barau egiten ari zirala, Espiritu San-

tuak onela esan zien: «Bereizi izkidazute Saulo ta Bernabe, aukeratu diedan eginkizunerako». <sup>3</sup> Orduan, barau eta otoiitz egiñaz, eta eskuak ayen gañean ipiñirik, bidali egin zituzten. <sup>4</sup> Eta Espiritu Santuak ala bialduta, Seleuzia'ra jetxi ziran, eta andik Txipre'ra etorri ziran itxasoz. <sup>5</sup> Salamina'ra iritxi ziranean, Jaungoikoaren itza erakusten zuten judutarren sinagogetan, Jon ere lagun zutela. <sup>6</sup> Eta Paforaño ugardean zear ibillita, Barjesus izeneko judutar azti ta sasi-igarle bat arkitu zuten. <sup>7</sup> Gizon cri, Serjio Paulo agintari burutsuarekin zegon. Onek Bernabe'ri ta Saulo'ri dei eginda, Jainkoaren itza entzuteko gogoa agertu zien. <sup>8</sup> Baño, Elimaz aztiak – Elimaz itzak aztia adierazten du – galerazi egiten zien, agintaria sinismenetik aynatu nairik. <sup>9</sup> Baño Saulo'k – Paulo ere deitzen zanak –, Espiritu Santuz heterik, ari begira-begira, <sup>10</sup> ala esan zion: «Maltzurkeriz eta gaiztakeriz bete ori! etsaikume, onbide guztien etsai ori! Jaunaren bide zuzenak okertzen ez ote zera aspertuko? <sup>11</sup> Orain, bada, orra zure gañean Jainkoaren eskua; eta itxu geldituko zera, aldi baterako eguzkiaren argia ikusi eziniñk». Eta berealaxe lañoa ta illuna erori zitzaizkion gañera, eta inguruan, eskua emango zionen baten billa asi zan. <sup>12</sup> Orduan agintariak, gertatutakoa ikusita, sinistu egin zuan, Jaunaren ikasbideaz arrituta.

### Paulo Antiokia'n.

<sup>13</sup> Pafotik irtenda, Paulo ta onekin zcudenak Panfilia'ko Perjes'era joan ziran itxasoz; Jon, berriz, ayengandik alde eginda, Jerusalem'era biurtu zan. <sup>14</sup> Baño Paulo ta besteak, Perjes-zear igarota, Pisidia'ko Antiokia'ra iritxi ziran; eta larunbatez sinagotan sarturik, an eseri ziran. <sup>15</sup> Legearen eta igarleen irakurgaya amaituta, batzarreko nagusiak albiste au bidali zien: «Anayok! erriarentzat erakuskizunik ba'dezute, mintza zaitetze».

<sup>16</sup> Orduan Paulo'k eskuaz ixiltzeko keñu eginda, onela itzegin zien: «Israel'darrok, eta Jainkoaren bildur zeratenok!, entzun. <sup>17</sup> Israel erri onen Jainkoak, gure aurrekoak aukeratu zituan, Ejito'n arrotz zirala, ta erria goratu ta, bere besoaren indar aundiz, andik atera egin zituan; <sup>18</sup> basamortuan ere burutu zien berrogeiren bat urtetan. <sup>19</sup> Eta Kanaan'go erri aldean zazpi erri ondaturik, ayen lurra ondare ta erentzi eman zien, <sup>20</sup> lareun eta berrogeita marren bat urtetarako. Gero epailleak eman zizkien, Samuel igarlearenganaño. <sup>21</sup> Gero erregea eskatu zuten; eta Jainkoak Saul, Zis'en semea, Benjamin'en jatorrikoa, eman zien berrogei urtean. <sup>22</sup> Eta au kenduta, Jese'ren seme Dabid eman zien errege, onetzaz aitormen au egiñaz: «Dabid, Jese'ren semea arkitu det nere biotzaren gogoko; onek beteko ditu nere asmo guztiak». <sup>23</sup> Eta onen (Dabid'en) jatorritik, itzemana zanez, Israel'i Jainkoak JESUS Salbatzallea ekarri zion.

<sup>24</sup> Au etorri baño len, berriz, Jon'ek Israel'go erri osoari damu-batayoa agertu zion. <sup>25</sup> Eta bere eginbearra bukatzerakoan, Jon'ek ala zien: «Ni nor naizela uste dezute? Ni ez naiz zuek uste dezutena; baño nere ondoren badator beste bat, eta aren ofetakoak askatzeko ere ez naiz gauza ni». (Mat. 3, 11). <sup>26</sup> Anayok! Abraan'en belauneko semeok, eta Jainkoaren bildur zeratenok! Guri bialdu zaigu osabide ontako itza. <sup>27</sup> Jerusalem errikoak eta ayen agintariak Jesus etzuten onartu; eta eriotzara eraman zutenean, larunbatero irakurtzen diran igarleen esanak bete ziran; <sup>28</sup> eta eriotza merezi zuanik, ezertxo ere arkitu gabe, Ari bizia kendu zezayola eskatu zioten Pilatos'i. <sup>29</sup> Ta Artaz idatzitako guztiak bete ziranean, abetik eratsi egin zuten eta illobian sartu. <sup>30</sup> Baño Jainkoak illen artetik piztu egin zuan; <sup>31</sup> Galilea'tik Jerusalem'era Arekin igo ziranak, berpiztuta egun askotan ikusi zuten. Oyetekek dira aitortle ta

lekuko oraindik erriaren aurrean. <sup>32</sup> Guk, berriz, gure aurrekoai egindako agintzaria agertzen dizutegu: <sup>33</sup> agintzari au Jainkoak ayen semeai bete die, Jesus berpiztuta, bigarren Eresian ere idatzita dagoanez: «Nere Semea zera Zu; Ni gaur sortu zaitut» (\*). <sup>34</sup> Eta usteltzerik iñoiz ere ez ikusteko, illen artetik berpiztu zuala, onelaxe esan zuan: «Dabid'i ziñez egindako agintzariak beteko ditut» (\*). <sup>35</sup> Onegatik ere ba-dio beste nunbait: «Ez dezu utziko zure Santuak usteltzerik ikusi dezan» (\*). <sup>36</sup> Izan ere, Dabid bere egunetan Jainkoaren asmoa bete-ondoren il egin zan; eta bere gurasoakin elkartuta izan zan eta usteltzea ikusi zuan (usteldu egin zan). <sup>37</sup> Baño Jainkoak piztu duanak ez du usteltzerik ikusi. <sup>38</sup> Jakin zazute, bada, anayok, Onen bidez pekatuen barkamena erakusten zaizutela; eta Moises'en Legearen bitartez ezin garbitu izan ziran erru guztiak, <sup>39</sup> Onen sinistedun guztiai garbitu egiten zaizkiela.

<sup>40</sup> Kontuz ibilli, bada, igarleak esan zutena etorri ez dakizuten: <sup>41</sup> «Begira, oinperatzalleok; arritu ta ezkuta zaitzte; egiteko bat egin bear det zuen egunetan, eta norbaitek agertzen ba'dizute ere, ez dezute sinistuko» (\*). <sup>42</sup> Eta judutarren sinagogatik irtetzerakoan, urrango larunbatean ere gai orretzaz itzegiteko eskatu zieten. <sup>43</sup> Eta batzarretik aterata gero, judutar eta Jainkoa gurtzen zuten askok Paulo'ri ta Bernabe'ri jarraitzen zieten, eta auek ayekin itzeginda, Jainkoaren grazian iraun zezaten gogoberotu egiten zituzten.

<sup>44</sup> Urrango larunbatean erriko geyenak bildu ziran Jainkoaren itza entzuteko. <sup>45</sup> Baño judutarrak, ainbeste lagun ikusi zutenean, gorrotoz bete ziran, eta Paulo'k ziona biraoka ukatu egiten zuten. <sup>46</sup> Orduan Paulo'k eta Bernabe'k, argi ta garbi itzegiñaz, onela esan zieten: «Zuei erakutsi bear zizaizuten lenen Jainkoaren itza; baño itz au ezetsi ta betiko bizitzarako gai etzeratela uste dezuten

ezkero, ara, oraintxetik atzerrikoetara biurtzen gera: <sup>47</sup> Jaunak alaxe agindu zigun-da: «Atzerritarren argitarako ja-ni zinduztedan, azken-lurraldeetaraño osasun izan zaitzetzen» (\*).

<sup>48</sup> Au entzunda, atzerritarrak pozez bete ziran, eta Jaunaren itza goratzen asi ziran; eta betiko bizitzarako aukeratuta zeuden guztiak sinistu egin zuten. <sup>49</sup> Eta Jaunaren itza baztarralde guzti ayetan zabaltzen ari zan. <sup>50</sup> Baño judutarrak, emakume jainkozale eta aundizki batzuek eta erriko nagusiak zirikatu egin zituzten, eta Paulo'ren eta Bernabe'ren aurka erasoaldi bat sorturik, beren mugetatik hota egin zituzten. <sup>51</sup> Orduan, ayek, beren oñetako autsa ayen aurka astinduta, Ikonio'ra joan ziran. <sup>52</sup> Eta ikasleak pozez eta Espiritu Santuz beterik zebiltzan.

## XIV

## Ikonio'n eta Listra'n.

<sup>1</sup> Eta Ikonio'n judutarren sinagogan alkarrekin sartu ziran, eta an itzegiñaz, judutar eta grezitar askok sinistu zuten. <sup>2</sup> Baño, sinistu etzuten judutarrak, atzerritarren gogoa anayen aurka zirikatu ta axatu egin zuten. <sup>3</sup> Alare, an luzaro gelditu ziran, Jaunagan uste onez lan egiten; eta Jaunak bere graziaren itza sendotu egin zuan, ayen eskuz mirariak eta arrigarriak egiñaz. <sup>4</sup> Eta erriko lagunak bi aldetara banatu ziran; batzuek judutarren alde, ta beste batzuek Apostoluen alde. <sup>5</sup> Baño, atzerritarrak eta judutarrak beren nagusiakin jeiki egin ziran *Apostoluai* gaizki esateko ta arrika emateko. <sup>6</sup> Ori jakinda, Listra ta Derbe, Likaonia'ko errietara ta inguruko bazterraldeetara iges egin zuten, <sup>7</sup> eta an ayetan Berri Ona erakusten zuten.

<sup>8</sup> Listra'n gizon bat oñetatik gaxo zegon, eserita; ama-

ren sabeletik errena zan, eta beñere ibilli etzana. <sup>9</sup> Onek Paulo'ri itzegiten entzun zion; eta Paulo'k, ari begira jarriarik eta sendatua izateko sinismena ba-zuala ikusirik, <sup>10</sup> deadarka onela esan zion: «jarri zaitetz zutik zure oñen gañean». Eta ura, salto bat eginda, ibiltzen asi zan. <sup>11</sup> Jendetzak, Paulo'k egindakoa ikusi zuanean, Likaonia'ko izkuntzan ojuka asi ziran: «Gizonen irudiko jainkoak jetxi zaizkigu gure artera!». <sup>12</sup> Eta Bernabe'ri Jupiter deitzen zioten, eta Paulo'ri Merkurio; itzegiten zuana Paulo zandada (\*). <sup>13</sup> Erri-aurrean zegon Jupiter'en apaizak ere, ateorondora zezenak eta koroyak ekarrita, erriarekin batean opariak eskeñi nai zizkieten. <sup>14</sup> Baño Bernabe ta Paulo Apostoluak, ori entzunda, beren soñekoak urraturik, jendetzaren erdian deadarka asi ziran, <sup>15</sup> esaten: «Gizonok!, zer dabilkizute? Gu ere, zuek bezelaxe gizonak gera, ta uskeri oyetatik, Jainko biziarengana, zeru, lur, itxaso ta aye-tan diran gauza guztien Egillearengana biurtu zaitetzela deyez gatozkizute; <sup>16</sup> Jainko onek, lengo gizaldietan, erri guztiak beren bideetan ibiltzen utzi zituan; <sup>17</sup> etzitan, ordea, bere aitormenik gabe utzi; zerutik on egiten, euriak, urte-giro onak eta janari ugariak ematen, eta gure biotzak pozez betetzen jarraitzen du-ta». <sup>18</sup> Itz auek esanaz, jendetza doi-doya pakeatu zuten, oparirik eskeñi etzezayeten. <sup>19</sup> Gero, Antiokia'tik eta Ikonio'tik judutar batzuek etorri ziran; eta erriaren gogoia irabazirik eta Paulo'ri arrika emanda, erriatik arrastaka atera zuten, ildakotzat. <sup>20</sup> Baño ikasleak aren inguruan bildurik, jeiki ta errian sartu zan; eta biaramonean, Bernabe'rekin Derbes'era joan zan.

#### Berriro ere Antiokia'ra.

<sup>21</sup> Erri artan (Derbes'en) Berri Ona zabaldu ta ikasle askori erakutsita gero, Listra, Ikonio ta Antiokia'ra biurtu ziran, <sup>22</sup> eta ikasleen biotzak sendotu zituzten eta sinis-

menean irauteko gogoberotu ta Jainkoaren erreñuan neke asko igarota sartu bear dala agertu zieten. <sup>23</sup> Eta eliza ba-koitzean apaizak buru ipiñirik eta otoitz eta barau egin ondoren, sinistu zuten Jainkoagan utzi zituzten (\*). <sup>24</sup> Eta Pisidia igarota, Panfilia'ra joan ziran; <sup>25</sup> eta Perje'n *Jau-naren* itza zabaldua, Atalia'ra jetxi ziran. <sup>26</sup> Andik itxaso-z, Siria'ko Antiokia'ra jo zuten; anditxek irten ziran, Jainkoaren graziari jarraituaz, oraintxe amaitu zuten egin-kizunerako. <sup>27</sup> Ara iritxi ziranean, eta eliza bildu zute-nean, Jainkoak beren bidez egindako guztia azaldu zie-ten, baita atzerritarrai sinismen-atea zabaldu ziela ere. <sup>28</sup> Eta antxe gelditu ziran luzaro ikasleakin.

## XV

### Erdainkuntza zala-ta sortu zan eztabaida.

<sup>1</sup> Eta Judea'tik (Jerusalen'dik) jetxi ziran batzuek anayai ala ziotsaten: «Moises'en Legearen craz erdaintzen ez ba'zerate, ezin salba zindezteke». <sup>2</sup> Ortatik eztabaida gogorra sortu zan; eta Paulo ta Bernabe ayen aurka aterata, Paulo ta Bernabe beste alderdiko batzuekin Jerusalen'era joan zitezela erabaki zan, Apostoluakin eta zaarrakin auzi au erabakitzeke. <sup>3</sup> Ayek, bada, Elizak aukeratuta, Feni-zia ta Samaria zear zijoazen, atzerritarren onbideratzea azalduaz, eta anai guztiai poz aundia emanaz. <sup>4</sup> Jerusa-len'era iritxi ziranean, Elizak, Apostoluak eta zaarrak arre-ra ona egin zieten; eta Jainkoak ayen bidez egindako guz-tia azaldu zieten. <sup>5</sup> Baño, -zieten-, pariseotarretako si-nismendun batzuek atera dira esanaz: «Erdainkuntza atze-mitarrentzat bear-bearrezkoa da, ta Moises'en legea ere be-tetzeko agindu egin bear zaye».



**Elizaren Ienengo Batzar Nagusia.**

<sup>6</sup> Orduan, auzi ori erabakitzeko, Apostoluak eta zaarrak bildu egin ziran. <sup>7</sup> Eta geldiro erabaki ondoren, Pedro'k zutituta, onela esan zien: «Anayok! Ba-dakizute aspaldituz gure artean ni aukeratu naula Jainkoak, atzerritarra Berri Ona nere aotik entzun eta sinistu dezaten (\*). <sup>8</sup> Eta biotzak ikusten dituan Jainkoak ayen alde aitormen emar du, guri bezela ayei ere Espiritu Santua emanaz; <sup>9</sup> eta gure eta ayen artean ez du alderik ipiñi, ayen biotzak sinismenez garbiturik. <sup>10</sup> Zer dala-ta zirikatzen dezute, bada, Jainkoa, ez gure aurrekoak, ez guk ezin eraman izan degun uztarria ikasleen lepo-gañean ipiñi nairik? <sup>11</sup> Baño uste degu, bai ayek bai gu, Jesukristo Jaunaren graziaz salbatuko gerala». <sup>12</sup> Eta jendetza guztia ixillik gelditu zan, eta Bernabe'ri ta Paulo'ri entzuten; auek, berriz, beren bidez atzerritarren artean Jainkoak egin zituan mirari ta arrigarri aundiak azaltzen zizkieten. <sup>13</sup> Eta ixildu ziranean, Santiago'k itza artu, ta ala esan zien: «Anayok! Entzun: <sup>14</sup> «Simon'ek esan dizute nola onartu zituan Jainkoak asieratik atzerritarra, bere izenarentzat erri bat aukeratu zezan. <sup>15</sup> Eta ontan, igarleen itzak batera dotoz; idatzita bait-dago: <sup>16</sup> «Onen ondoren berriro etorriko naiz, eta erori zan Dabid'en txabola berriztatuko det; eta aren etxe-ondakiñak berriro jasoko ditut, eta zutik ipiñiko det; <sup>17</sup> gaiñerako gizakumeak eta nere Izena onartu duten erri guztiak Jauna billatu dezaten; auxe dio gauza auek egi ten dituan Jaunak, (\*) <sup>18</sup> betidanik ezagutzen dituan Jaunak. <sup>19</sup> Beraz, uste det, Jainkoagana biurtzen diran atzerritarrai etzayela gogañt egin bear; <sup>20</sup> baizik eta idatzi, sasi-jainkoen irudiak loitutakotik, eta aragikeritik eta ito danetik eta odoletik alde egin dezatela. <sup>21</sup> Izan ere, Moises'ek ba-dauka aspalditik erri bakoitzean berak esanak nork era-

kutsi, sinagogetan larunbatero dana guztia aren idaztieta-koa irakurtzen da-ta.

**Batzarraren erabakia.**

<sup>22</sup> Orduan, Apostoluak eta zaarrak, Eliza guztiarekin, beren artetik gizonetzko batzuek aukeratu, ta Antiokia'ra Paulo'rekin ta Bernabe'rekin joan zitezela erabaki zuten; eta Barsabas izeneko Judas eta Silas, anayen arteko gizonetzko aurrenetakoenak aukeratu zituzten, <sup>23</sup> ayen eskuz angoai auxe idatzirik: «Apostoluak eta zaar anayak, Antiokia'n, Siria'n eta Zilizia'n dauden atzerritarretako anayai, agur! <sup>24</sup> Guretako batzuek, guk agindu gabe, zuengana joan eta zuen biotzak estutu, ta beren berriketaz kezka bete zaituztela jakin degu. <sup>25</sup> Eta batzarra eginda, gizonetzko batzuek aukeratu ta Bernabe eta Paulo, gure maitagarriakin zuetara bialtzea erabaki degu gogo batez; <sup>26</sup> auek, Jesukristo gure Jaunaren izenagatik beren biziak galdu-zorian jarri dituzten gizonak dira-ta. <sup>27</sup> Beraz, Judas eta Silas bialtzen dizkitzutegu, auek ere aoz, ber-bera esan dezaizuten. <sup>28</sup> Espiritu Santuak eta guk uste izan degu etzaizutela zuei bear-bearrezko zama au besterik artuerazi bear: <sup>29</sup> gezurrezko jainkoai eskeñitakoetatik, odoletik, ito danetik eta aragikeritik alde egin dezazutela; auctatik zuen buruak gordetzen ba'dituzute, ongi egingo dezute. Ondo izan!».

**Bialduak Antiokia'n.**

<sup>30</sup> Beraz, ayek irten eta Antiokia'ra jetxi ziran; eta lagunak bilduta, idazkia eskuratu zieten. <sup>31</sup> Eta irakurri zutenean, pozez bete ziran. <sup>32</sup> Judas'ek eta Silas'ek ere, igarle ere bai bait-ziran, itzaldi askoz poztu ta berotu zituzten anayak. <sup>33</sup> Eta an egonaldi bat eginda, bialdu zituztenengana (Apostolugana) atzera pakez bialdu zituzten

anayak.<sup>34</sup> Baño, Silas'ek bertan gelditzea obe iritzi zuan, eta Judas bakarrik joan zan.<sup>35</sup> Paulo ta Bernabe, berriz, Antiokia'n gelditu ziran, beste askorekin batean Jaunaren itza erakusten eta zabaltzen.

#### Paulo'ren bigarren ibillaldia.

<sup>36</sup> Egun batzuek geroago, Paulo'k Bernabe'ri onela esan zion: «Goazen berriz ere Jaunaren itza zabaldu degun erri guztietan zear, anayak nola dauden ikustera». <sup>37</sup> Eta Bernabe'k, Markos zeritzan Jon ere berakin eraman nai zuan; <sup>38</sup> Paulo'k, berriz, Panfilia'n ayengandik alde egin zualako, eta orduko lanetan lagun izan etzuten ezker, etzuan ala uste izan. <sup>39</sup> Eztabaida ori zala-ta, alkarrengandik berezitu egin ziran; eta Bernabe, berekin Markos artuta, itxasoz Txipre'ra joan zan. <sup>40</sup> Paulo'k, berriz, Silas lagun artuta, bere bidea artu zuan, anayak ua Jaunaren graziari egotzita. <sup>41</sup> Siria'n eta Zilizia'n zear ibilli zan, Elizak sendotzen (eta Apostoluak eta zaarrak agindutako guztia betetzeko agintzen\*).

## XVI

#### Paulo Troade'ra, Timoteo lagun duala.

<sup>1</sup> Eta andik, Derbe'ra ta Listra'ra joan zan. Ba-zan an Timoteo izeneko ikasle bat, ama judutar sinistedunaren eta aita grezitarraren semea, <sup>2</sup> eta Listra'ko ta Ikonio'ko anayen aitormenez, gizon jatorra. <sup>3</sup> Au berekin joatea nai zuan Paulo'k; eta berarekin arturik, erdaindu egin zuan, alde ayetako judutarrari eder egitearren; aren aita grezitarra zala guziak ba-zekiten-da. <sup>4</sup> Eta erriz-erri zebiltzala,

\* Mako-arteko itz auek, Vulgata'k bakarrik dakarzki.

Apostoluak eta zaarrak Jerusalem'en artutako erabakiak bete zitazela erakusten zieten. <sup>5</sup> Onela, Elizak sinismenez sendoago eta lagunez ugariago biurtzen ziran egunetik egunera. <sup>6</sup> Eta Frijia ta Galazia lurraldea igaro zutenean, Jainkoaren itza Asia'n zabaltzea galerazi egin zien Espiritu Santuak. <sup>7</sup> Eta Misia'ra iritxi ziranean, Bitinia'ra joan nai izan zuten; baño, Jesus'en Espirituak etzien utzi. <sup>8</sup> Ta Misia igaro, Troade'ra jetxi ziran. <sup>9</sup> Paulo'k ikuskizun bat izan zuan gabaz; mazedoniatar gizon bat, aurrez-aurre zutik zeukala, erregu au egin zion: «Zatoz Mazedonia'ra ta lagun zaiguzu». <sup>10</sup> Ikuskizun au ikusita, bereala Mazedonia'ra joatea erabaki genduan, Berri Ona angoai erakusteko Jainkoak dei egiten zigulakoan (\*).

#### Mazedonia'n: Lidia.

<sup>11</sup> Beraz, Troade'tik irtenda, Samotrazia'ra zuzen etorri giñan itxazoz, eta biaramonean Neapolis'era; <sup>12</sup> eta andik Mazedonia'n onuntzaldeko lenengo erri ta *erromatarren* kolonia bat dan Filipos'era. Eta erri artan egun batzuetan gelditu giñan. <sup>13</sup> Larunbatean erritik kanpora irten giñan, ibai-ondora, otoitz-leku zalakoan; eta an eseririk, bilduta zeuden emakumeakin izketan asi giñan. <sup>14</sup> Lidia izeneko emakume bat guri entzuten zegon; Tiatura'ko purpura saltzalea zan eta jainkozalea; eta Jainkoak biotza zabaldu egin zion, Paulo'k ziona ontzat ar zezan. <sup>15</sup> Eta bere etxe-koakin batean batayatua izan zanean, erregu au egin zigun: «Jaunaganako zintzoa naizela uste ba'dezute, sartu nere etxean eta geldi zaitezte». Eta nai-ta-naiez, ara joatera beartu egin ginduan.

#### Neskame aztia.

<sup>16</sup> Eta otoitz egitera ginjoazela, etsai-aztia zeukan mirabe bat atera zitzaigun bidera; onek, irabazi aundia ema-

ten zien bere nagusiai, aztiarena egiñaz. <sup>17</sup> Onek (mirabeak), bada, Paulo'ri ta guri jarraituz, deadarka ala zion: «Jainko gorenaren morroi dira auek, eta osasun-bidea erakusten dizute». <sup>18</sup> Eta egun askotan egiten zuan ori. Azkenean, Paulo'k aspertuta, etsayarengana bihurturik, onela esan zion: «Jesukristoren izenean agintzen diat: irten adi *emakume* onengandik». Ta berealaxe irten zan. <sup>19</sup> Aren nagusiak, irabazteko itxaropena galdu zutelá ikusi zutenean, Paulo'ri ta Silas'i eskuak erantsita, nagusiengana eraman zituzten; <sup>20</sup> eta agintariengana aurkezturik, ala esan zuten: «Gizon auek judutarrak dira, ta gure erria nastutzen dabilta; <sup>21</sup> ta guk, erromatarrok, ezin artu ta bete ditzakegun oiturak erakusten dizkigute». <sup>22</sup> Eta jendea ayen aurka jeiki zan; eta nagusiak ayen *bion* soñekoak urruturik, zigorrez astindu zitatzela agindu zuten. <sup>23</sup> Eta ainbat zigorkada eman ondoren, espetxean sartu zituzten, arretaz euki zitatzela zaitzalleai aginduta. <sup>24</sup> Auek (zaitzalleak), agindu au artuta, espetxe-barru-barruan sartu zituzten, ayen oñak oñaze-tresnaz estuturik. <sup>25</sup> Baño, gaberdian, Paulo ta Silas otoitzean ari zirala, Jainkoa kantuz goratzen zuten; eta espetxeakoak entzun egiten zieten. <sup>26</sup> Ontan, bat-batean ikaragarriko lur-ikara izan zan, espetxeko oiñarriai dar-dar eragiterañoakoa; eta beingoan ate guztiak zabaldu ta lotzeko tresnak askatu egin zitzaizkien.

<sup>27</sup> Zaitzallea esnatu zanean eta espetxeko ateak zabalik ikusi zituanean, ezpata atera, ta bere burua il nai zuan, espetxeakoak iges egin zutelakoan. <sup>28</sup> Baño, Paulo'k deadarka ala esan zion: «Ez kalterik egin zere buruari, guztiok ementxe gaude-ta». <sup>29</sup> Orduan, argia eskatu, ta barrura sartu ta Paulo'ren eta Silas'en oiñetan auspeztu zan ikaraz. <sup>30</sup> Eta ayeek kanpora aterata, onela esan zien: «Jaunak! zer egin bear det nik salbatzeko?» <sup>31</sup> Ayeek au esan zioten: «Sinistu zazu Jesukristo gure Jauna, eta zu ta zure

etxeko guztiak onik aterako zerate». <sup>32</sup> Eta Jaunaren itza ari ta bere etxeko guztiak erakutsi zieten. <sup>33</sup> Eta ark gau ordu artan berarekin eramanda, zauriak garbitu zizkien eta bereala berak eta bere etxeko guztiak batayoa artu zuten. <sup>34</sup> Eta bere etxera eramanda, maya ipiñi zien; eta Jainkoa sinistuta, etxeko guztiakin poztu egin zan. <sup>35</sup> Eta eguna argitu zanean, agintariak beste zaitzalleak bidali zizkieten, esanaz: «Askatu itzazute gizon oyeek». <sup>36</sup> Zaitzalleak Paulo'ri itz auek jakinarazi zizkion: «Agintariak zuek askatzeko agindu didate; beraz, irten azkar eta zoazte pakean». <sup>37</sup> Orduan, Paulo'k zaitzalleai auxe esan zien: «Erromatar seme gerala, auzirik gabe, gu agirian zigorrez astindu-ondoren, espetxean sartu ginduzten; eta orain ixilka kanpora bialtzen gaituzte? Ez orixe! Datozela berak eta atera gaitzate!» <sup>38</sup> Eta zaitzalleak itz auekin agintarietara joan ziran; eta ayeek, erromatarrek zirala entzunda, bildurto egin ziran; <sup>39</sup> eta barkazio-eske joan zitzaizkieten; eta andik aterata, erritik irten zitezela eskatzen zieten. <sup>40</sup> Eta espetxetik irtenda, Lidia'ren etxean sartu ziran; eta anayak ikusi ta poztu ondoren, alde egin zuten.

## XVII

### Paulo Tesalonika'n.

<sup>1</sup> Anfipolis eta Apolonia zear igarota, Tesalonika'ra iritxi ziran; judutarrak sinagoga bat zeukatzen an. <sup>2</sup> Eta Paulo, oi zuanez, ayengana sartuta, iru larunbatetan, Idazti Doneai buruz eztabaidan aritu zan, <sup>3</sup> Kristok oiñazeak igarota ta illen artetik piztutzea bearrezkoa izan zala ayei erakusten. «Kristoa, berriz, nik agertzen dizutedan Jesus bera da». <sup>4</sup> Ayetako batzuek sinistu egin zuten, eta Paulo'rekin

eta Silas'ekin alkartu; baita beste jainkozale ta grezitarretako askok ere, ta andre aundizkietako ez gutxik. <sup>5</sup> Judutarrak, berriz, ikusi-eziñak eraginda, alperkerian zeuden gizon gaizto batzuek irabazi ta laguntaldea bilduta, erria aztoratu zuten; eta Jason'en etxe-aurrean bildu ziran apostoluen billa, erriaren aurrera eramateko. <sup>6</sup> Eta arkitu etziztutenean, Jason eta anai batzuek erriko agintariengana indarrez eramane zituzten, deadarka esanaz: «Lurbira osoa naspillatzen dabilzan auek, oneraño ere etorri egin dira; <sup>7</sup> ta Jason'ek bere etxean artu ditu; guzti auek Zesar'en aginduen aurka dabilza, Jesus, beste errege bat ba-dala zabaltzen». <sup>8</sup> Itz auek entzutean, erria ta agintariak axaxatu egin zituzten. <sup>9</sup> Eta Jason eta besteengandik baikuntza artu ondoren, askatu egin zituzten.

#### Paulo Berea'n.

<sup>10</sup> Eta anayak lenbaitlen, gabaz, Paulo ta Silas Berea'ra bidaldu zituzten. Eta ara iritxi ziranean, judutarren sinagogan sartu ziran. <sup>11</sup> Auek, berriz, Tesalonika'koak baño izakera obekoak ziran, eta iiza gogo beroz artu zuten, esaten zitzaizena egia ote zan Idaztiak egunero aztertuz, <sup>12</sup> Eta ayetako askok sinistu egin zuten, baita grezitarretako andre aundizki ta gizonetako ez gutxik ere. <sup>13</sup> Baño Paulo'k Jainkoaren itza Berea'n ere zabaldu zuala jakin zutenean, araxe joan ziran, erria nastutzerata axaxatzera.

<sup>14</sup> Baño, anayak iritxi zuten Paulo bereala itxasorutz aldendu zedilla; Silas eta Timoteo, ordea, bertan gelditu ziran. <sup>15</sup> Eta Paulo'ri laguntzera joan ziranak, Atenas'erano eramane zuten; eta Silas eta Timoteo beragana lenbaitlen joan zitezene agindua arturik, biurtu egin ziran (Pauloren lagunak).

#### Atenas'en.

<sup>16</sup> Eta Paulo Atenas'en ayen zai zegola, barruan gogoaz erretzen zeukan, erri osoa gezurrezko jainkoez menpean zegola ikusita. <sup>17</sup> Eta sinagogan, judutar eta jainkozaleekin eztabaidan jardutzen zuan, baita enparantzan ere egunero, an egoten ziranakin. <sup>18</sup> Epikurotar eta Estoikotar jakinzale batzuek ere jarduten zuten eztabaidan arekin (Paulo'rekin); eta batzuek ala zioten: «Zer esan nai ote du berriusonek?» Eta beste batzuek: «Jainko arrotzen iragarle dirudi», Jesus eta piztuera erakusten zizkien-da. <sup>19</sup> Azkenean, eldu, ta Areopago'ra eramane zuten, esanaz: «Jakin ote dezakegu zein dan erakusten dezun ikasbide ori? (\*) <sup>20</sup> Gure belarrietara gauza berriak dakartzkizu-ta, gai auek zer esan nai duten jakin nai degu». <sup>21</sup> Atenastar guztiak eta an bizi ziran arrotzak ere gauza berriak esateko ta entzuteko gogoaz besterik etzuten. <sup>22</sup> Orduan Paulo, Arcopago-erdian zutiturik, onela mintzo zitzaizen: «Atenastarrok! Gauza guztietan oso erlijiozale ikusten zaituztet. <sup>23</sup> Zuen jainkoez irudiak or-emen ikusten nebillela, aldare-mai bat arkitu det, eta an idazkun au: JAINKO EZ EZAGUNARI. Ara ba; ezagutu gabe gurtzen dezuten orixe agertzen dituztet gaur nik. <sup>24</sup> «Lurbira» ta bertan diran gauza guztiak egin dituan Jainkoa, zeru-lurren Jauna izanik, ez da eskuz egindako elizetan bizi; <sup>25</sup> eta gizonen eskutik ezer artu bearrean ere ez dago; Ber-bera da-ta, bizia, ta arnasa ta dan-dana ematen diena. <sup>26</sup> Ark gizon bakar batengandik gizadi osoa atera du, lur osoan bizi dedin, bakoitzari bere aldia ta bizitoki-mugak ezarririk; <sup>27</sup> guztiak Jainkoaren billa ibilli ditezene eta itxumustuka izanda ere arkitu dezaten, guretako bakoitzagandik ez bait-dago urrutia. <sup>28</sup> Argan bizi bait-gera, ibilli bait-gabiltz eta izan ere bait-gera», zuetako olerkari batzuek esan duten bezela: «Aren jatorriko gera-ta». <sup>29</sup> Beraz, Jainkoaren jatorriko ge-

ran ezkeru, ez degu uste izan bear jainkotasuna urte, zillar edo arriaren antzeko danik, naiz erti-lanezko edo gizonak asmatutakoa. <sup>30</sup> Baño Jainkoak ezjakin-denbora auek ez-ikusit eginda, nonnai damutu ditezkeela esaten die orain gizon guztiai. <sup>31</sup> Eta artarako gizon bat aukeratuta, gizadia auzi zuzenez epaitzeko eguna ipiñi du, gizon ori illen artetik pizturik, sinistatzeko bidea guztiai emanda». <sup>32</sup> Eta ildakoen piztuera entzun zutenean, batzuek parra egiten zioten, eta beste batzuek ziotsaten: «Orretzaz beste batean entzungo dizugu». <sup>33</sup> Eta onela, Paulo'k alde egin zuan ayengandik. <sup>34</sup> Batzuek, ala ere, arekin (Paulo'rekin) alkartuta, sinistedun biurtu ziran; ayetako bat, Dionisio Arecopajita ere ba-zan, baita Damaris izeneko andre bat ere, ta beste batzuek ayekin.

## XVIII

### Paulo Korinto'n.

<sup>1</sup> Ondoren Paulo Atenas'tik irten eta Korinto'ra joan zan. <sup>2</sup> Eta an, Ponto'n jayotako Akila izeneko judutar bat eta Priszila, aren emaztea, arkitu zituan. Italia'tik denbora gutxi zala etorriak; *agintariak* judutar guztiai Erroma'tik alde egin zezatela egindu zien-da. Paulo ayekin elkartu zan; <sup>3</sup> eta bizibide ber-bera zutenez, -txabolagiñak ziran-da -, ayen etxean gelditu zan langille. <sup>4</sup> Larunbatero sinagogan etzabaidan jardun oi zan; eta (bere itzaldietan Jesus Jaunaren izena aitaturik), judutarrak sinismenera ekartzeko egiñalak egiten zituan. <sup>5</sup> Eta Mazedonia'tik Silas eta Timoteo iritxi ziranean, Paulo'k gartsuago jarraitzen zuan Kristoa Jesus zala erakusten. <sup>6</sup> Baño ayek ukatzen eta biraoka ari zirala, bere soñekoak astindurik, ala esan zien: «Zeuron buruen gain zuen odola; ni garbi

nago, oraintxetik atzerritarretara nijoa». <sup>7</sup> Eta andik aterata, Tito Zuzena izeneko jainkozale baten etxean sartu zan, aren etxea sinagogaren ondoan zegoan-da. <sup>8</sup> Sinagogako buru zan Krispo, bere etxeko guztiakin, Jaunaren sinismenera biurtu zan; eta korintotar askok, entzun eta sinisturik, batayoa artu zuten. <sup>9</sup> Gau batean, Jaunak irudipenez ala esan zion Paulo'ri: «Ez izan bildurrik; itz egizu ta ez ixildu. <sup>10</sup> Ni zurekin nago, eta iñork ez dizu kalterik egingo; erri ontan Neretzat lagun-talde aundia det-eta». <sup>11</sup> Beraz, urtebete ta erdi antxe gelditu zan, angoai Jainkoaren itza erakusten. <sup>12</sup> Baño Galio, Akaya'ko agintari zala, judutarrak alkar artuta, Paulo'ren aurka altxa ziran eta auzitara eraman zuten, <sup>13</sup> esanaz: «Gizon onek Legearen kontra, gurtzen erakusten du». <sup>14</sup> Baño Paulo, bere buruaren alde itzegiten asi zaneke, Galion'ek judutarrari onela itzegin zien: «Benetan, bidegabekeri edo gaiztakeri aundiren bat ba'litz, bear danez entzungo nizuteke, judutarrok. <sup>15</sup> Baño, ikasbide-gauzak, eta izenak eta zuen legeko eztabaidak ba'dira, zeurok ikusi; nik ez det orrelakoetan epaille izan nai». <sup>16</sup> Eta auzitegitik atera-erazi egin zituan. <sup>17</sup> Orduan guztiak, Sostenes, sinagogako buru zana artu, ta auzitegi-aurrean jo egin zuten; baño, Galion'ek ez-ikusit egin zuan (\*).

### Berriz ere Antiokia'n.

<sup>18</sup> Paulo, berriz, egun asko an igaro ondoren, eta anayai azken-agurra eginda, itxasoz Siria'ra joan zan, baita Priszila ta Akila ere arekin; eta egin zuan eskeintza betetzeko, Zenkreas'en, illea moztu zuan. <sup>19</sup> Efeso'ra iritxita, antxe utzi zituan. Eta sinagogan sartuta, judutarrakin etzabaidan asi zan (\*). <sup>20</sup> Auek denbora geyagoan an geldi zedilla eskatzen zioten; baño, ark ezetz. <sup>21</sup> Eta, agur eginda, ala esan zien: «Etorriko naiz berrero, Jainkoak ala

nai ba'du». Eta Efeso'tik irten, eta <sup>22</sup> Zesarea'ra joan eta andik Jerusalem'era igo zan; eta elizari agur egin ondoren, Antiokia'ra jetxi zan.

### Alexandria'ko Apolo, Efeso'n.

<sup>23</sup> Aldi bat an igaro ondoren, irten zan; eta Galazia'ko ta Frijia'ko lurraldeak bazterrik-bazter ikusten ibilli zan, ikasle guztiak *sinismenean* sendotzen zituala. <sup>24</sup> Eta Apolo izeneko judutar bat, izatez Alexandri'koa, itz-etorritz eta Idazti Donea ezagutzen gizon azkar-azkarra, Efeso'ra etori zan. <sup>25</sup> Ba-zekin ondo Jaunaren bidea eta gogo beroz Jesusi dagokiona sinagogan zabal-zabal itzegiten eta erakusten asi zan. Eta Priszila'k eta Akilas'ek entzun ziotenean, berakin eraman zuten, eta Jaunaren bidea zeatago agertu zioten. <sup>27</sup> Gero ark Akaya'ra joateko gogoia agerturik, anayak berotu egin zuten ortarako, eta arrera ona egin zezayotela idatzi zieten ikasleak. Eta ara iritxi zanean, graziaren laguntzarekin, fededunen alde gogor egin zuan lan; <sup>28</sup> judutarrai gartsuki bururatzen zien, Kristo Jesus zala, Liburu Santuen bidez egiztaturik.

## XIX

### Paulo Efeso'n.

<sup>1</sup> Apolo Korinto'n zegola, Paulo, goi-aldeko baztarrak aztertu ondoren, Efeso'ra sartu zan; eta an ikasle batzuek arkiturik, <sup>2</sup> ala esan zien: «Sinismena artu zenutenean, Espiritu Santua artu al zenuten?». Eta ayek erantzun zioten: «Espiritu Santua danik ere ez degu entzun». <sup>3</sup> Orduan, ark (Paulo'k) esan zien: «Zein batayo artu dezute, bada?». Ta ayek erantzun: «Jon'en batayoa». <sup>4</sup> Orduan Paulo'k esan zien: «Jon'ek damu-batayoa eman zuan aren ondoren etortzekoa zan Jesus sinista zezala erriari

esanaz». <sup>5</sup> Au entzunda, Jesus Jaunaren izenean batayoa artu zuten. <sup>6</sup> Eta Paulo'k eskuak gañean ipintzen zizkiela, Espiritu Santua ayen gañera jetxi zan, eta izkuntza arrotzetan itzegiten eta igartzen asi ziran. <sup>7</sup> Amabiren bat gizonezko ziran guztiak. <sup>8</sup> Gero Paulo'k, sinagogan sartuta, bildur gabe itzezin zuan iru illebetetz, Jainkoaren erreñuari buruz ayei argitasuna ematen. <sup>9</sup> Baño, ayetako burugogor eta sinisgogor batzuek etzuten sinistu, ta mardikatu egin zuten, erriaren aurrean, Jaunaren bidea; orduan, ayengandik bereizturik eta ikasleak bakarrean arturik, Tirano izeneko baten eskolan erakusten zien egutero. <sup>10</sup> Bi urtetan egin zuan ori; eta orrela, Asia'n bizi ziran guztiak, judutar eta grezitarrak, Jaunaren itza entzun zuten. <sup>11</sup> Eta Jaunak, Paulo'ren bitartez, arrigarritzko mirariak egiten zituan. <sup>12</sup> Eta Paulo'ren soña ikututako zapitxoak eta gerrikoak gaxoai ipiñita, oñazcak bereala kentzen zitzaizkien eta etsai gaiztoak irten egiten ziran ayengandik.

### Judutar araolariak (Exorzistak).

<sup>13</sup> Batean eta bestean, etsayak botatzen zituzten judutar batzuek ere, etsai-mendean zeudenen gañera Jesus Jaunaren izena deitzen zuten, esanaz: «Paulo'k azaltzen duan Jesus'en izenean agintzen dizutet». <sup>14</sup> Orrela ari ziranak, Eszeba izeneko apaiz-buru judutar baten semeak ziran. <sup>15</sup> Baño, etsai gaiztoak, erantzun eta ala esan zion: «Jesus ezagutzen det; Paulo ere ba-dakit nor dan; zuek, ordea, nor zerate?». <sup>16</sup> Ta etsai gaiztoa barruan zeukan gizona ayen gañera irauli zan, eta biren jabe eginda, azpiratu egin zituzten; eta etxe artatik biak, larru gorritan eta zaurituta, iges egin zuten. <sup>17</sup> Gertaera au, Efeso'n bizi ziran judutar eta grezitar guztiak jakin zuten; eta guztiak bildurrez beteta gelditu ziran, eta Jesus Jaunaren izena gora-

tu zuten. <sup>18</sup> Eta sinismendun asko beren aztikerizko egiteak aitortzera joan ziran. <sup>19</sup> Aztikerietan ibilli ziran askok ere, beren idaztiak ekarri ta guztien aurrean erre egin zituzten; idazti ayen balioa zenbatekoa izan zitekean aztertuta, berrogei ta amar milla denariokoa zala esan zan. <sup>20</sup> Onela, indartsu azitzen eta sendotzen ari zan Jainkoaren itza. <sup>21</sup> Arazo auek bukatuta, Paulo'k, Espiritu Santuaren argibidez, Mazedonia ta Akaya zear, Jerusalem'era joateko asmoa artu zuan, eta esan: «An egonda, gero Erroma'ra ere joan egin bear det». <sup>22</sup> Eta bere laguntzalle bi, Timoteo ta Erasto, Mazedonia'ra bialduta, bera, aldi batean, Asia'n gelditu zan.

#### Efeso'ko ixkanbillak.

<sup>23</sup> Baño aldi artan Jaunaren Bidea zala-ta, ixkanbillak sortu ziran, eta ez txikiak sortu ere. <sup>24</sup> Demetrio izeneke zillargin batek, Diana'ren zillarrezko elizatxoak egiñaz, langilleai irabazi ederrak ematen zizkien (\*). <sup>25</sup> Beraz, auei eta orlako lanetan aritzen ziran langilleai deituta, ala esan zien: «Mutillak!; ba-dakizute lan ontatik datorkigula gure irabazia. <sup>26</sup> Ikusten dezute eta entzun, berriz, Paulo orrek bere erakutsiaz, Efeso'n bakarrik ez, Asia geyenean ere bai, jainkoetatik lagun asko avenatu dituala, «Eskuz egiten diranak ez dirala jainko» esanaz. <sup>27</sup> Eta guk gure ogibidea galtzea ez da oker bakarra izango. Diana aundiaren eliza bera ere, ez du iñork aintzat artuko, ta Asia osoak, eta lurbira osoak ere ospez gurtzen duan Diana bera, lurrera eroriko da». <sup>28</sup> Itz auek entzunda, guztiak asarre biziak artu zituan eta deadarka ala zioten: «Aundia da Efeso'ren Diana!». <sup>29</sup> Erri guztia asaldatu zan; eta guztiak batera, bultza-bultzaka, antzokiraño (teatroraño) joan ziran, Galo ta Aristarko, Paulo'ren bide-lagunak berakin artuta (\*). <sup>30</sup> Paulo'k erriaren aurrean ager-

tu nai zuan; baño ikasleak etzioten utzi. <sup>31</sup> Paulo'ren adis-kide ziran Asia'ko aundizkietako batzuek ere, eskatu zioten etzedilla antzokian sartu. <sup>32</sup> Eta batzuek bat eta besteak beste, guztiak deadarka ari ziran; batzarra naspilla utsa zan, eta geyenak etzekiten zertarako bildu ziranik ere. <sup>33</sup> Birtartean, jende-artetik Alexander atera zuten judutarrak bultzaka guztien aurrera. Alexander'ek, berriz, ixildu zitezen kiñu eskuaz egiñik, gauza nola zan agertu nai zion erriari. <sup>34</sup> Baño judutarra zala jakin zutenean, guztiak batera, ordu bi inguru, deadarka jardun zuten: «Aundia da Efeso'ko Diana!». <sup>35</sup> Noizbait, erria baretu-ondoren, ixkribauak onela itzezin zioten: «Efesotarrok! Nork ez daki efesotarren erria, Diana aundiaren eta zerutik jatsitako aren irudiaren gurtzaille dala? <sup>36</sup> Beraz, au ezin ukatu ditekenez ezker, egoki zaizute geldirik egotea eta arifnegi ezer ez egitea. <sup>37</sup> Ekarki dituzuten gizon auek ez dira eliz-lapur, ezta zuen goiko jainkoaren biraolari ere. <sup>38</sup> Demetrio'k eta bere lagunak norbaiten aurka ezer ba'dute, berriz, ba-dira ortarako auzitegiak eta agintariak; alkar salatu bezate. <sup>39</sup> Baño, beste egitekoren bat ba'dakarzute, batzarre egokian erabaki ditekete. <sup>40</sup> Gaurko naspilla au dala-ta ere, matxinzaletzat artzeko zorian gaude; batzar au on-artzeko aitzaki zuzenik ezin agertu dezakegu-ta». Au esanda, batzarra bukatu egin zuan.

## XX

#### Paulo Troade'n.

<sup>1</sup> Zalaparta bukatu zanean, Paulo'k ikasleai dei egin eta burubide batzuek eman ondoren, azken-agurra egin zien, eta Mazedonia'rako irten zan. <sup>2</sup> Eta lurralde ayetan zear ibilli ta angoak itzaldi askoz sendotuta gero, Gre-

zia'ra joan zan. <sup>3</sup> An iru illebeta eginda, Siria'ra itxasoz joateko asmoetan zebillela, judutarrek galbideak ipiñi zizkioten; eta orregatik Mazedonia'ra biurtzea erabaki zuan. <sup>4</sup> Arekin Pirro'ren seme Sopatro Berea'tarra, ta Aristarko ta Sekundo tesalonikatarrak, Gayo, Derbetarra, ta Timoteo, ta Tikiko ta Trofino asiarrak zijoazen. <sup>5</sup> Auek aurretaturik, Troade'n gure zai zeuden. <sup>6</sup> Guk, berriz, Opil-eguren ondoren, Filipos'tik itxasoz Troade'ra jo genuan, eta bost egunen buruan ayengana iritxi giñan, eta an zazpi egun gelditu. <sup>7</sup> Aste aren lenbiziko egunean, ogi-zatiketakarako ikasleak bilduta geundela, Paulo'k itzegin zien, eta itzaldia gauerdirate luzatu zan, biaramonean joan egin bear zuan-da (\*). <sup>8</sup> Bilduta geunden goiko gela artan, argi asko zeuden. <sup>9</sup> Eta Eutiko izeneko mutiko bat leyo-gañean eseri zan; eta Paulo'k itzaldia luzatzen zuan bitartean, mutilla loak artu zuan; eta lo zegoala, irugarren etxe-bizizatik beera erori zan, eta ilda jaso zuten. <sup>10</sup> Arengana jektixita, Paulo gañean atzan zitzaion; eta mutilla besarkaturik, ala esan zuan: «Ez larritu, bizi da-ta». <sup>11</sup> Igo zan berriro, ogia artu ta jan zuan; eta eguna argitu arte itz ugari eginda, joan zan andik. <sup>12</sup> Mutikoa, berriz, bizirik eramane zuten eta poz aundia izan zuten.

#### Paulo Mileto'n.

<sup>13</sup> Gu, berriz, ontzian sartu ta itxasoz Asson'era etorri giñan, an Paulo'ren zai egoteko; berak alaxe agindu zigun-da, bera oñez etortzen zan bitartean. <sup>14</sup> Eta Asson'en alkartu zitzaigunean, bera gurekin artu, ta Mitilene'ra joan giñan; <sup>15</sup> andik, biaramonean itxasoz, Kio aurrera iritxi giñan, eta urrengo egunean Samo'ra; ta urrengo egunean Mileto'ra eldu giñan. <sup>16</sup> Efeso'n ikutu gabe, aurrera joatea erabaki zuan Paulo'k, Asia'n luzaro gelditu etzedin; al ba'zuan, Pentekoste-egunerako Jerusalem'en

egon nai zuan-da. <sup>17</sup> Elizako zaarrenak berarengana etortzeko deya bidali zuan Mileto'tik Efeso'ra. <sup>18</sup> Ta ayek etorri, eta guztiak bildu ziranean, ala esan zien: «Ba-dakizute zuekin nola egon naizen luzaro, Asia'n sartu nintzan lenengo egunetik, <sup>19</sup> Jaunaren serbitzuari apal-apal ekiñaz, eta negar-malko artean, nere kontra judutarrengandik sortu zaizkidan zoritxarren erdian. <sup>20</sup> Ezer ezkatatu gabe, egoki izan zaizuten guztia esan eta erakutsi dizutet agirian eta etxez-etxe, <sup>21</sup> judutar eta grezitarrak Jainkoarenganako damua ta Jesus gure Jaunarenganako sinismena erakutsiaz.

<sup>22</sup> Orain, bada, Espiritu Santuak eraginda, Jerusalem'era nijoa, an zer gertatuko zaidan jakin gabe. <sup>23</sup> Auxe baka-rik esan dezaitzuket, Espiritu Santuak erri guztietan esaten didana: Jerusalem'en kateak eta nekeak igaro bearko ditudala. <sup>24</sup> Baño ez diet bildurrik; ez det nere bizia nere burua baño maiteago, onela nere elburua iritxi ta Jesus Jainkoak emandako eginkizuna bete dezadan: Jainkoaren graziaren Berri Ona zabaltzeko *eginkizuna*.

<sup>25</sup> Ta orain, ba-dakit Jainkoaren erreiñua erakutsi dizutedanetako batek ere ez dezutela berriro nere aurpegia ikusiko. <sup>26</sup> Beraz, aitortzen dizutet gaur, ni guztion odoletik garbi nagola; <sup>27</sup> Jaungoikoaren asmo guztiak zuei asper gabe agertu dizkitzutet-eta. <sup>28</sup> Zeuron buruen arreta izan zazute, baita artalde osoarena ere, Jaungoikoak bere odolaz irabazitako Eliza zaintzeko, Espiritu Santuak bere ortan artzai ipiñi bait-zaituzte.

<sup>29</sup> Ba-dakit ni joaten naizenean, otso amorratuak zuen artean sartuko dirala, artaldea sakabanatzera. <sup>30</sup> Zuen artetik ere aterako dira batzuen batzuk, okerkeriak esaten, ikasleak bereganatu naye. <sup>31</sup> Beraz, ernai egon, eta gogoratu zazute iru urtetan zuekin izan nauzutela, zuetako ba-



koitzari gau ta egun, negarrez erakutsiak ematen.<sup>32</sup> Eta orain ere, anayok, Jainkoari ta Aren graziaren itzari eskeintzen zaituztet, zuen osasuna bururatzeko ta zintzo guztiakin batera ondoren ona emateko lain dan Jainkoari.<sup>33</sup> Iñoren zillarrik, ez urrerik, ez soñekorik ez det nai izan,<sup>34</sup> zeurok ongi dakizutenez; neretzat eta nerekin izan diranentzat bear zan guztia, esku auek irabazi didate.<sup>35</sup> Gauza guztietan erakutsi ona eman dizutet; ola lan eginda, beartsuai laguntza eman bear diezutela zuei erakutsirik eta Jesus Jaunak berak esan zituan itzak gogorarik: «Artzea baño ematea atsegiñago da».<sup>36</sup> Au esanda, belaunikaturik, guztiakin otoitz egin zuan.

<sup>37</sup> Eta guztiak negarrez asi ziran; eta Paulo'ri lepotik elduta, musu ematen zioten,<sup>38</sup> «aren arpegia berriro etzutela ikusiko» esan ziotenaz atsekabetuta, batez ere. Eta gero, itxasontziraño lagundu zioten.

## XXI

### Paulo Jerusalem'era.

<sup>1</sup> Ayengandik alde eginda, zuzen-zuzen itxasoz Kos'era joan giñan, eta biaramonean Rodas'era, ta andik Patara'ra.<sup>2</sup> Eta Fenizia'ra zijoan ontzi bat arkiturik, bertan sartu eta itxasora atera giñan.<sup>3</sup> Txipre-aurrera iritxi ta gero, ura ezkerretara utzita, Siria'runtz jo genduan, eta Tiro'ra sartu giñan, ontziak an zama utzi bear zuan-da,<sup>4</sup> Eta an ikasleak arkiturik, zazpi eguneko egonaldia egin genduan; eta ikasle ayek, Espiritu Santuaren argiz, Jerusalem'era ez joateko esan zioten Paulo'ri.<sup>5</sup> Egun ayek igaro ziranean, gere bidea artu genduan, guztiak, beren emazteakin eta eta umeakin erritik kanporaño laguntzen zigutela; eta itxasertzean belaunikaturik otoitz egin genduan.<sup>6</sup> Eta al-

karri agur eginda, ontzian sartu giñan; ayek, berriz, ba-koitza bere etxera biurtu ziran.

<sup>7</sup> Gure itxasbidea bukatu zan, Tiro'tik Ptolomeida'ra iritxi giñanean; eta anayai agur eginda, ayekin egun batean egon.<sup>8</sup> Biaramonean irten eta Zesarea'ra eldu giñan. Eta Berri Onaren zabaltzalle ta zazpiretako laguntzalle (diacono) zan Felipe'ren etxean sartu ta antxe gelditu giñan.<sup>9</sup> Onek lau alaba zituan, neskatx eta igarle.<sup>10</sup> Egun batzuetan an geundela, Agabo izeneko igarle bat etorri zan Judea'tik;<sup>11</sup> eta guregana azalduarik, Paulo'ren gerrikoa artu ta bere esku-oñak lotuta, ala esan zuan: «Auxe dio Espiritu Santuak: «Gerriko onen jabe dan gizona, judutarak Jerusalem'en, onelaxe lotu ta atzerritarren eskuetan utziko dute».<sup>12</sup> Au entzun genduan, guk eta an geundenak, Jerusalem'era etzedilla joan eskatzen genion.<sup>13</sup> Orduan, Paulo'k erantzun eta esan zigun: «Zergatik zaudete negarrez eta mintzen dezute nere biotza? Lotuta gelditze-ko bakarrik ez; baita Jesus'en izenarengatik Jerusalem'eu iltzeko ere gertu nago».<sup>14</sup> Eta gure asmoetara ekarri ezin genduala ikusirik, pakean utzi genion, esanaz: «Egin bedi Jainkoaren naya!».

<sup>15</sup> Eta egun batzuek geroago biderako prestatuta, Jerusalem'erako atera giñan.<sup>16</sup> Zesarea'ko ikasle batzuek ere gurekin etorri ziran, Mnason Txipre'tarra, aspaldiko ikaslea ta bere etxean artuko ginduan, berekin zekartela.

### Jakob'enean.

<sup>17</sup> Jerusalem'era iritxi giñanean, anayak arrera ona egin ziguten.<sup>18</sup> Biaramonean, Paulo, Jakob'en etxean sartu zan gurekin, an zaar (apaiz) guztiak bilduta zeudela.<sup>19</sup> Ta Paulo'k ayek agurtu ondoren, Jainkoak aren bidez atzerritarren artean egin zituanak bana-banan azaldu zizkien.<sup>20</sup> Ayek, entzunda, Jainkoa goratu zuten, eta Paulo'ri ala

esan zioten: «Ikusten dezu, anai, sinisten duten judutarrek millakak dirala, ta guztiak Legea zuzen betetzen dutela.<sup>21</sup> Ara bada, atzerrian bizi diran judutarrai, «*Moises'en legetik alde egiteko*» erakusten diezula entzun dute zutzaz, baita umerik ez erdaintzeko ere, ta *antziñako* oiturai ez jarraitzeko.<sup>22</sup> Beraz, zer egin bear ote da? Jendea bilduko da, noski; etorri zerala entzungo dute-ta.<sup>23</sup> Egizu esaten dizugun au: Lau gizon dauzkagu here buruen eskeintza egin dutenak.<sup>24</sup> Auek artu, ta egizu zure garbiketa aye-kin batean, eta ordaindu zazu saria buruko illea moztu dezaten; orrela guztiak ikusiko dute zutzaz entzun dana ez dala egia; bestela baizik; zuk ere legea betetzen dezula.<sup>25</sup> Sinistu duten atzeritarrai dagokienez, berriz, erabaki au idatzi diegu: gezurrezko jainkoai eskeñitako janarrietatik, eta odoletik, eta abere itotik eta aragikeritik alde egin dezetela». <sup>26</sup> Orduan, Paulo'k gizon ayek berekin artu zituan, eta biaramonean garbiketa eginda, elizan sartu zan, eta esan zien, ayetako bakoitzaren oparia eskeñi bitartean, garbiketa-egunak amaituta zeudela.

#### Paulo lotuta.

<sup>27</sup> Zazpi egunak bukatzerakoan, Asia'tik etorritako judutarrek, Paulo Elizan ikusita, erri osoa nastu zuten eta Paulo'ri eskuak erantsi zizkioten, <sup>28</sup> deadarka au esanaz. «Lagundu, Israeldar gizonok! Gizon au ari da non-nai ta nor-nairi, erri, lege ta toki onetzaz gaizki esaka; gañera, atzeritarrak ere elizan sartu egin ditu, orrela toki au loiturik». <sup>29</sup> (Trofimo Efesotarra an, errian ikusi zuten, eta Paulo'k elizan sartu zuala uste izan zuten). <sup>30</sup> Uri osoa asaldatu zan eta erria, kezkaz, bildu zan. Eta Paulo'ri elduta, elizatik atera egin zuten; eta bereala ateak itxi zituzten. <sup>31</sup> Eta ayek *Paulo'ri* bizia kentzeko zebiltzala, erri-agintariari albiste au eraman zioten: «Jerusalen guztia nasp:

lla baten dabil». <sup>32</sup> *Agintaria*, gudariak eta eunburua berealako batean berekin artu, ta laxter joan zan ayetara. Ayek, ordea, agintaria ta gudariak ikusi zituztenean, etzuten Paulo geyago jo. <sup>33</sup> Orduan, agintariak, ayetara joan, eta ari (Paulo'ri) eldu ta bi katez lotzeko agindu zuan; eta nor zan eta zer egin zuan galdetu zuan. <sup>34</sup> Baño, gizataldekoak, batzuek bat zioten, eta besteak beste bat, deadarka. Orregatik, ango naspillagatik gauza garbirik ezin jakin zuala-ta, txabolategira eraman zezatela agindu zuan.

<sup>35</sup> Paulo malletara iritxi zanean, ordea, gudariak be-soetan artuta, eraman bear izan zuten, erriaren asarrearen-gatik; <sup>36</sup> «ill ori» deadarka, erriak jarraitu egiten zien-da. <sup>37</sup> Torre-barruan sartzerakoan, Paulo'k auxe esan zion agintariari: «Ba al det zuri zerbait esateko baimenik?» Eta agintariak ala erantzun zion: «Ba al dakizu griegoz itzegiten?» <sup>38</sup> «Ez al zera zu lengo egunean naspilla bat sortu, ta lau milla gizon gaizkille basamortura eraman zenituan ejitotarra?» <sup>39</sup> Eta Paulo'k onela erantzun zion: «Ni judutarra naiz; Zizilia'ko Tarso'ko semea, erri ezaguneko erritarra. Utzi zaidazu, arren, erriari itzegiten». <sup>40</sup> Eta agintariak utzi zionean, Paulo'k malletan zutik, eskuz ixiltzeko kiñua egin zion erriari. Eta guztiak ixil-ixilik gelditu ziranean, Paulo'k onela itzezin zien, ebreotarrez:

## XXII

#### Paulo'ren itzaldia.

<sup>1</sup> «Nere senide ta gurasoak! Entzun zazute orain nere alde esan bear dizutedan au». <sup>2</sup> Eta ebreotarren izkuntza egiten ziela entzun zutenean, ixillago gelditu ziran. <sup>3</sup> Eta berak onela jarraitu zuan: «Ni judutarra naiz; Zizilia'ko Tarso'n jayoa; baño erri ontan azitakoa, ta Gamaliel'en

oñetan gure aurrekoen legean ikasia, Jainkoaren Legearen zaitzalle gartsua, gaur zuek guztiok zeraten bezela. <sup>4</sup> Nik, lkasbide ontako jarraitzalleak eriotzaraiño eraman nituan, gizon eta emakume lotu ta giltzapean sarturik, <sup>5</sup> apaiz-nagusiak eta zaar guztiak nitzaz aitortu dezatekenez. Eta anayentzat agiriak ayengandik artuta, Damasko'ra ni joan, angoak lotuta Jerusalem'era ekartzeko, emen zigortu zitza ten. <sup>6</sup> Eta ara ni joala, ta eguerdian Damasko'ra urreratu nintzanean, bat-batean zeruko argi dizdiratsu batek inguratu ninduan; <sup>7</sup> eta lurrera erorita, neri itzegiten zidan aots au entzun nuan: «Saulo, Saulo, zergatik erasotzen didazu?» <sup>8</sup> Orduan, nik erantzun nuan: «Nor zaitut Zu, Jauna?» Eta esan zidan: «Zuk erasotzen diozun Jesus Nazaretarra naiz Ni». <sup>9</sup> Nerekin zeudenak argia ikusi bai, ikusi zuten; baño nerekin itz egiten zuan aotsa etzuten entzun. <sup>10</sup> Eta nik onela esan nuan: «Jauna: zer egin bear det?» Eta Jaunak ala esan zidan: «Jeiki ta zoaz Damasko'ra; antxe esango dizute egin bear dezun guztia». <sup>11</sup> Eta, alako argi biziaz ezer ikusten ez nuala, lagunak eskutik artuta, iritxi nitzan Damasko'ra. <sup>12</sup> Orduan, an, Ananias izeneko ta bertako judutar guztien aitormen ona zeukan gizon zintzo ta lege-maite batek, <sup>13</sup> neregana etorri ta inguraturik, ala esan zidan: «Saulo, anai oril, ar zazu ikusimena». Ta berealaxe nik bera argi-argi ikusi nuan. <sup>14</sup> Orduan ark (Ananias'ek) esan zidan: «Gure aurrekoen Jainkoak aukeratu zaitu, Aren gogoa ezagutu, Zuzena ikusi ta Aren aoko itza entzuteko; (\*) <sup>15</sup> ikusi ta entzun dezun guztia, gizaki guztien aurrean aitortu bearko dezu-ta <sup>16</sup> Eta orain, zergatik zaude geldit? Jeiki zaitez eta ar zazu batayoa, ta zure pekatuetatik garbi zaitez, Aren izenari dei egiñaz».

<sup>17</sup> Eta Jerusalem'era biurtu ondoren elizan otoitz egiten ari nitzala, zorabiatuta gelditu nitzan; <sup>18</sup> eta Ura (Je-

sus) ikusi nuan, neri esaten: «Alde egin zazu azkar Jerusalem'dik; Nitzaz egingo diezun aitormena ez dute aintzat artuko-ta». <sup>19</sup> Nik erantzun nion: «Jauna; oyek ondo dakite ni nitzala zure sinismenera zetozenak giltzapean sartu ta sinagogetan zigortzen nituana; <sup>20</sup> ta zure aitortle Esteban'en odola ixuri zanean, ni ere antxe nitzan, eta egiten ari zirana onartzen nuan, eta ura iltzen zutenen soñekoak zaitzen negoan». <sup>21</sup> Baño Ark au esan zidan: «Zoaz; urrutietako atzerritarrengana bialduko zaitut». <sup>22</sup> Au esan nuan arte, entzuten egon ziran; baño orduan, deadarka asi ziran: «Ken lurretik gizon ori; ez du bizitzeko eskubiderik!!» <sup>23</sup> Ala oiuka ari zirala, ta beren soñekoak urratzen eta autsa aizetara botatzen, <sup>24</sup> agintariak Paulo torrera eraman zezatela agindu zuan, ta an zigorez astintzeko ta oiñazetzeko, aren aurka ainbesteko deadarrak zergatik egiten zituzten jakin bear zuala-ta. <sup>25</sup> Ubele estutu zutenean, Paulo'k, aurrean zegon euntariari auxe esan zion: «Zillegi al zaizu zuei erromatar gizon bat. auzirik gabe, zigorkadaz astintzea?» <sup>26</sup> Eta eunburuak ori entzun zuanean, gudarien agintariarengana joan eta adierazi egin zion esanaz: «Ikustazu zer egiten dezun; gizon ori erromatarra da-ta». <sup>27</sup> Eta agintariak *Paulo'rengana* joan eta galdera au egin zion: «Esaidazu: erromatarra al zera?» Ta *Paulo'k* erantzun: «Bai». <sup>28</sup> Agintariak erantzun zion: «Nik erromatar izatea irixteko dirutzak eman ditut». Eta Paulo'k esan zion: «Ni, berriz, jayotzaz naiz erromatar». <sup>29</sup> Eta berealaxe aldegin zuten andik ura zigorkatu bear zutenak; eta agintaria bera ere larritu egin zan, berak lotu zuana erromatarra zala jakin zuanean.

<sup>30</sup> Biaramonean, judutarrak zergatik salatu zuten garbi jakin nairik, lokarriak kendu egin zizkion, eta apaiz-nagusiak eta batzar osoa bildu zedilla agindu zuan; eta Paulo ekarrita, ayen aurrean aurkeztu zuan.

## XXIII

**Paulo Batzarraren aurreak.**

<sup>1</sup> Paulo'k batzarrari begira-begira, ala esan zien: «Anayok! Nik zintzo-zintzo serbitu det Jainkoa gaur arte». <sup>2</sup> Ontan, Ananias, apaiz-nagusiak bere ondokoai Paulo aoan jotzeko agindu zien. <sup>3</sup> Orduan, Paulo'k esan zion: «Zu, bai, orma zuritu ori, zaurituko zaitu Jainkoak. Zu, legeari dagokionez auziak erabakitzeko jarria zaude; eta legearen kontra ni jotzeko agindu dezu». <sup>4</sup> Ta an zeudenak ala esan zioten: «Jainkoaren apaiz-nagusia madarikatzen al dezu?» <sup>5</sup> Eta Paulo'k onela esan zien: «Ez nekin, anayok, apaiz-burua zanik; idatzita dago: Zure erriko agintaria ez dezu madarikatuko. <sup>6</sup> Paulo'k, batzarreko alderdi bat pariseotarrena, ta bestea sadukeotarrena zala jakiñik, batzar-erdian deadarka onela esan zun: «Anayok! Ni pariseotarra naiz; pariseotar-kumea; eta illen piztuera ta uste ona dirala-ta, naukazute auzitan». <sup>7</sup> Au esan zuanean, eztabaida aundia sortu zan pariseotarren eta sadukeotarren artean, eta jendea alderditan banatu zan. <sup>8</sup> Sadukeotarrak piztuerarik ez dagola esaten dute, ez Aingerurik, ez Espiriturik; pariseotarrak, berriz, bata ta bestea aitortzen dituzte. <sup>9</sup> Ikaragarrizko deadar-otsa sortu zan; eta pariseotar ixkribauak altxa, ta eztabaidan ala zioten: «Ez degu okerrik arkitzen gizon onengan; eta Espirituren edo Aingeruren batek itzegin ba'dio zer?» <sup>10</sup> Ixkanbilla gero ta aundiagoa zan; eta agintariak, Paulo garbituko zuten bildurrez, arengana jetxi ta ayen artetik atera, ta torrera eramane zezatela agindu zien bere mutillai. <sup>11</sup> Urrengo gabean, Jauna Paulo'ri agertu zitzaion; eta onela esan zion: «Egin gogor; Jerusalem'en ni aitortu nauzun bezelaxe, Erroma'n ere aitortu bearko nauzu-ta».

**Judutar batzuek Paulo'ren aurka.**

<sup>12</sup> Eguna argitu zanean, judutar batzuek, alkaturik, zin egin zuten Paulo il arte etzutela ezer ez jango ez edango. <sup>13</sup> Berrogei gizon baño geyago ziran zin ori egin zutenak. <sup>14</sup> Eta apaiz-buruengana ta zaarrengana joan ziran, eta ala esan zieten: «Zin egin degu ezertxo ere ez jateko, Paulo'ri bizia kentzen ez diogun arte. <sup>15</sup> Orain, bada, gudarien buruarengana zoazte zuek eta batzarrekoak, Paulo biar zuen aurrera atera dezan eskatzerá, arengandik zerbait zeatzago jakin nai dezutela-ta. Eta gu, ura (Paulo) ara jritxi baño len bizia kentzeko gertu egongo gera». <sup>16</sup> Baño, Paulo'ren arrebaren semeak azpikeri au entzun zuanean, joan eta torrean sartuta, Paulo'ri agertu zion. <sup>17</sup> Eta Paulo'k eunburuetako bati deituta, ala esan zion: «Mutil au gudarien buruarengana eramán zazu, berri bat eman bear dio-ta». <sup>18</sup> Eunburuak mutilla artu, ta agintariarengana eramán zuan, esanaz: «Paulo giltzapetuak mutil au zuri ekarri dezaitzudala eskatu dit, ba-duala-ta zerbait zuri esateko». <sup>19</sup> Agintariak, mutillari eskutik elduta, eramánaz, ala esan zion: «Zer dakarzu neri esateko?» <sup>20</sup> Mutillak esan zion: «Judutarrak elkartu egin dira Paulo biar batzarrera bialdi dezazun zuri eskatzeko, arengandik zerbait zeatzago jakin nai dutela-ta.

<sup>21</sup> Baño, zuk ez sinistu, berrogei gizon baño geyago aren aurka zai daude-ta, ari (Paulo'ri) bizia kendu arte ezer ez jateko, ez edateko zin eginda; ta orain gertu daude, eskatzen dizutena zuk emango diezutela itxoiten». <sup>22</sup> Orduan agintariak mutilla bialdu egin zuan, agertu ziona iñori ere ez esateko aginduta. <sup>23</sup> Eta bi cunbururi deituta, ala esan zien: «Iruarren gaualdirako euki itzazute gertu berreun gudari, irurogei ta amar zaldizko ta berreun aztamakildun Zesarea'ra joateko; (\*) <sup>24</sup> baita zaldia ere, Paulo zaldi-gañean artuta, Pelix agintariarengana onik eramán

dezaten». <sup>25</sup> (Izan ere, agintaria bildur zan *Paulo* ilko ote zuten, eta gero, diruaz saldu zuala esanda, gezur beltza erantsiko ote zioten). Eta eskutitz bat egin zion, auxe zio-la; <sup>26</sup> «Pelix, agintari goyenari Klaudio Lisias'ek agur; <sup>27</sup> Gizon au beren kontu artu ta bizia kentzeko zorian zebilkite-la, ni gudariakin ayetara joan, eta askatu egin nuan, Erromatarra zala jakinda gero. <sup>28</sup> Zergatik salatzen zuten jakin nairik, ayen batzarrera eraman nuan. <sup>29</sup> Eta beren Legeko gora-berak zirala-ta, salatzen zutela jakin nuan; baño, etzala giltzapean sartzeko eta iltzeko errudun. <sup>30</sup> Eta judutarrak oni bizia kentzeko gertu daude-la jakin dedanean, bereala zuregana bialtzen dizut; eta salatzalleai ere, auzia zure aurrean garbi dezatela esan diet. Agur».

#### Zesarea'n.

<sup>31</sup> Gudariak, eman zitzyen aginduari zegokionez, *Paulo* artu ta gabaz Antipatride'ra eraman zuten; <sup>32</sup> eta urrengo egunean torrera biurtu ziran, zaldizkoak eramanezaten (*Paulo*) arekin utzita. <sup>33</sup> Zesarea'ra iritxi ziranean, agintariak eskutitzak emanda, *Paulo* ere aren aurrean utzi zuten. <sup>34</sup> Agintariak, eskutitza irakurrita gero, zein errial-detakoa zan galdetu zion; eta Zizilia'koa zala jakinde, <sup>35</sup> ala esan zion: «Zure salatzalleak etortzen diranean, entzungo dizut zer diozun». Eta Erodes'en jauregian zaitu zezatela agindu zuan.

## XXIV

#### *Paulo Felix'en aurrean.*

<sup>1</sup> Bost egun igarota, Ananias apaiz-burua, zaar batzuekin eta Tertulio izlari batekin etorri, ta agintariengana agertu ziran *Paulo*'ren aurka. <sup>2</sup> Eta, *Paulo*'ri deituta,

Tertulio *Paulo* salatzen asi zan, esanaz: «Pelix guztiz goyen ori! Zuri eskerrak degun pake aundia ta erri onek zure alegiñari zor dizkion aurrerapenak, beti ta nonnai eskerron aundiz artzen dizugu\*. <sup>4</sup> Baño, luzetuta, gogai-karri izan ez nadin, ona zera-ta, pixka batean entzun zai-guzu, arren. <sup>5</sup> Gizon au kaltegarri utsa dala jakin degu; hurbira osoko judutarrak nastutzen dabillega, ta Nazare-tar alderdiko buru nagusi dala. <sup>6</sup> Baita eliza loitzeko alegiñak ere egin ditu; eta, giltzapean sarturik, gure Legeari dagokionez, auzia egin nai izan diogu. <sup>7</sup> Baño, Lisias gudari-ekin buruak, tartean sartu, ta indarrez eskuetatik kendu egin zigun, eta zuregana bialdu, <sup>8</sup> onen salatzalleak zuregana etortzeko aginduta. Zerorrek ezagutu ditzakezu, be-  
ra aztertuaz, orren aurka dakarzkigun zalaketa guztiak». <sup>9</sup> Itzlariak esan zuan au, judutarrak ere indartu egin zuten, alaxe zala aitortuaz.

<sup>10</sup> Orduan, *Paulo*'k, itzegiteko baimena agintariak emanda, onela erantzun zuan: «Aspaldiko urte auctan erri ontako epaille zerala jakiñik, gogo onez zurituko det nere burua. <sup>11</sup> Errez jakin dezakezunez, ez dira amabi egun baño geyago Jerusalem'era gur egitera joan nitzala; <sup>12</sup> be-iñere ez naute elizan iñorekin eztabaidan ikusi, ezta si-nagogetan eta errian jendea biltzen ere; <sup>13</sup> eta orain a-latzen nautenetatik ere, ezertxo ezin egiztatu dezaitzute-ke. <sup>14</sup> Baño, auxe aitortzen dizut; auck alderditzat artzen duten ikasbideari jarraiturik, ni nere aurrekoen Jain-koaren serbitzari naizela, Legean eta Igarleetan idatzirik

\* 2 ta 3 Vulgata'k beste era ontara dauzka: <sup>2</sup> Eta *Paulo*'ri deituta, Tertulio *Paulo*'ren aurka salatzen asi zan, esanaz: «Pelix guztiz goyen ori! Zuri eskerrak pake aundian bizi geranez, eta zure alegiñaz oker asko zuzentzen dituzun ezker, <sup>3</sup> beti ta nonnai onartzen degu zure jokaera ori, ta gure eskerronik osoena agertzen dizugu.

tagon guztia sinistuta; <sup>15</sup> oyek duten bezela, nik ere, onak eta gaiztoak piztuko diran ustea Jainkoagan izanik. <sup>16</sup> Au dala-ta, nere burua Jainkoaren eta gizonen aurrean erru-gabe gordetzeko kezketan eta alegiñetan bizi naiz. <sup>17</sup> Baño, urte askoren buruan, nere erritarrak limosnak ematera etorri naiz, eta Jainkoari opariak eta eskeintzak egitera. <sup>18</sup> Eta ontan ari nitzala, bai, Asia'ko judutar batzuek elizan garbituta arkitu ninduten; ez, ordea, jendea biltzen, ezta zalaparta ateratzen ere. <sup>19</sup> Judutar auk etorri bear luteke zure aurrera, eta nere salatzalleak izan, nere kontra ezer ba'dute; <sup>20</sup> edo-ta auk berak esan bezate, gaizta-keriren bat billatu didaten, beren batzarretan agertu naizenean, <sup>21</sup> ayen erdian negoala, deadarka esan nuan au izan ezik: «Illeen piztuera dala-ta auzi egiten didazute zuek nere gaur».

#### Auzia luzetu.

<sup>22</sup> Orduan, Pelix'ek, auzi au ondo ezagutzen zuan arren, beste aldi baterako utzi zuan, esanaz: «Lisias agintaria etortzen danean, aztertuko det zeatzago zuen auzia» (\*). <sup>23</sup> Eta Paulo bere zaipean artu zezala agindu zion eunburuari, eta bigun artu zezala, ta arengana (Paulo'rengana) joaten aren ezagunetako iñori ere ez zezayola galerazi.

<sup>24</sup> Egun batzuek geroago, Pelix, bere emazte Drusila judutarrarekin Zesarea'ra etorri zan; eta Paulo'ri deituta, Jesukristo'ganako sinismenaz itzegiten entzun zion. <sup>25</sup> Baño, Paulo zuzentasunari, neurritasunari ta izango dan auziari buruz itzegiten ari zala, Pelix'ek, ikaratuta, ala esan zion: «Zoaz oraingoz, eta era dedanean egingo dizut berriz dei». <sup>26</sup> Eta askatasuna irixteko, Paulo'rengandik dirua artuko zuan ustetan, beragana sarri deitu ta arekin itzegiten zuan. <sup>27</sup> Baño, bi urte bete ziranean, Portzio Fes-

to etorri zan Pelix'en ordezko; eta Pelix'ek, judutarren ederra irabazi nairik, Paulo giltzapean utzi zuan.

## XXV

### Paulo'k Zesar'engana jotzen du.

<sup>1</sup> Festo, lurralde artara iritxita iru egunen buruan, Zesarea'tik Jerusalem'era igo zan. <sup>2</sup> Eta, apaiz-nagusiak eta judutarren nagusiak Paulo'ren aurka joan zitzaizkion: <sup>3</sup> eta Paulo Jerusalem'era eraman zezala eskatu zioten, mesedez. Ari (Paulo'ri) galbideak ipiñita, bidean bizia kentzeko asmoz egiten zuten ori. <sup>4</sup> Festo'k, berriz, Paulo Zesarea'n ondo zaituta zegoala erantzun zien, eta bera ere araxe joango zala laxter. <sup>5</sup> «Beraz, esan zuan, zuetako altsuenak betoz nerekin; eta gizon onengan gaiztakeririk ba'dago, salatu bezate».

<sup>6</sup> Eta ayen artean zortzi egun ozta-ozta igarota, Zesarea'ra jetxi zan; eta biaramonean auzitegian eserita, Paulo berarengana ekartzeko agindu zuan. <sup>7</sup> Aurkeztu zanean, Jerusalem'dik etorritako judutarrak erdian artu zuten, eta Paulo'ren aurka salaketa asko ta astunak egin zituzten; baño, egiztatu ezin zitzatekenak guztiak. <sup>8</sup> Paulo'k, berriz, auxe esan zuan bere alde: «Ez det nik ezertan pekatu-rik egin, ez judutarren Legearen aurka, ez elizaren aurka, ezta Zesar'en aurka ere.

<sup>9</sup> Baño, Festo'k judutarrak losintxa nairik, Paulo'ri erantzun eta au esan zion: «Jerusalem'era igo nai al dezu, an nere aurrean zure auzia garbitzeko?». <sup>10</sup> Eta Paulo'k ala erantzun zion: «Zesar'en auzitegian nago, ta ementxe erabaki bear da nere auzia; judutarrak ez diet nik ezertan gaitzik egin, zuk ondo dakizun bezela. <sup>11</sup> Eta gaitzik, edo eriotza merezi duanik ezer egin ba'det, ez diot

uko egingo eriotzari; baño, auek leporatzen dizkidatene-  
tatik ezer ez ba'dago, ezin utzi nazake iñork beren es-  
kuetan. Gora jotzen det: Zesar'engana». Orduan Festo'k,  
batzarrekoakin itz eginda, onela erantzun zion: «Ze-  
sar'engana jotzen al dezu? Zesar'engana joango zera, ba».

#### **Paulo, Agripa Erregearen aurrean.**

<sup>13</sup> Egun batzuek igarota, Agripa erregea ta Berenize  
Zesarea'ra etorri ziran, Festo agurtzera. <sup>14</sup> Eta an zenbait  
egunetan gelditurik, Festo'k erregeari Paulo'ren berri eman  
zion, esanaz: «Pelix'ek gizon bat utzi zuan giltzapean.  
<sup>15</sup> Jerusalem'en izan nitzanean, judutarren apaiz-buruak  
etorri zitzaizkidan, arentzat eriotza eskatzera. <sup>16</sup> Nik au  
erantzun nien: Erromatarrak ez degu iñoren aurka auzia  
erabakitzeo oiturarik, alik eta salatuak salatzalleak bere  
aurrean euki ditzan arte, eta bere buruaren alde egiteko  
aukera ari (salatua izan danari) eman arte. <sup>17</sup> Beraz, ayek  
berealaxe etorri ziran onera; eta biaramonean ni auzite-  
gian eserita, gizon ura ekarri zezatela agindu nuan. <sup>18</sup> Eta  
salatzalleak aurrean zeudela, nik uste nuan errurik bat ere  
etzioten azaldu. <sup>19</sup> Beren erlijioari buruz eta Paulo'k bizi  
dala zion ildako Jesus izeneko bati buruz ziran aren aur-  
ka zekarzkiten auzi-gai guztiak. <sup>20</sup> Alako auzian nik zer-  
egiñik ez nuala-ta, Jerusalem'era joan nai ote luken gal-  
detu nion, an auzia garbi zezaten. <sup>21</sup> Baño, Paulo'k be-  
re auzia Augusto'ren esku uzteko eskatu zuan eta nik,  
Zesar'engana bialdu nezan arte, emen zaintzeko agindu  
nuan».

<sup>22</sup> Orduan, Agripa'k onela esan zion Festo'ri: «Nik ere  
gizon orri entzun nai nioke». Eta Festo'k: «Biar entzun-  
go diozu».

<sup>23</sup> Biaramonean, Agripa ta Berenize, ospez beterik eto-  
rri ziran; eta gudarien buruarekin eta erriko aundizkiakin

auztegian sartuta, Paulo ekartzeko agindu zuan Festo'k.  
<sup>24</sup> Eta Festo onela mintzatu zan: «Agripa Errege ta gure-  
kin emen zaudeten guztiok: Ikusten dezute gizon au, ju-  
dutarren erri osoak Jerusalem'en eta emen ere, «onek ez  
duala geyago bizi bear» deadarka eskatu didan au. <sup>25</sup> Nik,  
berriz, eriotza merezi duanik ez diot ezertxo ere arkitu.  
Baño, berak Augusto'rengana jo duan ezkerero, arengana  
bialtzea erabaki det. <sup>26</sup> Izan ere, Zesar nere Jaunari onè-  
tzaz idazteko ezer garbirik ez dedala-ta, zuen aurrera eka-  
rri det, eta batez ere, Agripa errege orren aurrera; azter-  
keta eginda gero, idazteko zerbait izan dezadan (\*). <sup>27</sup> Egi-  
ten dizkioten salaketak egiztatu gabe, iñor lotuta bialtzea  
burugabekeria dala deritzat-eta».

## XXVI

#### **Paulo'ren itzaldia.**

<sup>1</sup> Orduan, Agripa'k onela esan zion Paulo'ri: «Mintzo  
zintezke zere buruaren alde». Beraz, Paulo'k eskua luza-  
turik, bere alde egiten asi zan, esanaz: <sup>2</sup> Agripa Errege!  
Judutarrak salatu ta leporatzen didatenari dagokionez,  
gaur zure aurrean nere alde egin bear dedala-ta, zorion-  
tsu naiz; <sup>3</sup> judutarren artean diran oiturak eta auziak on-  
do ezagutzen dituzulako, batez ere. Beraz, egonarriz en-  
tzun zadazu, arren. <sup>4</sup> Gaztetandik, nere erritarren artean  
Jerusalem'en izan nuan bizitzaren berri ondo dakite ju-  
dutar guztiak; <sup>5</sup> badakite, egia aitortu nai ba'dute, ni asie-  
ratik gure Legeko alderdirik zuzenenaren arauz bizi izan  
nitzala, pariseo izanik. <sup>6</sup> Eta orain salatuta, auzitegira eka-  
rri ba'naute, Jainkoak gure aurrekoai egin zien agindua si-  
nisten dedalako izan da; <sup>7</sup> gure amabi jatorriak, alegiñez gau  
ta egun Jainkoa serbiturik, agindu onen ustea dute. Agri-

pa Errege! Itxaropen onengatik salatzen naute judutarrak. <sup>8</sup> Zer, bada? Sinistu-eziña al da zuentzat Jainkoak ildakoak berriro piztutzea? <sup>9</sup> Egia esan, nik uste izan nuan Jesus Nazaretarraren aurka gogor egin bear nuala; <sup>10</sup> baita egin ere Jerusalem'en; apaiz-nagusiarengandik eskubidea artuta, santu (kristau) asko sartu nituan espetxean; eta ayei bizia kentzerakoan, nik bayezkoa ematen nuan. <sup>11</sup> Eta sarritan beartzen nituan biraoak esatera, sinagoga-tan zigorkatzen nituanean. Eta nere asarre bizian, atzerrietan ayen aurka ibiltzen nitzan. <sup>12</sup> Orrela, apaiz-nagusiaren eskubide eta agiriarekin Damasko'ra nijoala, <sup>13</sup> errege!, bidean, eguerdian, goiko argi bat ikusi nuan, eguzkiarena bera baño biziagoa, ni ta nerekin zijoazenak inguratzen. <sup>14</sup> Eta guztiak lurjota zeudela, aots bat entzun nuan; onela esaten zidan ebreoz: «Saulo, Saulo! zergatik erasotzen nauzu? Gogor zaizu akulluari ostikoka ibiltzea». <sup>15</sup> Eta nik esan nion: «Jauna! Nor zaitut, bada, Zu?». Eta Jaunak esan zidan: «Zuk erasotzen diozun Jesus naiz Ni. <sup>16</sup> Baño, jaiki zaitetz, eta zutitu zure oñen gañean; ikusi dezunaz eta erakutsi dizudanaz morroi ta aitorle egin zaitzadan agertu natzaizu-ta. <sup>17</sup> Ontarakoxe atera zaitut erri ontatik eta atzeritik, eta orain atzeritar oyengana bialtzen zaitut, <sup>18</sup> begiak ideki dezaizkiezun, illunpetatik argitara biurtu, ta Satana's'en mendetik Jainkoarengana eramán ditzazun; onela, pekatuen barkamena ta zintzoen ondorena sinismenez ar dezaten».

<sup>19</sup> Onegatik, Agripa Errege ori, zeruko ikuskizunari enion gogorrik egin, <sup>20</sup> baizik eta Damasko'n zeuden *judutarrak* lenbizi, eta gero Jerusalem'en eta Judea osoan zeudenai, baita atzeritarrak ere, bear zan bezela damutzeko ta penitentzi egiñaz Jainkoarengana biurtzeko otsegin nien. <sup>21</sup> Eta onegatik, ni elizan nitzala, judutarrak artu ta il egin nai izan ninduten. <sup>22</sup> Baño, Jainkoaren la-

guntzaz, gaur arte bizi naiz, txikiak eta aundiak egia aitor-tzen, Moises'ek eta Igarleak gero gertatuko zala iragarri-takoa besterik, ezertxo ere esan gabe; <sup>23</sup> Kristo'k eriotza igaro bearko zuala eta illen artetik berriro piztuko zala, erriari eta atzeritarrak argia erakusteko».

<sup>24</sup> *Paulo'k* itzok bere alde esan zituanean, *Festo'k* aots aundiz ala esan zion: «Paulo, zu burutik zaude! asko ikasiak nastu egin zaitu!». <sup>25</sup> Baño *Paulo'k* onela erantzun zion: «Ez nago ni burutik, *Festo* argi ori; benetan eta sentzunez ari naiz itzegiten. <sup>26</sup> Eta itzok erregeak ezagutzen ditu, ta, orregatik agirian eta zabal esaten dizkiot, guztiak ongi dakizkiala uste det-eta; auetako ezertxo ere ez bait-da ezkutuan egin. <sup>27</sup> Agripa Errege orrek, sinisten al dituzu Igarleak? Ba-dakit, sinisten dituzula». <sup>28</sup> Orduan, Agripa'k esan zion *Paulo'ri*: «Ia-ia kristau biurtu nauzu». <sup>29</sup> Eta *Paulo'k*: «Jaungoikoak nai dezala, nik nai dedan bezela, eta gutxigatik edo askogatik, zu bakarrik ez, baita gaur neri entzuten dauden guztiak ere, ni naizen bezelakoxeak biurtu zaitetzten, baño kate auek gabe».

<sup>30</sup> *Paulo'k* itzok esan zituanean, erregea, agintaria, Berenize ta auekin eserita zeudenak, altxa egin ziran; <sup>31</sup> eta andik aterata, alkarrekin izketan ari ziran; ala zioten: «Gizon onek ez du eriotza merezi duanik ezer egin; ezta giltzapean egoteko ere». <sup>32</sup> Eta Agripa'k esan zion *Festo'ri*: «Gizon au azke (libre) utzi zitekean, Zesar'engana jo ez ba'lu».

## XXVII

**Paulo Erroma'runtz, itxasoz.**

<sup>1</sup> Italia'runtz itxasoz eramatea erabaki zanean, *Paulo* ta *giltzapean* zeuden beste batzuek, *Augusto* gudari-taldeko eunburu zan *Julio* izenekoari eman zizkioten. <sup>2</sup> Eta



Andramita'ko ontzi batean sartuta, itxasora jo genduan, Asia'ko itxasbazerretik zear, Tesalonika'ko Aristarko Mazedonia'ra gurekin zetorrela. <sup>3</sup> Biaramonean, Sidon'era iritxi giñan, eta Julio'k Paulo biotzberaz arturik, lagunengana joan zedilla eta ayengandik bear zuana eskuratzeko baimena eman zion. <sup>4</sup> Eta andik irtenda, Txipre'ren be-aldera joan giñan, aizeak aurrez-aurre jotzen ginduzten-da. <sup>5</sup> Zizilia'ko ta Panfilia'ko itxasoak igarota, Lizia'ko Mira'ra iritxi giñan. <sup>6</sup> An, Italia'ra zijoan Alexandria'ko ontzi bat arkiturik, eunburuak bertara aldatu ginduan.

<sup>7</sup> Aizea zala-ta, egun askotan geldiro ginjoazela ta Gindo-aurrera nekez iritxita, Kreta'ko be-aldera joan giñan. Salmon ondora. <sup>8</sup> Eta itxas-ertzetik zear, Kai-Ederra izeneko tokira iritxi giñan nekez; aren ondoan, Lasea erria dago.

<sup>9</sup> Bitartean, denbora asko igaro zan; eta geroenean, itxasoz ibiltzea zalla zan; eta, barau-aldia igaro zala-ta, Paulo'k oar au egiten zien: <sup>10</sup> «Gizonak! Ba-dakit itxasbi-dea neketsua izango zaigula ta kaltegarria ez zamarentzat eta ontziarentzat bakarrik, baita guretzat ere». <sup>11</sup> Baño, eunburuak, Paulo'k zionari baño lemazayari ta ontziburuari geyago sinisten zien. <sup>12</sup> Baño kai ura neguterako etzala egokia, ta andik itxasoratu egin bear zutela erabaki zuten geyenak; gutxienaz, Fenize'ra joan, al ba-zitekean, an negua igarotzeko; sort-ego ta ipar-ego aizeetara begira dagon Kreta'ko kaia da bera.

#### Ekaitza bidean.

<sup>13</sup> Eta ego-aizeak jotzen zuala, beren asmoa beteko zutela uste izanik, eta aingurak jasota, Kreta'ko itxas-ertzetik zijoazen. <sup>14</sup> Baño, laxter eurakilon deritzan aize zakerak astindu zuan ontzia; <sup>15</sup> eta ontzia aizeak zeramala,

eta aizeari eutsi eziñik, aizearen mende ginjoazen. <sup>16</sup> Kauda izeneko ugarte txiki batera bota ginduanean, doi-doi egin giñan ontziska baten jabe. <sup>17</sup> Ura artuta, egiñalak egin zituzten ontzia lotzen eta bere azpiak sendotzen; eta Sirtetan ondatzeko (ondar-meta) bildurrez, ontzi-oyalak balduta, nora craman ara zijoazen. <sup>18</sup> Biaramonean, ekaitzak gogor jotzen ginduan, eta ontzia arindu egin zuten; <sup>19</sup> eta urrengo egunean, ontziko tresnak ere, beren eskuz, itxasora bota zituzten. <sup>20</sup> Egun askotan etzan ikusi ez eguzkirik, ez izarrik; eta ekaitz aundia gañera zetorkigulata, onik ateratzeko uste osoa galdu genduan. <sup>21</sup> Denbora luzean baraurik egon-da, guztien erdian zutituta, ala esan zien Paulo'k: «Obe genduan, gizonak, nik esan bezela. Kreta'tik atera ez ba'giña; oduan, ez genitun izango neke ta kalte auek. <sup>22</sup> Baño, orain biotz on izan dezazutela eskatzen dizutet; ontzia galduarren, zuetako iñortxo ere ez da galduko-ta. <sup>23</sup> Berea nauan eta serbitzen diodan Jainkoaren Aingerua agertu zait bart, <sup>24</sup> eta auxe esan dit. «Ez bildurtu, Paulo; Zesar'en aurrean agertu bear dezu; eta Jainkoak zurekin dijoazen guztien biziak opa dizkitzu». <sup>25</sup> Beraz, gizonok, izazute uste on, guztia esan zaidan bezela gertatuko dan itxaropena ba-det-eta Jainkoarengandik. <sup>26</sup> Baño, ugarte batera jo bear degu».

<sup>27</sup> Eta amalaugarren gauean, Adriatiko itxasotik zear ginjoazela, legorra inguruan zala somatu zuten mariñelak. <sup>28</sup> Eta kala-beruna itxas-ondora botata, ogei braza zenbatu zituzten; eta pixka bat aurrerago berriro beruna botata amabost besakada. <sup>29</sup> Arkaitzen bat joko zuten bildurrez, ontziaren atzekaldetik lau aingura botata, egunaren zai-zai gelditu ziran urduri. <sup>30</sup> Orduan, itxasgizonak ontzitik iges egin nairik, ontziskak itxasora botatzen asi ziran, aurre-aldetik aingurak botatzeko aitzakiarekin. <sup>31</sup> Baño, Paulo'k eunburuari ta gudariai onela esan zien: «Gizon

auek ontzian gelditzen ez ba'dira, zuek ezin zindezteke onik atera».

<sup>32</sup> Orduan, gudariak txaluparen lokarriak ebaki egin zituzten eta txalupari itxasora erortzen utzi zioten. <sup>33</sup> Eguna agertzen zan bitartean, Paulo'k guztiai eskatu zien zerbait jan zezatela, esanaz: «Amalau garren eguna da gaurkoa baraurik eta ezer jan gabe zaudetela. (\*)» <sup>34</sup> Beraz, jan zazute zuen osasunerako; zuetako iñori etzayo-ta buruko ille bat ere galduko». <sup>35</sup> Au esanda, ogia artu, ta guztien aurrean Jainkoari eskerrak emanda, zatitu ta jaten asi zan. <sup>36</sup> Orduan, besteak ere pizkortu egin ziran, eta jaten asi. <sup>37</sup> Eta ontziko guztiak berreun da irurogei ta amasei giñan. <sup>38</sup> Naikoa jan-ondoren, ontzia arintzen asi ziran, garia itxasora boteaz.

#### Ontzia ondatu.

<sup>39</sup> Eguna argitu zanean, ezin zuten lurralde ura eza-gutu; itxas-baztar bat bakarrik ikusten zuten bere ondar-tzarekin, eta, al ba'zan, ontzia araxe eramatea erabaki zuten. <sup>40</sup> Eta aingurak askatuta, itxasoan utzi zituzten, eta lema askatuta, eta oyal nagusia aizetara jasorik, aizeak bul-tzata, ondartzara zijozazen. <sup>41</sup> Bi itxasotara agerian zegoen toki batera iritxi ziranean, ondar-meta bat jo, ta, ontzia ondatuta gelditu zan. Aurrekaldea ondarretan sartuta, zir-kiñik egin ezin zuala gelditu zan; atzekaldea, berriz, olatuen indarrez zabaltzen ari zan. <sup>42</sup> Orduan, gudarien as-moa giltzapekoak iltzea izan zan, iñork igerian igesi etze-zan. <sup>43</sup> Baño, eunburuak Paulo onez atera nairik, debe-katu egin zien; eta igerian zekitenak lenbizi uretaratu, ta legorrera joan zitezela agindu zuan; <sup>44</sup> besteak, berriz, batzuek ol-gañean eta besteak ontziaren pusketan, legorrera irten zitezela.

## XXVIII

#### Malta ugarteon.

<sup>1</sup> Arrisku artatik iges egin ondoren, ugarte ura Malta zala jakin genduan. (\*) <sup>2</sup> Eta arrotzak arrera ona egin ziguten; su aundia eginda guztiok berotzen ginduzten; euria ta otza ziran-da. (\*) <sup>3</sup> Orduan Paulo'k egur igar batzuek, bildu, ta sutara bota zituan; eta sube-gorri batek, sutatik igeska, eskutik kosk egin zion. <sup>4</sup> *Angoak* subea aren eskutik zintzilika ikusi zutenean, alkarri onela esaten zioten: «Benetan, gizon au gizon-iltzallea da; itxasotik bizirik iges egin du, baño Goiko asarreak ez dio bizi izaten uzten».

<sup>5</sup> Paulo'k, ordea, subea sutara astindurik, etzuen okerrik izan. <sup>6</sup> Baño ayek, Paulo aunditu ta bat-batean ilda eroriko zala uste zuten; eta luzaroan begira egonda, kaltegarrikerik etzetorkiola ikusirik, iritzia aldatu, ta ura jainkoren bat zala zioten.

<sup>7</sup> Publio izeneko ugarte artako nagusiak soro batzuek zeuzkan lurralde artan; eta onek iru egunetz maiteki bere etxean artu ginduan. <sup>8</sup> Publio'ren aita, ain zuzen, sukarez eta beerakoz, oyezan zegoen gaxo. Paulo ura ikustera sartu zan; eta otoitz eginda, eta aren gañean eskuak zabaldurik, sendatu egin zuan. <sup>9</sup> Arrezkero, ugarteko gaxo guztiak ere arengana joan ziran, eta sendatu egiten ziran. <sup>10</sup> Ayek ere begirune aundiz artu ginduzten; eta itxasoratu giñanean, bear genduan guztia eman ziguten.

#### Erroma'ra.

<sup>11</sup> Eta iru illebeta igarota, Alexandria'ko ontzi batean sartu giñan; ontzi onek negutea ugarteon egin zuan, eta Kastor'en eta Polux'en ezaugarria zeraman. <sup>12</sup> Sirakusa'ra

elduta, an iru egun gelditu giñan. <sup>13</sup> Andik, legor-ondotik zear, Regio'ra etorri giñan; eta biaramonean ego-aizea aierata bigarren egunean, Potzuoli'ra sartu giñan. <sup>14</sup> An, *Kristo'gan* anai genitunak arkituta, ayekin zazpi egunegoteko eskatu ziguten. Eta bercale, Erroma'ra iritxi giñan. <sup>15</sup> Eta uri artako anayak gure berri jakin zutenean, bidera atera zitzaizkigun, Apio-enparantza ta Iru Ardanetxeta'raño. Paulo'k ayek ikusi zituanean, Jainkoari eskerrak eman zizkion, eta indarberri aundiak artu zituan.

### Erroma'n.

<sup>16</sup> Erroma'n sartu giñanean, (eunburuak torreko nagusiari giltzapekoak eman zizkion)\* Paulo'ri gudari bat zaitzalle ipiñirik, bere etxean egoteko baimena eman zion. <sup>17</sup> Iru egun ondoren, Paulo'k judutarren nagusiai dei egin zien, eta bildu ziranean, onela esan zien: «Anayok! Erriaren eta aurrekoen oituren kontra nik ezertxo ere egin gabe, Jerusalem'en giltzapean sartu ta erromatarren eskuetan utzi ninduten. <sup>18</sup> Auek (erromatarrek) aztertu nindueanean, askatu nai izan ninduten, eriotzarako errurik neregan ez nualako. <sup>19</sup> Baño, judutarrak nere aurka aterata, Zesar'ngana jo bearrean arkitu nitzan; ez, ordea, nere erria zerbaitetan salatzeke asmoz. <sup>20</sup> Onetxegatik egin dizutet dei zuek ikusi zaitzadaten eta zuekin itz egin dezadan. Israel'en itzaropenagatik daramat kate au» (\*).




<sup>21</sup> Orduan ayek erantzun zioten: «Guk ez degu Judea'tik zutzaz eskutitzik artu, ta etorri diran anayetako batek ere ez digu zutzaz ezer txarrik esan. <sup>22</sup> Baño, zure iritzia zerorregandik entzun nai degu; ba-dakigu alderdi ori toki guztietan ukatu egiten dutela-ta». <sup>23</sup> Eta eguna izendaturik, lagun asko bildu zitzaizkion ostatura; eta be-

\* Mako-barrukoa, Vulgata'k bakarrik dakar.

rak, goizetik gaberarte, Jainkoaren erreñua erakusten eta aitortzen zien, Moises'en Legeak eta Igarleak Jesus'i buruz iragartzen zutena azalduaz. <sup>24</sup> Paulo'k esana batzuek sinistu egin zuten; beste batzuek, berriz, sinisgogor gelditu ziran. <sup>25</sup> Eta alkarren artean batasunik etzutela, ta alde egin zioten, Paulo'k esaten ziela: «Espiritu Santuak gure aurrekoai, Isaias'en bidez, ederki egin zien itz, <sup>26</sup> esanaz: «Zoaz erri orrengana ta esayezu: zeuron belarriz entzungo dezute, ta ez dezute ulertuko, zeuron begiz begiratuko dezute, ta ez dezute ikusiko; <sup>27</sup> erri onen biotza gogortu egin da-ta; belarriak gorak eta begiak itxiak dauzka, begiz ikusi ez dezaten, biurtu ez ditezen, eta osasuna eman ez dezayedan (\*). <sup>28</sup> Jakin zazute, bada, Jainkoaren osasun au atzerritarrai bialdu zayela; eta ayek entzun (onartu) egingo dute».

<sup>29</sup> Eta au esan zuanean, judutarrak alde egin zuten, beren artean eztabaida aundia zebilkitela. <sup>30</sup> Eta Paulo'k bi urte egin zituan, bizi zan etxean ordainduaz, eta etortzen zitzaizkion guztiai arrera ona egiten zien, <sup>31</sup> eta Jainkoaren erreñua erakusten zien eta Jesukristo Jaunari dagokiona eragozpenik gabe zabal-zabal, argi ta garbi agertzen.





PAULO DONEAK ERROMATARRAI  
EGINDAKO ESKUTITZA

I

**Sarrera.**

<sup>1</sup> Paulo'k, apostolu izateko ta Jainkoaren Berri Ona zabaltzeko ipiñia naizen Jesukristo'ren morroi onek <sup>7</sup> zuei, Erroma'n zaudeten Jainkoaren maite ta santu deitutako guztiai, grazia ta pakea Jainko gure Aitaren eta Jesukristo Jaunaren izenean (\*). <sup>2</sup> Len Igarleen bidez Liburu Santuetan *Jainkoak berak* agindu zuan bere Semeari dagokion *Berri On* au. <sup>3</sup> Jesukristo gure Jauna aragiz Dabid'en jatorritik jayo zan, eta illen artetik berriz piztutzean Santutasun arnasez indartsu, Jainkoaren Seme aukeratua izan zan (\*). <sup>6</sup> Berarengatik (Jesukristo'rengandik) artu degu grazia ta apostolutza, atzerri guztiak Aren izenean sinismenera erakartzeko. <sup>5</sup> Eta ayen artekoak zerate zuek ere, Jesukristo'k deituta.

**Paulo'k Erroma'ra joateko gogoia.**

<sup>8</sup> Lenbizi, zuek guztiongatik Jesukristo'ren bitartez eskerrak ematen dizkiot Jainkoari, zuen sinismena lurbira

osoan ezagutzen dalako. <sup>9</sup> Bere Semearen Ebanjelioa zabalduaz, nere gogoz morroi naun Jainkoak ba-daki nik zuek etengabe gogoan zaituztedala: <sup>10</sup> egunen batean, - Jainkoak nai ba'du - zuek ikustera joateko bidea zabaldu dezaidala nere otoitzetan beti eskatuaz. <sup>11</sup> Egia esan, ikusi egin nai zaituztet, sendotuko zaituzten gogozko graziren bat zuei eramateko, (\*) <sup>12</sup> edo-ta zuen eta nere sinismenez alkar poztu dezagun. <sup>13</sup> Baño, orain arte joaterik izan ez ba'det ere, ez det nai, zuengana joateko asmoak askotan izan ditudala jakin gabe egoterik; zuen artean ere, beste errietan bezela, fruturen bat ateratzeko. <sup>14</sup> Grezitarrai ta arrotzai, jakitunai ta ezjakiñai zordun natzaye (\*). <sup>15</sup> Beraz, ni gertu nago Erroma'n zaudetenai re Berri Ona erakusteko. <sup>16</sup> Kristo'ren Berri Onaz ez naiz lotsatzen-da; *Berri On au*, fededun guztientzat osasunerako Jainkoaren indarra da; judutarrentzat lenen, eta gero grezitarrentzat. <sup>17</sup> Izan ere, or agertzen da sinismenetik fededunai datorkien Jainkoaren zuzentasuna, idatzita dagoenez: «Zuzena sinismenez bizi da» (\*).

#### **Atzeriak etzuten Jainkoak agindutakorik egin.**

<sup>18</sup> Izan ere, bidegabekeriz Jainkoaren egia lotzen duten gizonen gaitzakeri ta bidegabekeri guztien aurka, Jainkoaren asarrea zerutik agertzen da: <sup>19</sup> Jainkoaz jakin ditakena agerian daukate, Berak erakutsi dielako (\*). <sup>20</sup> Aren ikusi-eziñak, mundua sortu zanetik egindakoen ezagueraz ikusten dira; beraz, alako gizonak ez dute aitzakirik; <sup>21</sup> Jainkoa ezagutu ondoren, Jainkotzat goratu ez dutelako, ta eskerrik eman ez diotelako; baizik eta, beren asmarrietan arrotu egin dira, ta ayen biotz zoroa illunduta gelditu da; <sup>22</sup> eta beren buruak jakitun egiñik, ezjakin biurtu dira; <sup>23</sup> eta Jainko ustel-eziñaren aintza, gizon ustel-

korren irudietara, ta egaztienetara, ta lau-oñekoenetara, ta naraztienetara aldatu dute (\*).

#### **Atzerriai zigorra.**

<sup>24</sup> Orregatik, Jainkoak beren biotzetako naikerietan zikinduta utzi ditu, berak beren gorputzak loitu ditzaten. <sup>25</sup> Eta, Jainkoaren egia gezur biurtuta, betiko bedeinkatua dan - eta ala izan dedilla - Egillearen ordezt, izakia gurtu ta mirabetu dute. <sup>26</sup> Orregatik Jainkoak griña lotsagarrietan amildu ditu; eta ayen emakumezkoak, dagokien bidez zuzena utzi, ta jatorrizko bideen kontra ari dira. <sup>27</sup> Era berean, gizonetzkoak ere, emakumezkoenganako bide jatorra utzita, alkarrenganako lizunkerietan berotu dira, gizonetzkoak gizonetzkoekin lotsagarrikeriak egiñaz eta egin duten okerraren saria beragan artuaz. <sup>28</sup> Eta Jainkoa ezagutzeko gogorik etzuten ezkeru, Jainkoak beren burugabekeri zoroetan utzi zituan bidezko ez dana egin zezaten; <sup>29</sup> okerkeriz, dollorkeriz, aragikeriz, diru-zalekeriz eta gaitzakeriz beterik; ikusi-eziñez, gizon-iltzez, eztabaidaz, azpikeriz, eta maltzurkeriz beterik; <sup>30</sup> nastaille, maixiolari, Jainkoaren gorrotagarri, mingarri, arroputz, txarrerako makur, gurasoentzat biurri; <sup>31</sup> zoro, eragabe, biotzgabe ta errukigabe. <sup>32</sup> Orrelakoetan dabilzanak, Jainkoaren rabakiz eriotza merzei dutela jakin-da ere, ber-berak orrelakoak egin ez ezik, orrelakoak egiten dituztenai txaloak josten dizkiete.

## II

#### **Judutarrak ere ez dabilta Osasun-bidean.**

<sup>1</sup> Orregatik, gizon, zerana zerala, ez dezu zere buruarentzat zuribiderik besteak gaitzesten dituzun orrek; besteak gaitzesten, zere burua gaitzesten dezu; gaitzesten de-

zuna bera egiten bait-dezu zerorrek (\*). <sup>2</sup> Eta ba-dakigu Jainkoaren iritzia, egiaren bidean, orrelakoak egiten dituztenen kontra dagola. <sup>3</sup> Eta zu, gizon, orrelakoak egiten dituztenak gaitzetsi ta ber-berak egiten dituzun ori, Jainkoaren auziari iges egingo diozulakoan ote zaude? <sup>4</sup> Aren onginaya, eramanpena ta biotz-zabalaren aundia ez dituzu aintzat artzen, ala? Ez al dakizu Jainkoaren errukiak damura deitzen dizula? <sup>5</sup> Zu, ordea, zure gogorkeriz eta zure damu-ezaz, zeretzat asarrea biltzen ari zera, Jainkoaren asarre eta agertze egunerako. <sup>6</sup> Ark (Jainkoak) bakoitzan bere egiñak merezi dutena emango dio; <sup>7</sup> on egiten aspertu gabe, aintzaren eta izen onaren eta illezkorraren bila dabiltzanai, betiko bizitza *emango die*; <sup>8</sup> burugogorrai, egia bazartzten dutenai ta okerbidea maite duten gizon guztiai, naigabea ta asarrea. <sup>9</sup> Ta gaizki egiten duten gizon guztiai naigabea ta larria; judutarrai lenbizi ta grezitarrai gero; <sup>10</sup> ongille guztiai, berriz, aintza ta izen ona ta pakea; judutarrai lenbizi ta grezitarrai gero; <sup>11</sup> Jainkoarengan ez bait-dago norkeririk (\*).

#### Atzerritarren legea.

<sup>12</sup> Lege gabe pekatu egin izan duten guztiak, lege gabe galduko dira; eta legepean pekatu egin izan duten guztiak, legearen neurrian epaituko dira. <sup>13</sup> Jainkoaren aurrean ez dira zintzo, legea entzuten dutenak; baizik, legea betetzen dutenak; auetxek izango dira zintzotzat eukiak. <sup>14</sup> Izan ere, Legerik ez duten atzerritarrak, legean agindutakoa berenez egiten ba'dute, berak dira berentzako lege; <sup>15</sup> Olakoak, lege-mamia beren biotzetan idatzia agertzen dute; eta orretzaz beren barruak ematen die aitormen, ayen iritzia alkar salatzen edo zuritzen dutela. <sup>16</sup> Orixe ikusiko da, nere Berri Onak erakutsi duanez, Kristo'ren bitartez, Jainkoak gizonen barrua epaituko duan auzi-egu-

nean. <sup>17</sup> Baño, zuk, judutar-izena eramanik. legean atsedan dezula ta Jainkoagan arrotzen zerala, <sup>18</sup> Aren naya ezagaturik, eta legean ikasita egokienà zer dan dakizula, <sup>19</sup> zuk, itxumutil, illunpean daudenen argi (\*), <sup>20</sup> ez-jakiñen zuzendari ta umeen erakusle zeralakoan eta Legean jakintzaren eta egiaren zuzenbide daukazulakoan, zauden orrek, <sup>21</sup> besteri erakusten diozuna, zergatik ez diozu zere buruari erakusten? Ez dala ostu bear erakusten dezun orrek, ostu egiten dezu!; <sup>22</sup> ezkontza ez dala loitu bear diozu, ta zerorrek loitu egiten dezu; sasi-jainkoen irudiak gorroto dituzu, ta doncaustea zerorrek egiten dezu. <sup>23</sup> Legeaz arrotu egiten zera, ta, legea ausirik, Jainkoari uts egiten diozu. <sup>24</sup> Idatzita dago-ta: «Jainkoaren izenari atzerritarren artean, zuegatik egiten diote birao» (\*).

#### Benetako erdainketa.

<sup>25</sup> Egia da erdainketa ongarrri dala, legea betetzen ba'dezu; baño, legea austen ba'dezu, zure erdainketa buztan-moko egiten da (\*). <sup>26</sup> Legearen aginduak betetzen dituan erdain-gabeari, berriz, ez ote zayo buztan-mokoa erdaintzat artuko? <sup>27</sup> Eta berez erdain-gabea izanik, legea ondo betetzen ba'du, orrelakoak zu epaituko zaitu legea austen ba'dezu, zuk legea ta erdaiña euki arren. <sup>28</sup> Judutarra izatea ez da judutar-azala erakustea; ezta erdainketa aragian bakarrik ageri dana (\*). <sup>29</sup> Baizik eta *benetako* judutarra da, barrutik dana; eta benetako erdainketa, bicitetik dana; gogoz, eta ez lege-itzari dagokionez. Alako *judutarrai* gorapena ez datorkio gizonarengandik, Jainkoarengandik, baizik.

## III

**Judutarrek eta atzerritarrek, guztiak Jesukristo'ren sinismena artu bear dute.**

<sup>1</sup> Zein alderdi obe du judutarrek? Edo-ta, zertarako da gauza erdainta? <sup>2</sup> Nolanai ere, aundia da *judutarren* alde. Lenbizi, Jainkoaren itza beren gain utzi zitzayen (\*). <sup>3</sup> Zer, bada? Batzuek sinistu ez dutela-ta, alakoen sinisgorkeriak galerazi egingo ote du Jainkoaren leyaltasuna? <sup>4</sup> Ez orixe! Egitia da Jainkoa, ta «gizona, gezurtia», idatzita dagonez: «Zure itzetan zintzo ager zaitezzen eta auzi-orduan garaille atera zaitezzen» (\*). <sup>5</sup> Baño gure bidgabekeriak Jainkoaren zuzentasuna agiriago uzten ba'du, zer esango degu? Ala, bidgabeba izango ote da Jainkoa bere asarrea zabaltzen duanean? (\*) (giza-legez ari naiz gero izketan!). <sup>6</sup> Ez orixe! Bestela, nola epaituko luke Jainkoak gizarte au? <sup>7</sup> Baño, nere gezurratik, Jainkoaren egia. Aren aintzarako geyago nabarmentzen ba'da, zergatik epai egin bear zait neri pekatari ba'nitz bezela? <sup>8</sup> Eta - gutzaz gaizki csanaz, batzuek guk ala diogula esaten ba'dute ere - ez ote degu txarra egin bear, ona etorri dedin? Egon ere, ondo galduak daude orrelakoak. <sup>9</sup> Zer, bada? Ayek baño obeak ote gera gu? Ez, noski! Guztiak, judutar eta grezitar, pekatuaren mendean daudela egiztatua degu-ta (\*). <sup>10</sup> Idatzita dagonez: «Zintzorik ez da bat bakarrik ere. <sup>11</sup> Ez da zentzundunik, ezta Jainkoaren billa dabillenik ere. <sup>12</sup> Guztiak okertu dira, guztiak alperrik galdu; ez dago ona egingo duanik bat ere». <sup>13</sup> Ayen eztarria illobi zabal da; azpikeria daramate mingañean (\*); ayen ezpañiak sube-pozoya dariote (\*); <sup>14</sup> aoa biraoz eta mikatzez beterik dago (\*); <sup>15</sup> azkarrak dira ayen oñak odola ixurtzeko: <sup>16</sup> nekea ta zoritxarra ugari ayen bideetan, <sup>17</sup> eta pakebiderik etzuten ezagutu (\*); <sup>18</sup> Jainkoaren bildurrik ez du-

te begien aurrean» (\*). <sup>19</sup> Ba-dakigu, ordea, legeak dio:n guztia, legepean daudenentzat diola, ao guztia ixilik geldidedin eta gizadi osoa Jainkoaren aurrean pekatari ager dedin. <sup>20</sup> Izan ere, ez da Aren aurrean Legeko eginbidez inor zuzen agertuko; Legetik pekatuaren ezaguera bait-datorkigu bakarrik.

**Jainkoak gizadiari osasuna Kristo'ren bidez eman dio.**

<sup>21</sup> Baño orain legerik gabe Jainkoaren zuzentasuna agertu da, Legean eta Igarleetan aitortua zegona. <sup>22</sup> Jainkoaren zuzentasun au, Arengan sinisten duten guztientzat da, inoren alderik ez dago-ta (\*). <sup>23</sup> Guztiak egin dute pekatu ta Jainkoaren ederra galdu; <sup>24</sup> eta orain, zuzentasuna utsean ematen zaye, Jesukristo'k ayentzat egin zuan eropenarengatik; <sup>25</sup> Uraxe (Jesukristo) aukeratu bait-du Jainkoak, bere odolean, sinismenaren bitartez, opari eztagarri izan dedin. Len egindako pekatuak barkatzean, bere zuzentasuna erakusteko egin zuan ori; <sup>26</sup> ain egonarri aundiz Jainkoak eramandako pekatuak, bere zuzentasuna aldi ontan ager zezaten; Bera bakarrik dala zuzena, ta Jesus'en sinismena dutenen zuzentzalea ere Bera dala adierazirik. <sup>27</sup> Nun dezu, bada, arrotzeko biderik? Baztartuta dago. Zein legek baztartuta? Egintzenak? Ez; sinismenlegeak,baizik. <sup>28</sup> Gizona, lege-egintzen bearrik gabe, sinimenez zuzentzen dala uste degu-ta. <sup>29</sup> Jainkoa judutarrentzat bakarrik ote da? Ala, atzerritarrentzat ere bai? Bai orixe; atzerritarrentzat ere bai. <sup>30</sup> Izan ere, bat bakarra da sinismenaren bidez, erdainduak eta erdaingabeak zuzentzen dituan Jainkoa. <sup>31</sup> Beraz, guk, *Moises'en* legeari, *Jesukristo'ganako* sinismenagatik indarra kentzen diogula? Ez orixe! Orrela legea sendotu egiten degu.

## IV

**Abrahan'en zuzenbidea.**

<sup>1</sup> Beraz, zer esango degu aragiz gure aita dan Abraham'ek iritxi zuanaz? <sup>2</sup> Abraham egintzen bidez zintzotu ba'litz, arrotzeko bidea ba-luke; baño, ez Jainkoaren urrean. <sup>3</sup> Zer dio, bada, Liburu Santuak? «Sinistu zuan Abraham'ek Jainkoa ta zintzotzeko aintzat artu zitza-yon» (\*). <sup>4</sup> Lan egin duanari etzayo saria eskerron-agiri bezela ematen, baizik irabazi duan ordain bezela. <sup>5</sup> Baño, lanik egin ez duanari, gaiztoa zuzentzen duanagan sinistuta, sinismen au zintzotasunerako aintzat artzen zayo (\*). <sup>6</sup> Egintzarik gabe, Jainkoak zintzotasuna ematen diona, zoriontsu dala aitortzen du Dabid'ek ere: <sup>7</sup> «Zoriontsuak gaiztakeriak barkatu ta pekatuak estali zaizkienak! <sup>8</sup> Zoriontsua Jainkoak pekaturik leporatu ez dion gizona!» (\*). <sup>9</sup> Baño, zorion au erdainduena bakarrik ote da, ala erdaingabeena ere bai? «Sinismena Abraham'i zuzentasunerako eman zitza-yon», bait-diogu. <sup>10</sup> Noiz eman zitza-yon, bada? Erdaindu-aurretik, ala erdaindu-ondoren? Erdaindu zanean, ez; erdaindu-aurretik, baizik. <sup>11</sup> Eta erdaingabe zala, sinismenez iritxitako zuzentasunaren ezaugarritzat, erdaindu-siñalia gero artu zuan; auei ere sinismena zuzentasunerako egotzia izan dakien erdain gabe diran sinistodun guztien aita izan zedin. <sup>12</sup> Baita erdainduen aita izan zedin ere; baño, erdainduena bakarrik ez, baita gure aita Abraham'ek erdainketa-aurretik zeukan sinismenaren bidea jarraitzen zienena ere izan zedin (\*). <sup>13</sup> Izan ere, lur-raren jabe izateko, Abraham'i ta onen ondorengoai egin zitza-yen agintzaria, etzan legearen bidez izan, sinismenak emandako zuzentasunaren bidez baizik. <sup>14</sup> Jabegayak *Moses'en legeko* diranak bakarrik ba'lira, sinismena alperrik litzake, ta *Jainkoaren* agintzaria indargabea. <sup>15</sup> Legeak

*Jainkoaren* asarrea dakar; legerik ez ba'litz, ordea, lege-  
-auslerik ere elitzake. <sup>16</sup> Beraz, agintzaria sinismenetik dator; utsean, beraz; agintzaria Legea artu dutenentzat bakarrik ez; baizik guztion aita dan Abraham'en sinismenari jarraitzen dioten ondorengo guztientzat izan dedin. <sup>17</sup> idatzita dagonez: «Erri askoen aita izateko jarri zaitut» (\*), illai bizia eman, eta diranai bezela ez diranai ere dei egiten dien Jainkoaren aurrean, sinistu egin zion-da. <sup>18</sup> Abraham'ek ustearen kontra uste izanik, erri askoen aita izango zala, sinistu egin zuan, esan zitza-yon bezela: «Ainbestekoa izango da zure azia». <sup>19</sup> Eta eun urte inguruko zala, sinismenean etzan makaldu, bere gorputza aulduta, eta Sara'ren sabela antzututa egonarren. <sup>20</sup> Jainkoaren agintzariaren zalantzarik ere etzuan izan; sinismen sendoa baizik, Jainkoari aintza emanaz; <sup>21</sup> agintzaria egin zuan *Jainkoa*, agindutakoa betetzeko ere altsua zala uste osoz sinisturik. <sup>22</sup> Ori zala-ta, sinismena zintzotasunerako aintzat artu zitza-yon. <sup>23</sup> Eta, zintzotasunerako aintzat artu zitza-yola, ez dago arentzat bakarrik idatzia, <sup>24</sup> guretzat ere bai; Jesus gure Jauna illen artetik piztu zuanaren sinismena ba'degu, guri ere aintzat artuko zaigu-ta; <sup>25</sup> gure pekatuengatik il bait-zan Jesus eta gure zuzentasunerako piztu.

## V

**Jesukristo'ren sinismenak dakarzkien ondoren onak.**

<sup>1</sup> Beraz, sinismenez zintzotuta, Jainkoaren pakea daukagu, Jesukristo gure Jaunaren bidez. <sup>2</sup> Berarengatik zabaldu zaigu sinismenaren bidea, grazi ontara sartzeko atea ere, ta Jainko-semeen aintzaren ustez poztuta gabiltza. <sup>3</sup> Eta ez au bakarrik, naigabeetan ere pozik gaude; naiga-



beak eramanpena, <sup>4</sup> eramanpenak onoimen-birtutea ta onoimen sendoak itxaropena dakarrela jakiñik. <sup>5</sup> Eta itxaropen onek ez du uts-ematen; eman zaigun Espiritu Santuaren bitartez Jainkoaganako maitasuna gure biotzetan ixuri-ta bait-dago. <sup>6</sup> Izan ere, oraindik *pekatuaz* indargabe geundela, bere denboran, gaiztoen alde Kristo il zan. <sup>7</sup> Ba-diteke ongillearen alde bizia emateko norbait prest egotea; edozein zintzoren alde eman nai lukenik, ordea, doi-doi arkituko litzake. <sup>8</sup> Baño, Jainkoak gukanako bere maitasuna agertzen du, gu pekatariak izanik, Kristo gure alde il bait-zan. <sup>9</sup> Beraz, orain bere odolaz zintzotuak gauden ezker, askozaz geyago Berarengandik salbatuko gera asarretik. <sup>10</sup> Aren etsai giñala, Jainkoak bere Semearen eriotzari esker, adiskidetzat artu ba'gaitu, askoz geyago salbatuko gera orain, Aren biziari esker. <sup>11</sup> Eta ez or: bakarrik; baizik eta Jainkoagan arrotu ere, arrotzen gera Jesukristo gure Jaunaren bidez; orain adiskidetasuna Beronengatik iritxi degu-ta.

### Adan eta Kristo.

<sup>12</sup> Orregatik, gizon baten bidez sartu zan pekatua gizar-tean, eta pekatuaren bidez, eriotza; eta orrela, eriotza gizaki guztiengana iritxi da, guztiak egin zuten-da pekatu (\*). <sup>13</sup> Izan ere, legea baño len ba-zan pekatua munduan; baño, *orduan* legerik etzegon *idatzita*, eta etzitza-yon iñori pekatu-rik leporatzen. <sup>14</sup> Ala baña, Adan'engan-dik Moises'enganaño eriotza zan nagusi, Adan'en antze-ko pekatu-rik etzutenen gañean ere, *Etortzekoaren* irudi Adan bait-zan. <sup>15</sup> Ordañarekin ez da pekatu-arekin beze-la gertatu. Izan ere, baten pekatuaz guztiak il ba'dira, as-koz ugariagoa izan da guztientzat Jainkoaren grazia, ta gi-zon baten graziaz, Jesukristo'renaz, egindako doaya. <sup>16</sup> Ez da pekatuan bezela izan ordañean; epaya, *pekatu* baten-

gatik etorri zan ondamendirako; ordain-saria, berriz, pe-katu askotik zuzentasunerako. <sup>17</sup> Baten pekatuz, au da, baten eragiñez, eriotza errege izan ba'zan grazia ta zuzen-tasun-saria ugari artzen dituztenak, erregeago izango dira bizitzan, beste bategatik, Jesukristo'rengatik, alegia (\*). <sup>18</sup> Beraz, baten pekatuagatik gizaki guztiak ondarena etor-ri zitzaizen bezela, baten zuzentasunagatik gizaki guztiak bizirako zuzentasuna ere etorri zaye. <sup>19</sup> Eta baten menpe-tasunik-ezagatik asko pekatari gertatu ziran bezela, beste baten menpetasunagatik asko zuzendu ere egingo dira. <sup>20</sup> Legea etorri zan, pekatua ugaritu zedin (\*). Baño, pe-katua ugaritu zanean, ugariago izan zan grazia; <sup>21</sup> pekatua eriotzaz errege izan zan bezela, grazia ere, gu betiko bi-zitzara eramateko, zuzentasunez errege izan dedin Jesu-kristo gure Jaunaren bidez.

## VI

### Batayoa arlu ondoren, Kristo'rekin bat-eginda bizi bear degu.

<sup>1</sup> Zer esango degu, bada? Pekatuan egongo al gera, grazia ugaria izan dedin? <sup>2</sup> Ori ez! Pekatua-erentzat ilda gaudenok, nola biziko gera geyago pekatuan? <sup>3</sup> Edo-ta, ez a dakizute, Jesukristo'rentzat batayatuta gaudenok, Aren eriotzarako izan gerala batayatuak? <sup>4</sup> Izan ere, batayoaren bitartez Kristo'rekin eriotzako lurperatuta gaude; Kristo illen artetik Aitaren aintzarako berriro piztu zan bezela, gu ere bizitza berri batean bizi gaitezen. <sup>5</sup> Aren erio-tzaren antzera, Aren mentu egiñak ba'gaude, Aren piz-tueraz ere, berdin gertatuko zaigu-ta. <sup>6</sup> Ondo dakigu gure gizaki zaarra Arekin gurutziltzatua izan dala. guregan pe-katuaren gorputza galduta gero, pekatuaren morroi bei-

ñere izan ez gaitzen. <sup>7</sup> Il dana pekatutik askatuta gelditzen bait-da. <sup>8</sup> Eta gu Kristo'rekin il ba'gera, Arekin biziko gerala sinisten degu; <sup>9</sup> ba-dakigu-ta, illen artetik piztu-ondoren, ez dala berriz ilko; gerokoan, eriotzak ez du Arengan eskubiderik izango. <sup>10</sup> Il zana, berriz, pekatuarentzat, bein betiko il zan; baño, bizi dana, Jainkoarentzat bizi da. <sup>11</sup> Berdin zuek ere, gogora zazute *batayoan* pekatuarentzat ilda zaudetela, ta Jainkoarentzat bizi zeratela Jesukristo gure Jaunarengan.

#### **Pekatuaren eta Jainkoaren morrontza.**

<sup>12</sup> Beraz, ez bedi zuen gorputz ilkorrean pekatua errege bizi, aren grina gaiztoen esanik egin ez dezazuten. <sup>13</sup> Zuen gorputz-atalik ere etzayozute geyago pekatuari eskeñi, gaiztakerirako izkillo (arma) izateko Jainkoari baizik; illen artetik piztu diranen antzera, eskeñi zaizkiozute Jainkoari zuen buruak eta gorputz-atalak, zuzentasunerako izkillo, izateko. <sup>14</sup> Pekatua ez da geroenean zuen nagusi izango; ez bait-zaudete legepean, graziaren azpian baizik. <sup>15</sup> Zer, bada? Legepean ez, eta graziaren azpian gaudela-ta, pekatu egingo ote degu? Ez, orixe! <sup>16</sup> Edo, ez al dakizute norbaiten mendean morroi sartzen zeratenean, aren morroi gelditzen zeratela, edo pekatuaren morroi eriotzarako, edo menpetasunaren morroi zuzentasunerako? <sup>17</sup> Baño, Jainkoari eskerrak, pekatuaren morroi ziñatenok, erakutsi zaizuten ikasbidea biotzez artu dezute; <sup>18</sup> eta pekatutik askatuta, zuzentasunaren morroi egin zerate. <sup>19</sup> Aragiz argalak zeraten ezkerro, gizabidez diotzutet; oker egiteko, zuen gorputz-atalak loikerietarako ta gaiztakerietarako len erabilli zenituzten bezela, orain zuen gorputz-atal oyeke zuzentasunaren mendera ekarri itzazute. <sup>20</sup> Pekatuaren morroi ziñatenean, ba-zenuten zintzo izateko eskubidea. <sup>21</sup> Baño, zer frutu iritxi zenduten orduan? Orain lotsarazten

zaituzten frutuak; ayen azkena, eriotza da-ta. <sup>22</sup> Orain, ordea, pekatutik askatuta, Jainkoaren morroi eginda zaudeten ezkerro, santutasuna dezute frutu, eta betiko bizitza azken. <sup>23</sup> Pekatuaren ordaña, eriotza da-ta; Jainkoaren ordain, berriz, betiko bizitza, Jesukristo gure Jaunarengan.

## VII

#### **Kristo'ren jarraitzaileak ez daude Moises'en Legepean.**

<sup>1</sup> Edo-ta, ez al dakizute, anayok, -legea ezagutzen dezutenai diotzuet - legea gizonari bizi dan bitartean bakarrik zayola nagusi? <sup>2</sup> Izan ere, emaztea, senarra bizi dan artean, senarrari Legez lotuta dagokio; baño, senarra il danean, arenganako legetik askatuta dago. <sup>3</sup> Beraz, senarra bizi zayon emaztea beste gizonezko batekin alkartzen ba'da, ezkontza-nastalle izango da; baño aren senarra iltzen ba'da, Legetik askatuta dago; eta beste senar baten emazte egiten ba'da, ez da ezkontza-nastalle izango. <sup>4</sup> Orrela zuek ere, nere anayok, Kristo'ren gorputzarekin Legearentzat il zerate, beste batenak izateko, Jainkoari frutuak ekarri dezaizkiozuten, illen artetik piztu zan Kristo'renak izateko (\*). <sup>5</sup> Aragian bizi giñanean, legeak zirikaturako pekatuen grina gure gorputz-atalean frutu ilkorrak ekartzen zituzten. <sup>6</sup> Orain, ordea, lotuta gindeukan eriotz-legepetik askatuta gaude, gogo berriz Jainkoa serbi dezagun, eta ez lenagoko lege-itzez.

#### **Legea ta pekatua.**

<sup>7</sup> Zer esango degu, bada? Legea pekatu dala? Ez orrekorik! Baño pekatu ez nuan ezagutu, Legearengatik izan ezik. Legeak «ez irrikatu» esan ez ba'lida, ez nukean

irikarrik ezagutuko. <sup>8</sup> Eta pekatuak, agindutik bide arturik, irrika guztiak piztu ditu nigan; lege gabe pekatua ilda bezela zegoan-da. <sup>9</sup> Len ni Lege gabe bizi nitzan; baño agindua etorri zanean, pekatua berriz piztu zan, <sup>10</sup> eta ni ilda bezela gelditu nitzan; eta bizirako eman zitzaidan agindu ura, eriotzarako izan zitzaidala konturatu nitzan. <sup>11</sup> Agindutik bide arturik, pekatuak limurtu ninduan, eta aren bitartez, il egin ninduan. <sup>12</sup> Beraz, Legea donea da, agindua ere donea da, ta zuzena ta ona.

### **Pekatuaren indar gaitza.**

<sup>13</sup> Beraz, ona dana, neri eriotz biurtu ote zait? Ez, orixe! Pekatuak bere gaitzakeri guztia agertzeko, eriotza, onaren bidez, sartu du nigan, aginduaren bidez pekatua oso gaitzakeri-bide biur zedin. <sup>14</sup> Legea gogozko dala bada-kigu; ni, berriz, aragizko naiz, eta pekatuari saldua. <sup>15</sup> Egiten dedana ere ez det ulertzen, nai dedan onik ez det egiten-da; baizik, gorroto dedana, orixe egiten det. <sup>16</sup> Nai ez dedana egiten ba-det, berriz, Legea ona dala aitortzen det. <sup>17</sup> Orain, ordea, ez naiz ni ori egiten dedana, neregan bizi dan pekatua, baizik. <sup>18</sup> Ba-dakit neregan, edo nere aragian onik ez dala; ona nai izatea, neregan dago. bai; baño, ona egitea ez. <sup>19</sup> Izan ere, nai dedan ona ez det egiten, nai ez dedan txarra, baizik. <sup>20</sup> Nai ez dedana egiten ba'det, ordea, ez naiz ni ori egiten dedana, neregan dagon pekatua baizik. <sup>21</sup> Beraz, Lege au somatzen det neregan; ona egin nai dedanean, nere aurrean txarra agertzen zaidala. <sup>22</sup> Barruko gizon-aldeetik, Jainkoaren Legea atsegin zait; <sup>23</sup> baño nere gorputz-atalean beste lege bat ere somatzen det, nere gogo-legearen kontra ari dana, nere gorputz-atalean dagon pekatu-legeari lotuta naukana. <sup>4</sup> Nere zoritxarra! Nork askatuko nau goputz ilkor ontatik? <sup>5</sup> Jainkoaren graziak, Jesukristo gure Jaunarengatik...! Bi-

tartean, espirituz makurtuta nagokio Jainkoaren Legeari; eta aragiz, pekatu-legeari.

## VIII

### **Espirituaren bizitza.**

<sup>1</sup> Beraz, orain galbiderik ez dago batere Jesukristo'renigan bizi diranentzat: - Jesukristo'rengan dagon bizitzako espiritu-legeak, pekatuaren eta eriotzaren legetik askatu egin nau-ta. <sup>3</sup> Izan ere, legeak ezin zezakeana - aragiak legea makalduta zeukan ezkeren -, Jainkoak aragian pekatua bateatu egin zuan, (\*) bere Semea pekatu-aragi irudian, pekatuaren ordaintzat bialdurik; <sup>4</sup> guregan, aragi-bidea utzita, espiritu-bidetik gabiltzanongan, zuzenbide-legea bete zedin. <sup>5</sup> Aragiaren erara bizi diranak, aragiarenak nai izaten dituzte; espirituari dagokionez bizi diranak, ordea, espirituarenak. <sup>6</sup> Eta aragiaren zalekeria eriotza da; espirituaren zalekeria, berriz, bizitza ta pakea. <sup>7</sup> Aragiaren zalekeria Jainkoaren etsai da; Jainkoaren legepean ez dago-ta, egon ere ezin egon diteke.

### **Aragiaren erara bizi diranak.**

<sup>8</sup> Aragiaren erara bizi diranak, Jainkoaren ederrik ezin izan dezateke. <sup>9</sup> Zuek, ordea, etzerate aragiaren erara bizi, espirituari dagokionez baizik, zuengan Jainkoaren Espiritua bizi ba'da beintzat. Baiño, Kristoren Espiritua ez daukana, au ez da Kristo'rena. <sup>10</sup> Zuengan Kristo egon ezkeren, ordea, gorputza pekatuarengatik ilda dago, bai; baño espiritua zuzentasunarengatik bizi da. <sup>11</sup> Eta Jesus illen artetik piztu duanaren (Jainkoaren) Espiritua zuengan bizi ba'da, illen artetik Kristo-Jesus piztu zuanak zuen gorputz ilkorak ere piztu egingo ditu zuengan dagon Espirituaren bitartez. <sup>17</sup>

Beraz, anayok, zordun gera: ez, gero, aragiaren zordun, aragiaren erara bizitzeko. <sup>13</sup> Aragiaren erara bizi ba'zerate, il egingo zerate; espirituaren indarrez, aragiaren zalekeriak zapaltzen ba'dituzute, berriz, bizi izango zerate.

#### **Kristaua Jainkoaren seme.**

<sup>14</sup> Jainkoaren Espirituz dabiltzanak, Jainkoaren seme dira. <sup>15</sup> Zuek artu dezuten espiritua ez da morroi-espirtua, len bezela bildurrez ibiltzeko; semetzako espiritua artu dezute, ta onen indarrez *Jainkoari* «Abba, Aita» dei egiten diogu. <sup>16</sup> Espiritu Santuak berak diotsa gure biotzari seme gerala, <sup>17</sup> Seme ba'gera, berriz, oñordeko ere ba-gera; Jainkoaren oñordeko gera, izan ere, ta Kristo'ren oñordekide. Arekin nekeak artzen ba'ditugu, Arekin aintza ere izateko.

#### **Oraingo nekeak eta geroko goraldia.**

<sup>18</sup> Oraingo nekeak ez dira ezer, nere ustez, gero guregan agertuko dan aintzaren aldean. <sup>19</sup> Jainkoaren semeak agertuko ote diran daude zai gizaki guztiak. <sup>20</sup> Izan ere, izakiak uskeripean azpiratuta daude, ez beren gogoz, azpiratu dituanaren egitez baizik; <sup>21</sup> ustelkeriaren menpetik aterata, Jainko-semeen eskubide ederrera etorriko dirala koan. <sup>22</sup> Bitartean, izaki guztiak intzirika ta aurgintza-miñetan daudela ba-dakigu-ta. <sup>23</sup> Izakiak bakarrik ez, ordea, gu, Espiritu Santuaren asikiñak dauzkagunok ere bai, antsika gaude, Jainkoaren semetzakoa ta gorputzaren erospena itxoitzen. <sup>24</sup> *Orain arte*, itxaropenez salbatu gera. Baño, ikusten dan itxaropena ez da itxaropena. Izan ere, ikusten dana, zertarako itxoin? <sup>25</sup> Eta ikusten ez degunaren zai egotekotan, iraupenez egon bear. <sup>26</sup> Gañera, Espiritu Santuak berak egiten dio lagun gure auleriari, ez bait-dakigu on zaiguna eskatzen; Espiritu Santua bera jartzen da gure

alde, esan ezin-alako antsiz (\*). <sup>27</sup> Eta biotzak aztertzen dituan Ark, ba-daki Espiritu Santuak nai duana; zintzoen alde Jainkoaren nayera eskatzen du-ta.

#### **Aukeratuai buruz Jainkoaren asmoa.**

<sup>28</sup> Ba-dakigu, gañera, Jainkoa maite dutenai ta Aren erabakiz deituai, guztia onerako datorkiela (\*). <sup>29</sup> Aurrez ezagutu dituanak, bere Semearen antzeko egin zitezen ere aurrez aukeratu zituan, anai askoren len-semea Ber-bera izan zedin; <sup>30</sup> aurrez aukeratuak, berriz, deitu ere egin zituan, eta deituak zintzotu egin zituan, eta zintzotuak goratu ere egin zituan. <sup>31</sup> Eta orain, zer esango degu? Jainkoa gure alde izan ezker, nor gure aurka? <sup>32</sup> Bere Semea ber-bera ukatu ez, baizik guztiiontzat eman zigunak, nolatan ez dizkigu Arekin gauza guztiak emango? (\*).

<sup>33</sup> Nor egingo da Jainkoak aukeratutakoen salatzaile? Zintzotzen dituana Jainkoa izanik, nork galduko ditu? <sup>34</sup> Jesukristo'k ote, ilda, berriz piztu ere egin zanak, Jainkoaren eskui-aldean dagonak, gure bitarteko danak? <sup>35</sup> Nork alden du gu Jesukristo'ren maitasunetik? Naigabeak?, larririk?, goseak?, larrugorriak?, arriskuak?, erasoak?, ezpatiak? <sup>36</sup> Idatzita dagona: «Zuregatik il-zorian gaude egun osoan; arategirako ardi bezela gauzkate» (\*). <sup>37</sup> Ala ere, gu gellen ateratzen gera, maite izan gaituan Aren indarrez. <sup>38</sup> Beraz, ziur nago, ez eriotza, ez bizia, ez Aingerua, ez nagusia, ez oraingo ez geroko ezer, ez indarra, <sup>39</sup> ez goren goa, ez berengoa, ez beste izakiren bat, ez dirala gauza Jesukristo gure Jaunarengan dagon Jainko-maitasunetik guri alde egiñarazteko.

## IX

**Paulo Donearen biotzkadak Judutarrai buruz.**

<sup>1</sup> Egia diot Kristo'rengan, ez diot gezurrik, eta nerekin nere barruak aitortzen du Espiritu Santuarengan. <sup>2</sup> Atsekabe aundietan nago ta biotza beti miñez daukat. <sup>3</sup> Kristo'rengatik baztartua, biraogarri izan nai bait-nuke nik (\*), aragi-aldeetik nere anai ta senitarteko diranen *osasunerako*. <sup>4</sup> Israeldarrak dira auek, eta bereak dituzte semetzakoa, aintza, alkartasuna, legea, gurtza ta agintzariak. <sup>5</sup> Ayenak dira gurasoak (\*), ayengandik dator Kristo aragi-aldeetik; Kristo, berriz, Jainkoa da, guzien gañetik betiko bedeinkatua dana. Amen. <sup>6</sup> Ala ere, Jainkoaren Itza ez da alper izan, Israel'en jatorrikoak ez bait-dira guztiak israeldar izan; <sup>7</sup> ezta Abraham'en jatorrikoak ere ez dira guztiak aren seme. «Isaak'engandik izango dezu zure izeneko jatorria», esan bait-zion Jainkoak (\*). <sup>8</sup> Edo-ta berdin dana: Ez dira aragi-semeak Jainko-seme, agintzari-semeak baizik; aue-xei ematen zaye *Abraham'en* belauneko izena. <sup>9</sup> Agintzariaren itzak auexek dira: «Aldi onetantxe etorriko naiz; eta Sara'k seme bat egingo du» (\*). <sup>10</sup> Baño au etzan Sara'rengan bakarrik ikusi, Errebeka'rengan ere bai; onek, gure aita Isaak'engandik bi seme izan zituan. <sup>11</sup> Orrela, bada, auek jayo baño len, eta oraindik ezer, ez onik ez txarrik egin etzutela, Jainkoaren asmoak, bat aukeratzean, — ez egiñen bidez, baizik, deyaren bidez — irauu zezati. <sup>12</sup> Errebeka'ri auxe esan zitzaion: «Len-semea txikiaren morroi izango da (\*), <sup>13</sup> idatzita dagonez: «Jakob maite izan det, eta Esau gorroto» (\*). <sup>14</sup> Zer esango degu, bada? Bidegabekeririk ba ote dago Jainkoarengan? Ez, orixe! <sup>15</sup> Jainkoak Moises'i auxe esan zion: «Errukia izango diot nik nai dedanari; eta errukitzen natzayonari, errukia egingo diot» (\*). <sup>16</sup> Beraz, ez dago, ez nai duanaren esku, ez ko-

rrika egiten duanaren esku; errukitzen dan Jainkoaren esku baizik. <sup>17</sup> Idazkiak Paraon'i esana: «Ain zuzen, ontarako jaso zaitut: nere almena zuregan erakusteko, ta nere izena lur osoan zabaltzeko» (\*). <sup>18</sup> Beraz, nai duanari errukia dio ta nai duana gogortu egiten du <sup>19</sup> Baño esango didazu: zergatik da asarre? Nork egin dezayoke gogo: Aren gogoari? <sup>20</sup> Nor zera zu, gizon, Jainkoari erantzuteko? Ontziak esan al dio iñoiz ontzigilleari: zergatik egin nauzu onela?». <sup>21</sup> Ez ote dago buztinlariaren esku, buztin beretik ontzi batzuek gauza cderretarako egitea, ta beste batzuek zirtzilletarako? <sup>22</sup> Beraz, zer esan Jainkoak, bere asarrea erakusteko ta bere indarra agertzeko, galdu bear duten asarre-ontzientzat eramanpen aundia ba'dauk; <sup>23</sup> aintzarako zeuzkan erruki-ontzietan, berriz, bere aunditasunaren aberastasuna erakusteko, <sup>24</sup> judutarren arteetik bakarrik ez, baita atzerritarretatik ere dei egin ba'digu? <sup>25</sup> Orixe da Oseas'en *Liburuan* diona: «Nere erria ez danari, nere erri deituko diot; eta nere maitea ez danari, nere maite» (\*). <sup>26</sup> Eta, «etzerate zuek nere erri» esan zitzaion toki berean deituko die Jainko biziaren seme. <sup>27</sup> Israel'entzat, auxe dio Isaias'ek deadarka: «Israel'en semeak itxas-ondarrak bezin ugari ba'lira ere, gutxi aterako dira onez ayetatik: <sup>28</sup> Jaunak lurraren gañean azken-auzi estua egingo bait-du» (\*). <sup>29</sup> Eta Isaias'ek berak aurrez esan zuana: «Gudaritaldeen Jaunak azirik utzi ez ba'ligu, Sodoma bezela geldituko giñan eta Gomorra'ren antzeko izango giñan» (\*).

**Judutarrok, zergatik etzuten artu sinismena?**

<sup>30</sup> Beraz, zer esango degu? Zuzentasunari jarraitzen etzietenak — atzerritarrok — zuzentasuna, sinismenetik datorren zuzentasuna iritxi dutela. <sup>31</sup> Israel'ek, berriz, zuzentasunaren legeari jarraituta, etzuan Legea arkitu. <sup>32</sup> Zerga-

tik? Sinismenaren bidetik joan bearrean, egintzarien bidetik joan zalako. Galbide-arrian egin zuten oztopo (\*), <sup>3</sup> idatzita dagonez: «Oztopo-arria ta galbide-arria jarriko det Nik Sion'en; eta Arengan sinisten duana ez da lotsatuko» (\*).

## X

**Paulo'ren biotzkadak Judutarrai buruz.**

<sup>1</sup> Anayok, ayengana (judutarrengana) dijoa nere biotzeko leya, eta ayentzat dijoazkio Jainkoari nere eskariak, osasuna iritxi dezaten. <sup>2</sup> Aitortzen det ayen alde Jainkoarentzat leyal dabiltzala; baño ez zentzunbidez; <sup>3</sup> Jainkoaren zuzentasuna ezagutu gabe ta beren zuzentasuna ezartzeko alegiñak egiñik, etziran Jainkoarengandik dan zuzentasunpean jarri: <sup>4</sup> Legearen elburua Kristo da-ta zuzentasunerako sinisten duten guztientzako.

**Zuzentasun biak.**

<sup>5</sup> Legearen zuzentasuna betetzen duan gizona, berarengatik biziko dala idazten du Moises'ek (\*). <sup>6</sup> Baño, sinismenetik datorren zuzentasunak auxe dio: «ez esan zure biotzean: «Nor igoko da zerura?», andik Kristo erasteteko (\*); <sup>7</sup> edo-ta, «Nor jetxiko da leizera?», illen artetik Kristo gora jasotzeko. <sup>8</sup> Baño, zer dio? «Zure ondoan dago zuzentasuna ematen duan itza, zure aolan, zure biotzean»; itz au da ots egiten degun sinismenaren itza. <sup>9</sup> Jesus Jauna aoz aitortzen ba'dezu, ta Jainkoak illen artetik piztu zuala zere biotzean sinisten ba'dezu, salbatuko zera. <sup>10</sup> Zuzentasunerako biotzez sinistu bear da-ta, osasunerako aoz aitortu. <sup>11</sup> Liburu Santuak auxe dio: «Arengan sinisten duana ez da lotsatuko» (\*). <sup>12</sup> Ez dago judutarra

ta grezitarra bereizterik. Berbera da guztien Jauna, dei egiten dien guztientzat aberatsa: <sup>13</sup> Jaunaren izenari deitzen dion guztia, onez aterako da.

**Judutarrek ez dute Berri Ona onetsi.**

<sup>14</sup> Baño, nola egingo diote dei, Aren sinisterik izan gabe? Nola sinistu, ordea, Artzaz ezer entzun gabe? Eta, nola entzun, iñork otsegiten ez ba'die? <sup>15</sup> Eta, nola otsegin bialiak izan gabe? Onela dago itzita: «Benetan eder dira ona zabaltzen dabiltzanen oñak!» (\*). <sup>16</sup> Guztiak ez dira, ordea, Berri Onaren esaneko. Ala dio Isaias'ek: «Jauna, zure deya nork sinistu du?» (\*). <sup>17</sup> Beraz, sinismena entzutetik; eta entzutea, Kristo'ren itzetik. <sup>18</sup> Baño, nik diot: Ez al dute, bada, entzun? Bai orixe! «Ayen deya lur guztira zabaldu da, ta ayen otsa munduaren baztarretaraño» (\*). <sup>19</sup> Baño, ez ote du Israel'ek ezagutu? Moises da lenen diona: «Nere erria ez dan erriaren espaz (\*) zirikatuko zaituzte, eta zentzunik ez duan erriarengatik asarraziko zaituztet» (\*). <sup>20</sup> Eta Isaias au esaten ausartzen da: «Nere billa ibilli etziranak arkitu egin ninduten; nere galdezka ibilli etziranai, aurrez-aurrezka agertu nitzayen» (\*). <sup>21</sup> Israel'i, berriz, au diotsa: «Erri sinisgabe ta biurriarengana luzatu nituan, egun osoan, nere eskuak» (\*).

## XI

**Ez dira Judutar guztiak galduko.**

<sup>1</sup> Orain auxe diot: Jainkoak bere erria zapuztu egin ote du? Ez orrelakorik! Ni ere israeldarra naiz, Abraham'en jatorrikoa, Benyamin'en belaunekoa. <sup>2</sup> Ez du Jainkoak Beretzat zeukan erria zapuztu. Ez al dakizute Elias'en liburuak diona: *Elias'ek* salatu egin du Israel, Jainkoaren

aurrean esanaz: <sup>3</sup> «Jauna! Zure igarleai eriotza eman die-te, zure aldareak porrokatu egin dituzte; ni bakarrik gel-ditu naiz eta bizia kendu nai didate» (\*). <sup>4</sup> Eta zer cran-tzuten dio Jainkoak? «Baal'en aurrean belaunik makurtu ez duten zazpi milla gizon dauzkat Neretzat aukeratuta» (\*). <sup>5</sup> Orrela, orain ere apur batzuek gelditu dira graziaz aukeratuta. <sup>6</sup> Graziaz ba'da, ordea, ez egindako ezerga-tik; bestela grazia ez litzake grazia izango. <sup>7</sup> Zer, bada? Israel'ek billatzen zuana, etzuan berak iritxi; aukeratuak, baizik. Besteak itxutu egin dira, <sup>8</sup> idatzita dagon bezela; «Jaungoikoak zoratu egin ditu; begiak eman dizkie, ez ikusteko, ta belarriak ez entzuteko, gaur arte» (\*). <sup>9</sup> Da-bid'ek ere ala dio: «Segara, sare ta galbide-arri biur be-kie beren maya, merezi duten ordaña artu dezaten; <sup>10</sup> lau-sotu bitez ayen begiak, ikusi ez dezaten, eta bego beti lu-rerra makurtua ayen bizkar-ezurra» (\*).

#### Israel'en ondamendia.

<sup>11</sup> Baño nik diot: Geyago ez altxatzeko erori ote dira *judutarra*k? Ez! Baizik eta, aren erortzearen bidez, atzerri-tarrak osasuna iritxi dute, *Israel'darren* leya suspertzeko. <sup>12</sup> Eta ayen erortzea munduaren aberastasun biurtu ba'da, ta ayen urritasuna atzerritarren aberastasun, zenbat geya-go ayen oparotasuna?! <sup>13</sup> Zuei, atzerritarroi, diotzutet: Atze-rritarrentzat bialia naizen ezkerro, nere egitekoa guztiz be-te nai det, <sup>14</sup> nere jatorrikoen leya nolaere-bait piztutze-ko, ta ayetako batzuen osasuna irixteko. <sup>15</sup> Izan ere, ayen ondamendia munduaren onerako izan ba'da, zer izango ote da ayen lengoratzea (onbideratzea), illen artetik piz-tutzea baizik? <sup>16</sup> *Judutarren* asikiñiak, asikiñ santuak ba'di-ra, baita orea ere; eta zuztarra santua ba'da, baita ada-rrak ere. <sup>17</sup> Adarretako batzuek ausi ba'dira, ta zu, ba-saolio ziñan ori, ayen utsuneetan txertatu ba'zaituzte, ta

basaoliondoaren zuztarretik igotzen dan zumotik bizi ba'ze-ra, <sup>18</sup> etzaitetz beste adarren aurka arrotu. Eta arrotzen be'zera, jakin bear dezu ez dala zuztarra zuretik bizi, bai-zik zu zuztarretik. <sup>19</sup> Baño, zuk ala esango dezu: «Ni txer-tatua izan nedin, adarrak iñausiak izan ziran». <sup>20</sup> Ondo dago; ayek sinisgabeagatik izan dira iñausiak; zu, berriz, sinismenagatik zaude zutik. Ala ere, ez arrotu; ta bildur izan. <sup>21</sup> Berezko adarrai ez ba'die barkatu, zuri ere ez di-zu-ta barkatuko Jainkoak. <sup>22</sup> Ikus, bada, Jainkoaren ona ta zorrotza: zorrotza, erori ziranentzat; zuretzat, berriz, ona, onean irauten ba'dezu; bestela, zu ere ebaki egingo zaituzte. <sup>23</sup> Eta ayek ere, sinisgabekeria irauten ez ba'du-te, txertuak izango dira; altsua bait-da Jainkoa ayek berri-ro txertatzeko. <sup>24</sup> Izan ere, basaoliondotik etorri ziñan ori, andik ebaki ta zure izatez ez dagokizun oliondo jato-rrean txertatua izan ba'zera, obekiago txertatuak izango dira ayek, beren jatorrizko oliondoan! <sup>25</sup> Beraz, ez det nai, anayok, zuek misterio au ez jakitea, -zuen baitan arrotu etzaitzetzten -. Israel-zati bat itxututa dago, atzerri guztiak *Elizan* sartu ditezen arte. <sup>26</sup> Eta orduan, Israel osoa salba-tuko da, idatzita dagon bezela: «Sion'dik etorriko da Sal-batzallea, Jakob'engandik gaiztakeriak aizatzeke. <sup>27</sup> Eta ayen pekatuak kenduko ditudanean, ayekin egindako itu-mena beteko da» (\*). <sup>28</sup> Berri Onari buruz, etsai dituzute; zuen onerako; aukeratzeari buruz, ordea, maitagarri gura-soengatik (\*); <sup>29</sup> Jainkoaren doaya ta deya-aldatu-eziñak di-ra-ta. <sup>30</sup> Zuek, noizbait Jainkoaren esaneko etziñatela, ayen (judutarren) biurrikeriagatik orain errukia iritxi dezuten be-zela, <sup>31</sup> ayek (judutarra)k ere ez dira Aren esaneko, zuei egin zaizuten errukia dala-ta, berak errukia iritxi deza-ten. <sup>32</sup> Jainkoak biurrikerietan utzita euki ditu guztiak, errukia iritxi dezaten. <sup>33</sup> Bai dirala sakonak Jainkoaren aberastasuna, ta jakituria ta adiña! Bai aztergaitzak Aren

erabakiak, eta ulerkaitzak Aren bideak! <sup>32</sup> Izan ere, «nork ezagutu ditu Jaunaren asmoak?», edo nor izan da Are: oartzalle? <sup>35</sup> Nork eman dio lendik, gero Berari ordafia eskatzeko? (\*). <sup>36</sup> Dana Berarengandik, Berarengatik eta Berarengan da-ta. Berari aintza gizaldietan. Amen.

## XII

### Bizitza berria.

<sup>1</sup> Jainkoaren errukiarengatik eskatzen dizutet, bada, anayok; eskeñi zaizkiozute Jainkoari zuen gorputzak opari bizi, santu ta atsegin; ortxe dezute-ta egiazko gurtza (\*). <sup>2</sup> Mundu ontako antzik ez artu; gogoa berrituaz, aldatu bai, ordea; Jainkoaren borondate on, atsegingarri ta bikaina zein dan ezagutu dezazuten. <sup>3</sup> Eman zaidan eskubidez, zuetako bakoitzari auxe esaten diot: zere burua etzazu zeran baño geyagotzat artu, bere neurrian baizik, Jainkoak bakoitzari sinismena eman dion neurriz. <sup>4</sup> Izan ere, gorputz baten atalak asko dira, baño, atal guztiak ez dute egiteko berdiña (\*). <sup>5</sup> Orrela, bada, asko geranok gorputz bat egiten degu, Kristo'rengan; baño atal bakoitza, bestearentzat atal. <sup>6</sup> Guretako bakoitzak, bere graziaren erara, dauzka bere doayak: batek, igarletza, sinismenaren neurriz *aritzeko*; <sup>7</sup> beste batek, diakonotza, *Elizaren* laguntzarako; maixuak, erakusteko; <sup>8</sup> aolkulariak, burubidea emateko; emailleak, esku zabala dezaten; buru danak, arretaz zaindu dezan; erruki-lanetan dabillanak, pozik egin dezan. <sup>9</sup> Zuen maitasuna zintzoa izan dedilla. Gorrota zazute gaiztakeria ta onzaleak izan zaitezte; <sup>10</sup> ana: arteko maitasunez alkar maite zazute, alkarri lenengo tokia emanaz. <sup>11</sup> Nagikeririk gabe, arretatsu izan zaitezte, gogo beroz, Jaunaren mendean, <sup>12</sup> geroko itxaropenaren pozez; atse-

kabea ondo eraman; ekin otoitzari; <sup>13</sup> santuai (kristauai) premia arindu; ta arrera ona egin. <sup>14</sup> Bedeinkatu itzazute erasotzen dizutenak; bedeinkatu, madarikatu bearran. <sup>15</sup> Pozik daudenakin poztu, negarrez daudenakin egin negar. <sup>16</sup> Benetako alkartasunean bizi zaitezte, aundikeri-asmorik gabe, txikiai amor emanaz; zuen buruak ez egin jakintsu. <sup>17</sup> Kalte ordain, ez kalterik biurtu inori; egi-tzazute egiñalak gizon guztien aurrean ona egiteko. <sup>18</sup> Inon dik al ba'da, zuen aldetik beintzat, guztiakin pakean bizi zaitezte. <sup>19</sup> Zuen eskuz ez mendekurik egin, ene maitetok; utzi ori *Jainkoaren* asarreatentzat; idatzita dago-ta: «Neri dagokit zigortzea, Nik emango diot bakoitzari berea», dio Jaunak (\*). <sup>20</sup> Zuk, ordea, «zure etsaya gose ba'da, emayozu jaten; egarri ba'da, emayozu edaten. Orrela egiñaz, illintiak pillatuko dizkiozu buru-gañean» (\*). <sup>21</sup> Ez zaitzala gaiztakeriak menderatu; baizik eta, mendera zazu zuk gaiztakeria on egiñaz.

## XIII

### Agintarienganako menpetasuna.

<sup>1</sup> Guztiok egon bear dezute gañeko agintarien menpean, Jainkoarengandik ez datorren agintaritzarik ez da-ta; diranak, ordea, Jainkoak jarrita daude. <sup>2</sup> Beraz, agintaritzari gogor egiten dionak, Jainkoaren asmoari egiteu dio gogor; eta gogor egiten diotenak, beren buruarentzat dakarte kaltea. <sup>3</sup> Izan ere, agintaritza ez da bildurgarri ongi dabillenarentzat; gaizkillearentzat, bai. Agintarien bildurrik gabe bizi nai al dezu? Egizu on dana, ta aren gorespena izango dezu; <sup>4</sup> onbidean Jainkoaren ordeko zaitu-ta. Txarra dana egiten ba'dezu, berriz, bildur izan, ez-pata ez bait-dakar alperrik. Jainkoaren ordeko da, gaizki-



liea zuzentasunez zigortzeko. <sup>5</sup> Beraz, menpean egon bear dezute; zigorraren bildurratik bakarrik ez, baita bidezkoa dalako ere. <sup>6</sup> Petxak ere orretxegatik ordaintzen dituzute, orretan beti lan egiteko Jainkoaren ordezkariak dira-ta. <sup>7</sup> Eman zayezute guztiai zor diezutena; petxa zor zayonari, petxa; begirunea zor zayonari, begirune; gorape-na zor zayonari, gorapen.

#### Alkar-maitasuna.

<sup>8</sup> Inorenaganako zorrik ez egin, alkar maite izateko izan ezik; lagun urkoa maite duanak, bete du Legea-ta (\*). <sup>9</sup> Izan ere, «ez dezu ezkontzarik loituko, ez dezu inor ilko, ez dezu lapurretarik egingo, ez dezu gezurrezko testigurik egingo (\*), ez dezu inorenik okerbidez nai izango», ta beste edozein agindu, itz ontan dago sartuta: «Lagun urkoa zere burua bezela maite izango dezu». <sup>10</sup> Maitasunak ez dio lagun urkoari gaitzik egiten. Beraz, maitasuna da Lege oso-oso.

#### Osasun-eguna laxter dator.

<sup>11</sup> Eta ba-dakizute aldi egokia gañean dala, ta esnatzeko ordua etorri zaizutela, gure osasuna sinistu genuanean bañon gertuago dago-ta. <sup>12</sup> Gaua oso aurrera dioa, ta eguna ba-dator. Erantzi ditzagun, bada, illunpetako egiteak eta jantzi argi-armak. <sup>13</sup> Ibilli gaitezen zintzo, egunez bezela; ez, gero, jan-edanetan, ez lizunkerietan, ez lasaikerietan, ez alkarrekin mokoka ta ikusi-eziñetan; <sup>14</sup> baizik eta, jantzi zazute soñeko Jesukristo, eta ez izan aragiaren konturik, bere griñak asetzeko.

#### XIV

#### Nor diran sendo ta nor makal sinismenean.

<sup>1</sup> Artu zazute sinismenean makal dabillena, iritzietan ez-ta-bai arekin ari gabe. <sup>2</sup> Batzuek edozer jan dezaketelakoan daude; makalak, ordea, barazkiak jaten ditu. <sup>3</sup> Jaten duanak ez dezala jaten ez duna baztatu; eta jaten ez duanak, ez dezala jaten duana gaitzetsi; Jainkoak Beretzat artu du-ta. <sup>4</sup> Nor zera zu besteren morroya epaitzeko? Zutik egon ala erori, bere nagusientzat dago; bañc, zutik iraungo du; ura zutik eukitzeko altsua bait-da Jainkoa. <sup>5</sup> Batek, egun batzuek besteetatik bereizi egiten ditu; bestearentzat, berriz, egun guztiak berdiñak dira; egin beza bakoitzak bere barruak eskatzen diona. <sup>6</sup> Egunaren ardura duanak, Jainkoaren ardura du; ta *guztietatik* jaten duanak, Jaunaren aintzarako jaten du, Jainkoari eskerrak emanaz. <sup>7</sup> Gutako inor ere ez da bere buruarentzat bizi, eta il ere, ez da bere buruarentzat iltzen. <sup>8</sup> Bizi ba'gera, Jaunarentzat bizi gera; eta iltzen ba'gera, Jaunarentzat iltzen gera. Beraz, il edo bizi, Jaunarenak gera. <sup>9</sup> Ortarako il eta berriz piztu zan Kristo ere, bizien eta illen Jauna izateko.

<sup>10</sup> Beraz, zergatik epaitzen dezu zuk zure anaya? Zergatik baztartzen dezu zure anaya, Jainkoaren auzitegian guztiok agertu bear degun ezkerok? <sup>11</sup> Idatzita dago: «Naizena naiz-ta, dio Jaunak, belaun guztiak makurtuko zaizkit eta mingain guztiak aitortuko dute Jainkoa» (\*). <sup>12</sup> Beraz, gutako bakoitzak erantzungo dio bere buruaz Jainkoari. <sup>13</sup> Ez alkar epaitu, bada, emendik aurrera; eta begira batez ere, eta kontu izan anayari beaztoparik eta galbiderik ez ipintzeko. <sup>14</sup> Nik bai bait-dakit, eta Jesus Jaunarengan ziur nago, ezer ere ez dala berez zikin; ala ere, norbaitek uste ba'du zerbait zikiña dala, orrelako orren-

tzat, bai, zikiña da. <sup>15</sup> Baño, janariren bat dala-ta, zure anaya naigabetzen ba'da, etzabiltza maitasun-bidetik. Ez dedilla iñor galdu zure janariagatik, Kristo arentzat il dan ezkerok. <sup>16</sup> Beraz, zuek egiten dezutenak ez dezayola gaizki esateko biderik eman iñori. <sup>17</sup> Jainkoaren erreiñua ez da-ta jan-edana, baizik zuzentasuna, pakea ta poza Espiritu Santuarengan (\*). <sup>18</sup> Orretan Kristo'ren morroi danak, Jainkoaren ederra ta gizonen txaloak merezi ditu. <sup>19</sup> Ekin, bada, pakerako ta alkar obetzeko bideari. <sup>20</sup> Jainkoaren lane etzazu janari batengatik ondatu. Gauza guztiak dira garbiak; baño gaitzpidea emanaz jatea, txarra da gizona-rentzat. <sup>21</sup> Ona da aragirik ez jatea, ardorik ez edatea ta zure anayari erorbiderik ez ipintzea ta makalgarri zayonik ez egitea. <sup>22</sup> Zuk dezun ezaguera, gorde zazu zere-tzat eta Jainkoarentzat. Zorionekoa, zerbait egiterakoan, barruak kezkarik ematen ez diona! <sup>23</sup> Orrelako kezkaz jaten duana, berriz, galduta dago, bere barruak agintzen ziona egin ez dualako; eta norbere barruko iritzi zuzenez egiten ez dana, pekatu da (\*).

## XV

### Orrelakoetarako jarraibidea.

<sup>1</sup> Beraz, guk *sinismenean* indartsu geranok argalen auleriak ondo eraman bear ditugu; ez, ordea, gere buruari atsegin emateko (\*). <sup>2</sup> Gutako bakoitza sayatu bedi lagun urkoari atsegin ematen, aren onerako ta onbiderako.

<sup>3</sup> Kristo'k ere etzuan bere ederra billatu, idatzita dagon bezela: «Nere gañera etorri ziran zure aurka ari ziranen biraoak» (\*). <sup>4</sup> Liburu santuetan idatzita dagon guttia gure ikasbiderako dago idatzia, ango itzak emandako eramanenez eta pozez itxaropenean sendo iraun deza-

gun. <sup>5</sup> Eramanpen eta poz onen Jainkoak, eman dezaizutela alkarrekin Jesukristo'rengan gogo batez bizitzea. <sup>6</sup> Jesukristo gure Jaunaren Aita Jainkoa biotz batez eta ao batez goratu dezazuten. <sup>7</sup> Beraz, alkarri arrera ona egin, Kristo'k zuei egin zizuten bezela, Jainkoaren aintzarako. <sup>8</sup> Ara, bada, nik esan: Jainkoaren egiagatik erdainduai bialduta-koa Kristo izan da, asabai egindako agintzariak bete-tzeko; <sup>9</sup> atzerritarrak, berriz, Jainkoa Beronen errukiagatik goratzen dute, idatzita dagoan bezela: «Orretxegatik goratuko zaitut atzerritarren artean, eta zure izenari kantatuko diot» (\*). <sup>10</sup> Eta berriro: «Poztu zaitetze, atzerritarrok, Aren erriarekin batean» (\*). <sup>11</sup> Eta beste nonbait: «Gora zazute Jauna, atzerritar guztiok; ekin gora-goraka erri guztiok» (\*). <sup>12</sup> Isaias'ek ere ala dio: «Jose'ren zuzgaitz-ondoa agertuko da ta atzerriak bere mendean artzeko jeikiko dana; Argan izango dute atzerritarrak itxaropen» (\*). <sup>13</sup> Itxaropenaren Jainkoak bete zaitzatela sinismenean, poz eta pake osoz, Espiritu Santuaren indarrez itxaropena ugarri izan dezazuten.

### Esandako guztiak labur-labur.

<sup>14</sup> Baño ni ziur nago ondasunez eta jakitez beterik zaudetena, ta alkarri burubide onak emango dizkietzutela. <sup>15</sup> Ala ere, anayok, ausartago idatzi dizutet, gogoan daukazutena nolarebait piztutzeko, Jainkoa eman zidan graziaz; <sup>16</sup> Jesukristo'ren morroi izan nadin, Jainkoaren Berri Ona atzerriai erakusteko, atzerrien eskeintza, Espiritu Santuak donetuta, onartua izan dedin. <sup>17</sup> Goratu nezake, bada, nere burua, Jainkoaren serbitzuari dagokionez; itzez eta egitez, eta mirari arrigarrien indarrez eta Espiritu Santuaren almenez, Kristo'k nere bitartez egin ez duan gauzarik esaten ez naiz ausartuko-ta. <sup>19</sup> Izan ere, Jerusalem'dik Iliria'raño ta alde guztietan Kristo'ren Berri Ona

zabaldutako det. <sup>20</sup> Kristo'ren izena entzun ez dan tokietan zabaldutako det batez ere, Berri On ori, nere lana beste batetik ipiniitako oinarrien ganean jaso ez nezan; baizik, idatzita dagon bezela: <sup>21</sup> «Aren berri izan ez dutenak, ikusi egingo dute ta entzun ez dutenak, ulertu» (\*). <sup>22</sup> Orretxek galerazi dit sarritan zuengana joatea; <sup>23</sup> baño, orain, lurralde auctan egitekorik ez dedan ezkeru, ta aspaldiko urte auctan zuengana joateko gogoz egon naizen ezkeru, <sup>24</sup> España'ra nijoala, ortik igarotzen naizenean, ikusiko zaitzedala uste det, baita ara joaten lagundu ere egingo didazutela, zuen artean egonaldi bat pozik egin-da. <sup>25</sup> Baño, orain Jerusalem'era nijoa, santuai (kristauai) laguntza eramatera; <sup>26</sup> Jerusalem'go santuen artean dauden beartsuentzat diru-biltzea egitea gogoratu zaye-ta Mazedonia'ko ta Akaya'ko *erriai*. <sup>27</sup> Ori ainbeste zor ba-dietelakoan egin dute; atzerriak ayengandik (judutarrengandik) gogondasunak artu dituzten ezkeru, atzerriak judutarrak lurreko ondasunen bidez lagundu bear diete-ta. <sup>28</sup> Egiteko au bet-ta gero, ta bildutako dirua ayen artean zabaltzen dedancan, zuen artean igarota, España'ra zuzenduko naiz. <sup>29</sup> Zuengana joaten naizenean, berriz, ba-dakit Kristo'ren bedeinkapen bete-beteaz joango naizela. <sup>30</sup> Kristo gure Jaunarengatik, eta Espiritu Santuaren maitasunagatik eskatzen dizutet anayoi, lagun zadazute zuen otoitzen bitartez nere alde Jainkoari erregutuaz, <sup>31</sup> Judea'n diran sinisgabeetatik onez atera nazan, eta Jerusalem'era naraman lan au ango santuai atsegingarri izan dakien. <sup>32</sup> Onela, Jainkoak naiba'du, pozik joango naiz zuek ikustera, ta zuen artean atsedean artuko det. <sup>33</sup> Bego zuekin pakearen Jainkoa. Amen.

## XVI


**Erreguak eta agurrak.**

<sup>1</sup> Zenkres'ko elizaren laguntzalle dan gure arreba Febe'ren alde eskatzen dizutet; (\*) <sup>2</sup> santuai dagokienez. Jaunaren izenean artu dezazuten, eta zuen laguntza-bearean inoiz arkitzen ba'lit, lagundu dezayozuten; berak ere askoi lagundu die-ta, neri, batez ere. <sup>3</sup> Gorantziak Jesukristo'ren alde nere lankide izan diran Priska'ri ta Akila'ri; <sup>4</sup> auker, nere bizia zaitzearren berea galtzeko zorian ipini zuten; eskerrak ematen dizkiet, nik bakarrik ez, baita atzerriko eliza guztiak ere. <sup>5</sup> Gorantziak ayen etxeko elizari ere. Gorantziak Asia'ko Kristo'ren asikiña dan Epencto maitagarriari ere. <sup>6</sup> Gorantziak Maria'ri, zuengatik (\*) ainbeste lan egin bait-zuan. <sup>7</sup> Gorantziak apostoluen artean ospetsuak diran eta Kristo'ren sinismena nik baño len artu zuten nere senide ta kartzela-lagun Androniko'ri ta Junia'ri. <sup>8</sup> Gorantziak Jaunarengan oso maite dedan Anpliato'ri. <sup>9</sup> Gorantziak Jesukristo'rengan nere lagun dan Urbano'ri ta Estakis, nere maiteari. <sup>10</sup> Gorantziak Apeles, Kristo'ren morroi ezagunari. Gorantziak Aristobulo'ren etxekoai. <sup>11</sup> Gorantziak nere senide Erodio'ri. Gorantziak Jaunaren sinismenean dauden Nartziso'ren etxekoai. <sup>12</sup> Gorantziak Jaunarengan ainbeste neke eraman duten Trifena'ri ta Trifosa'ri. Gorantziak, Jaunarengan ainbeste atsekabe eraman duan Persida, maite-maiteari. <sup>13</sup> Gorantziak, Jainkoak aukeratutako Errufo'ri, ta onen amari, nere ama ere ba-da-ta. <sup>14</sup> Gorantziak Asinkrito'ri ta Fregon'i, Esmes, Patroba, Ermas eta onekin bizi diran anayai. <sup>15</sup> Gorantziak Filologo'ri ta Julia'ri, Nereo'ri ta onen arrebai, ta Olinpia'ri ta onekin bizi diran anayai. <sup>16</sup> Agurtu zazute alkar lastan doneaz. Gorantziak zuei, Kristo'ren eliza guztien izenean. <sup>17</sup> Erne ibilli, anayok, eta begira, artu dezuten

ikasbidearen kontra alderdikeriak eta gaizpideak sortzen dabilzanai, eta alde ayengandik; <sup>18</sup> alakoak ez dira Kris-to gure Jaunaren morroi, beren sabelarenak baizik; eta itzaldi xamur eta onespenez, gizagaxoen biotzak limurutu egiten dituzte. <sup>19</sup> Alde guztietan agirian dago zuek sinis-menari diozuten menpetasuna; pozik nago, bada, zuengatik, ori-dala-ta; baño zuen onbiderako burutsu ta txarre-rako motel izatea nai det; <sup>20</sup> eta pakearen Jainkoak laxter zapalduko du Satanas zuen oñazpian. Jesukristo gure Jau-naren grazia izan bedi beti zuekin.

#### Azken-agurrak.

<sup>21</sup> Agur egiten dizute Timoteo nere lagunak; baita ne-re senide diran Luzio'k, Jason'ek eta Sosipatro'k ere (\*). <sup>22</sup> Eskutitz au egin dedan Tertzio onek ere agur egiten di-zutet. <sup>23</sup> Bere etxean naukan Gayo'k eta Eliza osoak agur egiten dizute. <sup>24</sup> Erriko diruzai dan Erasto'k agur egiten dizute; baita Kuart anayak ere. (<sup>25</sup> Jesukristo gure Jauna-ren grazia izan dedilla zuekin. Amen). <sup>26</sup> Eta, betidanik ezkutuan egon, eta orain Jainkoaren betiko erabakiz, Igar-leen idaztien bidez, ezagutua izan, eta erri guztiai sinis-menara etorri ditezen adierazia izan dan misterioaren ager-ke-taz, nik erakutsi dedan Berri Onean, eta Jesukristo'ren ikasbidean indartu zaitzateken jakintsu bakar Jainkoari aintza, Jesukristo'ren bidez, gizaldiz gizaldi. Amen.



## PAULO DONEAK KORINTO'KOAI EGINDAKO LENENGO ESKUTITZA

### I

#### Agurra.

<sup>1</sup> Paulo'k, Jainkoaren nayaz Jesukristo'ren apostolu iza-tera deituak eta gure anai Sostenes'ek, (\*) <sup>2</sup> Korinto'n da-gon Jainkoaren elizari, Kristo'rengan santu diranai, eta santu izatera deituai, eta baita edozein lekutan Jesukristo gure ta ayen Jaunaren izena aitortzen duten guztiai ere. <sup>3</sup> grazia ta pakea Jainko gure Aitaren eta Jesukristo gure Jaunaren izenean.

#### Eskerrak ematen dizkio Jainkoari.

<sup>4</sup> Beti ari naiz Jainkoari eskerrak ematen, Jesukristo'-rengan eman zaitzuten Jainkoaren grazia dala-ta. <sup>5</sup> Izan ere, Arengan guztiz aberats zerate, ikasi ta jakin bear di-ran gauza guztietan: <sup>6</sup> Kristo'ren itza zuengan sendotuta bait-dago. <sup>7</sup> Ez da zuek ez dezuten grazirik, Jesukristo gure Jaunaren *azkeneko* agerraldiaren zai zaudeten ezker. <sup>8</sup> Berak indartuko zaituzte azkeneario, Jesukristo gure Jau-naren etorrera-egunean arkitu zaitzaten; <sup>9</sup> *Jainkoaren Seme*

dan Jesukristo gure Jaunaren lagunkide izateko dei egin dizuten Jainkoa zintzoa da-ta.

#### Alkar-arteko maitasuna.

<sup>10</sup> Jesukristo gure Jaunaren izenagatik eskatzen dizutet zuei, anayoi; berbera esan zazute guztiok eta ez dedilla alderdikeririk izan zuen artean; baizik eta, gogo bateko ta iritzi bateko izanik, bizi zaitezela. <sup>11</sup> Zuen artean eztabaidak dirala jakin bait-det, ene anayok, Kloe'koen bidez; <sup>12</sup> eta zuetako bakoitzak ala diola: «Ni, beintzat, Paulo'rena naiz; ni, berriz, Apolo'rena; ta ni, Zefas'ena, ta ni, Kristo'rena» (\*). <sup>13</sup> Kristo zatitu egin ote da, bada? Edo ta, Paulo izan ote da zuengatik gurutziltzatua? Ala Paulo'ren izenean izan ote zerate batayatuak? <sup>14</sup> Eskerrak ematen dizkiot Jainkoari, Krispo ta Gago izan ezik, zuetako iñor ere batayatu ez dedalako. <sup>15</sup> iñork ere esan ez dezan nere izenean batayatuak izan zeratela. <sup>16</sup> Estefanas'en etxeokak ere nik batayatu nituan; ez dakit besterik batayatu dedanik.

#### Munduaren eta Jainkoaren jakituria.

<sup>17</sup> Ez ninduan Kristo'k batayatzera bialdu, Berri Ona zabaltzera baizik; eta ori ere ez itz jakintsuz, Kristo'ren gurutzzea alperrik gerta ez dedin. <sup>18</sup> Gurutz-itza, galtzen diranentzat zorakeria da-ta; salbatzen diranentzat, ordea, au da, gurezat, Jainkoaren indarra. <sup>19</sup> Idatzita bait-dago: «Jakintsuen jakituria ondatu egingo det, eta zentzudunen zentzuna uts biurtuko».

#### Korinto'koai akar egiten die.

<sup>20</sup> Nun dago jakintsua? Nun ikasia? Nun mundu ontako burutsua? Jainkoak ez ote du mundu ontako jakituria

zoro-etsi? (\*) <sup>21</sup> Izan ere, mundua etzan iritxi, bere jakinbidez, Jainkoaren jakintzatik Jainkoa ezagutzera; eta Jainkoak nai izan zuan, sinismendunak Berri Onaren erakutsi zoroaren bidez salbatzea. <sup>22</sup> Judutarrak mirari-billa dabiltza; grezitarrak jakinduri-eske; (\*) <sup>23</sup> guk, berriz, judutarentzat gaizpide degu; <sup>24</sup> deituentzat, berriz, naiz judutar izan, naiz grezitar izan, Jainkoaren indar eta jakintza dan Kristo. <sup>25</sup> Jainkoaren zorakeri *dirudina*, gizonak baño jakintsuago da; Jainkoaren auleri *dirudina*, berriz, gizonak baño indartsuago. <sup>26</sup> Begira, bestela, anayok, nor izan zeraten deituak; giza-neurriz, ez dago zuen artean jakintsu asko, ezta altsu asko ere, ezta aundiki askorik ere (\*). <sup>27</sup> Bestela, baizik; gizarteko zoroak aukeratu ditu Jainkoak jakintsuak lotsarazteko; eta gizarteko aulak, aukeratu ditu Jainkoak, indartsuak lotsatan uzteko; <sup>28</sup> eta gizarteko zaborra ta kondarra ta ezer ez dana aukeratu du Jainkoak zerbait dana ondatzeko, <sup>29</sup> Jainkoaren aurrean iñor arrotu ez dedin. <sup>30</sup> Zuek ere Berarengandik dezute izatea Jesukristo'rengan; gureztat, jakintza, zuzentasuna, santutasuna ta erospena *Kristo* izan dedin, Jainkoak nai izan du-ta, <sup>31</sup> idatzita dagon bezela: «Arrotzen dana, Jaunarengan arrotu bedi».

## II

#### Paulo'ren erakutsia.

<sup>1</sup> Zuen artera joan nitzanean, anayok, Kristo'ren aitormena itz eder eta jakintsu gabe erakutsi nizuten. <sup>2</sup> Izan ere, ezer ez nuan zuen artean jakin nai Kristo besterik, eta Au gurutziltzatua. <sup>3</sup> Zuen aurrean aul, bildurrez eta ikara aundiz agertu nitzan. <sup>4</sup> Nere itza ta erakusbidea etzan izan giza-jakiturizko izkeraren bidez; baizik, Jainkoaren adore

ta indarraren bidez; <sup>5</sup> zuen sinismena Jainkoaren indarrean gogortu dedin, eta ez giza-jakintzan. <sup>6</sup> Ala ere, bikañen artean darabilgu jakintza; baño, ez gizarte ontako jakintza, ezta gizarte ontako nagusi galkorrena ere; <sup>7</sup> Jainkoaren jakintza ezkutu ta ixilpekoea baizik, betidanik Jainkoak gure aunditasunerako aukeratutakoa. <sup>8</sup> Gizarte ontako nagusi batek ere ez du jakintza ori ezagutu; ezagutu ba'lute, etzuten egundaño aintzaren Jauna gurutziltzatu ko (\*). <sup>9</sup> Baño, idatzita dagon bezela: «Ez du, ez begik ikusi, ez belarrik entzun, ez gizonaren biotzak somatu, Bera maite dutenentzat Jainkoak gerturik daukana.

<sup>10</sup> Guri, berriz, Jainkoak agertu digu bere Espirituaren bidez: Espiritua gauza guztien barruan sartzen bait-da; Jainkoaren barruan ere bai. <sup>11</sup> Gizonetan nor da, gizonaren gauzak jakin ditzakenik, beragan dagon giza-espiritua izan ezik? Era berean, Jainkoaren gauzak ezin ditzake jakin, Jainkoaren Espirituak bestek. <sup>12</sup> Guk, ordea, ez degu gizarte ontako espiritua artu, Jainkoarengandik dan Espiritua baizik; Jainkoak eman dizkigun gauzak ezagutu ditragun. <sup>13</sup> Eta gauza auek azaltzen dizkitzute, ez gero giza-jakintzatik datozen itz apañetan, baizik *Jainkoaren* Espirituagandik ikasitako itzez, espirtuaren gauzak espirtuarenakin elkartuaz; <sup>14</sup> gizonak bere sen utsez ez ditu Jainko-Espirituaren gauzak ulertzen; beretzat zorakeri bait-dira ta ezin ulertu ditzake, gogobidez ulertzekoak dira-ta. <sup>15</sup> Espiritu-zaleak, berriz, gauza guztiak aztertzen ditu, baño, bera ezin dezake iñork azertu. <sup>16</sup> Izan ere, Jaunaren asmoa «nork ezagutu du, Ari erakutsiak eman dezaizkion?». Guk, ordea, Kristo'ren sena daukagu.

## III

**Alderdikeriak Korinto'ko Elizan.**

<sup>1</sup> Eta nik, anayok, ezin itz egin izan nizuten espirtuazaleei bezela, baizik, aragizaleei bezela, ta Kristo'rengan ume-txoai bezela. <sup>2</sup> Esnea eman nizuten edateko; ez nizuten janaririk eman, orduan ez bait-ziñaten gauza. Oraintxe ere, oraindik etzerate gauza, <sup>3</sup> oraindik aragikoi zerate-ta. Izan ere, zuen artean ezin-ikusiak eta eztabaidak dirala, ez ote zerate aragikoi agertzen eta giza-erara ibiltzen? <sup>4</sup> Batak, «Ni Paulo'rena naiz», esatean, eta besteak «Ni Apolo'rena», ez ote zerate giza-erara agertzen? <sup>5</sup> Zer da, bada, Apolo, ta zer da Paulo? Jainkoak bakoitzari eman digun lanean, sinismenera ekarri zaituzten morroyak dira. <sup>6</sup> Nik aldatu egin nuan; (\*) Apolo'k ureztatu; eta Jainkoak azi. <sup>7</sup> Izan ere, aldatzen duana ez da ezer; ezta ureztatzen duana ere; bai ordea, azitzen duan Jainkoa. <sup>8</sup> Aldatzen duana ta ureztatzen duana, biak bat dira; eta bere lanari dagokionez artuko du bakoitzak bere saria. <sup>9</sup> Gu Jainkoaren langille batzuek gera; ta zuek, Jainkoaren lur goldatua zerate, Jainkoaren etxea. <sup>10</sup> Nik, etxegille zentzudunari dagokionez, oñarriak ipiñi ditut, Jainkoak bere grazia eman didanez; etxea, berriz, beste batek jasotzen du gañean. Ikusi dezala bakoitzak etxea nola jasotzen duan gañean. <sup>11</sup> Ipiñita dagon oñarria besterik ezin dezake iñork ipiñi; ta ori Kristo da. <sup>12</sup> Oñarri onen gañean bakoitzak jartzen duana: urre, zillar, arri-pitxi, zura (egurra) lasto, <sup>13</sup> bakoitzaren lan ori agirian geldituko da; bere orduan sua agertuko da, ta suak erakutsiko du bakoitzaren lana nolakoa izan zan. <sup>14</sup> Egillearen lana zutik gelditzen ba'da, *egille* onek saria jasoko du; <sup>15</sup> eta lan ori erretzen ba'da, berea izango da kaltea; bera, ordea, onik aterako da, baño sutan barrena bezela.

**Benetako jakinduria.**

<sup>16</sup> Ez al dakizute Jainkoaren etxe zeratela, ta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dala? Jainkoaren etxea loitzen duana, Jainkoak ondatu egingo du (\*). <sup>17</sup> Jainkoaren etxea donea da-ta; etxe ori zuek zerate. <sup>18</sup> Ez bedi iñor oker egon. Zuetako norbait, zuen artean, lurtar-iritziz, jakintsu dalakoan ba'dago, zoro biurtu dedilla, jakintsu izan dedin; <sup>19</sup> gizarte ontako jakinduria Jainkoaren aurrean zorakeri da-ta; idatzita dagon bezela: «Jakintsuak beren maltzurkerian artuko ditut (\*). <sup>20</sup> Eta beste atal batean: «Jainak ba-dakizki jakintsuen asmoak, baita uskeriak dirala ere» (\*). <sup>21</sup> Beraz, ez bedi iñor gizartean arrotu, dana zuena da-ta: <sup>22</sup> naiz Paulo izan, naiz Apolo, naiz Zefas; naiz mundua, naiz bizitza, naiz eriotza, naiz oraingoa, naiz gerokoa, dana zueena da; eta zuek Kristo'renak, eta Kristo Jainkoarena.

## IV

**Burubide arreak nola zapaldu.**

<sup>1</sup> Gizonak gu, Kristo'ren ordekoizat eta Jainkoaren misterioen zabaltzalletzat artzea, bearrezkoa da. <sup>2</sup> Lan au dutenai auxe eskatzen zaye: zintzo joka dezatela. <sup>3</sup> Neri dagokidanez, ajola gutxi neri zuek edo giza-auzitegi batek epaitzea; neronek ere bait-det nere burua epaitzen. <sup>4</sup> Ez nau nere barrenak ezertan salatzen; baño, ez nau orrek bakarrik zintzo biurtzen; nere Epaillea Jauna da-ta. <sup>5</sup> Ez, bada, zuek ere epaitu, ordua baño len, Jauna etorri arte. Ark argituko ditu illunpetako ezkutuak, eta agertuko biotzeko asmoak. Orduantxe izango du bakoitzak Jainkoarengandik norberari dagokion gorapena. <sup>6</sup> Esan dizutedan guzti ori, anayok, nere ta Apolo'ren izenpean erakusten

dizutet, zuenganako maitasunagatik; guregan ikasi dezazuten, idatzita dagona besterik ez jakiten, eta baten alde bestearen lepotik ez arrotzen. <sup>7</sup> Izan ere, nork aukeratu zaitu? Eta zer dezu zuk artu ez dezunik? Eta artu ba'dezu, zergatik arrotzen zera artu ez ba'zenu bezela? <sup>8</sup> Ontaekero, aseta zaudete! Aberats zaudete! Gu gabe iritxi dezute erreñua! Ai iritxiko ba'zenuteke, orrela guk ere zuekin batean erreñua izan dezagun! <sup>9</sup> Jainkoak gu, apostoluok, gizonetan azkenekoak agertu gaituala uste bait-det, eriotzara galduak bezela; munduarentzat eta ainguerentzat eta gixonentzat ikusgarri gera-ta. <sup>10</sup> Gu zoro gera Kristo'rengatik; zuek zentzundun Kristo'rengan; gu makal, zuek indartsu; zuek aundiki, gu kaxkar. <sup>11</sup> Orain arte gose, egarri ta beartsu ibilli gera, matrallekoak artuaz, eta bizilekurik gabe. <sup>12</sup> Gere eskuz lanari ekinda, nekatu egin gera. Guri birao egin eta guk onetsi; gu astindu ta guk ondo eraman; <sup>13</sup> guretzat gaizki esan eta guk otoitz; mundu ontako gorotz eta simaur egiñik gauzkate guztiak orain arte. <sup>14</sup> Ez det au zuek lotsarazteko idazten, seme kutun zaituztedanak pizkortzeko, baizik. <sup>15</sup> Izan ere, Kristo'rengan amar milla zaitzalle ba'dituzute ere, ez dituzute, ordea, aita asko; Berri Onaren bidez, Kristo'rengan nik sortu zaituztet-eta.

<sup>16</sup> Beraz, nere antzeko izan zaitetzela eskatzen dizutet. <sup>17</sup> Onegatik biali dizutet nere seme maitagarri ta Jauna'rengan zintzoa dan Timoteo; ark ekarriko dizkitzute gogora nere bideak Jesukristo'rengan, eta zein dan nere erakusbidea non-nai, eliza guztietan. <sup>18</sup> Batzuek arrotu egin dira zuengan joango ez naizelakoan. <sup>19</sup> Baño joango naki-zute, ta laxter joan ere, Jainkoak nai ba'du; eta orduan ezagutuko det arroxko oyen almena, ez berak diotena; <sup>20</sup> Jainkoaren erreñua ez bait-dago itzetan, onbidean bai-

zik. <sup>21</sup> Zer dezute nayago: ni zuengana zigorrez joatea, ala maitasunez eta biotz otzanez?

## V

**Agiriko pekatariengandik alde egin-bearra.**

<sup>1</sup> Zabaldua dago zuen artean aragikeria dagola; atzerrian bertan aitatu ere egiten ez dan aragikeria: norbaitek bere aitaren emaztea artu duala. <sup>2</sup> Eta, zuek arrotuta zabilzate; eta, ez dezute negarrik egin, txarkeri ori egin duana zuen artetik kendu dedin? <sup>3</sup> Nik, ordea, gorputzez urruti, baño gogoz or nagon onek, epaitu det ori egin duana, or ba'nengo bezela, <sup>4</sup> Jesus gure Jaunaren izenean, zuek eta nere gogoia alkartuta, Jesukristo gure Jaunaren almezez, <sup>5</sup> orrelako ori Satanasi emana izan dedilla, bere gorputzaren zigorrerako, Jesus Jaunaren egunean orren anima onik atera dedin. <sup>6</sup> Ez dago ondo zuen arrokeria. Ez al dakizute legami pixka batek ore guztia jaikitzen duala? <sup>7</sup> Bota zazute legami zarra, ore berri izan zaitezten. ogi-il zeraten bezela, Kristo gure Pazko-Bildotsa oparizat il da-ta. <sup>8</sup> Egin dezagun, bada, jai; ez, ordea, legami zarrarekin, ezta txarkerizko ta gaiztakerizko legamiarekin ere, baizik eta garbitasun eta zintzotasun-opillakin. <sup>9</sup> Esan dizutet eskutitzez, aragikoiakin ez nastutzeko. <sup>10</sup> Ez, ordea, lur ontako aragikoiakin, edo dirukoi, edo lapur, edo sasi-jainkozale diranakin; bestela, lur ontatik irten egin bearko zenuteke-ta. <sup>11</sup> Anai izena daramala, norbait aragikoi, diruzale, sasi-jainkomaite, biraoti, mozkorti edo lapur ba'da, orrelakoakin jan ere ez egiteko idatzi dizutet <sup>12</sup> Izan ere, neri ote dagokit *Elizatik* kanpora daudenak epaitzea? Ez al dira Elizan barruan daudenak, zuek epaitu bear dituzutenak? Kanpokoak Jainkoak epaituko ditu; eta, zuek ken zazute gaizto ori zuen artetik.

## VI

**Auzikeriak.**

<sup>1</sup> Zuetako norbait, beste baten aurka zerbait duala-ta, ausartuko ote da santuengana jo-bearrean, epai-eske gaiztoengana jotzen? <sup>2</sup> Ez al dakizute gizarte au santuak epaituko dutela? Eta gizartea zuek epaitu bear ba'dezute, ez ote zerate orrelako auzi txikiak epaitzeko gauza? <sup>3</sup> Ez al dakizute aingeru *gaiztoak* ere guk epaituko ditugula? Askoz geyago, bada, gizarteko gora-berak. <sup>4</sup> Beraz, mundu ontako gora-beretan auzigarririk ezer ba'dezute, elizkiderik txikiak ipiñi itzazute epaikari. <sup>5</sup> Zuen lotsakizunerako diotzutet au. Ez al dago iñor zuenean, anai-arteko auziak epaitzeko bezin gizon zentzundunik? <sup>6</sup> Ori egin bearrean, anayak anaya auzitara eraman bear eta sinisgabeetara eraman? <sup>7</sup> Naiko erru ba-da alkarren artean auzitan zuek ibiltzea. Zergatik ez auzitara gabe, okerra eraman? Zergatik ez gaizki egiñak barkatu? (\*). <sup>8</sup> Eta ori egin bearrean, zeurok zabilzate okerrak eta kalteak egiten, eta ori zeuron anayai! <sup>9</sup> Ez al dakizute zuzengabeko gizonak ez dutela Jainkoaren erreinua iritxiko? Ez iritzi makurrik euki: Ez dute Jainkoaren erreinurik iritxiko ez aragikoyak, ez sasi-jainkozaleak, ez ezkontza-ausleak, ez emetiak, sodomakerizaleak, <sup>10</sup> ezta lapurrak ere, ez diruzaleak, ez mozkorrak, ez biraotiak, ezta arrapalariak ere. <sup>11</sup> Orrelakoak izanak zerate batzuek; baño, Jesukristo gure Jaunaren izenean eta gure Jainkoaren Espirituaz garbituak izan zerate, ta santuak izan zerate eta zintzotuak izan zerate (\*).

<sup>12</sup> «Dana legezko zait»; baño ez egoki. «Dana legezko zait»; baño ez naiz ezeren mendean geldituko. <sup>13</sup> «Janariak sabelerako ta sabela janarietarako»; baño, bata ta bestea ondatu egingo ditu Jainkoak. Gorputza ez da aragikerirako; Jaunarentzat baizik; ta Jauna gorputzarentzat; <sup>14</sup>



eta Jauna piztu zuan Jainkoak gu ere piztuko gaitu bere indarrez (\*).<sup>15</sup> Ez al dakizute zuen gorputzak Kristo'ren atal dirala? Eta, nik Kristo'ren atalak artu, ta emakume galdu baten atal egin? Ez orixe!<sup>16</sup> Ez al dakizute emagaldurekin batzen dana, arekin gorputz bat egiten dala? Idatzita dago: «Aragi bat izango dira biak» (\*).<sup>17</sup> Jaunarekin batzen dana, berriz, Arekin espiritu bat egiten da.<sup>18</sup> Egin zazute iges aragikeritik. Gizonak egin dezaken beste edozein pekatu, gorputzetik kanpora gelditzen da; baño, aragikerizko pekatua egiten duanak, bere gorputzaren aurka egiten du pekatu.<sup>19</sup> Edo-ta, ez al dakizute zuen gorputza, zuengan dagon, eta Jainkoarengandik artutako Espiritu Santuaren etxe dala? Ta, beraz, zuek etzeratela zeuren buruaren jabe?<sup>20</sup> Ordain aundia eman da zuek erostekoi: Gora zazute, bada, Jainkoa zuen gorputzean.

## VII

### Ezkontza dala-ta.

<sup>1</sup> Idatzi didazutenari buruz, on zayo gizonari emakumerik ez ikuitzea.<sup>2</sup> Ala baña, aragikeriari iges egitearren, euki beza gizon bakoitzak bere emaztea ta emakume bakoitzak bere senarra.<sup>3</sup> Senarrak ordain bezayo emazteari bere zorra, ta berdin emazteak ere bere senarrari.<sup>4</sup> Emaztea ez da bere gorputzaren jabe, senarra baizik; eta berdin, senarra ez da bere gorputzaren jabe, emaztea baizik.<sup>5</sup> Ez ukatu alkarri alkarrenganako eskubidea, bion baiezkoaz, aldi batez, otoitzari ekiteko izan ezik; eta berriro biur zaitzte alkarrenganako bizitzara; zuen lasakeria dala-ta, Satanas'ek zirika ez zaitzaten.<sup>6</sup> Baño au egin, egin zenezatekela diot; agindu, ez det agintzen.<sup>7</sup> Gizaki guztiak ni bezelakoak izatea nai nuke; baño,

bakoitzak bere grazi berezia dauka Jainkoarengandik; onek onela, ark ala.<sup>8</sup> Ala ere, ni bezela egotea obe litza-yekela esaten diet ezkondu ez diranai ta alargunai (\*).<sup>9</sup> Baño aragia ezitzeko indarririk ez ba'dute, ezkondu bitez; kixkaltzea baño obe da-ta ezkontzea.

### Ezkontza-lokarriak.

<sup>10</sup> Ezkonduai buruz, berriz, auxe agintzen die Jaunak, ez nik: ez dedilla emaztea senarrarengandik banandu;<sup>11</sup> eta bananduko ba'litz, ez dedilla berriz ezkondu; edo bere senarrarekin adiskidetu dedilla berriro. Senarrak ere ez beza bere emaztea utzi.<sup>12</sup> Besteai, berriz, nik esatu diet, Jaunak ez: anai batek emazte sinisgabea ba'dauka ta onek arekin bizi izateko asmoa ba'du, ez dezala emaztea bialdu.<sup>13</sup> Eta emazte sinistedunak senar sinisgabea ba'dauka ta onek arekin bizi izateko asmoa ba'du, ez dezala senarra utzi;<sup>14</sup> emazte fededunarengatik senar sinisgabea donetuta gelditzen bait-da; anayarengatik emazte sinisgabea ere, donetuta gelditzen da; bestela, zuen semeak ez lirake garbiak izango; orain, ordea, santu dira.<sup>15</sup> Baño, sinisgabea banantzen ba'da, banandu dedilla; orrelako zorian, ez dago anaya edo arreba orrelakoentzat lotuta; Jainkoak pakerako deitu bait-gaitu.<sup>16</sup> Izan ere, zer dakizu zuk, emazte orrek, senarra zeruratuko dezun? Eta zuk, senar orrek, zer dakizu zuk emaztea zeruratuko dezun?

### Bego bakoitza bere bizibidean.

<sup>17</sup> Bakoitza ibilli bedi, ostera, Jaunak eman dionez eta dei egin dionez; eta auxe agintzen det eliza guztietan (\*).<sup>18</sup> Erdainduta gero artu al du batek deya? Ez bedi orregatik lotsatu. Erdaindu baño len artu al du batek deya? Ez bedi erdaindu.<sup>19</sup> Ez da ezer erdaintuntza, ezta erdainduta ez egotea ere: Jainkoaren aginduak betetzea, orixe da

guztia. <sup>20</sup> Bego bakoitza, Jainkoaren deya artzean zegon bizibidean. <sup>21</sup> Morroi ziñala artu al zenuan deya? Ez izan ardurarik. Askatasuna iritxi al ba'zenez ere, obe lenean jarraitzea. <sup>22</sup> Morroi zala, Jaunarentzat deitua izan zanak, Jaunarengana askatasuna eskuratu du-ta; era berean, bere eskuko zala deitua, Kristo'ren morroi da. <sup>23</sup> Zuek erosteko ordaña emana dago; etzaituzte gizonen morroi biurtu. <sup>24</sup> Anayok! Iraun dezala bakoitzak Jaunaren aurrean, Aren deya artu zuanean zeukan bizibidean.

### Garbitasunari buruz.

<sup>25</sup> Ezkongayentzat ez det Jaunaren agindurik; baño, Jainkoaren errukiz sinistea merezi dedan ezkeru, ona emen nere iritzia. <sup>26</sup> Nere ustez, oraingo estualdiagatik, on zayo edozein gizoni dagon bezela egotea.

<sup>27</sup> Emazteari lotuta al dago? Ez billatu askatzerik. Emazterik gabe al zaude? Ez billatu emazterik. <sup>28</sup> Ala ere, ezkontzen ba'zera, ez dezu pekatuak egiten; neskak ere, ezkontzen ba'da ez du pekatuak egiten. Orrelakoak, ordea, aragi-nekeetan arkituko dira; eta ez nuke nik zuentzat orrelakorik nai. <sup>29</sup> Ona emen, anayok, esaten dizutedana; laburra da denbora. Beraz, emaztedunak, emazterik ez ba'lute bezela, ibilli ditezela; <sup>30</sup> negar egiten dutenak, egingo ez ba'lute bezela; pozik daudenak, pozik gabe bezela; eta erostunak, ezer ez ba'lute bezela; <sup>31</sup> eta lurrekoetan dabilzanak, ez ba'lebiltza bezela; mundu onen irudia igeskorra da-ta. <sup>32</sup> Zuek kezkarikan gabe egotea nai nuke nik. Ezkongabea, Jaunari dagozkion gauzetan arretatsu dabil, Jaunari nola atsegin eman. <sup>33</sup> Emazteduna munduko gauzetan arretatsu dabil, emazteari nola atsegin emango, <sup>34</sup> eta bitara dago. Emakume ezkondu gabea ta neskatxa, Jainkoari dagozkion gauzetan dabil arduratsu, gorputz eta

anima santu izateko. Senarduna, berriz, lurrekoetan dabil arduratsu, senarrari nola atsegin emango. <sup>35</sup> Au zuen onerako diotzutet; ez, ordea, zuei sarea ipintzeko, obe danari begiratuta baizik, eta eragozpen gabe Jaunari obekiago lotu zakizkioten.

<sup>36</sup> Norbaitek, bere alaba neskeaz gelditza lotsagarri zayola, ta ezkondu egin bear duala uste ba'du, egin beza nai duana; ez du pekatuak egiten; ezkondu dezala (\*). <sup>37</sup> Baño, bestela egiteko premirik gabe, ta bere nai-izatearen jabe dala, norbaitek bere biotzean, alaba ezkongai uzteko asmo sendoa artzen ba'du, ondo egiten du. <sup>38</sup> Beraz, bere alaba ezkontzara daramanak, ondo egiten du; eta ezkontzara ez daramanak, obeto egiten du. <sup>39</sup> Senarra bizi dan bitartean, emaztea lotuta dagokio; baño, senarra il ba'zayo, nai duanarekin ezkontzeko bere eskuko da, Jaunaren legez, ordea (\*). <sup>40</sup> Baño zoriontsu izango da ala gelditzen ba'da; auxe da nere burubidea, ta Jainkoaren Espiritua daukadala uste det.

### VIII

#### Sasi-jainkoai eskeñitako aragiak dirala-ta.

<sup>1</sup> Sasi-jainkoai eskeñitako aragai buruz, ba-dakigu guztiok jakin bear dana. Baño, jakintzak puztu egiten du, ta maitasunak jaso (\*). <sup>2</sup> Norbaitek zerbait ba-dakila uste ba'du, ez du oraindik ezer jakin, jakin bear dan bezela; <sup>3</sup> baño Jainkoa maite duana, Aren begiko da. <sup>4</sup> Sasi-jainkoai eskeñitako janariak jateari dagokionez, ba-dakigu sasi-jainkoa ezer ez dala mundu ontan, eta Jainko bat besterik ez dala. <sup>5</sup> Izan ere, ortzean (lurreko zeruan) eta lurrean jainko-izenez jainkotzako ta jauntzako asko ba'dira, <sup>6</sup> guretzat ez da Jainko Aita bat besterik; dana Arengan-

dik dator eta gu Bereak gera; Jauna ere bakarra da, Jesu-kristo; gauza guztiak Onek egiñak dira; baita gu ere. <sup>7</sup> Baño ori ez dute guztiak ondo ezagutzen. Oraindik, batzuek, sasi-jainkoa zerbait ba-dala uste izanik, ari eskeñi; tako aragia jan egiten dute; eta ayen barrua, aula bait-da, zikindu egiten da. <sup>8</sup> Baño janariak ez gaitu Jainkoaren begiko egiten; jan degulako, ez gera geyago izango; ezta, jan ez degulako, gutxiago ere. <sup>9</sup> Kontuz, gero, zuen eskubide ori aulai galbide izan ez dakien! <sup>10</sup> Izan ere, orrelako norbaitek, sasi-jainkoen etxeko mayan eserita ikusten ba'zaitu zu, gauzen berri dakizun ori, ez ote zayo alakoari, gogoz aulā danari, sasi-jainkoai eskeñitako aragiak jateko gogoia piztuko? <sup>11</sup> Eta, orrela, zure jakintzagatik il egingo al da zure anai aulā, Kristo aren alde il dala ere? <sup>12</sup> Orrela, anayen aurka pekatu egiñaz eta anai aulen barru makala zaurituta, Kristo'ren aurka pekatu egiten dezute. <sup>13</sup> Beraz, nere janariak nere anaya galbidera ba'darama, ez det beñiere aragirik jango, nere anaya galdu ez dedin.

## IX

**Paulo bera Korinto'koentzat jarraibide.**

<sup>1</sup> Ez ote det nik askatasunik? Ez ote naiz apostolu? Ez ote det Jesukristo gure Jauna ikusi? Ez ote zerate zuek nere lana Jaunarengan? <sup>2</sup> Besteentzat apostolu ez ba'naiz ere, zuentzat ba-naiz beintzat!; nere Apostolutzaren ezaugarri zuek zerate-ta Jaunarengan (\*). <sup>3</sup> Auxe da nere jokabidea aztertzen dutenai ematen diedan erantzuna: <sup>4</sup> «Ez ote degu jan-edateko eskubiderik? <sup>5</sup> Ez ote degu gure ibillaldietan arrebaren bat eramateko eskubiderik beste apostoluak, eta Jaunaren anayak eta Zefas'ek bezela? <sup>6</sup> Edo-ta, ni ta Bernabe bakarrik ote gaude gere la-

netik bizitzeko beartuak? <sup>7</sup> Nor ibilli da iñoiz gerratean bere lepotik? Nork aldatzen du maastia ta ez du aren fruturik jaten? Nork larratzen du artaldea ta ardiēn esnerik ez du edaten? <sup>8</sup> Gizairitziz bakarrik ote diot, gero, au? Ala, Legeak berak ere ez al dio ori bera? <sup>9</sup> Moises'en Legean idatzita dago au: «Gari-jotzen dabillen idiari ez diozu aorik lotuko» (\*). <sup>10</sup> Ez ote dio guretzat, batipat? Bai, guretzat dago idatzita: goldelariak soroko uztaren pozean galdetzen du, ta gari-jotzalleak ere frutuaren itxaropenez jotzen du garia. <sup>11</sup> Arritzeko ote da, bada, zuetan gogo-azia erein degunok, bizitzeko bear deguna zuengandik artzea? <sup>12</sup> Beste batzuek zuen ondasunetan eskuartzeko eskubidea ba'dute, ez ote degu guk eskubide geyago izango? Ala ere ez degu eskubide au erabilli; baizik eta, dana eramaten degu ondo, Kristo'ren Berri Onari eragozpenik ipiñi ez dezayogun. <sup>13</sup> Ez al dakizute elizkizunetan ari diranak, elizarena danetik jaten dutela?, eta aldareko lanetan ibiltzen diranak, aldareko oparietatik eskuartzan dutela? <sup>14</sup> Alaxe agindu die Jaunak Berri Ona zabaltzen dutenai ere; Berri Onaren lepotik bizi ditezela.

<sup>15</sup> Ala ere, ez det nik eskubide au erabilli. Eta au ez det idazten nerekin orrela egin dedin. Nayago det il, iñork gorabide au kentzea baño. <sup>16</sup> Berri Ona zabaltzea ez da neretzat gorapen; beartua nago-ta. Errukarria ni Berri Ona zabalduko ez ba'nuke! <sup>17</sup> Eta au gogo onez egiten ba'det izango du saria; beartuta egiten ba'det, ordea, neri dagokidan eginkizuna betetzea besterik ez det egiten. <sup>18</sup> Zer izan diteke, beraz, nere saria? Berri Ona zabaltzeko lana utsaren alde egitea, Berri Ona zabaltzeagatik dagokidan eskubidea gaizki erabilli ez dezadan. <sup>19</sup> Izan ere, nere eskuko izanik, guztien morroi egin naiz, albait geyen irabazi ditzaten. <sup>20</sup> Eta judutarrakin judutar egin naiz, judutarrak irabazteko. Legepean bizi diranakin, ni Legepean

ez egonarren, legepeko bezela agertzen naiz, legepekoak irabazteko. <sup>21</sup> *Moises'en* Legetik kanpo daudenakin, Legetik kanpo ba'nego bezela agertzen naiz, - ni Jainkoaren Legetik kanpo ez egonarren, Kristo'ren Legepean baizik -, legegabeak irabazteko. <sup>22</sup> Aulakin aul agertzen naiz, aulak irabazi ditzadan; guztientzat guzti egiten naiz, guztiak salbatu ditezten. <sup>23</sup> Guztia Berri Onarengatik egiten det, aren agintzetan eskuartu dezadan.

<sup>24</sup> Ez al dakizute, bada, laixterketa-tokietan korrika egiten dutenak, guztiak egiten dutela korrika, baño saria batek bakarrik jasotzen duala? Zuek ere egin zazute saria irabazteko ainbeste korri. <sup>25</sup> Borrokalaria ere *kutizi guztiak* utzita bizi da; ta ori koroï ustelkor bat irabazteko; gu, ordea, zimeltzen ez dana irabazten ari gera. <sup>26</sup> Ni ere korrika nijoa, eta ez nora nijoa ez dakidala ukabilka ari naiz, baño ez aizeari ukabilka; <sup>27</sup> nere gorputza astintzen det, eta menpean eukitzen sayatzen naiz; besteai crakutsi ondoren, neroni galdu ez nadin.

## X

### Israel'go kondaira, kristaudentzat ikasbide.

<sup>1</sup> Ez det nai, anayok, gure gurasoai gertatu zitzayena aztutzea; guztiak egon ziran odeipean; guztiak igaro zuten itxasoa (\*); <sup>2</sup> guztiak jarraitu zioten Moises'i odeipean eta itxasoz; <sup>3</sup> guztiak gogo-janari berbera jan zuten eta gogo-edari berbera edan - <sup>4</sup> edan ere, ondotik zijoakien arritik edaten zuten, eta arria Kristo zan - (\*). <sup>5</sup> Baño ayetako geyenak eiziran Jainkoaren gogoko izan, eta basamortuan ilda gelditu ziran. <sup>6</sup> Gertaera auek guretzat irudi izateko gertatu ziran, - ayek bezela -, naikeri txarrik izan ez dezagun. <sup>7</sup> Sasi-jainkorik ez gurtu, ayetako batzuek

gurtu zituzten bezela, idatzita bait-dago: «Erria jateko ta edateko eseri zan, eta gero jolas egitera jeiki ziran» (\*). <sup>8</sup> Ez dezagun aragikeririk ere egin, ayetako batzuek egin zuten bezela; ayetako ogei ta iru milla il ziran orretxegatik egun batean. <sup>9</sup> Ez dezayogun Jaunari eskua artu (tentatu); ayetako batzuek ori egin zutelako, subeak kosk eginda il ziran. <sup>10</sup> Etzaitzte marmarrean ari, ayetako batzuek egin zuten bezela; gero galtzallearen eskuz il ziran.

<sup>11</sup> *Oker* auek guztiak irudizat gertatu zitzaizkien ayei, ta azken-aldi auetan bizi geranon ikasbidetzat daude idatzita. <sup>12</sup> Beraz zutik dagona, bego erne, erori ez dedin. <sup>13</sup> Ez dezute izan gizonen indarrez gañeko tentaldirik: zintzoa da Jaungoikoa ta ez du utziko zuen indarrez gañeko tentaldirik izan dezazuten. <sup>14</sup> Beraz, ene maiteoki, egizute iges sasi-jainkoak gurtzetik. <sup>15</sup> Gizaki zentzundunakin ari naizen ezkerok, zeurok izan zaitzte diodanaren epaille. <sup>16</sup> Guk bedeinkatzen degun onespen-ontzia, ez ote da Kristo'ren Odolaren artukizuna? Eta zatitzen degun ogia, ez ote da Kristo'ren Gorputzaren artukizuna? <sup>17</sup> Ogia bat dan ezkerok, guztiok gorputz bat bakarra egiten degu, ogi bakar ortatik artzen degu guztiok-eta. <sup>18</sup> Ikus zazute Israel aragi-eraz. Opariak jaten dituztenak, ez ote dute aldaretik eskuartzen? <sup>19</sup> Zer diot, bada? Sasi-jainkoai eskeñitako aragiak zerbait dirala? edo-ta, sasi-jainkoak zerbait dirala? <sup>20</sup> Ez; atzeritarrak eskeintzen dutena etsayari eskeintzen diotela, ez Jainkoari; eta nik ez det nai zuek etsayakin artu-emanik izan dezazuten. <sup>21</sup> Jaunaren edontzia ta etsayen edontzia ezin zenitzateke edan; Jaunaren maikide ta etsayen maikide ezin zindezateke izan. <sup>22</sup> Ala, Jauna asarrerazi nai ote degu? Bera baño indartsuago ote gera? <sup>23</sup> «Dana zillegi da», baño ez egoki; «dana legezko da», baño ez dute gauza guztiak onerako laguntzen. <sup>24</sup> Norberari on zayona ez beza ifork billatu; baizik eta

besteai on zayena. <sup>25</sup> Jan zazute arategian saltzen dan guztia, legezko dan aztertu gabe (\*), <sup>26</sup> lurra ta bertan dagon guztia Jaunarena da-ta» (\*). <sup>27</sup> Sinisgaberren batek dei egin da, arengana joan nai ba'dezute, jan zazute aurrean jartzen dizuten guztia, legezko ote dan aztertu gabe (\*). <sup>28</sup> Baño norbaitek esaten ba'dizute: «Au oparituia da», ez jän, ori esan dizunarengatik eta barren-aginduarengatik; <sup>29</sup> ez diot zure aginduarengatik, arenagatik baizik. Baño, beste baten iritziak zergatik lotu bear ote dit *edozer jateko* dedan eskubidea? <sup>30</sup> Jaten dedana eskerrak emanda artzen ba'det, zergatik esan bear didate gaizki, nik Jainkoari eskerrak ematen dizkiodan arengatik beragatik? <sup>31</sup> Beraz, jaterakoan, naiz edaterakoan, naiz beste edozer egi-trakoan, egin zazute dana Jainkoaren aintzarako. <sup>32</sup> Gaizbiderik ez eman judutarrai, ez grezitarrai ezta Jainkoaren Elizari ere (\*); <sup>33</sup> ni ere alegintzen naiz, gauza guztietan, guztien naierara ibiltzen, neretzat on danik billatu gabe, guztientzat on dana baizik, zerura ditezten.

## XI

### Emakumeak elizan.

<sup>1</sup> Izan zaitezte nere antzeko, ni Kristo'ren antzeko naizen bezela. <sup>2</sup> Gauza guztietan ni gogoratzen nauzuten ezkerro ta eman nizkitzuten erakutsiak ondo betetzen dituzuten ezkerro, txalo egiten dizutet. <sup>3</sup> Anayok! Orain nai det, gizon guztien buru Kristo dala jakin dezazuten; emaztearena, berriz, senarra da; eta Kristo'rena Jainkoa (\*). <sup>4</sup> Burua estalita, otoitz naiz itzaldi egiten duan gizonak, bere burua itxusitzen du. <sup>5</sup> Burutsik otoitz naiz itzaldi egiten duan emakumeak bere burua itxusitzen du; burumotz ba'lego bezela (\*). <sup>6</sup> Emakumeak bere burua estaltzen ez

ba'du, dagola burumotz. Eta illea moztutzea, edo burumotz agertzea emakumearentzat lotsagarri ba'da, estali dezala. <sup>7</sup> Gizonak ez du bururik estali bear, Jainkoaren irudi ta aintza bait-da; emakumea, berriz, gizonaren aintza da; <sup>8</sup> ez bait-dator gizona emakumearengandik, eta bai emakumea gizonarengandik; <sup>9</sup> eta gizona ez da emakumearentzat egiña, bai ordea, emakumea gizonarentzat. <sup>10</sup> Beraz, emakumeak burugañean menpetasun-ezaugarria eramane bear du, Aingeruak dagokien begiruneagatik. <sup>11</sup> Baño, ez da emakumerik, Jaunarengan, gizonik gabe; ezta gizonik ere emakumerik gabe. <sup>12</sup> Izan ere, emakumea gizonarengandik datorren bezela, gizona ere izatera emakumearen bidez dator, eta biak Jainkoarengandik datoz (\*). <sup>13</sup> Orain zeurok erabaki: egoki al da emakumeak burutsik Jainkoari otoitz egitea? <sup>14</sup> Izaerak berak ez al dizute erakusten, gizona lotsatu egiten dala illeari azitzen uzten ba'dio? <sup>15</sup> Emakumeari, berriz, illeari azitzen uztea, gora-garri zayo; ille-adatsa estalkitzat eman bait-zayo. <sup>16</sup> Ala ere, norbait setatsu ba'litz, guk ez degu orrelako oiturarik, ezta Jainkoaren Elizak ere.

### Jaunaren aparria.

<sup>17</sup> Zuei au eskatzean, ezin ontzat eman dezazket zuen billerak; oberako izan bearrean, kaltetarako zaizkitzute-ta. <sup>18</sup> Lenengo, entzun det alderdikeriak dituzutela zuen billeretan; eta zerbait-zerbait sinistu egiten det (\*). <sup>19</sup> Bearrezkoa da zuen artean alderdikeriak izatea ere, zuen artean zintzoak zein diran ager dedin. <sup>20</sup> Eta alkarrekin biltzen zeratenean, ez dezute Jaunaren aparria egiten; <sup>21</sup> ba-koitzak bere aparria bait-dakar jateko. Ola, bat goseak gel-ditzen da, ta bestea mozkortuta. <sup>22</sup> Ez ote dituzute zeuron etxeak, jateko ta edateko? Edo-ta, Jainkoaren eliza loitzen dezute, ta orrela, ez dutenak lotsarazten? Zer

esango dizuet? Goratu egingo ote zaituet? Ortan ez beintzat. <sup>23</sup> Izan ere Jaunarengandik ikasi det zuei erakutsi dizutedan au: Jesus Jaunak saltzen zuten gau artan, ogia artu, <sup>24</sup> ta eskerrak emanda, zaitu ta auxe esan zien: «Au, zuentzat ematen dan nere gorputza da; egin zazute au nere oroiz». <sup>25</sup> Era berean, apalondoan ere, ontzia artu ta esan zuan: «Ontzi au Itun Berria da nere odolatan; edaten dezuten bakoitzean, egin zazute nere oroiz». <sup>2</sup> Eta ogi ontatik jaten eta ontzi ontatik edaten dezuten bakoitzean, Jaunaren eriotza gogorazten dezute, Bera etorri arte. <sup>27</sup> Beraz, ogi au jan, eta Jaunaren ontziko au bear ez bezela edaten duanak, Jaunaren gorputz-odolen errudun izango da. <sup>28</sup> Aztertu beza, bada, bakoitzak bere barrua, ta orduan ogi ontatik jan beza ta edari ontatik edan: <sup>29</sup> Jaunaren gorputza aintzat euki gabe jaten eta edaten duanak, bere ondamendia jaten eta edaten bait-du. <sup>30</sup> Orretxegatik daude zuen artean ainbeste argal eta gaxo eta lotan ez gutxi. <sup>31</sup> Gere buruak aztertuko ba'genitu, ordea, ez giñake epaituak izango. <sup>32</sup> Baño Jaunak zigorrez zuzentzen gaitu, munduarekin batean galdu ez gaitezen. <sup>33</sup> Beraz, nere senideok, jateko elkartzen zeratenean, alkarri itxoegin zaiozute. <sup>34</sup> Norbait goseak ba'dago, jan dezala etxean, zuen billerak ondamendi biurtu ez ditezen. Gañerakoak, zuengana joaten naizenean, zuzenduko ditut.

## XII

### Espiritu Santuaren doayak.

<sup>1</sup> Ez det, anayokl, espirituko doayai buruz zuek illunpetan egoterik. <sup>2</sup> Ba-dakizute fedegabeak ziñatenean sesi-jainko mutuen irudietara, bultza-bear aundirik gabe, joaten ziñatela. <sup>3</sup> Orregatik jakiñerazten dizutet orain:

Jainkoaren Espirituak eraginda dabillen iñork ez dio Jesus'i biraorik egiten; eta iñork ere ezin dezake Jesus Jauna aitortu, Espiritu Santuak eragiten ez ba'dio. <sup>4</sup> Graziak, berriz, era askotakoak dira; baño Espiritu Santua bat bakarra. <sup>5</sup> Eginbideak era askotakoak dira; baño bakarra da guztietan dana egiten duan Jainkoa. <sup>6</sup> Era askotakoak dira doayak, ber-bera, ordea, Jauna. <sup>7</sup> Eta, Espiritu Santuak bakoitzari emandako agerbidea, guztien onerako da. <sup>8</sup> Espiritu orren bidez, batari jakituri-itza ematen zayo; besteari, Espiritu ber-beraz, erakusteko itz jakintsua; <sup>9</sup> orkoari, Espiritu ber-beraz, sinismena; angoari, Espiritu ber-beraz, gaxoak sendatzeko grazia; <sup>10</sup> urrengoari, mirariak egiteko almena; oni, igartzekoa; ari, biotz-joe-rak bereiztekoa; urliari, izkuntza arrotzez mintzatzekoa; berendiari, edozein esan ulertzeko *grazia*; <sup>11</sup> *Egiteko* auck guztiak, berriz, Espiritu batek eta ber-berak egiten ditu, bakoitzari Berak nai duanez banatuaz. <sup>12</sup> Bat izanda ere, gorputzak atal asko dituaneez, eta gorputzeko atal guztiak, asko izanda ere, gorputz bakarra diranez, Kristo ere orrelaxe da (\*). <sup>13</sup> Gu guztiok ere Espiritu batengan batayatuak izan gera, gorputz bat bakarra egiteko; eta guztiok, naiz judutarrak izan, naiz atzeritarrak, naiz menpekoak, naiz askatuak, Espiritu beretik edan degu. <sup>14</sup> Gorputza ez bait-da atal bakarra, atal asko baizik. <sup>15</sup> Izan ere, oñak esango ba'lu, «begi ez naizen ezker, ez naiz gorputzarena», ez litzake orregatik gorputzetik askatuko. <sup>16</sup> Eta be-larriak, «begi ez naizen ezker, ez naiz gorputzarena» esango ba'lu, ez litzake orregatik gorputzetik askatuko. <sup>17</sup> Gorputz osoa begi ba'litz, nun legoke entzumena? Eta *gorputz osoa* entzumen ba'litz, nun legoke usaimena? <sup>18</sup> Baño Jaungoikoak ipiñi ditu gorputz-atalak, Berak nai izan duan bezela. <sup>19</sup> Guztiak atal bat ba'lira, nun legoke gorputza? <sup>20</sup> Atalak asko dira, baño gorputza bakarra.

<sup>21</sup> Begiak ezin dezayoke eskuari esan: «ez det zure bearrik»; ezta buruak ere oñari: «ez det zure bearrik». <sup>22</sup> Geyago oraindik: makalenak diruditen gorputz-atalak bearrragoak dira; eta txatxarrago diruditenak egokiago estaltzen ditugu; eta lotsagarri diruditen atalak, begirune aundiagoz erabiltzen ditugu. <sup>23</sup> Berez eratsuak diran atalak ez dute geyagoren bearrik. Baño, Jainkoak gorputza eratu digu, begiramenik aundiena, berez gutxien zuten atalai emanda, <sup>24</sup> gorputzean alderdikerririk izan ez dedin eta atalak alkarren ardura izan dezaten. <sup>25</sup> Ola, atalen bat mintzen ba'da, beste atal guztiak mintzen dira arekin; eta atalen bat edertzen ba'da, beste atal guztiak poztu egiten dira arekin batean. <sup>26</sup> Zuek, bada, Kristo'ren gorputz zerate, ta zuetako bakoitza Aren atal bat. <sup>27</sup> Jainkoak elizan batzuk ipiñi zituan: lenengo, apostoluak; gero, igarleak; gero, maixuak; gero, mirariak egiteko almena, sendatzeko doaya, laguntzekoa, agintzekoa, izkuntza arrotzez mintzatzekoa. <sup>28</sup> Guztiak apostolu ote dira? Guztiak igarle? Guztiak maixu? Guztiak mirarigille? <sup>29</sup> Guztiak sendagille? Guztiak izkuntza askodun? Guztiak itz-adierazle? <sup>30</sup> Doairik onenak irrika itzazute. Baño, oraindik bide ohea erakutsi nai dizutet.

## XIII

**Goi-maitasuna.**

<sup>1</sup> Gizonen eta aingeruen izkuntzak itzegiñarren, maitasunik ez ba'nu, tupiki soñulari ta kanpai tintinlari bezela nintzake (\*). <sup>2</sup> Eta igartzeko doaya eukiarren, eta ezkutu ta jakiteko guziak jakiñarren, eta mendiak leku batetik bestera aldatzeko aña sinismen eukiarren, maitasunik ez ba'nu, ezer ez nintzake; <sup>3</sup> eta nere ondasun guz-

tiak emanarren eta nere gorputza sugarretan jarriarren, maitasunik ez ba'nu, guzti ori ez nuke ezertarako.

<sup>4</sup> Maitasuna eramanpen aundikoa da, biotz-bera da; maitasunik ez du ikusi-eziñik, ez du aundi-usterik, ez arrokeririk, <sup>5</sup> ez asko-nairik; maitasuna ez da berekoi, ez da asarretzen, maitasunik ez du susmo txarrik egiten, <sup>6</sup> ez da bidegabekeria poztutzen, egiarekin baizik. <sup>7</sup> Guzti alde onera botatzen du, guztia sinisten du, guztia itxaroten du ta guztia ondo eramaten. <sup>8</sup> Maitasuna ez da iñoiz ere amaitzen; igarketak izango dute azkena, izkuntzak ixilduko dira, jakintza ere bukatuko da. <sup>9</sup> Gure jakituria ta gure igarmena erdizkakoak dira. <sup>10</sup> Osoa dana datorikenean, erdizkako utsera biurtuko da. <sup>11</sup> Ume nintzanean, ume antzera mintzaten nintzan, ume antzera uste izaten nuan, ume antzera asmatzen nuan. Baño, gizon izatera iritxi naizenean, utzi ditut umekeriak alde batera. <sup>12</sup> Orain ixpilluz eta illun-antzean zatiz ikusten degu; orduan, neroni ezagutzen nazen bezela, ezagutuko det. <sup>13</sup> Orain irurok irauten dute: sinismenak, itxaropenak eta maitasunik; baño, iruretan, maitasuna da nagusi.

## XIV

**Igarmena ta izkuntzetarako doaya.**

<sup>1</sup> Egitzazute egiñalak maitasuna irixteko; irrika itzazute espirituaren doayak, igarmen-doaya, batez ere; izkuntzetan mintzaten danak, ez die gizonai itzegiten-da, Jainkoari baizik; <sup>2</sup> bere espirituak gauza ezkutuak esanik, ez bait-dizkio iñork ulertzen. <sup>3</sup> Igarketan ari danak, berriz, gizonai egiten die itz, auen onbiderako, ta burubiderako ta pozbiderako. <sup>4</sup> Izkuntzetan egiten duana, bere buruaren onerako ari da; igarketan ari dana, berriz, Elizaren

onerako. <sup>5</sup> Nai det, bai, zuek guztiok izkuntzetan itzegitea; baño, nayago guztiok igarmena izatea; igarlea, izkuntza arrotzetan itzegiten duana baño aundiago da-ta, *izkuntzadunak*, bere esanak Elisaren onerako azaltzen ba'ditu beintzat. <sup>6</sup> Izan ere, anayok, ni zuetara izkuntzetan itzegitera joango ba'nitz, zer aurreratuko zenuteke, agerbidez, edo jakintzaz, edo igarmenez, edo erakusbidez itzegingo ez ba'nizuteke? <sup>7</sup> Bizirik ez duten gauzak, txistuak naiz zitarak, esate baterako, soñua jotzen dutenarren, soñu-ost berezirik ateratzen ez ba'dute, nola ezagutuko da txistua ala zitara jotzen ari diran? <sup>8</sup> Eta turutak soñu-ots berezia joko ez ba'lu, nor gertatuko litzake borrokarako? (\*) <sup>9</sup> Orrela, zuek ere egiten dezuten izkuntza ulertzeza ez ba'da, nola jakingo da zer diozuten? Aizeari itzegiten ariko ziñateke. <sup>10</sup> Izan, izkuntza asko dira lurrean, eta ez da berea ez duanik. <sup>11</sup> Baño, itzak adierazten dutena nik ezagutzen ez ba'det, itzegiten ari danarentzat erdal-dun izango naiz, eta itzegiten didana neretzat erdaldun izango da. <sup>12</sup> Beraz, zuek, gogo-doayen maitatzalle zera-tenok, alegindu zaitezte asko irixten, Elizaren onerako. <sup>13</sup> Orregatik, izkuntza bat egiten duanak, eska dezala, zer esaten duan adierazteko grazia. <sup>14</sup> Izan ere, izkuntzetan otoitz egiten ba'det, nere espirituak otoitz egiten du, bai, baño nere adimena fruiturik gabe gelditzen da. <sup>15</sup> Zer egin, beraz? Espirituz egingo det otoitz, baño, baita adimenez ere; espirituz esango ditut eresiak, baño baita adimenez ere. <sup>16</sup> Baño, zuk *Jainkoari* eskerrak espirituz bakarrik ematen ba'dizkiozu, erriko entzuleak, nola erantzungo dute «Amen», zuk eskerrak emateko diozunaren azkenean?, zuk diozunik ez bait-dute ulertzen. <sup>17</sup> Zuk oso ondo emango dituzu eskerrak, baño, besteak ez du batere onik aterako. <sup>18</sup> Eskerrak ematen dizkiot Jainkoari zuek baño izkuntza geyago dakizkidalako. <sup>19</sup> Ala ere, nayago det Eli-

zan bost itz ulerterrez esan, besteai erakusteko, amar milla itz izkuntzetan esan baño. <sup>20</sup> Anayok!, etzaitezte ezagueraz ume izan; gaiztakeriz, bai, izan ume; ezagueraz, ordea, izan zaitezte gizon jator. <sup>21</sup> Legean idatzita dago: «Erri oni arrotzen izkutzan eta erdal-erpañez egingo diot itz, eta, ola ere ez didate ulertuko», dio Jaunak (\*). <sup>22</sup> Beraz, izkuntzen doaya sinisgabeentzat da ezaubide; ez, ordea, fededunentzat; igarmena, berriz, ez da fedegabeentzat, fededunentzat, baizik. <sup>23</sup> Egin dezagun, bada, Eliza osoa biltuta, toki batean dagola, ta guztiak izkuntzetan itzegiten asten dirala; ezjakiñak edo fedegabeak sartuko ba'lira an, ez al zinduzteke zorotzat artuko? <sup>24</sup> Baño bestela; guztiak igarketan ari zeratela, fedegaberen bat edo ezjakiñen bat sartuko ba'litz, guztiak argitu egin dezutela usteko du, ta guztiak epaitu egin dezutela; <sup>25</sup> aren biotzeko ezkutuak agirian geldituko dira, ta, auzpezturik, Jainkoa gurtuko du, zuen erdian Jainkoa benetan an dagola aitorturik. <sup>26</sup> Zer esango, bada, anayok? Biltzen zeratenean, bakoitzak izan beza bere clesia, bakoitzak bere erakutsia, bakoitzak bere agerkizuna, bakoitzak bere izketaldia, bakoitzak bere azalbidea; baño, dana guztia onerako izan dedilla. <sup>27</sup> Norbaitzuek izkuntzetan itz egin nai ba'dute, egin bezate, baño, txandaka ta bakoitzean bik edo iruk geyenez; eta esandakoa azaldu beza norbaitek. <sup>28</sup> Eta azaltzallerik ez ba'litz, egon bitez ixilik elizan (izkuntza arrotzetan ari nai zutenak), eta nor bere buruari ta Jainkoari egin dezayotela itz. <sup>29</sup> Igarleai dagokienez, bik edo iruk egin dezatela itz, eta besteak iritzia eman dezatela. <sup>30</sup> Eta norbait itzegiten ari dala, an eserita dagoan beste norbaitek argitasunen bat izaten ba'du, lenengoa ixildu dedilla; <sup>31</sup> orrela, guztiak banan-banan igarketan egin dezakezute-ta, guztiak ikasi dezaten eta burubideak artu ditzen. <sup>32</sup> Igarleen espiritua, igarleen mendean dago;



<sup>31</sup> Jainkoa ez bait-da naspillaren Jainko, baizik, pakearen Jainko. Santuen (kristauen) eliza guztietan bezela, <sup>34</sup> beude ixilik emakumeak batzarretan; ez bait-zaye egoki itzegitea, menpeko bizi izatea baizik, Legeak dion bezela. <sup>35</sup> Zerbait ikasi nai ba'dute, galde dezayetela etxean senarrai; elizan itzegitea ez da-ta egokia emakumeentzat. <sup>36</sup> Jainkoaren itza (Berri Ona) zuengandik sortua dala uste al dezute?, edo-ta zuei bakarrik iritxi zaizutela? <sup>37</sup> Norbaitek igaridala uste ba'du, edo espirituko doayen bat daukala, ezagutuko du idazten dizutedan au Jaunaren agindua dala (\*). <sup>38</sup> Ori ezagutzen ez duana, berriz, bera ere ez-ezaguna izango da. <sup>39</sup> Beraz, ene anayok, irrika ezazute igarrena, ta ez galerazi iñori izkuntzetan arrotzetan itzegiten. <sup>40</sup> Baño egin bedi dana guztia egoki ta era onean.

## XV

**Piztuera.**

<sup>1</sup> Nik erakutsi ta artu dezuten Berri Ona dakartzutet gogora; ta gorde ere, sendo gordetzen dezutena. <sup>2</sup> Eta nik erakutsi nizuten bezela, eusten ba'diozute, aren bidez salbatuko zerate, alperrik sinistu ez ba'dezute, beintzat. <sup>3</sup> Lenenik neronek artu nuana eman dizutet; Kristo gure pekatuagatik il zala, Liburu Santuak diotenez. <sup>4</sup> lurperatua izan zala, irugarren egunean berriro piztu zala, Liburu Santuak diotenez; <sup>5</sup> Pedro'ri agertu zitayola, ta gero Amabiai (\*). <sup>6</sup> Gero bosteun anai baño geyagoi batera agertu zitayala; auetako geyenak bizi dira oraindik; beste batzuk, il ziran. <sup>7</sup> Gero Santiago'ri agertu zitayon; gero, apostolu guztiai; <sup>8</sup> eta azkenez aur-galduari bezela, neri ere, agertu zitaidan. <sup>9</sup> Apostoluetan txikiena ni naiz; apostolu-izenik ere ez det merezi, Jainkoaren Elizaren aurka

ibillia naiz-ta. <sup>10</sup> Ala ere, naizena, Jainkoaren graziari eskerrak naiz; eta Aren grazia ez da neregan alper izan; guztiak baño lan geyago egin det; ez, ordea, nik; baizik Jaunaren graziak, nerekin. <sup>11</sup> Auxe da ayek eta nik erakusten deguna ta sinistu ere auxe sinistu dezute.

<sup>12</sup> Izan ere, Kristo illen artetik piztu dala erakusten ba'da, zuetako batzuek, nola diote illen piztuerarik ez dala? <sup>13</sup> Illen piztuerarik ez ba'da, Kristo ere etzan piztu. <sup>14</sup> Kristo piztu ez ba'da, berriz, utsa da gure erakutsia; zuen sinismena ere alperrekoa da. <sup>15</sup> Eta gezurrezko testigu agertzen gera gu Jainkoari buruz; Jainkoaren aurka, Kristo piztu zuala zabaltzen ari gera-ta; eta illak piztutzen ez ba'dira, ez du Ura ere piztu. <sup>16</sup> Izan ere, illak piztutzen ez ba'dira, Kristo ere etzan piztu; <sup>17</sup> eta Kristo piztu ez ba'da, utsa da zuen sinismena; oraindik zuen pekatuetan zaudete. <sup>18</sup> Eta Kristo'rengan il diranak ere, galdu egin dira. <sup>19</sup> Kristo'rengan degun itxaropena bizitzaldi ontarako bakarrik ba'degu, gu gera gizon guztietan errukarrienak.

<sup>20</sup> Orain, ordea, piztu da Kristo illen artetik, il diranen asikin (\*). <sup>21</sup> Izan ere, eriotza gizon baten bidez etorri zan bezela, gizon baten bidez etorri zan illen piztuera ere. <sup>22</sup> Guztiak Adan'engandik il diran bezela, Kristo'rengan piztu ere guztiak piztuko dira. <sup>23</sup> Baño, bakoitza bere txandan: Kristo lenen; gero, Kristo'renak, Ura etortzen danean; <sup>24</sup> gero, amaya izango da, *Kirsto'k* erreifua Jainko Aitari biurtuko dionean, almen, aginbide ta indar guztiak ezereztu-ondoren; <sup>25</sup> etsai guztiak Aren oñazpian ipiñi arte, erregetza Ark euki bear du-ta (\*). <sup>26</sup> Eriotza izango da, berriz, azkena ezereztuko dan etsaya; <sup>27</sup> *Jainkoak* dana guztia bere Semearen oñazpian ipiñi du-ta. Dana Aren azpian dagoala dionean, ordea, jakiña, ez du sartzen or, gauza guztiak azpian ipiñi dizkiona. <sup>28</sup> Eta

dana Aren azpian geldituko danean, Semea Bera ere gauza guztiak azpian utzi dizkionaren azpian geldituko da gauza guztietan guztia Jainkoa izan dedin.<sup>29</sup> Zer aurre-ratuko dute, bestela, illengatik batayatu diranak? Ildakoak inñolaz ere piztutzen ez ba'dira, zergatik batayatzen dira illengatik?<sup>30</sup> Eta gu ere, zergatik gaude beti arriskuan?

<sup>31</sup> Jesukristo gure Jauna'rengan dedan gorespenagatik esaten dizutet, anayok, egunero iltzen naiz.<sup>32</sup> Efeso'n, abere basatiakin giza-asmoz bakarrik borrokan egin bai nuan, zer on ekarriko dit, ildakoak piztutzen ez ba'dira? «Jan dezagun eta edan, biar il egin bear degu-ta» (\*).<sup>33</sup> Ez oker egon: «Izketa txarren bidez, oitura onak usteldu egiten dira» (\*).<sup>34</sup> Biurtu zaitezte zentsunera, bidezkoa dan bezela, eta ez egin pekatu-rik, zuetako batzuek ez dute Jainkorik ezagutzen-da. Zuen lotsakizunerako diotzutet.<sup>35</sup> Ildakoak, nola piztuko dira?, esango dit norbaitek. Nolako gorputzez biurtuko dira bizitzara?<sup>36</sup> Zoro ori! Zuk ereiten dezuna ez da ernetzen, lenago usteldu ezik.<sup>37</sup> Eta ereiten dezuna ez da gero izango dan gorputza, ale utsa baizik; esate baterako, gari-alea edo orrelako beste aleren bat.<sup>38</sup> Eta Jainkoak gorputza ematen dio, Berak nai duan bezelakoa eman ere; azi bakoitzari berari dagokion bezelakoa.<sup>39</sup> Aragi guztia ez da aragi bera; gizonen aragia bat da; abereena bestea, egaztiena bestea, arrayena bestea.<sup>40</sup> Eta ba-dira ortziko (zeruko) izakiak eta lurrekoak ere bai; baño ortzikoan edertasuna bat da ta bestea lurrekoena.<sup>41</sup> Eguzkiaren argia bat da, ta beste bat illargiarena ta beste bat izarrena. Izarretik izarrera ere ba-dira argi-gorabarak.

<sup>42</sup> Orixe gertatuko da ildakoen piztueran ere. Gorputza, aziaren antzera, ustel sartzen da lurrera ta berriz ez usteltzeko jeikiko da; <sup>43</sup> lotsagarri sartzen da lurrean;

goragarri jeikiko da; aul sartzen da lurrean; indartsu jeikiko da.<sup>44</sup> Abere-gorputz sartzen da lurrean; espiritu-gorputz (\*) jeikiko da. Izan ere abere-gorputz ba'da, baita espiritu-gorputza ere,<sup>45</sup> idatzirik dagon bezela: «Lenengo gizona, Adan, espiritu bizidun egiña izan zan»; azkeneko Adan (Jesukristo), berriz, espiritu-bizimaille. (\*).<sup>46</sup> Baño, ez da lenengo espirituzko dana, abere-gorputza baizik; eta gero espirituzkoa.<sup>47</sup> Lenengo gizona lurretik izan zan, lurrekoa; bigarren gizona (Jesukristo) zerukoa.<sup>48</sup> Lurrekoa nolako, alako lurrekoak ere. Zerukoa nolako, alako zerukoa ere.<sup>49</sup> Eta lurrekoaren irudi daramagun ezkerero, zerukoarena ere eramango degu.<sup>50</sup> Baño, ara nik esan, anayok! Aragiak eta odolak ezin iritxi dezateke Jainkoaren erreinua; ezta ustelkeriak, ustel-eziña ere.<sup>51</sup> Misterio bat agertu bear dizutet: Ez gera guztiok ilko, baño, bai guztiok aldatuko (\*).<sup>52</sup> bat-batean, begien itxidikian, azkeneko turuta-otsez – turuta joko bait-dute –, ildakoak ustelgabe jeikiko dira, ta gu berrizatuak izango gera.<sup>53</sup> Ustelkor degun au, gordiñez jantzi bearra da, ta ilkor degun au, illezkorrez.<sup>54</sup> Ustelkor au gordiñez eta ilkor au illezkorrez jantzi dediñean, orduan beteko da idatzita dagona:<sup>55</sup> «Eriotza garaipenak irentsi du. Nun da, eriotz, zure garaipena? Nun da, eriotz, zure eztena?» (\*)

<sup>56</sup> Eriotzaren eztena pekatua da; ta pekatuaren indarra, legea.<sup>57</sup> Baño, eskerrik asko Jainkoari, Jesukristo gure Jaunaren bidez garaipena eman bait-digu.<sup>58</sup> Beraz, nere anai maite-maiteok, ekin zayozute beti gogor eta sendo Jainkoaren lanbideari, ba-dakizute-ta zuen lana Jainkoaren aurrean ez dala uts izango.

## XVI

**Azken-itzak.**


<sup>1</sup> Jerusalem'go santuentzat (kristaumentzat) egiten dan diru-biltzea dala-ta, berriz, egin zuek ere, Galazia'ko elizai agindu nien bezela. <sup>2</sup> Asteko lenengo egun guztietan, zuetako bakoitzak bil beza bere etxean al duana ta gorde; ni orrera joaten naizenean, diru-biltzen ibilli-bearrik izan ez dezagun. <sup>3</sup> Eta ni orrera joaten naizenean, zuek aukeratutako lagunak bialiko ditut eskutitzarekin, zuen laguntza eraman dezaten. <sup>4</sup> Eta ni ere joatea egoki ba'liz, nerekin joango dira. <sup>5</sup> Mazedonia igarotakoan joango naiz zuek ikustera, Mazedonia'tik igarotzeko asmoa det-eta. <sup>6</sup> Ba-diteke zuekin gelditzea; baita negua ortxe igarotzea ere, joan bear dedan lekuetara zuek eraman nazazuten. <sup>7</sup> Etzaituztet irazcan bakarrik (ortik igarotzerakoan bakarrik) ikusi nai; zuen artean egonaldi luzetxoren bat egiteko asmoa det Jai'koak ala nai ba'du. <sup>8</sup> Pentekoste'rarte, Efeso'n geldituko naiz, <sup>9</sup> ate aundi ta zabala ideki bait-zait an, etsai asko izanarren.


**Azken-agurrak.**

<sup>10</sup> Timoteo orrera joaten ba'da, begira gero; ez dedilla zuen artean bildurrez egon, ni bezelaxe, Jaunaren sallean ari bait-da lanean ura ere. <sup>11</sup> Ez dezala iñork gutxietsi, eta pakean biali zazute nerogana etorri dedin, bere ta anayen zai nago-ta. <sup>12</sup> Apolo anayari, berriz, benetan eskatu diot, beste anai batzuekin zuengana joateko; baño, iñolaz ere ez du nai izan; egokiera izaten duanean, joango da. <sup>13</sup> Erne egon eta sinismenean sendo; gizonki jokatut ta indartsu agertu. <sup>14</sup> Egiten dezuten guztia, maitasunez egin zazute. <sup>15</sup> Erregu bat egiten dizutet, anayoi: ba-dakizute Estefana'ren etxeoak dirala Akaya'ko asikiñak eta

santuen (kristauen) laguntzalle on biurtu dirala; <sup>16</sup> eta oyeke eta orrelako laguntzalle eta lankide guztiak gozoro artu itzazute. <sup>17</sup> Pozik nago Estefanas, Fortunato ta Akaiko etorri zaizkidalako; zuen utsuna oyeke bete dute-ta; <sup>18</sup> nere ta zuen gogoak zuzpertz egin dituzte. Ager zaiyetzute, bada, lagun oyei zuen eskerrona.

<sup>19</sup> Agur egiten dizute Asia'ko elizak. Akila'k eta Priska'k ere beren etxeko guztiakin gorantzi sutsuak bialtzen dizkitzute, Jauna'rengan. <sup>20</sup> Agur egiten dizute senide guztiak. Zuek ere, laztan santuz, alkar agurtu zazute. <sup>21</sup> Orain, nere agurra, Paulo'rena, nere eskuz egiña. <sup>22</sup> Norbaitek Jesukristo Jauna ez ba'du maite, gal bedi: Maran atha (\*). <sup>23</sup> Jesus Jaunaren grazia bego beti zuekin. <sup>24</sup> Nere maitasuna zuekin guztiokin dago, Jesukristo'rengan.





## PAULO DONEAK KORINTO'KOAI EGINDAKO BIGARREN ESKUTITZA

### I

#### Sarrera.

<sup>1</sup> Paulo'k, Jainkoaren nai-izatez Jesukristo'ren Apostolu naizen onek, eta Timoteo anayak, Korinto'n dagon Jainkoaren elizari, ta Akaya guztian bizi diran santu (edo kristau) guztiai: <sup>2</sup> Jainko gure Aitaren eta Jesukristo Jaunarengandik, grazia ta pakea bitez zuekin. <sup>3</sup> Bedeinkatua Jesukristo gure Jaunaren Aita Jainkoa, Aita guztiz errukitsu ta Jainko guztiz poz-emallea, <sup>4</sup> gure atsekabe-aldi guztietan poztutzen gaituana; guk ere, neke-aldian diranak, Jainkoak alaitzen gaituan pozez poztu ditzagun; <sup>5</sup> Kristo'ren nekeak ugari ditugun bezela, poza ere Kristo'rengandik ugari degu-ta. <sup>6</sup> Atsekabetan ba'gera, zuen pizkortze ta osasunerako da; pozik ba'gaude zuen pozerako; guk daramazkigun neke ber-berak eramaten lagunduko bait-dizute poz orrek; <sup>7</sup> eta orrela, zuengan degun uste ona, sendoa da; gure neke-lagun zeraten ezkeru, gure poz-lagun ere izango zeratela ba-dakigu-ta.

<sup>8</sup> Ez degu nai, anayok, Asia'n izan genduan atseka-

lea zuek ez jakitea, bizirik aterako giñan itxaropenik ere ez genduan, gure indarrak baño aztunagoa izan bait-zan. <sup>9</sup> Eriotz-epaya gañean nabari genuan, ustea guregan ipiñi ez genezan, baizik, ildakoak piztutzen dituan Jainkoa'rengan; <sup>10</sup> ainbesteko arrisku estutik Berak atera ginduan eta ateratzen gaitu. Gerokoan ere, Berak aterako gaituala uste degu, <sup>11</sup> zuek ere guretat otoitzka lagunduta; ola askoren otoitzez, izan degun graziarengatik, gure alde askok eskerrak eman ditzaten.

#### Paulo'k argi ta garbi itzegiten die Korinto'koai.

<sup>12</sup> Barrenak esaten digu -eta au guretat goragarri da - mundu ontan, eta zuen aurrcan batez ere, Jainkoari dagokionez umilki ta zintzoki bizi izan gerala, ez aragi-jakitez, baizik Jainkoaren graziatz. <sup>13</sup> Ez dizutegu zuek itakurri ta dakizutena besterik idazten. Eta uste det, azkenerarte jakingo dezutela; <sup>14</sup> ezagutu ere, nolarebait ezagutu dezute zuentzat goragarri gu gerala, Jesukristo gure Jaunaren egunean, gure goragarri zuek izango zeraten bezela. <sup>15</sup> Uste ontan nai izan nuan lenengo zuengana joan, bigarren grazia izan zenezaten; <sup>16</sup> eta ortik Mazedonia'ra joan, eta Mazedonia'tik berriz orrera biurtu, zuek lagunduta, Judea'ra igarotzeko.

<sup>17</sup> Erabaki au artzean, ariñegi jokatu ote det? Edo-ta, erabaki au, aragi-eragiñez artu ote det, batzuetan BAI BAI, ta besteetan EZ EZ diodala? <sup>18</sup> Ondo daki Jainkoak eman dizutegun itzean EZ-BAI'rik ez dagoa. <sup>19</sup> Nik, eta Silbano'k eta Timoteo'k erakutsi dizutegun Jesukristo, Jainkoaren Semea, ez da izan «BAI» ta «EZ»; ezperen «BAI» bakarrik. <sup>20</sup> Jainkoarengan diran agintzari guztiak, Arengan «BAI» dira; eta Arengatik diogu: Amen, Jainkoa guggan goratu dedin (\*). <sup>21</sup> Jainkoa da Kristo'rengan gu ta

zuek sendotu ta igurtzi gaituana, <sup>22</sup> baita bere ezaugarria ipiñi diguna ere, ta gure biotzetan Espiritu Santuaren baikuntza utzi diguna.

<sup>23</sup> Jainkoa testigu ipintzen det, nere biziagatik: zuei dizutedan maitasunagatik ez naizela joan oraindik Korinto'ra; <sup>24</sup> ez, gero, zuen sinismenari nagusitzeko asmorik degulako, baizik zuen poza aunditu nai degulako, sinismenean sendo zaudete-ta.

## II

### Paulo'ren atsekabea.

<sup>1</sup> Zuetara atsekabetan, berriz ez joatea erabaki det. <sup>2</sup> Izan ere, nik atsekabetzen ba'zaituztet, nork poztuko nau ni, neronengatik atsekabetan dagonak ez ba'da? <sup>3</sup> Eta au idatzi dizutet, orrera natorrenean, poztu bear nindutekeen aldetik atsekaberik artu ez dezadan, zuengan guztien uste on dedala, nere poza, zuena ere ba-da-ta.

<sup>4</sup> Atsekabe ta biotz-larri gorritan idazten dizutet, negar-malkoz beterik; ez, ordea, naigabetu zaitetzen, nik dizutedan maitasun aundia ezagutu dezazuten, baizik.

### Pekatarientzat barkamena.

<sup>5</sup> Norbaitek atsekabetu ba'nau, ez nau ni bakarrik atsekabetu; zuek ere atsekabetu zaituzte nolabait, geyegirik ez esateko. <sup>6</sup> Naiko zigorra du orrelakoak, askok itzez zuzentzea; <sup>7</sup> obe bait-da, noski, orri barkatzea ta poz ematea, atsekabe aundiegiak ito ez dezan. <sup>8</sup> Orregatik, bada, eskatzen dizutet zuen maitasuna ager dezayozutela, guztien aurrean; <sup>9</sup> idatzi ere, ortarakoxe idazten dizutet-eta: onbidetsu ta esaneko ote zeraten ezagutu dezadan. <sup>10</sup> Eta

zuek zerbait barkatzen diozutenari, nik ere barkatzen diot; nik barkatzen dedana, ere, – zerbait barkatzen bait-det –, Kristo'ren aurrean, zuen maitasunagatik barkatzen bait-det, <sup>11</sup> Satanas'ek bere sareetan bil ez gaitzan, aren asmo txarrak ba-dakizkigu-ta.

### Paulo eskerrak ematen.

<sup>12</sup> Kristo'ren Berri Ona zabaltzera Troade'ra joan nitzanean, Jaunarengan atea zabalik arkitu nuanarren, <sup>13</sup> ez nuan atsedetik izan, ez bait-nuan nere anai Tito an arkitu; eta angoai agur esan, eta Mazedonia'ra egin nuan alde. <sup>14</sup> Ala ere, eskerrak ematen dizkiot Jainkoari, Kristo'rengan beti gallen atera gaitulako, ta bere izenaren usai gozoa, alde guztietan, gure bidez zabaltzen dualako. <sup>15</sup> Izan ere, Jainkoaren aurrean, Kristo'ren usai gozo gera gu zeruratzen diranentzat eta galtzen diranentzat; <sup>16</sup> auentzat, eriotzarako eriotz-usai; ayentzat, berriz, bizirako bizitz-usai. Eta eginkizun ortarako nor izan diteke gauza? <sup>17</sup> Guk, beintzat, ez degu – beste askok bezela –, Jainkoaren itza gezurrez saltzen, bestela baizik: Jainkoarengandik dau bezela, Jainkoaren aurrean eta Kristo'rengan, zintzo-zintzo egiten degu itz.

## III

### Apostoluen lana.

<sup>1</sup> Berriro asi ote gera gere burua goratzen? Ala, zuentzako edo zuengandiko goraintzi-eskutitzaren bearrean ote gera beste batzuek bezela? <sup>2</sup> Zeurok zerate gure biotzetan idatzitako idatzia: gizon guztiak gure biotzean irakurri ta ezagutu dezateken idatzia. <sup>3</sup> Izan ere, agirian dago zuek Kristo'ren idazkia zeratela; gure bidez egiña ta Jainko bi-

ziaren Espirituaz idatzita, ez urbeltzez; ezta arlosetan idatzita ere, baizik, zuen biotzeko aragi-oletan. <sup>4</sup> Auxe da, Kristo'rengatik, Jainkoarengan degun uste ona: <sup>5</sup> gerenez zerbait asmatzeko gauza geralako, ez, gero; baizik-eta gure gauza-izatea Jainkoarengandik datorkigulako. <sup>6</sup> Itun Berria - izkiarena ez, espirituarena baizik - erakusteko gauza ere Berak egin gaitu; izkiak (letrak) il egiten bait du; espirituak, ordea, bizi <sup>7</sup> Beraz, arrietan idatzitako eriotz-morrontza (edo Moises'en Legea) Moises'en arpegi-ain eder agertu ba'zan, - bereala galduko zan argitasunagatik - israeldarrak ezin bait-zioten arpegira begiratu ere; <sup>8</sup> espiritu-morrontzari ez ote dagokio edertasun aundiagoa? <sup>9</sup> Eriotzarako morrontza aundia ba'zan, zintotasunerako morrontza askoz aundiagoa izan bear! <sup>10</sup> Izan ere: alde ortatik, gorespen ura, ez da egiazko gorespina izan, beste nere gorespen bikain onen ondoan; <sup>11</sup> igarokorra gorespenez beterik egon ba'da, askozaz gorespenez beteagoa da *betiko* iraungo duana!

#### Kristau-askatasuna.

<sup>12</sup> Itxaropen au degula, gu lasai ta zabal gabilta, <sup>13</sup> eta ez Moises bezela; ark estalki bat zekarren, arpegi-gañean, laxter galdu bear zan argitasuna Israel'go semeak ikusi etzetzaten. <sup>14</sup> Baño, ayen zentzunak kamustuta zeuden; gaurdaño ere, estalki ura kendu gabe dago, Itun Zarra irakurtzean, Kristo'k bakarrik kentzen bait-du. <sup>15</sup> Gaurdaño, Moises irakurtzen duten bakoitzean, estalkia zabaldua dago ayen biotzetan; <sup>16</sup> Baño Jaunarengana biurtuko diranean, estalkia kendu egingo da. <sup>17</sup> Jauna espiritua da, <sup>18</sup> eta gu guztiok, Jaunaren aintza, aurpegi erantziz, ixpillu batean bezela ikusiaz, Aren irudi biurtzen gera, Jaunaren Espirituak argirik-argi eraginda.

#### IV

#### Paulo, egiaren zabalizalle.

<sup>1</sup> Orregatik, lanbide au Jainkoaren errukiagatik degun ezkeru, etzaigu kemenik gutxitzen. <sup>2</sup> Baizik-eta, egoki ez diran jokabideak eta maltzurkeriak utzita, Jainkoaren itza lardaskatu gabe, egia erakusten degu ta guztiai, Jainkoa; ren aurrean, gere burua sen oneko agertzen diegu. <sup>3</sup> Gure Berri Ona estalirik ba'dago, galtzen diranentzat dago estalia, <sup>4</sup> mundu ontako jainkoak adimena itxutu egin die sinisgabeai, Berri Onaren argi ta Jainkoaren irudi dan Jesukristo'ren edertasuna ayetan dizdiz egin ez dezan. <sup>5</sup> Jesukristo gure Jauna agertzen ari gera; ez gere buruak; eta gu, Jesukristo'ren maitasunagatik, zuen morroi gerala esaten degu. <sup>6</sup> «Illunetik argia atera bedi» esan zuan Jainkoak berak egin du argi gure biotzetan, Kristo'ren arpegitik darion Jainko-aintzaren ezaguera azaldu dezagun.

#### Berri Onaren zabalizalleen larrialdiak, eramanpena ta uste ona.

<sup>7</sup> Ondasun au, ordea, lurrezko ontzietan daramagu, onenbesteko indarra Jainkoari egotzi dakion eta ez guri. <sup>8</sup> Atsekabe askotan gabilta, baño itota ez; larri, bai, baño ustea galduta ez; erasopean bai, baño, eskutik utzita, ez; zanpatuta, bai, baño galduta ez. <sup>9</sup> Jesus'en eriotza soñean daramagu beti, Jesus'en bizia ere gure soñean ager dedin. <sup>10</sup> Bizi geran artean, Jesus'engatik il-zorian gaude beti, Jesus'en bizia gure aragi ilkorrean ager dedin. <sup>12</sup> Beraz guregan eriotza ari da lanean; zuengan, berriiz, bizia. <sup>13</sup> Baño, idatzita dago: «Sinistu nuan eta orretxegatik egin nuan itz» (\*). Eta guk ere sinismen-espirtu bera daukagula, sinisten degu, ta orregatik egiten degu itz; <sup>14</sup> bai bait-dakigu Jesus Jauna piztu duanak gu ere Jesus'ekin piztu ta

zuekin jarriko gaituala. <sup>15</sup> Guzzi au, berriz, zuengatik da, grazia askok artuta, askoren eskerrona ugaritu dedin, Jainkoaren aintzarako. <sup>16</sup> Orregatik ez gera kokiltzen; eta azaletik geran au usteltzen dan arte, gure barrua egunero berritzen ari da. <sup>17</sup> Pixka bateko atsekabe ariñak, ezin neurtu dan betiko aintza dakarkigu-ta. <sup>18</sup> Ez ditugu gure begiak agiri diranetan ipintzen, agiri ez diranetan baizik; agiri diranak, oraingo bait-dira; agiri ez diranak, ordea, betiko.

## V

**Zerua da gure betiko etxea.**

<sup>1</sup> Jakin ere, ba-dakigu lurrean bizitzeko degun txabola au ezerezten ba'da, an daukagula zeruan, giza-esku gabe, Jainkoak egindako betikoa (\*). <sup>2</sup> Gure txabola ontan antsiz gaude, gure zeruko bizitokiko soñekoa jazteko gogoz, <sup>3</sup> egintza onez jantziak egotekotan, beintzat, eta ez larrru gorritan. <sup>4</sup> Izan ere, txabola (gorputz) ontan bizi geran artean, negar-zotinka gaude, erantziak izan ez nairik, gafietik jantziak baizik, guregan ilkor dana zeruko bizitzak irentsi dezan. <sup>5</sup> Jainkoak egin gaitu olakoak, bere Espirituaren baikuntza emanaz. <sup>6</sup> Eta ala, beti uste onez gaude, gorputz ontan bizi geran arte, Jaunarengandik urruti gaudela jakinda, <sup>7</sup> sinismenez bait-gabiltza, ikustez ez; <sup>8</sup> guk degun uste on ontan, gorputzetik irtenda, Jaunaren aurrera joan nayago degu. <sup>9</sup> Ori dala-ta, aurrean ala atean, Jaunari atsegingarri izateko egiñalak egiten ari gera, <sup>10</sup> guztiok Kristo'ren auzitegira joan bear bait-degu, bakoitzak bere gorputzaren bidez egindako onari edo txarri dagokiona artzera.

**Paulo'ren jokabidea.**

<sup>11</sup> Beraz, Jaunari zor zayon bildurra jakinda, gere buruak gizonen aurrean zuritzeko egiñalak egiten ditugu, baño, Jainkoak ondo ezagutzen gaitu, ta zuek ere ezagutzen gaituzutelakoan nago. <sup>12</sup> Ez dizkitzutegu gure buruak berriro goratzen: baizik-eta, zuen buruak guregatik goratzeko bidea ematen dizutegu; barrukoaz goratu bearean, azalekoaz goratzen diranai erantzun dezayezuten. <sup>13</sup> Gure buruak zoro agertzen ba'ditugu, Jainkoarengatik da, izan ere; zentzundun agertzen ba'ditugu, ordea, zuengatik da. <sup>14</sup> Kristo'ren maitasunak zirikatzen gaitu, bai bait-dakigu bat guztiengatik il ba'zan, guztiak illik daudela; <sup>15</sup> ta guziengatik il zan, bizi diranak ez ditezen aurrerakoan berentzat bizi, ayentzat il eta piztu danarentzat baizik. <sup>16</sup> Au dala-ta, guk aurrerakoan ez degu aragi-begiz iñor ezagutzen; eta Kristo noizbait aragi-begiz ezagutu ba'degu, orain ez degu orrela ezagutzen. <sup>17</sup> Beraz, norbait Kristo'rengan ba'dago, izaki berri da; zaarra zana igaro da; berrizatu egin da guztia.

<sup>18</sup> Baño guzti au Jainkoarengandik dator, Kristo'ren bidez gu bere adiskide egin bait-gaitu, eta besteak adiskidetzeko itza eman. <sup>19</sup> Izan ere, Kristo'rengan ari zan Jainkoa gizadia Berarekin adiskidetzen, gizakiai beren pekatuak aintzat artu gabe; eta gure esku utzi zuan adiskidetasun ori agertzea. <sup>20</sup> Kristo'ren albistari gera, bada, Jainkoa gure aoz onbidera deika ari ba'litz bezela. Kristo'ren izenean eskatzen dizutegu: Jainkoarekin adiskidetu zaitzte. <sup>21</sup> Pekatua ezagutu etzuana Bera, gure maitasunez pekatu biurtu zuan, Arengan, gu Jainkoaren zintzotasun biurtu gindezen.

## VI

**Zuen lan egin bearra.**

<sup>1</sup> Arekin (Kristo'rekin) batean lan egiñaz, eskatzen dituzte, ez dezazutela alperrik artu Jainkoaren grazia; <sup>2</sup> Berak esana da-ta: «Aldi egokian entzun nizun eta osasun-egunean lagundu nizun» (\*). Auxe da aldi egokia, auxe da osasun-eguna. <sup>3</sup> Ez dezagun ezertan gaitzbiderik eman, gure lana txarretsia izan ez dedin. <sup>4</sup> Agertu gaitzean, ostera, Jainkoaren menpeko gauza guztietan, eramanpenik aundienaz guztia eramanaz: atsekabe, premi, estualdi, <sup>5</sup> zigor, giltzape, matxinada, neke, lorik-ez, eta barualdiak; <sup>6</sup> santutasunez, jakitez, biotz zabal eta samurrez, Espiritu Santuaz, benetako maitasunez, <sup>7</sup> egi-itzez, Jainkoaren indarrez, zuzenbidezko armak ezker-eskui erabilliaz, <sup>8</sup> ospepezu naiz lotsaz, izen onez naiz txarrez; egia esanda, gezurti egiten gaitzute; <sup>9</sup> ezagunak izan, eta ala ere, ez ezagun; il-zorian, baño bizirik; zigorrak artzen, baño il gabe; <sup>10</sup> atsekabetan, baño beti pozik; eskeko bezela, baño, lagun asko aberasten; ustez ezer gabe, baño, gauza guztien jabe.

**Paulo'ren biotzkadak.**

<sup>11</sup> Zuentzat, Korintiarrok, irikita dago gure aoa, ta gure biotza zabal-zabalik; <sup>12</sup> etzaudete estu gure biotzean; zuen erraieran bai, estu zaudete. <sup>13</sup> Beraz, ordain egokia biur dezazuten, zabaldu zuek ere zuen biotzak; nere semeai bezela egiten dizutet itz.

**Sinisgabeangandik iges egin.**

<sup>14</sup> Etzaitzete sinisgabeekin uztartuta ibilli. Zer alkartasun izan diteke zuzentasunaren eta gaitzakeriaren artean? Zer alkartze argiaren eta illunaren artean? <sup>15</sup> Zer batasun

Kristo'ren eta Belial'en (etsayaren) artean? Zer artu-eman du fededunak sinisgabearekin? <sup>16</sup> Zer elkargo Jainkoaren etxearen eta sasi-jainkoen artean? Zuek Jainko biziaren etxe zerate, Jainkoak esan zuan bezela: «Ayen erdian bizi ta ibilliko naiz, eta ayen Jainko izango naiz eta ayek nere erri izango dira». <sup>17</sup> Beraz, «irten zaitzete ayen arte-tik eta alde egin, dio Jaunak, eta gauza loirik etzazute ikutu; eta Nik artuko zaitzute, <sup>18</sup> eta Ni izango naiz zuen Aita, eta zuek nere seme-alaba izango zerate, dio Jaun guztialdunak» (\*).

## VII

**Paulo'ren poza.**

<sup>1</sup> Agintzari aukeratu ditugun ezker, maite-maiteok, garbi ditzagun loirik guztitik gure aragia ta gure espiritua; gure zuzenbidea, Jainkoaren bildurrean, bururaten degula. <sup>2</sup> Ar gaitzazute zuen biotzetan; ez diot inori gaitzik egin, ez kalterik, ez engañiorik. <sup>3</sup> Ez diot au, zuek gaitzeko asmoz, len ere esan dizutet-eta, gere biotzean zaudete bai gurekin bizitzeko, bai gurekin iltzeko. <sup>4</sup> Uste on aundia daukat zuengan; eta goratzeko bide aundia; atsegiñez gañezka nago, gure atsekabe guztietan.

**Korinto'koak goratzen.**

<sup>5</sup> Izan ere, Mazedonia'ra eldu giñanean, gure aragiak etzuan onik izan; baizik-eta, era guztietako atsekabeak igaro ditugu: kanpotik burrukak, barrutik bildurrak. <sup>6</sup> Baño, apalak poztutzen dituan Jainkoak gu ere poztu ginduan Tito'ren etorreraz; <sup>7</sup> onen etorreraz, bakarrik, ez, baita zuengandik ekarri zigun atsegiñez ere, nereganaiko zuen kezka ta negarrak eta leya esan dizkigunean; orrek nere poza aunditu egin zidan. <sup>8</sup> Nere eskutitzak atsekabe-



tu ba'zinduzte ere ez det damurik; eta eskutitz ark, pixka baterako bederen, atsekabetu zindutelako, damuturik ba'negon ere, <sup>9</sup> orain poztu egiten naiz; ez gero, atsekabetu zinduztedalako, baizik-eta, atsekabea damurako izan zitzaizutelako. Jainkoak nai bezela atsekabetu ziñaten, orrela guregandik kalterik artu ez zenezaten. <sup>10</sup> Jainkoarengandik dan atsekabeak damu sendoa sortzen du osasunerako; munduarengandik danak, berriz, eriotza dakar. <sup>11</sup> Begira, bestela, Jainkoarengandiko atsekabe orrek zuetan piztu duan lei bizia; nolako ontzeko asmoak, nolako sumin (\*), nolako bildur, nolako gogo, nolako kezka, nolako zorroztasun. Arazo ontan oso garbi agertu zerate. <sup>12</sup> Eta eskutitz ura egin ba'nizuten ere, ez nizuten egin ez kalte egin zuanarengatik, ez kalte egin zitzayonarengatik, baizik-eta, zuen gureganako ajola Jainkoaren aurrean ager zedin. <sup>13</sup> Orretxegatik poztu gera. Eta gure poz onetan, Tito'ren pozak geyago poztu gaitu, oraindik; aren gogo guztiok indarberritu bait-dezute. <sup>14</sup> Arekin, zuek zeratela-ta, arrotu izan ba'naiz ere, ez naiz lotsatuta gelditu, oso bestela baizik; gauza guztietan egia esan genizuten bezela, Tito'rekin gu arrotzea ere egia zan. <sup>15</sup> Eta zuenganako maitasuna geitu egin zayo, zuen menpetasuna ta bera zuen artean artzerakoan izan zenioten bildur-ikara ikusirik. <sup>16</sup> Poztu egiten naiz, gauza guztietan zuengan uste osoa izan dezaket-eta.

## VIII

**Mazedonia'koen esku zabala.**

<sup>1</sup> Mazedonia'ko elizai Jainkoak egin dien grazia jakinerazi nai dizutegu, anayoi. <sup>2</sup> Atsekabe betean ibillita ere, poz-pozik daudela; ta beartsu-beartsuak izanda ere, ayen biotz ona aberats agertu zan. <sup>3</sup> Beren gogoz, al izan

dutena ta geyago eman dutela aitortu bear det; <sup>4</sup> ayen limosnak onartu genitzala ta ayek ere santuai (kristauai) laguntzeko baimena eskatu ziguten arren eta arren. <sup>5</sup> Eta guk uste aña bakarrik ez; baita beren buruak ere Jaunari lenengo, ta gero, Jainkoak ala naita, guri ere eskeñi zizkiguten. <sup>6</sup> Orregatik eskatu nion Tito'ri, zuen artean asi zuan eginkizun on au, berak burutu zezala; <sup>7</sup> gauza guztietan: sinismenean, itzean, ezagueran, danetarako arduran eta gureganako maitasunean aberats zeraten ezkerre, maitasun-egintza ontan ere aberats izan zaitezten. <sup>8</sup> Baño, au ez dizutet agintzeko asmoz esaten, baizik, besteen arreta ikusita, eta zuen maitasun zintzoa benetan agertu dezazuten. <sup>9</sup> Izan ere, ba-dakizute Jesukristo gure Jaunaren grazia: aberats izanik, zuenganako maitasunagatik beartsu egin zan, bere bear-izanez zuek aberats izan zaitezten. <sup>10</sup> Eta burubide au ematen dizutet, ongi datorkizute-ta: igaz, lan au egiteko erabakia artu bakarrik ez; egiten asi ere egin ziñaten ezkerre, <sup>11</sup> bururatu ezazute orain asmo on ori, dezutenetik emanda. <sup>12</sup> Izan ere, borondatea gertu ba'dago, etzayo iñori neuritzen ez daukanetik, daukanetik baizik. <sup>13</sup> Besteak bigun bizi eta zuek latz, ori ez: guztiak berdin. <sup>14</sup> Zuen geyegiak bete beza orain ayen urritasuna; ayen geyegiak ere zuen eza bete dezan. Onela, guztiak berdin, <sup>15</sup> idatzita dagon bezela: «Asko bildu zuanak, etzeukan geyago; ta gutxi bildu zuanak etzeukan gutxiago» (\*).

**Tito bialtzen die.**

<sup>16</sup> Eskerrak ematen dizkiot Jainkoari, Tito'ren biotzean zuenganako ajola piztu dualako. <sup>17</sup> Gure erregua entzunda, geitu egin zayo ajola au, ta pozik joan da zuengana. <sup>18</sup> Eta arekin, Ebanjelioa zabaltzeagatik, Eliza guztietan entzute aundikoa dan beste anai bat biali dizutegu; <sup>19</sup> eta ez ori bakarrik; gañera Jaunaren beraren aintzarako, go-

go biziz, ari degun lanbide ontan gure bidelagun izateko elizak aukeratu dute. <sup>20</sup> Onela, gaizki esateko bide guztiak itxi nai ditugu, onenbesteko dirutzaren jabe geran ezker. <sup>21</sup> Jainkoaren aurrean bakarrik ez; baita gizonen aurrean ere zintzo jokatu nai degu-ta. <sup>22</sup> Gure anaya ere ayekin bialdu degu, gauza askotan eta sarri arretatsu agertu izan zaigu-ta; eta orain arretatsuago, zuengan daukan uste onagatik. <sup>23</sup> Tito, berriz, nere laguna da zuen artean; eta gure anayak, elizak bialdutakoak dira, ta Kris-to'ren goragarri. <sup>24</sup> Ager zayezute, beraz, zuen goi-maitasuna elizen aurrean, eta zuengan degun gure aintza.

## IX

**Zer dala-ta dirua bildu.**

<sup>1</sup> Santuai (kristauai) ematen zayen laguntza dala-ta, ez nuke zuei idatzi-bearrik; <sup>2</sup> ezagutzen det zuen borondate ona, ta orregatik arro-arro ibilli naiz Mazedonia'tarren aurrean; igaztik Akaya (lurralde) gertu dago (limosna ori egiteko), ta zuen ajola orrek gogoberotu egin ditu lagunik geyenak. <sup>3</sup> Ala ere, bialdu egin dizkitzutet anai oye, zuengatik arrotzeko degun eskubideak ez dezan uts-eman; eta esan dizutedan bezela, prest egon zaitezten; <sup>4</sup> Mazedonia'tarrak nerekin orrera joaten diranean, gertatu gabe arkitu etzaitzaten, eta lan ontan lotsagarri gelditu ez gaitezen gu, -zuek ez esateko-. <sup>5</sup> Orregatik anai oyei zuengana aurretik joateko eskatu bear niela uste izan det, eta aurrez zuzendu zezatela limosna ori, eta prestakizun orrekin eskuzabalez emana izan zedin eta ez zekenkeriz. <sup>6</sup> Ara zer diodan: Gutxi erain ezkeru artu ere gutxi artzen da; erain ugari, ta artu ere, ugari artzen da. <sup>7</sup> Eman beza ba-koitzak, bere biotzean erabaki duana; ez, ordea, goibel

eta beartuta, «Jainkoak emalle alaya maite du-ta» (\*). <sup>8</sup> Altsua da, berriz, Jainkoa, zuengan era guztietako graziak ugaritzeko; zuentzat gauza guztietatik beti naikoa eukirik, erruki-egintzetarako ere ugari izan dezazuten, <sup>9</sup> idatzita dagon bezela: «Beartsuai asko zabaldu ta eman zien; Aren zuzentasunak beti irauten du» (\*).

<sup>10</sup> «Ereilleari azia ta jateko ogia» ematen dion Ark, zuen ereitea ere asko ugarituko du ta zuen zuzentasunaren fruituak geitu egingo ditu (\*). <sup>11</sup> Orrela zuek guztietan aberastuta, era guztietako limosnak egin ditzazuten; auekin Jainkoari gure bidez eskerrak emateko. <sup>12</sup> Biltzen ari geran au, santuen bearraldia arintzeko ez ezik, Jainkoari esker ugariak emateko ere ba-da-ta; <sup>13</sup> Kristo'ren Berri Onari ain lotuta zaudetela, ta ayei ta beste guztiai zuen ondasunetatik emateko ain eskuzabal zeratela ikustean, orrelako erruki-egintzagatik Jainkoa goratzen bait-dute. <sup>14</sup> Gañera, zuentzat egiten dituzten otoitzen bidez, zuei dizuten maitasuna agertzen dute, Jainkoarengandik artu dezuten grazi bikañagatik. <sup>15</sup> Eskerrik asko, bada, Jainkoari, Berarengandik artu degun ezin esan-alako doayarengatik.

## X

**Paulo, bere buruaren alde.**

<sup>1</sup> Nik, Paulo onek, or zuen artean nagonean apal eta urruti nagonean zorrotz naizen onek (\*), <sup>2</sup> Kristo'ren otzantasunarengatik eta biotz-berarengatik, auxe eskatzen dizutet: zuen artean nagokenean, ez dezadala erabilli bestetan oi dedan esku gogorra -aragi-bidez gabiltzala uste duten batzuen kontra erabilli bear dedala uste ba'det ere-. <sup>3</sup> Aragian bizi geranarren, ez bait-gera aragi-bidez borro-

kan ari. <sup>4</sup> Burrukan darabiltzkgun izkillu-armak, ez dira aragi-izkilluak; baizik eta Jainkoarengandik datorkie gatzeluak eta giza-asmakeriak menderatzeko indarra; <sup>5</sup> baita Jainkoaren jakintzaren aurka ateratzen diran arrokeri guztiak ondatzeko indarra ere, adimen guztiak Kristo'ren menpean makurtzen dituala. <sup>6</sup> Gertu gaude, gañera, edozein biurrikeri zigortzeko ta zuek menpetasun osora ekartzeko. <sup>7</sup> Aurrean daukazutenari bakarrik begiratu zuek. Norbaitek Kristo'rena dala uste ba'du, uste dezala gu ere, bera bezelaxe, Kristo'renak gerala (\*). <sup>8</sup> Eta Jaunak, zuen onerako eta ez kalterako, eman didan agintaritza dala-ta, geyegi arrotu ba'nitz ere, ez nitzake orregatik lotsatuko. <sup>9</sup> Ez uste izan nere eskutitzez bildurtu egin nai zaituztedanik; <sup>10</sup> nere eskutitzak astunak eta zorrotzak omen dira-ta; baño aurrean jartzean, gorputza kaxkarra ta mintzoa utsa.

<sup>11</sup> Jakin beza orrela itzegiten duanak, urrutitik eskutitzetan itzez gerana ber-bera gerala egitez bertan zuen artean. <sup>12</sup> Izan ere ez degu ausardirik beren buruak goratzen ari diranakin gere buruak naastutzeko edo berdintzeko; sena galtzen bait-dute orrelakoak, beren buruak neurtean eta neurri bezela ipintzean. <sup>13</sup> Gu, ordea, ez gera geyegi arrotu, baizik-eta, Jainkoak zuetara iristeko eman digun arazoaren neurriz. <sup>14</sup> Ez gera agindutako neurritik ateratzen, zuengana ezin iritxirik ba'genbiltz bezela, gu joan bait-giñan lenengo zuetara Kristo'ren Berri Ona erakustera. <sup>15</sup> Arrotu ere ez gera geyegi arrotzen besteren lanak gere egin-da; zuen sinismena geitzen ba'da, zuen artean aurrerapen aundiagoak egingo ditugula uste degu, gure neurriaren arauz, <sup>16</sup> Berri Ona zuen mugetatik aruntzago eramanaz; besteri izendatutako salla landuaz ere ez gera arrotuko. <sup>17</sup> Beraz, «arrotzen dana, Jaunarengan arro-

tu bedi»: (\*) <sup>18</sup> ez bait-da ontzat artzekoa bere burua edeitzen duana, Jainkoak goratzen duana baizik.

## XI

### Paulo'ren lanak.

<sup>1</sup> Zoroaldi bat barkatuko al didazute? Bai, arren, barka zaidazute (\*). <sup>2</sup> Jainkoaren garrez nago zuenganako sugarretan; izan ere, Kristo, senargai bakarrari eskeñiak zauzkatet, neska garbi bezela. <sup>3</sup> Eta bildur naiz, subeak bere maltzurkeriz Eba lilluratu zuan bezela, zuen adimena ere okertuko ote duan, Kristo'ri zor zayon zintzotasun eta santutasunetik alderaturik. <sup>4</sup> Izan ere, guk iragarri dituztegun Jesus ez, baño besteren bat iragartzera norbait joango ba'litz, eta eman zaizuten Espiritua ez, baño besteren bat, edo artu dezuten Berri Ona ez, baño besteren bat erakustera norbait joango ba'litzazuite, egonarriz entzungo zenioeteke. <sup>5</sup> Ala ere uste det, apostolu argitsu oyek baño txikiago ez naizela ezertan ere; <sup>6</sup> eta itzegiten motela izanarren, jakintzan ez naiz ala; era guztietara ta beti azaldu dizutegu-ta. <sup>7</sup> Edo-ta, zuek goratzeko apal-apal nebillenean, eta Jainkoaren Berri Ona utsean azaldu nituzenean, pekatu egin ote nuan? <sup>8</sup> Zuei laguntzeko, beste eliza batzuei kendu diet, ayengandik saria artuta; <sup>9</sup> eta zuen artean negola, ta bearrean arkitzen nitzala, ez nitzan zuetako iñoren lepotik bizi izan; nere premiak Akaya'tik etorritako anayak bete zizkidaten-da; beti euki det kontua zuentzat nekegarri ez izateko, ta aurrerakoan ere ez natzaizute izango. <sup>10</sup> Neregan dagon Kristo'ren egiarengatik diotzutet; etzait Mazedonia'ko lurraldeetan gorabide au gutxituko (\*). <sup>11</sup> Zergatik? Maite etzaituztedalako? Beldaki Jainkoak. <sup>12</sup> Ni egiten ari naizen au, geroago ere

egingo det, gure antzera arrotzeko bide-billa dabiltzanai bidea galerazteko. <sup>13</sup> Sasi-apostolu oyek gezurrezko langille dira, Kristo'ren apostolu-jantzia jantzita; (\*) <sup>14</sup> eta ez arritu, Satanas ere argi-aingeruz jazten da-ta. <sup>15</sup> Beraz, ez da arritzeko aren (Satanas'en) morroyak zuzentasunezko jantzia jaztea; ayen azkena, beren egintzai dagokiena izango da.

### Paulo, bere etsaien gañetik.

<sup>16</sup> Berriz ere esan bear dizutet, ez nazala iñork zoroztat artu; edo bestela, ar nazazute, ni ere pixka bat arrotu nadin. <sup>17</sup> Esatera nijoana, ordea, ez diot Jaunaren arauz, zoro bezela baizik, zertan arrotu ba-dedalakoan. <sup>18</sup> Aragi-arauz asko arrotzen diran ezkeru, ni ere arrotu egingo naiz. <sup>19</sup> Zuek burutsu zeratela, burugabeak gogoz jasotzen dituzute. <sup>20</sup> Iñork azpiratzen ba'zaituzte, naiz irentsitzen, iñork lapurretan egiten ba'dizute, arrokeriz begiratzen ba'dizute, naiz matrallekoak ematen ba'dizkitzute, alakoa ondo artzen dezute. <sup>21</sup> Lotsaz diot, ortan zuekin argal izan ba'giña bezela. Iñor ezertan ausartzekotan -iñozokeriz diot - ni ere ausartuko naiz nere burua jasotzen. <sup>22</sup> Ebreotarrak dirala? Bai ni ere. Israeldarrak dirala? Bai ni ere. Abraham'en jatorrikoak dirala? Baita ni ere. <sup>23</sup> Kristo'ren alde ari dirala? Iñozokeri bat esanda, ni askoz geyago; nekeetan ugariago; kartzeletan ibilliago; zigorkadetan askoz geyago; eriotz-arriskueta ere bai amaika aldiz. <sup>24</sup> Judutarrengatik bost aldiz «berrogeiak bat gutxi» artu ditut; (\*) <sup>25</sup> irutan zigortu naute makilka; bein eman zidaten arrika; iru bider ondatu zitzaidan itxas-ontzia; itxas-erdian gabaz eta egunez ito-zorian egona naiz. <sup>26</sup> Bidez-bide askotan; ibayetean arriskuan, lapur-arriskuan, erritarren aldetik arriskuan, atzerritarren aldetik arriskuan, urietan arriskuan, basamortuan arriskuan, itxasoan arriskuan,

sasi-anayen artean arriskuan; <sup>27</sup> izerdi ta nekeetan, logaldu askotan, gose ta egarritan, barau askotan, otzetan eta larru gorritan. <sup>28</sup> Oyetzaz gañera, eguneroko nere buruaustea: eliza guztien kezka ta ardura. <sup>29</sup> Nor gaxotzen da, ta ni gaxotu ez? Nor gaizpideratzen da, ta ni kixkali ez? <sup>30</sup> Ezertan arrotzekotan, nere argaltasunaz arrotuko naiz. <sup>31</sup> Jesukristo gure Jaunaren ta Aita Jainkoak -bedeinkatua bedi orain da beti-, ba-daki nik gezurrik ez diodala. <sup>32</sup> Damasko'n, Aretas erregearen ordezeko erriburuak, ni lotu nairik, erri guztia inguraturik zeukan; <sup>33</sup> eta ni, saski batean sartuta, orman-bera, leyotik eratxi ninduten, eta alaxe egin nuan iges ayen esku-artetik.

## XII

### Paulo'ren ikuskizunak.

<sup>1</sup> Arrotzekotan -ez da eder baño- Jaunak emandako ikuskizun eta argialdiak aitatu ditut. <sup>2</sup> Ezagutzen det nik gizon bat, Kristo'rengan (\*), orain amalau urte, irugarren zerurraño jaso izan zala (\*). -Ori gorputzez ala gorputz gabe gerta ote zitzaion Jainkoak daki, nik ez-. <sup>3</sup> Ba-dakit gañera, alako gizon ori -gorputzez ala gorputz gabe Jainkoak daki, nik ez-. <sup>4</sup> Paradisura eramana izan zala, ta an, gizonak ezin esan ditzaken itzak entzun zitu-tuala (\*). <sup>5</sup> Alako gizonaz, bai, arrotuko naiz ni; nere buruaz, ordea, ez, nere argaltasunaz izan ezik. <sup>6</sup> Eta, arrotu nai izan ezkeru, ez litzake burugabekeria izango; egia esango nuke-ta. Baño, bego ori bere ortan, iñork neregan ikusi, edo nitzaz entzun dezakena baño aundiagotzat artu ez nazan. <sup>7</sup> Eta, onenbeseko goi-argien aundiz arrotu ez nadin, ezten bat eman zait aragian, Satanas'en aingerua, ni matrallekoka erabilli nazan. <sup>8</sup> Au dala-ta, iru

bider eskatu nion Jaunari ark neregandik alde egin zezan. <sup>9</sup> Baño, Berak (Jainkoak) auxe esan zidan: «Naikoa dezu nere grazia, makal-aldian agertzen da-ta nere indarra». <sup>10</sup> Au dala-ta, pozik nabil Kristo'rengatik, argalatsunetan, ezezpnetan, bear-aldietan, erasoaldietan, larrialdietetan; aul naizenean, orduantxe naiz-ta indartsu.

### Paulo'ren jokabidea Korinto'n.

<sup>11</sup> Zoro jokatu det, baño, zuek bultzata. Zuek goratu bear ninduzuten; ni ezer ez izanarren, ez bait-naiz apostolu bikañenak baño gutxiago. <sup>12</sup> Eramanpen aundian, mirarietan, egite bikain arrigarrietan azaldu nituan zuen artean Apostolu-ezaugarriak. <sup>13</sup> Eta zertan izan zerate beste elizak baño gutxiago? Ontan bakarrik: ni ez naizela zuen lepotik bizi izan. Barkatuko al didazute oker txiki au! <sup>14</sup> Irugarren aldiz zuetara joateko prest nago, baño, ez natzaizute nekegarri izango; ez bait-nabil zuen ondusunen billa; zuen billa baizik. Izan ere, ez dute seme-alabak gurasoentzat ondasunik bildu bear; bai ordea, gurasoak seme-alabentzat. <sup>15</sup> Nik poz-pozik emango det dedan eta naizen guztia zuen animengatik; nik zuek ain maite izan-da, zuek ni gutxi maite ba'nauzute ere. <sup>16</sup> Ederkil Ez naiz zuentzat kaltegarri izango; baño nere maltzurkeriz, ziria sartu dizutet. <sup>17</sup> Biali nizkitzutenen bidez zerbait okerbidez atera ote dizutet? <sup>18</sup> Nere erreguz joan zitzaizuten Tito, ta onekin anaya biali nizuten. Tito'k zerbait okerbidez atera ote zizuten? Ez ote gera biok, gogo batez eta bide beretik ibilli?

<sup>19</sup> Aspalditik uste dezute gure buruak zuritzen ari gerala. Ez; Jainkoaren aurrean, Kristo'rengan ari gera itzegiten; dana-guztia, ene maiteok, zuen onerako da. <sup>20</sup> Bil-dur naiz, zuengana joango naizenean, nik nai bezelakoak

ez ote zaituztedan arkituko, eta zuek nai bezelakoa ez ote nauzuten arkituko. Ba-diteke zuen artean eztabaidak, ikusi-eziñak, asarreak, aundikeriak, azpijoraketak, markeriak, arrokeriak eta naspillak izatea; <sup>21</sup> zuengana berriro joango naizenean, Jainkoak zuengatik lotsarazi egingo nau, eta pekatu egin duten askorengatik negar egin bearrean izango naiz, beren lizunkeri, aragikeri ta loikeyriaz damutu ez diralako.

### XIII



### Paulo'ren azken-burubideak.

<sup>1</sup> Irugarren aldiz nijoakizute ikustera. Bi edo iru testiguren aitorketaz auzia erabakitzen da. <sup>2</sup> Bigarren aldiz or nitzala, pekatu egin zutenai ta beste guztia esan niena bera, esaten det orain ere urrutitik; orrera berriz nijoanean, ez det barkatuko, <sup>3</sup> neregan Kristo'k itzegiten ote duan agiri-billa zabiltzaten ezkerero. Kristo, berriz, ez da zuen artean makal agertu, gogor baizik. <sup>4</sup> Gurutzean aul-tzat josi ba'zuten ere, Jainkoaren indarrez bizi da. Gu ere Arengan aulak gera; baño, Berarekin, Jainkoaren indarrez bizi gera zuentzat. <sup>5</sup> Aztertu itzazute zuen barrenak, ea sinismenean zaudeten; ezagutu ondo zuen buruak. Ez al dezute, bada, ezagutzen Jesukristo zuengan dagola? Bestela galduak zerate. <sup>6</sup> Gu galduak ez gaudela ezagutuko dezute, noski, <sup>7</sup> eta Jainkoari eskatzen diogu ez dezazutela gaiztakeririk egin; ez gu jator agertu gaitezen; baizik, zuek on dana egin dezazuten eta gu gaizto ager gaitezen; <sup>8</sup> izan ere, egiaren aurka ezin dezakegu ezer egin; bai ordea, egiarekin. <sup>9</sup> Pozik gaude, gu aulak izanik, zuek indartsu bait-zerate. Zuen bikaintasuna eskatzen degu guk. <sup>10</sup> Orre-txegatik idazten dizutet au urrutitik; zuen aurrean arki-

tzean, zigorra erabili-bearrik izan ez dezadan; ez bait-dit Jainkoak zigor ori ondatzeko eman, eragiteko baizik.

### Azkena.

<sup>11</sup> Azkenik, anayok, bikaindu ta indarberritu zaitetze ta gogoberotu; guztiok gogo bateko izan zaitetzten, pakean bizi, ta pakearen eta maitasunaren Jainkoa zuekin egongo da. <sup>12</sup> Laztan santuz alkar agurtu zazute. Agur egiten dizute santu (kristau) guztiak. <sup>13</sup> Jesukristo Jaunaren grazia, ta Jainkoaren maitasuna, ta Espiritu Santuaren alkartasuna izan ditezela zuekin guztiokin..



## PAULO DONEAK GALAZIA'KOAI EGINDAKO ESKUTITZA

### I

#### Sarrera.

<sup>1</sup> Paulo'k, ez gizonen eskuz, ezta gizonen bitartez ere, baizik Jesukristo'ren eta Au illen artetik piztu zuan Jainko Aitaren aukeraz Apostolu naizen onek, <sup>2</sup> eta nerekin dauden anai guztiak, Galazia'ko Elizai, <sup>3</sup> Jainko-Aitaren izenean eta Jesukristo gure Jaunaren grazia ta pakea. <sup>4</sup> Jaun onek (Jesukristo'k) gizaldi gaizto ontatik onez irten gaitezen, here burua gure pekatuagatik eman zuan, gure Jainko Aitak ala naita. <sup>5</sup> Bego Onentzat aintza gizaldien gizaldietan. Amen.

#### Berri Ona bakarra da.

<sup>6</sup> Arriturik nago, zuek, Kristo'ren grazitara deitu zindutenok, Ua (Jainkoa) utzita, beste Berri On batera ain azkar biurtu zeratelako. <sup>7</sup> Besterik ez dago, ordea. Ordira, bai, zuek bildurtzen zaituzten eta Berri Ona nastu nai duten beste batzuek. <sup>8</sup> Baño, erakutsi dizutegun Berri Ona ez beste bat, naiz guk, naiz zeruko aingeruak eraku-

tsiko ba'litzute ere, birao alakoari. <sup>9</sup> Len ere esan nizuteri, eta orain berriz esaten dizutet: artu dezuten Berri Ona ez beste bat norbaitek erakusten ba'dizute, birao alakoari. <sup>10</sup> Gizonen ederra, edo Jainkoarena euki nai ote det nik orain? Gizonen atsegin-billa ote nabil? Oraindik gizonen atsegin-billa ba'nebill, ez nitzake Kristo'ren morroi izango.

<sup>11</sup> Jakin zazute, anayok, nik erakusten dedan Berri Ona ez dala gizonena; <sup>12</sup> ez det gizonengatik artu, ez ikasi, Jesukristo'ren agerbidez baizik. <sup>13</sup> Izan ere, entzun dezute, noizbait judutarren asmoetan ibillia naizela, Jainkoaren Eliza astintzen eta ondatzen, <sup>14</sup> nere sasoiko asko judutarren asmoetan aurrean artzen, eta nere gurasoen oiturak arretarik aundienaz zaitzen. <sup>15</sup> Baño, nere amaren sabeletik berezi ta, bere graziaren bidez, deitu nindunak, <sup>15</sup> bere Semea neregan agertu izan zuan, Aren Berri Ona atzerrietan zabal nezan. Une artatik, aragi-odolen iritzia aintzat euki gabe, <sup>17</sup> ta ni baño lendikan apostolu ziranen billa Jesusalen'era igo gabe, Arabia'ra joan nintzan, eta andik berriz Damasko'ra biurtu. <sup>18</sup> Gero, iru urteren buruan, Pedro ikustearren Jesusalen'era igo eta amabost egun arekin egon nitzan. <sup>19</sup> Santiago, Jaunaren anaya (lengusua) beste apostolurik ez nuan ikusi. <sup>20</sup> Ondo daki Jainkoak, au idaztean ez diodala gezurrik. <sup>21</sup> Bereala, Siria'ko ta Zizilia'ko lurraldeetara joan nitzan; <sup>22</sup> eta orregatik, Judea'ko Kristo'ren elizentzat ez-ezaguna nitzan. <sup>22</sup> Entzuna bakarrik zuten: «Len aurrean erabilli ginduan ark, orduan ondatzeko asmoa zuan sinismena, orain zabaldu egiten omen duala». <sup>24</sup> Eta Jainkoa goratu egiten zuten neregan.

## II

**Paulo Donea Jerusalem'era.**

<sup>1</sup> Andik amalau urtera, Jerusalem'era igo nitzan berriz. Bernabe'rekin, Tito ere gurekin genuela (\*). <sup>2</sup> Goiko argibidez igo nitzan, eta atzerritarren artean zabaltzen dedan Berri Ona, angoai ta, batez ere, zerbait ziranai azaldu nien, alperrik ibilli ote nitzan, edo ala ote nebillen jakiteko (\*). <sup>3</sup> Eta, ayek etzuten nere lagun Tito, atzerriara izanda ere, erdaintzera beartu; <sup>4</sup> eta ori, sasi-anai batzuk, Jesukristo'rengandik degun askatasuna itozteko ixilka sartzen zirala; eta beren morrontzara beartu nai ginduzten. <sup>5</sup> Guk, ordea, une batean ere ez genien amorrik eman, Berri Onaren egiak zuen artean oso-osorik irauu zezan. <sup>6</sup> Zerbait zirala ziruditenengandik, -len zer izan ziranik ez zait neri ajola, Jainkoa ez bait-da norkerietan sartzen -, zerbait zirala ematen zutenengandik ez nuan ezertxo ere artu (\*). <sup>7</sup> Oso bestela, neri erdain-gabearen lan eman zitzaidala ikusi zuten, Pedro'ri erdañarena eman zitzaion bezela; <sup>8</sup> erdañaren apostolutzat Pedro artu duanak Berak artu nau ni ere atzerritarren apostolutzat-eta-. <sup>9</sup> Eta *Elizaren* abe diran Santiago'k, Zefas'ek eta Juan'ek neri emandako grazia ezagutu zutenean, neri ta Bernabe'ri eskua eman ziguten alkartasun-ezaugarritzat, ayek erdainduen artean eta guk atzerritarren artean lana egin genezan. <sup>10</sup> Beartsuak gogoan izan genitzala, bakarrik, eskatu ziguten; izan ere, nik beti izan det ori egiteko ardura aundia.

**Paulo'k gogor egiten dio Pedro'ri.**

<sup>11</sup> Baño, Pedro Antiokia'ra joan zanean, aurrez-aurre gogor egin nion, merezi ere ba-zuan-da (\*). <sup>12</sup> Izan ere, Santiago'renak ziran batzuek etorri baño len, atzerritarra-

kin jan egiten zuan; ayek iritxi zirancko, ordea, atzera-ka asi zan eta alde egiten zuan, erdainduai zien bildurragatik. <sup>13</sup> Eta beste judutarrak ere jarraitu egiten zioten alako itxurakerietan; Bernabe bera ere makurtu egin zitzaizen ortan. <sup>14</sup> Baño Berri Onaren egiari dagokion bezela etzebiltzala ikusi nuanean, guztien aurrean, Zefas'i ala esan nion: «Judutar zeran orri, ez judutar bezela, bai-zik atzerritar bezela bizi ba'zera, zer dala-ta leporatzen diezu atzerritarrai judutar bezela bizi-bearra?

**Kristo'ren sinismena artu duten Judutarrak ez daude Moises'en Legepean.**

<sup>15</sup> Jayotzez judutar gera gu, ez atzerritik etorritako pekatari. <sup>16</sup> Eta gizona Jesukristo'ren sinismenez zintzotzen dala jakiñik, eta Legeko eginbidez, Jesukristo'ren sinismenera etorri gera, zintzotasuna Kristo'ren sinismenez irixteko ta ez Legeko eginbidez; Legeko eginbidez ez bait-da iñor zintzotzen. <sup>17</sup> Gure zintzotasuna Kristo'rengan billatzen degunok ere oraindik pekatarizat artzen ba'gaituzte, pekatu-morroï ote da Kristo? Ez iñolaz ere! <sup>18</sup> Nik ondatu nuena, nik berriz jasotzean, nere burua lege-ausle aitortzen det. <sup>19</sup> Baño, ni Legearentzat Legearengatik beragatik il naiz, Jainkoarentzat bizi izateko; Kristo'rekin gurutzean josita nago. <sup>20</sup> Eta, ez naiz ni bizi; baizik Kristo bizi da neregana. Eta orain aragian bizi ba-naiz ere, ni maite eta bere burua neregatik eman zuan Jainkoaren Semearen sinismenean bizi naiz. <sup>21</sup> Ez det Jainkoaren grazia gutxietsi nai. Zintzotasuna Legetik ba'dator, Kristo alperrik il zan.

III

**Zintzotasuna fedearen bidez.**

<sup>1</sup> Galazitar burugabeok! Nork zoratu zaituzte zuen begien aurrean Jesukristo gurutziltzatua azaldua izan ba'zaitzute? <sup>2</sup> Zuengandik auxe bakarrik jakin nai det: Legearen eginbidez, ala sinismenari men egiñaz artu dezute Espiritu Santua? Orren zoroak al zerate? <sup>3</sup> Espirituz asita, orain aragitan amaitzen al dezute? <sup>4</sup> Orrenbeste doai alperrik artu ote dituzute? Alperrik izango lirake, bai. <sup>5</sup> Espiritua eman dizutena eta zuen artean mirariak egiten dituana, Legeko egingzatik ari ote da, ala sinismena entzutearengatik?

**Abraham sinisteak zintzotua.**

<sup>6</sup> Idatzita dagon bezela: «Abraham'ek sinistu egin zuan eta zintzotasunerako aintzat artu zitzaion» (\*). <sup>7</sup> Entzun zazute, beraz; sinismenetik jayoak Abraham'en semeak dira. <sup>8</sup> Izan ere, Jainkoak atzerritarrek sinismenaren bidez zintzotuko zituala ikusirik, Liburu Santuak auxe csan zion Abraham'i: «Erri guztiak zugan bedeinkatuko dira» (\*). <sup>9</sup> Beraz, sinismenetik jayotzen diranak, Abraham zintzoa-reakin daude bedeinkatuak. <sup>10</sup> Legeko egingzetan ustea duten guztiak, berriz, biraopean daude; idatzita dagon bezela: «Madarikatua Legeko Liburuan dagon guztia egiñaz, artan irauten ez duana!» (\*), <sup>11</sup> Eta agirian dago, Jainkoaren aurrean ez dala iñor Legearen bidez zintzotzen, «Zintzoa sinismenez bizi bait-da» (\*). <sup>12</sup> Legeak, berriz, ez dauka sinismena oiñarri; *Legea* betetzen duana, berriz, Lege ortan biziko da.

**Kristo'k egiña.**

<sup>13</sup> Legearen madarikaziotik Kristo'k atera ginduan, bere burua guregatik madarikazio biurtuaz, idatzita dagon be-



zela: «Madarikatua abetik zintzilik dagon guztia!» (\*).  
<sup>14</sup> Ori, Abraham'en bedeinkapena Jesukristo'rengan errie'n gañera zabal zedin gertatu zan, eta sinismenaren bidez, Espirituaren agintzariak artu genitzan.

### Agintzaria.

<sup>15</sup> Gizabidez egingo dizutet itz, anayok; azken-naya, gizonarena izanarren, ez du iñork ukatzen, ez du iñork geitzen. <sup>16</sup> Or ba: agintzariak Abraham'i ta aren jatorriari egin zitzaizkien. Ez dio «aren jatorriai», asko adierazteko bezela, bakarrari baizik, «zure jatorriari»: Kristo'ri, alegia. <sup>17</sup> Eta au diot nik: Jainkoak egindako azken-naya (agintzaria) lareun eta ogeitamar urte geroago sortutako Legeak ezin dezake ukatu, agintzaria uts-emanaz (\*). <sup>18</sup> Ondarea (erentzia), izan ere, Legez ba'da, ez da agintzaria. Eta Abraham'i ondare au Jainkoak agintzariz eman zion. <sup>19</sup> Zertarako bada, Legea? Legc-auste'ngatik eman zan, agintzaria egin zitzaion «jatorria» etorri arte, ta bi-tarteko baten eskuz aingeruak ekarria.

<sup>20</sup> Bakarraren bitartekorik ez da, eta Jainkoa bakarra da. <sup>21</sup> Beraz, Legea Jainkoaren agintzarien aurka ote dago? Ez orrelakorik! Bizia eman zezakean Legea emana izan ba'litz, zuzentasuna Legetik etorri zitekean. <sup>22</sup> Baño Liburu Santuak dana guztia pekatupean utzi zuan, agintzaria fededunai Jesukristo'ren sinismenez emana zedin. <sup>23</sup> Eta ala, sinismena etorri-aurretik, legepean utzita geunden, agertzeko zegon sinismenaren zai. <sup>24</sup> Legea, Kristo'rengana eramateko umezai izan zitzaigun, sinismenez zintzotuak izan gindezen. <sup>25</sup> Baño sinismena etorrita gero, ez gaude umezaipean.

### Abraham'en benetako ondorengoak.

<sup>26</sup> Beraz, Jesukristo'ren sinismenez guztiok Jainkoaren seme zerate; <sup>27</sup> Kristo'rengan batayatuak izan zeraten guztiak, Kristo artu bait-dezute jantzi. <sup>28</sup> Orain ez dago judutarrik, ez grezitarrik; ez menpekorik, ez azkerik; ez arrik, ez emerik; Kristo'rengan guztiok bat zerate-ta <sup>29</sup> Eta guztiok Kristo'renak ba'zerate, Abraham'en jatorriko zerate, agintzariz oñordeko.

## IV

### Gizonaren egoera Jesukristo etorri-aurretik.

<sup>1</sup> Eta orain auxe diot: Oñordekoa ume dan artean, guztien jabe izanarren, morroya aiña da; <sup>2</sup> aitak ipiñitako epea bete arte, guraso-ordeen eta laguntzalleen mendean dago-ta. <sup>3</sup> Orrelaxe gu ere: ume giñala, munduko izaki-menpean bizi giñan. <sup>4</sup> Baño, garagak bete ziranean, Jainkoak bere Semea biali zuan, emakumearengandik jayoa, Legepean jayoa; <sup>5</sup> Legepean zeudenak askatu zitzaion, guztiok semetzakoa ar genezan. <sup>6</sup> Eta seme zeratelako, «Abba, Aita» dei egiten duan bere Semearen Espiritua ixuri du Jainkoak gure biotzetara. <sup>7</sup> Beraz, orain ez da morroi, seme baizik; eta seme izan ezker, oñordeko ere bai, Jainkoaren graziaz.

### Legepean egotea, berriz morrontzapean egotea izango litzake.

<sup>8</sup> Lenaldian etzenuten Jainkoa ezagutzen, eta izatez Jainko etziranen morroi ziñaten. <sup>9</sup> Baña orain, Jainkoa ezagutu dezutenean, edo obeto esateko, Jainkoak ezagutu zaitzutenen, nola biurtu zerate berrero gaiki zirtzil eta utsetara, berriz ayen morroi izan nairik? <sup>10</sup> Egunak eta

illak eta urteak eta urte-aroak gorde egiten dituzute oraindik! <sup>11</sup> Bildur naiz zuen artean egin nituan lan guztiak ez ote dizkidazuten alperrik galduko!

#### Paulo Donearen oroipenak.

<sup>12</sup> Anayok! Ni bezelakoak egin zaitezela eskatzen dizutet ni ere zuek bezelakoa egin nitzan-da. Ez didazute utsegin. <sup>13</sup> Ondo dakizute, zuei Berri Ona lenengo aldiz agertu nizutenean, gorputzez gaxo negola; <sup>14</sup> eta nere gaxoaldia zuentzat neketsu zanaren, zuek ez ninduzuten ez gutxietsi ez ezetsi, baizik eta, Jainkoaren aingeru bat bezela artu ninduzuten, Jesukristo bera bezela. <sup>15</sup> Nun dago orain zuen orduko pozaldi ura? Nik aitortzen dizutet: al izan ba'litz, zuen begiak ere, ondo-ondotik atera, ta neri emateko gauza izango ziñaten. <sup>16</sup> Beraz, egia esan dizuttedalako, zuen etsai biurtu ote naiz? <sup>17</sup> Inguruan dabilzkizute ta ez zuen onerako; neregandik alde egin erazi naiz dizute, gero beren inguruan zuek ibilli zaitezten. <sup>18</sup> Ala ere ondo izango da apola onez ni zuek beti maite izatea, ez zuen artean negonean bakarrik. <sup>19</sup> Kristo zuetan eratu arte, aurmiñetan naukazuten, nere semetxuok! <sup>20</sup> Ordu ontan zuen artean egon nai nuke, ta zuei era askotan itzegin nai nizuteke, ez bait-dakit zuekin nola asmatu.

#### Legearen orde, Berri Ona.

<sup>21</sup> Esaidazute: *antziñako* Legepean egon nai dezutenok, ez al dezute entzun Legeak diona? <sup>22</sup> Idatzita dagon bezela, Abraham'ek bi seme izan zituan; bata mirabearena, bestea etxeakoandrea (\*). <sup>23</sup> Baña, mirabearena, aragi-bidez jayo zan; etxeakoandrea, berriz, agintzarien indarrez, <sup>24</sup> Irudietan esanak daude auek, emakume biak bi Alkartasun dira: bata, Sinai-mendikoa, semeak mo-

rrontzarako sortzen dituana; Agar da au (\*). <sup>25</sup> Sinai-mendia Arabia'n dago, ta oraingo Jerusalem da, orain mendeko dago bere semeakin. <sup>26</sup> Goiko Jerusalem, berriz, bere eskuko da, ta auxa da gure ama; <sup>27</sup> idatzita bait-dago: «Poztu zaitez, umerik gabe antzu zeunden ori; deadarka asi zaitez, aurmiñik ezagutzen ez dezun ori; baztartuaren semeak, senardunarenak baño geyago izango dira-ta» (\*). <sup>28</sup> Zuck, berriz, anayok, agintzarien seme zerate, Isaak bezela. <sup>29</sup> Baño, orduan, aragiz jayo zanak, espirituz jayoa aurrean erabilli zuan bezela, orain ere, berdin gertatzen da. <sup>30</sup> Baño, zer dio Liburu Santuak?: «Bota zazu mirabea bere semearekin, mirabe-semea ez da etxeakoandrea semearekin batean oñordeko izango-ta» (\*). <sup>31</sup> Beraz, anayok, gu ez gera mirabearen seme, etxeakoandrea seme baizik.

## V

#### Edo Judutar edo Kristau.

<sup>1</sup> Askatasuna goza dezagun, Kristo'k askatu gaitu; beraz, iraun sendo ortan, eta ez utzi berriro morrontzako uztarpean sartu zaitzaten. <sup>2</sup> Jakin zazute nik, Paulo onek diotzutet: erdaintzen ba'zerate, Kristo'k ez dizue ezertarako balioko. <sup>3</sup> Erdaindutako Lege osoa betetzera berruta daudela esaten dizutet berriro ere. <sup>4</sup> Zuzentasuna Legean billatzen dezutenok, Kristo'rengandik alde egin dezute; grazia galdu egin dezute. <sup>5</sup> Guk, berriz, Espirituaren-gandik zuzentasun-saria irixteko ustea, sinismenean degu, <sup>6</sup> Jesukristo'rengan ez bait-dira ezer, ez erdaindua, ez erdaingabea; bai, ordea, maitasunak bizi duan sinismena (\*). <sup>7</sup> Ongi zinjoazten aurrera; nork galerazi dizute egiaren esana egitea? <sup>8</sup> Burubide ori ez dator dei egin zizutena-

rengandik. <sup>9</sup> Legami-pixko batek ore guztia jaikitzen du, <sup>10</sup> Ba-det uste Jaunarengan etzeratela bestelako burubi-deetara aldatuko. Nastutzen zaituztenak, izango du bere zigorra, dana dala. <sup>11</sup> Baña, anayok, nik oraindik erdain-kuntza agintzen ba'det, zergatik erasotzen didate orain ere? Bukatu da, beraz, gurutzeko gaitzpidea? (\*) <sup>12</sup> Guztiz irenduko al dira, zuek nastutzen dabiltzanak!

### Legearen ordeztasuna.

<sup>13</sup> Zuek, anayok, askatasunera deituak zaudete; baño etzazute artu askatasun ori aragiaren morroi izateko; baik eta alkarri lagun ezaiezute maitasunez. <sup>14</sup> Lege osoa agindu bakar ontantxe dago bilduta: «Lagun urkoa zere burua bezin maite izango dezu» (\*). <sup>15</sup> Baño, begira!, alkarri koskaka ba'zabiltzate ta alkar jaten, alkar ondatuko dezute.

### Maitasun-egintzak.

<sup>16</sup> Beraz, auxe diotzudet: Ibilli zaitezte Espirituz, eta ez ase aragiaren griñarik. <sup>17</sup> Aragia espirituaren aurka dabil; espirituaren nayak, berriz, aragiaren aurka; alkarren etsai dira, ta orregatik, ezin dezute egin nai deuztenik. <sup>18</sup> Espirituaren eragiñez ba'zabiltzate, ordea, etzaudete Legepean. <sup>19</sup> Aragiaren egiteak agirian daude. Auek dira: aragikeri, lizunkeri, zikinkeri, <sup>20</sup> sasi-jainkokeri, sorginkeri, gorroto, eztabaida, espa, asarre, burruka, makurkeri, alderdikeri, <sup>21</sup> ikusi-eziñ, gizailtze, mozkor, sabelkeri ta ola-koak. Len esana diotzudet orain ere: orrelakoen egilleak ez dutela ondare, Jainkoaren erreñurik artuko. <sup>22</sup> Espirituaren frutuak, berriz, auek dira: goi-maitasuna, poza, pakea, biotz-aundia, biotz-zabala, ontasuna, sinismena, otzantasuna, neurribidea. Auen aurka ez dago Legerik.

<sup>24</sup> Jesukristo'renak diranak, aragia bere griña txar eta zalekeriakin gurutzean josi dute. <sup>25</sup> Espirituz bizi ba'gera, ibilli ere, espirituaren arauz ibilli gaitezen. <sup>26</sup> Ez gaitezen arroputzkerietan ibilli, nor aundiagoka, alkar ezin ikusiz.

## VI

### Burubide batzuk.



<sup>1</sup> Anayok! Norbait utsegiteren batean erortzen ba'da, zuek, espirituazaleok, gozoro zuzendu bear dezute, nor bere buruari begiratzuz, tentaldi bera izan dezake-ta. <sup>2</sup> Alkarri lagundu zayozute zama eramaten, eta orrela beteko dezute Kristo'ren legea. <sup>3</sup> Norbait, ezer ez izan, eta zerbait dalakoan ba'dago, bere buruari sartzen dio ziria. <sup>4</sup> Aztertu ditzala bakoitzak bere egiteak, eta orduan izango du bere baitan, eta ez besterengan, poztutzeko bidea, bakoitzak bere zama eramango du-ta. <sup>6</sup> Jainkoaren itza ikasten ari danak, eman bezayo bere ondasunetatik erakusten ari zayonari. <sup>7</sup> Ez uste okerrean egon: Jainkoari ez dio inork parrik egiten. Erein duana bilduko du gizonak. Aragiaren azia ereiten duanak, aragitik bilduko du ustelkeria; espirituaren azia ereiten duanak, berriz, espiritutik bilduko du betiko bizitza. <sup>9</sup> Ez gaitezen aspertu on egiten; ortan, aspertu gabe, jarraitzen ba'degu, bere garayan saria artuko degu-ta. <sup>10</sup> Beraz, denbora degun arte, egin deza-yegun on guztiai, fedean anai ditugunai, batipat.

### Azkena.

<sup>11</sup> Ikus zeñen eskutitz luzea egin dizutedan neronek, nere eskuz! <sup>12</sup> Aragian gallendu nai dutenak, erdaintzeko bultza egiten dizute, ez bait-dute Kristo'ren gurutzearrengatik erasorik igaro nai. <sup>13</sup> Erdainduak berak ez dute Le-

gea betetzen, eta zuen aragian berak gorapena izateko, zuek erdaintzuntza artzea nai dute. <sup>14</sup> Eta ni ez nadin poztu Kristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik; au da-la-ta, mundua neretzat gurutziltzatua bait-dago, ta ni ere bai munduarentzat (\*). <sup>15</sup> Izan ere, erdaintzuntza ez da ezer, ezta erdaingabea ere, gizaki berria baizik. <sup>16</sup> Eta era ontan biziko danaren gañera eta Jainkoaren Israel'en gañera, pakea ta errukia jexkiko dira.

<sup>17</sup> Gañerakoan, ez bezait iñork gogait-eragin, Jesus jaunaren siñaliak gorputzean daramazkit-eta nik. <sup>18</sup> Bego zuen espirituarekin, anayok, Jesukristo gure Jaunaren grazia. Amen.



## PAULO DONEAK EFESO'KOAI EGINDAKO ESKUTITZA

### I

#### Sarrera.

<sup>1</sup> Paulo'k, Jainkoaren nai-izatez Jesukristo'ren apostolu naizen onek, Efeso'n bizi diran Jesukristo'ren santu (kristau) ta fededunai: (\*) <sup>2</sup> grazia ta pakea beude zuekin Jainko gure Aitaren izenean eta Jesukristo Jaunarenean.

#### Jesukristo'ri zor dioguna.

<sup>3</sup> Bedeinkatua izan bedi, era guztietako gogo-bedeinkapenez Kristo'rengan zerutik bedeinkatzen gaituan, Jesukristo gure Jaunaren Jainko ta Aita! <sup>4</sup> mundua egin bario len Arengan aukeratu bait-ginduan: Aren aurrean santu ta errugabe izan gaitezen; <sup>5</sup> eta Jesu-kristo'rengan mai-teki aurrez aukeratu ginduan bere gogoaren nayaz, gu bere semetzakotzat artzeko, <sup>6</sup> bere graziaren goretsia izan dedin; orregatik atsegin biurtu ginduan bere Seme maitegan. <sup>7</sup> Onegan degu erospena beronen odolaren indarrez; baita pekatuen barkamena ere, Aren (Jainkoa'ren) graziaren aberastasunez. <sup>8</sup> *Grazi au ugari ixuri digu jakinduri*

ta zuzenbide osoz. <sup>9</sup> Auen bidez, bere gogoaren misterioa ezagutu-erazi zigun, erabakita zeukan bezela (\*). <sup>10</sup> Asmo ori, berriz, garaya bete zanean, zeru-lurretan ziran gauza guztiak Kristo'rengan elkartzea zan. <sup>11</sup> Onengan gaude aurrez oñordeko aukeratuak, gauza guztiak Berak nai bezela egiten dituanak aukeratu gaitu-ta; <sup>12</sup> orrela, Kristo'rengan uste ona ipiñi degunok, Aren aintzaren gorape-nerako izan gaitezen. <sup>13</sup> Arengan, zuek ere, egiaren itza -gure osasunaren Berri Ona - entzunda, sinistu ere egin dezutenok, agindutako Espiritu Santuaren ezaugarria daukazute ezarria (\*). <sup>14</sup> Au (Espiritu Santua) *zeruko* ondarearen baikuntza degu, ta *Jaunak* bere aintzaren gorape-nerako artuta dauka.

#### Eskerrak ematen.

<sup>15</sup> Beraz, Jesus Jaunarenganako zuen sinismenaren eta santu guztienganako zuen maitasunaren jakiñean (\*), <sup>16</sup> ni ere zuengatik *Jainkoari* eskerrak ematen ari naiz aspergabe ta nere otoitzetan zuek gogoan zauzkatet beti; <sup>17</sup> Jesukristo gure Jaunaren Jainko, Aita goragarriak, Bera ezagutzeko jakituria ta goi-argia eman dezaitzuten, <sup>18</sup> zuen biotzetako begiak argiturik. Onela, ezagutuko dezute zer itxoitera deituak zeraten eta zenbaterañoakoa dan santuai eman dien ondarearen aberastasuna ta aintza, ta <sup>19</sup> zein aundia ta bikaña dan fededunen alde darabilkian almen kementsua! <sup>20</sup> Almen au erabilli zuan Kristo'rengan illenartetik piztutzerakoan, eta, <sup>21</sup> agintari, almen, indar eta nagusitza guztien gañetik, zeruan bere eskui-aldean ipiñi zuanean; eta gizaldi ontan aitatu diteken edozein izenen gañetik bakarrik ez, baita gerokoan aitatu al izango dan edozein izenen gañetik ere. <sup>22</sup> Dan guztia Aren oñazpiar menderatuta, Bera Eliza osoaren buru ipiñi zuan. <sup>23</sup> Aren

gorputza, berriz, eta dana alde guztietan betetzen duanaren betegarri Eliza ori da.

## II

### Jainkoaren indarra kristauengan.

<sup>1</sup> Eta zuek ilda zeundeten zuen gaiztakeri ta pekatuen-gatik. <sup>2</sup> Lenago, orrelakoetan bizi izan zerate, mundu onen izaerari jarraituaz, aizeko nagusiaren eragiñez, eta seme biurrien artean lanean ari dan espirituz. <sup>3</sup> Gu ere noiz-bait olaxe ibilli giñan eta aragiaren griñai jarraitu genicn, aragiaren naya ta gogoak besteaz; besteak bezela, gu ere izatez asarre-seme izanik. <sup>4</sup> Baña, erukitan aberats dan Jainkoak maite-maite izan ginduan, <sup>5</sup> eta gure gaiztake-riengatik ilda geudeno, Kristo'rengatik bizia eman zigun -utsaren alde Ark salbatu bait-zaituzte-, eta <sup>6</sup> gu piztu ta Jesukristo'rengan zeruan eseri-crazi gaitu: <sup>7</sup> gubanako bere graziaren aberastasun ugaria, bere errukiz, geroko gizaldietan Kristo'rengan agertu zezan. <sup>8</sup> Izan ere, grazi utsez (utsaren alde) izan zerate, sinismenaren bidez, salbatuak, eta au, ez datorkizute zuen egitez, Jainkoak emanda bai-zik; <sup>9</sup> ez dator egintzetatik, iñor arrotu ez dedin. <sup>10</sup> Berak egiñak gera, Jesukristo'rengan sortuak, Jainkoak aurrean ipiñi digun egintza onen bidetik ibilli gaitezen.

### Judutarrak eta atzerritarrak, Kristo'ren bidez, adiskide.

<sup>11</sup> Gogora zazute, bada, aldi batean zuek aragi alde-tik atzerritar ziñatela, eta aragiaren eskuz erdainduta-koentzat erdain-gabe izena zenutela. <sup>12</sup> Orduan, Kristo gabe zeundeten, Israel-erritik urruti, agintzarien alkartasune-tik arrotz, lur ontan itxaropenik eta Jainkorik gabe. <sup>13</sup> Orain, berriz, aldi batean urruti zeundetenok, Jesukris-

to'rengan, Kristo'ren odolaz bat egiñak izan zerate; <sup>14</sup> gure arteko pakea Bera da-ta; Bera da, bi errien arteko arresia, etsaikeria, botata, <sup>15</sup> biak bat egin dituana; eta bere aragian, aginduetan emandako Legea galduta, Beragan biak gizon berri bat pakeak egiñik biurtuta <sup>16</sup> gurutzearen bidez Jainkoarekin biak soin batean adiskidetu zituan, Berarengan etsaikeriari eriotza eman ondoren. <sup>17</sup> Eta etorri zanean, pakea agertu zien urruti zeudenai; baita bertan zeudenai ere: <sup>18</sup> biak Aitarengana Espiritu batean inguratzeko indarra Arengandik degu-ta.

<sup>19</sup> Beraz, etzerate arrotz eta etorriberri, santuen errikide ta Jainkoaren etxeko baizik, <sup>20</sup> Apostoluen eta Igarleen oñarri-gañean jasoak, giltz-arri Jesukristo bera dala. <sup>21</sup> Onengan ari da jasotzen etxegintza guztia, Jaunaren etxe santu izateko (\*). <sup>22</sup> Zuek ere guztiok batean gora zoazte Espiritua Jainkoaren bizileku izateko.

### III

#### Paulo'ren eginbearra.

<sup>1</sup> Orregatik atzerritar zeratenon maitasunez, ni, Paulo. Jesukristo'ren giltzapeko nago; <sup>2</sup> Jainkoaren aginduz zuen artean Aren grazia zabaltzeko eginkizuna nere gain dargola entzun dezute-ta. <sup>3</sup> Lentxeago labor-labor aita-tu dizutedan misterioa, goi-agerpenez ezagutu-erazi zitzaidan. <sup>4</sup> Itz auek irakurrita igarriko dezute nola eza-gutzen dedan Kristo'ren misterioa. <sup>5</sup> Lengo gizaldietan ez zitzayen gizakiai jakin-erazi, orain Aren apostolu ta igarle santuai, Espiritu Santuaren bidez, jakin-erazi zayen bezela. <sup>6</sup> Atzerritarrak, Berri Onaren bidez Jesukristo'rengan oñordekide ta gorputz berberaren atal, eta agintzarien es-

kubidekide dira. <sup>7</sup> Berri On onen zabaltzalle egiña izan naiz ni, Jainkoak bere indarraren eragiñez, ontarako grazi-doaya emanda.

<sup>8</sup> Neri, santuetan kaxkarrenari, eman zait grazia au: Kristo'ren aberastasun ulerkaitza atzerritarrari erakustea, <sup>9</sup> ta olako asmoaren misterioa zein dan agertzea, gauza guztien egille dan Jainkoarengan gizaldien asieratik gordeta bait-zegon; <sup>10</sup> Jainkoaren era guztietako jakinduria nagusi ta aldun guztiai zeruetan, Elizaren bidez, orain agiri dakien. <sup>11</sup> Orrela, betidanik izan duan asmoa, Jesukristo gure Jaunarengan bete du; <sup>12</sup> Onengan degun sinismenez, Beronengana ustetsu ta bildur gabe joan gindezke. <sup>13</sup> Au dala-ta, eskatzen dizutet, nik zuengatik daramazkidan atsekabeak gora-bera, etzaitzela kikildu; zuen gorapena oyetxek dira-ta.

#### Paulo'ren oioitza kristauen alde.

<sup>14</sup> Au dala-ta, Aitaren aurrean belauniko jartzen naiz, <sup>15</sup> zeruetan eta lurrean senitarte guztiak izena Aretxengandik artzen dute-ta; (\*) <sup>16</sup> bere aintzaren aberastasunai dagokien bezela, bere Espirituaz, zuen barrengo gizona bi-ziro indartu dezan (\*), <sup>17</sup> Kristo zuen biotzetan sinismenez bizi dedin, eta maitasunean sustrayak botata, sendo egon zaitzeten; (\*) <sup>18</sup> orrela santu guztiakin batera, *asmo au*; zein zabala eta luzea eta gorena ta sakona dan jabetu zaitzeten, <sup>19</sup> eta jakintza guztien gañetik dagon Kristo'ren maitasuna ezagutu *dezazuten*, Jainkoaren betetasun guztiaz beteak izan zaitzeten. <sup>20</sup> Guk eskatu, naiz asmatu dezakegun baño askoz ere neurri obean guregan egiteko indarra duan Ari, <sup>21</sup> Berari aintza Elizan eta Jesukristo'rengan mendez-mende gizaldien gizaldietan. Amen.

## IV

**Batasunerako deya.**

<sup>1</sup> Jaunarengatik katepean lotuta nagon au erreguka nagokizute, bada: *Ark* egin zizuten deyari dagokion bezela ibilli zaitetzela, <sup>2</sup> oso apal, otzan eta eramanpen aundi-koak izanaz; alkarren utsegiteak maitasunez eraman, <sup>3</sup> eta gogoen alkartasunari pake-lokarriz eusteko arretaz. <sup>4</sup> Gorputz bat eta espiritu bat dira bakarrik, baita itxaropena ere bat bakarra; zuen deyaren itxaropena (\*). <sup>5</sup> Jauna bat bakarra da, bakarra sinismena, bakarra batayoa; <sup>6</sup> bakarra da guztien Jaungoiko ta Aita, guztien gañean, guztien-gatik eta guztiengan dagona (\*).

**Bakoitzaren doayak.**

<sup>7</sup> Gutako bakoitzari Kristo'ren doayaren neurritz eman zaigu grazia. <sup>8</sup> Onegatik dio au: «Goietara igo zanean, katiguak Berekin eraman zituan eta gizonai doayak banatu zizkien» (\*). <sup>9</sup> Zergatik dio «igo» egin zala, lenago beko lurraldeetara jetxi zalako baizik? <sup>10</sup> Jetxi zana Bera igo zan zeru guztien gañera, guztia betetzeko. <sup>11</sup> Eta Berberak ipiñi ditu batzuk apostolu; beste batzuk igarle; batzuk Berri Onaren zabaltzalle; beste batzuk artzai ta erakusle, <sup>12</sup> zintzoen obetze-lanerako, Kristo'ren gorputza osatzeko; <sup>13</sup> guztiok, sinismenez eta Jainko-Semearen ezagueraz bat eginda, gizon eldu ta Kristo'ren adin beteko biurtu gaitezen arte. <sup>14</sup> Beraz, ez gaitezen izan gizonen maltzurkeriz, edozein erakutsien aizek zalantzan jarri ta batera ta bestera eraman gaitzaken ume; okerra sartzeko azpikeria ibiltzen dute-ta. <sup>15</sup> Bestela baizik: egiari eutsita, indar gaitezen maitasunez gauza guztietan, gure buru dan Kristo'rengana bildurik; <sup>16</sup> gorputz osoa, batzen eta azitzen du-

ten lokarri guztiakin bilduta ta alkaturik, atal bakoitzari dagokionez, Arengandik azitzen eta osatzen da maitasunean-da (\*).

**Gizon zarra.**

<sup>17</sup> Beraz, Jaunarengan esaten eta aitortzen dizutet: emendik aurrera etzaitetzte bizi, atzerritarrak beren uskerietan bizi diran bezela, <sup>18</sup> beren sena illunduta, beren ez jekiñez eta biotzeko itxumendiz Jainkoaren bizitzatik urru-ti. <sup>19</sup> Ernegatuta, lizunkerietara jo zuten, era guztietako zartarkerietan leya biziz erortzeraño; <sup>20</sup> Ez da orrecla, zuek Kristo'rengandik ikasi dezutena, <sup>21</sup> Ari entzun ba'diozute eta Jesus'en ikasbidea artu ba'dezute beintzat. <sup>22</sup> Beraz, zuen lengo jokaera utzirik, erantzi zazute gizon zarra, okerbidean usteldua dagon ezker; <sup>23</sup> berriztatu zaitetzte zuen espirituan <sup>24</sup> eta jantzi zazute, Jainkoaren irudiz, benetako zuzentasunean eta santutasunean egiña dan gizon berria.

**Burubide batzuk.**

<sup>25</sup> Beraz, gezurra alde batera utzita, bakoitzak bere urkoari egiz itzezin dezayola, alkarren atalkide gera-ta (\*). <sup>26</sup> Asarretuta ere, ez pekaturik egin; ez bedi eguzkia zuen asarrearen gañean etzan; (\*) <sup>27</sup> Ez eman lekurik deabruari. <sup>28</sup> Len ostutzen zuanak, ez beza geyago ostu; esku-lan egokiren bat egin dezala, premian dagonari zer-eman izan dezan. <sup>29</sup> Ez bedi zuen aotik itz garratzik ateara; onerako itz on eta egokiak baizik, entzuten dutenai atsegin izateko. <sup>30</sup> Ez atsekabetu Jainkoaren Espiritu Santua, erospen-egunerako Aren ezaugarria artu dezute-ta. <sup>31</sup> Ken zuengandik edozein samin, asarre, birao ta gaiztakeri. <sup>32</sup> Izan zaitetzte, ordea, alkarrentzat biotzbera ta erru-

kior, eta barkatu alkarri, Jainkoak zuci, Kristo'rengan barkatu dizuten bezela.

## V

**Goi-maitasuna.—Aragikeria.**

<sup>1</sup> Beraz, izan zaitezte Jainkoaren antzeko, seme maite-maite bezela, <sup>2</sup> eta ibilli zaitezte maitasun-bidetik, Kristo'k gu maite izan eta bere burua, guregatik usai gozozko eskafi ta opari Jainkoari eman zion bezela. <sup>3</sup> Santuai dago kienez, ez bedi zuen artean aragikeririk aitatu ere, ez lizunkeririk, ez diru-goserik; <sup>4</sup> ezta zatarkeririk ere, ez arinkeririk; orrelakoak ez bait-daude ondo. Oyen ordez, eskerak emateko itzezin bear dezute. <sup>5</sup> Au jakin bear dezute ondo: Jainkoaren eta Kristo'ren erreñuan ez dute artukizunik izango ez aragizaleak, ez lizunak, ez diruzaleak, —edo berdin dana, sasi-jainko maiteak—. <sup>6</sup> Inor ez zaitzabela itz leunez lilluratu; orrekoengatik etortzen bait-da Jainkoaren asarrea sinisgogorren gañera (\*). <sup>7</sup> Etzazute aye-kin artu-emanik izan.

**Argiaren semeak.**

<sup>8</sup> Noizbait illun ziñaten; orain, berriz, argi zerate Jaunarengan. Bizi zaitezte argi-seme bezela. <sup>9</sup> Ona ta zuzena ta egia dan guztia, argiaren frutua da. <sup>10</sup> Billa zazute Jaunari atsegin zayona, <sup>11</sup> illunpetako egintza alperretan nastu gabe; eta egintza oyeak gaitzetsi; <sup>12</sup> oyeak ezkutuka egiten dutena, esateko ere lotsagarri da-ta. <sup>13</sup> Gaitzesten diran auek guztiak, orde, argiak jotzen dituanean, agirian gelditzen dira; agirian gelditzen dan guztia argi bait-da. <sup>14</sup> Orregatik auxe dio: «Esnatu zaitez lo zauden ori, ta jeiki zaitez illen artetik, eta Kristo'k argituko zaitu» (\*).

<sup>15</sup> Egitzazute, beraz, arretaz ibiltzeko egiñalak; ez, gero, burugabe bezela; zentzunez baizik, <sup>16</sup> denbora ondo bete, egun txarrak ditugu-ta. <sup>17</sup> Beraz, etzaitezte izan zentzungebe, zentzundun baizik, Jainkoaren naya ezagutzeko. <sup>18</sup> Ez mozkortu ardoz, aragikeria berekin du-ta; baizik eta, bete zaitezte Espiritu Santuz. <sup>19</sup> Kanta itzazute alkarrekin bertsoak eta eresiak eta Jainkozko abestiak. Kanta ta gora Jauna zuen biotzetan. <sup>20</sup> Beti ta guztiengatik eman zaizkiozute eskerrak Jainkoari eta Aitari, Jesukristo gure Jaunaren izenean. <sup>21</sup> Zaudete alkarren mende, Kristo'ren bildurrean.

**Senar-emazteen eginbearrak.**

<sup>22</sup> Emazteak beren senarren mendean egon ditezela, *Jaunaren mendean* ba'leude bezela; <sup>23</sup> emaztearen buru senarra da-ta, Kristo Elizaren buru ta gorputz osoaren salbatzalle dan bezela. <sup>24</sup> Eta Eliza Kristo'ren mendean dagon bezela, emazteak ere bai beren senarren mendean, gauza guztietan. <sup>25</sup> Zuek, senarrok, maite itzazute zuen emazteak, Kristo'k Eliza maite duan bezela, ta arentzat bere burua eman zuan bezela (\*) <sup>26</sup> *Eliza* santutzeko, ur-batayoaren eta itzaren bitartez garbitzen zuala; <sup>27</sup> Bere aurrean Eliza argitsu agererazteko, inñolako erru, zimur edo olakorik ezer gabe, santu ta garbi baizik.

<sup>28</sup> Senarrak ere orrelaxe maite izan bear dituzte beren emazteak: beren gorputzak bezela. Emaztea maite duan, bere burua maite du; <sup>29</sup> eta inñork ez dio bere argiari gorrotorik izaten; baizik eta mantendu egiten du ta babestu Kristo'k Eliza bezela, <sup>30</sup> bere gorputzaren atal gera-ta. <sup>31</sup> «Orregatik, gizonak aita-amak utzi egingo ditu, ta bere emaztearekin elkartuko da, ta biak aragi bat izango dira» (\*). <sup>32</sup> Aundia da misterio au, Kristo'ren eta Elizaren



artekoa, diot gero. <sup>33</sup> Itz batean: zuetako bakoitzak maite beza emaztea bere burua bezela; eta emazteak begirunea izan bezayo senarrari.

## VI

### Gurasoen eta semeen arteko eginbearrak.

<sup>1</sup> Seme-alabok: egin zazute zuen gurasoen esana, Jaunarengan; ori bait-da zuzenbidea. <sup>2</sup> «Zure aita ta ama aintzat euki itzazu» (\*). Orixe da lenengo agindua, ta agintzariak jarraitzen dio; <sup>3</sup> «zoriontsu izan zaitezten eta lurgañean bizitza luzea izan dezazuten» (\*). <sup>4</sup> Zuek, berriz, gurasuok, ez sumindu zuen seme-alabak; baizik eta, zuzendu ta Jaunaren ikasbidean azi.

### Nagusi-morroyak.

<sup>5</sup> Morroyok: zuen lurreko nagusiai esana egin zayozute, Kristo'ri bezela, bildur-ikaraz eta biotz apalez; <sup>6</sup> ez, ordea, morroi-lanak ayen aurrean egiten dituzutenean bezela, gizonentzat atsegin izateko bakarrik; Jainkoaren naya biotzez betetzen duan Kristo'ren morroyak bezela, baizik; <sup>7</sup> morroi-lanak Jaunaren ederragatik egin, eta gogo onez; ez gizonen ederragatik; <sup>8</sup> morroi, naiz nagusi, bakoitzak egin duan ona Jaunak sarituko diola jakiñik. <sup>9</sup> Zuek ere, nagusiok, era berean joka zazute ayekin, zemaketak alde batera utzita; bai bait-dakigu ayen eta zuen Jauna zeruan dagola ta Ark ez duala norkeririk eta bereizketarik iñorentzat.

### Kristau-gudaritza.


<sup>10</sup> Gañerakoan, anayok, sendotu zaitezte, Jaunarengan, Aren indarraren kemenez; <sup>11</sup> eta diabruaren maltzurkeriai

gogor egiteko, jantzi zazute Jainkoaren izkillu-soñekoa. <sup>12</sup> Gure burruka ez bait-degu aragiaren eta odolaren aurka; altsuen, indartsuen, mundu illun onetako nagusien, eta zerupean dabiltzan espiritu gaiztoen aurka baizik. <sup>13</sup> Artu zazute, bada, Jainkoaren arma-jantzia, egun txarrean gogor egiteko kemenan izan dezazuten, eta guztia menderatuta, sendo iraun dezazuten.

<sup>14</sup> Zutik, beraz!, egia gerrikotzat arturik, eta zuzentasuna bularrekotzat, <sup>15</sup> eta pakearen Berri Ona zabaldunaya oñetaketat; <sup>16</sup> ar zazute gauza guztietan sinismena babegarri, antxe itzaldutez etsayaren azkon guztiak. <sup>17</sup> Eta ar zazute osasunaren burute-arma, baita Espirituaren ezipata ere, - Jainkoaren itza, alegia -. <sup>18</sup> Otoitzari ekin zayozute beti espirituan, era guztietako erregu ta eskabidez; santu (kristau) guztientzat otoitz egiteko beti gertu zaudetela. <sup>19</sup> Nere alde ere egin otoitz, mintzo naizenean. Berri Onaren misterioa argi-ta-garbi erakusteko itz egokiak eman dakizkidan; <sup>20</sup> eta katez lotuta egon-da ere, aren (Berri Onaren) albistari naizen ezkerero, ura ausardiz erakutsi dezadan eta artzaz bear bezela itz egin dezadan.

### Azkena.

<sup>21</sup> Nere gora-berak eta zer egiten dedan jakin ditzazuten, Titiko'k anai maitagarri ta Jaunaren morroi zintzoak emango dizute guztien berri; <sup>22</sup> ortarakoxe bialdu dizutet-eta, nere gora-bera guztiak jakin-erazi eta zuen biotzak dezaizkitzuten. <sup>23</sup> Pakea anayai ta maitasuna sinismenarekin, Aita Jainkorengan eta Jesukristo Jaunarengan. <sup>24</sup> Bego grazia, Jesukristo gure Jauna maitasun itzal-eziñez maite dutenakin.



## PAULO DONEAK FILIPOS'KOAI EGINDAKO ESKUTITZA

### I

#### Agurra.

<sup>1</sup> Jesukristo'ren morroi Paulo'k eta Timoteo'k, beren gotzayai, eta diakonoakin Filipos'en dauden Jesukristo'rengan santu (kristau) guztiak: (\*) <sup>2</sup> beude zuekin grazia ta pakea Jainko gure Aitaren eta Jesukristo'ren izenean.

#### Eskerrak ematen.

<sup>3</sup> Zuek gogoratzen zaituztedan bakoitzean, Jainkoari eskerrak ematen dizkiot (\*), <sup>4</sup> eta beti nere otoitz guztietan zuentzat pozik eskatzen diot, <sup>5</sup> lenengo egunetik orain arte Berri Onari opa izan diozuten egintzarengatik. <sup>6</sup> Ba-dakit ziur, zuengan lan eder au asi duanak, bururatu ere egingo duala, Jesukristo'ren egunerarte. <sup>7</sup> Bidezkoa da nik zuentzat guztiontzat iritzi au eukitzea, biotzean zaramatef-eta. Nere grazi-lagun zerate guztiok, bai nere kateetan, eta nere aldeko lanetan eta Berri Onaren zabalkundean. <sup>8</sup> Jainkoa da lekuko (testigu) zenbait maite zaituztedan Jesukristo'ren erraieran. <sup>9</sup> Eta auxe eskatzen det: zuen maita-

suna gero-ta geyago azi dedilla argiz eta jakitez, <sup>10</sup> onena aukera dezazuten, Kristo'ren egunerako garbi eta erru-gabe arki zaitezten, <sup>11</sup> Kristo'ren zuentasun-frutuz beterik, Jainkoaren aintzarako ta gorapenerako.

#### Berri Onaren aurrezapenak Erroma'n.

<sup>12</sup> Nere goraberak Berri Onari aurrera egiten laguntzeko izan dirala zuek jakitea nai nuke, anayok. <sup>13</sup> Preto-retzeko guztiak, eta kanpokoak ere bai, ba-dakizkite nik Kristo'rengatik daramazkidan kateak; (\*) <sup>14</sup> eta Kristo'rengan *diran* anai geyenak, nere kateak dirala-ta, indarberiturik, Jainkoaren itza bildur gabe zabaltzeko kementsuago biurtu dira. <sup>15</sup> Batzuek, ikusi-eziñez eta ondamuz ezagutu-erazten dute Kristo; beste batzuek, gogo onez (\*). <sup>16</sup> Batzuek (azkenekoak), maitasunez egiten dute, Berri Ona zaitzeko ipiñita nagola ba-dakite-ta; <sup>17</sup> besteak, berriz, ikusi-eziñez ezagutu-erazten dute Kristo, ez gogo onez, nere kateak neketsuago biurtuko dizkidatela uste bait-dute. <sup>18</sup> Baño, zer neri? Dana dala, itxuraz edo egiaz, Kristo ezagutu-erazten ba'dute, ni poztu egiten naiz, eta poztu egingo naiz; <sup>19</sup> zuen otoitzak eta Jesukristo'ren Espirituaren laguntza bidez, guzti au osasungarri biurtuko zaidala ba-dakit-eta. <sup>20</sup> Nere itxaropen etengabeari dagokionez, ezer-gatik ere ez naiz lotsatuko; oso bestela baizik: askatasun osoz, orain ere beti bezela Kristo goratua izango da nere gorputzean, ni bizitzen naiz iltzen naizela; (\*) <sup>21</sup> neretzat bizia Kristo da-ta; eriotza, berriz, irabazia. <sup>22</sup> Eta aragitan bizitzea neretzat lan ongarrria izanik ere, ez dakit oraindik zer aukeratu. <sup>23</sup> Bi aldeetatik nago estututa: alde batetik. Kristo'rekin egoteko il nai nuke; neretzat au askoz ohea litzake; eta <sup>24</sup> bestetik, aragitan gelditu nai nuke, zuentzat bearrago da-ta. <sup>25</sup> Oraingoz, oso ziur dakit geldituko ta egongo naizela, sinismenean aurreratu ta poztu zaitez-

ten <sup>26</sup> eta orrela, ni bigarren aldiz zuetara joan nadin, Kristo'rengan zuen gorapena, nere bidez, geitu dedin.

### Berri Onari dagokionez bizi bear.

<sup>27</sup> Berri Onari dagokion bezela bizitzeko eskatzen ditutet bakarrik; zuek ikustera orrera joan, naiz zuengandik urruti egon, gogo batez sendo irauten dezutela entzun dezadan, eta Berri Onaren sinismenagatik *guztiok* batera borrokan ari zeratela, <sup>28</sup> zuen etsayen aurrean ezertan ere ikaratu gabe; orixe da ayentzat ondamenaren agiria; eta zuentzat, osasunarena; eta ori Jainkoaren aldetik. <sup>29</sup> Kristo'rengan sinistea bakarrik ez, baita Berarengatik nekeak artzea ere eman zaizute-ta, neregan ikusi zendutena ta orain nitzaz entzuten dezuten burruka berbera egiñaz.

## II

### Norberekoikeria ito egin bear.

<sup>1</sup> Beraz, Kristo'rengan poz emateko almenik, edo maistasuner:ko atsegingarririk, edo Espiritu *Santuaren* artu-emanik, edo biotzean errukirik zuengan ba'dago, <sup>2</sup> nere poza bete zazute, guztiok iritzi bera, maitasun bera, kemen bera, gogo bera izanik. <sup>3</sup> Ez ezer egin bekaitzez eta arrokeriz; gogo apalez, baizik; batak bestea nagusitzat euki dezala, <sup>4</sup> nork bere onari baño, bestearenari geyago begiratuta. <sup>5</sup> Jesukristo'k izan zituan asmo berak izan itzazute zuek ere; <sup>6</sup> izakeraz Jainko zalarik, etzuan ederretsi bere burua Jainkoarekin kidetzea; <sup>7</sup> baizik eta, beeratu egin zuan. morroi-itxura arturik eta gizonen antzeko egiñik. Eta gizon-tankeran, <sup>8</sup> bere burua txiki egin zuan, eriotzaraño esaneko agertzen zala; gurutzean iltzeraño agertu ere.

<sup>9</sup> Orregatik Jainkoak goratu egin zuan, eta izen guz-

tien gañeko dan izena eman zion; <sup>10</sup> Jesus izena entzutean, zeruetan, lurrean eta inpernuetan dan guztia be-lainikatu dedin, <sup>11</sup> eta mingain guztiak aitor dezaten Jesukristo, Jauna dala Jainko Aitaren aintzarako.

### geitiko osasunerako burubideak.

<sup>12</sup> Beraz, esana beti egin dezuten ene maiteok, ez le-nago zuen aurrean negoanean bezela bakarrik, baizik orain, zuengandik urruti nagola, askoz geyago bildur-ikaraz lan egin bear dezute zuen osasuna irixteko; <sup>13</sup> Jainkoa bait-da, Berari derizkion bezela, zuengan nai izatea ta egitea egiten dituana. <sup>14</sup> Egin zazute dana guztia, murmuraketarik eta eztabaidarik gabe, <sup>15</sup> gizarte oker eta gaizto onen erdian Jainkoaren seme zintzo ta erugabe izan zaitezten. Argi-zuziak lurrean bezela agertzen zerate ayen artean. <sup>16</sup> bizitzako itza jasota eramaten; korrika alperrik ez ibiltzea, ta alperrik ez alegintzea nere gorapenerako izango bait-zaizkit, Kristo'ren egunean. <sup>17</sup> Baña, zuen sinismenaren oparien eta eskeintzen gañean nere odola ixuri bear ba'nu ere, poztuko nitzake, ta poztu ere zuekin batean poztuko nitzake ta nere poza guztioi agertuko nizuteke. <sup>18</sup> Poztu zaitezte, bada, zuek ere ontan eta nere pozean lagun izan zakizkide.

### Paulo'k Timoteo bialtzen du.

<sup>19</sup> Jesus Jaunarengan ba-det uste, Timoteo zuengana laxter bialiko dedala; zuen berri jakinda, ni ere indarberritu nadin. <sup>20</sup> Nerekin au baño alkartuagorik eta zuen gauzetarako au baño ajola aundiagoa dunik ez bait-det beste iñor. <sup>21</sup> Beste guztiak nork berearen billa dabilta ta ez Kristo'renaren billa. <sup>22</sup> Ba-dakizute zuek onen zintotasunaren berri, ta semeak aitarekin bezela, onek nerekin

Berri Onaren alde egin zuan lanaren berri. <sup>23</sup> Berau auke-ratu det, nere auziaren erabakia jakin bezin laxter zuen-gana bialtzeko. <sup>24</sup> Ni ere zuengana laxter joango naizela uste det, Jaunarengan.

### Epafrodito.

<sup>25</sup> Zuek, nere bearraldian begiratzeko bialdu zenidaten Epafrodito, nere anai, lagun eta adiskidea ere biali egin bear dizutedala uste izan det, <sup>26</sup> zuek guztiak ikusteko gogo aundia dauka-ta, gañera larria ere bai, jakin bait-du zuek entzun dezutela gaxo egona dala. <sup>27</sup> Izan ere, il-zorian egon zan, baño, Jainkoak arentzat errukia izan du; eta ez arentzat bakarrik, baita neretzat ere, atsekabearen gañean atsekabea izan ez nezan. <sup>28</sup> Orregatik, lenbaitlen bialtzen det, zuek bera berriz ikusita, poztu zaitezten, eta ni lasayago gelditu nadin. <sup>29</sup> Arrera ona egin zayozute, bada, poz aundiz Jaunarengan, eta ori bezelakoak aintzat artu itzazute; zuek nere alde ezin zenutena egitearren, bere bizia arriskuan jarriarik, Kristo'ren lana egiteagatik il-zorian egon zan-da.

## III

### Judukeriak utzi, Kristo'ri jarraitzeko.

<sup>1</sup> Onenbestez, poztu zaitezte Jaunarengan. Beti gauza bera zuei idaztea neretzat ez da nekegarri, ta zuentzat osasungarri da. <sup>2</sup> Kontu txakurrakin, kontu langille txar-rakin, kontu ebakitzeakin; (\*) <sup>3</sup> erdaintzuntza gu gera-ta, Jainkoaren Espirituan gurtzen degunok, Jesukristo'rengan arrotzen geranok, eta gure uste ona aragian ipintzen ez degunok (\*). <sup>4</sup> Aragian nere ustea ipiñi nezakean arren, eta aragian arrotu ditekunik besterik ba'dago, geyago ni,

jayo ta zortziurrenean erdaindutako au. <sup>5</sup> Israel'en jatorri-ko, Benjamin'en leñuko, ebreatarren seme ebreatar, Legez pariseotar, <sup>6</sup> eta, Legearen ardurarengatik Elizaren jazarle; Legearen zuzenbidez, esankizunik gabea.

<sup>7</sup> Baño, irabazitzat neukana, Kristo'ren maitasunaren-gatik kaltegarri deritzat. <sup>8</sup> Eta, dana guztia ere kaltegarri deritzat, Jesukristo nere Jaunaren ezaguera bikañaren on-doan. Dana guztia utzi det Berarengatik, eta guztia simaur deritzat, Kristo irabazi ezker, <sup>9</sup> ta Arengan arkitu ezker; ez, ordea, Legetik datorren nere zuzentasunaren jabe izan-nik, Jainkoarengatik datorren, sinismenean dagon, eta Kris-to sinistuz datorkigun zuzentasuna iritxirik; <sup>10</sup> orrela, Ura (Kristo) ta Aren piztueraren indarra ezagutuaz, eta ne-keetan lagunkide izanaz, Aren eriotzan bere antzeko izan-da, <sup>11</sup> illen artetik piztutzero iritxi niteke.

<sup>12</sup> Ez naiz oraindik nere elburura iritxi, edo-ta, guz-tiz bikain izatera; baño egiten ditut egiñalak orretarako, Jesukristo'k ni bereganatu naun bezela, nik ere Bera nereganatu ote dezakedan. <sup>13</sup> Ez det uste, anayok, oraindik ne-reganatu dedanik; baño, atzean gelditu dana aztuta, aurre-an daukadanari jarraitzen sayatzen naiz, <sup>14</sup> elburura nijoa korrika, Jesukristo'ren bidez, Jainkoak goitik dei egin di-dan saria irixteko. <sup>15</sup> Izan bedi orixe oso onak geran guz-tion asmoa; eta beste zerbait ba'derizkiozute, orretan ere Jainkoak argituko zaituzte. <sup>16</sup> Nolanai ere, iraun dezagun gogor gureganatu degun mallan.

### Paulo Donea jarraibide.

<sup>17</sup> Izan zaitezte, anayok, nere antzeko, ta begiratu gu-regan dezuten ikasbidetik dabiltzanai. <sup>18</sup> Izan ere, asko dira or -eta oyetzaz len askotan esana orain ere negarrez diotzutet - Kristo'ren gurutzearen aurka dabiltzanak; <sup>9</sup>

orrelakoen azkena ondamentia da; sabela dute Jainko; eta biotza lureko gauzetan ipiñita daukatenen gorabidea, lotsakizuna izango da (\*). <sup>20</sup> Gure bizia zeruan dago-ta; andik etorriko dan Jesukristo gure Salbatzalle ta Jaunaren zai gaude. <sup>21</sup> Dana bere mendean artzeko daukan alme-nez gure gorputz zatar au aldatu ta bere gorputz goragariaren antzeko biurtuko du (\*).

## IV

**Jainkoa urbil dago.**

<sup>1</sup> Beraz, nere anai mait-maite ta kutunok, nere pozgarri ta koroï zeratenok, iraun zazute sendo Jaunarengan; guztiz laztanok. <sup>2</sup> Ebodia'ri ta Sintike'ri Jaunarengan gogo batez bizi ditezela eskatzen diet. <sup>3</sup> Eta zuri, nere lagun zintzo orri, emakume oyei laguntzeko eskatzen dizut; Kelemente'rekin eta beste nere lagunakin batean Berri Onaren alde nere ondoan gogor zaildu dira-ta. *Guzti* oyen ize-nak bizitzako liburuan idatzita daude.

**Poza ta pakea.**

<sup>4</sup> Poztu zaitzte beti Jaunarengan; poztu zaitzte, diotzet berriz ere. <sup>5</sup> Gizaldi guztiak ikusi bezate zuen onginaya. Urbil da Jauna. <sup>6</sup> Ez ezeren kezkarik euki; baizik-eta, beti, agertu Jaunari zuen eskabideak, zuen erregu ta eskariak Berari zuzenduaz eta eskerrak emanaz. <sup>7</sup> Eta asma-ala baño aundiagoa dan Jainkoaren pakeak gordeko ditu zuen biotzak eta zuen adimenak, Jesukristo gure Jaunarengan. <sup>8</sup> Onenbestez, anayok, egi, jator, zuzen, garbi, maitagarri, goragarri, on eta aintzagarri dan guztira izan bedi zuen joera. <sup>9</sup> Neregandik ikasi eta artu dezutena, ne-


regandik entzun eta neregan ikusi dezuten guztia; orixe egin; eta pakearen Jainkoa zuekin izango dezute.

**Paulo'rentzat Filipos'koen eskuzabala.**

<sup>10</sup> Aundia izan zan nere poza Jaunarengan zuen nereganako maitasuna indarberritu dezutela ikusi nuanean! <sup>11</sup> Maitasun izan, bai, ba-zenuten; baño bera agertzeko une egokirik ez. Ez diot au nere premiren batek craginda; dedanarekin naikoa izaten ondo dakit nik. <sup>12</sup> Gutxirekin bizitzen ikasia naiz; baita askorekin bizitzen ere; edozertan eta edozertarako nago ondo ikasia; aseta bizitzeko ta goseak bizitzeko; asko izateko ta ezertxo ere ez izateko. <sup>13</sup> Guztia dezaket pizkortzen nauanaren indarrez. <sup>14</sup> Ala ere, ondo egin dezute nekeetan nere lagun izanda. <sup>15</sup> On-do dakizute zuek, Filipostarrok, Berri Ona zabaltzen asi ta Mazedonia'tik irten nitzanean, zuekin izan ezik, ez nuale iñongo beste elizekin artu-emanik izan. <sup>16</sup> Izan ere, Tesalonika'n negola, bein baño geyagotan bialdu zenidaten zuek bear nuana. <sup>17</sup> Ez nabil ni neretzat emaitza billa; baizik-eta, zuen konturako irabazi aundiaren billa. <sup>18</sup> Orain, donetik ba-det, aukeran bizi naiz eta gañezka nabil, biali zenidatena, Epafrodito'rengandik artu nuan ezkerero. Ori, bai, usai gozo da ta Jainkoarentzat opari eder! <sup>19</sup> Eskas dezutena, berriz, nere Jainkoak emango dizute, bere ondasunen neurritz, aintzan Jesukristo'rengan. <sup>20</sup> Aintza gure Jainko ta Aitari gizaldi ta gizaldietan. Amen.

**Azkena.**

<sup>21</sup> Agur egin zayezute santu (kristau) guztiak Jesukristo'rengan. Nerekin dauden guztiak agur egiten dizute. <sup>22</sup> Agur egiten dizute santu guztiak, Zesar'en etxeakoak, batipat (\*). <sup>23</sup> Bego zuen espirituarekin Jesukristo Jaunaren grazia.



## PAULO DONEAK KOLOSAS'KOA EGINDAKO ESKUTITZA

### I

#### Agurra.

<sup>1</sup> Paulo'k, Jainkoaren nai-izatez Jesukristo'ren apostolu naizen onek, eta Timoteo anayak, <sup>2</sup> Kolosas'en bizi diran Jesukristo'rengan anai, santu ta fededunai: grazia ta pakea zuekin Jainko gure Aitarengandik.

#### Eskerrak ematen.

<sup>3</sup> Zuen alde *egiten ditugun* gure otoitzetan, beti ematen; dizkiogu eskerrak Jainkoari, Jesukristo gure Jaunaren Aitari; (\*) <sup>4</sup> Jesukristo'renganako zuen sinismena ta santu guztienganako dezuten maitasuna jakin ditugun ezker; <sup>5</sup> eta ori, zeruetan ipiñia daukazuten zuen itxaropenagatik. *Itxaropen* ori erakutsi zaizute Berri Onaren egiazko itzez. <sup>6</sup> Iritxi zaizuten Berri On au, lur guztian bezela, zuen artean ere frutua ematen ari da eta azitzen, Jainkoaren grazia garbiro entzun eta ezagutu zenuten egunetik; <sup>7</sup> Epafras gure morroikide maite ta zuentzat, gure izenean, Kristo'ren ordeko zintzoaren aoz ikasi zenuten bezela, <sup>8</sup> eta berak jakinerazi digu Espirituarengan *dauka zulen* zuen maitasuna.

#### Kolosas'koen alde otoitza.

<sup>9</sup> Orregatik, berri au entzun genuan egunetik, Jainkoari zuen alde otoitz egiten eta eskatzen ari gera eten gabe; Jainkoaren nayaren eraz bete-beteak izan zaitzeten goi-jakite eta senaz guztian. <sup>10</sup> Jaunari zor zayon biziera eraman dezazuten eta gauza guztietan atsegin izan zakizkioten, egin-tza onen frutuak emanaz eta Jainkoaren ezagueran aurreratuaz, <sup>11</sup> bere aintzaren almenez guztiz indartuta, gauza guztietan pozez beterik eta biotz aundiz eramanpenean bizitzeko, <sup>12</sup> Jainko Aitari eskerrak ematen, argi-erreñuan santuen oñorde-lagun izateko gai egin zaituztelako, <sup>13</sup> eta illunpe-mendetik aterata, bere Seme kutunaren erreñura aldatu gaitualako; <sup>14</sup> Seme onengan degu erospena, baita pekatuen barkamena ere.

#### Jesukristo.

<sup>15</sup> Au da (Jesukristo) begi auekin ikusi ezin dezakegun Jainkoaren irudia, egindako guztien lensemea; (\*) <sup>16</sup> zeru-lurretako gauza guztiak, ikusten diranak eta ez diranak, guztiak Argan egiñak izan bait-dera; Aulki, Jaun, Nagusi ta Agintedunak; dana Ark eta Arentzat egiña da. <sup>17</sup> Diranak baño lenago da, ta diranak Arengan daude. <sup>18</sup> Bera da Eliz-gorputzaren buru; Bera da asiera, illen arteko lensemea, gauza guztietan lenen izan dedin. <sup>19</sup> Aitak, ala naita, dana guztia Arengan (Semearengan) batuta bait-dago; (\*) Aren bidez, bere gurutzeko odolaz pakeak eginda, lurrekoak bezela, zerukoak ere, Berarekin adiskidetzeko

#### Kolosastarrak.

<sup>21</sup> Zuek ere, biotzez eta egite txarrez len Beraregandik urruti, Aren etsai ziñatenok, <sup>22</sup> bere aragizko gorputzez, eriotzaren bidez orain Berarekin adiskidetu zaituzte, be-

re aurrean santu, errugabe ta akatsik gabe agertu zaitzeten. <sup>23</sup> Orretarako, ordea, sinismenean oñarriak gogor jarrita eta sendotuta iraun bear dezute, eta zuei eta zerupeko guztiai erakutsitako Berri Onaren itxaropenean zupairik gabe iraun; eta Berri On orren egiña ni izan naiz, Paulo.

#### Paulo Donea ta Gurutzeko ezkutukia.

<sup>24</sup> Zuengatik nekeak eraman nitualako poztu egiten naiz orain, eta Kristo'ren gorputza dan Elizarentzat, Kristo'ren nekeai palta zayena, nere aragian nik betetzen det. <sup>25</sup> *Elizaren* morroi naiz, Jainkoaren itza zuen onerako zabaltzeko eginkizuna Jainkoak nere esku utzi didan ezkerero; <sup>26</sup> Aren misterioa lengo gizaldi ta mendentzat ezkutuan zegonda; orain, ordea, santu guztientzat agirian dago; <sup>27</sup> atzerritarren artetik santu oyei nai izan zien erakutsi Jainkoak zein aundia dan misterio onen aintzaren aberastasuna. *Misterio* au Kristo bera da zuen artean, zerrurako itxaropen (\*). <sup>28</sup> Bera (Kristo) ezagutu-erazten gabiltza gu, guztiai burubideak ematen eta era guztietako jakintza erakusten, gizaki guztiak Kristo'rengan bikain ditzagun. <sup>29</sup> Ortan ari naiz nekatzeraño, kementsu eragiten didan Kristo'ren indarrez borrokan.

## II

#### Kristo ta sasi-maisuen erakutsiak.

<sup>1</sup> Zuengatik ari dedan borroka zuek ezagutzea nai det; baita Laodizea'n daudenagatik ere, ta aragitan nere aurpegia oraindik ikusi ez duten guztiengatik *ari dedan borroka*, <sup>2</sup> zuen biotzak poztu ditezen; maitasunez alkarturik, jakintza osoaren aberastasun guztiak iritxi ditzazuten, eta

Jainkoaren misterioa: Kristo ezagutu dezazuten; <sup>3</sup> Onengan bait-daude ezkuturik, jakituriaren eta jakintzaren ondasun guztiak.

#### Egiari eutsi.

<sup>4</sup> Itz maltzurrez iñork lilluratu ez zaitzaten diotzutet au: <sup>5</sup> gorputzez urruti ba'nago ere, gogoz zuen erdian bait-nago, zuen alkartasun onak eta Kristo'rengan dezuten sinismen sendoak poztutzen nautela. <sup>6</sup> Beraz Jauntzat Jesukristo artu dezuten ezkerero, zabiltzate Berarengan, <sup>7</sup> Beragan oñarriak eta erroak sendotuta, artu dezuten erakusbideari dagokionez, sinismenean gogor, eskerronez beterik. <sup>8</sup> Begira, gero!; ez zaitzela iñork gezurrezko filosofi maltzurrez lilluratu; *filosofi* oyek gizonen antziñako iritzietan eta munduko gayetan dituzte oñarriak, eta ez Kristo'rengan. <sup>9</sup> Onengan dago Jainkotasun osoa bete-betean gorputzez, <sup>10</sup> Berak zauzkate beteta, nagusitza ta almen guztien buru da-ta. <sup>11</sup> Beragan izan ziñaten erkainduak, ez aragia ebakita, eskuz egiten dan erdainkuntzaz, Kristo'ren erdainkuntzaz baizik. <sup>12</sup> Berarekin batean izan ziñaten illobiratuak batayoan, baita Beragan piztuak ere, illen artetik piztu zuan Jainkoaren al-izatearen sinismenez. <sup>13</sup> Eta gaiztakeriz eta aragi erdain-gabez ilda zeundetenok, Arekin (Kristo'rekin) bizitzara ekarri zinduzten, zuen gaiztakeri guztiak barkatuta; <sup>14</sup> eta gure kontrako erabakiaren agiria ezeztu, ta gugandik baztartu egin zuan eta gurutzean josi; (\*) <sup>15</sup> eta nagusi ta altsuak erantzirik, kemen aundiz, lotsagarri agiri-atera zituan, gurutzean ayen lepotik garaipena iritxirik.

#### Gezurrezko jakinduritik alde egin bear.

<sup>16</sup> Beraz, iñork ez zaitzela epaitu jan-edan, jaiegun, ilberri naiz larunbatak dirala-ta; <sup>17</sup> etorkizunaren itzal dira

oyek guztiak; eta mamia Kristo da. <sup>18</sup> Ez dezaizutela inork saria galduez, apaltasunean eta aingeru-jaietan ageririk, ikusi ez duanaz itzegiñaz, bere aragi-jakituriz arropuztuta. <sup>19</sup> Alakoa, burua dan Arengandik (Kristo'rengandik) etenda dabil; eta gorputz osoa zain eta loturen bidez janaritu ta elkartuta burutik azitzen da, Jainkozko aritez. <sup>20</sup> Beraz, lur ontako gauzentzat Kristo'rekin ilda ba'zaudete, zergatik jartzen zerate inoren mendean, lurrean bizi ba'zinate bezela? <sup>21</sup> «Ori ez artu, ez txastatu, ez ikutu», esate baterako (\*). <sup>22</sup> Guzti auek ez ote dira erabiliaren erabiliz ezereztan diran gauzen giza-aginduak eta erakutsiak? <sup>23</sup> Alakoak, nolabaiteko jakinduria, ta maitasuna, ta apaltasuna ta gorputzarentzat lastasuna dira; baño balio ga-beak, aragiaren atsegiñerako izan ezik.

### III

#### Bizitza berria.

<sup>1</sup> Beraz, Kristo'rekin berpiztu ba'zerate, goiko ondasun-billa zabiltzate; Kristo goyan dago-ta, Jainkoaren eskui-aldean eserita (\*). <sup>2</sup> Goiko gauzak itzazute gozagarri; ez lur-gañoak. <sup>3</sup> Ilda zaudete, ta zuen bizia Jainkoarengan, Kristo'rekin dago ezkutatua. <sup>4</sup> Kristo, zuen bizia, agertuko danean, zuek ere Arekin agertuko zerate argitsu.

#### Lengo griña txarretatik iges egin bear.

<sup>5</sup> Beraz, ito zazute zuen gorputz-atalean lurkoi dan guztia; aragikeria, lizunkeria, zantarkeria, zalekeria ta zenkeria, edo berdin dana, sasi-jainkoak gurtzea; <sup>6</sup> aue-txengatik bait-dator Jainkoaren asarrea gizaki sinisgogorren gañera. <sup>7</sup> Zuek ere noizbait ibilli zerate orrelakoetan, beste oyekin bizi zinatenean. <sup>8</sup> Baño orain kendu itzazute zuek

ere gauza auek guztiak: asarrekeria, gorrotoa, gaiztakeria, gaizki-esateak eta itz zatarrak. <sup>9</sup> Alkarri ez ziririk sartu; erantzi zazute gizon zarra bere egite guztiakin <sup>10</sup> eta jantzi gizon berria, bere Egillearen arauz, ezaguera osoa irixteko beti berriztatzen ari dan gizon berria. <sup>11</sup> Egillearengan ez dago ez grezitarrik, ez judutarrik, ez erdaundurik, ez erdaingaberik, ez erdaldunik, ez eszitarrik, ez morroirik, ez bere eskukorik; guztietan guztia Kristo da-ta (\*).

#### Kristau-birtuteak.

<sup>12</sup> Beraz, Jainkoaren aukeratu, santu ta maitagarri zeraten ezker, jantzi zaitzete biotz-errukiz, ondasunez, apaltasunez, otzantasunez, eramanpenez. <sup>13</sup> Alkar ondo artuaz, eta, zuen artean asarrebiderik ba'litz, alkarri barkatuaz; Jaunak zuei barkatzen dizuten bezela, barkatu zayozute zuek ere alkarri. <sup>14</sup> Baño, guzti oyen gañetik, jantzi zazute maitasuna, zuzentasun osoaren lokarria bera da-ta (\*). <sup>15</sup> Zuen biotzetan bego errege Kristo'ren pakea; ortarako izan bait-zerate, gorputz bat eginda, deituak (\*). <sup>16</sup> Bizi bedi oparo zuengan Kristo'ren itza, jakintzarik aundienaz alkar argiturik eta beroturik, eresiz, kantuz eta gogozko abestiz zuen biotzetan Jainkoari goraltzak eta eskerrak emanaz. <sup>17</sup> Eta itzez, naiz egitez bururatzen dezuten guztia, egin zazute Kristo'ren izenean, Onen bidez Jainko Aitari eskerrak emanaz.

#### Senitarteko eginbearrak.

<sup>18</sup> Emazteak beren senarren mendean egon ditezela. Jaunarengan egoki dan bezela. <sup>19</sup> Zuek, senarrok, maite itzazute zuen emazteak, eta ez gogorak izan zere oyekin. <sup>20</sup> Semeok, egin zayozute esana zuen gurasoai, gauza guztietan, ori Jainkoaren gogoko da-ta. <sup>21</sup> Gurasuok, ez sumindu zuen seme-alabak, txepel biurtu ez ditezten. <sup>22</sup> Mo-



rroyok, aragibidezko nagusien esanak egin itzazute guztietan; ez ordea, morroi-lanak ayen begien aurrean bakarrik egin, eta gizonai atsegin emateko bezela bakarrik, baizik-eta, biotz ziñez eta Jaunaren bildurragatik. <sup>23</sup> Egiten dezuten guztia biotzez egin, Jainkoarentzat bezela, ez gizonentzat bezela; <sup>24</sup> Jainkoak emanda ondarea (erentziya) artuko dezutela jakin. Izan zaitezte, bada, Kristo Jaunaren morroi on. <sup>25</sup> Txarkeria egiten duanak, egin duan txarkeria artuko du sari, Arengan (Jainkoarengan) ez baita norkeririk.

#### IV

##### Otoitza ta zentzuna.

<sup>1</sup> Nagusiok, zuzen ta bidezko dana eman zayezute zuen morroyai; jakin zuek ere ba-dezutela nagusi bat zerruan. <sup>2</sup> Egin otoitza, eta erne egon eskerrak ematerakoan; <sup>3</sup> guretzat ere otoitza egin, Kristo'ren misterioa erakusteko, itzarentzat bidea Jainkoak zabal dezaigun, Onen (Kristo'ren) maitasunagatik giltzapean nagon ezkerro, egoki zaidanez itzegiñaz, Berri Ona zabaldu dezadan. <sup>5</sup> Kanpokoakin zentzunez itzezin, egokierak artuta (\*). <sup>6</sup> Zuen izpidea atsegiña izan dedilla ta gatzduna, bakoitzari dagokion erantzuna emanaz.


##### Tikiko ta Onesimo.

<sup>7</sup> Nere goraberen berri, nere anai maite, laguntzalle zintzo ta Jainkoaren morroikide dedan Titiko'k emango dizute; <sup>8</sup> gure berriak izan ditzazuten eta zuen biotzetan poza eraman dezaizuten bialtzen dizutet, <sup>9</sup> zuen artekoa dan Onesimo anai zintzo ta maitearekin batera. Auek emango dizute emen gertatzen danaren berri.

##### Azken-agurrak.

<sup>10</sup> Agur egiten dizute Aristarko'k, nere giltzape-lagunak; baita Markos'ek ere, Bernabe'ren lengusuak; onetzaz artu dituzute agindu batzuk; zuetara joaten ba'da, ondo ar zazute; (\*) <sup>11</sup> baita Zuzena deritzan Jesus'ek ere agur egiten dizute; auek bakarrik ditut erdaindueta Jainkoaren erreñurako lankide, ta nere pozgarri izan dira. <sup>12</sup> Agur egiten dizute Epafras'ek; Jesukristo'ren morroi au zuetakoa da, ta beti leiatsu zuentzat otoiizean ari da, Jainkoak zuetatik nai duan guztia oso-osorik egiten iraun dezazuten. <sup>13</sup> Zuegatik lan aundiak artzen dituala nik aitortzen dizutet; bai Laodizea'n eta Ieropolis'en daudenegatik ere. <sup>14</sup> Agur egiten dizute Lukas'ek, mediku maiteak, eta Demas'ek (\*). <sup>15</sup> Gorantziak Laodizea'ko anai-arrebai, ta Ninfari ta onen etxeke elizari. <sup>16</sup> Eta eskutitz au irakurtzen dezutenean, Laodizea'ko elizan ere irakurri dezatela; eta zuek ere irakurri zazute Laodizea'ra idatzi dedana (\*). <sup>17</sup> Arkipo'ri esan zayozute: Begira Jaunarengandik artu dezun eginkizuna, bete dezazun. <sup>18</sup> Agurra, nik, Paulo'k, nere eskuz egindakoa da. Gogora itzazute nere kateak. Bego zuekin grazia.





## PAULO DONEAK TESALONIKA'KOAI EGINDAKO LENENGO ESKUTITZA

### I

#### Agurra.

<sup>1</sup> Paulo'k, Silbano'k eta Timoteo'k, Jainko Aitarengan eta Jesukristo Jaunarengan *bilduta dagon* Tesalonika'ko elizari: Grazia ta pakea zuei.

#### Tesalonika'ko Elizak Berri Onari dion zintzotasuna.

<sup>2</sup> Jainkoari zuengatik guztiongatik eskerrak ematen ari gera asper gabe, gure otoitzetan beti gogoan zaituzteguna, <sup>3</sup> gure Jainko ta Aitaren aurrean, zuen sinismen-egintzak, zuen maitasun-lanak eta Jesukristo gure Jaunaren itxaropenean dezuten iraupena gogora ekarririk. <sup>4</sup> Ba-dakigu, Jainkoaren maiteok, *onek* nola aukeratu zinduzten. <sup>5</sup> Berri Ona ez genizuten itzez bakarrik agertu; baita bere indarrez, Espiritu Santuz eta uste osoz ere. Ba-dakizute nola jokatu genuan zuen artean, zuen onerako. <sup>6</sup> Eta zuek, estualdi aundietan ere, nik esandakoa (Berri Ona), Espiritu Santuaren pozez artuta, gure ta Jaunaren jarraitzale egin zintan; <sup>7</sup> Mazedonia'ko ta Akaya'ko fededun guztientzat

jarraibide izateraño. <sup>8</sup> Izan ere, Jainkoaren itza zuen birtetz zabaldu da, ez Mazedonia'n eta Akaya'n bakarrik, baita baztar guztietara ere iritxi da Jainkoaganako zuen sinismena. Ortan ez degu zer-esanik. <sup>9</sup> Izan ere, guztien aotan dabil zuen artean izan genuan arrera ona, eta sasi-jainkoen irudietatik Jainkoarengana biurtu ziñatela, egizke Jainko biziaren morrontzan bizitzeko, <sup>10</sup> eta Jesus Aren Semea –illen artetik piztua–, zerutik itxaroteko, etorri bear duan asarrealditik ark atera bait-ginduan.

### II

#### Paulo'k Berri Ona zabaltzen du Tesalonika'n.

<sup>1</sup> Ba-dakizute, anayok, ez giñala zuetara alperrik joan. (\*) <sup>2</sup> Filipos'en ainbeste neke ta irain igarota gero, –zuek dakizuten bezela–, gure itxaropena Jainkoarengan ipiñita, Jainkoaren Berri Ona, borroka gogorren erdian, erakutsi genizuten (\*). <sup>3</sup> Eta etzan gure erakutsietan ez asmo okerrik, ez zitalkeririk, ez maltzurkeririk nastu; <sup>4</sup> baizik, Berri Ona zabaltzeko Jainkoak aukeratuta geundelako, asmo onez egin genizuten itz: ez gizakien ederra irabaztearren, giza-biotzak aztertzen dituan Jainkoarena irabazteko baizik. <sup>5</sup> Izan ere, zuek ongi dakizuten bezela, ez degu beñere losintzatzeko itzegin; ezta dirugosez ere, Jainkoak ba-daki. <sup>6</sup> Ez degu gizonen gorapenik billatu, ez zuenik, ez beste iñorenik. <sup>7</sup> Kristo'ren apostolu geranez, zuen aurrean nagusi bezela agertu gintezkenarren, umetxo bezela agertu gera zuen artean, bere umeak azitzen ari dan iñudea bezela. <sup>8</sup> Orrela, zuenganako maitasunak bultzata, Jainkoaren Berri Ona ez-erik, gure biziak ere eman nai genizkizuten; ain maitagarri biurtu ziñaten guretzat! <sup>9</sup> Gogora itzazute, bada, anayok, gure lanak eta nekeak; zue-

tako inortxorentzat neketsu izan ez gintezen, gau ta egun, lana egiñaz, zabaldu genizuten Jainkoaren Berri Ona.

<sup>10</sup> Sinistu zendutenakin egin genuan bizitza zintzo, zuzen eta akats-gabearen testigu, zuek eta Jainkoa zerate, <sup>11</sup> Ba-dakizute, aita batek bere semeai bezela, ematen genizkitzuten burubideak eta kemena ta aginduak, <sup>12</sup> bere erreñura ta aintzara dei egin zizuten Jainkoari dagokion bezela bizi izan zindezten. <sup>13</sup> Orregatik, Jainkoari beti eskerrak ematen ari gera, Bere itza gure aotik artu zenu-tenean, ez gizonena, baizik Jainkoarena zalakoan artu zenu-telako. Izan ere, Jainkoarena da, ta sinistu dezutenetan lan ederra ari du benetan. <sup>14</sup> Zuek, anayok, Judea'n dauden Jainkoaren elizak artu dituzute Jesukristo'rengan jarraibide; ayek judutarrengatik artu zituzten neke berberak artzen dituzute-ta zuek ere erritarrengandik. <sup>15</sup> Judutarrak Jesus Jauna ta igarleak il egin zituzten; guri ere eraso egiten digute. Ez dira Jainkoaren gogoko, ta gizon guztien aurka daude; <sup>16</sup> atzerritarrai itzegitea eta ayen salbazioa irixtea galerazi egiten dute. Orrela beren pekatuen neurria beterik daukate. Baño, ba-datorkie gañera Jainkoaren asarrea ta gañez egiteraño etorriko zaye, etorri ere.

#### **Berriz ere Tesalonika'ra joateko gogoia ageritzen du.**

<sup>17</sup> Anayok!; zuen maitasunetik ez ba'da ere, zuen begietatik urruti geundela, zuek lenbaitlen ikusteko gogo bizia sartu zitzaigun; eta <sup>18</sup> ortarako egiñalak egin genitun bein-da berriz ere; nik, Paulo'k bai beintzat; baño Santanas'ek galerazi zigun. <sup>19</sup> Izan ere, zein izango da gure itxaropena, gure poza ta aintzazko koroya Jesukristo gure Jaunaren aurrean, bere etorreran? Ez al zerate zuek? <sup>20</sup> Bai orixe!; zuek zerate gure poza ta gure aintzal

### III

#### **Paulo'k, Timoteo'ren bitartez, Tesalonika'tarren berriak jakiten ditu.**

<sup>1</sup> Orregatik, geyago itxaron ezinda, Atenas'en baka-rrik gelditzea erabaki genuan; <sup>2</sup> eta zuen sinismena sendotzeko ta berotzeko, gure anai ta Kristo'ren Berri Onean Jainkoaren morroi *dan* Timoteo biali genizuten, <sup>3</sup> larrialdi ontan inor kezkatu ez dedin. Ondo dakizute ortarako gaudela; <sup>4</sup> zuen artean geundenean, aurreratu genizuten, larrialdiak izango genitula; eta ala gertatu zan, ondo dakizuten bezela. <sup>5</sup> Orregatik, geyago itxaron ezinda, zuen sinismenaren berri-eske biali det; tentatzallea zuen artean zirikatzen ibillita, gure lana alperrik izan etzedin. <sup>6</sup> Orain, Timoteo etorrita, zuen sinismenaren eta maitasunaren berri onak ekarri dizkigu; baita guretzat beti dezuten oroipenaren berri ere, ta nik zuek bezela, zuek gu ikusteko daudazuten gogoia agertu digu. <sup>7</sup> Ori dala-ta, anayok, gure premi ta larrialdi guztien erdian, poz aundia artu degu.

<sup>8</sup> Orain, bai, bizi gera, Jaunarengan sendo zaudetela jakiñik. <sup>9</sup> Nolako eskerrak emango dizkiogun Jainkoari, gure Jainkoaren aurrean ain pozik gaudenok, zuen arpegia ta zuen sinismenari palta zayona betetzeko, <sup>10</sup> gau ta egun erreguz otoitz egiten degunean! <sup>11</sup> Gure Jainko ta Aitak Berak eta Jesukristo gure Jaunak zuzendu ditzala zuetara joateko gure bideak; <sup>12</sup> eta zuei alkarganako ta guztienganako maitasuna geitu ta indartu dezaizutela *Jau-nak*, gurea zuenganako dan bezela; <sup>13</sup> zuen biotzak sendotu ditezen eta onbidean, gure Jainko ta Aitaren aurrean errugabe agertu zaitetzten, Jesus gure Jaunaren azken-etorreran bere santu guztiakin. Amen.

## IV

**Santutasunerako, goi-maitasunerako ta lanerako deya.**

<sup>1</sup> Azkenik, ba-dakizute, guk erakutsita, Jainkoaren gogoko izateko bidea; bide ortatik ibilli bear dezute; eta eskatzen eta esaten dizutegu gero ta geyago aurreratzeko. <sup>2</sup> Ba-dakizkizute Jesus Jaunaren izenean eman genizkitzuten aginduak. <sup>3</sup> Zuek santu izatea bait-da Jainkoaren naya; aragikeria uztea; <sup>4</sup> bakoitzat bere gorputza santutasunez eta lotsa onez zaitzen jakin dezala; (\*) <sup>5</sup> ez, ordea, griñakerietan, Jainkoaren ezaguerarik ez duten atzerritarrak bezela. <sup>6</sup> Ontan ez dezayola iñork anayari (lagun urkoari) azpikeririk naiz kalterik egin; guzti ortan zigortzalle bait-da Jainkoa, len esan genizuten bezela. <sup>7</sup> Ez bait-gaitu Jainkoak loikerirako deitu, santutasunerako baizik. <sup>8</sup> Beraz, auek gutxiesten dituanak, ez du gizona gutxiesten, bere Espiritu Santua eman zigun Jainkoa baizik.

<sup>9</sup> Goi-maitasunari buruz, berriz, ez dezute gure eskutitz-bearrik; alkar nola maite izan bear dezuten Jainkoak berek erakutsi dizute; <sup>10</sup> goi-maitasun ori, Mazedonia guztian, anai-arreba guztiakin egiten dezutena da. Baño, anayok, bide ortan aurrerago joan zaitezela eskatzen dizutegu, <sup>11</sup> ta zuen egitekoetan bizitza paketsua ta lankorra eramaten alegindu zeitezela, zuen eskuz lana egiñaz, eskatu izan dizutegun bezela; <sup>12</sup> *Elizatik* kanpora claudenen begietan zintzotasunez bizi zaitezten eta ezeren bearrik izan ez dezazuten.

**Ildakoen piztuera.**

<sup>13</sup> Ildakoi buruz, ez degu nai zuek ez-jakiñean ego-terik, itxaropenik ez dutenak bezela naigabetu etzaitezten. <sup>14</sup> Jesus il zala ta piztu zala sinisten ba'degu, Jesus'engan ildakoiak ere Jainkoak Arekin batean Berarengana jasoko

ditu. <sup>15</sup> Auxe diotzutegu Jaunaren itzez; bizi geranok, Jaunaren etorrerako utzitakuok, ez diegula ildakoi aurre-rik artuko; <sup>16</sup> Goiaingeruaren deadarrez eta Jainkoaren turuta-otsez dei eginda, Jauna Bera jexkiko da zerutik; eta Kristo'rengan ildakoiak piztuko dira lenen; <sup>17</sup> gero gu, bizi geranok, gelditu giñanok, aidean, odeyetan zear Kristo'rengana eramana izango gera, eta orrela Jainkoarekin egongera gera beti. <sup>18</sup> Orregatik, alkar poztu zazute itz auekin.



## V

**Zai egon bear.**

<sup>1</sup> Denborai eta uneai dagokienez, ez dezute iñoren eskutitz-bearrik; <sup>2</sup> zeurok dakizute ondo Jaunaren eguna, lapurra gabaz bezela, etorriko dala (\*). <sup>3</sup> «Au da pakea ta lasaitasuna gurea», esaten ari diranean, etorriko bait-zaye ondamendia bat-batean gañera, erditzeko dagonari aur-miñak bezela; eta ez dute igesik egingo. <sup>4</sup> Zeuoi dago-kizutenez, berriz, ez bizi illunpetan, egun orrek, lapur-rrak bezela, arrapatu etzaitzaten; <sup>5</sup> guztiok argi-seme ta egun-seme zerate; etzerate gabarenak, ezta illunarenak ere. <sup>6</sup> Beraz, ez zaitzela loak artu, besteak bezela; baizik-eta esna bizi ta neurritz (\*). <sup>7</sup> Lo egiten dutenak, gabaz egiten dute lo; ta mozkortzen diranak, gabaz mozkortzen dira. <sup>8</sup> Baño, gu egun-semeok, neurritsu izan gaitezen, bularrerotzat sinismena ta maitasuna jantzirik, eta burukotzat osasun-itxaropena *artuta*. <sup>9</sup> Ez bait-gaitu Jainkoak asarre-rako (ondamendirako) egin; Jesukristo gure Jaunaren bidez osasuna irixteko baizik; <sup>10</sup> izan ere, Kristo gugaitik il zan, bizitzan eta eriotzan Arekin alkartuta bizi gaitezen. <sup>11</sup> Orrela, beraz, len ere egiten dezuten bezela, alkar poztu ta onbideratu zazute.

**Azken-burubideak eta agurrak.**

<sup>12</sup> Zuen artean lanean ari diranai, ta Jaunarengan zuen buru ta konsejulari diranai, menpetasuna agertu dezayezutela eskatzen dizutegu zuei, anayoi; <sup>13</sup> eta ari duten lanagatik, ayenganako maitasunik aundiena izan dezazutela. ta zuen artean pakean bizi zaitezela. <sup>14</sup> Biurriai gogor egitekero ere eskatzen dizutegu. anayoi; makalak indarberritu ditzazutela, aulak ondo artu ta guztientzat eraman aundiko izan zaitezela. <sup>15</sup> Iñork ez dezayola iñori txarrik txarrez ordaindu, bestela baizik; egin zayozute beti on alkarri ta guztiai. <sup>16</sup> Pozik egon beti, <sup>17</sup> ta aspertu gabe otoitz egin. <sup>18</sup> Eskerrak eman zaikiozute Jainkoari gauza guztietan, ori bait-da zuekiko, Jesukristo'rengan, Jainkoaren naya. <sup>19</sup> Espiritua ez itzali (\*). <sup>20</sup> Ez gutxietsi iragarpenak. <sup>21</sup> Azter zazute guztia, ta on dana artu. <sup>22</sup> Egin zazute iges txar-itxuradunetik ere. <sup>23</sup> Pakearen Jainkoak bete-betean santutu zaitzatela, ta zuen espirituak, zuen animak eta zuen gorputzak oso-osorik, erru gabe iraun dezatela, Jesukristo gure Jaunaren etorrerako. <sup>24</sup> Zintzoa da dei egin dizutena, ta, bete ere, beteko du esana. <sup>25</sup> Anayok, otoitz egizute gure alde. <sup>26</sup> Laztan santuz agurtu itzazute anai guztiak. <sup>27</sup> Eskutitz au anai guztiai irakur bekie; Jesukristo'rengatik eskatzen dizutet. <sup>28</sup> Jesukristo gure Jaunaren grazia bego zuekin.



**PAULO DONEAK TESALONIKA'KOAI  
EGINDAKO BIGARREN ESKUTITZA**

**I**

**Agurra.**

<sup>1</sup> Paulo'k, Silbano'k eta Timoteo'k, Jainko gure Aita-rengan eta Jesukristo Jaunarengan dagon Tesalonika'ko elizari; <sup>2</sup> grazia ta pakea izan ditezela auekin, Jainko Aitarengandik eta Jesukristo Jaunarengandik.

**Tesalonika'tarrak sinismenean eta goi-maitasunean egin zituzten aurrerapenak.**

<sup>3</sup> Zuengatik, beti eskerrak eman bear dizkiogu Jainkoari, anayok, eta au oso bidezko da, zuen sinismena gero-ta-geyago aunditzen ari bait-da, ta zuen maitasuna gero-ta-geyago berotzen. <sup>4</sup> Gu ere, zuek zeratela-ta, arroturik gaude Jainkoaren elizetan, zuengan artzen dituzuten eraso ta neke guztietan agertzen dezuten eramanpen eta sinismenagatik. <sup>5</sup> Guzti ortan, Jainkoaren erabaki zuzena ageri da; Jainkoaren erreiñua merezi dezazuten, (erreiñu) orrengatik nekeak eraman bait-dituzute; <sup>6</sup> Jainko zuzenaren begietan bidezko da-ta atsekabetzen zaituztenai atse-

kabea ematea; <sup>7</sup> eta zuei, atsekabetuoi, gurekin batean atsedena. <sup>8</sup> Jainkorik ezagutu nai ez eta Jesus gure Jaunaren Berri Onik bete nai ez dutenakugarretan zigortzeko Jesus Jauna zerutik bere aingeru-taldeekin agertzean. <sup>9</sup> Olakoak betiko ondandian artuko dute zigorra, Jaunaren arpegitik eta Onen indarraren aintzatic urruti; <sup>10</sup> bere santuetan goratua ta, gure aitormena entzunda, sinistu dezuten guztietan, egun artan, ederretria izateko etorriko danean.

<sup>11</sup> Orretarako, zuen alde eten gabe erregutzen ari gera, gure Jainkoak bere deyaren gai egin zaitzaten, eta bere nai errukitsua ta zuen sinismen-egitekoa bere eragiñez bete ditzan, <sup>12</sup> eta Jainkoaren eta Jesukristo gure Jaunaren graziz, zuengan Jesukristo gure Jaunaren izena goratua izan dedin, baita zuek ere Arengan.

## II

### Jesukristo'ren bigarren etorrera.

<sup>1</sup> Jesukristo gure Jaunaren etorrerari buruz eta Arekin egingo degun alkartzeari buruz, auxe eskatzen dizutegu, anayok; <sup>2</sup> etzazutela bereala iritzia aldatu, ezta ikaratu ere Jaunaren eguna gañean omen dala zabaldu dezaken espirituaeren bat, edo guri leporatu dezaiguketen itzaldi edo eskutitzen bat dala gora-bera. <sup>3</sup> Ez dezaizutela iñork iñola ere ziririk sartu; lenago, sinismen-ukatzeak etorri bear bait-du, eta gaiztakeri-gizonak — ondandendi-semeak — ere agertu bear bait-du; <sup>4</sup> *gizon au* Jainkoaren izena daraman edo gurtzen duan edozeren kontra jartzen eta altxatzen da, Jainkoaren etxean exertzeraño ta bere burua Jainkotzat erakusteraño.

<sup>5</sup> Ez al dezute gogoan, zuen artean negonean, auxe be-

rau esan nizutela? <sup>6</sup> Orain ba-dakizute zerk daukan geldi, agertzeko bere garaya etorri artean. <sup>7</sup> Gaiztakerizko misterioa ari da lanean; eragozten diona baztertzea bakarrik pelta da orain (\*). <sup>8</sup> Eta orduantxe agertuko da gizon gaiztotzar ura, ta Jesus Jaunak bere aoko arnasez il egingo du ta, bere etorrerako agerketaz, ezereztuta utziko <sup>9</sup> Gaizto ori, berriz, Satanaseñ indarra lagun artuta, etorriko da: era guztietako gezurrezko mirariz, ezaugarritz, arrigarritz (\*), <sup>10</sup> eta lillura gaiztoz betea, salbatuko zituan egiaren maitasuna artu etzutelako, galdu bear dutenentzat. <sup>11</sup> Orregatik Jainkoak gezurrezko indar bat bialtzen die, <sup>12</sup> gezurra sinistu dezaten, eta, egia sinistu bearrean, gaiztakeria onartu duten guztiak galdu ditezen.

<sup>13</sup> Gu, ordea, Jaunaren maiteok, zuengatik Jainkoari beti eskerrak eman bearrean gaude, Espirituaren santutasunez eta egiazko sinismenez osasuna irixteko, Jainkoak asieratik aukeratu zaituztelako. <sup>14</sup> Ortarakoxe dei egin zituzten, ain zuzen, *Jainkoak* gure Berri Onaren bidez, Jesukristo gure Jaunaren aintza iritxi dezazuten. <sup>15</sup> Zaudete, beraz, sendo, anayok, eta zaitu itzazute naiz gure itzez, naiz gure eskutitzez artu dituzuten erakutsiak (\*). <sup>16</sup> Bere grazi utsez maite izan zinduzten, eta betiko poza ta uste ona eman zizkituzten Jesukristo gure Jaunak, eta gure Jainko ta Aitak poztu bitza zuen biotzak eta egite ta itz on guztirako sendotu.


## III

### Baurbide batzuk.

<sup>1</sup> Azkenik, anayok, egizute otoitz gure alde, Jaunaren izena zabaldu dedin eta Bera (Jaungoikoa) zuen artean bezela, goratua izan dedin, <sup>2</sup> eta gizon oker eta gaiztoen-

gandik onez atera gaitzan, sinismena ez bait-da guztiena. <sup>3</sup> Baño zintzoa da Jauna, ta Berak sendotuko ta gordeko zaituzte gaiztoetatik. <sup>4</sup> Agindu dizuteguna betetzen dezutela uste degu Jaunarengan, eta emendik aurrera ere beteko dezutela. <sup>5</sup> Jaunak zuzendu ditzala zuen biotzak Jainkoaren maitasunean eta Kristo'ren eramanpenean. <sup>6</sup> Gaizki bizi dan edozein anaiarengandik, eta guregandik artu dituzuten aginduai jarraitzen ez dietenengandik alde egin zazute; Jesukristo gure Jaunaren izenean agintzen dizutegu. <sup>7</sup> Ondo dakizute zer egin bear dezuten gure antza izateko, ez giñan-da alperkerian bizi izan zuen artean; <sup>8</sup> iñoren ogirik ere ez genuan utsaren alde jan; oso bestela baizik, gau ta egun, egiñalean eta nekearen-nekez egin genuan lan, zuetako iñorentzat neketarako izan ez gindezen. <sup>9</sup> Eta ez ortarako eskubiderik ez genualako, gu bezela ibiltzeko ikasbidea utzi nai genizutelako baizik. <sup>10</sup> Lanik egin nai ez dunak, ez dezala jan, esaten genizuten zuen artean egon giñanean. <sup>11</sup> Izan ere, zuen artean batzuk nagikerian bizi dirala entzun degu, ezer egin gabe, dana jakin-nayean <sup>12</sup> Olakoi agintzen eta eskatzen diegu Jesukristo gure Jaunaren maitasunarengatik, pake-pakean lana egin, eta beren ogia jan dezatela.

<sup>13</sup> Eta zuek, anayok, ez aspertu on egiten. <sup>14</sup> Eta noibaitek eskutitzez ematen dizutegun agindu au betetzen ez ba'du, nabarmendu alakoa, eta ez ibilli arekin; lotsatu de-dilla. <sup>15</sup> Ala ere, etzazute olakoa etsai bezela artu; baizik-eta anai bezela, bereak esan (\*). <sup>16</sup> Beti ta nun-nai pakean bizitzea eman dezaizutela pakearen Jaunak. Jauna bego zuekin guztiokin (\*). <sup>17</sup> Agur au, neronek, Paulo'k, nere eskuz egindakoa da. Auxe da nere eskutitz guztietan ezau-garri; olaxe idazten det. <sup>18</sup> Jesukristo gure Jaunaren grazia bego zuekin guztiokin.



## PAULO DONEAK TIMOTEO'RI EGINDAKO LENENGO ESKUTITZA

### I

#### Agurra.

<sup>1</sup> Paulo'k, Jainko gure Salbatzallearen eta Jesukristo gure itxaropenaren aginduz, Jesukristo'ren apostolu onek <sup>2</sup> sinismenean seme jator, Timoteo'ri: grazia, errukia ta pakea Jainko Aitarengandik eta Jesukristo gure Jaunarengandik.

#### Timoteo, Efeso'n.

<sup>3</sup> Mazedonia'ra joan nitzanean, Efeso'n geldi zindezela eskatu nizun, norbaitzuei erakutsi arrotzik etzezatela zabaldu agintzeko (\*), <sup>4</sup> eta ipuietan eta amaigabeko jatorri-lerroetan ere etzitezela ari; olakoak egokiago bait-dira eztabaidak sortzeko, sinismenean dagon Jainkoaren egitekoa aurreratzeke baño. <sup>5</sup> Berri Onaren elburua, berriz, biotz garbitik, barren onetik eta sinismen utsetik *jayotzen dan* maitasuna da; <sup>6</sup> eta oyetatik okertu egiten dira batzuk, eta uskerietara jotzen dute, <sup>7</sup> esaten eta erakusten dutena uler-tu ere gabe, beren buruak Lege-maixu agerturik.

**Legea.**

<sup>8</sup> Ba-dakigu, Legea, bear bezela erabiltzen duanarentzat, ona dala. <sup>9</sup> Ala ere, gogoan artu: Legea ez dala zintzoentzat, gaiztoentzat baizik; biurrientzat, okerrentzat eta pekatariantzat, erlijiorik eta Jainko-maitasunik ez dutenentzat, gizon-iltzalleentzat, <sup>10</sup> aragikerietan eta sodomakerietan dabilzantentzat, morroi-lapur, gezurti ta zinausleentzat erakutsi onaren kontra jartzen dan guztiarentzat; <sup>11</sup> erakutsi au, nere gain utzi zitzaidan Jainko zoriondunaren Berrri On goragarriarekin egoki dator.

**Paulo'ren eginbearra.**

<sup>12</sup> Eskerrak ematen dizkiot sendotu ninduan Jesukristo gure Jaunari; neri eginbearra ematerakoan, zintzo etsi nindulako; <sup>13</sup> artu ere, ni, lenbizi Kristo'ren biraolari ta erasotzalle izana artu bait-ninduan. Baño, gure Jaunaren errukia iritxi nuan, nere sinisgabean, ezjakiñez egiten nuan-da; <sup>14</sup> baño graziak neregana gañez egin zuan, Jesukristo'rengan dagoan sinismenez eta maitasunez. <sup>15</sup> Egia da ta guztiak aintzat artzekoa; Jesukristo lurrera pekatariak salbatzera etorri zala; eta pekatarietan lenengo ni naiz. <sup>16</sup> Baño, orretxegatik iritxi nuan errukia, Jesukristo'k bere biotzbera osoa lenen neregana erakutsi zezan, eta betiko bizitzarako Argan sinistu bear zutenentzat jarraibide izan jakien. <sup>17</sup> Gizaldien Erregeari, illezkorra ta ikusieziña dan Jainko bakarrari, aintza ta omena gizaldiz-gizaldi. Amen.

**Burubide bat Timoteo'ri.**

<sup>18</sup> Agindu au ematen dizut zuri, Timoteo nere seme orri: zutzaz lendik egindako igarkizunetan begiak ipiñita, ekin zayozu burruka onari, <sup>19</sup> sinismen eta barren zuzenez. Barren on ori galdu zuten batzuek, sinismencan ere

ondatu egin ziran; <sup>20</sup> ayen artean, Imeneo ta Alexander, b) auek Satanas'i eman nizkion, birarorik ez egiten ikasi dezaten (\*).

## II

**Gizaki guztien alde otoitz egin bearra.**

<sup>1</sup> Gizaki guztien alde eskari, otoitz, errege ta esker-ema-teak egin ditezela eskatzen dizut lenen; <sup>2</sup> erregeen eta agintzen dauden guztien alde: zintzo ta garbi, bizitza paketsuan bizi gaitezen. <sup>3</sup> Ona ta atsegiña da au Jainko gure Salbatzallearen begietan; <sup>4</sup> gizaki guztiak salbatzea ta egiaren ezaguera irixtea nai du-ta. <sup>5</sup> Izan ere, bakarra da Jainkoa, baita Jainkoaren eta gizonen bitartekoa ere; gizona dan Jesukristo, <sup>6</sup> bere burua guztien erospenerako ordain eman zuana. Aldi egokian emandako aitormena da au; <sup>7</sup> eta ori zabaltzeko ipiñia nago ni albistari ta apostolu, egia diot; ez gezurra!, atzerritarren maixu sinismencan eta egian.

**Otoitza. Senar-emazteak.**

<sup>8</sup> Beraz, gizonezkoak leku guztietan otoitz egitea nai det, esku garbiak jasorik, asarrerik eta eztabaidarik gabe. <sup>9</sup> Baita emakumeak ere, jantzi egokiz, lotsaz eta eratasunez; ille arrorik, urrekirik, arri-bitxirik eta soñeko aberatsik gabe; <sup>10</sup> egite onak azalduaz baizik, onbideari jarraitzen dion emakumeai dagokienez. <sup>11</sup> Emakumeak ikasi beza ixil-ixilik eta apal-apal. <sup>12</sup> Ez det ontzat ematen emazteak senarrari erakustea, ezta agintzea ere; emaztea ixilik egon dedilla; <sup>13</sup> lenen egiña Adan izan bait-zan; eta gero, Eba. <sup>14</sup> Eta lilluratua etzan Adan izan, Eba baizik; eta lilluratuta, agindua autsi egin zuan. <sup>15</sup> Ala ere,



*emakumea* salbatuko da umeen azierari eskerrak, sinismenean eta maitasunean eta garbitasunean eratasunez irauten ba'du.

### III

#### Eliz-agintariak.

<sup>1</sup> Egia da au: Norbaitek eliz-gotzaigoa nai ba'du bereztat, eginbide ona nai du. <sup>2</sup> Baño, gotzaiak akats-gabea izan bear du, bein bakarrik ezkondua (\*), neurritsua, zentzunduna, atsegiña, arrotz-maitea ta erakusteko gauza; <sup>3</sup> ez ardozalea, ezta auzilaria ere; bakarkoya baizik, pake-tsua, ez diruzalea; <sup>4</sup> bere etxean buru izaten jakin dezala, seme-alabak mendean eukitzen jakin dezala, eta onbidetan; <sup>5</sup> izan ere, nola izango da Jainkoaren Elizaren buru, bere etxeko buru izaten ez ba'daki? <sup>6</sup> Ez dedilla kristau-berri izan, arrokeriak puztuta, deabruaren mendean erori ez dedin. <sup>7</sup> Arrotzen artean ere entzute ona izan bear du, izen ona galdu ez dezan eta deabruaren sareetan erori ez dedin (\*).

#### Diakonoak.

<sup>8</sup> Diakonoak (laguntzalleak) ere ortarako egokiak izan bear dute, ez aozuri; ez ditezela ez ardo-zale ez diruzale izan; <sup>9</sup> biotz garbian gorde dezatela sinismenaren misterioa. <sup>10</sup> Lenen, azter bitez, ta gero, akats-gabeak ba'dira, bete dezatela beren eginkizuna. <sup>11</sup> Emakumeak ere eratsuak izan bear dute, ta ez txatxalak; neurritsuak eta gauza guztietan zintzoak. <sup>12</sup> Diakonoak bein bakarrik ezkonduak izan ditezela, beren seme-alabak eta etxeak ondo zaitzen dakitenak; <sup>13</sup> beren eginkizuna ondo betetzen dutenak. Jesukristo'rengan degun sinismenean leku goragarria ta nagusitasun aundia izango dute-ta.

#### Eliza.

<sup>14</sup> Zu ikustera laxter joango naizenen itxaropenez idazten dizut au; <sup>15</sup> luzatzen ba'det, Jainkoaren etxean nola jokatatu bear dezun jakin dezazun; *Jainkoaren etxea* Jainko biziaren Eliza da-ta, egiaren zunttoi ta oñarri. <sup>16</sup> Izan ere, ezpairik gabe, aundia da erruki-sakramentua, «aragitan agiria, espirituan donetua, aingeruai erakutsia, atzerriai azaldua, lurrean sinistua ta aintzaz jasoa» (\*).

### IV

#### Sasi-maixu berriak.

<sup>1</sup> Ala ere, azken aldi auetan, batzuk sinismena ausi egingo dutela dio argi ta garbi Espirituak; gogo lilluratzaleai ta deabruaren erakusleai jarraituko bait-diete, <sup>2</sup> gezur-saltzalleen zurikeriaren bidez, beren biotzak suaz-gogortuta dituztela; <sup>3</sup> oyek ezkontza debekatu egiten dute, baita zenbait janari ere; egia sinistu ta oso-osorik onartu duten *zintzoak* eskerrak emanaz jan ditzaaten Jainkoak sortutako zenbait janari. <sup>4</sup> Izan ere, Jainkoak sortutako guttia ona da; eta eskerrak emanaz artu ezkeru, ez da ezer baztatu bear; <sup>5</sup> Jainkoaren itzez eta otoitzez donetu egiten bait-da dana gutzia.

#### Erakusbide batzuk.

<sup>6</sup> Anayai au erakusten ba'diezu, Jesukristo'ren morroi zintzo izango zera, sinismenaren itzez eta artu dezun erakusbide onez azitakoa. <sup>7</sup> Itzpide ergelak eta atso-ipuyak baztatu itzazu erabat, eta ekin bizitza jainkozalean; <sup>8</sup> gorputz-jinasiak ezer gutxitarako balio du; bizitza jainkozalea, ordea, guztietarako da on; oraingo ta geroko bizitarako agintzariak dauzka-ta. <sup>9</sup> Egiatzko erakutsia da au

ta bete-betea artzekoa. <sup>10</sup> Au dala-ta, gabilta neketan eta burrukan, gure uste ona gizaki guztietan, eta batez ere fededunen Salbatzale dan Jainko biziarengan ipiñi de-gu-ta (\*).

<sup>11</sup> Auxe erakutsi ta zabaldu bear dezu. <sup>12</sup> Inork ez de-zala zure gazte izatea gutxietsi; izan zaitez, baizik, sinis-mendunentzat jarraibide, izketan, jardunean, maitasunean, sinismenean, garbitasunean. <sup>13</sup> Ni joan bitartean, arretaz artu irakurtzea, burubideak ematea ta erakustea. <sup>14</sup> Ez on-datu zuregan dagon grazia, itz ezkutuen indarrez, batza-rreko apaizen esku-ipintzeaz eman zitzaizun grazia. <sup>15</sup> Auxe izan bedi zure egitekoa, oni ekin, zure aurrerapena guztiak ezagutu dezaten. <sup>16</sup> Zaitu zazu zere burua, ekin erakus-teari, iraun ortan. Au egiñaz, zerori salbatuko zera ta zu-re entzuleak ere salbatu egingo dituzu.

## V

### Elizatarrentzat nolako izan.

<sup>1</sup> Zaarrrik ez gogor artu, baizik eta aitari bezela, buru-bide onak eman; mutillai, anayai bezela; <sup>2</sup> emakume zaarrai, amai bezela; neskatai, arrebai bezela, garbiro. <sup>3</sup> Andre alargunai, benetako alargunai, izan zayezu begirune. <sup>4</sup> Eta alargunen batek semeak edo illobak ba'ditu, ikasi beza, batez ere, bere etxeakoak zaitzen eta gurasoai eskerro-na izaten; ori bait-zayo atsegin Jainkoari. <sup>5</sup> Benetako alar-guna, berriz, bakarrik gelditu dana, Jainkoarengan beza bere itxaropena, ta gau ta egun otoitzean ari bedi. <sup>6</sup> Atse-giñetan bizi dana, berriz, bizi izanarren, ilda dago. <sup>7</sup> Era-kutsi auek emaikiezu, akats-gabeak izan ditezen.

<sup>8</sup> Beretarren eta batez ere etxeakoen arretarik ez dua-nak, berriz, sinismena ukatu egin du, ta sinisgabea baño

ere gaiztoago da. <sup>9</sup> Alarguna, gutxienez irurogei urtekoa aukeratu bear da, senar bakarraren emaztea izandakoa (\*), <sup>10</sup> egite onetan ezaguna, seme-alabak azitzen. arrotzai osta-tua eskeintzen, eta santuen (kristauen) oñak garbitzen, atse-kabetuai laguntzen eta era guztietako egite onak burura-tzen arretatsu izandakoa. <sup>11</sup> Alargun gordiñak, berriz, baz-tartu itzazu; beren gorputz-griña Kristo'rengandik okertu danean, ezkondu egin nai izaten dute-ta; <sup>12</sup> orrela, berei lenengo leyaltasuna utzi dutelako, kaltegarri egiten dira. <sup>13</sup> Gañera, ala alperkerian bizitzen ikasten dute ta etxe-rik-etxe ibilli oi dira; eta ez dira alpertu bakarrik egiten, baita berritsutu ere, ta non zer jakingo ibiltzen dira ta bear ez diranak itzegiten. <sup>14</sup> Beraz, alargun gazteak ezkon-ditezela nai det, eta seme-alabak azi ditzatela, eta etsaya-ri ez dezayotela inñolako itzbiderik eman. <sup>15</sup> Oyetako bat-zuk bidea galdu, ta Satanas'en atzetik joan dira. <sup>16</sup> Fe-dedunen batek etxean alargunik ba'leuka, lagun bezayo. Elizarentzat neketsu ez dedin; orrela, onek (Elizak) bene-tako alargunai lagun dezayen (\*).

### Apaizakin nola ibilli.

<sup>17</sup> Ondo agintzen duten apaizai begirune bikoitza izan bear zaye, *Berri Ona* zabaltzen erakusten lan egiten ba'du-te, batipat. <sup>18</sup> Ala dio Liburu Santuak: «Gari-aleketan da-billen idiari ez muturrekorik ipiñi»; ta «langilleari bere sa-ria zor zayo» (\*). <sup>19</sup> Apaizaren aurka egindako salaketa-rik etzazu aintzat artu, bi edo iruren testigutzarekin ez ba'da. <sup>20</sup> Pekatu egiten dutenai itzezin zayezute gogor guz-tien aurrean, besteak bildur izan ditezen. <sup>21</sup> Jainkoaren eta Jesukristo'ren eta aingeru aukeratuen aurrean agintzen di-zut: egin zazu esandako au, dana-dala zure aurreko iri-zia, ta inñoren ederragatik ezer ere egin gabe. <sup>22</sup> Ez esku-rik errezegei inñori erantsi, besteen pekatuetan eskuartu ez

dezazun. Iraun zazu garbi. <sup>23</sup> Emendik aurrera ez ur utsik edan, ardo pixka batekin baizik, zure urdallarengatik eta maiz izan oi dituzun ondoezengatik. <sup>24</sup> Gizakien pekatuak, batzuk auzitara baño len gelditzen dira agirian; beste batzuk, berriz, auzi-ondoren bakarrik. <sup>25</sup> Era berean, egite onak ere; batzuk jakin egiten dira; eta onak ez diranak, ezin gelditu ditezke ezkutuan.

## VI

### Morroj-jopuak eta jabeak.

<sup>1</sup> Uztarpean bizi diran jopu-morroj guztiak jabeai begirunerik aundiena izan bezayete, Jainkoaren izena ta erakutsia biraogarri biurtu ez ditezen. <sup>2</sup> Nagusi fededunaren jopuak – anai diralakoan –, ez bezate ura (nagusia) gutxietsi, obeto serbitu baizik; morroi-lan ona artzen dutenak fededun eta (anai) maitagarri bait-dera. Orixe da zuk erakutsi eta burubide eman bear dezuna.

### Sasi-maixuak.

<sup>3</sup> Norbaitek besterik erakusten ba' du, ta Jesukristo gure Jaunaren itz osasungarriai eta ikasbide jatorrai arretarik ipintzen ez ba' die, <sup>4</sup> ezjakin arroputza da ta asmaketi ta ipui zoroetan naspillatua dabil. Ortitxek datoz ikusi-eziñak, eztabaidak, biraoak, susmo txarrak, <sup>5</sup> bizitza jainkozalea irabazpidetzat daukaten adimen usteleko ta egigabe-ko gizakien auzi-mauziak. <sup>6</sup> Izan ere irabazi aundia da bizitza jainkozalea, bizitzeko pasakizun bat ba-danean; <sup>7</sup> ez degu mundu ontara ezer ekarri, eraman ere, ez degu ezer eramango. <sup>8</sup> Beraz, zer-jan ta zer-jantzia izan ezke-

ro, oinbestez pozik bizi bear degu (\*). <sup>9</sup> Aberats izan ai dutenak, tentaldian erortzen dira ta sare ta diru-gose zorro ta kaltegarri aundietan; orretxek galtzen eta ondatzen du gizakia. <sup>10</sup> Izan ere, gaitz guztien zuztarra diru-gosea da, ta onek eraginda, batzuen batzuk sinismenetik alden- du egin dira ta neke ta atsekabe aundietan sartu.

### Iraunpenerako burubideak.



<sup>11</sup> Zuk, ordea, Jainkoaren seme orrek, egin zazu iges grina txar oyetatik, eta jarrai zuzenbideari, bizitza jainkozaleari, sinismenari, goi-maitasunari, eramanpenari ta otzantasanari (\*). <sup>12</sup> Ekin gogor sinismen aldeko borrokari, irabazi zazu betiko bizitza, ortarako deitua izan zifan ezkeror; au, (betiko bizitza), testigu askoren aurrean aitortu ere, ederki aitortu bait-zenuan. <sup>13</sup> Gauza guztiai bizia ematen dien Jainkoaren aurrean, eta Pontzio Pilatos'en aurrean aitormen ona egin zuan Jesukristo gure Jaunaren aurrean agintzen dizut: <sup>14</sup> agindutakoa garbi ta okerrik gabe bete dezazula, Jesukristo gure Jaunaren etorrera arte; <sup>15</sup> Au (Jesukristo) bere garayan, agertu-eraziko du Jainko Bakar, erregeen Errege ta jaunen Jaunak (\*), <sup>16</sup> illezkor bakar-bakarrak, inor inguratu ezin diteken argitan bizi danak, gizonetako inork ere ikusi ere ezin dezaken Ark. Berari aintza ta betiko agintaritza. Amen.

### Aberatsentzat burubideak.

<sup>17</sup> Mundu ontan aberats diranai, agindu zayezu ez dezatela beren ustea ondasun aldakorretan ipiñi; Jainkoarengan baizik; Onek guztia ugari ematen digu-ta goza dezagun. <sup>18</sup> On egiten ikasi dezatela, egite onetan aberasten, ematen errezak eta eskuzabalak izaten, <sup>19</sup> eta ondasun bikaña gerorako biltzen, egiazko bizitza irabazten.

**Azken-a.**

<sup>20</sup> Ene Timoteo! Zaitu ezazu eman zaizun gordairua, berriketa gaiztoetatik eta sasi-jakinduri biurrietatik iges egiñaz. <sup>21</sup> Batzuen batzuk, jakinduri ori ba-zutela-ta, sinismenetik urruti, galdu egin dira. Bego grazia zuekin.



PAULO DONEAK TIMOTEO'RI EGINDAKO  
BIGARREN ESKUTITZA

## I

**Agurra.**

<sup>1</sup> Paulo'k, Jesukristo'rengan dagon bizitzaren agintzari-arauz, Jainkoaren nai-izatez, Jesukristo'ren apostolu naizen onek, <sup>2</sup> Timoteo nere seme maiteari, grazia, errukia ta pakea Jainko Aitarengandik eta Jesukristo gure Jaunarengandik.

**Eskerrak ematen.**

<sup>3</sup> Nere otoitzetan eten gabe, gau ta egun, gogora ekartzan zaitudanean, nere aurrekoen antzera, biotz garbiz mirabetzen dedan Jainkoari eskerrak ematen dizkiot, zure malkoak gogoratuaz, <sup>4</sup> zu ikusi-nayez, zure sinismen zintzoaren oropenez pozez bete nadin. <sup>5</sup> Sinismen ori, lenago zure amona (amandre) Loide'rengan eta zure ama Eunize'rengan bizi izan zan, eta orain zuregan ere bizi dala uste det bene-benetan.

**Berri Onaren lotsarik ez izan.**

<sup>6</sup> Au dala-ta, nere esku-ezartzez zeregan dezun Jainkoaren grazia bizitu dezazula gogoratzen dizut (\*). <sup>7</sup> Ez bait-digu Jainkoak bildur-espirtua eman, indar-espirtua baizik, eta maitasun-espirtua ta neurri-espirtua. <sup>8</sup> Beraz, gure Jauna aitortzeak ez zaitzala lotsatu, ezta ni, Aren giltzapeko au aitortzeak ere; bestela baizik; eramaitzazu nekeak nerekin batera, Berri Onaren alde, Jainkoaren indarrez. <sup>9</sup> Berak atera ginduan onez eta dei egin zigun dei santuz; ez gure egiteen indarrez, baizik eta bere erabakiaren indarrez eta betikotasun guztitik Jesukristo'rengan eman zaigun graziarengatik. <sup>10</sup> *Grazi au* orain nabarmendu da, Jesukristo gure Jauna agertu danetik; Onek ondatu du eriotza ta argitara atera bazia ta illeziña. Berri Onaren bidez; <sup>11</sup> eta *Berri On* onen zabaltzalle, apostolu ta maixu jarria izan naiz ni. <sup>12</sup> Onengatik eramaten ditut nekeak; baño ez naiz lotsatzen; ondo bait-dakit norengan uste izan dedan; eta ziur nago, ba-duala almen, nere gordaillua egun artara arte zaitzeko. <sup>13</sup> Eutsi zayozu, Jesukristo'ren sinismenerako ta maitasunerako entzun dizkidazun itz zintzoen jarraibideari. <sup>14</sup> Zaitu zazu, guregan dagon Espiritu Santuaren indarrez, gordaillu ederra.

**Paulo'ren ikasle batzuk.**

<sup>15</sup> Ba-dakizu Asia'ko guztiak atzea eman didatela; oye-tako bi Fijelo ta Ermojenes dira (\*). <sup>16</sup> Onesiforo'ren etxe-koentzat Jainkoak izan dezala erruki; askotan indarberritu naute ta etzuten beñere nere kateen lotsarik izan; <sup>17</sup> oso bestela baizik, Erroma'ra etorri zanean, nere billa ibilli zan alegiñez, arkitu ninduan arte. <sup>18</sup> Egun artan, Jaunaren cndoan, Jainkoaren errukia izatea eman dezayola Jaunak. Nik baño obeto dakizu zuk Efeso'n eman zidan laguntza guztia (\*).

## II

**Jesukristo'ren gudari ona.**

<sup>1</sup> Jesukristo'rengan dagon graziaz indarberritu zaitez, bada, ene seme; <sup>2</sup> eta testigu askoren aurrean entzun zenidana, azaldu zayezu beste batzuei, erakusteko balio dezateken beste gizon zintzo batzuei. <sup>3</sup> Eraman ondo nekeak, Jesukristo'ren gudari onari dagokion bezela. <sup>4</sup> Gudaritzan dabilena ez da bizitzako gora-beretan nastutzen, aukeratu duanaren begiko izan nai ba'du beintzat. <sup>5</sup> Korrikalariari ere ez diote koroirik ematen, legez jokutzen ez ba'du. <sup>6</sup> Nekazariak nekatu egin bear du, uzta bildu baño len. <sup>7</sup> Ulertu ondo esan nai dizudana, Jainkoak guzti onen eza-guera emango dizu-ta.

**Kristo gogoan euki.**

<sup>8</sup> Gogora zazu, Dabid'en jatorriko Jesukristo illen artetik piztu zala, nere ebanjelioaren arauz. <sup>9</sup> Berri On onengatik bizi naiz neketan, gaizkille bezela, kate-artean egoteraño. Baño, Jainkoaren itza ez dago katez lotuta. <sup>10</sup> Au dala-ta, guztia eramaten det, aukeratuen onerako, auek ere Jesukristo'rengandik datorren osasuna iritxi dezaten. betiko aintzarekin. <sup>11</sup> Siñistekoa da diodan au: Arekin iltzen ba'gera, bizi ere Arekin biziko gera; <sup>12</sup> nekeak Arekin eramaten ba'ditugu, erregetza ere Arekin izango degu; ukatzen ba'degu, Ark ere ukatu egingo gaitu; <sup>13</sup> leyal ez ba'gakizkio, Ark leyal iraungo du, ezin bait-du bere izaera ukatu.

**Timoteo'k maixu berriakin erabilli bear duan jokabidea.**

<sup>14</sup> Auxe erakutsi bear dezu, eta Jainkoaren aurrean itzeman, entzuten dituztenean ondamentirako bestetarako ez diran eztabaida zoroak utziko dituzula. <sup>15</sup> Alegindu zai-

tez Jainkoaren aurrean zintzo agertzen, ezertan lotsakizunik ez duan langille bezela, egiaren itza bear bezela erakusten. <sup>16</sup> Utzi itzazu alperrikako berriketak, gaiztakerira errez eramaten dute-ta, <sup>17</sup> ta zabaldu ere, pasmoa bezela zabalitzen dira. Imeneo ta Fileto oyetakoak dira; <sup>18</sup> egitik okertuta, piztuera eginda dagola diote, ta batzuen sinismena ondatu egin dute. <sup>19</sup> Ala ere, Jainkoaren oiñarri sendoak gogor irauten du ezaugarri onekin: «Ezagutzen ditu Jaiunak bereak diranak», eta, «iges egin beza gaiztakeritik, bere ezpañetan Jainkoaren izena artu duanak» (\*). <sup>20</sup> Etxe aundietan ez dira izaten urrezko ta zillarrezko ontziak bakarrik, baita zurezkoak eta buztinezkoak ere; batzuk apaingarri; beste batzuk bearkizun apaletan erabiltzeko. <sup>21</sup> Beraz, orrelako okerbideetan zintzo irauten duana, omenezko ontzi izango da, donetua, Nagusiarentzat zernaitarakoa ta edozein eginkizun onetarako egokia.

<sup>22</sup> Egin zazu iges gaztaroko griñetatik, ta jarraitu zuzentasunari, sinismenari, goi-maitasunari ta pakeari, Jainari biotz garbiz deitzen dioten guztiakin batera. <sup>23</sup> Itzbide zoro ta biurrietatik ere alde egin zazu, asarreak sortzen bait-dituzte beti. <sup>24</sup> Jaunaren morroiak ez du eztabaidetan sartu bear; guztientzat otzan izan bear du, erakusteko gertu ta eramankor; <sup>25</sup> biurriak xamurki artu ta zuzendu ditzala; Jainkoak damua emanda, egia ezagutu dezaten, <sup>26</sup> eta Satanas'ek bere agindua egiteko lotuta dauzkan saretik askatu ditezten.

### III

#### Maixu berxiengandik iges egin bear.

<sup>1</sup> Azken-egunetan denbora txarrak etorriko dirala jakitanean egon bear dezu. <sup>2</sup> Izan ere, gizakiak berekoi, zeken, arro, aundiputz, biraolari, gurasoentzat biurri, esker-txa-

rreko, gaizto, <sup>3</sup> biotz-gogor eta adiskide-saltzalle, gaitz-erasale, lizun, barren-gaizto, onaren etsai, <sup>4</sup> azpi-saltzalle, ausera ta itsu biurtuko dira, Jainkoa baño atsegiñak maitago dituztela, <sup>5</sup> azalez bizitza Jainkozale itxurarekin, baño barruz oso urruti. Orrelakoetatik ere alde egin bear dezu: <sup>6</sup> orrelakoetakoak bait-dira, etxeetan sartu, eta emakume argalen gogoia irabazten dutenak; *emakume orreik*, pekatuz beterik eta era askotako griña txarrez eramanda. <sup>7</sup> beti ikasten ari izanarren, ez dira iñoiz ere egiaren ezauguera osora eltzen. <sup>8</sup> Eta Jamnes'ek eta Manbres'ek Moises'i bezela, sinismena galdu duten biotz usteleko oyek egiari aurpegia ematen diote (\*). <sup>9</sup> Baño, ez dira berean aurrera joango, lengo ayena agertu zan bezela, auen zorakeria ere guztien aurrean agertuko bait-da.

#### Onbidean iraun egin bear.

<sup>10</sup> Ba-dakizu, berriz, zerorrek ikusita, zein diran nere ikasbidea, nere bizikera, nere sinismena, nere biotz-zabala, nere maitasuna, nere eramanpena, <sup>11</sup> nere kontrako erasoaldiak, nere nekeak; baita Antiokia'n eta Ikonia'n eta Listras'en igaro bear izan nituanak ere. Nik artu nituan erasoak! Eta ala ere, guzti oyetatik Jainkoak onez atera ninduan. <sup>12</sup> Izan ere, Jesukristo'rengan bizitza Jainkozalez bizi nai duten guztiak, erasoaldiak izango dituzte. <sup>13</sup> Baño, gizaki gaiztotzar eta gezurtiak, gero ta okerrago ibilliko dira, ayek besteai ziria sartu ta besteak ayei. <sup>14</sup> Baña, zu zaude sendo ikasi ta sinistu dezun guztian, erakutsi zizutena gogoan arturik; <sup>15</sup> umetandik ezagutu dituzun Liburu Santuak, Jesukristo'ren sinismenaren bidez osasun-bidean zuri argi egiteko altsuak dira-ta. <sup>16</sup> Jainkoaren espirituz egindako idazteun guztia, egokia bait-da erakusteko, egira erakartzeko, zuzentzeko ta zuzentasunean

ezitzeko; <sup>17</sup> Jainkoaren gizakia, edozein eginbear oneta-rako bikain izan dedin eta jator-jator.

#### IV

##### Timoteo'ri indar berriak ematen.

<sup>1</sup> Jainkoaren aurrean eta biziak eta illak epaitzera etorri bear duan Jesukristo'ren aurrean agintzen dizut bere agertzeagatik eta bere erreiñuagatik; <sup>2</sup> zabal zazu itza (Berri Ona), ekin egokiera dezunean eta ez dezunean, adierazi, eskatu, artu gogor, eta erakutsi eramanpenez. <sup>3</sup> Erakusbide onik eramanez ezingo duten garaya etorriko daita: beren gogoko maixuak bilduko dituzte, belarrientzako atsegingarri; <sup>4</sup> eta belarriak egitik atzeratu egingo dizute, ipuyetara biurtzeko. <sup>5</sup> Zu, ordea, erne egon gauza guztietan, ekin lanari, zabaldu Berri Ona, bete zure egitekoa, neurritsu izan. <sup>6</sup> Ni ba-nijoa, eta laxter egingo du nereak (\*). <sup>7</sup> Burruka ona egin det; korrika-aldia bukatu det; sinismena gorde det. <sup>8</sup> Onenbestez, gerturik dago neretzat zuzentasun-koroya; egun artan Jaun auzilari zuzenak eman go didan koroya; ez, ordea, neri bakarrik, baita Aren agerraldia opa duten guztiai ere.

##### Albisteak.


<sup>9</sup> Atozkida albait laxterren; <sup>10</sup> Dema, mundu oni dion maitasunagatik ni bakarrik utzi, ta Tesalonika'ra joan da; Kreszente, Galazia'ra ta Tito Dalmazia'ra. <sup>11</sup> Lukas bakarrik dago nerekin. Markos ar zazu ta ekarri zurekin, lanetarako oso ona zait-eta. <sup>12</sup> Tikiko Efeso'ra biali det. <sup>13</sup> Zatozanean, ekarri zazu Troas'en, Karpos'nean, utzi nuan soingañekoa, baita liburuak ere, eta batez ere, larripaperak (pergaminoak). <sup>14</sup> Alesander errementariak kalte

aundia egin dit; Jaunak biurtuko dio egin duanaren ordaña. <sup>15</sup> Zuk ere egin zazu alde arengandik, gure itzai gogor egin die-ta. <sup>16</sup> Nere buruaren alde lenbiziko aldiz itzegin nuanean, etzitzaidan alde iñor atera; guztiak bertanbera utzi egin ninduten. Ez dezayela iñork konturik artu (\*). <sup>17</sup> Baña Jauna nere alde nuan eta indarra eman zidan, Berri Onaren zabalketa, nere bidez, osoro bete zedin, eta erri guztiak entzun zezaten. Leoyaren aotik orrelaxe aterea izan nitzan. <sup>18</sup> Jaunak aterako nau gaitz guztietatik eta bere zeru-erreiñurako artuko nau. Berari aintza gizaldiz-gizaldi. Amen.

##### Azken-agurrak.

<sup>19</sup> Agur egin zayezu Priska'ri ta Akila'ri ta Onesiforo'ren etxekoai. <sup>20</sup> Erasto Korinto'n gelditu zan; Trofimo, gaxorik utzi nuan Mileto'n. <sup>21</sup> Azkar ibilli, negua baño len etortzeko. Agur egiten dizute Eubulo'k, Prudente'k, Klaudio'k eta anai guztiak. <sup>22</sup> Jauna bego zure espiritua-rekin. Bego grazia zuekin.





## PAULO DONEAK TITO'RI EGINDAKO ESKUTITZA

### I

#### Agurra.

<sup>1</sup> Paulo'k, Jainkoaren morroi, eta bizitza Jainkozaleari dagokion egi-ezagueraren arauz eta Jainkoak aukeratutako sinismenaren arauz, Jesukristoren aposlotu naizen onek, <sup>2</sup> gezurrik ez dion Jainkoak antziñako denboretatik agindutako betiko bizitzaren itxaropenean, <sup>3</sup> erabakita zeukan garayan, Jainko gure Salbatzallearen aginduz, bere itza zabaltzeko ipiñia naizen onek, <sup>4</sup> Tito'ri, guztion sinismenean seme jator orri, grazia ta pakea Jainko Aitaren-gandik eta Jesukristo gure Salbatzallearengandik.

#### Eliz-agintariak nolakoak izan bear.

<sup>5</sup> Antolatu gabe zeuden gauzak eratzeko ta zuzentzeko, eta, nik agindu bezela, erri bakoitzean zuzendariak (apiazak) ipintzeko utzi zindudan Kreta'n; <sup>6</sup> *apaiz oye*k akats-gabeak izan ditezela, emazte bakarraren senar, seme-ala-ba sinismendunen guraso, ez nabarmen eta biurri iritzi-koak (\*). <sup>7</sup> Izan ere gotzayak, Jainkoaren ordezeko dan ez-

kero, akats-gabea izan bear du: ez arro, ezta asarrekor ere, ez ardozale, ez ikamikalari, ezta irabazi zikiñen maitere; <sup>8</sup> baizik arrotz-maitale, onen lagun, eratsu, zuzen. Jainkomaite, bere jabe, <sup>9</sup> sinismen-itzaren aldeko; ikasbide zuzenari eutsi dezayola, erakutsi onez argitzeko ta aurka daudenak sinismenera ekartzeko gauza izan dedin.

#### Kreta'tarrak.

<sup>10</sup> Izen ere asko bait-dira, biurriak, berritsuak eta liluratzalleak; erdainduetakoak, batez ere; <sup>11</sup> orrelakoi aoa itxi egin bear zaye; olakoak, diru-gose zikiñak eraginda, bear ez dana erakutsiaz, etxeak erabat nastutzen dituzte. <sup>12</sup> Ayetako batek, beren igarleak, ain zuzen, auxe esan zuan: «Kreta'tarrak beti gezurti, pizti txarrak eta jatun aundi» (\*). <sup>13</sup> Aitormen au egia da. Beraz, egin zayezu gogor, sinismenean sendo iraun dezaten, <sup>14</sup> judutarren ipuyai eta egia utzi duten gizonen aginduai ez dezayeten jarraitu. <sup>15</sup> Garbientzat dana da garbi; zikin eta sinisgabekoentzat, berriz, ezer ere ez da garbi; zikinduta bait-dauzkate beren adimena ta burua. <sup>16</sup> Aitortu, aitortzen dute itzez Jainkoa ezagutzen dutela; baño, egitez ukatu egiten dute iguingarri ta biurri utsak izanik, egintza on baterako ere ez bait-dira gauza.

### II

#### Burubide batzuk.

<sup>1</sup> Zuk, ordea, erakutsi zazu ikasbide onari dagokiona; <sup>2</sup> gizon zarrak neurritsu, itzal, ixil, sinismenean, maitasunean eta eramanpenean zintzo izan ditezela; <sup>3</sup> emakume zaarrak ere, santuai dagokien bezelakoak izan ditezela; ez maixiatzalle, ez ardozaleegi, ikasbide onekoak baizik;



" emazte gazteai, zentzudun izaten erakutsi dezayeten, edo-ta, senarrak eta seme-alabak maite izaten; <sup>5</sup> ixillak, garbiak, etxean langileak, biotz onekoak eta senarrarentzat esaneko izan ditezela, Jainkoaren itza biraoz zikindu ez dedin. <sup>6</sup> Mutillai ere zentzudun izan ditezela erakutsi bear diezu. <sup>7</sup> Eta zerorri ere, ager zaitez jarraibide eder, zure ongi egiñen bidez, zintzo ta zentzudun erakusterakoan; <sup>8</sup> itz jatorreko ta akats gabeko, etsaya lotsa dedin eta guz aurka esankizunik izan ez dezan. <sup>9</sup> Morroyak nagusien mendean egon ditezela gauza guztietan; ayen gogoa bete dezatela, ez dezayetela ezezkorik esan, <sup>10</sup> ezta ezer ostu ere, baizik eta guztietan, leyal ager ditezela, Jainko gure Salbatzallearen ikasbideta goratu dedin.

#### Jainkoaren grazia ageritu da.

<sup>11</sup> Izan ere, gizon guztientzat agertu da Jainkoaren grazi osasungarria, <sup>12</sup> gaiztakeria ta lureko naikeria ukatzen erakusten digula, gizaldi ontan, neurritz, zuzen eta Jainkozalez bizi gaitezen, <sup>13</sup> Jainko aundiaren eta Jesukristo gure Salbatzallearen zorioneko itxaropenean eta etorrera ospetsuan gure uste ona degula. <sup>14</sup> Berak bere burua eman zuan guregatik, gu gaiztakeri guztitik ateratzeko, eta Berak aukeratutako erri bat, egite onen arretaz bete, beretzat garbitzeko. <sup>15</sup> Esan zuk au, eta erakutsi eta zuzendu eskubide osoz; ez zaitzala inork gutxietsi.

### III

#### Beste burubide batzuk.

<sup>1</sup> Gogora-erazi zayezu agintari ta buruzagien mendean bizi ditezela; esanak egin eta edozein lan onetarako gertu egon ditezela; <sup>2</sup> ez dezayotela inori izen onik kendu; ez ditezela ikamikazale izan; biotz-oneko izan ditezela, ta gizaki guztientzat, guztietan otzan. <sup>3</sup> Gu ere burugabe,

esanegille txar, oker, griña ta atsegin guztien morroi noiz-bait izanak gera, gure bizitza gaiztakerietan eta ikusi-ezitan igarotzen, gorrotogarri ta alkar ezin ikusirik. <sup>4</sup> Bañe, Jainko gure Jaunaren onginaya ta maitasuna agertu zanean, <sup>5</sup> jayotza berrirako garbitzeaz eta Espiritu Santuaz gu beriztaturik, salbatu ginduan; ez, ordea, zuzenbidez guk egindako ezergatik, bere errukiz baizik. <sup>6</sup> Jesukristo gure Salbatzallearen bidez, *Espiritu Santua* oparo ixuri zigun, <sup>7</sup> Aren graziaz santuturik, betiko bizitzaren onordeko egin gaitezen, guk ustea degunez. <sup>8</sup> Itz au egia da, ta egi auck zuk kementsu erakustea nai det; Jainkoa sinistu dutenak, egite onetan lenen izan ditezten; gauza auek gizakientzat on eta mesedeko bait-dira.


#### Tito'ri burubideak.

<sup>9</sup> Auzi-mauzi zoroak, jatorriak, eta Legearekiko ikamikak eta eztabaidak utzi itzazu alde batera, alperrik dira ta ez dute ezertarako balio-ta. <sup>10</sup> Sinismen-ausleari, bein edo bitan burubide ona eman-ondoren, iges egin zayozu; <sup>11</sup> alakoa oker dabilela, pekatari dala, ta bere pekatuarengatik galdu egingo dala gogoan artuta.

<sup>12</sup> Artemas eta Tikiko zuregana bialtzen ditudanean, zu etorri zaitez lenbaitlen Nikopolis'era ni ikustera, negua bertan igarotzeko asmoa det-eta. <sup>13</sup> Zenon lege-gizonari ta Apolo'ri arretaz eskuratu bear dutena, ezeren utsik izan ez dezaten. <sup>14</sup> Guretarrak ere ikasi dezatela esku-lanean sayatzen, premi aundietan laguntza eman dezaten, eta gizaki protxu-gabeak izan ez ditezten.

#### Azken-agurra.

<sup>15</sup> Agur egiten dizute nerekin dauden guztiak. Zuk egin agur sinismenean maite gaituzten guztiak. Bego grazia zuekin guztiokin.



## PAULO DONEAK FILEMON'I EGINDAKO ESKUTITZA

### Agurra.

<sup>1</sup> Paulo'k, Jesukristo'ren giltzapetu onek eta Timoteo anayak, gure adiskide ta lankide maite Filemon'i; <sup>2</sup> Apia arrebari; Arkipo gure gudari-lagunari eta zure etxean biltzen dan elizari; <sup>3</sup> grazia ta pakea zuei, Jainko gure Aitarengandik eta Jesukristo gure Jaunarengandik.

### Eskezzak ematen.

<sup>4</sup> Nere otoi-tzetan beti gogoan zaitudala, eskerrak ematen dizkiot Jainkoari (\*) <sup>5</sup> - ezagutzen bait-ditut zuk Jesus Jaunarentzat eta santu (kristau) guztientzat dituzun maitasuna ta sinismena - (\*). <sup>6</sup> Izan ere, zuregan dagon sinismena eragikor biur dedilla, zuen artean dagon on guztiaren ezagueraz, Kristo'ren aintzarako. <sup>7</sup> Poz eta atsegin aundia izan ditut zure maitasunagatik, ene anai!, orain arte, kristauen biotzak zugandik artu duten atsedeenagatik.

### Onesimo'ren alde eskaria.

<sup>8</sup> Orregatik, zer egin bear dezun zuri agintzeko eskubide oso-oso Kristo'rengan, ba-dedanarren, <sup>9</sup> nayago diot

zure maitasunari dei egin. Naizena izanik, Paulo agurea, ta orain gañera, Jesukristo'rengatik giltzapean nagona; <sup>10</sup> kate-artean sortu dedan nere seme Onesimo'ren alde eskatzen dizut (\*). <sup>11</sup> Len zuretzat alperrik izan zana, orain zuri ta neri oso on izango zaigu. <sup>12</sup> Bera bialtzen dizut; obeto esan, bera ez, nere biotza baizik. <sup>13</sup> Nerekin euki nai nuan, Berri Onaren kateetan, zure ordeztan, lagun nindezan. <sup>14</sup> Ala ere, ez det zure baimenik gabe ezer egin nai izan, egite on au beartuta bururatu etzenezan, baizik eta zuk ala naita. <sup>15</sup> Agian orregatik alde egin zizun pixka baterako, gero betiko zurekin izan zenezan: <sup>16</sup> ez gero morroi bezela; baizik morroi baño geyago, anai bezela, ta anai maitagarri bezela gañera; neretzat maite-maitea dan ezkerero, ainbat geyago zuretzat!, ez giza-legez bakarrik, baita Jaunarengan ere (\*). <sup>17</sup> Beraz, zuk ni laguntzat ba'naukazu, ar zazu bera ni bezelaxe. <sup>18</sup> Eta zerbaitetan gaizki egin edo zerbait zor ba'dizu, bego ori neregain. <sup>19</sup> «Nik ordainduko dizut, nere eskuz idatzi dedan Paulo onek», eta ori, zerorri zor zatzaidala ez esatearren. <sup>20</sup> Bai, anai!, artu dezadala nik poz-atsegin au zuregandik Jaunarengan; poztu zazu, Kristo'rengan, nere biotza. <sup>21</sup> Benetan esanekoa zaitudalakoan idazten dizut, eta esaten dizudana baño geyago ziur-ziur.

### Azkena.

<sup>22</sup> Eta asi zaitez neretzat ostatua antolatzen ere, zuen otoi-tzai eskerrak, zuengana biurtua izango naizen ustea det-eta.

<sup>23</sup> Agur egiten dizu Epafras'ek, Jesukristo'gan nire giltzape-lagunak; <sup>24</sup> baita nere laguntzalle Markos'ek eta Aristarko'k, eta Dimas'ek eta Lukas'ek ere. <sup>25</sup> Jesukristo Jaunaren grazia bego zuen espirituarekin. Amen.



## PAULO DONEAK EBREOTARRAI EGINDAKO ESKUTITZA

### I

#### Sarrera.

<sup>1</sup> Jainkoak antziña gure Gurasoai aldi ta era askotan, Igarleen aoz, itzeginda gero, <sup>2</sup> azken egun auetan bere Semearen bidez itzegin digu, Au (Semea) gauza guztien oiñordeko jarririk; gizaldiak ere Onen bidez egin ditu; <sup>3</sup> eta Jainko-aintzaren ditzira ta Aren izatearen irudia izanik, eta gauza guztiai bere itzaren indarrez iraun-erazirik, pekatuen garbikundea eginda gero, zeru goietan Aunditasunaren eskui-aldean eseri zan, <sup>4</sup> aingeruak baño gorago jasoan, ondarez auek baño izen bikañagoaren jabe dan aiñean.

#### Kristo aingeruen gañetik dago.

<sup>5</sup> Izan ere, zein aingeruri esan dio iñoiz: «Zu nere Semea zera; Nik gaur sortu zaitut»?; eta berriz: «Aita izango natzayo ni ta bera Seme izango zait»? (\*). <sup>6</sup> Eta beste bein, Lensemea munduan sartu zuanean, ala dio:

«Gurtu bezate Jainkoaren aingeru guztiak» (\*). <sup>7</sup> Aingeruengatik, berriz, ala dio: «Bere aingeruak espiritu ta bere morroyak sugar egiten dituana» (\*). <sup>8</sup> Eta Semearengatik: «Zure Errege-aulkia, Jainko, gizaldiz-gizaldi; ta zure Errege-makilla, zuzentasun-makill (\*). <sup>9</sup> Zuzentasuna maite izan zenduan eta gaiztakeria gorroto; orregatik, Jainkoak poz-jarioz igurtzi zaitu, zure lagunak baño ere geyago» (\*). <sup>10</sup> Eta beste batean: «Zuk, Jauna, asieran lurra sendo gogortu zenduan, eta zeruak zure eskuak egiñak dira. <sup>11</sup> Ayek ondatu egin dira; Zuk, ordea, iraun egiten dezu; eta guztiak, soñekoa bezela zartu egingo dira. <sup>12</sup> Eta soingañekoa bezela bilduko dituzu eta soñekoa bezela aldatuko dira, Zu, berriz, beti bat zera, ta zure urteak ez dute amairik izango» (\*). <sup>13</sup> Eta, zein aingeruri esan zion beñere: «Eseri zaite nere eskui-aldean, zure etsayak zure oiñazpian ipintzen ditudan bitartean»? (\*). <sup>14</sup> Ez ote dira guztiak morroi izateko espirituak, osasuna ondare artu dutenai launtzeko bialduak?

### II

#### Sinismenean iraun bear.

<sup>1</sup> Beraz, entzun deguna arreta aundiz jaso bear degu, oker-bidera joan ez gaitezen. <sup>2</sup> Aingeruak esandako itza ziñezkoa izan ba'da, ta edozein agindu-austek eta gaiztakerik ordain zuzena artu ba'du, <sup>3</sup> nolatan egingo degu iges guk, ainbesteko osasun-bidea gutxitzat ba'daukagu? Osasun au, lenengo Jaunak iragarrita, entzun zutenen aitormenez sendotua iritxi zaigu; <sup>4</sup> eta Jainkoak egiztatu du mirarien, arrigarrien eta bere almenaren era askotako ezau-garrien bidez eta Espiritu Santuaren doayez, bere gogoan danean.

**Kristo gure benetako eroslea.**

<sup>5</sup> Aitatzten degun etorkizuneko mundu au ez du Jainkoak aingeruen mende utzi (\*). <sup>6</sup> Norbaitek aitortu ere egin du nonbait: «Zer da gizona gogoan dezazun?; edo, zer gizasemea, ikusaldia egin dezayogun? <sup>7</sup> Aingeruak baño pixka bat txikiago egin zenduan; koroï eder eta argitsua ipiñi diozu buruan; (\*) <sup>8</sup> dana guztia Aren oñazpean jarri dezu» (\*). Dana guztia Aren oñazpian jarri duala esatean, berriz, ez du Aren azpian egon ez ditekenik ezer utzi. Baño, orain ez degu ikusten oraindik dana Aren mende dagonik. <sup>9</sup> Aingeruak baño pixka bat txikiago gertatu zan Jesus Bera, bai, ikusten degu, igaro zuan eriotzarenatik, koroï ederrez eta argitsuz jantzita; Jainkoari eskerrak, guztion onerako eriotza artu bear bait-zuan.

**Zergatik il zan Jesus?**

<sup>10</sup> Eretzat eta Berarengatik gauza guztiak egin zituaniari, seme asko aintzara eramán nai zituaniari bait-zegokion ayen osasun-egillea oñaze-bidez bikaintzea. <sup>11</sup> Etorri ere, Donetzaltea ta donetuak, guztiak jatorri batetik datoz. Orregatik, ez da lotsatzen ayci «anai» izenaz deitzen, <sup>12</sup> esanaz: «Zure izena nere anayai agertuko diet; batzarren erdian goratuko zaitut» (\*). <sup>13</sup> Eta berriz: «Nere uste Ona Berarengan ipiñiko det» (\*). Eta beste bein: «Ona emen ni ta Jainkoak eman zizkidan semeak» (\*). <sup>14</sup> Beraz, semeak odol eta aragi berekoak bait-dira, Berak era berean eskuartu zuan ayekin, eriotzaren almena duana, diabrúa alegia, eriotzaz ondatzeko, <sup>15</sup> ta eriotz-bildurrez bizitza guztian morrontzan zeudenak askatzeko. <sup>16</sup> Lagundu ere, ez die aingeruak lagundu, Abraham'en jatorriari baizik. <sup>17</sup> Orregatik, guztian, anayen antzeko izan bear zuan, Jainkoarenetan Apaiz Nagusi errukior eta zin-

tzoz izateko ta erriaren pekatuak garbitzeko. <sup>18</sup> Zirikaldiak eta nekeak Berak igaro zitalako, gauza da zirikatuaï la-guntzeko.

## III

**Kristo, Moises'en gañetik**

<sup>1</sup> Beraz, zuek, zerurako deya artu dezuten anai doneok, begira zazute Jesus, gure sinismen-aitorketaren Apostolu ta Apaiz Nagusia, <sup>2</sup> bere egillearentzat zintzo bait-da. Aren (Jaungoikoaren) etxe guztian Moises izan zan bezela (\*). <sup>3</sup> Izan ere, Moises baño ere goragarriago da Au (Kristo), etxea baño etxegillea goragarriago dan aña. <sup>4</sup> Etxe guztiak norbaitek egiñak dira-ta; guztien Egillea, berriz, Jainkoa da. <sup>5</sup> Moises, benetan, Aren etxe osoan zintzoa izan zan, esan bear ziranak aitortzeko morroi zanez; <sup>6</sup> Kristo, berriz, bere etxean seme bezela da. Onen etxea gu gera, uste onaren eta itxaropenaren poza, azkenerarte sendo zaitzen ba'ditugu.

**Sinisgabekeria ta Jainkoaren asarrea**

<sup>7</sup> Beraz, Espiritu Santuak dionez: «Aren aotsa gaur entzuten ba'dezute, <sup>8</sup> ez gogortu zuen biotzak, biurrialdian, etemuan zirikal-di-egunean bezela, <sup>9</sup> zuen gurasoak zirikatutu ta aztertu nindutenean; <sup>10</sup> eta berrogei urtez ikusi zituzten nere egintzak. Orregatik, gizaldi onekin asarretu egin nintzan, eta antxe esan nuan: Biotza okerrerako bi-detik darabilkite beti. Eta, ez dituzte nere bideak ezagutu; <sup>11</sup> beraz, asarre bizitan ziñ au egin nuan: «Ez, ez dira nere atsedenean sartuko» (\*).

<sup>12</sup> Begira, anayok!: ez dezala zuetako iñork, Jainko bi-ziarengandik alde egingo duan biotz gaizto ta sinisgabe-

rik; bestela baizik: «gaur» orrek irauten duan bitartean, gogoberotu zazute alkar egunero, pekatuak lilluratuta, zue-takorik gogortu ez dedin. <sup>14</sup> Kristo'rekin artukizun izate-ko egiñak bait-gera, asierako uste onean azkenerarte sendo irautekotan. <sup>15</sup> Ala esaten bait-zaigu: «Aren aotsa entzuten ba'dezute, ez gogortu zuen biotzak, biurrialdian bezela».

<sup>16</sup> Izan ere, nortzuk jarri ziran Aren aurka, entzun ondoren? Ez al ziran jarri, Ejito'tik Moises'en mendean irte-dako guztiak? <sup>17</sup> Eta zeñien aurka asarretu zan berrogei urtetan? Ez al zan pekatu egin zutenen aurka asarretu, basamortuan gorputz gelditu ziranen aurka? <sup>18</sup> Bere atsedenean etzirala sartuko ziñ, zeñi egin zien, esanik egin etzutenai baizik? Eta ba-dakigu sinisgabekeriarengatik ezin sartu izan zirala *Agindutako Lurrean*.

#### IV

##### Jainkoaren atsedenean sartu-bearra

<sup>1</sup> Bildur izan dezagun, bada, Aren atsedenean sartzeko agintzariak irauten duan arren, zuetako norbait ara gabe ez ote dan geldituko. <sup>2</sup> Ayek bezela, guk ere artu bait-degu Berri Ona. Baño entzundakoak etzien onik egin, entzun zutenarekin ez bait-ziran sinismenez bat egin. <sup>3</sup> Gu, ordea, sinistu degunok atsedenera sartu gaitezen, esana dagon bezela: «Asarre bizitan ziñ egin dedan ezkerro: Ez, ez dira nere atsedenean sartuko», Aren (Jainkoaren) lanak munduaren asieratik amaituta zeuden arren. <sup>4</sup> Zazpigarren egunaz, ala dio nonbait: «Eta, zazpigarren egunean, Jainkoak bere lan guztiak utzita, atsedean artu zuan» (\*). <sup>5</sup> Eta toki berean berriro: «Ez, ez dira nere atsedenean sartuko». <sup>6</sup> Beraz, Berarekin sartzeko batzuk gelditzen bait-di-

ra, ta Berri Ona lenbizi artu zutenak, sinistu etzutelako ez bait-ziran sartu, <sup>7</sup> berriro egun bat, «gaur» bat izendatzen du, ainbeste denboren buruan, len esana, Dabid'en aoz berriro esanaz: «Aren aotsa gaur entzuten ba'dezute, ez gogortu zuen biotzak».

<sup>8</sup> Izan ere, Josue'k atsedenean sartu ba'litu, ez luke (Jainkoak) beste egun bat aitatu. <sup>9</sup> Beraz, beste atsedean bat ba-dago Jainkoaren erriarentzat. <sup>10</sup> Eta Aren atsedenean sartzen danak, bere lanetatik ere atsedean artzen du, Jainkoak bere lanetatik artu zuan bezela. <sup>11</sup> Pizkor ibilli gaitezen, beraz, atsedean artan sartzeko, ayen antzera, biurrikeri artan iñor erori ez dedin. <sup>12</sup> Jainkoaren itza, izan ere, bizia ta eraginkorra ta bi aoko ezpata baño zorrotzagoa da, ta animako ta gogoko asmoak ere aztertu egiten ditu. <sup>13</sup> Eta aren aurrean ez dago izaki ezkuturik; dana argi ta garbi dago gure egiteen kontu eman bear diogunaren begietan.

##### Jesukristo, Apaiz Nagusia

<sup>14</sup> Beraz, Jesus, Apaiz Nagusi aundia, Jainkoaren Se-meaz zeruan sartuta daukagun ezkerro, gauden sendo, sinismen-aitorketari elduta. <sup>15</sup> Ez bait-da gure aulaldietan errukirik izan ez dezaken Apaiz Nagusia; baizik eta, pekatuan izan ezik, gauza guztietan gu bezelaxe zirikatua. <sup>16</sup> Joan gaitezen, bada, uste onez graziaren aulkira, errukia iris-teko ta laguntza egokiaren grazia arkitzeko.

#### V

##### Apaiza, zer da?

<sup>1</sup> Izan ere, edozein Apaiz Nagusi, gizonetatik artuta, gizonen alde Jainkoari dagozkion gauzetan jarria da, pekatuarengatik eskeintza ta opariak egin ditzan, <sup>2</sup> eta bera

ere argalkez inguratuta dagon ezkeru, ezjakiñak eta bi. de galduak arrukiz artu ditzan. <sup>3</sup> Ori dala-ta, erriaren alde bezela, bere buruaren alde ere opariak eskeñi bear ditu pekatuengatik. <sup>4</sup> Inork ez du, berriz, goimalla ori beretzat artzen, Aaron'i bezela Jainkoak dei egiten ez ba'dio. <sup>5</sup> Orrela, Kristo'k berak ere ez du Apaizgotza ori artu, «Nere Seme zera zu, Nik gaur sortu zaitut esan zionak emanda baidetik (\*). <sup>6</sup> Beste batean ala dio: «Apaiz zera zu betiko, Melkisedek'en sallean» (\*). <sup>7</sup> Onek (Kristo'k), bere aragi-bizitzaldian, eriotzatik ateratzeko almena zuanari deardar aundiz eta negarrez otoitzak eta eskariak egin zizkion, eta, bere begirune-bildurrarengatik, entzuna izan zan. <sup>8</sup> Eta, Semea izan arren, nekeen artean, esaneko izaten ikasi zuan; <sup>9</sup> eta bikain-bikain, Aren esaneko diranentzat betiko osasunbide egin zan; <sup>10</sup> Melkisedek'en sallean Apaiz Nagusi Jainkoak iragarrita.

#### Beste burubide bat

<sup>11</sup> Onetzaz, itzbide luzeak ditugu eta zaillak, zuek entzuteko ergel biurtu bait-zerate. <sup>12</sup> Aspalditik maixu izan bear zenutekela ere, Jainkoaren ikasbideko asiera-asierak norbaitek berriren-berri erakutsi-bearrean zaudete-ta; eta janari gogorra baño, esnea bearrago dezute. <sup>13</sup> Izan ere, esnez azitzen dana, ez da zintzotasun-ikasbidez jabetzeko gauza, umea bait-da. <sup>14</sup> Janari gogorra, berriz, elduentzat da; oituta daudelako, ona zer, eta zer txarra dan bereizteko sena dutenentzat.

## VI

#### Kristau-bizitzarako burubideak

<sup>1</sup> Orregatik, Kristo'ri buruz asierako ezaguerak alde batera utzita, onenera jo dezagun, oiñarri-egiak berriz

ikuitu gabe. *Auek-alegia*: egite illen damua, Jainkoarengan sinistea, <sup>2</sup> batayoari dagokion ikasbidea, esku-ezartzea, il-dakoen piztuera ta betiko epaya. <sup>3</sup> Eta orixe egingo degu Jainkoaren laguntzarekin. <sup>4</sup> Izan ere, argia bein izan eta zeruko doaya aogozatu, Espiritu Santua artu <sup>5</sup> ta Jainkoaren itz ona ta etortzekoa dan gizaldiaren miragarriak ezagututa gero, <sup>6</sup> erori ziranak, ezin ditezke berrito damurako berriztatu, Jainkoaren Semea, beren aldetik, berriz gurutziltzatu ta lotsagarri utzi duten ezkeru (\*). <sup>7</sup> Sarritan euriz aseta, nekazariak uzta ugaria dakarkieten lurak, Jainkoaren onespina artzen du-ta; <sup>8</sup> arantzak eta sasi-larrak dakarzkian lurra, berriz, txarra da, madarikatu-zorian dago; azkencan, su emango diote.

#### Itxaropen-itzak

<sup>9</sup> Orrela mintzo ba'gera ere, ordea, osasunerako ohea ta egokiagoa dan zerbaite itxaro degu zuengandik. <sup>10</sup> Jainkoa ez da bidegabea, ta ez da aztuko zuek egin dezuten lanaz, ezta Aren Izenari agertu diozuten maitasunaz ere: onengatik santuai (kristauai) len laguntza eman bait-diozute eta orain ere ematen bait-diezute. <sup>11</sup> Arreta ori azkenarte zuetako bakoitzak eukitzea nai degu, itxaro deguna bete-betean iritxi arte, <sup>12</sup> nagitu etzaitzeten; baizik-eta, ondarea (erentzia) sinismenez eta eramanpenez irixten dutenen jarraitzalle izan zaitzeten.

<sup>13</sup> Jainkoak Abraham'i agintzaria egin zionean, ziñ egiteko Bera baño aundiagorik inor etzeukalako, bere buruarengatik egin zion ziñ: <sup>14</sup> «Bai; bedeinkatu ere, bedeinkatuko zaitut; eta ugaritu ere, ugarituko zaitut» (\*). <sup>15</sup> Orrela, itxaroten iraunda, iritxi zuan Abraham'ek agintzaria. <sup>16</sup> Gizonak aundiagoren batengatik egiten dute ziñ. eta ziña da ayentzat eztabaiden bukaera ta erabakitakoen

sendogarria. <sup>17</sup> Ori dala-ta, Jainkoak ere, bere asmoaren alda-eziña agintzariaren oñordekoai agertu nairik, ziñ egi-tera jo zuan; <sup>18</sup> Jainkoak gezurrik esan ezin dezaken bi gauza alda-eziñetan oñarri sendoa izan dezagun, eskeñi-tako itxaropenera iritxi arte korrika gabiltzanok. <sup>19</sup> Itxa-ropen au sendo ta ziur daukagu animaren aingura beze-la, eta estalkiaren barren-alderaño sartua; <sup>20</sup> cmen, (estal-ki-barruan) Jesus sartu zan aurrelari bezela guregatik, Melkisedek'en saillean betiko Apaiz Nagusi eginda.

## VII

**Melkisedek, Kristo'ren irudi**

<sup>1</sup> Izan ere, Melkisedek onek, Salen'go Errege ta Jainko gorenaren Apaiz onek, erregeak azpiratuta zetorren Abrahan'engana aurreraturik, bedeinkapena eman zion onek, <sup>2</sup> - eta Abraham'ek *bere* aldetik guztien amarrenak eman zizkion -, lenengo «Zuzentasun-errege» adierazten du; a gero, «Salen'go errege», edo-ta, «Pake-errege» ere bai (\*). <sup>3</sup> Aitarik gabe, amarik gabe, jatorririk gabe, bere egunen asierarik gabe eta bere bizitzaren bukaerarik gabe, Jainkoaren Semearen antzeko agertuta, apaiz irauten du betiko.

**Melkisedek, Abraham'en eta Lebi'ren gañetik**

<sup>4</sup> Baño, ikusi zazute zenbaterañoa dan au (Melkisedek), guraso nagusi Abraham'ek, gerratean bildutakoen amarrenak eman zizkion au. <sup>5</sup> Apaizgoa artzen duten Lebi'ren semeak, Legearen aginduz, amarrenak, erriarengandik, edo berdin dana, beren anayengandik artu bear dituzte, auek ere Abraham'en belaunekoak izanarren. <sup>6</sup> Ark, (Melkisedek'ek) berriz, Abraham'en jatorritik ez etorriarren, Abraham'engandik artu zituan amarrenak, eta agintzariak

egin zitzaizkiona bedeinkatu egin zuan. <sup>7</sup> Ezin ukatu di-teke, ordea, bedeinkapena artzen duana, bedeinkapena eman ziona baño txikiagoa dala. <sup>8</sup> Eta emen gizon ilko-rrak dira amarrenak artzen dituztenak; an, ordea, bizi dala aitortzen dana. <sup>9</sup> Eta, esan dezagun onelaxe, amarrenen artzalle dan Lebi'k ere, Abraham'en bitartez, amarrenak eman zizkion; <sup>10</sup> oraindik *Lebi* bere aitaren errayetan bait-zeگون Melkisedek bidera irten zitzaionean.

**Lebi'tarren apaizgoa ta legea indargabetua**

<sup>11</sup> Zintzotasuna Lebi'tarren apaizgoaren bidez ba'letor, - Legea erriak *Lebi'tarren* apaizgoaren bidez artu zuan ez-kero -, zertarako atera bearko luke beste apaiz batek Melkisedek'en saillean, eta ez Aron'en saillean izentatu? <sup>12</sup> Apaizgoa aldatu ezkerro, Legea ere aldatu egin bear da. <sup>12</sup> Izan ere, onetzaz esaten ari gerana, beste jatorri batekoa da; eta jatorri ortatik etzan iñor aldare-gizon izan. <sup>14</sup> Age-rian dago gure Jauna Judarengandik jayo zala; Moises'ek, berriz, ez dio ezer apaizgoari buruz, jatorri orretzaz.

<sup>15</sup> Eta au, oraindik agiriago da, Melkisedek'en arauz beste Apaiz bat atera dan ezkerro; <sup>16</sup> ez aragi-legeko agindu baten bidez, galdu ezin ditekenez biziaren indarrez baizik. <sup>17</sup> onetzaz aitormen au dago eginda-ta: Apaiz zera zu be-tiko, Melkisedek'en saillean» (\*). <sup>18</sup> Oncla, lengo agin-dua makala ta alperrekoa zan ezkerro, indargabetuta gel-ditu zan, <sup>19</sup> ezer ez bait-du Legcak bete-betean osotu; Jainkoarengana cramaten gaituan uste oberako sarrera baka-riik zan.

**Kristo'ren apaizgoa betikoa**

<sup>20</sup> Eta ori ziñik egin gabe ez bait-da gertatu, -besteak bai, ziñik gabe apaiz gertatu ziran; <sup>21</sup> au (Kristo), berriz,

ziñarekin egin zuan apaiz, «Jaunak ziñ egin du ta etzayo damutuko: Apaiz zera zu betiko» (\*) esan zionak-, <sup>22</sup> Itumen obeagoaren bitarteko gertatu zan Jesus. <sup>23</sup> Eta aye-takoak asko izan ziran apaiz egiñak, criotzak gale-razi egiten bait-die irautea; <sup>24</sup> Onek, ordea, beti irauten dualako, betiko apaizgoa dauka. <sup>25</sup> Orregatik, Jainkoaren-gana, bere bitartez, inguratzen diranai, betiko osasuna eman dezayeke, beti gure alde egiteko bizi bait-da.

<sup>26</sup> Orrelakoxe Apaiz Nagusia bear genduan: santua, errugabea, orbangabea, pekatarietatik berezia ta zeruak baño goragokoa; <sup>27</sup> beste apaizak bezela, bere pekatuen-gatik lenen, eta erriarenengatik gero, opariak eguncro es-keñi bearrik ez duana; ori bein bakarrik egin zuan, bere burua eskeñiaz. <sup>28</sup> Benetan, Legeak gizon argalak egin zituan apaiz nagusi; Legearen ondorengo ziñ-itzak, ordea, Semea ipiñi zuan betiko bikain.

### VIII

#### Kristo, Itun Berriko bitartekoa

<sup>1</sup> Esandakoen muña auxe da: Apaiz Nagusi bat daukagula, zeruetan Goi-goikoaren alkiaren eskui-aldean eserita, <sup>2</sup> eta gizonak ez, Jaunak Berak, egindako toki santua-ren eta txabola jatorraren serbitzari. <sup>3</sup> Apaiz Nagusi dana, eskeintzat eta opariak egiteko dago ipiñita; beraz, zer-eskeñia euki bear du. <sup>4</sup> Lurcan ba'lego, ez litzake apaiz ere izango, opariak Legez eskeintzeko aukeratuak ba-dau-de-ta. <sup>5</sup> Apaiz auek, zerukoaren irudi ta itzala danaren morrontzan ari dira, txabola egin bear zuanean, Moises'j esan zitzaion bezela: «Begira, -esan zion Jaunak-: guz-tia mendian erakutsi zaizunaren antzeko egin bear de-zu» (\*).

<sup>6</sup> Baño, eginkizun ohea artu du gure Apaiz Nagusiak. agintzari obectan oiñarritutako itun bikañagoaren bitarte-ko bait-da. <sup>7</sup> Lenengo Itun ark akatsik izan ez ba'lu, be-rria egin bearrik ez litzake-ta. <sup>8</sup> Jainkoak ayei gogor egi-ñaz, auxe esaten die: «Begira: ba-datoz egunak -dio Jaunak-, eta itun berri bat egingo det Israel'en etxearekin eta Juda'ren etxearekin: <sup>9</sup> baño, ez, Ejito'tik ayen gura-soak ateratzeko, eskutik eldu nien egunean ayekin egin nuan bezelakoa; ayek ezutzen nere itunean zintzo irauin; eta nik ere, bertan-bera zapuztu egin nituan -dio Jau-nak-. <sup>10</sup> Auxe da -dio Jaunak- egun ayen ondoren, Israel'en etxearekin nik egingo dedan ituna: Nere Legeak buruan irarriko dizkiet eta biotzetan idatziko. Eta Ni izan-go naiz ayen Jainko, ta ayek nere erri izango dira. <sup>11</sup> Eta iñork ez dio bere urkoari, ez bere anayari erakutsiko, «za-gutu zazu Jauna» esanaz: guztiak, txikienak eta aundienak, ezagutuko bait-naute; <sup>12</sup> ayen gaiztakerien errukia izango det, eta ayen pekatuak ez ditut berriz gogoratuko» (\*).

<sup>13</sup> «Itun berria» esatean, lengoa zartuta dagola dio. Zartutakoa ta zarpildutakoa, berriz, ezkutatzeko zorian dago.

### IX

#### Kristo Apaiza zeruko Elizan sarizen da

<sup>1</sup> Lenengo itumenak ba-zituan bere jai-legeak eta lu-rreko bere Eliza Santua. <sup>2</sup> Lenengo, txabola bat egin zan; eta Santua zeritzan aldean, argi-mutilla, maya ta opari-ogiak zeuden. <sup>3</sup> Bigarren estalki-ondoren, Santu-Santua ze-ritzan tokia; <sup>4</sup> an, usai-gozen urrezko aldarea ta alde guz-tietatik urrez estalitako itun-kutxa; kutxa-barruan, berriz, urrezko ontzi bat manarekin, ezetu zan Aaron'en makilla



ta itun-olak zeuden; <sup>5</sup> kutxa-gañean, aintzaren Kerubiñak, barka-olari itzal egiten. Orain ez degu oyetako bakoitzaz itzegin bearrik.

<sup>6</sup> Oyek orrela gerturik zeudela, txabolako lenbiziko egon-lekuan, apaizak egunero sartzen ziran, opari-lanak egitera; <sup>7</sup> bigarrenean, berriz, Apaiz Nagusia bakarrik, urtean bein, eta iñola ere ez odolik gabe, ordain ori bere utsegiñengatik eta erriarenengatik eskeintzeko. <sup>8</sup> Orrela, Espiritu Santuak adierazi nai zuan, lenengo txabola zutik zegon bitartean, etzegola zabaldua etxe santurako bidea. <sup>9</sup> Antz-irudi ori oraingo denborari dagokio: egiten ziran eskeintzak eta opariak ez bait-ziran gauza, eskeintzen zituana barruz ontzeko; <sup>10</sup> aldaketa-garai au iritxi arte, ipiñitako jan-cdari eta garbiketa batzuei dagozkien aragi-legeak besterik ez bait-ziran.

#### **Pekatuaren garbiketa, Kristo'ren bidez**

<sup>11</sup> Kristo, berriz, geroko ondasunen Apaiz Nagusi agerturik, giza-eskuz egiña ez dan – edo berdin dana, lur ontan egiña ez dan – txabola obe ta bikañagoan zear, <sup>12</sup> etxe Santuan bein betiko sartu zan; ez, ordea, akerreren eta zekorren odolez, bere odolez baizik, betiko erospena buruturik.

<sup>13</sup> Zikin daudenak, akerreren eta zekorren odolez eta beyaren autsaz zirpriztinduta, aragi-garbiketarako done-tzen ba'dira, <sup>14</sup> zenbat geyago, betiko Espirituz, bere Kristo'ren odolak garbituko du zuen barrena egite illetatik, Jainko bizia serbitzeko? <sup>15</sup> Eta orregatik, itun berri baten bitarteko da; bere eriotzaren bidez, lenengo itunean egindako lege-austeak ordaintzeko, deituak izan diranak, betiko ondarearen agintzariak artu ditzaten.

#### **Kristo'ren eriotza**

<sup>16</sup> Azken-naya betetzeko bearrezkoa bait-da nai ori utzi duana il dedin. <sup>17</sup> Azken-nayak eriotzaz artzen du indarra; utzi duana bizi dan arte, iñoiz ere ez bait-du indarrik. <sup>18</sup> Orregatik, lenengo ituna ere etzan odolik gabe egin. <sup>19</sup> Moises'ek erri guztiari Legeko agindu guztiak irakurri ondoren, zekorren eta akerreren odola artuta, urez eta artille gorritz eta isopuaz, Liburua bera ta erri gutia zirpriztindu zituan, <sup>20</sup> esanaz: «Au, Jainkoak zuekin egin duan itunaren odola da» (\*). <sup>21</sup> Eta orobat txabola ta gurketarako ontzi guztiak ere odolez zirpriztindu zituan; <sup>22</sup> eta Legearen aginduz, ia gauza guztiak odolez garbitu bear dira, ta odol-ixurtzerik gabe ez dago barkamenik.

#### **Kristo'ren oparia**

<sup>23</sup> Beraz, bearrezkoa zan zerukoan irudiak orrela garbi zitezen; zeruko gauzak, ordea, opari bikañagoen bidez. <sup>24</sup> Izan ere, Kristo etzan eskuz egindako toki Santuan – jatorraren irudian – sartu, zeruan bertan baizik, Jainkoaren arpegi-aurrean gure alde agertzeko. <sup>25</sup> Ezta bere burua askotan eskeintzeko ere, toki santuan urtero Apaiz Burua, besteren odolez sartzen dan bezela; <sup>26</sup> bestela, munduaren asieratik oñaze-nekeak sarritan artu beariko zituanda. Orain, ordea, denborak betetakoan, bein bakarrik agertu da bere buruaren opari-bidez pekatua galtzeko. <sup>27</sup> Eta gizonentzat bein iltzea eta gero auzialdia erabakita dauden bezela, <sup>28</sup> Kristo ere guztien pekatuak kentzeko bere burua bein bakarrik eskeñita gero, Aren zai daudenai, bigarren aldiz, pekatuak gabe, agertuko zaye, osasuna ekartzeko.

## X

**Kristo'ren opari eraginkorra**

<sup>1</sup> Legeak, geroko ondasunen itzala bakarrik dalako, eta ez gauzen benetako izatea, urtero-urtero, eten gabe, opari ber-berak eskeñiarren, inñolaz ere ezin ditu bein betiko oso ondu, *Jainkoagana* eskeintzera joaten diranak. <sup>2</sup> Bestela, bein betiko garbi-garbi geldituta, beren barruan pekatuen ahtarrenik ez somatzean, opariak amaitu egingo lirake. <sup>3</sup> Baño urtero, opari oyetan berritu egiten da pekatuen oroipena, <sup>4</sup> zezenen eta akerrren odolak ezin dezake pekatuak kenduta. <sup>5</sup> Orregatik, munduan sartzerakoan auxe dio: «Etzen duan ez oparirik ez eskeintzarik nai izan, baño gorputza eman didazu neri. <sup>6</sup> Pekatuengatik egindako erre-eskeintzak eta opariak etzenituan onartu. <sup>7</sup> Orduan auxe esan nuan: Ona emen ni, Jainko! - idazti-buruan nitzaz idatzita dagon bezela -, zure naya egiteko gertu» (\*).

<sup>8</sup> Legeak agintzen duan bezela, «pekatuengatik egin oi diran opariak, eskeintzak eta erre-eskeñiak ez dituzula nai, ezta onartu ere», lentsxago esanda gero, <sup>9</sup> orduan auxe esan du: «Ona emen ni, zure naya egiteko gertu». Lengo ituna baztatu egiten du, bigarrena zutik gelditu dedin. <sup>10</sup> Nai onen indarrez santu egiñak gelditzen gera gu, Jesukristo'k bein betiko egin zuan Gorputz-opariaren bidez.

**Antziñako eskintzalleak eta Kristo**

<sup>11</sup> Eta edozein apaizek bere betekizuna egiten eta opari ber-berak egunero zutik eskeintzen ari dan bitartean, -opariok pekatua inñoz ere ezin kendu dezateken ezkerro-, <sup>12</sup> Au (Kristo) pekatuengatik opari bat bakarra betiko eskeñita gero, Jainkoaren eskui-aldean dago eserita, <sup>13</sup> gerokoen zai, «Aren etsayak bere oiñazpiko jarriak izan arte». <sup>14</sup> Opari batekin bakarrik, bikaindu bait-zituan do-

netuak betiko. <sup>15</sup> Espiritu Santuak ere auxe aitortzen digu. Izan ere, <sup>16</sup> «auxe da -dio Jaunak- egun ayen ondoren nik ayekin egingo dedan ituna: nere legeak biotzean utziko dizkiet, eta adimenean idatziko; <sup>17</sup> eta ez ditut berriz ayen pekatuak eta gaiztakeriak gogoratuko» (\*). <sup>18</sup> Bar-kamena danean, berriz, ez da eskeintzarik.

**Sinismenean sendo irauteko**

<sup>19</sup> Beraz, anayok, Jesus'en odolaren bidez, toki santuan sartzeko uste sendoa izanik, <sup>20</sup> Berak estalkian zear, edo berdin dana, bere aragi-zear, bide berri ta bizi baten antzera, sarrera bat idiki digun ezkerro, <sup>21</sup> eta Jainkoaren etxean Apaiz aundia daukagun ezkerro, <sup>22</sup> urreratu gakizkion biotz zintzoz, sinismen betez, barru txar gutzitik biotzak garbituta, eta gorputza ur garbiz txukunduta. <sup>23</sup> Sendo iraun erazi dezayogun itxaropen-aitorpenari, beronen agintzaria egin duana zintzoa da-ta.

<sup>24</sup> Alkarren kontua izan dezagula maitasunez eta egite onetan gogoberotzeko. <sup>25</sup> Ez dezala inñork gure batzarra utzi, batzuk oi dutenez; alkar azkartu ezazute, batez ere, eguna ba-datorrela ikusten dezuten ezkerro. <sup>26</sup> Izan ere, egiaren ezaguera artuta gero, naita pekatu egiten ba'degu, ez da gelditzen geyago pekatuentzat oparirik, <sup>27</sup> epai ikaragarria ta etsayak iruntsitzen dituan su bizia baizik. <sup>28</sup> Moises'en Legea austen duana, bi edo iru testigurrekin, erruki gabe eriotzara galtzen ba'da, <sup>29</sup> zenbatez zigor aundiagoa mereziko duala uste dezute Jainkoaren Semea zapaldu duanak, eta, Itun-odolaz santu eginda gero, odol ori zikindu duanak eta graziaren Espiritua iraindu duanak? <sup>30</sup> Ezagutzen degu au esan zuana-ta: «Nerea da zigorra; nik emango det ordaña». Eta berriz: «Jaunak epai tuko du bere erria» (\*). <sup>31</sup> Ikaragarria, benetan, Jainko biziaren eskuetan erortzea!

### Berri Onarengatik nekeak onez eramán bear

<sup>32</sup> Gogora itzazute igarotako egunak; argitara etorri-bearri zinaatela, neke askoren burruka gogorra egin bear izan, zenutenean, <sup>33</sup> alde batetik, guztien aurrean lotsagarri ta crasogarri; bestetik, neke berdiñetan zeudenen lagunkide egiñik. <sup>34</sup> Izan ere, giltzapean zeudenen erruki izan zinaaten eta zuen ondasunak kentzea pozik artu zenuten, beste ondasun ohea ta iraunkorra ba-zenutela jakiñik. <sup>35</sup> Ez, bada, galdu zuen uste ona, sari ederra dago-ta bereztat. <sup>36</sup> Iraupena, bearrezkoa dezute; Jainkoaren naya egin-da, agintzaria iritxi dezazuten. <sup>37</sup> «Pixka bat; oraindik pixka bat; Etortzekoa etorriko da, ta ez du luzatuko. <sup>38</sup> Nere zintzoa sinismenez biziko da; uzkurturik ezkutatzen darenarengan, ez du nere animak atsegiñik izango» (\*). <sup>39</sup> Baña, gu ez gera ondամendirako ezkutatzen diranetakoak, baizik-eta, anima irabazteko zintzo irauten dutenetakoak.

## XI

### Itun Zerreako sinismen-ikasbideak

<sup>1</sup> Izan ere, sinismena itxaroten degunaren mamia da, ta ikusten ez diranen erakusbidea. <sup>2</sup> Aren bidez iritxi zuten, iritxi, izen ospetsua antziñakoak. <sup>3</sup> Sinismenaren bidez ezagutzen degu munduak Jainkoaren itzak egiñak dirala; ikusten danak, ikusten ez danetatik dakarrela sorre-ra. <sup>4</sup> Abel'ek, sinismenaren bidez, Kain'ek baño opari obeak eskeñi zizkion Jainkoari; eta opari ayei eskerrak, zintzo-izena iritxi zuan; aren opariak Jainkoak berak aitormena egiñik; eta *Abel'ek*, ilda gero ere, ayen bidez egiten du itz. <sup>5</sup> Sinismenaren bidez eriotzik ikusi gabe, eramana izan zan Enok; eta iñork etzuan arkitu, Jainkoak eramán bait-zuan. Baño eramana izan-aurretik, Jainkoari

atsegin izan zitzayola aitormena izan zuan, <sup>6</sup> sinismenik gabe, ordea, ezin Jainkoarentzat atsegingarri izan; Jainkoarengana dijoanak, ba-dala sinistu egin bear bait-du; baita Aren billa dabiltzanentzat ordaintzalle ona dala ere. <sup>7</sup> Noe'k, sinismenaren bidez, ordurarte ikusten etziranen berri goi-argiz jakiñik, bildurrak eraginda, bere etxeako gordetzeko kutxa egin zuan; mundua sinismenaren bidez geitzetsi zuan, eta sinismenetik datorren zintzotasunaren oñordeko biurtu zan.

<sup>8</sup> Abraham'ek, Jainkoak deituta, ondare artu bear zuan lurraldera irteteko agindua sinismenaren bidez bete zuan; ta nora zijoaan jakin gabe, irten egin zan. <sup>9</sup> Agindutako lurrean arrotz, erbestean bezela, sinismenaren bidez bizi izan zan, txaboletan, Isaac'ekin eta Jakob'ekin, agintzari berdiñaren oñordekoakin; <sup>10</sup> oñarri sendo-gañean, Jainkoak jasotako erria itxarutzen zuan-eta. <sup>11</sup> Sara'k berak, elduegia zala, aurdun izateko indarra sinismenaren bidez artu zuan, agintzaria egin ziona zintzoa zala sinistu egin bait-zuan: <sup>12</sup> Orregatik, gizon batengandik - sortzeko indarririk etzuan batengandik, gañera -, zeruko izarrak bezin ugaritsu ta itxasondoan dauden ondar konta-ziñak aña seme jayo ziran. <sup>13</sup> Sinismenean il ziran guztiok, agindutakorik artu gabe; baña, ayeke urrutitik ikusten eta agurtzen, eta lurgañean arrotz eta erbesteko zirala aitortzen; <sup>14</sup> orrela mintzo diranak, aberri-billa dabiltzala adierazten bait-dute. <sup>15</sup> Utzi zuten erria gogoan ba'zeramaten, berriz, bertara biurtzeko aukera izan zuten, <sup>16</sup> baña, *aberi* obe bat nai zuten: zerukoa. Orregatik, Jainkoa ez da lotsatzen, ayen Jainko-izena artzeaz, ayentzat erria gerturik bait-zeukan. <sup>17</sup> Abraham'ek, tentaldia izan zuanean, Isaac sinismenez eskeñi zuan, agintzariak artu zituan seme bakarra; <sup>18</sup> Isaac'i buruz esana bait-zan: «Isaac'en bidez eukiko dezuz ondorengo» (\*). <sup>19</sup> Ildakoen artetik ere Jainkoak piz-

tu dezakela uste zuan *Abrahan'ek*; eta ala, arriskutik bat-batean atera zuan *Jainkoak*.<sup>20</sup> Isaak'ek ere, Jakob eta Esau sinismenaren bidez bedeinkatu zituan etortzeko ziran ondasunai buruz.<sup>21</sup> Jakob'ek, il-zorian zegola, banan-banan bedeinkatu zituan sinismenaren bidez Jose'ren semeak, eta makillgañean ezarrita egin zuan.<sup>22</sup> Sinismenaren bidez, Jose'k, il-zorian zegola, israeldarren irteera aitatu, ta bere ezurraikin zer egin agindu zuan.<sup>23</sup> Sinismenaren bidez, Moises jayo-berrietan, bere gurasoak umearen edertasuna ikusirik, iru illebetean gordeta euki zuten, erreg-aginduaren bildurrik gabe.<sup>24</sup> Sinismenaren bidez, Moises'ek, gizon eginda, Faraon'en alaba baten seme zala ukatu zuan,<sup>25</sup> eta nayago izan zuan, Jainkoaren erriarekin nekepean bizi, pekatuaren atsegin igeskorretan zoriontsu bizi baño;<sup>26</sup> Kristo'ren lotsakizunak, Ejito'ko ondasunak baño ederrago iritzirik, sari bikañaren zai zegonda.<sup>27</sup> Sinismenaren bidez, Ejito utzi zuan, erregearen aserreai bildurrik izan gabe; Ikusi-eziña, ikusi ba'lu bezela, sendo iraun zuan-da.

<sup>28</sup> Pazko-jayak eta odol-zirprinzketak sinismenaren bidez ospatu zituan; len-semeen iltzalleak, israeldarrenik ikutu etzezan.<sup>29</sup> Israeldarrak, legorretik bezela, igaro ziran sinismenez Itxaso-Gorri'tik; Ejito'tarrak, ordea, andik bertatik igarotzeko alegiñak egiterakoan, murgilduta gelditu ziran.<sup>30</sup> Jeriko'ko arresiak, zazpi egunez inguratuta egon-ondoren, sinismenaren bidez erori ziran.<sup>31</sup> Erraab emagaldua, etzan sinisgabeakin il, sinismenaren bidez xpiyak arrera ona egin zielako.

<sup>32</sup> Eta zer geyago esango det? Jedeon'i, eta Barak'i, eta Sanson'i, eta Jefte'ri, eta Dabid'i, eta Salomon'i, eta igar-leai buruz itzegiteko astirik ez nuke izango.<sup>33</sup> Auek, sinismenez azpiratu zituzten erregegiak, zuzenbidea bete, agintzariak iritxi, leoyen aoak itxi,<sup>34</sup> suaren indarra itzali.

ezpataren aoari iges egin, gaxoetatik sendatu, gudatean indartu ta atzerriarren guda-txabolak ezereztu (\*).<sup>35</sup> Emazteak, beren illak piztuta artu zituzten; batzuk zigorkatuak izan ziran, eta etzuten askatasuna aintzat artu, piztuera ohea arteagatik;<sup>36</sup> beste batzuk lotsakizunak eta zigorkadak eraman zituzten, eta kateak eta giltzapeak ere bai.<sup>37</sup> Ba-dira arrika, oiñazez, zerraz eta ezpataz ildakoak ere; batetik bestera ardi-larraz jantzita ibilli zituzten; beartsu, larru ta estu,<sup>38</sup> -mundua ayen diña ez bait-zan-; lurreko basamortu ta mendietan zear, leiza-zulo ta arkaitz-tarteetan barrena galduta.<sup>39</sup> Guzti oyeck, ordea, sinismenaren aitormenez onak izanarren, etzuten agintzaririk iritxi,<sup>40</sup> Jainkoak guretzat zerbait ohea zeukan erabakita, beste oyeck, gu gabe, bikain gerta etzitezen.

## XII

### Jesukristo'ren jarraibideak indartu egiten gaitu

<sup>1</sup> Beraz, onenbeste testiguren odei-erdian gauden ezkerero, bota dezagun guregandik erasotzen digun pekatu-sorta, eta eraman aundiz, joan gaitezen pizkor aurean zai daukagun burrukara,<sup>2</sup> sinismenaren Iturri ta Elburu dan Jesukristo'rengan begiak ipiñita; Onek, poza aukean euki arren, gurutzea artu zuan -lotsakizuna gaitzesita-, eta Jainkoaren aulkiaren eskui-aldean dago esesita.<sup>3</sup> Gogora ezazute, bada, bere buruaren aurka pekarriengandik alako biurrikeria igaro zuan Ori; uste ona galduta, aspertu etzaitetzen.

### Jarrialdietan begira daukagu Jainkoa

<sup>4</sup> Oraindik ez diozute pekatuari, odola ixurtzeraño hokan gogor egin,<sup>5</sup> eta aztu egin zaizute, Jainkoak semea

bezela, egiten dizuten burubide au: «Ene seme! Etzazu gaizki artu Jainkoaren zentzaldia, ta ez galdu gogo ona, Ark asarre egin dizula-ta; <sup>6</sup> Jaunak, maite duana zuzentzen du, ta semetzat artzen duana zigortzen» (\*). <sup>7</sup> Zuzentzea ondo ar zazute. Semeakin bezela jokutzen du Jainkoak zuekin. Izan ere, ba al da aitak asarre egiten ez diou semerik? <sup>8</sup> Beste guztiak artu duten zuzentzerik zuentzat ez ba'da, sasi-seme zerate; ez seme. <sup>9</sup> Gañera, aragiz gure guraso ziranak ere, zuzentzalle genituan, eta guk begirunea genien; ez ote gakizkio geyago menperatuko espirituen Aitari, bizia iristeko? <sup>10</sup> Eta zuzendu ere, ayek (gurasoak) egun gutxiko zoriona emateko zuzentzen ginduzten, ongien zerizkienez; Onek, (Jainkoak), berriz, gure onari begiratuta, bere santutasunean sartzeko bear deguneraño zuzentzen gaitu. <sup>11</sup> Edozein zigorek, une artan, pozgari baño geyago dirudi mingarri; baño gero, ayetan azitakoai, onbide-frutu paketsuak ematen dizkie.

#### Izan zazute kemen

<sup>12</sup> Beraz, zuzendu itzazute esku eroriak eta belaun aulduak, <sup>13</sup> eta zuzendu zuen urratsak, errenak bidetik atera ez ditezen, sendatuta gelditi dizezen, baizik. <sup>14</sup> Guzienganako pake-billa zabilzate, baita santutasun-billa ere: au gabe ez du iñork Jainkoa ikusiko. <sup>15</sup> Zai egon, Jainkoaren grazia iñork galdu ez dezan; zuztar garratzak, ez dezala, erneta, grazi ori galdu-erazi, ezta sinismena usteldu ere; ta ez dezayola jendeari kalterik egin ere. <sup>16</sup> Ez dedilla iñor aragikerietan edo gaiztakerietan erori, bere len-semetza janari-ordain saldu zuan Esau bezela. <sup>17</sup> Geroago, onespena ondare artu nairik, ezetsia izan zala ba-dakizute-ta; eta onespen-eske negarrez ibilli arren, etzuan damu-biderik arkitu.

#### Itun Berria bikain-bikaiña

<sup>18</sup> Zuek etzerate iritxi ikutu diteken mendira, ez su bitzara, ez zurrunbillora, ez illunpetara, ez ekaitzetara, <sup>19</sup> ez turuta-otsetara ta itz-otsetara ere; alako itz-otsa entzun zutenak, geyago ayei itzik ez egiteko eskatu zuten. <sup>20</sup> Etzuten ondo artzen agindutako au: «Mendia ikutu dezan abereari, arrika emango diote» (\*). <sup>21</sup> Ikuskizun ikaragarri aren aurrean, Moises'ek berak ere auxe esan zuan: «Arriturik nago ta ikara-ikara» (\*). <sup>22</sup> Zuek, berriz, Sion-mendira iritxi zerate, Jainko biziaren errira, zeruko Jerusalem'era, ezin zenbatu-ala, aingeruengana, batzarrera, <sup>23</sup> zeruetan idatzita dauden len-semeen elizara, guztien epaille dan Jainkoarengana, guztiz santu egindako zintzoen espirituetara. <sup>24</sup> Itun Berriko bitarteko dan Jesus'engana ta Abel'enak baño obeto itz egiten duan odol-ixurtzetara.

<sup>25</sup> Begira: ez zapuztu itz egiten dizutena. Lurrean itz egin ziena zapuztu zutenak, zigoretik iges egiteko biderik izan ez ba'zuten, gutxiago guk, zerutik itzegiten diguna zapuztu ba'degu. <sup>26</sup> Orduan lurra dardarka utzi zuan bere aotsak, orain agintzari au egiten du: «Oraindik, beste bein lurra bakarrik ez, zerua ere bai, dardaraka ipiñiko det» (\*). <sup>27</sup> «Oraindik beste bein» orrek, gauza igeskorren aldaketa adierazten du, ayen aldia igaro dalako, baztartu egin bear dirala, aldakor ez diranak iraun dezaten. <sup>28</sup> Beraz, aldakor ez dan erreñua artzen degun ezker, gorde dezagun grazia; grazi onen bidez, Jainkoaren morrontzan, gogo onez, bildurrez eta begirunez bizi gaitezen, <sup>29</sup> gure Jainkoa su erretzaille da-ta.

## XIII

**Azken-burubide batzuk**

<sup>1</sup> Iraun dezala zuen artean senide-maitasunak! <sup>2</sup> Arratzenganako txera ona ez aztu; arrera oni eskerrak, batzuk, ezer jakin gabe, etxean aingeruak artu zituzten-da. <sup>3</sup> Gogora itzazute giltzapetuak, zuek ayekin giltzapean ba'zeundete bezela; baita erasopean dabiltzanak ere gogora itzazute, zuek ere beren gorputzean ba'zeundete bezela. <sup>4</sup> Ezkontza, goragarri euki zazute guztiok; ezkonduen oya, loi-gabe-koa izan dedilla; aragikerizaleak eta ezkontza-ausleak, Jainkoak epaituko ditu-ta.

<sup>5</sup> Zuen bizibidea, ez dedilla diru-gosea izan; bizi pozik daukazutenarekin: Jainkoak esana bait-da onako au: «Itzaitut bazartuko, ez laguntza gabe utziko» (\*). <sup>6</sup> Eta ustez beterik esan genezake: «Jauna det lagun; ez naiz bildurtuko. Zer egingo dit gizonak?» (\*).

<sup>7</sup> Gogora itzazute Jainkoaren itza erakutsi dizuten artzayak; eta, ayen bizitzaren eginkizuna ausnarturik, ar zazute jarraibide ayen sinismena. <sup>8</sup> Jesukristo atzo, gaur ta beti, Berbera da. <sup>9</sup> Ez bezaitzate erakutsi aldakor eta arrotzak erakarri; biotza janariz baño graziz betetzen obe da-ta; izan ere, janari aietan ibilli ziranak, etzuten onik atera. <sup>10</sup> Guk aldare bat degu, ta txabola artako morroyak ez dute andik jateko eskubiderik (\*). <sup>11</sup> Pekatuengatik eskeñitako abereen odola, Apaiz Nagusiak eramaten du toki santura; ayen gorputzak, berriz, txabolategitik kanpora erretzen dira. <sup>12</sup> Orregatik, Jesus'ek ere, erria bere odolez santutzeko, atetik kanpora igaro zituan oñazeak. (\*).


<sup>13</sup> Irten gakizkion, bada, txabolategitik kanpora, Aren lotsakizuna gure gañean degula; <sup>14</sup> ez bait-degu emen betiko bizilekurik; baizik-eta, gerokoaren billa gabiltza.

<sup>15</sup> Eskeñi dezayogun, bere bitartez, Jainkoari gorapen-oparia, edo-ta, berdin dana, Aren izena aitortzen duten ezpañen frutua (\*). <sup>16</sup> Ez aztu alkarri on egitea ta lagun izatea; olako oparien bidez, Jainkoaren ederra irabazten da-ta. <sup>17</sup> Zuen artzai diranakin, esaneko ta menpeko izan zaitezte; zuen animen kontua eman bear dutelako, arretzaz bizi dira-ta; orretan pozik ari ditezen, eta ez atsekabez; azkeneko au ez litzake zuentzat batere on izango. <sup>18</sup> Egin zazute otoitz gure alde. Barrua garbi daukagulakoan bizi gera ta gauza guztietan zuzen jokatu nai degulakoan. <sup>19</sup> Otoitz egiteko eskatzen dizutet batez ere, zuetara lenbaitlen biurtua izan nadin.

**Azken-nayak eta agurrak**

<sup>20</sup> Jesus gure Jauna, betiko itunaren odolez ardien Artzai Aundia, illen artetik atera duan Jainko pakezaleak, berriz, <sup>21</sup> egite on guztian bikaindu zaitzatela, Aren naya egin dezazuten; guregan ere, atsegin zayona bete dezala, gizaldiz-gizaldi aintza dagokion Jesukristo'ren bidez. Amen.

<sup>22</sup> Eskatzen dizutet burubidez betetako itzaldi au eramenez onartzeko, labur-labur idatzi dizutet-eta. <sup>23</sup> Jakin zazute gure anai Timoteo azke utzi dutela; laxter etorriko ba'litz, berarekin batera joango naiz zuek ikustera. <sup>24</sup> Agurtu itzazute zuen artzai guztiak eta santu (kristau) guztiak. Italia'ko kristauak agur egiten dizute. <sup>25</sup> Jainkoaren grazia bego zuekin guztiakin.



## SANTIAGO DONEAREN ESKUTITZA

## I

**Agurra**

<sup>1</sup> Santiago'k, Jainkoaren eta Jesukristo gure Jaunaren morroi onek, sakabanatuta dauden amabi jatorriai, osasuna (\*).

**Ezbeharretan eramanepea**

<sup>2</sup> Gogoan ar zazute, anayok, poz aundia dala zirikal-diz inguratuta egotea (\*), <sup>3</sup> zuen sinismenari erasoaldiak iraupena dakarkiola jakiniñ. <sup>4</sup> Baño, iraupenak beza lan bikaña, bikain-bikaña eta akats-gabeak izan zaitezten, ezertan utsegin gabe. <sup>5</sup> Zuetako norbait jakinduriz urri ba'dabil, eska bezayo Jainkoari - guztiai ugari ta esparik gabe ematen die-ta-, eta emango dio. <sup>6</sup> Baño, eska beza sinismenez, inólako ezbairik gabe; ezbaika dabillenak, ai zeak itxasoan batetik bestera craman-ekarri darabillkian olatua dirudi-ta. <sup>7</sup> Alako gizonak ez dezala uste izan Jainkoarengandik ezer artuko duanik; <sup>8</sup> gizon koloka ta alda-korra bait-da bere bide guztietan. <sup>9</sup> Bizibide apaleko ana-ya poztu bedi bere gorapean; aberatsa, herriz, bere bee-

raldian, <sup>10</sup> belar-lorea bezela igartuko da-ta. <sup>11</sup> Eguzki be-roa agertu zan, belarra zimeldu zan, lorea erori ta onen ederra galdu. Aberatsa ere orrelaxe, zimeldu egingo da be-re arazoetan.

<sup>12</sup> Zoriontsu, tentaldia ondo artzen duan gizona; ar-tan aztertuta, Jainkoak bere maiteai eskeñitako bizitza-ko-roya jasoko du-ta. <sup>13</sup> Ez beza inork tentaldian esan: «Jainkoak zirikatu nau»; Jainkoa ezin diteke gaiztakerira makurtu, ta Ark ez du inor zirikatzen. <sup>14</sup> Norberaren griñak zirikatzen dute bakoitza, eta narrasten eta zorutzen. <sup>15</sup> Ge-ro, griña txarrak, ernaltzen danean, pekatua argitaratzen du; eta pekatuak, egin ezkerro, eriotza sortzen du. <sup>16</sup> Ez ikaratu, nere anai guztiz maiteok! <sup>17</sup> Doai ederrak eta ondasun bikain guztiak zerutik datoz; aldaketarik eta itzalgoraberarik ez duan argien Aitarengandik jeixten dira. <sup>18</sup> Berak nai izanda, egiaren itzez sortu gaitu, bere izakie-tan asikiñ izan gaitezen.

**Benetako onbideak**

<sup>19</sup> Jakin zazute au, nere anai maite-maiteok. Izan bedi bakoitza entzuteko azkar; itzegiteko nagi ta asarrerako motel; <sup>20</sup> gizonaren asarreak ez bait-du Jainkoaren zuzenik egiten. <sup>21</sup> Beraz, loikeri guztia ta gaiztakeri-kutsu dana utzita, artu zazute apal-apalik zuengan txertatutako itza; itz au zuen animak onik ateratzeko aña ba-da-ta. <sup>22</sup> Jainkoaren itza entzun bakarrik ez, bete ere, bete egin bear dezute, engañorik izan ez dezazuten. <sup>23</sup> Itz ori entzun ondoren, betetzen ez duanari, xpilluan arpegia begiratzen duan gizonarena gertatzen zayo: <sup>24</sup> begira egon eta ba-di-joa; ta alde egin orduko, aztu egiten zayo nolakoa dan (\*). <sup>25</sup> Baña, askatasun-lege bikaña begiratzen duana, ta entzu-

na aztu gabe, artan irauten duana, eta egiten duana, zoriontsu izango da bere eginkizunetan.

<sup>26</sup> Bere mingaña ezi ez, eta bizitza jainkozalea daramala uste duanak, bere buruari ziria sartzen dio; orrelakoaren zintzotasuna, utsaren ondokoa da-ta. <sup>27</sup> Jainko Aitarean aurrean zintzotasun garbia ta errugabea auxe da; umezurtzai ta alargunai beren atsekabealdietan ikustaldiak egin eta mundu ontan loitu gabe bizi.

## II

### Goi-maitasuna

<sup>1</sup> Ene anayok! Etzazute Jesukristo gure Jaun goragarriaren sinismena norkerietan nastu. <sup>2</sup> Zuen batzarrean (sinagogan) gizon bat urrezko eraztunarekin eta soñeko ederrez jantzia sartuko ba'litz, eta beste beartsu bat ere jantzi urratuarekin sartuko ba'litz; <sup>3</sup> eta zuek, jantzi ederdunari begiratu ta onela esango ba'zeniote: «Eseri zaitetz emen ondo»; ta beartsuai: «Zaude or zutik», edo-ta: «Eseri zaitetz or nere alki-batzarrean», <sup>4</sup> ez ote zenuteke zuen artean bereziketarik sartuko ta irizpide gaiztoz epaituko? <sup>5</sup> Entzun, nere anai maitcek: Jainkoak ez al zituan, munduaren iritiz beartsu ziranak aukeratu, sinismenean aberasteko ta Bera maite dutenai eskeñitako erreñuaren jabeagai egiteko? (\*). <sup>6</sup> Baño, zuek, beartsua lotsarazi egiten dezute. Ez al dira aberatsak zuek estutzen zaituztenak eta auzitara eramaten zaituztenak? <sup>7</sup> Ez al dira aberatsak zuek daramazuten izen ederra biraotzen dutenak? (\*). <sup>8</sup> Baño, idatzita dagon errege-lege au: «Zure lagun urkoa zere burua bezela maite bear dezu», betetzen ba'dezute, ondo egiten dezute (\*). <sup>9</sup> Norkerietan ba'zabiltzate, ordea, pekatu egiten dezute, ta Legeak urratzalletzat artuko zaituzte.

<sup>10</sup> Lege osoa beteta ere, agindu bat austen duana, *agindu* guztien errudun egiten da-ta. <sup>11</sup> «Ezkontzarik ez dezu loituko» esan zuanak Berak esan zuan: «Ez dezu iñor ilko» ere. Beraz, ezkontzarik ez loituarren, norbait il ba'dezu, lege-ausle biurtu zera (\*). <sup>12</sup> Askatasunaren legez epaituak izan bear dutenai dagokienez itzegin eta epaitu zazute: <sup>12</sup> errukirik izan ez duanarentzat erruki gabeko auzia izango da. Ala ere, auzia baño obe da errukia (\*).

### Sinismena ta egiteak

<sup>14</sup> Zer balio dio, ene anayok!, «Nik ba-det sinismena» dionari, egiterik ez ba'du? Sinismenak salbatu ote dezake alakoa? <sup>15</sup> Anai edo arrebaren bat larrugorri eta egunero-ko zer-janik gabe ba'leude, eta <sup>16</sup> zuetakoren batek, «zoaz pakean eta jan zazu ta berotu zaitetz» esango ba'lio, baño gorputzak bear duanik eman ez, zer aurreratuko luke orrekin? <sup>17</sup> Berdin sinismena ere; egiterik ez ba'du, berarengan ilda dago (\*). <sup>18</sup> Baño, norbaitek esan dezake: «Zuk sinismena dezu; nik, berriz, egiteak». Erakutsi zadazu zure sinismena egiterik gabe; nik nere egiteen bidez erakutsiko dizut nere sinismena. <sup>19</sup> Jainko bakarra sinisten dezu, ezta? Ondo egiten dezu. Baita deabruak ere sinisten dute; ikara batean, ordea. <sup>20</sup> Sinismena egiterik gabe alperra dala jakin nai al dezu, gizon burugabe orrek? <sup>21</sup> Gure Aita Abraham ez ote zan egiteen bidez zintzotu, bere seme Isaak aldare-gañean eskeñi zuanean? <sup>22</sup> Ikusten al dezu, sinismena lagun zuala bere egite onetan, eta egite onen bidez aren sinismena bikain biurtu zala? <sup>23</sup> Orrelaxe bete zan Idaztiak diona: «Abraham'ek Jainkoari sinistu egin zion, eta zintzotasunerako aintzat artu zitzaion, eta Jainkoaren adiskide izan zan» (\*). <sup>24</sup> Ikusten dezute: gizona egiteen bidez zintzotzen da, ez sinismenez bakarrik. <sup>25</sup> Rahab emagaldua ere berdin, ez ote zan egiteen bidez zin-



tzotu, albistariak artu ta beste bide batetik bialdurik?  
<sup>26</sup> Gorputza animarik gabe ilda dagon bezela, sinismena  
 ere, egiterik gabe, ilda dago (\*).

### III

#### Mingañez egiten diran pekatuak

<sup>1</sup> Etzazute askok maixu izan nai, nere anayok!, auzi  
 estuagoa izango degula jakinda; (\*) <sup>2</sup> guztiok gauza asko-  
 tan erortzen gera-ta. Izketan erortzen ez dana, gizon jato-  
 rra da, aokoaz gorputz guztia ezitzeko alminduna (\*).  
<sup>3</sup> Zaldiai, amor eman dezaiguten, muturrekoa ipintzen die-  
 gu aon, eta orrela, ayen gorputz osoa eskuratzen degu.  
<sup>4</sup> Ikusi itxas-ontziak ere: aundiak izan arren eta aize in-  
 dartsuak eragiten dieten arren, lema txiki batek erama-  
 ten ditu, lema-zayak nai duan tokitik. <sup>5</sup> Berdin, mingaña  
 ere gorputz-zati txiki bat da; baño, gauza aundietara au-  
 sartzen da. Ikus zazute; su txikia naikoa da basotzar aun-  
 dia erretzeko. <sup>6</sup> Mingaña ere sua da; gaiztakeri-pilla. Min-  
 gaña, gure gorputz-ataletako bat da ta gorputz osoa zikin-  
 tzen du; ta inpernuak irazekita, gure bizitza guztia kix-  
 kaltzen du.

<sup>7</sup> Era guztietako piztiak, eta egaztiak eta narraztiak eta  
 itxas-abereak ezi ditu gizonak. <sup>8</sup> Mingaña, ordea, ezin de-  
 zake inork ezi; gaitz txarra da ta pozoi ilkorrez betea da-  
 go. <sup>9</sup> Jaun eta Aita mingañez goratzen degu; ta Jainkoar-  
 en antzera egindako gizonak ere, mingañaren bitartez ma-  
 darikatzen ditugu. <sup>10</sup> Goratzea ta madarikatzea, ao bate-  
 tik datoz. Ez luke orrela izan bear, nere anayok! <sup>11</sup> Zulo  
 beretik ur geza ta gazia darion iturririk ba-ote da? <sup>12</sup> Pi-  
 kondoak matsik eman ote dezake, nere anayok?; edo  
 matsondoak pikorik? Ezta iturri batek ere ezin ditzake ur  
 gazia ta geza eman.

#### Jakinduria

<sup>13</sup> Nor da zuetan jakintsua ta ikasia? Erakutsi dezala  
 bere jokabidez eta egiteakin bere otzantasuna ta bere ja-  
 kinduria. <sup>14</sup> Baño, zuen biotzetan ikusi-ezin miñak eta ez-  
 tabaidatako gogoa ba'zeneuzkate, etzaitzete arrotu, eta  
 etzazute egiaren kontra gezurrik esan ere (\*). <sup>15</sup> Jakindu-  
 ri ori ez da goitik jetxitakoa; lurrekoa da, aberekoya, etsa-  
 yarena. <sup>16</sup> Ikusi-cziña ta etsakeria dauden tokian, antxe  
 daude naspilla eta era guztietako egite okerrak ere. <sup>17</sup> Goi-  
 tik datorren jakinduria, berriz, garbia da lenbizi; gero, pa-  
 kezalea, barkabera, adiskide-maitea, errukiz eta frutu ede-  
 rrez betea, norkeririk gabea, azalikerik-gabea. <sup>18</sup> Zuzen-  
 tasun-frutua, pakean ereiten da, paketsu diranentzat.

### IV

#### Adiskidetasunaren etsayak

<sup>1</sup> Nundik zuen artean ainbeste asarre ta burruka? Ez  
 ote da zuen gorputz-ataletan griña txarrak ari duten bo-  
 rrokarengatik? <sup>2</sup> Zalekeria ba-daukazute, ta nai dezutenik  
 ez; il bai egiten dezute ta bekaitzez beteak zaudete, ta ez  
 dezute ezer iristen; alkarri borroka ta guda egiten ari ze-  
 rate, ta ez dezute, eskatzen ez dezutelako; <sup>3</sup> eskatu egiten  
 dezute, eta ez dezute arzen gaizki eskatzen dezute-  
 lako; zuen griñai atsegin emateko. <sup>4</sup> Ez al dakizute, do-  
 llor oiek!, lur ontako adiskidetasuna, Jainkoaren etsai da-  
 la? Lur onen adiskide izan nai duana, Jainkoaren etsai  
 egiten da. <sup>5</sup> Idaztiak diona: «Zuengan bizi dan espirituak  
 bekaizkeriz irrikatzen du», alperrik esana dala uste al de-  
 zute? <sup>6</sup> Ez orrelakorik; baizik-eta, grazi aundiagoa ema-  
 ten du. Orregatik dio: «Jainkoak gogor egiten die arroai;  
 apalai, berriz, grazia ematen die» (\*).

<sup>7</sup> Zabiltzate, bada, Jainkoaren mendean; diabruari, berriz, gogor egin zayozute, ta alde egingo du zuetatik. <sup>8</sup> Zoazte Jainkoarengana ta Jainkoa etorriko da zuengana. Garbitu eskuak, pekatariok; zuzendu biotzak, gogo bi-kuok! <sup>9</sup> Zuen zorritzarrez mindu zaitetzte ta atsekabetu ta egin zazute negar. Zuen parre-algara biur bedi negar eta zuen poza atsekabe. <sup>10</sup> Makur zaitetzte Jainkoaren aurrean eta Berak goratuko zaituzte.

<sup>11</sup> Anayok! Ez marmarrean ari alkarren kontra. Anaya-  
ren aurka marmarrean ari dana eta anaya epaitzen duana, Legearen aurka ari da ta Legearen aurka epaitzen du. Legea epaitzen ba'dezu, berriz, etzera lege-betetze, epaille baizik. <sup>12</sup> Onez atera ta galdu dezaken lege-emallea ta epaillea, bakarra da. Eta, nor zera zu lagun urkoa epaitzeko?

#### **Salerosleai ta aberatsai**

<sup>13</sup> Eta, «gaur edo biar alako erritara joango gera, ta an urte bete egongo gera, sal-erosketan ariko gera ta irabazi ederrak egingo ditugu», diozuten oyeke, <sup>14</sup> biarkoaz ez dakizute ezertxo ere. Zer da zuen bizitza? Pixka baterako agertu, eta bereala ezerezen dan kea zerate. <sup>15</sup> Beste au esan bear zenuteke: Jaunak ala nai ba'du ta bizi ba'gera, au edo ori egingo degu. <sup>16</sup> Baño, orain zuen arrokeriz puztuta zabiltzate. Arropuzkeri ori txarra da. <sup>17</sup> On egiten jakin, eta egiten ez duanak, pekatu egiten du.

### V

#### **Aberatsen aurka**

<sup>1</sup> Eta zuek, aberatsok, egin zazute negar karraxi bizian. gañera datozkizuten zoritxarrak dirala-ta. <sup>2</sup> Zuen aberatsunak ustelduta daude, ta zuen jantziak sitsak janda;

<sup>3</sup> zuen urre-zillarrak erdoiak jo ditu, ta erdoi orrek zuen kontra testigu izango da, ta zuen aragia, suak bezela, jan egingo du. Azken-egunetarako pillatu dituzute ondasunak. <sup>4</sup> Zuen soroetan itayan egin duten langilleai eman ez diezuten lan-saria deadarka ari da, ta itailarien deadarrak iritxi dira Sabaoth-Jaunaren belarrietaraño. <sup>5</sup> Lurrean gozatsu bizi izan zerate ta atsegiñetara makurtu; eta eriotz-egunetarako gizendu zerate. <sup>6</sup> Gizon zuzena galdu ta il egin dezute, ta ez dizute gogor egin.

#### **Eramanpena**

<sup>7</sup> Beraz, anayok, izan zazute eramanpena Jaunaren Parusia (etorrera) arte. Begira: nekazaria lurak dakarren uzta ederraren zai egoten da, ta eramanpenez egon oi da goiz-eurien eta berandu-eurien zai. <sup>8</sup> Itxoin zazute zuek ere, biotzak sendoturik, Jaunaren etorrera gañean da-ta. <sup>9</sup> Ez espairik izan, anayok, alkarren kontra eta ez marmarrean ari, epaituak izan etzaitetzten. Ara: Epaillea ate-ondoan dago. <sup>10</sup> Jaunaren izenean itz egin zuten igarleak artu bear dituzute jarraibide. <sup>11</sup> Begira: len nekeak igaro zituztenak, orain zoriontsu goratzen ditugu. Ba-dakizute Job'en eramanpena, ta Jaunak ari eman zion azkena: Jauna biotz-bera bait-da ta errukiorra.

#### **Ziñ egitea**


<sup>12</sup> Baño, anayok, batipat, ez egin ziñik, ez zeruarengatik, ez lurrarengatik, ez beste inñolako ziñik ere. Zuen baietza, izan bedi «bai»; ta zuen ezetza, «ez»; auzipean erori etzaitetzten,

#### **Otoitza**

<sup>13</sup> Zuetakoren bat atsekabetan al dago? Egin dezala otoitza. Pozik al dago? Kanta dezala. <sup>14</sup> Zuetakoren bat ga-

xo al dago? Egin dezayela dei Elizaren apaizai, aren alde otoitz egin dezaten, Jaunaren izenean *gaxoa* olioiz igurtzirik. <sup>15</sup> Eta sinismen-otoitzak oyea dagon *gaxoa* onik aterako du, ta Jaunak gozatu egingo du; eta pekatu-egin ba' du, barkatu egingo zaizkio (\*). <sup>16</sup> Aitortu zaizkiozute, bada, alkarri zuen utsegiteak, eta egizute otoitz alkarren alde, salba zaitetzen. Zintzoaren otoitz beroak indar aundia du (\*). <sup>17</sup> Elias, gu bezelako gizona zan, eta euririk etzezala egin eskatu zuan, eta iru urte ta sei illebetean etzan lurgañera euririk eraso. <sup>18</sup> Eta berriz otoitz egin zuan, eta zeruak euria jario zuan eta lurrak uzta eman.

<sup>19</sup> Ene anayok!: zuetakoren bat egitik okertu ba' litz, ta beste batek bide onera biurtzen ba' lu, <sup>20</sup> jakin beza, pekataria bide okerretik zuzenera ekartzen duanak, bere anima eriotzatik onez aterako duala ta pekatu-pilla aundia estaliko duala (\*).



## PEDRO DONEAREN LENENGO ESKUTITZA

### I

#### Agurra

<sup>1</sup> Pedro'k, Jesukristo'ren apostolu onek, Ponto'ko, eta Galazia'ko, eta Kapadozia'ko, eta Asia'ko, eta Bitinia'ko sakabanaldiko atzerritar aukeratuai; <sup>2</sup> eta Jainko Aitaren betiko jakintzaz, Espiritu Santuaren santutasunean, Jesukristo'ren esaneko izateko ta bere odolez garbitzeko aukeratuak izan zeratenoi, grazia ta pakea ugaritu dakizkitzutela.

#### Eskerrak ematen

<sup>3</sup> Bedeinkatua Jesukristo gure Jaunaren Jainko ta Aita, bere errukia dala-ta Jesukristo'ren illen arteko piztueraz, itxaropen bizirako berrir sortu bait-gaitu, <sup>4</sup> zuentzat zeruan gorderik dagon ustelik, eta zikiñik, eta zimelik gabeko ondarrerako. <sup>5</sup> Zuekin, bai, sinismenaren bidez, azken-aldian agertzeko gerturik dagon osasuna iristeko, Jainkoaren indarrak zaituta zaudetenokin. <sup>6</sup> Ori dala-ta, poztu egiten zerate, orain pixka batean, bear ba'da, zirikaldi batzuetan atsekabetuta zaudeten arren; <sup>7</sup> sutan aztertutako urre gal-

korra baño askoz bikañagoa dan, zuen sinismen garbia, Jesukristo'ren agerraldian gorapenerako, aintzarako ta osperako gai arkitu dedin.<sup>8</sup> Bera maite dezute zuek, ikusi ez dezutela ere, ta Bera ikusi ez arren, orain Bera sinisten dezute ta esan ezin alako poz zoragarritz alaitzen zerate,<sup>9</sup> zuen sinismenaren fruitua dan animen osasuna iristean.<sup>10</sup> Zuei egindako graziaz itzegin duten igarlekak, osasun au zerabilkiten gogoan eta aztertu zuten,<sup>11</sup> berengan zegon Kristo'ren Espirituak ziona zer eta noizko ote zan aztertuaz, Kristo'ren nekeak, eta neke-ondoko goraldiak aurretik agertzen zizutuztean.<sup>12</sup> Eta jakin-erazi zitayen, etzala berentzat, zuentzat baizik, zerutik bialdutako Espiritu Santuak eraginda, Berri Onaren erakusleak orain agertu dizutena; ta aingeruak berak ikusi nai dute.

### Kristauaren santiutasuna

<sup>13</sup> Beraz, zuen adimenaren aldeak gerrikoz estuturik, izan zaitezte oso neurritsu ta ipiñi zazute zuen itxaropena Jesukristo'ren agerralditik datorkizuten grazian (\*).<sup>14</sup> Sem e sanegilleai dagokien bezela, etzayezute jarraitu zuen lengo ezjakiñeko griña txarrai,<sup>15</sup> baizik-eta, dei egin dizutena Santua dan bezela, zuek ere guztietan santu izan zaitezte,<sup>16</sup> idatzita dago-ta: «Izan zaitezte santu, ni ere santu naiz-ta» (\*).<sup>17</sup> Bakoitzak egindakoen neurritz, norke-rik gabe, epaitzen duan Aita ba'dezute, bizi zaitezte bil-durrez erbeste ontako denbora guztian,<sup>18</sup> bai bait-daki-zute, zuen gurasoengandik artutako bizibide utsaletik etze-ratela ez zillar ez urre ustelkorrez erosiak,<sup>19</sup> baizik-eta, lu-rra lur dan baño len ezagutua izan, eta azken-denbora aue-tan zuengatik agertua,<sup>20</sup> ta bildots garbi ta errugabe be-zela dan Jesukristo'ren odol bikañez.<sup>21</sup> Bere bidez sinis-ten dezute zuek, illen artetik piztu ta goratu duan Jain-

koagan, gure sinismena ta gure itxaropena Jainkoarengan izan ditzagun.

<sup>22</sup> Beraz, egiaren menpera etorrita, zuen biotzak bene-tako maitasunerako garbitu dituzuten ezkeru, biotz garbiz maíta zazute alkar, gartsu;<sup>23</sup> ez bait-zerate azi ustelkorre-tik sortuak, ustel eziñetik baizik, Jainkoaren betiko itz biziaren bitartez.<sup>24</sup> «Aragi guztia belarraren antzeko da, ta aren aintza guztia belar-lore bezela. Belarra igartu ta lo-rea boña egiten da-ta (\*).<sup>25</sup> Baño, Jainkoaren itzak beti-ko irauten du». Eta orixe da erakutsi zaizuten itza.

## II

### Giltzarria

<sup>1</sup> Beraz, utzi itzazute gaiztakeri ta azpi-joko guztiak, azaluskeri, ikusieziñ eta gaizki-esate guztiak,<sup>2</sup> ume jayo-berriak bezela, irrika zazute gogo-esne utsa, aren bidez osasunerako azi zaitezten;<sup>3</sup> Jauna ona dala aogozatu bait-dezute (\*).<sup>4</sup> Urreratu zakizkiote, arri bizia Bera da-ta; gi-zonak zapuztua, bai, baño Jainkoak aukeratua ta ederre-tsia.<sup>5</sup> Zuek ere, arri bizi bezela, gogozko etxe ta apaizgo santurako zaudete aukeratuak, eta Jesukristo'rengatik Jain-koak onartu ditzaken espirituzko opariak eskeintzeko;<sup>6</sup> idatzita bait-dago: «Ona emen giltzarri aukeratu ta bika-ña, Nik Sion'en jarria; eta ura sinistuko duanik, ez da lotsatuko» (\*).

<sup>7</sup> Beraz, zuentzat, fededunentzat, goragarri da; sinisga-beentzat, ordea, etxegilleak baztarrera utzi zuten arria, giltzarri biurtu da,<sup>8</sup> irristarri ta gaitzpide-arkaitz» (\*). Sinis-ten ez dezutelako, itz ortan oztopo egiten dute, itz ori ar-tzeko deituak izan ziran arren (\*).<sup>9</sup> «Zuek, ordea, jatorri aukeratua zerate, errege-apaizgoa, enda santua, erri ira-

bazia, illunetik argi zoragarrira dei egin dizutenaren almena zabaldu dezazuten» (\*). <sup>10</sup> «Len erri etziñetenak, orain Jainkoaren erri zerate; len errukirik etzenutenak, orain errukia iritxi dezute» (\*).

#### Arrotzaritean nola bizi

<sup>11</sup> Arrotz erbestean bizi zeraten ezkerok, anayok, auxe eskatzen dizutet: alde egin zazute animarentzat kaltegarri diran aragi-griñetatik. <sup>12</sup> Zuen bizitza, atzerritarren artean, zintzoa izan dedilla: gaiztotzat zaukatenak, zuen egite onak ikusita, *Jaunaren* agerraldi-egunean, gaizki ikusten zituzten oyengatik berengatik Jainkoa gora dezaten.

#### Agintarien esaneko izan bear

<sup>13</sup> Jainkoaren maitasunarengatik, makur zakizkiote giza-agintaritzari: <sup>14</sup> naiz erregeri, agintari nagusi dalako; naiz erriko buruari, gaiztoak zigortzeko ta zintzoak saritzeko, Berak (Jainkoak) ordezko ipiñita dauzka-ta (\*). <sup>15</sup> Auxe da Jainkoaren naya: zuek ona dana egiñaz, burugabeen jakiñeza ixilleraztea; <sup>16</sup> zuen buruen jabe bezela, ta ez askatasuna gaiztakeriaren estalkizat erabillita; Jainkoaren menpeko bezela, baiziki. <sup>17</sup> Guztiak aintzat artu itzazute; zuen senideak maite, Jainkoari bildur izan eta erregeari begirune.

#### Morroyak

<sup>18</sup> Morroi zeratenok, egon zaitezte bildur aundiz nagusien mendean; ez biotz oneko ta neurritsu diranen mendean bakarrik; baita okerrak diranen mendean ere. <sup>19</sup> Jainkoaren maitasunarengatik, bidegabekeriz, nekeak igarotzea, ederra bait-da. <sup>20</sup> Okerra egin dezutela-ta, zartadak artu ezkerok, nolaz arrotuko ziñateke, bada? Ona eginda

gero, nekeak eramanpenez artzen ba'dituzute, ordea, ori bai, Jainkoaren aurrean egite ederra da, <sup>21</sup> ortarakoxe deituak izan bait-zerate. Kristo'k ere zuengatik artu zituan nekeak, Aren aztarrenai jarraitzeko bidea erakutsirik. <sup>22</sup> «Etzuan pekatuak egin eta Aren aoran etzan gezurrik arkitu»; (\*) <sup>23</sup> gaizki egin zituzate, eta etzuan gaizki egiñaz erantzuten; oñazez bete zuten, eta etzuan zemaketarik egin, epaille zuzenaren eskuetan uzten zuan bere auzia (\*). <sup>24</sup> Berak eraman zituan gure pekatuak, bere soñean, abe-gañera; gu pekatuentzat ilda, zuzentasunarentzat bizi gintezen. Aren zauriak sendatu ginduzten (\*). <sup>25</sup> Len «ardi galduak bezela ziñaten»; baña orain zuen animen Artzai eta Jainkoarengana biurtu zerate.

### III

#### Senar-emazteak

<sup>1</sup> Zuek, ere, emazteok, zaudete senarren mendean; oyetako batzuk, Itza sinisten ez ba'dute, emazteen jokabideak, itzik gabe, irabazi ditzaten, <sup>2</sup> zuen bizitza garbia ta eratsua ikusita. <sup>3</sup> Zuen apainketa ez bedi azalekoa izan, ille kizkurrez eta urrezko pitxiz eta soñeko ederrez; baizik-eta, <sup>4</sup> biotz-barrukoa ta ezkutua, ezin usteldu ditekengogo apalean eta bigunean dagona. Orixe da eder Jainkoarentzat. <sup>5</sup> Antziñako emakume on ayek, Jainkoarengan uste onez, orrelaxe apaintzen zituzten beren buruak, senarren mende bizitzeko. <sup>6</sup> Orrela egiten zuan Sara'k Abraham'en esana, «jauna» deitzen ziola. Eta Sara'ren alabak zerate zuek, onbidean ezeren bildurrik gabe ibiltzen ba'zerate.

<sup>7</sup> Zuek ere, berdin, senarrok; bigun artu itzazute zuen emazteak, ontzi makaltxoagoak bait-dira; ager zayezute

begirunea, bizitza-graziaren oñordekoai dagokien bezela. Orrela ez dezute otoitzetarako eragozpenik izango.

### Guztienganako eginbearrak

<sup>8</sup> Azkenik, izan zaitzete guztiok gogobateko, biotzberaz, errukiz eta apaltasunez beteak; <sup>9</sup> txarra dana ez txarraz ordaindu; ezta gaizki egiña, gaizki egiñaz ere; oso bestela baizik, bedeinkaturik; ontarako deitu bait-zaitzute: bedeinkapena ondare izateko (\*). <sup>10</sup> Izan ere, «bere bizi maite duanak eta egun zorionsuak ikusi nai dituanak, zaitu beza mingaña txarretik eta bere ezpañak gezurrezko itzetatik. <sup>11</sup> Egin beza igez txarretik eta egin beza on; hilla-tu beza pakea ta jarrai bezayo; <sup>12</sup> Jaunaren begiak zintzoen gañean daude; Bere belarriak, berriz, zabalik, ayen otoitza entzuteko; baño, Jaunaren arpegia gaiztoen aurka dago» (\*).

<sup>13</sup> On egiten sayatzen ba'zerate, nork egingo dizute kalterik? <sup>14</sup> Ala ere, zuzenbidea dala-ta, nekerik artu ba'zenezate, zorionsuak zuek! Etzazute ayen (zuen etsayen) bildurrik izan; ezta kezkarik ere; <sup>15</sup> baizik-eta, gora zaitzute Kristo Jauna zuen biotzetan, eta beti gertu egon zuen itxaropenari buruz galdezka dijoakizutenari erantzuteko, <sup>16</sup> bigun eta begirunez, ala ere, eta barru zintzoz: Kristo'renganako zuen jokabide ona beztutzen dutenak, zuen lepotik diotenaz ber-beraz lotsatuta gelditu ditezen. <sup>17</sup> Izan ere, obe da – Jainkoaren naya ala izan ezker – ondo eginda nekeak igarotzea, gaizki eginda baño.

### Kristo ikasbide

<sup>18</sup> Kristo ere bein il bait-zan pekatuengatik, zintzoa zintzo ez geranongatik, gu Jainkoari eramateko; aragiz ildakoa, baño Espirituz piztua. <sup>19</sup> Onengan, giltzapean zeu-

den espirituai Berri Ona agertzera joan zan (\*), <sup>20</sup> len sinisgor ziranengana; Noe'ren egunetan, kutxa egiten ari zan bitartean, Jainkoaren eramanpena zai egon zitzayen ayengana; kutxa artan lagun gutxi, zortzi bakarrik, atera ziran uretatik. <sup>21</sup> Orain ere, kutxa aren irudi dan urak ateratzen zaituzte onez batayoan; ez aragi-loyak kenduta: baizik-eta Jainkoari, Jesukristo'ren piztueraz, barru garbia eskaturik. <sup>22</sup> Jesukristo, aingeruak, agintariak eta indardunak menderatu-ondoren, zerura igo zan, eta Jainkoaren eskui aldean eseririk dago.

## IV

### Jesukristo, inpernuctara jetxi

<sup>1</sup> Beraz, Kristo'k aragian oiñazeak igaro zituan ezkerro, zuek ere ar zazute armatzat burubide au: – aragi-oiñazeak artzen dituanak, utzi bait-du pekatua – , <sup>2</sup> ondoren go zuen aragi-bizitzan, Jainkoak nai duan bezela bizi izatekoa, ta ez giza-grña gaiztoak nai duten bezela. <sup>3</sup> Oraindaño, naiko denbora igaro dezute atzeritarren naya egiten, lasaikerietan, grña txarretan, mozkorkerietan, jan-edankerietan eta sasi-jainkoen maitakeri lotsagarrietan. <sup>4</sup> Arrituta daude orain ayek, alako galdukeri neurrigabean ayekin batera nastutzen etzeratelako, ta gaizki esaka ari zaizkitzute. <sup>5</sup> Baño, biziak eta illak epaitzeko gertu dagonari erantzun beariko diote. <sup>6</sup> Ildakoi ere ontarakoxe erakutsi zitzayen Berri Ona, aragi-aldetik, gizonen iritzi, galduak izan arren, gogoaren aldetik, Jainkoaren iritzi, bizi ditezen.

**Kristauak alkarri lagundu egin bear**

<sup>7</sup> Guztien bukaera laxter dator. Izan zaitezte, beraz, zentzundun eta neurritsu eta ekin arretaz otoitzari. <sup>8</sup> Batez ere, maite zazute beti alkar, maitasunak pekatu asko estalzen ditu-ta. <sup>9</sup> Ar zazute alkar etxean, marmarrik gabe. <sup>10</sup> Bakoitzak artu duan doaya zabal dezala besteen serbitzurako, Jainkoaren era askotako grazien arduradunai dagokien bezela. <sup>11</sup> Batek itzegiten ba'du, Jainkoaren aorri dagokionez egin dezala itz; batek serbitzu bat artu ba'du, Jainkoak emandako almenez bezela bete dezala, gauza guztietan Jainkoa goratua izan dedin Jesukristo'ren bidez. Onena da agintaritza gizaldiz-gizaldi. Amen.

**Nekealdietan poztu egin bear**

<sup>12</sup> Ez ikaratu, maiteok, zuek aztertzeke or, zuen artean, piztu dan suaz, oi ez dan zerbait gertatzen zaizute-lakoan; <sup>13</sup> baizik-eta, poztu egin bear dezute Kristo'ren neke-lagun zeratelako; Aren aintza agertuko danean ere, pozez beterik egon zaitezten (\*). <sup>14</sup> Zoriontsuak zuek, Kristo'ren izenagatik gaizki egiten ba'dizute!; aintzaren Espiritua ta Jainkoaren Espiritua zuengan daude-ta (\*). <sup>15</sup> Ez dezala iñork zuen artean, gizon-iltzalle, naiz lapur, naiz gaizkille, naiz nastalle bezela nekerik artu; <sup>16</sup> baño, kristau dalako, norbaitek nekeak igaro ba'litu, ez bedi lotsatu; baizik eta gora dezala Jainkoa izen orrengatik. <sup>17</sup> Jainkoaren etxetik auzia asteko ordua ba-da. Guregatik asten ba'da, herriz, zein izango da Jainkoaren Berri Ona sinistu nai ez dutenen azkena? <sup>18</sup> Eta zintzoa onez ozta-ozta ateratzen ba'da, zer izango da gaiztoarekin eta pekatariarekin? (\*). <sup>19</sup> Beraz, Jainkoak ala nai-ta, nekeak igarotzen dituztenak ere, on dana egiñaz, beren animak Egille zintzoarengan uste onez ipiñi ditzatela.

## V

**Azken-burubideak**

<sup>1</sup> Zuen artean zaar diranai, ona nik, ayek bezela apaiz eta Kristo'ren nekeen testigu ta agertuko dan aintzan eskuartu dedan onek, eskatzen diedana; (\*) <sup>2</sup> Zaitu ezazute zuen ardurapean ipiñi zaizuten Jainkoaren artaldea, ez gogor artuta, samur-samur baizik, Jainkoaren naiarara; ezta irabazi zikiñari begira ere, biotzez baizik; <sup>3</sup> ez, gero, ondarearen jauntxo bezela, artaldearen jarraibide izanaz baizik. <sup>4</sup> Orrela, Artzai Nagusia agertuko danean, zimeldu ezin diteken aintzaren koroya artuko dezute.

<sup>5</sup> Zuek ere, berdin, gazteok; bizi zaitezte zaarren mendean; eta jantzi zazute guztiok alkarganako apaltasun-jantzia. Jainkoak arroai gogor egiten bait-die; apalai, berriz, bere grazia eman. <sup>6</sup> Izan zaitezte, bada, apalak, Jainkoaren esku indartsupean, garai egokian goratu zaitzaten. <sup>7</sup> Utzi zaizkiozute Berari zuen gora-bera guztiak, bai bait-dauka Berak zuen kontua. <sup>8</sup> Izan zaitezte neurritsu, ta erne egon; zuen etsai diabrua, orruaka dabil zuen inguruan, leoya bezela, irentsitzeko norbaiten billa. <sup>9</sup> Gogor egin zayozute sinismenez, lurrean dituzuten senide guztiak neke berdiñetan dabilzala jakiñik. <sup>10</sup> Eta, Kristo'rengan, bere betiko aintzara dei egin dizuten Jainkoak, Berak, neke laburren ondoren, osotuko zaituzte zuek, eta sendotuko ta indartuko. <sup>11</sup> Berari aintza ta agintaritza, gizaldiz-gizaldi. Amen.

**Azken-agurra**

<sup>12</sup> Nere ustez, anai zintzo dezuten Silbano'ren bitartez idatzi dizutet labur-labur, benetakoa, zuek zintzo gordetzen dezuten grazi ori dala, erakusteko ta aitortzeko. Agur-

ka daukazute, zuek bezela aukaratu izan dan Babilonia'ko eliza; baita nere seme Markos ere (\*). <sup>13</sup> Agur egin zayozute alkarri maitasun-laztanez. Pakea Kristo'rengan zaudeten guztioi.



## PEDRO DONEAREN BIGARREN ESKUTITZA

### I

#### Agurra

<sup>1</sup> Simon Pedro'k, Jesukristo'ren morroi ta apostolu onek. Jesukristo gure Jainko ta Salbatzallearen zuzentasun-bidez, sinismen baliotsua, guk bezela, iritxi dutenai, <sup>2</sup> Jainkoaren eta Jesus gure Jaunaren ezagueraz grazia ta pakea ugari geitu dakizkitzutela.

#### Kristau-deyari dagokion zintzotasuna

<sup>3</sup> Bizirako bizitza Jainkozalerako egoki dan guztia eman digu utsean Jainkoa'ren indarrak, bere aintzaz eta almezez dei egin digula guri jakineraziaz. <sup>4</sup> Orrela, agintzari eder eta bikañak eman dizkigu utsean, oyen bidez jainkozko izatearen kideko egin gaitezen, munduan dagon grina txarren ustelkeritik iges eginaz (\*). <sup>5</sup> Orregatik, egiñalak egin bear dituzute sinismenarekin zintzotasuna elkartzen, zintzotasunarekin jakituria, <sup>6</sup> jakituriarekin neurribidea, neurribidearekin eramanpena, eramanpenarekin jainkozaletasuna, <sup>7</sup> jainkozaletasunarekin alkar-maitasuna ta alkar-maitasunarekin goi-maitasuna. <sup>8</sup> Onbide auek zuekin opa-



ro ba'dauzkazute, etzaituzte zere oyeek Jesukristo gure Jaunaren ezagueran alper eta agor utziko. <sup>9</sup> Aitatutako *onbi-deok* ez dauzkana itxu ta ikusmen laburrekoa da, eta lengo bere pekatuen garbiera aztuta bizi da. <sup>10</sup> Beraz, egiñalak egin itzazute, anayok, zuen deya ta aukeratzea sendotzeko; ori eginda, etzerate beñere eroriko, <sup>11</sup> ta Jesukristo gure Jaun eta Salbatzailearen betiko erreiñuko sarrera zabal-zabal idikiko zaizute.

<sup>12</sup> Orregatik gauza auek beti gogora ekarriko dizkitzute, naiz-ta zuek ondo jakin eta orain daukazuten egian sendo iraun. <sup>13</sup> Ala ere, txabola ontan nagon bitartean, gogoberotu egin bear zaituztedala deritzat; (\*) <sup>14</sup> Jesukristo gure Jaunak adierazita, bai bait-dakit nere txabola au laxter bertan bera eroriko dala. <sup>15</sup> Eta egiñalak egingo ditut, egi auek, ni joan da gero ere, gogora ekarri dezaizkitzuten.

#### **Nun arkitu benetako sinismena**

<sup>16</sup> Izan ere, ez genizkitzuten Jesukristo gure Jaunaren indarra ta etorrera, ipui ederra jarraituta, erakutsi; baizik-eta, Aren aunditasuna guk gere begiz ikusi degulako (\*). <sup>17</sup> Berak artu zuan gorapena ta aintza Jainko Aitarengandik, Aintza aunditik, «Au da atsegin zaidan Seme kutuna» esanaz, arako aotsa entzun zanean (\*). <sup>18</sup> Eta zerutik jetxitako aots au, mendi santuan Arekin geundenok entzun genuan. <sup>19</sup> Eta orain sendoagotu da igarleen itza; eta zuei ere on zaizute itz orri adi-adi egotea, toki illunean piztuta dagon argiari bezela, eguna argitu ta, zuen biotzetan, artizarra agertzen dan bitartean (\*). <sup>20</sup> Ezer baño lenago auxe jakin bear dezute: iñork ezin ager dezake, nork bere buruz, Liburu Santuko igarpenik, <sup>21</sup> ez da-ta iñoiz igarpenik giza-adimenetik sortu; Espiritu Santuaren eragitez egin zuten itz Jainkoaren gizonak.

## II

### **Sasi-maixuak**

<sup>1</sup> Baño, sasi-igarleak ere izan ziran Israel'en; baita sasi-maixuak ere izango dira zuen artean, gezurrezko erakutsi txarrak sartzen eta berrerosi dituan Jauna ukatzen, beren buruai ondamendia laxter ekartzeko. <sup>2</sup> Askok jarraitu egin diete beren lasaikerietan, eta egiaren bidea biraogarri izango da ayeck dirala-ta. <sup>3</sup> Eta diru-goseak eraginda, gezurrezko itzen bidez irabaziak aterako dizkitzute. Ayen galbidea, aspalditik, ez dabil nagi, ta ayen ondamendiak ez du lorik egiten. <sup>4</sup> Izan ere, pekatu egin zuten aingeruai etzien barkatu Jainkoak, eta lotuta inpernura bota zituan, eta, auzi-egunararte an eukitzeko, leize-zulo illunera amildu. <sup>5</sup> Era berean, etzion antziñako munduari barkatu, ta gizadi gaizto aren gañera ugoldea iraulirik, Noe, zuzentasun-igarlea, beste zazpirekin batera, onik atera zuan (\*). <sup>6</sup> Eta geroko gaiztoen zigorgarri, Sodoma ta Gomorra erriak ondatu egin zituan, auts biurtuta; <sup>7</sup> baño, gizon gaiztotzar ayen bizitza lizunez atsekabetuta zegon Lot zintzoa onik atera zuan <sup>8</sup> – bere erriarren artean bizi zala, ayen egite txarrak ikusiaz eta entzunaz, bere biotz zintzoa egu-nero oñazetan zeukan-da –.

<sup>9</sup> Ba-daki Jainkoak gizon Jainkozalea larrialdetik ateratzen, eta gaiztoa zigortzeko auzi-egunerarte uzten, <sup>10</sup> aragiaren atsegin-ondotik dabillena ta Jauna bartartzen duana batez ere. Ausarti arroputz auek ez dute goragoko aintzadunak biraotzeko bildurrik, (\*) <sup>11</sup> aingeruak berak, almezez eta indarrez aundiagoak izan arren, alakoen aurka bururakizun txarrik, Jainkoaren aurrean izaten ez ba'dute ere. <sup>12</sup> Orrelako oyeck, berriz, ustelgai diran abere adimengabeak bezela, ezagutzen ez dutenari birao egiñaz, beren ustelkerietan galduko dira, <sup>13</sup> orrela beren gaiztake-

riaren ordain egokia jasotzen dutela, eguneroko atsegiña dute zorion; gizon zikiñ eta ustel auek galdukerietan dituzte beren atsegiñak, eta zuekin dabilta betekadarik-betekada. <sup>14</sup> Sasi-ekontzaz beterik dauzkate begiak; peka tuz ezin ase dira; anima aulak lilluratzen dituzte; diru-gosetan azita daukate biotza; birao-seme dira. <sup>15</sup> Bide zuzena bertan-bera utzirik, galduta dabilta, Bosor'en seme zan Balaan'en bideak zear; Balaan onek, berriz, gaiztakeri-saria maitaturik, <sup>16</sup> bere erruagatik asarrea bereganatu zuan; eta asto mutu batek, giza-eraz itzegiñaz, galerazi zuan igarlearen zorakeria. <sup>17</sup> Urgabeko iturriak eta ekaitz-aizeak bultzaka darabiltzkian lañoa dira oye; illunpctako leiza gerturik dago ayentzat. <sup>18</sup> Itz arro ta ariñak esanaz, sinisgabeben artetik atera-berri diranak, aragi-zalekeriz eta galdukeriz limurtzen dituzte. <sup>19</sup> Askatasuna eskeintzen diete, berak ustelkeriaren morroi dirala; azpiratuta dagona, azpiratu duanaren morroi bait-da. <sup>20</sup> Jesukristo gure Jaun eta Salbatzallearen ezagueraz, munduko azken-egoera ori lenengoa baño txarragoa da. <sup>21</sup> Obe luteke orrelakoak zuzenbiderik ezagutu ez ba'lute; ezagutu ondoren, erakutsi zitzayen agindu santutik berriz atzera egin baño. <sup>22</sup> Oye-kin betetzen da egiazko esaera au: «Txakurra berak hotatakoetara biurtu zan», eta «urdama, garbituta gero, berriz lokatzetan iraultzen da».

### III

#### Jaunaren etorrera.

<sup>1</sup> Au da, nere maiteok, egin dizutedan bigarren eskutitza; bi auetako erakutsien bidez, zuen biotz onak gogoberotzen sayatu naiz; <sup>2</sup> igarle Santuak lendik esandako itzak eta zuen apostoluen bidez Jaun eta Salbatzalleak

emandako agindua gogora dezazuten. <sup>3</sup> Jakin zazute lendabizi: azken-egunetan etorriko dira, beren griñen araberan bizi diran gizon maltzur batzuk, ixeka ta parra dariotela, <sup>4</sup> eta ala esango dute: «Nun dago Aren etorrerako agintzaria? Gurasoak ilda gero, lurra lur danetik bezela. berdin irauten du dana guztiak». <sup>5</sup> Berak ala naita, ez dakite len ere zeru-lurrak izan ziranik, eta lurra Jainkoaren itzez uretik aterea eta uraren erdian ipiñia dagonik. <sup>6</sup> Orre-gatik, orduko lurra ugoldeak estalita gelditu zan. <sup>7</sup> Eta oraingo zeru-lurrak itz berak zaitzen ditu, gizon gaiztoen auzi ta ondamendi-egunean sutan kixkaltzeko. <sup>8</sup> Ez aztu au, nere maiteok! Egun bat Jaunarentzat milla urte bezela dala ta milla urte egun bat bezela. <sup>9</sup> Ez du Jaunak agintzaria luzatzen, batzuk uste duten bezela; egonarriz dabil zuengatik; ez bait-du nai iñor galtzerik; guztiak salbatzea baizik. <sup>10</sup> Baño, lapurra bezela etorriko da Jaunaren eguna. Orduan zeruak zarat-otsez igaroko dira, lurgayak beroak ezereztuko ditu ta lurra ta bertako gauza guztiak erre egingo dira.


#### Zai bizi bear

<sup>11</sup> Gauza auek guztiak ezereztu-bearrak ba'dira, nolakoak izan bear ote dezute zuek, zuen egite santuetan eta bizitza Jainkozalean? <sup>12</sup> Jaunaren egunaren etorrera zai zaudetela, egun artan zeruak sugarretan ezereztuko bait-dira, ta lurgayak erreta urtu egingo bait-dira? <sup>13</sup> Baña, gu, Jaunaren agintzaria sinistuta, zuzentasunaren bizileku diran zeru berri batzuen eta lur berri baten zai gaude. <sup>14</sup> Beraz, nere maiteok, gertaera auen zai zaudeten bitartean, kontuz ibilli zaitezte, Aren (Jaunaren) aurrean pakean, garbi ta errugabe ager zaitezten. <sup>15</sup> Sinista zazute Jaunaren eramanpena gure onerako dala. Orixe da, gure anai maite Paulo'k ere, eman zayon jakinduriz, idatzi zizutena,

<sup>16</sup> baita bere eskutitz guztietan gai oni buruz azaltzen duana ere. Ba-dira eskutitz oyetan gauza ulergaitz batzuk; eta gizon ezjakin aldakorak, beste zenbait Idazti *Santu* bezela, beren buruen kaltetarako artzen dituzte.

#### Azkena

<sup>17</sup> Zuek, bada, nere anai maiteok, aurrez dakizuten ezkerok: erne egon, gizon legegabe oyen okerbidez, zuen asmo sendotik erori etzaitezten. <sup>18</sup> Eta geitu Jesuskristo gure Jaun eta Salbatzallearen grazia ta ezaguera. Berari aintza orain eta betiko egunean. Amen.



### JUAN DONEAREN LENENGO ESKUTITZA

#### I

#### Bizitza-Itza: Jesuskristo

<sup>1</sup> Asieratik zana, entzun deguna gure begiz ikusi deguna, begiratu deguna, ta bizitzaren Itza ikutzean, gure eskuak ikutu dutena, (\*) <sup>2</sup> - bizia agertu bait-da, eta guk ikusi degu, ta Aitarengan zegon, eta azaldu zaigun betiko bizia aitortzen eta erakusten dizutegu -; (\*) <sup>3</sup> ikusi ta entzun deguna otsegiten dizutegu, zuek ere gurekin elkargo izan dezazuten. Eta gure artukizun au Aitarekin eta Onen Seme Jesuskristo'rekin da. <sup>4</sup> Zuen poza bete-betea izan dedin, idazten dizutegu au.

#### Argia ta pekatua

<sup>5</sup> Auxe da Berari entzunda dakarkizutegun albistea. Jainkoa argia dala ta Arengan ez dagola illunik (\*). <sup>6</sup> Arekin elkargoa izan, ta illunpetan gabiltzala ba'diogu, gezurra esango genuke ta ez giñake egibidetik ibilliko (\*). <sup>7</sup> Bera argitan dagon bezela, gu ere argitan ba'gabiltza, alkarrekin ba-degu elkargoa, eta bere Seme Jesus'en odolak pekatu guztiatik garbitzen gaitu. <sup>8</sup> Pekaturik ez degula,

esaten ba'degu, gere burua atzipetzen (engañatzen) degu ta ez dago egirik guregan. <sup>9</sup> Gure pekatuak aitortzen ba'ditugu, zintzoa ta zuzena da Bera, gure pekatuak barkatzeko ta gaiztakeri guztitik gu garbitzeko. <sup>10</sup> Pekaturik ez degula egin ba'diogu, Bera gezurti egiten degu, ta Aren itza ez dago guregan.

## II

### Pekatuak aitortu

<sup>1</sup> Nere semetxoak! Pekaturik egin ez dezazuten idazten dizutet au. Alabaña, norbaitek pekatu egiten ba'du, zuzena dan Jesukristo degu bitarteko Aitaren aurrean. <sup>2</sup> Bera da gure pekatuen ordain-oparia; ta ez gure pekatuena bakarrik, baita gizadi osoaren pekatuena ere. <sup>3</sup> Aren aginduak gordetzen ba'ditugu, ba-dakigu Ura ezagutzen degula (\*). <sup>4</sup> Ura (Jesukristo) ezagutzen duala diona, eta Aren aginduak bete ez, gezurtia da, ta alakoarengan ez dago egirik. <sup>5</sup> Aren itza gordetzen duana, berriz, Jainkoaren maitasun bete-betean dago. Ortatik dakigu Arengan gaudela. <sup>6</sup> Arengan dagola dionak, Ura ibilli zan bezela ibilli bear du berak ere. <sup>7</sup> Maite-maiteok! Ez dizutet agindu berririk idazten, asieratik dezuten agindu zarra baizik; eta agindu zar au, entzun dezuten itza da. <sup>8</sup> Ala ere, idazten dizutedan agindua, berria da; egiazkoa da Arengan eta zuengan, illunaldia igaro ta benetako argia agertu da-ta.

<sup>9</sup> Argitan dagola diona, bere anayari gorroto ba'dio, illunpetan bizi da oraindik. <sup>10</sup> Bere anaya maite duana, argitan bizi da, ta olakoarengan ez dago gaizpiderik. <sup>11</sup> Baña, bere anayari gorroto diona, illunpetan dago, ta illun-

petan dabil nora ez dakiala, illunak begiak itxutu egin dizkio-ta.

### Munduari iges egin bear

<sup>12</sup> Zuei, semetxo oyei, idazten dizutet, Aren izenarengatik zuen pekatuak barkatu zaizkitzutelako. <sup>13</sup> Zuei idazten dizutet, guraso oyei, asieratik Dana (Jesukristo) ezagutu dezutelako. Zuei idazten dizutet, gazte oyei, gaiztoa azpiratu dezutelako. <sup>14</sup> Zuei idazten dizutet, ume oyei, Aita ezagutu dezutelako. Zuei idazten dizutet, guraso oyei, asieratik Dana ezagutu dezutelako. Zuei idazten dizutet, gazte oyei, indartsuak zeratelako, ta Jainkoaren itza zuengan dagolako, ta gaiztoa azpiratu dezutelako. <sup>15</sup> Etzazute maite mundua, ez munduan dagonik ere. Norbaitek mundua maite ba'du, ez dago Aitaren maitasunik arengan. <sup>16</sup> Munduan dagon guztia aragi-griña da ta begi-griña ta bizitzako arrokeria; eta au ez dator Aitarendandik, mundutik baizik. <sup>17</sup> Mundua ba-dijoa, baita bere griñak ere; baño, Jainkoaren naya egiten duanak betiko iraungo du.

### Antikristoak

<sup>18</sup> Nere semetxoak! Au azken-ordua da, eta Antikristo gañean dala entzun dezuten ezkerok, nik diotzuter orain asko biurtu dirala Antikristo; eta orretxegatik dakigu azken-ordua dala. <sup>19</sup> Gure artetik sortu dira, baño ez ziran guretakoak. Guretakoak ba'lira, gurekin geldituko ziran; baña, orrelaxe agertu da ez dirala guztiak guretakoak (\*). <sup>20</sup> Baña, zuek *Espiritu* Santuaren igortzia daukazute ta dana dakizute. Ez dizutet idatzi egia ezagutzen ez dezutelako, <sup>21</sup> ezagutzen dezutelako baizik, ta ba-dakizute egitik ezin ditekela gezurrik sortu. <sup>22</sup> Nor da gezurti, Jesus Kristo'a dala ukatzen duana izan ezik? Orixe da Antikristoa, Aita ta Semea ukatzen ditua. <sup>23</sup> Semea uka-

tzen duan guztiak, ez du Aitarik ere; Semea aitortzen duanak, ba-du Aita ere. <sup>24</sup> Iraun dezala zuengan, asieratik entzun dezutenak. Asieratik entzun dezutenak, zuengan irauten ba'du, zuek ere iraungo dezute Semearengan eta Aitarengan. <sup>25</sup> Eta auxe da Berak egin zigun agintzaria; betiko bizitza.

<sup>26</sup> Bide txarrera eraman nai zaituztenai buruz idazten dizutet au. <sup>27</sup> Arengandik artu dezuten igurtziak zuengan irauten du; (\*) ta ez dezute maixu-bearrik; *Jaunaren* igurtziak dana erakusten dizuten ezkerero, ta Bera egiuts dan ezkerero ta ez gezurti, iraun zazute Berarengan, Berak erakutsi zizuten bezela.

### Jainkoaren Seme

<sup>28</sup> Orain, bada, semetxo oyeke, iraun zazute Berarengan; Bera agertuko danean, uste on dezagun eta bere etorreran lotsa ez gaitzan. <sup>29</sup> Bera zuzena dala baldin ba'dakizute, jakin zazute, baita ere, zuzentasuna betetzen duan guztia, Berarengandik jayoa dala.

### III

<sup>1</sup> Ikusi zazute zenbaterañoکو maitasuna eman digun Aitak; Jainkoaren seme-izena degu ta baita izana ere; Orregatik munduak ez gaitu ezagutzen. Bera ere ez bait-zuan ezagutu. <sup>2</sup> Maite-maiteok! Orain Jainkoaren seme gera. Gero izango gerana oraindik ez da ageri. Ala ere, ba-dakigu agertuko danean, Aren antzeko izango gerala, Bera dan-danean (dan bezelakoxea) ikusiko degu-ta (\*).

<sup>3</sup> Eta Beragan uste on au duan guztia, santu biurtzen da. Bera santu dan bezela. <sup>4</sup> Pekatu egiten duanak Legea aus-

ten du; pekatua lege-austea bait-da. <sup>5</sup> Ba-dakizute, ordea, pekatua kentzeko etorri zala, ta Arengan ez dagola pekatu-rik. <sup>6</sup> Arengan irauten duanak, ez du pekatu-rik egiten; eta pekatu egiten duanak ez du Ura ikusi, ez ezagutu ere. <sup>7</sup> Semetxuok! Etzaitzate la inork atzipetu (engañatu); zuzenbidez jokutzen duana, zuzena da, Bera zuzena dan bezela; <sup>8</sup> pekatu egiten duana, diabruarena da, (\*) asieratik egiten bait-du pekatu diabruak. Jainkoaren Semea diabruaren egiteak ondatzeko agertu zan. <sup>9</sup> Jainkoarengandik jayo danak ez du pekatu-rik egiten, Jainkoaren azia bait-dago arengan; eta orrelakoak ezin dezake pekatu-rik egin, Jainkoarengandik jayoa bait-da. <sup>10</sup> Ontantxe ezagutzen dira Jainkoaren semeak eta diabruaren semeak: zuzen ez dabilena ez da Jainkoarena, ezta bere senidea auxe da: alkar maite dezazutela. <sup>12</sup> Ez izan Kain'en antzeko: ark, gaitzoarena zan, eta anaya il zuan. Zergatik il zuan, ordea? Bere egiteak okerrak ziralakoko ta anayarenak zuzenak.

### Anai-maitasuna

<sup>13</sup> Ez arritu, anayok, munduak gorroto ba'dizute. <sup>14</sup> Ba-dakigu anayak maite ditugulako eriotzatik bizitzara aldatuak gerala. Maite ez duana, eriotzan dago. <sup>15</sup> Anayari gorroto diona, gizoniltzalle da; eta, ba-dakizute ez daukala gizoniltzalleak berarengan betiko bizirik. <sup>16</sup> Ezagutu degu Jainkoaren maitasuna; Ark bere bizia gure alde eman zuan-da. Guk ere senideen alde, gure bizia eman egin bear degu. <sup>17</sup> Munduko ondasunak dauzkanak, bere senidea premian ikusten ba'du ta bere biotza ixten ba'dio, nola egon diteke arengan Jainkoaren maitasuna? <sup>18</sup> Semetxoak! Ez dezagun itzez eta mingañez maitatu; egitez eta benetan baizik. <sup>19</sup> Ortantxe ezagutuko degu egiarenak

gerala; ta gure biotzak lasai-lasai geldituko dira Jainkoaren aurrean. <sup>20</sup> Eta gure biotzak errudun gerala esaten ba'digu, Jainkoa gure biotza baño aundiagoa da, ta dana ba-daki.

<sup>21</sup> Maite-maiteok! Biotzak errudun gerala esaten ez ba'digu, joan gintezke Jainkoarengana bildur gabe; <sup>22</sup> eta eskatzen degun guztia, artuko degu Arengandik, Bere aginduak bete ta atsegin zayona egiten bait-degu. <sup>23</sup> Eta auxe da Aren agindua: Jesukristo bere Semearen izena sinistu dezagula ta alkar maite, agindua eman digun bezela. <sup>24</sup> Aren aginduak betetzen dituana, Jainkoarengan dago ta Jainkoa arengan; eta eman digun Espiritu *Santuarengatik* ezagutzen degu guregan dagola.

#### IV

##### Gezuraren espiritua ta egiaaren espiritua

<sup>1</sup> Maite-maiteok! Etzayozute sinistu edozein espirituri; baizik-eta aztertu itzazute spirituak ea Jainkoarenak diran; gizartean sasi-igarle asko agertu dira-ta <sup>2</sup> Jainkoaren espiritua ontan ezagutuko dezute: Jesukristo aragitan etorri zala aitortzen duan espiritua, Jainkoarena da. <sup>3</sup> Baña, Jesus aitortzen ez duan espiritua, ez da Jainkoarena; Antikristoarena da; entzun dezuten bezela, ba-dator Antikristo ta onezkero munduan dago (\*). <sup>4</sup> Zuek, semetxo oyek, Jainkoarenak zerate, ta ayek (etsayak) azpiratu dituzute, zuekin dagona mundukoa baño aundiagoa da-ta. <sup>5</sup> Ayek munduarenak dira; orregatik munduaz itzegiten dute ta munduak entzun egiten die. <sup>6</sup> Gu Jainkoarenak gera. Jainkoa ezagutzen duanak entzun egiten digu; Jainkoarena ez danak, ez digu entzuten. Ontantxe ezagutzen degu egia-aren espiritua ta gezuraren espiritua.

##### Anai-maitasuna ta Jainko-maitasuna

<sup>7</sup> Maite-maiteok! Maita dezagun alkar, maitasuna Jainkoarengandik dator-ta; eta maita duan guztia Jainkoarengandik jayoa da, ta olakoak Jainkoa ezagutu egiten du. <sup>8</sup> Maitasunik ez duana, ez du Jainkoa ezagutzen, Jainkoa maitasuna bait-da. <sup>9</sup> Jainkoa guri digun maitasun ontan agertu zan: Jainkoak bere Seme bakarra lurrera bialtzean, Aren bidez gu bizi gaitezen. <sup>10</sup> Ontan dago maitasuna: ez guk Jainkoa maite izatean, baizik-eta Berak lenen gu maite izan ginduala, eta bere Semea biali zigula gure pekatuen opari: <sup>11</sup> Maite-maiteok! Jainkoak gu orrela maite izan gaituan ezkerro, guk ere alkar maite egin bear degu. <sup>12</sup> Jainkoa ez du iñork beñere ikusi; alkar maite ba'degu, Jainkoa guregan dago, ta bere maitasuna guregan bikain-bikaña da. <sup>13</sup> Ontantxe ezagutzen degu Arengan gaudela, ta Bera guregan; guri bere Espiritua eman digulako. <sup>14</sup> Guk, berriz, ikusi degu ta aitortzen degu Aita'k bere Semea munduaren Salbatzalle biali digula. <sup>15</sup> Norbaitek Jesus Jainkoaren Semea dala aitortzen ba'du, Jainkoa arengan dago, ta bera Jainkoarengan. <sup>16</sup> Eta guk ezagutu ta sinistu degu Jainkoak digun maitasuna. Jainkoa maitasuna da; eta maitasunean dagona, Jainkoarengan dago, ta Jainkoa arengan.

<sup>17</sup> Maitasuna guregan oso-osoa ba'da, auzi-egunean lasai egongo gera, mundu ontan Bera (Jainkoa) dan bezelakoak bait-gera gu ere. <sup>18</sup> Maitasunean ez dago bildurrik; maitasun osoak bildurra kanpora botatzen du, bildurrari zigorra dagokio-ta; bildur danak, berriz, ez du maitasun osorik iritxi. <sup>19</sup> Beraz, maite dezagun Jainkoa, Berak lenago maite izan gaitu-ta. <sup>20</sup> «Nik Jainkoa maite det» esaten ba'du norbaitek, eta bere senideari gorroto ba'dio, gezurtia da; ikusten duan senidea maite ez duanak, ezin maite

ikusten ez duan Jainkoa. <sup>21</sup> Eta agindu au degu Arena: Jainkoa maite duanak, maite dezala bere senidea ere.


## V


### Iru testiguak

<sup>1</sup> Kristoa Jesus dala sinisten duan guztia, Jainkoarengandik jayoa da; eta Ura sortu zuana (Aita Jainkoa) maite duana, Ark (Aitak) sortutako *Semea* ere maite du. <sup>2</sup> Jainkoa maitatzean eta Aren aginduak betetzean ezagutzen degu Jainkoaren semeak maite ditugula. <sup>3</sup> Jainkoaren maitasuna auxe da-ta: Aren aginduak betetzea. Aren aginduak ez dira, ordea, astunak: <sup>4</sup> Jainkoarengandik sortu danak mundua azpiratu egiten bait-du; au da, berriz, mundua azpiratzen duan garaipena: gure sinismena. <sup>5</sup> Eta nor da mundua azpiratzen duana, Jesus Jainkoaren Semea dala sinisten duana baizik? <sup>6</sup> Jesukristo da urez eta odolez etorri zana; urez bakarrik ez, urez eta odolez baizik. Eta Espiritu Santua da egiztatzten duana, Espiritua egia da-ta. <sup>7</sup> Iru bait-dira egiztatzten dutenak: (\*) <sup>8</sup> Espiritua, ura ta odola; eta iru auek bat dira. <sup>9</sup> Gizonen aitormena onartzen ba'degu, Jainkoarena aundiagoa da; bere Semeari buruz Jainkoak egia dalako. <sup>10</sup> Jainkoaren Semea sinisten duanak, aitormen au berengan dauka. Jainkoari sinisten ez dionak, Jainkoa gezurti egiten du; ez bait-du sinisten bere Semeari buruz, Jainkoak egin duan aitormena. <sup>11</sup> Eta aitormena auxe da: Jainkoak betiko bizitza eman digula, ta bizitza au Aren Semearengan dagola. <sup>12</sup> Semea daukanak bizia dauka; Jainkoaren Semea ez daukanak, berriz, ez dauka bizirik.

### Otoitza ta uste ona

<sup>13</sup> Au idazten dizutet Jainkoaren Semearen izena sinisten dezutenoi, betiko bizitza ba-daukazutela jakin dezazuten. <sup>14</sup> Eta auxe da Arengan daukagun uste ona: Aren nayari dagokiona eskatzen ba'diogu, entzun egiten digula. <sup>15</sup> Eta zerbait eskatzen diogunean, entzun egiten digula jakinda, ba-dakigu, eskatu dioguna iritxi egiten degula. <sup>16</sup> Norbaitek bere senidea eriotzarako ez dan pekatua egiten ikusten ba'du, egin beza otoitz, eta eriotzarako ez dan pekatua egiten dutenai bizitza emango die (\*). Ba-da eriotzarako dan pekatua; eta ez diot alakoaren alde eskatze-ko. <sup>17</sup> Edozein gaiztakeri pekatu da; baño, pekatu guztiak ez dira eriotzarako. <sup>18</sup> Ba-dakigu Jainkoarengandik jayotakoak ez duala pekaturik egiten; baizik-eta, Jainkoarengandik jayo danak bere burua zaitu egiten du ta gaiztoak ez dio ikuturik ere egiten. <sup>19</sup> Ba-dakigu Jainkoarenak gerala, ta mundu guztia gaiztoaren mendeand dagola. <sup>20</sup> Baita ere, jakin, ba-dakigu Jainkoaren Semea etorri zala, ta Egiatzko Jainkoa ezagutzeko adimena eman digula; eta gu Egiatzkoan gaude, bere Seme Jesukristo'rengan. Auxe da egiazko Jainkoa ta betiko bizitza. <sup>21</sup> Semetxo oyek! Alde egin zazute sasi-jainkoen irudietatik.





## JUAN DONEAREN BIGARREN ESKUTITZA

### Agurra

<sup>1</sup> Zarrak andre Aukeratua'ri ta aren semeai, egiz maite bait-ditut; eta ez nik bakarrik, baita egia ezagutzen duten guztiak ere (\*) <sup>2</sup> guregan irauten duan eta beti gurekin egongo dan egiarengatik. <sup>3</sup> Grazia, errukia, ta pakea beude zuekin, Jainko Aitarengandik eta Aitaren Seme dan Jesukristo'rengandik, egian eta maitasunean.


### Sasi-jakintsuak

<sup>4</sup> Asko poztu naiz zure semeak, Aitak agindu digun bezela, egiaren bidetik dabiltzala jakiñik. <sup>5</sup> Eta orain, -agindu berririk idatzi gabe, asieratik daukagun agin-dua gogoratuaz baizik-, auxe eskatzen dizut: alkar maite dezagula (\*). <sup>6</sup> Eta maitasuna auxe da: Aren (Jainkoaren) aginduen arauz ibilli gaitzezela. Eta agindua auxe da: maitasunean ibilli gaitzezela asieratik entzun degun bezela. <sup>7</sup> Orain gezurti asko sortu dira munduan eta ez dute aitortu nai Jesukristo aragitan etorri danik. Orixe da gezurtia ta antikristoa. <sup>8</sup> Begira, gero, zuek!, ez dezazuten galdu egindako lana; baizik sari osoa artu. <sup>9</sup> Bide okerrera dijoanak eta Jesukristo'ren ikasbidean irauten ez


duanak, ez dauka Jainkoa; ikasbidean irauten duanak, bai, Aita ta Semea dauzka. <sup>10</sup> Zuengana datorrenen batek ikasbide au ez ba'dakar, ez etxean artu, ezta AGUR esan ere alakoari; <sup>11</sup> alakoari AGUR esaten diona, egite gaiztoetan erkide egiten da (\*).

### Azkena

<sup>12</sup> Ba-dauzkat gauza geyago ere zuei idazteko, baña, ez dizutet gutunez eta tintaz egin nai izan, zuenera joan eta aoz-ao itzegiteko asmoetan naiz-eta, gure poza bete-betea izan dedin. <sup>13</sup> Zure aizpa Aukeratua'ren semeak agur egiten dizute (\*).







## JUAN DONEAREN IRUGARREN ESKUTITZA

**Agurra**

<sup>1</sup> Zarrak, zuri, benetan maite zaitudan Gayo laztan orri.

**Gayo goratzen**

<sup>2</sup> Maite-maite ori: zure anima ongi dabillen bezela, beste gauza guztietan ere ongi ibilli zaitezela ta osasun ona izan dezazula opa dizut. <sup>3</sup> Poz aundia izan nuan anayen etorrerarekin eta zure egiaren aitormenarekin: egian zintzo zabiltzala, alegia. <sup>4</sup> Ezerk ez dit poz aundiagorik ematen, nere semeak egiaren bidetik dabiltzala jakiteak baño. <sup>5</sup> Maite-maite ori: zuzen jokutzen dezu anayai, ta baita arrotzai ere, egiten diezun guztian; <sup>6</sup> berak goratu zuten, elizaren aurrean, zure goimaitasuna. Oso ongi egingo dezu, Jainkoari dagokion bezela, bideko ona eskuratuaz; <sup>7</sup> Aren (Jainkoaren) izenarengatik joan ziran, arrotzengandik ezer artu gabe. <sup>8</sup> Olakoai arrera ona egin bear diegu, egiaren alde ayen lankide izan gaitezen.

**Diotretes'en jokabide txarra**

<sup>9</sup> Idatzi nion zerbait Elizari. Baño, Diotretes'ek, ayen artean lenengo tokia nai du, ta, ez gaitu gu onartzen.

<sup>10</sup> Beraz, orrera joaten ba'naiz, nik gogoratuko dizkiot egiten dituan lanak: gure aurka, gezurretan barra-barra gaizki-esaka. Eta ori naikoa ez dala, ez ditu anayak onartzen: eta ondo artu nai dituztenai galerazi egiten die, ta elizatik bota egiten ditu. <sup>11</sup> Maite-maite orrek, zuk ez jarraitu ikasbide txarrari; onari baizik. On egiten duana Jainkoarena da; gaizki egiten duanak ez du Jainkoa ikusi.

**Demetrio goratzen**

<sup>12</sup> Demetrio'ri buruz guztiak ondo itzegiten dute; egiak berak ere bai; guk ere bai; eta zuek ba-dakizute guk egia aitortzen degula.

**Azkena**

<sup>13</sup> Askoz geyago idatziko nizkitzuke; baño ez det tintaz eta idazkortzez egin nai. <sup>14</sup> Laxter zuengana izango naitzen ustea det, eta aoz-ao itzegingo degu. <sup>15</sup> Pakea zuekin, Adiskideak agur egiten dizute. Agurtu itzazu adiskideak banan-banan.





## JUDAS DONEAREN ESKUTITZA

### Agurra

<sup>1</sup> Judas'ek, Jesukristo'ren morroi ta Santiago'ren anai onck, zuei, Jainko Aitarengan maitatu oyei, Jesukristo'rengan gordetako deitu oyei; <sup>2</sup> errukia, pakca ta maitasuna geitu bitez zuengan gero-ta-geyago.

### Sasi-jakintsuak

<sup>3</sup> Maite-maiteok! Gu guztion osasunari buruz, zuei idazteko gogo bizitan negola, egin-bearra sortu zait, santuai (kristauai) bein betiko eman zayen sinismenaren alde guda egin dezazutela eskatzeko. <sup>4</sup> Galbide ontarako aspal-ditik izendatuta zeuden gizon gaizto batzuk sartu bait-dira ixil-ixilik, eta Jainkoaren grazia lasaikeri biurtzen dute ta Jesukristo gure Jaun ta Jabe bakarra ukatzen.

<sup>5</sup> Guztia dakizuten ezkeru, auxe gogora nai dizutet: Jaunak, bere erria Ejito'tik aterata gero, sinisgogorak galdu egin zituala; <sup>6</sup> eta nagusitza gorde bearrean, beren bizilekua galdu zuten aingeruak, betiko giltzapean, illunpean, egun aundiko auzirako gordeta dauzkala. <sup>7</sup> Eta Sodoma ta Gomorra ta ayek bezela loitu, ta okerbidezko aragike-


rian sartu ziran inguru-erriak, ikasbidetarako gelditu ziran, betiko suaren zigorra eramaten.

<sup>8</sup> Era berean auek ere, beren zoroan, aragia zikindu egiten dute, nagusitza oinperatu ta aunditasunak biraokatu (\*). <sup>9</sup> Mikel goiaingerua, Moises'en gorputza zala-ta, diabruarekin borrokan zebillela, etzan aren (diabruaren) aurka epai gaiztorik botatzen ausartu, ta auxe bakarrik esan zuan: «Jaunak artu dezaizula kontu» (\*). <sup>10</sup> Oyek, ordea, ez dakiten edozerren aurka egiten dute birao; eta zentzun-gabeko abereak bezela, susmo utsez ezagutzen duten edozertan usteltzen dira. <sup>11</sup> Bai zoritxarreko dirala! Kain'en bidean sartu bait-dira, eta, Balaan'en zorakerian, sari-ordain ondatu, eta Koe'ren gazitakerian galdu (\*). <sup>12</sup> Oyetzek loitzen dituzte zuen otorduak; lotsarik gabe zuekin jaten dute beren sabelak betetzeko; aizeak daramizkian odei urgabeak dira; frutu-gabeko zuaitz berandukorak, bi aldiz illak, eta zuztarretik igartuak; <sup>13</sup> bere zikin-kerien aparra dariote itxas-olatuak; betiko illunpetan gelditu bear duten izar igeskorak. <sup>14</sup> Ayentzat esan zuan aurrez Enok'ek, Adan'en ondorengo zazpigarrenak, onako au: «Ba-dator Jauna millaka santukin, <sup>15</sup> guztien aurka auzia egiteko, eta gaizto guztiai egin zituzten gaiztakeri guztiak aitorerazteko, eta pekatari guztiai ere bai Aren aurka esan zituzten gordinkeri guztiak» (\*). <sup>16</sup> Or dabilta oyek marmarrean, negarti, beren griña txarren mendean, aoa arrokeri-jario, beren irabazpiderako aundizkiak losintzatzen.

<sup>17</sup> Baño zuek, maite-maiteok, gogora zazute Jesukristo gure Jaunaren apostoluak aurrez esan zizutena. <sup>18</sup> Ala esaten zizuten: beren griña gaiztoen bideetatik, gaiztakerian, ibilliko diran gizon gezurti batzuk etorriko dirala azken-aldian. <sup>19</sup> Auek dira ixkanbill-sortzalleak, lurkoyak eta espiritugabeak.

<sup>20</sup> Zuek, ordea, maite-maiteok, daukazuten sinismen santuan sendotuta, Espiritu Santuagan otoitz egiñik, <sup>21</sup> Jainkoaren maitasunean iraun zazute, eta betiko bizitzarako Jesukristo gure Jaunaren errukia itxaron. <sup>22</sup> Beste oyei, berriz: batzuei gogor egin, oraindik ez baitan bizi dira-ta; <sup>22</sup> besteak salba itzazute, sutatik aterata; besteai bildurrez beterik erruki zakizkie, beren aragikeriak zikinduta daukan jantzia bera ere gaitzetsirik.

<sup>24</sup> Zuek pekatu guztietatik gorde ta bere aintzaren aurrera loirik gabe ta pozez beterik eraman zaitzateken Ari, <sup>25</sup> Jainko bakarrari, Jesukristo gure Jaunaren bidez gure Salbatzalle dan Ari, aintza, aunditasuna, almena ta agintaritza gizaldi guztien aurretik, orain eta gizaldi guztien gizaldietarako. Amen.



## JUAN DONEAREN AGERPENA

### I

#### Sarrera

<sup>1</sup> Jesukristo'ren agerpena, laxter gertatu bear diranak bere morroyai erakusteko, Jainkoak Jesukristo'ri egiña, ta, bere aingerua bialduta, Juan bere morroyari adierazia; (\*) <sup>2</sup> Juan da, berriz, Jainkoaren itzari eta Jesukristo'ren aitormenari, ikusi duan guztian, aitoren diena (\*). <sup>3</sup> Zorionekoa, igarketa ontako itzak irakurtzen eta entzuten ditutana eta bertan idatzia betetzen duana; denbora gañean da-ta.

<sup>4</sup> Juan'ek Asia'n dauden zazpi elizai; grazia ta pakea zuei, danaren, zanaren eta izango danengandik, (\*) <sup>5</sup> baita Aren errege-aulkiaren aurrean dauden zazpi espirituengandik ere; baita ere testigu zintzo, ildakoen len- seme, lurreko erregeen buru dan Jesukristo'rengandik ere; Onek maite izan gaitu, ta gure pekatuetatik bere odolez atera gaitu ta <sup>6</sup> bere Jainkoa ta Aitaren erregegi ta apaiz egin gaitu. Berari gorapena ta agintea gizaldiz-gizaldi. Amen.

<sup>7</sup> Orra non datorren zeruko odehyetan; begi guztiak ikusiko dute, baita Bera zauritu zutenak ere; eta Aren-

gatik, bular-joka, negar egingo dute lurreko jatorri guztiak. Egia da; amen! <sup>8</sup> «Ni naiz alpha ta omega (asicra ta azkena)», dio Jainko Jaunak, danak, zanak eta izango danak, gurtiz altsuak (\*).

## LENENGO ZATIA

### Asia'ko zezpi Elizai eskutitzak — Asierako agerpena

<sup>9</sup> Nik, Juan'ek, zuen anai ta Jesus'engatik nekeetan, erreinuan eta eramanpenean zuen lagun naizen onek, Jainkoaren itzarengatik eta Jesus'en aitormenarengatik Patmos deritzan ugartearen negola, (\*) <sup>10</sup> Jaunaren egun batean, (igande batean) zorabiatuta, nere atzean adar-otsa bezelako aots aundia entzun nuan: <sup>11</sup> auxe zion: «Ikusten dezuna liburu batean idatzi zazu ta biali zayezu Efeso'n, eta Esmirna'n, eta Pergamo'n, eta Tiatira'n, eta Sardes'en, eta Filadelfia'n, eta Laodizea'n dauden zazpi elizai. <sup>12</sup> Itz egiten zidan aotsa zeñena zan ikusteko atzera begiratu nuan eta, urrezko zazpi argimutil ikusi nituan, <sup>13</sup> eta zazpi argimutillen erdian gizasemearen antzeko norbait, soñeko luzez jantzita ta bularpeak urrezko gerrikoz inguratu ta. <sup>14</sup> Aren burua ta illeak, artille zuriaren ta elurraren antzekoak ziran; eta aren begiak, sugarraren antzekoak. <sup>15</sup> Aren oñak, su-labearen urtutako burni-oria bezelakoak ziran; eta Aren aotsa, ur-erauntsiarena bezelakoa. <sup>16</sup> Bere eskubian zazpi izar zeuzkan, eta aotik bi aoko ezpata ateratzen zitzayon; eta aren arpegia, eguzkiak bere indarrak audienean argi egiten duanean bezelakoa zan. <sup>17</sup> Ura ikusi nuanean, nere oiñetara erori nitzan, ilda bezela. Eta bere eskubia nere gañean jarri zidan esanaz: «Ez ikaratu! Ni lenengoa ta azkenekoa naiz, <sup>18</sup> bizi dana ta ill izana; eta orain bizi naiz gizaldien gizaldietarako, eta nik dauzkata eriotzaren eta inpernuaren giltzak (\*). <sup>19</sup> Idatzi itza-

zu, bada, ikusi dituzunak, orain diranak eta auen ondoren izango diranak ere bai. <sup>20</sup> «Nere eskubian ikusi dituzun zazpi izarren eta urrezko zazpi argimutillen ezkutukia au da: zazpi izarrak, zazpi elizen aingeruak dira; ta urrezko zazpi argimutillak, zazpi elizak» (\*).

## II

### Efeso'ko Elizari eskutitza

<sup>1</sup> Efeso'ko elizaren aingeruari idatzi zayozu auxe: «Au dio, bere eskubian zazpi izar dauzkanak eta urrezko zazpi argimutillen erdian dabillanak; <sup>2</sup> Ba-dakizkit zure egiteak, zure lanak eta zure eramanpena. Ba-dakit gaiztoak ezin ikusi dituzula, ta, izan ez, eta apostolu dirala diotenak aztertu ta gezurretan arrapatu dituzula; <sup>3</sup> eta eramanpen aundia dezu; nere izenarengatik atsekabeak izan zenituan, eta etzaude gogait eginda. <sup>4</sup> Ala ere, zure aurka daukat zure lengo maitasuna galdu egin dezula (\*). <sup>5</sup> Gogora zazu, bada, nondik erori zeran eta damutu zaitez, eta egin zazu len egiten zenuana. Damutzen ez ba'zera, zuregana joan, eta zure argimutilla bere tokitik kendu egingo def. <sup>6</sup> Baño, zure alde dezu, Nikolao'ren aldekoen egiteai gorroto diezula, nik diedan bezela.

<sup>7</sup> Belarririk duanak, entzun beza Espirituak elizai esaten diena. Irabazleari, nere Jainkoren Atsegintegian (Paradisuan) dagon bizitza-zugaitzetik emango diot jateko».

### Esmirna'ko Elizari eskutitza

<sup>8</sup> Eta Esmirna'ko elizaren aingeruari idatzi zayozu au: «Auxe dio lenengoak eta azkenekoa, ilda egon eta bizitza biurtu zanak; <sup>9</sup> Ba-dakizkit zure atsekabea ta zure

txirotasuna (pobretasuna), baño aberatsa zera; baita ere, ba-dakit, izan gabe, judutar dirala diotenak, Satanas'en batzarra diranak, zure kontra biraoka ari dirala. <sup>10</sup> Ez bildurrik izan igaro bear dituzun nekeai. Begira, diabruak zuetako batzuk giltzaperera eramango ditu, nekepean aztertzeko, eta amar eguneko larrialdia izango dezute. Iraun zazu zintzo eriotzararte, ta bizitzako koroya emango ditut. <sup>11</sup> Belarririk duanak entzun beza Espirituak elizai esaten diena. Irabazleak ez du bigarren eriotzaren kalterik igaroko».

#### Pergamo'ko Elizari eskutitza

<sup>12</sup> Eta Pergamo'ko elizaren aingeruari idlatzi zayozu au: «Auxe dio bi aoko ezpata zorrotza daukanak: <sup>13</sup> Ba-dakit non bizi zeran: Satanas'en aulkia dagon tokian. Eta nere izenari sendo eusten diozu, ta nere sinisemenik ere ez dezu ukatu; ezta, Antipas'en egunetan ere, nere aitorle ta jarraitzalle zintzo au, zuen artean, Satanas bizi dan tokian, il zutenean. <sup>14</sup> Ala ere, ba-det zerbait zure kontra: Balaan'ek erakutsien jarraitzalleak zuen artean daukazula, Balaan onek erakusten bait-zion Balak'i Israel'go semeen aurrean erorbideak ipintzen, sasi-jainkoen oparietatik jaten eta aragikeriak egiten (\*). <sup>15</sup> Baita ere ba-dituzu or Nikolao'ren aldekoen ikasbideari jarraitzen diotenak. <sup>16</sup> Damutu zaitez, bada. Bestela, laxter etorriko natzaizu, ta nere aoko ezpatez burruka egingo diet. <sup>17</sup> Belarririk duanak, entzun beza Espirituak elizai esaten diena. Irabazleari mana ezkutua emanko diot; baita arri txiki txuri bat ere, eta arrian idatzita, artzalleak bestek ezagutzen ez duan izen berria».

#### Tiatira'ko Elizari eskutitza

<sup>18</sup> Eta Tiatira'ko elizaren aingeruari idlatzi zayozu: «Auxe dio sugarra bezelako begiak eta burni-ori \* bezelako oñak dituan Jainkoaren Semeak: <sup>19</sup> Ezagutzen ditut zure egiteak, zure maitasuna, zure sinismena, ta zure lanbidea ta zure eramanpena, eta lengoak baño obeak liran zure azkeneko egiteak. <sup>20</sup> Ala ere, zure aurka daukat: igarle dala dion Jezabel emakume orri pakean uzten diozula: or dabil nere morroyai aragikeriak egiñarazten eta sasi-jainkoen oparietatik janarazten (\*). <sup>21</sup> Damutzeko denbora eman diot; ark, ordea, ez du bere eragikeriaz damutu nai. <sup>22</sup> Begira: oera botako det, eta arekin loitzen diranak, atsekabe aundiak izango dituzte, beren gaiztakeriaz damutzen ez ba'dira (\*). <sup>23</sup> Eta ayen semeak eriotzez ilko ditut; eta eliza guztiak jakingo dute Ni naizela giltzurdiñak eta biotzak aztertzen ditudana; eta bakoitzari zuen egiteai dagokiena emango dizutet. <sup>24</sup> Zuei, ordea, Tiatira'ko beste guztioi, orrelako ikasbideari jarraitzen ez diozutenoi, ta Satanas'en sakonak omen diranak ezagutzen ez dituzutenoi, ez dizutet zama berririk emango; <sup>25</sup> baño, len daukazutena, sendo euki, ni etorri arte. <sup>26</sup> Eta irabazleari ta nere egiteak azkenearte betetzen dituanari, atzeritarren gañeko agintaritza emango diot, <sup>27</sup> eta burnizko makillaz eramango ditu ta buztifnezko ontziak bezela apurtuko dira, <sup>28</sup> nik ere nere Aitarengandik alako agintaritza artu det-eta; goizeko izarra ere emango diot (\*). <sup>29</sup> Belarririk duanak, entzun beza Espirituak elizai esaten diena».

\* Burni-ori: bronce.

## III

**Sardes'ko Elizari eskutitza**

<sup>1</sup> Eta Sardes'ko elizaren aingeruari idatzi zayozu au: «Auxe dio Jainkoaren zazpi espirituak eta zazpi izarrak daukanak: Ezagutzen ditut zure egiteak; biziaren izena daukazu, baño ilda zaude. <sup>2</sup> Zaude erne ta sendotu zazu il-zoriar dagon beste guztia; ez bait-ditut on-onak arkitu zure egiteak, nere Jainkoaren aurrean. <sup>3</sup> Beraz, gogora czazu lendik artuta ta entzunda daukazuna ta bete ta damutu zaitetz. Erne ez ba'zaude, lapurra bezelaxe etorriko naiz, eta ez dezu jakingo zein ordutan etorriko naizen. <sup>4</sup> Ala ere, ba-dituzu Sardes'en, beren jantziak zikindu ez dituzten lagun batzuk; eta nerekin ibilliko dira zuriz jantzita, merezi dute-ta. <sup>5</sup> Irabazlea soñeko zuriz jantziko da, eta aren izenik ez det bizitza-liburutik beñere kenduko, ta aren izena, nere Aitarean aurrean eta Bere aingeruen aurrean nik aitortuko det. <sup>6</sup> Belarririk daukanak, entzun beza Espirituak elizai esaten diena».

**Filadelfia'ko Elizari eskutitza**

<sup>7</sup> Filadelfia'ko elizaren aingeruari idatzi zayozu au: «Auxe dio Santuak, Egizaleak, Dabid'en giltza daukanak, ark ideki ta beste iñork ezin itxi; ark itxi ta beste iñork ezin ideki dezake. <sup>8</sup> Ba-dakizkit zure egiteak. Ara: indar gutxikoa zeran arren, nere itza gorde bai, ta nere izena ukatu ez dezun ezker, iñork itxi ezin duan atea utzi dituzut zabalik zure aurrean. <sup>9</sup> Ara: Satanas'en batzarreko batzuk, judutar izan ez, eta judutar dirala gezurretan esaten duten batzuk emango dizkitzut. Ara: nik zuregana jatera beartuko ditut eta zure aurrean auzpestera, maite zaitudala jakin dezaten. <sup>10</sup> Nere eramanpen-itza gorde dezun ezker, Nik ere, lurean bizi diranak aztertzer, lur

osora etorriko dan larrialdi-ordutik gorde egingo zaitut. <sup>11</sup> Laxter nator. Daukazuna gorde zazu ondo, zure koroya beste batek eraman ez dezan. <sup>12</sup> Irabazlea nere Jainkoaren etxeko zuntioin egingo det, eta andik ez da beñere aterako; eta aren gañean nere Jainkoaren izena, ta nere Jainkoaren erriaren izena – nere Jainkoarengandik jexkiko dan Jerusalem berriarena – idatziko ditut, baita nere izen berria ere. <sup>13</sup> Belarririk daukanak, entzun beza Espirituak elizai esaten diena».

**Laodizea'ko Elizari eskutitza**

<sup>14</sup> Laodizea'ko elizaren aingeruari idatzi iozu au: «Auxe dio Amen'ek, (egiaren Jainkoak), aitorle zintzo ta egizaleak, Jainkoak egindakoen Sorburuak: <sup>15</sup> Ezagutzen ditut zure egiteak; ba-dakit etzerala ez otz ez bero. Ai otz edo bero ba'ziña! <sup>16</sup> Baña, epel zeralako, ta ez otz eta ez bero, ok-eginda, aotik zu botatzen asiko naiz. <sup>17</sup> «Aberatsa naiz, diozu zuk, aberastu egin naiz, ez det ezeren bearrik»; baño ez dakizu gizarajo, errukarri, eskeko, itxu ta larru-gorri bat zeranik. <sup>18</sup> Burubide au ematen dizut; erosi idazu sutan garbitutako urrea, aberastu zaitezen; eta soñeko garbiak, jantzi zaitezen eta ume lartugorriaren lotsa agertu ez dedin; kolirioz igurtzi itzazu zure begiak, ikusi dezazun. <sup>19</sup> Nik gogor artzen ditut maite ditudan guztiak eta zigortu egiten ditut. Leya zaitetz eta damutu. <sup>20</sup> Ara: Ate-ondoan nago zutik, ate-joka. Norbaitek nere aotsa entzun eta atea zabaltzen ba'dit, aren etxean sartuko naiz eta arekin apalduko det eta ark nerekin. <sup>21</sup> Irabazlea, nere errege-aulkian nerekin exeri-eraziko det, ni ere, irabazi nualako, nere Aitarekin Aren errege-aulkian eseri nintzan bezela. <sup>22</sup> Belarririk daukanak, entzun beza Espirituak elizai esaten diena».

## BIGARREN ZATIA

## IV

**Epaille nagusia**

<sup>1</sup> Gauza auen ondoren, ikuskari bat izan nuan: eta zeruan ate bat ikusi nuan zabalik; eta lengoan entzun nuan turuta-otsa bezelako aotsak itzegin zidan, eta auxe esan: «Igo zaitetz onera, ta gauza auen ondoren gertatu bear dutenak erakutsiko dizkitzut». <sup>2</sup> Bat-batean zorabioak artu ninduan, eta zeru-erdian errege-aulki bat ikusi nuan ipiñita, eta aulki-gañean bat eserita. <sup>3</sup> Eserita zegonak, jaspe ta sardonize-erriaren ikuskizun-antzekoa zirudian; eta aulki-inguruan zegon ostadarra esmeralda-antzekoa zan <sup>4</sup> Aulkiaren inguruan beste ogeitalau aulki ikusi nituan; eta aulki auen gañean, jantzi zuria soñean eta urrezko koroya buruan, ogeitalau zaar eserita. <sup>5</sup> Aulkitik tximistak, deadarrak eta trumoyak ateratzen ziran; eta aulki-aurrean, Jainkoaren zazpi espirituak diran suzko zazpi argi-ontzi zeuden piztuta (\*). <sup>6</sup> Aulki-aurrean kristal-antzeko itxaso dizdizaria; eta aulkiaren erdian eta bere inguruan, lau bizidun, aurre ta atze, begiz beteak. <sup>7</sup> Lenengo biziduna, leoi-antzekoa zan; bigarren biziduna zezen-antzekoa; irugarren bizidunak gizon-antzeko aurpegia zuan eta laugarren biziduna egan dijoan arrano-antzekoa zan. <sup>8</sup> Lau bizidun auek seina ego zituzten, eta guztiak, bai azal eta bai barru, begiz beteak zeuden, eta gau ta egun, atsedenic gabe, onela ari ziran: «Santua, Santua, Santua da Jainkoa guztiz Altsua! Zana, dana ta etorriko dana». <sup>9</sup> Eta bizidun auek, aulkian eserita, gizaldiz-gizaldi bizi danari aintza, ospe ta eskerron ematen zioten bakoitzean, <sup>10</sup> ogeitalau zaar ayek, aulkian eserita dagonaren aurrean auzpeztu egiten ziran, eta beren koro-

yak aulki-aurrera botatzen zituzten, esanaz: <sup>11</sup> «Aintza, ospea ta agintaritza artzeko aña ba-zera Zu, gure Jainko Jaun ori! Gauza guztiak Zuk egin zenituan, zure nai-izatez dira ta egiñak izan bait-ziran».

## V

**Bildotsa**

<sup>1</sup> Eta aulkian eserita zegonaren eskualdean liburu bat ikusi nuan, barru ta kanpo idatzia ta zazpi silluz joa. <sup>2</sup> Aingeru indartsu bat ere ikusi nuan, deadar aundiz otsegiten: «Nor da liburua zabaltzeko diña ta aren silluak askatzeko?» <sup>3</sup> Eta iñork ezin zuan, ez zeruan, ez lur-gañean ez lur-azpian liburua zabaldu ta begiratu. <sup>4</sup> Ta liburua zabaltzeko ta begiratzeko gauza zanik iñor arkitu etzalako, negar batean asi nitzan. <sup>5</sup> Baño, zaar ayetako batek auxe esan zidan: «Ez egin negarrik! Begira: Juda-ren jatorriko leoya, Dabid'en jatorria gallen atera da liburua ta aren zazpi silluak zabaltzeko» (\*). <sup>6</sup> Eta au ikusi nuan: aulkiaren eta lau bizidunen erdian eta lau zaarren erdian, Bildotsa ikusi nuan zutik, lepamoztua bezela, zazpi adar eta zazpi begi zituala. Auek, lurbira osora bialdutako Jainkoaren zazpi espirituak dira (\*). <sup>7</sup> Eta etorri zan, eta aulkian eserita zegonaren eskubitik liburua artu zuan. <sup>8</sup> Eta liburua artu zuanean, lau bizidunak eta ogeitalau zaarrak Bildotsaren aurrean auzpeztu ziran, bakoitzak bere zitara ta usai gozoz betetako urrezko ontziak artuta: usai gozo auek santuen otoitzak dira.

<sup>9</sup> Eta kanta berri bat ari zuten, esanaz: «Liburua artzeko ta aren silluak askatzeko diña zera, lepamoztua izan bait-ziñan eta jatorri, izkera, enda ta erri guztitik zure odolez erosi bait-gaituzu Jainkoarentzat; <sup>10</sup> eta gure Jain-

koarentzat errege di ta apaiz egin dituzu ta lurtean erregetza daukate».

<sup>11</sup> Ikusi nuan ikusi eta, aulki ta bizidun eta zaarren inguruan, aingeru askoren aotsa entzun nuan: millaka ta millaka ta milloika ta milloika, <sup>12</sup> guztiak batera, deadarka ari ziran: «Indarra, eta aberastasuna, eta jakituria, eta almena, eta ospea, eta aintza, eta onespina artzeko diña da lepamoztua izan zan Bildotsa». <sup>13</sup> Eta zeruan, eta lurgañean, eta lurpean, eta itxasoan diran guztiak entzun nien auxe ziotela: «Aulkian eserita dagonari ta Bildotsari, onespina, ospea, aintza ta nagusitza gizaldiz-gizaldi». <sup>14</sup> Eta lau bizidunak, «Amen», erantzun zuten. Eta zaarrak auzpez gurtu egin zuten.

## VI

### Zazpi silluak askatzea

<sup>1</sup> Eta ikusi nuan ikusi Bildotsak zazpi silluetako lenegoa askatu zuanean, eta lau bizidunetako bati auxe entzun nion trumoi-otsez onela esaten: «Zatoz!» <sup>2</sup> Begiratu, ta zaldi zuri bat ikusi nuan, eta aren gañean zijoan nak uztai bat zeraman, eta koroï bat eman zioten, eta gallen irten zan eta irabaztera. <sup>3</sup> Bigarren sellua askatu zuanean, bigarren bizidunari auxe entzun nion: «Zatoz!». <sup>4</sup> Eta beste zaldi gorrixka bat atera zan, eta aren gañean zijoanari, lurretik pakea bialtzeko eta gizonak alkar iltzeko almena eman zitzaion, baita ezpata aundi bat ere. <sup>5</sup> Iru garren sillua askatu zuanean, auxe esaten entzun nion irugarren bizidunari: «Zatoz! eta begira». Eta zaldi beltz bat ikusi nuan, eta aren gañean zijoan nak pixu bat zeukan. <sup>6</sup> Eta lau bizidunen artetik aots antzeko bat entzun nuan. Ala zion: «Bi libra gari, denario batean; eta sei

libra garagar, denario batean; baño, ardoa ta olio, iku-tu ere ez».

<sup>7</sup> Laugarren sillua askatu zuanean, laugarren bizidunaren aotsa entzun nuan. Ala zion: «Zatoz!» <sup>8</sup> Begiratu ta zaldi illun bat ikusi nuan; eta aren gañean zijoan nak, Eriotza zeritzan, eta inperua zeraman lagun. Eta lurraren laurdenean, ezpataz, gosez, izurritz eta lurreko basa-piztiz iltzeko almena eman zitzaion. <sup>9</sup> Bosgarren sillua askatu zuanean, Jainkoaren itzarengatik eman zuten aitormenarengatik lepamoztuen animak ikusi nituan aldare-azpian. <sup>10</sup> Eta ala zioten deadarka: «Noiz arte luzatzen ikusi dezue epaitzea, Jaun santu ta egizale orrek, lurtean bizi diranai gure odolarengatik zigoira eman gabe?» <sup>11</sup> Eta jantzi zuri bana eman, eta pixka batean ixilik egoteko esan zitzaion, ayek bezela lepamoztuko zituzten morroikideen eta senideen sail osoa bete zedin arte.

<sup>12</sup> Eta ikusi nuan ikusi; eta seigarren sillua askatu zuanean, lurrikara aundi bat izan zan, eta eguzkia auntz-illezko zorro bat bezin beltz biurtu zan, eta illargia odol bezela, <sup>13</sup> eta zeruko izarrak lurgañera erori ziran, pikondoak aize-bolarak jota pikoak botatzen dituan bezela. <sup>14</sup> Eta zerrua bildu egin zan, liburu bat biltzen dan bezela; eta mendia ta ugarte guztiak dardaratu egin ziran beren leketan. <sup>15</sup> Eta lurreko erregeak, eta aundizkiak, eta agintariak, eta aberatsak, eta indartsuak, eta morroyak, eta nagusiak guztiak arkaitz-zuloetan eta mendiko leizetan gorde ziran. <sup>16</sup> Mendiai eta arkaitzai ala oju egiten zieten: «Erori zaitetze gure gañera, ta aulkian eserita dagonaren arpegitik eta Bildotsaren asarretik ezkutatu gaitzazute!» <sup>17</sup> Ayen asarre-egun aundia etorri da-ta. Nor gelditu diteke zutik?»



## VII

**Siñaledunen taldea**

<sup>1</sup> Oyen ondoren, lau aingeru ikusi nituan lurraren lau ertzetan zutik, lurreko lau aizeai eusten, legorrean, itxasoan eta zugaitzetan aizeketarik izan etzedin. <sup>2</sup> Eta beste aingeru bat ikusi nuan eguzki-sortaldetik igotzen eta Jainko biziaren siñalia zeukan; eta lurrari ta itxasoari kalte egiteko almena eman zitzaizen lau aingeruari, aots aundiz deadar au egin zien: <sup>3</sup> «Ez egin kalterik, ez lurrari, ez itxasoari, ez zugaitzai, gure Jainkoaren serbitzariak beko-kietan siñalia ipintzen ez diegun bitartean» (\*). <sup>4</sup> Eta siñalia artu zutenen taldea ere entzun nuan: eun da berrogeita lau milla Israeldarren semeen jatorri guztietako siñaledunak.

<sup>5</sup> Juda'ren jatorritik, amabi milla siñaledun; Erruben'en jatorritik, amabi milla; Gad'en jatorritik, amabi milla; <sup>6</sup> Aser'en jatorritik, amabi milla; Neftali'ren jatorritik, amabi milla; Manasses'en jatorritik, amabi milla; <sup>7</sup> Simeon'en jatorritik, amabi milla; Lebi'ren jatorritik, amabi milla; Isakar'en jatorritik, amabi milla; <sup>8</sup> Zabulon'en jatorritik, amabi milla; Benjamin'en jatorritik, amabi milla siñaledun.

**Zeruko beste taldeak**

<sup>9</sup> Gero, begiratu ta iñork zenbatu eziñ alako talde aundi bat ikusi nuan aulkiaren eta Bildotsaren aurrean, arraza, jatorri, erri ta izkera guztitakoak; soñean jantzi zuriak zeuzkaten eta eskuan palma-adarrak. <sup>10</sup> Eta deadarka au esaten ari ziran: «Osasuna, aulkian eserita dagon gure Jainkoari ta Bildotsari». <sup>11</sup> Eta aingeru guztiak zutik zeuden aulkiaren, eta zaarren, eta lau bizidunen inguruan; eta, aulkiaren aurrean auspez, Jainkoa gurtzen ari ziran esanez: <sup>12</sup> «Amen! Onespena, eta aintza, eta jakinduria,

eta eskerrak, eta ospea, ta almena ta indarra gure Jainkoari gizaldiz-gizaldi. Amen».

<sup>13</sup> Eta zaarretako batek itzegin eta ala esan zidan: «Zein dira ta nondik etorri dira zuriz jantzitako oyek?» <sup>14</sup> «Nere Jauna! Ori zuk dakizu», erantzun nion nik. Eta au esan zidan: «Larrialdi aunditik etorri diranak, eta beren soñekoak Bildotsaren odoletan garbitu ta zuritu dituztenak dira oyek. <sup>15</sup> Orregatik daude Jainkoaren aulki-aurrean, eta gau ta egun bere elizan Aren serbitzuan bizi dira; eta aulkian eserita dagonak oyen gañean zabaltzen du bere txabola (\*). <sup>16</sup> Ez dute geyago ez gosarik ez egarririk izango; eta ez eguzkik ez iñongo sargorik ez ditu nekatuko; <sup>1</sup> aulki-erdian dagon Bildotsak bazkatuko bait-ditu ta bizitzako ur-iturrietara eramango; eta ayen begietatik malko guztiak Jainkoak kenduko ditu».

## IRUGARREN ZATIA

## VIII

**Lenengo lau turuta-otsak**

<sup>1</sup> Eta Bildotsak zazpigarren siñalia askatu zuanean, zeruan ordu-erdi inguruko ixillaldia izan zan.

<sup>2</sup> Eta Jainkoaren aurrean zeuden zazpi aingeruak ikusi nituan. Eta zazpi turuta eman zitzaizkien. <sup>3</sup> Eta beste aingeru bat etorri ta aldare-ondoan gelditu zan zutik; eskuan urrezko intzentsu-ontzia zeukan; eta usai gozo asko eman zitzaizkion; santu guztien otoitzai dagokienez, aulki-aurrean dagon urrezko aldarean eskeñi zitzan. <sup>4</sup> Eta, santuen otoitzakin batean, usai gozoen kea ere aingeruen eskutik Jainkoaren aurrera igo zan. <sup>5</sup> Eta aingeruak, intzentsu-ontzia artu, ta aldareko su-txingarrez beterik, lur-gañera bota zuan; eta trumoyak, eta ojuak. eta tximistak

eta lur-ikarak sortu ziran. <sup>6</sup> Eta zazpi turutak zeuzkaten zazpi aingeruak, turutak jotzeko prest jarri ziran. <sup>7</sup> Jo zuan turuta lenengo aingeruak, eta txingorrez eta odolez nastutako sua piztu zan, eta lur-gañera bota zuten, eta lurra irutatik bat kixkali egin zan, eta zugaitzak irutatik bat erre egin ziran, eta belar eze guztia erre egin zan.

<sup>8</sup> Bigarren aingeruak ere jo zuan turuta; eta mendi aundia zirudian zerbait sutan, itxasora bota zuten; eta itxasoa irutatik bat odol biurtu zan, eta itxasoan bizi ziranak, irutatik bat, il egin ziran, <sup>9</sup> eta itxasoko ontziak, irutatik bat, galdu egin ziran.

<sup>10</sup> Irugarren aingeruak ere jo zuan turuta; eta argi-zuzi bat bezela sutan, izar aundi bat erori zan zerutik, eta ibai ta iturrietara, irutatik baten gañera erori zan. <sup>11</sup> Eta izarrak «Ixen» du izena. Ura, irutatik bat Ixen biurtu zan, eta gizon asko il ziran urengatik, mikaztu egin ziran-da.

<sup>12</sup> Laugarren aingeruak ere jo zuan turuta; eta eguzkia, irutatik bat, eta illargia, irutatik bat eta izarrak, irutatik bat zaurituak gelditu ziran, ayetan irutatik bat illunduta gelditzeraño, eta egunak ere bere argia, irutatik bat galdu egin zuan, baita gauak ere.

<sup>13</sup> Eta ikusi nuan ikusi, arrano bat, zeru-erdian egaz zebilela, eta deadarka esaten zuan au entzun nion: «Ene! ene!, ene!, zoritzarrekoak lurrean bizi diranak!, jotzeko prest dauden beste iru aingeruen turuta-otsarengatik» (\*).

## IX

### Iru azken-turutak

<sup>1</sup> Bosgarren aingeruak ere jo zuan turuta; eta izar bat ikusi nuan zerutik lurrera erortzen; eta leiza-zuloko giltza eman zitzyon (\*). <sup>2</sup> Eta leiza-zuloa idiki zuan; eta zulotik ke-mordoa atera zan, labe aundi bateko kea bezela;

eta leize-zuloko kearengatik eguzkia illundu egin zan, baita aidea ere. <sup>3</sup> Eta ke-mordotik lur-gañera larrapoteak (salta-perikoak) atera ziran eta lurreko lupuaren indarra bezelakoa eman zitzyen (\*). <sup>4</sup> Lurreko belarrai, ta barazkiai eta zugatzai kalterik ez egiteko agindu zitzyen; baizik-eta, Jainkoaren siñalerik beren bekokian etzeukaten gizakumea. <sup>5</sup> Eta azkeneko auek ez iltzeko, baizik-eta, bost illebetean oñazetan eukitzeko; oñaze ori, berriz, lupuak gizona zauritzen duanean ematen dion oñazearen antzekoa zan (\*). <sup>6</sup> Egun ayetan, gizakiak eriotz-billa ibilliko dira, ta ez dute arkituko; ilda gelditu naiko dute, baña, eriotzak iges egin-goe die.

<sup>7</sup> Larrapoteak, gerraterako prest dauden zaldien antzekoak ziran; buru-gañean urrezko koroi-antzekoak zekarzkiten, eta ayen arpegiak giza-arpegiak bezelakoak ziran. <sup>8</sup> illea, emakumearena bezelakoa zuten, eta ayen agiñak leoyarenak bezelakoak; <sup>9</sup> bularrean, burnizko bularrekoen artzekoak zeuzkaten, eta ayen ego-otsa, gudara zalapartaka dijoazen zaldi-gurdi askorena bezelakoa zan. <sup>10</sup> Lupuen antzeko atsak zeuzkaten eta eztenak, eta gizakiai bost illabetez kalte egiteko indarra isetsetan zegon. <sup>11</sup> Ebreoz Abaddon (Ondatzallea) eta griegoz Apolyon deritzan leizeko aingerua dute Errege (\*). <sup>12</sup> Igaro da lenengo «Ene!» au. Begira: onen ondoren beste bi «Ene!» datoz.

<sup>13</sup> Seigarren aingeruak ere jo zuan turuta. Eta Jainkoaren aurrean dagon urrezko aldarearen lau etzetatik zetorren aots bat entzun nuan, <sup>14</sup> turuta zeukan seigarren aingeruari esaten ziola: «Askatu itzazu Eufrates ibai aundian lotuta dauden lau aingeruak». <sup>15</sup> Eta ordu artarako, eta egun artarako, eta ill artarako ta urte artarako gerturik zeuden lau aingeruak askatu zituzten, gizonetatik irutatik bat il zitzyen. <sup>16</sup> Eta zaldizko gudariak berreun milloi ziran; nik entzun nuan ayen zembakia. <sup>17</sup> Eta zaldiak

eta zaldi-gañekoak onelaxe ikusi nituan: zaldizkoak, suzko bularrekoak zeramazkiten, ubel eta orizkak; zaldien buruak, berriz, leoi-buruak ziruditen, eta aotik sua, kea ta azufrea zerien (\*).

<sup>18</sup> Iru zigorren bidez —edo berdin dana: aotetik zerrien suaren eta kearen eta azufrearen bidez—, gizonak irutatik bat il egin ziran. <sup>19</sup> Zaldien indarra beren aotan eta isatsetan zegoen; ayen isatsak sube-antzekoak ziran, eta burudunak; oyen bitartez kalte egiten zuten.

<sup>20</sup> Eta alako zigorren bitartez il etziran beste gizonak, etziran beren eskuetako egiteetzaz damutu; eta diabruak, eta ez ikusteko, ez entzuteko, ez ibiltzeko gauza ez diran urrezko, ta zillarrezko, ta tupikizko, ta arrizko, ta zurezko irudiak gurtzea etzuten utzi; <sup>21</sup> ezta gizon-iltzeaz, eta sorginkerietzaz, eta aragikerietzaz, eta lapurretetzaz ere etziran damutu.

## X

### Juan'ek irentsi zuan liburuxoa

<sup>1</sup> Eta beste aingeru kementsu bat ikusi nuan, odeyez inguratuta jeixten; argi-uztaya zekarren buruan, eta aren arpegia eguzkia bezelakoa zan, eta oñak suzko abeak bezelakoak (\*). <sup>2</sup> Eskuan liburutxo bat zeukan zabalik. Eta eskubiko oña itxas-gañean eta ezkerrekoa lur-gañean ezarrita, <sup>3</sup> leoyak orru egiten duan bezela, deadar aundi bat atera zuan. Deadar egin zuanean, zazpi trumoyak beren danbarradaz erantzun zioten. <sup>4</sup> Eta zazpi trumoyak erantzun zutenean, idazteko negon; baño, zerutik aots bat entzun nuan, auxe esaten: «Zazpi trumoyak esandakoa gorde zazu ixilpean; eta ez idatzi». <sup>5</sup> Itxas-gañean eta lur-gañean zutik egoten ikusi nuan aingeruak, bere es-

kua zerurontz jaso zuan. <sup>6</sup> Eta, gizaldiz-gizaldi bizi dan Arengatik, eta zerua ta ango guztiak, eta lurra ta ango guztiak, eta itxasoa ta ango guztiak egin dituan Arengatik zin au egin zuan: «Ez da geyago denborarik izango. <sup>7</sup> Baño, zazpigarren aingeruaren aots-egunetan, turuta jotzen duanean beteko da Jainkoaren ezkutapena, bere morroi igarleari agertu zion bezela». <sup>8</sup> Zerutik len entzun nuan aotsak berriz itzegin eta au esan zidan: «Zoaz, artu zazu, itxas-gañean eta lur-gañean dagon aingeruak eskuan zabalik daukan liburutxo». <sup>9</sup> Joan nitzan, bada, aingeruarengana, liburutxo emateko esatera. Eta, ala esan zidan: «Artu zazu ta jan; sabela garratzatu egingo dizu; baño, aotan ezta bezin gozua izango dezu» (\*). <sup>10</sup> Artu nuan, bada, liburutxo aingeruaren eskutik, eta irentsi nuan, eta nere aotan ezta bezin gozua zan; baño irentsi nuanean, sabela garratzu egin zitzaidan. <sup>11</sup> Eta au esan zidan: «Berriz ere, erriari, eta atzerriai, eta izkerai ta errege askoi igarkizunak egin bear dizkiezu».

## XI

### Bi testiguak

<sup>1</sup> Makilla antzeko kañabera bat eman zidaten, eta esan: «Altxa zaitetz eta neurtu itzazu Jainkoaren etxea ta aldarea ta ango gurtzalleak. <sup>2</sup> Jaunaren etxeko ataria, berriz, neurtu gabe utzi, atzerritarrai eman zaye-ta; atzerritar auek berrogei ta bi illebetetan erri santua ostikopean ibilliko dute. <sup>3</sup> Eta, nere aginduz, bi testiguak, zakuz jantzita, igarkizunak egiten ariko dira milla ta berreun da irurogei egunetan. <sup>4</sup> Auek dira lurraren Jabearen aurrean dauden bi olio-arbolak eta bi argi-ontziak. <sup>5</sup> Eta norbaitek kalte egin nai ba'die, sua aterako da ayen aotik eta ayen etsayak

kixkali egingo ditu. Ayei kalte egin nai dieten guztiak ill egingo dira. <sup>6</sup> Auek zerua itxitzeko almena ba-dute, beren iragarkizun-bitartean, lurrean euririk egin ez dezan; baita ura odol biurtzeko, eta, nai duten guztian, lurra edozein zigorrez astintzeko almena ere. <sup>7</sup> Eta beren aitor-kizuna egindakoan, pizti batek, leizetik atera, ta guda egingo die, ta menderatu ta ill egingo ditu. <sup>8</sup> Eta antz-iruditan Sodoma ta Ejito deritzan erri aundiko enparantzan, ayen Jauna gurutziltzatua egon zan errian, gorputz egongo da ayetako bakoitza. <sup>9</sup> Erri, eta jatorri, eta arrazak ayen gorputzak iru egun eta erdiz ikusiko dituzte, ta ez dute ayen gorputz illak illobiratzan utziko. <sup>10</sup> Eta lurrean bizi diranak poztu egingo dira ayen bizkar eta alaitu, ta alkarri erregaliak egingo dizkiete, bi igarle auek lurtarrai neke aundiak ekarri bait-zizkieten. <sup>11</sup> Baño, iru egun ta erdi ezker, Jainkoaren bizitza-espirtua sartu zan ayetan, eta zutitu egin ziran, eta bildur aundia zabaldu zan ayen ikasleen artean. <sup>12</sup> Eta zeruko aots aundi bat entzun nuan eta onela esan zien: «Igo zaitezte onera». Eta odei ba-tean igo ziran zerura, bere etsayak begira ta begira zeuzkatela. <sup>13</sup> Lur-ikara aundia sortu zan ordu artan, eta erriaren amarretatik bat erori zan, eta lur-ikara artan zazpi milla lagun ill ziran; eta gañerakoak arriturik gelditu ziran, eta zeruko Jainkoa goratzen (\*). <sup>14</sup> Igaro da bigarren «Ene!» au. Ona, ba-dator irugarren «Ene!»

### Zazpigarren turuta-otsa

<sup>15</sup> Zazpigarren aingeruak ere jo zuan turuta, eta deadar aundiak entzun ziran zeruan. Ala zioten: «Iritxi da mundura gure Jainkoaren eta Aren Kristo'ren erregetza, ta gizaldiz-gizaldi errege izango da». <sup>16</sup> Jainkoaren aulki-aurrean cserita zeuden ogeitalau zaarrak auzpeztu egin ziran, eta Jainkoa gurtu zuten, eta onela esan: <sup>17</sup> «Eskerrak

ematen dizkitzugu, zeran eta izan zihan, Jainko Jaun guztiz altsu orri, zure almen aundia eskuratu dezulako ta errege izaten asi zeralako. <sup>18</sup> Atzerritarrek asarre bizian jarri ziran; baño, iritxi zan zure asarrea, baita ildakoak epaitzeko ordua ere, baita zure morroi diran igarlcari eta santuai ta zure izenaren bildur diran txiki ta aundiari saria emateko ere; ta lurra ondatzen zutenak galtzeko ordua ere bai».

### LAUGARREN ZATIA

<sup>19</sup> Orduan zabaldu zan zeruan dagon Jaunaren etxea ta Aren etxean Itumen-kutxa agertu zan, eta tximistak eta deadarrak eta lur-ikarak, eta kazkabarte aundiak izan ziran.

### XII

#### Salbatzallea ta iren-subea

<sup>1</sup> Eta mirari aundi bat agertu zan zeruan; emakume bat, eguzkiz jantzia, oinpean illargia ta buruan amabi izarreko koroya zituala (\*). <sup>2</sup> Eta aurdun bait-zegon, aurgintzako oñazez eta estualdiz, karraxika ari zan.

<sup>3</sup> Beste ikuskizun bat ere agertu zan zeruan; eta su-koloreko iren-subea aundi bat ikusi nuan; zazpi buru zizuan eta amar adar, eta buru-gañetan zazpi koroï (\*). <sup>4</sup> Aren isatsak zeruko izarrek irutatik bat berarekin zera-mazkian eta itxasora bota zituan. Iren-subea, aurrea egiteko zegon emakumearen aurrean gelditu zan, egin ordukoxe semea irentsitzeko (\*). <sup>5</sup> Eta, erri guztiak burnizko zigorrez zuzenduko dituan semea egin zuan; baño, seme ori Jainkoarengana ta Aren aulkira eraman zuten (\*). <sup>6</sup>

Emakumeak basamortura iges egin zuan; Jainkoak ipiñi-tako baztar bat zeukan an, milla ta berreun eta irurogei egunez bazka zezaten (\*).

### Zeruan gudaketa

<sup>7</sup> Zeruan gudaketa aundi bat izan zan; Mikel'ek eta aren aingeruak iren-subearen aurka borroka egin zuten, <sup>8</sup> eta iren-subear borrokan egin zuan, baita bere aingeruak ere; eta etzuten auek irabazi, eta geroztik etzan zeruan ayentzat tokirik izan. <sup>9</sup> Eta iren-subea aundia, Diabrua ta Satanaz deritzan aspaldiko subea, gizadi osoa lilluratzen duana, lurrera amildua izan zan; baita aren aingeruak ere arekin batean. <sup>10</sup> Eta ots aundi bat entzun nuan zeruan, onela mintzo: «Orain iritxi da osasuna, eta indarra, eta gure Jainkoaren erregetza ta Aren Kristo'ren almena; gure anayen salatzalea amildua izan bait-da, gure Jainkoaren aurrean, gau ta egun salatzen zituana.

<sup>11</sup>Baño, ayek Bildotsaren odolez eta eman zuten aitomenaren itzez, *iren-subea* menderatu egin zuten; beren bizitza bera ere etzuten eriotza baño maiteago izan. <sup>12</sup> Poztu zaitezte, bada, zeruak eta bertan bizi zeraten guztiak! Eta zoritxarrekoak zuek, lurra ta itxaso! Denbora gutxi gelditzen zayola jakiñik, zuetara asarre bizian jetxi bait-zaizute diabrua» (\*).

### Iren-subea Salbatzallearen Amaren aurka

<sup>13</sup> Iren-subea, bere burua lurrera amilduta ikusi zuanean, seme ura egin zuan emakumeari erasoka asi zitza-yon (\*). <sup>14</sup> Baño, emakumeari arrano aundiaren bi egoak eman zitzaizkion, basamortuko bere baztarrera egaz joan zedin; eta an, subearen begietatik urruti, bazkatzen dute denbora batez, eta bi denboretan eta denbora-erdi ba-

tean (\*). <sup>15</sup> Iren-subear, bere aotik, ur-ibai bat bezelakoá bota zion emakumeari, ibayak emakumea eramán zezan. <sup>16</sup> Baño, lurra emakumearen alde atera zan, eta lurra bere aoa zabaldu zuan, eta iren-subear bere aotik emakumeari bota zion ibaya irentsi egin zuan (\*). <sup>17</sup> Iren-subea asarre bizian jarri zan emakumearen aurka, ta aren (emakumearen) jatorriko guztiai, - Jainkoaren aginduak betetzen dituztenai ta Jesus'en aitormena dutenai - guda egitera joan zan (\*). <sup>18</sup> Eta itxas-ertzeko ondarrean gelditu zan zai.

## XIII

### Itxasoko piztia

<sup>1</sup> Eta pizti bat ikusi nuan itxasotik ateratzen. Amar adar eta zazpi buru zituan, eta adar-gañetan amar koroí, ta buru-gañean birao-izenak (\*). <sup>2</sup> Ikusi nuan piztia panteraren antzekoa zan, eta aren oñak artzarenaren antzekoak, eta aren aoa leoyarenaren antzekoa. Iren-subear bere indarra ta bere aulkia ta bere aginte aundia eman zizkion. <sup>3</sup> Aren buruetako bat, eriotz-zauriz jota bezela ikusi nuan; baño, eriotz-zauria sendatu egin zitzaion. Lur osoak, arrituta, piztiari jarraitzen zion (\*). <sup>4</sup> Eta iren-subea gurtu egin zuten, piztiari almena eman ziolako; baita piztia ere gurtu egin zuten, onela esanaz: «Nor piztia bezelakorik? Nork borroka egin dezake arekin?» <sup>5</sup> Eta arronkak eta biraoak esaten zituan aoa eman zitzaion, baita berrogeitabi illebetetan orrela aritzeo almena ere. <sup>6</sup> Eta bere aoa zabalduta, Jainkoa ta Aren izena, ta Aren etxea, ta zeruan diranak biraokatzen zituan. <sup>7</sup> Santuai guda egiteko ta ayek menderatzeko indarra eman zitzaion, baita edozein jatorri, ta erri, ta izkuntza, ta atzerriren gañeko

almena ere. <sup>8</sup> Eta munduaren asieratik, lepamoztutako Bildotsaren bizitza-liburuan beren izena idatzita ez daukaten lurreko bizilagun guztiak piztia gurtu zuten.

### Basoko piztia

<sup>9</sup> Belarririk daukanak entzun beza. <sup>10</sup> Norbait morrontzara eramaten duana, morrontzara joango da bera ere; norbait ezpataz iltzen duana, ezpataz ilko da bera ere. Ontantxe dago santuen iraupena ta sinismena!

<sup>11</sup> Beste pizti bat ikusi nuan lurretik igotzen; Bildotsaren adar-antzeko bi zeuzkan, baña, iren-subeak bezelaxe egiten zuan itz. <sup>12</sup> Lenengo aberearen almen guztia agertzen zuan aren aurrean; eta lurra ta lurrean bizi diran guztiak erakarri zituan, eriotz-zauria sendatu zitzaion lengo piztia gurtzera. <sup>13</sup> Mirari aundiak egin zituan, gizonen aurrean, zerutik lurrera sua jeitxi-erazteraño. <sup>14</sup> Eta lengo piztiaren aurrean mirariak egiteko eman zitzaion almenez, lilluratu egiten zituan lurreko bizilagunak; eta ezpata-zauria eukiarren, piztu dan piztiaren gorapenerako irudi bat egin zezatela esaten zien. <sup>15</sup> Eta piztiaren irudian espiritua sartzeko almena eman zitzaion, piztiaren irudiak itzegin zezan; eta piztiaren irudia gurtzen etzutenak il zitzaion. <sup>16</sup> Eta guztiai: aundi-txikiak, aberats-beartsuak, nagusi-morroyak, eskubi-eskuan eta bekokian siñale bat ezarrierazi zien, <sup>17</sup> eta iritxi zuan, etzezakela ez saldu ez erosi, siñale ori, edo piztiaren izena edo onen izenaren zenbakia zeukatenak bestek (\*). <sup>18</sup> Ontan dago jakinduria! Adimena daukanak asma beza piztiaren zenbakia, giza-zenbakia bait-da. Bere zenbakia seireun eta irurogeita sei da (666).

### XIV

#### Bildotsa ta onen jarraitzaileak

<sup>1</sup> Eta ikusi nuan ikusi, eta Sion-mendi gañean Bildotsa zegon, eta Arekin batean, eun da berrogei ta lau milla lagun, Aren izena ta Aren Aitarena bekokietan idatzita zeuzkatela (\*). <sup>2</sup> Eta zerutik zetorren deadar bat entzun nuan, ugolde-ots eta trumoi aundi baten burrunbada bezelakoa. Eta entzun nuan ota, berriz, zitara jotzen ari diran zitaralariena bezelakoa zan. <sup>3</sup> Eta kanta berri bat abesten ari ziran aulki-aurrean eta lau abereen eta lau zaarren aurrean. Eta kanta ura ezin zuan inork ikasi, lurretik erositako eunda berrogei ta lau milla ayek bestek. <sup>4</sup> Emakumezkoakin loitu etziranak dira auek, gizkarbiak bait-dira. Bildotsari noranai jarraitzen diote auek. Gizartetik erosiak izan ziran, Jainkoarentzat eta Bildotsarentzat asikiñak bezela; <sup>5</sup> eta ayen aoan etzan gezurrik arkitu. Akats-gabeak dira.

### BOSGARREN ZATIA

#### Iru aingeruen iragarketak

<sup>6</sup> Eta beste aingeru bat ikusi nuan zeru-erdian egaka, eta betiko berri on bat zeukan, lurreko bizilagunak, ta atzerriak, ta jatorriak, ta izkuntzai, ta erriak ots-egiteko; <sup>7</sup> eta ala zion deadarka: «Zaitzte Jainkoaren bildur eta gora zazute, Aren auzi-aldia iritxi da-ta. Gurtu zazute zerua, lurra, itxasoa ta iturburuak egin dituana» (\*).

<sup>8</sup> Aingeru onen ondoren, beste aingeru bat, bigarrena, asi zan onela esaten: «Erori da, erori Babilonia aundia! Onek zeuzkan mozkortuta erri guztiak bere aragikeri-ardobiziz». <sup>9</sup> Eta aingeru auen ondoren, beste aingeru bat,

irugarrena, asi zan esaten: «Norbaitek piztia ta aren irudia gurtu ta, bekokian naiz eskubian, aren siñalia artzen ba'du, (\*)<sup>10</sup> edango du Jainkoaren asarre-ardoa, Aren samin-ontzian naste-gabe gerturik dagona; ta aingeru santuen eta Bildotsaren aurrean, sutan eta azufretan oñazez beteko da.<sup>11</sup> Olakoan oñaze-kea gizaldiz-gizaldi gora igoko da, eta atsedetik ez da izango, ez gabaz, ez egunez, piztia ta aren irudia gurtu, ta piztiaren siñalia artu dute-entzat.<sup>12</sup> Santuen eramanpena emen dago; Jainkoaren aginduak eta Jesus'en sinismena gorde dituztenena!

<sup>13</sup> Eta aots bat entzun nuan zerutik, au esaten: «Zorionekoak Jaunarengan il diranak! Bai, ala dio Espirituak, atsedena artu dezatela; beren egite onak jarraitzen bait-diete» (\*).

#### Lenengo zigorrak

<sup>14</sup> Eta ikusi nuan ikusi, eta orra odei zuri bat, eta odei-gañean gizasemea zirudin bat eserita, buru-gañean urrezko koroya ta eskuan itai zorrotza zituala (\*).<sup>15</sup> Eta leku santutik, beste aingeru bat atera zan, eta odei-gañean eserita zegonari deadar aundi au egin zion: «Bota zazu itaria ta ebaki; iritxi da ebakitzeko garaya, lurreko uzta elduta bait-dago».<sup>16</sup> Odei-gañean eserita zegonak bota zuan itaia lur-gañera eta lurra ebakita gelditu zan.

<sup>17</sup> Eta zeruan dagon leku santutik beste aingeru bat atera zan; ark ere eskuan itai zorrotz bat zeukan.<sup>18</sup> Eta beste aingeru batek –sua bere mendean zeukanak–, al-daretik irten eta itai zorrotza zeukanari, aots indartsuz, deadar au egin zion: «Bota itai zorrotz ori ta bildu lurreko maastiaren mordoak, maatsak elduta daude-ta».<sup>19</sup> Bota zuan aingeruak bere itaya lur-gañera, ta lurreko maastia bildu zan eta maatsak Jainkoaren asarrean upel aun-

dian sartu zituan.<sup>20</sup> Eta erritik kanpora zapaldu zuten maatsa, ta odola upeletik irten eta zaldien muturrekoetaraño iritxi zan, milla ta seireun estadioko bidean (\*).

## XV

### Zazpi ontziak

<sup>1</sup> Zeruan beste mirari aundi ta arrigarri bat ikusi nuan: zazpi aingeru azkeneko zazpi zigorrak eskuan zituztela; Jainkoaren asarrea ayexen bidez amaituko bait-zan.<sup>2</sup> Sua nastuta zeukan kristal-itxaso antzeko bat ikusi nuan, eta piztia ta aren irudia eta aren izenaren zenbakia azpiratu zituztenak, kristalezko itxas-gañean zutik zeuden eta Jainkoaren zitarak zeuzkaten eskuetan.<sup>3</sup> Eta Jainkoaren morroi dan Moises'en eresia ta Bildotsaren eresia kantatzen ari ziran, onela: «Aundiak eta arrigarriak dira zure egiteak, Jainko Jaun guztiz altsu ori! Zuzenak eta egiazkoak zure bideak, atzerrien Errege ori!»<sup>4</sup> Nor ez da izango zure bildur, Jauna, ta nork ez du zure izena goratuko? Zu bakarrik bait-zera santu. Atzerri guztiak etorri ta zure aurrean auzpeztuko zaizkitzu, zure egite zuzenak agerian gelditu dira-ta».

<sup>5</sup> Onen ondoren, ikusi nuan ikusi, eta zeruan aitor-kizun-txabolaren leku santua zapaldu zan,<sup>6</sup> eta leku santutik zazpi aingeruak atera ziran, beren zazpi zigorrakin,<sup>7</sup> liñu garbi ta argitsuz jantziak eta bularrak urrezko bularreko inguratuak.<sup>8</sup> Lau bizidunetako batek, zazpi aingeruai urrezko zazpi ontzi eman zizkien; eta ontzi auek, gizaldiz-gizaldi bizi dan Jainkoaren asarrez beterik zeuden.<sup>9</sup> Eta leku santua Jainkoaren aintzaren eta almenaren kez bete zan; eta zazpi aingeruen zazpi zigorraldiak bukatu arte, leku santuan ezin zitekean iñor sartu.

## XVI

**Ontziak**

<sup>1</sup> Eta leku santuko aots bat entzun nuan, zazpi aingeruai au esaten: «Zoazte ta ustu itzazute lur-gañera Jainko-asarrearen zazpi ontziak!» <sup>2</sup> Joan zan, bada, lenengoa ta ustu zuan lur-gañera bere ontzia; eta zauri zikin-txar bat sortu zitzayen piztiaren siñalia zeukaten gizonai ta aren irudia gurtu zutenai (\*).

<sup>3</sup> Bigarrenak ere ustu zuan ontzia itxas-gañera; ta itxasoko ura ildakoaren odol-antzeko biurtu zan, eta itxasoko bizidun guztiak il egin ziran (\*). <sup>4</sup> Eta irugarrenak ibai ta iturburuetan ustu zuan bere ontzia; ta odol biurtu ziran. <sup>5</sup> Eta uretako aingeruari auxe esaten entzun nion: «Zuzena zera Zu, zerana eta ziñana, Santua, orrelaxe erabaki bait-dezu. <sup>6</sup> Santuen eta igarleen odola ixuri zuten ezkerro, Zuk odola eman zenien edateko; orixe merezi zuten!» <sup>7</sup> Eta aldareari auxe esaten entzun nion: «Bai, Jainko Jaun guztiz altsu ori! Bidezkoak eta zuzenak dira zure zigorraldiak!»

<sup>8</sup> Eta laugarrenak eguzki-gañera ustu zuan bere ontzia. Eta suarekin gizonak kixkaltzeko indarra eman zitzayon; <sup>9</sup> eta gizakiak bero-galdatan kixkaltzen ziran; eta zigor auetan almena daukan Jainkoaren izena biraos betetzen zuten; baño, etziran damutu Ura (Jainkoa) goratzeko.

<sup>10</sup> Bosgarrenak piztiaren aulki-gañera ustu zuan bere ontzia, ta onen erreñua illunpetan gelditu zan; eta gizakiak, miñez beterik, nork bere mingañari kosk egiten zion (\*). <sup>11</sup> Eta min eta zaurien indarrez, zeruko Jainkoari biraoka egiten zioten; baño, etziran beren egiteaz damutu (\*).

<sup>12</sup> Seigarrenak bere ontzia Eufrates ibai aundian ustu

zuan; eta aren urak aortu egin ziran, eguzki-aldeko erregeentzat bidea gerturik gelditzeraño. <sup>13</sup> Eta iren-subearen aotik, eta piztiaren aotik, eta sasi-igarleen aotik igel-antzeko iru espiritu zikiñ irtetzen ikusi nituan. <sup>14</sup> Mirariak egiten dituzten diabruen espirituak dira oyek, eta lurralde guztietako erregeengana joaten dira, Jainko guztiz altsuaren egun aundiko borrokaldirako guztiak berekin biltzeko. <sup>15</sup> Orra!: lapurra bezela nator. Zorionekoa esna dagona ta jantziak berekin dauzkana, larru-gorritan ibilli ez dedin eta aren lotsagarriak inork ikusi ez ditzan! (\*) <sup>16</sup> Eta ebreotarrez, Harmagedon deritzan lekuan bildu zituan.

<sup>17</sup> Zazpigarrenak bere ontzia aidean ustu zuan; eta leku santutik, Jainkoaren aulkitik zetorren deadar bat irten zan: «Iñña dago». <sup>18</sup> Eta tximistak, eta deadarrak, eta trumoyak, eta danbarradak izan ziran; baita, gizona lur-gañean bizi danetik egundaño izan ez dan bezelako lur-ikara ere. <sup>19</sup> Erri aundia iru zati egin zan, eta atzerritarren erriak erori egin ziran, eta, Babilonia erri aundia gogoratu zitzayon Jainkoari, bere asarre-ontzitik berari ardo errea emateko. <sup>20</sup> Eta ugarte guztiak iges egin zuten eta mendiak ezkutatu egin ziran. <sup>21</sup> Talentua \* añaño kazkabarrak bota zituan zeruak gizonen gañera; eta kazkabarr-zigorra zala-ta, gizonak biraokatu egin zuten Jainkoa, kazkabarraren zigorra aundia bait-zan benetan.

## XVII

**Babilonia'ren ondamendia**

<sup>1</sup> Zazpi ontziak zeuzkaten zazpi aingeruetako batek. etorrita, nerekin itz egin zuan eta auxe esan zidan: «Zatoz!

\* Talentua: 36 killoko metal-puska.



Ur aundien gañean eserita dagon emagalduren auzia agertuko dizut: <sup>2</sup> arekintxe egin dituzte aragikeriak lurreko erregeak, eta lurrean bizi diranak aren aragikeri-ardoz mozkortu ziran. <sup>3</sup> Eta andik, irudimenez, basamortura eraman ninduan; eta emakume bat ikusi nuan pizti baten gañean eserita; piztia birao-izenez beterik zegon, eta zazpi buru ta amar adar zituan. <sup>4</sup> Emakumea soñeko ubel ta gorriakaz jantzita zegon, eta urrez, eta arri-ederrez eta pitxiz apainduta, eskuan zatarkeriz eta bere lizunkeriz betetako urrezko ontzia zeukan. <sup>5</sup> Bekokian izen au zeukan idatzita: «Misterioa: Babilonia aundia, emagalduen eta lurreko zatarkerien ama» (\*). <sup>6</sup> Emakume ori santuen odolez eta Jesus'en martirien odolez mozkortuta zegola ikusi nuan; eta ura ikusita, oso arrituta gelditu nitzan. <sup>7</sup> Eta aingeruak ala esan zidan: «Zer dala-ta arritzen zera? Nik azalduko dizut emakumearen eta emakumea gañean daraman zazpi buru ta amar adardun piztiaren ixilpekoa. <sup>8</sup> Ikusi dezun piztia len ba-zan, baña orain ez da, ta leizetik igotzeko zorian dago ta ondamendira dijoa; eta lurraren asieratik beren izenik bizitza-liburuan idatzita ez daukaten lurreko guztiak, piztia ikusita, arritu egingo dira; len bai bait-zan, eta orain ez eta berriro agertu egingo bait-da (\*). <sup>9</sup> Ementxe bear du adimenak jakinduria! Zazpi buruak, emakumea gañean eserita daukaten zazpi mendiak dira. Baita zazpi erregeak ere: <sup>10</sup> bost *errege* erori dira, bat ba-da, ta bestea ez da oraindik etorri; baño etortzen danean, denbora gutxian iraungo du (\*). <sup>11</sup> Len ba-zan eta orain ez dan piztia, zortzigarrena da, ta zazpietakoa da ta ondamendira dijoa. <sup>12</sup> Ikusten dituzun amar adarrak, oraindik erregetza artu ez duten amar errege dira; baña piztiarekin ordu beteko erregetza artuko dute (\*). <sup>13</sup> Eta errege auek, piztiari beren agintaritza ta almena emateko asmo ber-bera dute. <sup>14</sup> Bildotsari guda egingo diote, ta Bildotsak

azpiratu egingo ditu, jaunen Jauna ta erregeen Erregea da-ta, baita Arckin (Bildotsarekin) daudenak, dcituak, aukeratuak eta zintzoak ere.

<sup>15</sup> Eta auxe esan zidan: «Emagaldua eserita gañean daukaten urak, erriak eta jendeak, eta atzerriak, eta izkuntzak dira. <sup>16</sup> Eta ikusten dituzun amar adarrak, eta piztiak ere bai, emagalduari gorroto izango diote, eta soñekoak kendu, ta larrugorrian utziko dute; ta aren aragia jan egingo dute, <sup>17</sup> eta erre egingo dute sutan, Jainkoak, ayen biotzetan, bere naya gogo batez, egiteko erabakia sortu bait-zien: Jainkoaren itzak bete arte, beren erregetza piztiari emateko erabakia. <sup>18</sup> Eta ikusi dezun emakumea, lurreko erregeen gañean agintaritza daukan erri aundi ura da.

## XVIII

### Babilonia'ren ondamendia aurrez esana

<sup>1</sup> Onen ondoren, beste aingeru bat zerutik almen aundiz jexten ikusi nuan, eta aren argiak lurrak argi-argi egin da utzi zuan. <sup>2</sup> Eta aots aundiz, deadar egin zuan, esanaz: «Erori da, erori da Babilonia aundia, ta diabru-zulo, ta espiritu zikiñ guztien bizitoki ta egazti likits eta nazkagarri guztien kabi eginda gelditu da; (\*) <sup>3</sup> aren aragikeri amorratuaren ardotik erri guztiak edan dute-ta; lurreko erregeak, berriz, arekin aragikeriak egin zituzten, eta lurreko sal-erosle guztiak aren ondasunen indarrez aberastu ziran» (\*). <sup>4</sup> Eta zerutik zetorren beste aots bat entzun nuan, au esaten: «Atera zaitetz arengandik, nere erri ori, aren pekatuetan kutsatu etzaitezen, eta aren zigorraldiak ere arrapatu etzaitzan; <sup>5</sup> aren pekatuak zeruraño iritxi arte pillatu bait-dira; aren gaiztakeriak, berriz, Jainkoak gogoan artu ditu. <sup>6</sup> Ark emandako neurri berean

ordaindu zayozute, ta alako bi eman, aren egiteen araberan; edaten eman zizuten ontzian eman zuek eta beste ainbeste ere bai. <sup>7</sup> Bera arroputz eta dotore bizi zan neurrian, eman zayozute zuek berari atsekabe ta oñaze. Bere biotzean auxe esan bait-zuan: «Erregiña bezela nago eserita; ez naiz alargun, eta ez det beñere atsekaberik izango: <sup>8</sup> orregatik zigorrak: eriotza, ta negarra, ta gosea, egun berean, etorriko zaizkio, ta erre egingo dute; ura epaitu duan Jainko Jauna altsua da-ta».

<sup>9</sup> Eta arekin lasaikerian eta arrokerian bizi izan diran lurreko erregeak negar egingo dute, ta arekin naigabetuta ibilliko dira, aren suaren kea ikusten dutenean: <sup>10</sup> eta aren oñazeen bildurrez, urruti geldituko dira, esanaz: «Ai ene ba-da-tal, erri aundia, Babilonia erri indartsua! Ordu bete izan da naikoa zu zigortzeko!» <sup>11</sup> Eta lurreko sal-erosleak negarrez eta aieneka daude ura dala-ta, geyago ez bait-dio iñork ezer erosiko: <sup>12</sup> ez urrerik, ez zillarrik, ez arri ederrik, ez pitxirik, ez liñurik, ez purpurarik, ez sedarik eta oyal gorrizkarik, ez usaidun zurik, ez marfillik, ez egur ederrik, ez burni oririk, ez, naiz burni, naiz marmolez egindako ezer, <sup>13</sup> ez zinamomarik, ez usai gosorik, ez mirra ta intsentsurik, ez iriñik, eta garirik, ez zamaririk, ez ardi, zaldi ta gurdirik; ez morroirik, ez giza-emakumerik. <sup>14</sup> Eta udazkeneko zure frutuak, ain gogotsu nai izaten zenituan frutuak iges egin dute zuregandik; eta gauza aberats eta eder guztiak galdu ziran zuregan, eta iñoiz ere ez dituzte arkituko. <sup>15</sup> Aren lepotik aberastu ziran gauza guzti auen sal-erosleak, aren ezbearren bildurrez, urruti geldituko dira, negarrez eta aieneka, <sup>16</sup> eta onela esaten: «Ene ba-da-ta ene! Erri aundia, liñuz, purpuraz eta gorriz jantzi eta urrez, arriederrez eta pitxiz apaintzen zan erria! <sup>17</sup> Ainbesteko aberastasuna ordu bakar batean ondatu zayola!» Eta ontzi-buru guztiak, eta itxasoz dabilzan guztiak eta itxas-

-gizonak eta itxas-lanetan ari diran guztiak urruti gelditu ziran, <sup>18</sup> eta aren suaren kea ikusita, deadarka asi ziran: «Non zan beste bat erri onen antzekorik?» <sup>19</sup> Eta beren buru-gañera autsa botatzen zuten eta negarrez eta aieneka, deadar egiten zuten: «Ene ba-da-ta, ene! Erri aundi ontan itxasoan ontziak zeuzkaten guztiak aberastu egin ziran orko ugaritasunez; eta ordu betean dana galdu-ta gelditu zan!»

### Santuen poza

<sup>20</sup> Ori dala-ta, poztu zaitez, zero ori!; baita zuek ere santu, apostolu ta igarleak! Zuen auzia aren kontra erabaki bait-du Jainkoak. <sup>21</sup> Aingeru indartsu batek errotarri aundia bezelako arri bat artu ta itxasora bota zuan, eta esan: «Olakoxe indarrez botako dute Babilonia erri aundia ta ez da geyago agertuko. <sup>22</sup> Ez da berriz, zuregan zitara-otsik entzungo, ez eresirik, ez txisturik, ez turrarik; ez da berririo zuregan iñolako langille yayorik izango; ez da geyago zuregan errotarriaren otsik entzungo; <sup>23</sup> geyago ez du zuregan iñolako argi-ontzik argi egingo; eta senar-emazteen aotsik ez da berriz zuregan entzungo; zure sal-erosleak lurreko aundizkiak bait-ziran, eta zure sorginkeriz erri guztiak burua galdu bait-zuten. <sup>24</sup> Eta an igarleen eta santuen eta lurrean lepamoztutako guztien odola arkitu bait-zan».

## XIX

### Zeruko poza

<sup>1</sup> Onen ondoren, jendetza aundiaren deadar-ots-antzeko bat entzun nuan zeruan esaten: «Aleluya!» \* Osa-suna, ta gorespena ta almena gure Jainkoari, <sup>2</sup> Aren zi-

\* Gora Jainkoa!

gorraldiak egiazkoak eta zuzenak dira-ta. Aragikeriz lurrea usteltzen zuan emagaldu aundia epaitu du, ta aren-gandik artu du bere morroyen odolaren ordaña». <sup>3</sup> Eta bigarren aldiz ere, «Aleluya» esan zuten. Erriaren kea gizaldiz-gizaldi gora dijoa. <sup>4</sup> Eta ogeitalau zaarrak eta lau bizidunak auzpeztu egin ziran, eta aulkian eserita dagon Jainkoa gurtu zuten, esanaz: «Amen; aleluya!». <sup>5</sup> Aulkitik aots bat atera zan, onela ziola: «Gora zazute gure Jainkoa Aren morroi guztiok eta Aren bildur zera-tenok: txiki ta aundi!». <sup>6</sup> Eta jendetza aundien zalaparta-otsa, ugoldearen orru ta trumoi zakarren burrundara aintbesteko ots bat entzun nuan, eta ala zion: «Aleluya!», Jainko Jaun guztialduna errege izaten asi da; <sup>7</sup> poztu ta alaitu gaitezen; gora dezagun Bera, Bildotsaren eztaayak iritxi dira ta Aren emazteyaya gerturik dago-ta». <sup>8</sup> Eta liñu utsez eta argitsuz jazteko aukera eman zayo». — Liñu ori santuen egite onak dira.

<sup>9</sup> Eta ala esan zidan: «Idatzi zazu: Zorionsuak Bildotsaren ezta-otordura deituak!». Eta esan zidan: «Jainkoaren benetako itzak dira auk». <sup>10</sup> Orduan, aren oñetan auzpeztu egin nitzan ni bera gurtzeko. Baña, au esan zidan: «Begira gero! Etzazu orrelakorik egin; zure, eta Jesus'en aitormena duten zure anayen morroikide naiz; Jainkoa gurtu bear dezun!». Jesus'en aitormena, igermen-espirtua bait-da.

#### Piztiaren ondamendia

<sup>11</sup> Eta zerua zabalik ikusi nuan; eta an zaldi bat; eta aren gañean zegonari Zintzoa ta Egizalea deritzayo, ta auzian eta gudatean zuzen jokutzen du. <sup>12</sup> Aren begiak sugarraren antzekoak dira; burestun asko dauzka, eta Berak bestek ezagutzen ez duan izena dauka idatzita. <sup>13</sup> Aren soñekoa odol-zirpizitiñez betea zegon, eta Aren izena

«Jainkoaren itza» da. <sup>14</sup> Zeruko gudarozteak zaldi zurien gañean jarraitzen zioten, liñu uts-zuriz jantzita. <sup>15</sup> Aren aotik ezpata zorrotz bat ateratzen da, ezpataz atzerriak zauritzeko. Eta Berak erabiliko ditu burnizko zigorrez; eta Jainko guztiz altsuaren asarre-miñ-ardoaren tolarea Berak zapaltzen du. <sup>16</sup> Bere soin-gañekoan eta bere iztar-gañean dauka idatzita bere izena: ERREGĒEN ERREGĒ TA JAUNEN JAUN.

<sup>17</sup> Eta aingeru bat ikusi nuan zutik eguzki-gañean, zeru goyenetan egaz zebiltzan egazti guztiai deadar aundiz onela esaten: «Zatozte, ta bildu zaitzete Jainkoaren otordu aundirako! <sup>18</sup> erregeen aragiak, eta aundizkien aragiak, eta indartsuen aragiak, eta zaldi ta zaldizkoen aragiak, eta norbere eskukoen eta morroyen aragiak, eta txikien eta aundien aragiak jateko».

<sup>19</sup> Eta piztia, ta lureko erregeak eta beren gudarozteak ikusi nituan, zaldizkoari ta aren gudarozteari guda egiteko bilduak. <sup>20</sup> Eta piztia baitua ta lotua izan zan, eta sasi-igarlea ere bai arekin batean, aren aurrean mirariak egiten zituana, ta mirari ayen bidez, piztiaren sillua artu ta irudia gurtzen zutenen lilluratzalle izan zana; eta biak, bizirik, azufrez egindako su-karobira bota zituzten. <sup>21</sup> Beste guztiak zaldizkoaren aotik ateratzen zan ezpatak il zituan, eta egazti guztiak ayen aragitan bete-bete eginda gelditu ziran (\*).

#### SEIGARREN ZATIA

#### XX

#### Milla urteko erregetza

<sup>1</sup> Eta aingeru bat ikusi nuan zerutik jeixten, leizeko giltza ta kate aundi bat eskuan zekarzkiala (\*). <sup>2</sup> Eta iren-subea, Diabru ta Satanas dan antziñako subea, artu

ta milla urterako lotuta utzi zuan (\*).<sup>3</sup> Eta leizara amildu, giltzez itxi ta gañean sillu bat ipiñi zuan, milla urteak bete arte erridiak berriro lilluratu etzizan. Milla urteak bete ondoren, bai, pixka baterako askatuko dute.

<sup>4</sup> Alki batzuk ere ikusi nituan; eta ayetan eseri ziran eta epaitzeko eskubidea eman zitzaizen. Eta Jesus'en aitormenarengatik eta Jainkoaren itzarengatik lepoa moztu zitzaizenen animak ere ikusi nituan; baita piztia edo areu siñalia gurtu etzutenak eta aren siñalia beren bekokietan edo eskuetan artu etzutenak ere. Auek guztiak bizitzara biurtu ta Kristo'rekin errege bizi izan dira milla urtetan (\*).

<sup>5</sup> Beste illak etziran bizitzara biurtu, milla urteak igarotakoan baizik. Orixe da lenengo piztuera. <sup>6</sup> Zorionsua ta santua, lenengo piztueran piztu zana! Oyetan bigarren eriotzak ez du eskubiderik izango; baizik-eta oyeke Jainkoaren eta Kristo'ren Apaizak izango dira, eta Ayekin batean errege izango dira milla urtetan (\*).

#### Azken-gudatea

<sup>7</sup> Eta milla urteak igarota-gero, Satanas bere katepetik askatuko da, <sup>8</sup> ta lurreko lau alderdietan bizi diran atzerriak, Mog eta Magog, lilluratzera ta geraterako biltzera irtengo da; auen gudaroztea itxasoko ondarrak añakoa izango da. <sup>9</sup> Lur zabalera igoko dira, ta santuen guda-txabolategia ta erri maitagarria erdian artuko dituzte. Baño, zerutik sua jetxiko da ta kixkali egingo ditu. <sup>10</sup> Eta diabrua, ayen axatzallea, suzko ta azufrezko leizera botako dute; antxe daude piztia ta sasi-igarlea ere, ta egunez eta gauzez, gizaldiz-gizaldi oñaze bizitan egongo dira.

#### Azken-auzia.

<sup>11</sup> Eta aulki aundi-zuri bat ikusi nuan, baita an exerita zegona ere; eta aren aurretik zeru-lurrak iges egin zuten,

eta etzuten iñon aztarrenik utzi. <sup>12</sup> Illak ere ikusi nituan, aundiak eta txikiak, aulki-aurrean zutik; eta liburuak zabaldu ziran. Baita beste liburu bat ere, -bizitza-liburua -, zabaldu zan. Eta ayetan idatzitakoen arabera epaituak izan ziran ildakoak, bakoitzaren egiteai zegokienez. <sup>13</sup> Eta itxasoak bere barruan zeuzkan ildakoak biurtu egin zituan; baita eriotzak eta lurpeak ere beren barruan zeuzkatenak, eta bakoitza bere egiteai zegokienez epaitua izan zan. <sup>14</sup> Eriotza ta lurpea suzko leizera amildu zituzten. Auxe da bigarren eriotza; suzko leiza. <sup>15</sup> Eta bizitza-liburuan arkitua izan etzan guztia, suzko leizara amildua izan zan.

## XXI

### Zeru-lur berriak

<sup>1</sup> Eta zeru berri bat eta lur berri bat ikusi nituan, lengo zeru-lurrak ezkutatu egin bait-ziran; eta etzan geyago itxasorik. <sup>2</sup> Eta erri santua, Jerusalem berria, ikusi nuan, Jainkoarengandik zerutik jeixten zala, emazte apaindua senararentzat bezela. <sup>3</sup> Eta, aots bat entzun nuan alkitik esaten: «Ona emen Jainkoaren bizilekua gizonen artean; bere etxea oyen artean jasoko du, ta Aren erri izango dira ta Bera, ayekin dagon Jainkoa, izango da ayen Jainko. <sup>4</sup> Ark txukatuko dizkie begietako malko guztiak, eta ez da aurrerakoan eriotzik geyago izango, ez negarririk ez garaxirik, ez naigaberik; lengoak joan ziran-da».

<sup>5</sup> Eta alkian eserita zegonak auxe esan zuan: «Ara! Gauza guztiak berri, nik berrituta». Eta ala esan zidan: «Idatzi zazu: itz auek benetakoak eta egiazkoak dira». <sup>6</sup> Eta ala esan zidan: «Egiña dago! Ni alfa ta omega naiz, asiera ta amaya. Egarri danari, Nik ur bizia darion itu-

iritik utsean emango diot edaten (\*). <sup>7</sup> Irabazleak ori artuko du sari, ta ni izango nau Jainko ta bera izango den seme. <sup>8</sup> Baña, bildurtiak, sinislausleak, gizoniltzalleak, gaiztoak, aragikoyak, aztiak, irudi-gurtzalleak eta gezurti guztiak suzko ta azufrezko leizan izango dute beren lekua. Auxe da bigarren eriotza».

### Jerusalen berria

<sup>9</sup> Eta azkeneko zazpi zigorrez betetako zazpi ontziak zeukatzen zazpi aingeruetako bat etorri ta nerekin itzezin zuan, ta au esan zidan: «Zatoz, eta erakutsiko dizut emazte gaya; Bildotsaren emaztea». <sup>10</sup> Eta, irudimenez, mendi aundi ta goi batera eraman ninduan, eta, Jerusalem, Jau-naren erri santua erakutsi zidan, Jainkoarengandik zerutik, <sup>11</sup> Jainkoaren aintza zeriola jeixten. Aren diztira, arri-rik diztiratsuenena ta jaspe-arri landuarena ainbestekoa zan. <sup>12</sup> Arresi aundi ta goi bat zeukan inguruan; arresian. berriz, amabi ate, ta amabi ate-buruetan amabi aingeru ta izen idatzita; izen auek, Israel'en semeen amabi jatorrienak ziran; <sup>13</sup> sortaldean iru ate; iparraldean iru ate; egoaldean iru ate; ta sartaldean iru ate. <sup>14</sup> Erriko arresiak amabi oñarri zituan, eta ayen gañetan Bildotsaren amabi apostoluen amabi izenak.

<sup>15</sup> Nerekin izketan ari zanak urrezko neurrigallu bat zeukan, urrezko kañabera bat, erria ta aren atean neur-tzeko. <sup>16</sup> Erria lau alderdikoa zan, luze ainbat zabal. Eta erria kañaberaz neurtu zuan, eta erriak amabi milla estadio zeuzkan, eta bere luzaroa, zabalera ta gorakoa berdiñak ziran (\*). <sup>17</sup> Eta erriko arresia neurturik, eun da berrogei ta lau besabete zituan, giza-neurritan; aingeruak ori zebilkan-da (\*). <sup>18</sup> Arresia jaspe-arritz egiña zan; eta erria, leyar garbiaren itxurazko urre gorri. <sup>19</sup> Erriko arre-

siaren oñarriak era guztietako arri bikañez landuta zeuden; lenengoa, jaspezkoa zan; bigarrena, zafirozkoa; irugarrena, kalzedoniozkoa; laugarrena, esmeraldazkoa; <sup>20</sup> bosgarrena, sardoniozkoa; seigarrena, kornalinazkoa; zazpigarrena, krisolitozkoa; zortzigarrena, berilozkoa; bederatzigarrena, topaziozkoa; amargarrena, krisoprasazkoa; amaikagarrena, jazintozkoa; ta amabigarrena, amatistazkoa. <sup>21</sup> Amabi atean amabi perla ziran; ate bakoitza, perla bat; eta erriko en-parantza, leyar garbia bezelako urre gorria. <sup>22</sup> Ez nuan an leku santurik (elizarik) ikusi; Jauna, Jainko guztiz al-tua, Bildotsarekin bait-da, bere leku santu.

<sup>23</sup> Erriak etzuan eguzkiaren eta illargiaren bearririk argitan egoteko, Jainkoaren aintzak argitzen bait-zuan; ango argi-ontzia, berriz, Bildotsa zan. <sup>24</sup> Aren argitan ibilliko dira atzerriak eta lurreko erregeak bere aintza eramango diote. <sup>25</sup> Aren atean ez dira itxiko egunez; an ez da gaurik izango-ta. <sup>26</sup> Eta atzerrien aintza ta ondasunak araxe eramango dituzte. <sup>27</sup> An ez da garbi ez danik ezer sartuko, ezta nazkagarri edo gezurti danik ere, Bildotsaren bizitza-liburuan izena idatzita daukatena bakarririk baizik.

## XXII

### Zeruaz azken-azalpenak

<sup>1</sup> Eta gero Jainkoaren eta Bildotsaren aulkiari zerion ur bizizko ibai bat erakutsi zidan, leyarra bezin garbia, <sup>2</sup> Erriko kale-erdian eta bi ibai-ertzetan bizitza-zugaitz bat zegoen; amabi frutu-aldi ematen zituan, ill bakoitzean bat; eta aren ostoa atzerrientzat osasungarri ziran. <sup>3</sup> An ez da biraorik izango, ta Jainkoaren eta Bildotsaren alki-a an egongo da, <sup>4</sup> eta Jainkoaren serbitzariak gurtu egingo

dute, ta Aren arpegia ikusi ere bai, ta Aren izena bekoian eramango dute.

<sup>5</sup> Geroztik, ez da an gaurik izango, ezta argi-zuzien naiz eguzki-argien bearrrik ere ez da izango, Jainko Jaunak egin die-ta argi; eta, gizaldiz-gizaldi errege izango dira (\*).

### Azkena

<sup>6</sup> Eta ala esan zidan: «Itz auek benetakoak eta egiazkoak dira; eta igarmena igarleai ematen dien Jainko Jaunak bere aingerua biali du, laxter gertatu bear dutenak bere serbitzariari erakustera. <sup>7</sup> Eta ara: laxter nator. Zorionsua liburu ontako igarkizunak betetzen dituan!»

<sup>8</sup> Gauza auek guztiak, nik, Juan onek, ikusi ta entzun ditut. Ikusi ta entzun nituanean, agertzen zizkidan aingeruaren oiñetan auzpeztu nitzan, bera gurtzeko. <sup>9</sup> Baña, auxe esan zidan: «Begira gero! Etzazu orrelakorik egin; zure, ta zure anai igarleen eta liburu ontako itzak betetzen dituztenen morroikide naiz-ta. Jainkoa gurtu zazu!»

<sup>10</sup> Eta au esan zidan: «Ez utzi ixilpean liburu ontan aurrez esandakoak, denbora gañean da-ta. <sup>11</sup> Gaiztoak jarrai dezala gaizakerian; aragikoi danak jarrai beza aragikerian; zuzena danak gorde beza orain ere zuzenbidea ta santu dana egin bedi santuago. <sup>12</sup> Orra: laxter nator eta nerekin dakart saria, bakoitzari bere egitei dagokien neurrian emateko (\*). <sup>13</sup> Ni alfa ta omega naiz: asiera ta amaya. <sup>14</sup> Zorionsuak, bizitza-zugaitzetik jateko ta erriko ateatatik sartu al izateko, beren soñekoak garbitzen dituztenak! (\*) <sup>15</sup> Utikan txakurrak, aztiak, lizunak, gizonilzalleak, irudi-gurtzalleak ta gezurra maite ta egiten duten guztiak! (\*) <sup>16</sup> Nik, Jesus onek, biali nizuten aingeru bai, elizetan gauza guzti auen aitorle izan dezazuten. Ni naiz Dabid'en zugaitz-ondoa ta jatorria, goizeko izar dizdi-

zaria». <sup>17</sup> Eta Espirituak eta Emazteak auxe diote: «Zatoz!» Eta entzuten duanak, esan beza: «Zatoz!» Eta egarri dana etorri dedilla; eta nai duanak, artu dezala utsean ur bizia (\*).

<sup>18</sup> Eta nik, liburu ontako igarkizunak entzun dituzten guztiai aitortzen diet au: norbaitek *liburu oni* ezer erantsitzen ba'dio, Jainkoak alakoari liburu ontan idatzitako zigorrak emango dizkio. <sup>19</sup> Eta norbaitek, liburu ontan idatzitako itzetatik zerbait kentzen ba'du, alakoari bizitza-zugaitzetik, eta erri santutik, eta liburu ontan azaldu diranetatik bere laña (partea) kendu egingo zayo.

<sup>20</sup> Gauza auek guztiak aitortzen dituanak, auxe dio: «Bai, laxter nator». Amen! Zatoz, Jesus Jauna! (\*).

<sup>21</sup> Jesus Jaunaren grazia bego guztiokin. Amen.




## OARRAK

### JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA

#### Mateo Donea

- 1 18 Bein ezkon-itza eman ezkeru, batera bildu baño leen ere, senar-emazte zeukaten alkar, eta senar-emazte deitzen zioten alkarri.
- 2 1 Mago edo Azti zuten izena; zeruen eta izarren jakitez ezagunak.
- 3 2 Zeru-erria: batzutan Berri Ona adierazten du; bes-tetan, Eliza; bestetan, beste munduko zoriona.
- 7 Pariseuak: Legearen azala bakarra maite zutenak; zintzo agertu-naia erakusten zuten.  
Saduzeuak: Lege soilla zuzenbidetzat arturik, bi-zitzako atseginetara itoak. Etzuten siñisten ez ani-marik, Angerurik, ez illen piztutzerik.
- 11 Eguzkialdean oitura da, Jaun bati, Jauregira sar-tzean, morroiak onetakoak eskuan eramatea.
- 4 23 Sinagoga: Judean Elizetxea. Ara biltzen ziran otoitz egitera ta Liburu Santuak irakurtzera.
- 5 17 Legea ta Igerleak: au da, Testamentu Zaar osoa.  
32 Batek loikeria egiñik ere, ezkontza ez diteke ausi. Ori bai, senar-emazteak alkarrengandik bakandu ditezke; baña beste batekin ezkondu, ez,
- 9 10 Pagu-diru edo zerga-biltzailleak ziran publikanoak. Beren izen txarragatik pekatarien antzeko jotzen zituzten.
- 11 11 Zeru-errian txikiena au bañon aundiago da: au da, Testamentu Berriko egitekorik txikiena, Testamen-tu Zaarrekoa bañon aundiago da.
- 12 31-32 Ispiritu Santuaren kontrako pekatua: au da; Ispi-ritu Santuaren egitenik bikaiñenak deabruari eran-



- tsi nai izatea. Au egiten dunak, oso nekez iritxi-ko du barkazioa.
- 46 Jesus'en senideak: au da, aideak. Gure Bizkaia'n ere *aide* ordez *senide* esan oi dute.
- 13 31 Egoaldean basarbi edo arbi gaizto au gurean ba-ñon askoz aundiago zan. Zeape, arbi agorra, arbi arra ta beste izen batzuk ere ba-ditu Euskalerrian.
- 14 25 Laugarren gaualdian: antziñakoak gaua lau zati egin oi zuten; iruna ordu zitun zati bakoitzak.
- 15 6 Gurasoai zor zaiena Jainkoari eman-aitzakiz, gura-soai ez laguntzeagatik. Biei ematea nai du Jaunak.
- 15 27 Judu ez ziranai "zakur" esaten zien, eta beren bu-ruei "etxekoseme". Oraindik gaur ere bai musul-manak.
- 16 17-18 Bar Yona: Jonas'en semea; Pedro: kepaz, euske-raz, Arri. Ipernuko atea: ipernuko indarrak.
- 17 24 Didrakma: bi pezta eskas.  
27 Estatera: lau pezta.
- 16 8-9 Esku ta oñak ebaki, begiak atera: au da, eskuak eta begiak bezain bearreko gauzak, pekatura era-maten ba'gaitute, ebakitzeko ta ateratzeko.
- 22 Zazpi: Juduak, *asko* esateko, zazpi esan oi zuten, guk bost eta amaika bezela.
- 24 Talentua: bost milla pezta eta kokka.
- 28 Denarioa: langillearen egun-saria.
- 20 3 Irugarren ordua: Izarretik izarrerañoeko eguna lau zati egiten zuten antziñakoak; zati bakoitzak iru ordu zitun gureak. Orduak udaran luzeago, neguan laburrago ziran. Seigarren ordua beti Eguerdi zan.
- 21 19 Ba-zekin Jesus'ek piku-ondo arek etzeukala piku-rik; piku-ondoa Sinagogaren irudia esaten dute adierazleak.
- 22 11-13 Ez zeruko maiean, ez eta aren irudi dan Eukaris-ti-maiean ez diteke iñor jarri eztai-jantzirik gabe: au da, animako garbitasunik eta apaingaririk gabe.
- 23 5 Larrutxak: Lege-zale agertzeko, pariseu batzuk ku-tun bat eraman oi zuten bekokian, larru-ugalez lotua, Legeko itz batzuekin.
- 24 3 Berrogei bat urtez geroago gertatu zan au, Tito'ren

- soldaduak Jerusalem artu zutenean. Jerusalem'en ondandemia, mundu onen azkenaren irudia da.
- 36 Iñork ez daki. (Ikus Mk. XIII, 32).
- 40 Bata artua, zerurako; bestea utzia, inpernurako.
- 26 7 Emakume bat au Mari Madalen zan, Lazaro'ren arreba ta Marta'ren aizpa. (Ikus Jn. XI, 2).
- 27 3 Ogeitamar zillar-diru; ordun morroi bat erosteko aiña.

### Markos Donea

- 1 24-25 Etzun nai Jesus'ek deabru aien aitortzarik.
- 4 4 Palestina'ko etxeak bajuak ziran. Tellatua Iurrezko zapaldu zelaia zuten. Artara igotzeko, kanpotik eskallera.
- 15 Pagu-biltzaille edo kontribuzio biltzailleak. Nola-baiteko soñua zuten, eta pekatariekin alderatzen zituten.
- 28 Erria larunbatero bildu oi zan Sinagogetara. Le-gearen eta Profeten zati bana irakurtzen eta adie-razten zuten *Rabi* edo Maisuak.
- 3 5-6 Eziñ egin miraririk; ezin zulako ez-bañan, aie'k merezi etzutelako.
- 4 32 Eguzki-alde artako basarbia, emengoaren aldean aundia zan
- 6 17-19 Itxaso Illa'ren egoaldera zegen Makeron Gazte-lua; an egon zan Bataioria itzalean.
- 7 27-30 Txakurrak: erbestekoai ola esaten zien; gaur ere bai oraindik mahomatarren artean.
- 31 Dekapolis: Amar-errieta, amar baitziran Genesaret itxasotik eguzki-aldera.
- 9 23 "Al ba'dezu" gizonak, eta "sinisten ba'dezu", Je-sus'ek. Siñistunari guzia eginkizun zaio. Fedeak egiten ditu mirariak.
- 43-47 Zeruan ez da iñor besamotz, ankamotz edo begi-bakar sartuko; baña nolabait adierazteagatik esa-ten die.
- 11 1-12 Israel-errian Jainkoarekiko artu-emanak labur adie-razirik daude ipui ontan. Gogor egin zioten Mois'i



- mendian; Igarleak erioz illerazi zituten, eta Mesias, Jainkoaren Semea ere bai. Orregatik, aien ondorena, piku-ondo arenaren antzekoa izango da.
- 41-44 Dirutegia emakumeen atarian zegon, turuta antzeko amairu eltzetotan. An biltzen ziran Jauretxea txukuntzeko limosnak, eta Opari-gaiak.
- 13 2 Berrogei bat urtez geroago gertatu zan au, Tito'en soldaduak Jerusalem artu zutenean. Jerusalem'en ondamendia, mundu onen azkenaren irudia da.
- 14 51-52 Gazte au S. Markos bera ote zan uste dute zenbaitek; berak bakarrik ematen baitu gertaera onen berri.
- 61 Doatsua, Jinkoa esateko itz bat. Au ta beste izen batzuk ere eman oi zizkioten, *Yahve* eziñ esan-ala ko itz,, agotan ez artzearren.
- 15 23 Mirraz naastutako ardoa eman oi zien gurutzekoai, oñazeen sorgarri. Jesus'ek oñazeak oso osorik eraman nai izan zitun.
- 16 8 "Iñori etzioten esan", alegia, bidean topatzen zituten arrotzai.
- 14 Etziran samurrak siñisten! Gaurko eguneraño badi-ra, Jesus piztu etzala uste duten juduak. Ala ere, nori siñistu? lo zeuden testigui: "gu lo geundela eraman dute". Zer testiguak! S. Agustiñ'ek diona. Gaur ere, Jainkoa siñisten ez dutenen artean, badi-ra txorakeriak siñisten ditutenak, eta siñisteko oiñarri ta arrazoi aulagoakin.

### Lukas Donea

- 2 7 "Leen-seme", ama-berriren seme. Jesus, Mari'ren Seme bakarra da.
- 19 Jesus'en aurtzaroz dakizkigun berriok, Andre Mari'k biotzean ondo gorderik zeuzkanak, San Lukas'i esan zizkion.
- 4 17 Liburuari Bildua esaten zioten, Iarruzko pieza bakarrekoa zalako. Biribildu ta zabaldu egiten zuten.
- 44 Liburu batzuen aldakuntzak, onenak, Judea diote,

- beste batzuk Galilea. Palestina osoa ere artu di-teke, edota, an gero egin zun Berri-Onaren zabal-tzea.
- 7 28 Mesias'en errian, lanbiderik exkaxenak, Lege Zaa-rrekorik aundiena, garaitzen du.
- 8 52 Jesus'i berdin zion, *il* esan, naiz *lo* egin esan.
- 9 25 Kaltea, galtzea, au da, kondenatzea.
- 16 4 Bidean ez alperrik denbora galdu, berriketan.
- 38 Baserri ori Betania zan; Jerusalem'dik bi kilome-tro t'erdi, Egoa aldera.
- 12 46 "Zati zati egin"; beste batzuk "etxetik bota" diote.
- 14 26 Jatorrizko Liburuan "gorrotatu" diona, "atzerago utzi" aditu bedi. Juduak orrela esan oi zuten.
- 17 20 Lenengo etorrera ixilik; bigarrena edertasun aundian.
- 29-30 Noe'ren eta Lot'en denboran bezain ez-ustean arra-patuko ditu gizonak.
- 19 13 Mina: eun pezta inguruko balio zitun.
- 25 33 Galbario-mendi edo kaskezurmendi, kaskezur an-tza zulako edo.
- 44 Eguerditik iruretara.

### Joan Donea

- 1 1 Itza: Jainkoaren Semcaren beste izen bat.
- 14 Griegozko *doxa*, euskeraz argitasuna. Ikus Eban-jelio ontan berean XVII'garren kapitulua: zazpi al-diz erabiltzen du *doxa*, ta *argitasuna* biurtzen du latiñera.
- 39 Arratsaldeko laurak alde.
- 2 6 Neurria, berrogei litro inguru.
- 20 Eliz-berritza Erodos'ek asi zun J. K. baño ogei urtez lenago, ta bukatzeko zegon.
- 3 3 Bizi berriak jaiotza berria eskatzen du: kristau-bi-ziak, Bataioa.
- 4 10-14 Ur onek Jainkoaren grazia adierazten du.
- 7 5 Senide: aide, Bizkaia'n bezela.
- 9 24 Ospe eman Jainkoari, au da, egia esan.

- 11 49 Apaiznausigoa ez zan urtero aldatzen.  
 12 40 "Begiak itsutu", Juduen esaera bat. Jainkoak ez dio  
 inori begirik itsutzen utzi.  
 17 20 Kristau guziok gorputz bat bezela Jesukristo'gan.  
 19 14 Eguerdi inguru.  
 20 21-23 Itzotan dago garbi pekatuak aitortzeko Sakramen-  
 tua.  
 21 15-18 Iru aldiz ukatu, ta iru aldiz aitortu.

## APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK

### APOSTOLUEN EGINAK

- 1 1 Bere "Berri Ona" liburuan.  
 2 Liburu au, Berri Ona amaitu zanetik asten da; eta  
 Apostoluak, eta batez ere, Pedro eta Paulo doneak  
 egin zutena agertzen da.  
 4 Agintzari au: Espiritu Santua artuko zutela.  
 10 Bi gizon: bi aingeru gizon-jantzita.  
 12 Bi milla oinkada edo pauso an-nonbait. Judutarrak  
 larunbatean egin zezateken bidea.  
 15 Lagun: ikasle, jarraitzale.  
 20 Er. 68, 26 eta 108, 8.  
 2 4 "Beste izkera" ori ez da, noski, gizonen izkera-  
 ren bat; Jainkozko izkuntza baizik.  
 15 Erromatarren orduak: 1) Eguneakoak: irugarren  
 ordua, goizeko seiretatik bederatzitara; seigarrena:  
 bederatzietatik amabietara; bederatzigarrena: egue-  
 diko amabietatik iruretara; amaikagarrena: arratsal-  
 deko iruretatik seietara. 2) Gabekoak: eguneakoak  
 bezela, iru ordu, lau zatitan berezita. Erromata-  
 rren ordu bakoitza gure iru ordu ainbeste da, gu-  
 txi-gora-bera.  
 21 Joel. 3, 1-25.  
 28 Er. 16, 8-11.

- 31 Er. 16, 10.  
 35 Er. 110, 1.  
 36 Kristo, Mesias: igurtzia edo gantzutua adierazten  
 du.  
 39 Agintzari au: Jesukristo'ren bitartez artzen ditu  
 osasuna ta salbabidea.  
 41 Benetan onartu zutenak: benetako gogoz eta si-  
 nismenez.  
 3 1 Bederatzigarren orduan; ikusi, 15.  
 23 Deut. 18, 15. Igarle ori: Moises'ek esandako Igar-  
 le aundia edo Mesias.  
 25 As. 12, 3; 22, 1.  
 4 26 Er. 2, 1-2.  
 6 1 Grezitarrek: grezitar-izkuntza itzegiten zan errietan  
 jayo ta azitako judutarrak ziran.  
 9 Libertinoak: Erromatarren menpeko izan eta gero,  
 askatasuna iritxi zuten judutarrak.  
 7 3 As. 12,2.  
 7 As. 12, 7; 13, 15; 17, 8; 48, 4.  
 8 Erdaindu: erderaz, circuncidar. Judutar mutikoai  
 egiten zieten zeremoni mingarri bat zan: gizon-  
 zkoak duten buztan-muturrean larrua ebakitzen zie-  
 ten, umeari izena ipiñiaz.  
 21 Nilo ibaiko ur-gañean utzi zuten.  
 32 Irt. 3, 6.  
 33 Irt. 3, 5.  
 43 Molok: arrotzen sasi-jainkoa. Amos, 5, 25-27.  
 49 Is. 66, 1-2.  
 51 Erdain-gabeak: Jainkoaren Legea artu nai etzute-  
 nak, noski.  
 8 4 Zabaldu ziranak: ikasleak eta fededun asko. Ikus,  
 6, 5.  
 5 Felipe au etzan Felipe Apostolua. Ikus, 6, 5.  
 17 Auxe da Sendotza Sakramentua.  
 18 Arrezkero pekatu oni simonkeri deritzaio.

- 27 Iren, itzez-itz, erderazko eunuco da; baño emen aundiki bezela artu bear da, noski.
- 33 Is. 53, 7-8.
- 38 Lenbizi artan batayoa uretan sartuta artzen zan. Jesus'ek ere orrelaxe artu zuan Juan Batayatzallearen bidez.
- 39 Gizonezko au abisinitarra zan, eta an zabaldu zuan Jesukristo'ren Berri Ona.
- 9 23 Arabia'n igaro zituan iru urteak dira noski.
- 28 "Sartu-irten": ebreatarren esacera, "arekin bizi ta itzegiten" adierazteko.
- 10 45 Erdaindutakoak: Jesukristo'ren sinismena artu zuten judutarrek dira emen.
- 11 28 Lur osoan: Erromatarrek mendean zeuzkaten lurraldeetan.
- 12 1 Aldi artan; Klaudio Zesar'en denboran (41'garren urtetik 54'garrenera).
- 3 Otill-egunak: legami-gabeko ogiak jateko egunak: Pazko-astea.
- 12 Juan au ez da Ebanjelaria; beste bat baizik. Bernabe'ren lengusua zan. Ikus Kolos. 4, 10.
- 13 1 Saulo ta Paulo bat dira; emendik aurrera Paulo agertzen da beti.
- 6 Azti: erderazko "mago" edo "adivino": jakitez gizon askar eta entzutetsuai deritzaye Arabi-aldean.
- 33 Er. 2, 7.
- 34 Is. 55, 3.
- 35 Er. 16, 10.
- 41 Habak. 1, 5.
- 47 Is. 19, 6.
- 14 12 Jupiter: sasi-Jainkoetan aundiena. Merkurio: beste sasi-jainkoa, ele-eder eta sal-erosketa-jainkoa.
- 23 Aldi artan presbiteros izenez, gotzayak eta apaizak artzen ziran.
- 15 1 Anaiari: sinismena artu zuten atzeritarrak.
- 7 Pedro, guztien buru agertzen da.

- 16 10 emendik aurrera, liburu onen egille Lukas izango da, Paulo'ren laguntzalle.
- 17 16 Ayen zai: Silas'en eta Timoteo'ren zai.
- 19 Arcopago: Guda-jainko Marte'ri eskeñita zegon erri-zatia, eliza ta guzti.
- 18 17 Inork ez daki ziur Sostenes zergatik jo zuten. Badi-teke Sostenes au Korinto'koai egindako lenen-eskutitzean (1, 1) agertzen dan Sostenes bera izatea. Juan Krisostomo doneak eta beste batzuk ere bai, ordukoz Paulo donearen ikasle zala diote Sostenes au.
- 19 Prizila ta Akila an utzi zituan.
- 19 19 Denario bakoitza: urrezko peseta bat, gutxi-gorabera; egun bateko lan-saria.
- 24 Elizatxoak: Efeso'ko eliza ospetsuaren iruditxoak.
- 29 Antzoki edo teatro: erria biltzen zan tokia.
- 20 7 Lenengo ostegunean: igandean. Judutarrentzat astea igandez asten zan; kristauak, astelenera aldatu zuten; igandea jai egiten zuten, Kristo'ren piztueraren oroiz.
- 22 14 Zuzena: Kristo.
- 23 23 Irugarren gau-aldirako. Ikus 2, 15.
- 24 22 Vulgata'k: "entzungo dizutet".
- 25 23 Jaunari: emen Erroma'ko agintari nagusiari. Jauna (Kyrios) itza, Jainkoari zegokion. Emen Zesar'i ezartzean, Zesar'ek agintaritza oso-oso zuala adierazten du; Jainkozko agintaritzaren antzekoa.
- 27 33 Ori ez da itzez-itz artu bear; amalau egun barau utsean ezin diteke egon. Beste au esan nai du: etzuala amalau egun ayetan itxurazko otordurik egin.
- 28 1 Malta ugartea Erromatarren mendean zegon aldi artan.
- 2 Griegoz egiten etzuten guztiai "barbari" zeritzayen; euskeraz, erdaldunak esango genuke. Angoen izkuntza, berriz, ebreatarren antzekoa zan: "puni-koa".
- 29 Itxaropenarengatik: Kristo'rengatik.

PAULO DONEAK ERROMATARRAI EGINDAKO  
ESKUTITZA

- 1 3 Santu guztioi: bizitza santua egiteko beartuta zaudeteno: —kristau guztioi.  
7 Paulo donearen lerro aukeratuak ulertzeko, 7<sup>gm</sup> atala artu ta lenengoaren ondoren ipintzea baño era oberik ez det arkitu.  
14 Grezitarrak: erri jakintsuak; arrotzak: ez-ikasiak.  
17 Abakuk, 2, 4.  
19 Sortzezko legez Jainkoak biotzean ezarri dien barruko argiz.  
20 Izakietan agiri da ta ikusten degu Jainkoaren aztarena; izakien bidez jo dezakegu Jainkoa'rengana.  
2 Jainkoarentzat berdin da judutarra naiz atzerritarra izan, bakoitzari bere saria emateko.  
16 Jesukristo'ren Berri Onean erakusten dizutedanez...  
24 Is. 52, 5; Ezek. 36, 20. —Edo berdin dana: zuen oiturak ikusita, zuen Legea ere iguingarri zaye.  
25 Atzerritarra bezelakoa izango zera.  
28 Erdainketak biotzezkoa izan bear du.  
3 2 Jainkoaren itza: Liburu Santuetan idatzitakoa; Mesias'i dagokion agintzaria ta bere betiko erreiñua, esate baterako.  
4 Er., 50, 6. Egizale da Jaungoikoa; beraz, ez du emandako itzik jango, judutarrak ala eginda ere.  
5 Pekatuak zigortzen dituanean.  
9 Edo-ta, judutarrok atzerritarrak baño obeak ote gera Jaungoikoaren aurrean? Ez, orixel; guztiok pekatuaren menpeko gera.  
10 Er., 53, 2-4.  
12 Er., 14, 1-3.  
13 Er., 5, 11; 139, 4.  
14 Er., 9, 28.  
15-17 Is. 59, 7-8.

- 22 Edo-ta, judutarren eta atzerritarren artean alderik ez dago.  
4 3 Asiera, (Gen.) 15, 6.  
5 Zintzo agertzen da Jaunaren aurrean.  
7 Er., 31, 1-2.  
12 Beraz, Abrahan'en zintzotasuna ez dator erdainketatik; maitasunak eragindako Jesukristo'ren sinismenetik baizik.  
17 As., 17, 4.  
18 As., 15, 5.  
5 12 Jatorrizko pekatua Adan'engandik datorkigu guztioi, baita eriotza ere, au pekatuaren ondorena bait-da. Adan Jaungoikoaren agindupean zintzo egon izan ba'litz, ez genduan ez jatorrizko pekatuak ez eriotzarik.  
17 Adan'en pekatuengatik sartu zan pekatua gizartean, baita eriotza ere: animako ta gorputzeko eriotza.  
Bizitzan: betiko bizitza zoriotsuan, zeruan.  
20 Legea bete etzalako.  
6 15 Gauza bat da askatasuna ta bestea askatasunkeria. Jaungoikoak gizakiai askatasuna eman digu, gere eskuko egin gaitu, onera edo txarrera jotzeko; baño, txarrera jotzen ba'degu, askatasunkeriz joko degu, ta pekatuaren menpeko egingo gera. Orixe gertatzen da pekatu egiten dan bakoitzean.  
7 4 Kristo'rekin batean gurutzeratuak izan giñan, eta Aren gorputz-atala gera; eta orrela, Legetik askatuta gaude.  
8 26 Gure biotzari graziak eragiten diona; onek erakusten digu zer eta nola eskatu.  
32 Edo berdin dana: pekatuen barkamena ta zerua irixteko graziak.  
36 Er., 44, 23.  
9 3 Ikus Ex., 32, 32.  
5 Ayen gurasoak: Abrahan, Isaak eta Jakob.

- 9 As., 21, 12; 18, 10. —Aldi ontantxe: urtebete barru.
- 12 As., 25, 23.
- 13 Malak. 1, 2 ta 3. —Edo berdin dana: Jakob Esau baño maiteago izan det.
- 15 Irt., 33, 19.
- 17 Irt., 9, 16.
- 26 Oseas, 2, 1.
- 27 Is., 10, 12 ta 23.
- 28 Vulgata'k: "Jaungoikoak epaibidez bere erria gutxitu egingo du-ta; becratze aundia egingo du Jaunak luraren gañean".
- 29 Is., 1, 9.
- 32 Galbide-arrian: Jesukristo'rengan. Izan ere Kristo'ren sinismena onartu nai ez dutenak, betiko galduko dira.
- 33 Is., 8, 14; 28, 16.
- 10 5 Lebi, 18, 5.
- 6-7 Deut., 30, 12 ta 13.
- 8 Deut., 30, 14.
- 11 Is., 28, 16.
- 13 Joel, 3, 5.
- 15 Is., 52, 7.
- 16 Is., 53, 1.
- 18 Er., 18, 5.
- 19 Berri Ona Israel'i, beste erriai baño len erakutsi zitzayon, eta Kristo'k berak erakutsi ere, Jaungoiko Aitaren izenean.  
Deut., 32, 21.
- 20 Is., 65, 1.
- 21 Is., 65, 2.
- 11 3 Erreg., 3.<sup>a</sup>, 19, 10.
- 4 Id. 19, 18.
- 8 Is., 29, 10.
- 9-10 Er., 68, 23 ta 24.

- 26 Is., 59, 20; 27, 9.
- 28 Gurasoak: patriarkak.
- 34 Is., 40, 13.
- 45 Job, 41, 2.
- 12 1 Moises'en Legean abereak eskeintzen zitzaizkion opari Jaungoikoari; Lege Berrian kristauen bizitza zuzena da opari, lengoko abereen orde.
- 4 Elizarenak geran guztiok gorputz mistiku bat osatzen degu; Kristo da gorputz orren buru ta gu gorputz-atal.
- 19-20 Esakunak (Prov.) 3, 4, 25 ta 21.
- 13 8 Jaungoikoarenganako ta lagun urkoarenganako maitasunez Lege osoa betetzen zala esan zuan Jesukristo'k. Eta Juan doneak lagun urkoa maite ez duanak Jaungoikorik ere ez duala maite esaten zuan. (Juan'en 1.<sup>a</sup>an, 4, 20.)
- 9 Irt., 20, 13-17. — Bigarren esaera: Mat., 7, 12.
- 14 11 Is., 45, 24.
- 17 Moises'en Legeak maiz aitatzen ditu janari garbiak eta loyak; baño, Jesus'ek ez dio ezer janariari buruz, janariak ez dutela gizona zikitzen besterik. (Mat. 15, 11.)
- 23 Emen aitatzen diran janariak, sasi-jainkoai eskeñitakoak dira. Ayek ere jan zitezkean, baño iñori gaitzbiderik eman gabe.
- 15 1 Ez da naikoa lagun urkoari gaitzbiderik ez ematea; makalari bere sorta eramaten lagundu egin bear zayo; sortari elduta, benetan, lagundu ere.
- 3 Er., 69, 10.
- 9 Er., 17, 50.
- 10 Deut., 32, 43.
- 11 Er., 116, 1.
- 12 Is., 11, 10.
- 21 Is., 52, 15.
- 16 1 Febe ori, eskutitz au Erroma'ra eraman zuana izanago zan.

- 6 Zuegatik; beste batzuk, "guregatik" dakarte.  
 22 Terzio izan zan Paulo'ren idazkari eskutitz ontan; Paulok esandakoa ta Paulo'ren aurrean idazten zuan.

KORINTO'KOAI EGINDAKO LENENGO  
 ESKUTITZA

- 1 1 Kristauak Paulo'rentzat santu dira, bizitza donea egin bear dute-ta; batayoaren bidez pekatu guztietatik garbi ta Kristo'ri lotuta dauden ezkeru, santutasunari dagokionez bizi izateko bearturik daude.  
 12 Grezitar ayen artean, beti ere buru-ariñak eta eztabaida-zaleak, Berri Onaren zale baño Berri Ona erakusten zutenen zaleago ziran ez gutxi. Orrela-koai Paulo'k gogor egiten die.  
 19 Isaias, 19, 14.  
 20 Berri Ona zabaltzeko, edo artzeko, ez ditu Jaunak aberatsak aukeratu, ez jakintsuak, ez agintariak; beartsuak baizik, ez ikasiak, menpekoak.  
 22 Iru jokabide: judutarrena, mirari-eske; grezitarrena, jakintza-bidez; eta Jaungoikoarena, sinismen apalez, Kristo gurutzetuarengan.  
 26 Gogoz beartsu diranak, zoriotsu dirala dio Jesukristo'k, zeruko erreiñua berena dala-ta. Orixe gertatzen zan Korinto'n ere; sinismena artzen zuten geyenak, beartsuak eta ez-ikasiak ziran-da.  
 31 Jer., 25, 24.  
 2 8 "Gizarte ontako nagusiak": Jesus'en eriotzan eskuartu zuten guztiak; apaiz-nagusiak, ixkribauak eta pariseotarrak, Pilatos, Erodes eta illunpeko indarrak.  
 9 Is., 64, 24.  
 16 Is., 49, 13.  
 3 6 "Nik aldatu egin nuan": zer? Berri Ona.  
 10 Paulo'k Korinto'n ipiñi zuan oñarria, ill eta piztu zan Kristo'ganako sinismena da, zeruratzeko gure itzaropen bakarra.

- 16 Jaungoikoaren etxe bizi egiten gera grazi donea-tzallearen bidez.  
 19 Job, 5, 13.  
 20 Er., 93, 11.  
 4 16 Vulgata'k beste au dakar gañera: "ni Kristo'rena naizenez".  
 6 1 Santuengana: kristauengana.  
 7 Auzi-zalea ez da kristau zintzo-zintzoa. Berri Onari oso-osorik jarraitzekotan obe da aurrean erabili gaitzaten.  
 11 Batayoaren bidez garbitu ginduzten eta Jaungoikoari eskeñi. Arrezkeru gure gorputzaren jabe bakarra Jaungoikoa da.  
 14 Jaun ori Jesukristo da. Kristo piztu egin zan, eta gu ere berpiztuko gera Kristo'rekin.  
 16 As., 2, 24.  
 7 2 Geyen-geyenak ezkontzako bidea artzen dute; berezko indarrari jarraitzearen bakarrik ez, baita aragikeriari iges egitearren ere. Eta pekatu ortan erori baño len, obe da ezkondu.  
 8 "Ni bezela egotea": ezkondu gabe, alegia.  
 17 Kristaua edozein bizibidetan zeruratu diteke.  
 36 Grezitarren artean neskatxen naya gurasoen mendean zegon. Orregatik, Paulo'k emen gurasoai itzegiten die alabai buruz, batzuen iritzian.  
 39 Jaunaren legez edo Jaunarengan; berriro ezkontzekotan, kristau diranakin ezkon ditezela, ez besteakin.  
 8 1 Jerusalem'go kristau-batzarrak sasi-jainkoai eskeñitako aragietatik jatea galerazi egin zuan. (Apost. Egiñak, 15, 19.) Paulo doneak jan ditezkela dio, janari auek iñolako zikiñik etzeukaten ezkeru. Ala ere, etzezaiyela janda iñori gaitzpiderik eman.  
 9 1 Paulo, Jesukristo zerura igo-ondorengo apostolu da, izan ere, ta "atzerritarren apostolu" izenez eza-gutzen degu.  
 9 Deut., 25, 4.

- 13 Ikusi gai oni buruz, Mat. 10, 10 eta Luk., 10, 7.
- 10 1 "Gurasoak" itzak ez du emen "patriarkak" adierazten; Ejito'ko basamortuan zear bizi izan zan gizaldia baizik.
- 3-4 Mana, Eukaristiaren irudi da.
- 7 Irt., 32, 6.
- 13 Gure aldetik gogo ona ipintzen ba'degu, beti eman-go digu Jaungoikoak, tentaldian irabazteko bear degun grazi eragikorra.
- 16 "Bedeinkatu" itzak emen eskerrak eman adierazten du.
- 26 Er., 23, 1.
- 27 Lasai-lasai jan ditezke sasi-jainkoai eskeñitako aragiak; iñori gaitzpiderik eman gabe, alare.
- 32 Orain arte, grezitarrak (edo atzerritarrak) eta judutarrak ziran bakarrik; aurrerantzean, baita kristauak ere. Eliza ere gizartean sartzen asi da.
- 11 3 Emakumezkoa, gizezkoaren mendean dago, bai; baño, "emakumea gizonaren malla berean dago, emakumeak, gizonak bezelakoxe eskubideak eta eginbearrak ditu, etxebarruan bakarrik ez, baita etxetik kanpoko arazoetan ere". (Aita Santu Juan XXIII'garrenak, "Pacem in terris" enziklikan.
- 12 Lenengo emakumea, Adan'engandik dator; arrezkero, berriz, gizonak emakumeari zor dio bizia.
- 18 Batzarraldian, batzarrean. Orduan etzan elizarik, otoitz-leku aukeraturik, orain bezela. Kristauak al zuten lekuetan biltzen ziran, beren otoitzak eta Mezako Oparia eskeintzeko.
- 22 Jaungoikoaren Eliza: gur egiten ari dan kristautaldea.
- 24 Zeruetatik ematen dana; eriotzara eskeintzen dana. —Mezako Oparian, Kristo'ren eriotza dakargu gogora.
- 25 "Ontzia" esatean, ontzian barrukoa (odola) ulertu bear da.

- "Egizute au" esatean, Kristo'k agindu egiten du Eukaristia bein da berriz eta askotan egin dedin. Eta auxe egiten da egunero lurbira osoan.
- 12 12 "Kristo ere orrelaxe da"; Eliza, kristau-gorputz osoa, bere buru ta gorputz-atalakin. Orixe da Eliza, Kristo'ren gorputz mistikua: Kristo buru, ta kristauak gorputz-atal.
- 28 "Apostolu" emen Berri Ona erakusten duten guztiak dira. "Igarle", Espiritu Santuaren graziz eta indarrez itzegiten dutenak.
- 13 1 Lenengo buru au guztia maitasuna goratzeko da. Ez, ordea, lurreko maitasun utsa edo aragi-maitasuna; Jaungoikoa ta lagun urkoa, biak, batera, artzen dituan maitasuna, baizik. Azkeneko au adierazteko obe litzake, noski, euskeraz "goi-maitasuna" itza erabiltzea. Latiñez "caritas"; euskeraz "goi-maitasun". Nolanai ere, euskaldunen artean laxter jabetzen gera noiz dan bata ta noiz bestea.
- 9 Vulgata'k emen: "ez dan gauzarik ez diozu iñori ezarriko".
- 14 9 "Aizetara itz-egin": gure arteko "orma zarrai itz-egin" aibeste.
- 21 Is., 28, 11-12.
- 33 Vulgata'k: "Eta auxe da santuen (kristauen) eliza guztietan erakusten dedana".
- 39 Paulo'k, apostolu bezela, Kristo'ren izenean agintzen du.
- 15 1 Sadukeotarrak eta Atenas'ko pilosopoak etzuten sinisten ildakoen piztuerarik. Eta gai ontaz ari da buru ontan.
- 5 Vulgata'k: "amaika", amaika apostolui, alegia. Greazitarrez, "amabiai" dator, "apostoludi" osoa adieraziaz.
- 20 Kristo piztu dan ezkeru, ba-da piztuera. Piztuera ortan degu itxaropen kristau geranok. Eta piztuera-rik ez ba'litz, gu izango giñake guztietan errukarrien. Ikus ontaz Erroma'koai esaten diena ere. (5, 12-21.)

- 25 Er., 109, 1. — Etsayak iru dira, batez ere: inperu-  
nuko espiritu gaiztoa, pekatua ta eriotza. Eta pe-  
katu batengatik gizartean eriotza sartu zan beze-  
la, Kristo'ren eriotzaren bidez bizitza iritxi gen-  
duan; eta piztuerak zapalduko ditu aitatutako  
etsaiak.
- 27 Er., 8, 7.
- 32 Jak., 2, 6 eta Is., 22, 13.
- 33 Kako-arteko itz auek, Menandros'en "Tais" izene-  
ko antzerkian datoz.
- 45 As., 2, 7.
- 50 Gure gorputza ilkor da ta usteldu egingo da. Ze-  
ruan sartzeko, berriz, aintzazko gorputza emango  
zaigu piztueran, ango bizilagun egin al izateko.
- 51 Vulgata'k: "Benetan, guztiok piztuko gera; ez ge-  
ra, ordea, guztiak aldatuko".
- 55 Is., 25, 8; eta Os., 13, 14.
- 16 2 Asteko lenengo eguna: kristaumentzat igandea.
- 22 "Maran atha": Jauna dator. "Marana tha": Zatoz,  
Jauna! "Didaje"-liburuan irakurtzen denez, (10, 6),  
kristauak erregu au eskerrak emateko otoitzaren  
ondoren erabiltzen zuten.

PAULO DONEAK KORINTO'KOAII EGINDAKO  
BIGARREN ESKUTITZA

- 1 20 "BAI dira": bete egin dira.
- 4 23 Er., 115, 10.
- 5 1 Txabola au: gorputz ustelkor au, piztueran ain-  
tazko gorputz biurtuko da zeruan sartzeko.
- 5 Jaungoikoarekin bat egiteko, aurretik eriotza igaro  
bear da
- 6 2 Is., 49, 8.
- 16-18 Leb., 26, 12; ta Ezek., 37.
- 17 Bizilagun dituztenen oituretatik alde egiteko esa-  
ten die.

- 7 11 Asarre geyago; senidekeri-egillcaren aurka. —Go-  
go geyago; gaiztakeria kentzeko. —Gaizkillea: se-  
nidekeria egin zuan pekataria.
- 8 15 Irt., 16, 18 (Ex.).
- 9 7 Es., 22, 8 (Prov.).
- 10 Is., 55, 10; ta Os., 10, 12.
- 10 1 Korinto'ko kristauen artean batzuk Paulo'ren ga-  
ñetik egon nai zuten; eta oyen aurka ari da emen.
- 7 Paulo'ren etsayak, Galazia'ko elizetan sartu zituz-  
ten erakutsi oker batzuk sartu nai zituzten Korin-  
to'ko kristauen artean ere. Baño, Paulo'k esaten  
die, Kristo'rengandik artutako erakutsia daukala  
berak.
- 17 Jer., 9, 22-23.
- 11 1 Batzuren batzuk erakutsi berriak zabaltzen ari zi-  
ran, eta beste Kristo bat eta beste Espiritu bat ze-  
karzkiten, Berri Oneko iritzi batzuk aldatu nairik.  
Eta, ala Kristo Moises'en eta Legearen azpian ipin-  
tzen zuten.
- 10 Kristo'ren egia: Berri Ona.
- 13 Etsai oyeak, sasi-apostolu, gezurrez ari diran apos-  
tolu, eta Satanas'en morroi zirala dio Paulo'k.
- 24 Berrogeitarano zigorkada eman zitezkean legez; eta  
bat geyago ere emateko bildurrez, 39'garrenean  
gelditzen ziran.
- 13 2 Gizon bat: bere buruarengatik dio, —Irugarren ze-  
rua: judutarak iru zeru zituzten: gurea edo egu-  
ratsarena, izarrena ta Jaungoikoarena.
- 4 Paradisura: irugarren zerura.
- 13 1 Deut., 19, 15.

PAULO DONEAK GALAZIA'KOAII  
EGINDAKO ESKUTITZA

- 2 1 Apost. Egiñak, 11, 30; ta 12, 25.
- 2 Nere etsayak, nik beste Berri On bat erakusten  
nuala bait-zioten.



- 11-12 Pedro'ren eta Paulo'ren arteko auzia etzan, zer erakutsi bear zan, baizik, nola erakutsi bear zan. Kristo'ren sinismena artu zuten judutar askok, Moises'en Legea ta, batez ere, Erdainketa bear-bearezkoak zirala uste zuten. Iritzi ta egikera oyek kendu ezkeru, beste oyek asarretu egingo zirala-ta, Pedro'k amor eman zien. Eta Paulo'k, Pedro'k artutako jokabidea ikusita, arpegira bota zion eta gogor itzegin, ayen jokabideak sinismenerako bidea, iniolako arrazoibiderik gabe, zallago biurtzen bait-zien.
- 3 6 As., 15, 6.  
8 As., 12, 3; eta 27, 18. —“Zuregan”: zuregan jakoko dan Salbatzallearengan.  
10 Deut., 27, 2.  
11 Abak., 2, 4.  
12 Leb., 18, 5.  
13 Deut., 21, 23.  
17 Aurrena, agintzaria egin zuan Jaungoikoak; Abraham'i egin ere. Eta gero, 430 urteren buruan, etxerri zan Legea: Moises'ek emandako Legea.  
27 “Jantzi Kristo artu”: aboretarren esatera da ta Kristo'rekin bat egitea adierazten du.
- 4 22 As., 16, 15; eta 21, 2-9.  
24 Agintzarien jabe Isaak izango dala dio, etxeoandarearen semea; eta ez Ismael, mirabearen semea. Jesukristo sinisten dutenak, —Abraham'en jatorrikoak—, Isaak'en seme dira, agintzarien jabe-gayak, eta ez daude Lege-pean. Judutar sinisgabeak, beste Legearen mendean lotuta, mirabearen seme dira, eta, orretxengatik, agintzariatatik baztartuak.  
27 Is., 54, 1.  
30 As., 21, 20.
- 5 11 Erdainketa dala-ta, judutarrak ematen diedan gaitz-pidea.

- 14 Leb., 19, 18. —Moises'en Legeko aginduen ordez, Berri Onak agindu au jartzen du: Jesukristo'rengan sinismenaren bidez gure animetan Espiritu Santuak ixurtzen duan *maitasuna*. Lagun urko —Paulo doneak dionez— Jesukristo'k erositako guztiak dira.
- 6 14 Judutar izandako kristau berriak, erdainketa ta Lege Zarra ipiñi nai zituzten; baño, Paulo'rentzat naikoa da Kristo'ren Lege Berria Gurutzea ezagurri duala.

PAULO DONEAK EFESO'KOAI  
EGINDAKO ESKUTITZA

- 1 1 Jaungoikoak asieratik aukeratu gaitu, santu ta errugabe izateko, ta Jesukristo'ren bidez bere semeordeko izateko. Ala, bere begiko egin gaitu bere Seme maitearengan. Izan ere, Jesukristo'k erosi gaitu bere Odolez, gure pekatuen barkamena irixita, gure gañera bere grazi aberatsak ugari ixuriaz.
- 9 Au da: jakinduriaren eta zentzutasunaren bidez.  
13 Espiritu Santua Jaungoikoaren Semeen ezaugarri da ta betiko bizitzarako sari.  
15 “Santu guztienganako”: kristau beartsuenganako.
- 2 21 Otoitz-etxea, Jaungoikoaren bitokia zan, eta orixe da orain Eliza, baita anima zintzo bakoitza ere, Espiritu Santuaren bidez donetuta.
- 3 15 Sendi edo famili itzak emen, zeruko ta lurreko guztien elkarte adierazi nai du.
- 16 Barruko gizona: goiko gizona: (adimena, naimena, barrena edo kontzientzia); azaleko gizona: beeko gizona: (grina txarrak, zalekeria, gorputz-argalakeria). Espiritu Santuak gizonaren goiko aldean du bere egitekoa, eriotzaren eta aragiaren aurka goiko alde ori sendotzen. Eta Espiritu Santuaren eta graziaren eragiñak, barruko gizona “gizon berri” biurtzen du.

- 17 Gizonarengan Kristo bizi ezkeru, barruko gizona sendotu egiten da; eta sendotuago, gañera, sinismena piztuaz eta bizitza zintzoa eramanez.
- 4 4 Kristo'ren gorputz mistiku dan Elizaren alkartasunak ondoren batzuk dakarzi: bizi ematen dion Espiritu Santuaren alkartasuna; gure piztuera goragarria dan gure itxaropenaren alkartasuna; Jesukristo Jaunaren alkartasuna; Berarenganatzan gaituan sinismenaren eta batayoaren alkartasuna; eta, azkenik, guztion Aita dan Jaungoikoaren alkartasuna, grazi donetzallearen bidez, bere bizitokia gure barruan ipiñita.
- 6 Len, Israel erria zan bakarrik Jainkoak aukeratuaz; Kristo'ren etorrera ondoren, berriz, lurreko erri guztiak, Kristo'rengan alkartuta.
- 8 Er. 67, 19. —Jesukristo zeruan, Aitaren aurrean bitarteko egin dezaigun daukagu, bere grazia ta doayak ixurtzen dizkigula.
- 16 Ona emen argi-argi Kristo'ren Gorputz mistikua. Elizaren atal gera, Kristo buru degula.
- 24 Gizon zarra Adan pekataria da; baita arengandik pekatuan jayotako guztiok ere. Eta gizon berria, Kristo da ta graziaz Argan bizitza berria artu degunok.
- 25 Zak. 8, 16.
- 26 Er. 4, 5.
- 6 2 Irt. 20, 12.
- 3 Deut, 5, 16. —Agindu onek onespen-agintzaria dakar berekin. Etxekoan artean pakea ta alkartasuna ba'daude, Jainkoaren onespenean jaxkiko da angoen gañera.
- 9 Paulo doneak morroi-joputza (gizaki bat beste baten gauza bezela izatea) kendu egin nai du; baño, oso kendu ezin duan ezkeru, egiñalak egiten ditu jabeen eta morroyen arteko artu-emanak gero ta samurrago izan ditezen.
- 16 "Gaiztoaren": Satanas'en.

PAULO DONEAK FILIPOS'KOI  
EGINDAKO ESKUTITZA

- I 1 "Santuak", batayoak beren pekatuetatik garbitu dituan kristauak; auek bizitza santua eramanez bear dute, artu duten sinismenari dagokionez. —Laguntzalleai: diakonoai.
- 3 Pilipos'ko elizaren kristau-bizitza ona ikusirik, eskerrak ematen dizkio Jainkoari, ta bizitza ori gero ta geyago obetu dezala eskatzen dio.
- 13 Jauregia: erriko jaurlaria (gobemadorea) bizi zan etxea. Paulo donea kanpoan bizi zan errentan artutako etxe batean, baño zaitzalle bat zeukan beti ondoan.
- 15 Judutar izandako kristau berriengatik ari da emen. Auek, Moises'en Legea zeruatzeko bear-bearrezkoa zala esaten zuten. Paulo'rentzat, ordea, naikoa zan Jesukristo'ren grazia. Ori zala-ta, judutar oyeok Paulo'ren aurka zebiltzan. Ikus onetzaz Santiago'k Paulo'ri esan ziona. (Apost. Egiñak, 21, 21).
- 20 Paulo auzi-pean zegon; etzekian azke utziko zuten ala giltzapean sartuko zuten. Iltzeko bildurrik ere ez dauka; ill ezkeru, Kristo'rekin elkartuko bait-da.
- 29 Jaunak esana da: "Zorionekoak zuzentasunarengatik gaizki erabiliak". Eta argiagi oraindik: "Zoriontsuak nerengatik gaizki-esaka ta erasoka erabiltzen zaituztenean, zuen saria zeruan aundia izango da-ta". (Mat. 5, 10-12). Orrengatik, Kristo'ren izenarengatik aurrean erabiltzea, Filipos'koak goragarritzat artu bear dezute.
- 3 2 Txakurrakin: kristau biurtutako judutarrak. Judutarrak atzerritarrai "txakur" esaten zieten. "Kontuz txakurrakin"; erromatarren etxeetan jartzen zuten esaera ori. Judutarrak Paulo'ren aurka amorruez beterik zebiltzan Moises'en Legea baztatu ta Kristo'rena artu zualako. Ori egitea ayentzat saldukeria zan. "Mozketa" esanaz erdinketa adierazten du.

- 3 Aragian, edo-ta, aragi-erdainketan eta Abraham'en belaunaldian.
- 19 Jesus'ek bere burua piztu zuan bezela, azken-egunean bereak berriro piztuko zituala esan zuan Jesus'ek askotan. (Juan, 6, 40, 44, 55).
- 4 22 Santu guztiak: Erroma'ko kristauak. —Zesar'en jauregian kristau asko ziran, baita judutarrak ere.

PAULO DONEAK KOLOSAS'KOAI  
EGINDAKO ESKUTITZA

- 1 3 Aurreko eskutitzetan bezela, Kolosas'ko elizaren kristau-bizitza onarengatik Paulo'k eskerrak ematen dizkio Jainkoari.
- 13 Illunpeko erreñua, okerbidearen eta pekatuaren erreñua da; Jesukristo'rena, berriz, argiaren eta egiaren erreñua.
- 15 Jesukristo'rengandik datorkigu erospena, baita pekatuen barkamena ere. Jesukristo ikusten diranen eta ez diranen irudi da; Jainko ikusi-eziñaren irudi ere bai. (Kor. II, 4, 4.)
- 19 Graziaren osotasuna Kristo'rengan dago, ta Arengandik datozkigu grazi guztiak. (Juan, 1, 16)
- 2 14 Agiri ori Moises'en Legea da; Jesukristo'k kendutakoa.
- 3 1 Piztuera ori, animarena da; Kristo'ren graziz iristen da
- 11 Lerro auetan dago Paulo'ren erakusbide guztia; Moises'en Legea baztartuta, Kristo'renganako sinismena eta bere grazian dago osasuna, zeruratzea.
- 14 Goi-maitasuna da kristau-bizitzan birtute ta grazi guztiak biltzen dituan indarra, len ere esan zuan bezela. (Kor. I, 13)
- 15 Gorputz au Eliza da, ta bertan pakearen iturburu dan goi-maitasunak izen bear nagusi.

- 4 5 Kanpokoak, atzerritarrak dira; judutar etziran guztiak "atzerritar" izenez ezagutzen zituzten, euskaldunok erdaldunak ezagutzen ditugun bezela. Aye-kin kontu ibiltzeko esaten die Paulo'k, sinismenera erakartzeko egokierak arturik.
- 10 Markos: bigarren Ebanjelioaren egillea.
- 14 Lukas: irugarren Ebanjelioaren eta Apostoluen Egiñak liburuaren egillea.
- 16 Laodizea'ra idatzi zuan eskutitz ori, Efeso'koai egindako eskutitza da, noski.

PAULO DONEAK TESALONIKA'KOAI  
EGINDAKO LENENGO ESKUTITZA

- 2 1 Judutarrak ziran Paulo'ren etsairik aundienak, eta ayen aurka ari da emen.
- 2 Ikus Apostoluen Egiñak, 16, 16-24.
- 4 4 "Bere gorputza": beste batzuk, "bere emaztea" irakurtzen dute.
- 5 1 Noiz izango ote da Jesukristo'ren bigarren etorrera? Iñork ez daki. Bitartean esna ta erne bizi gaitezen, bizitza santua eramanaz. (Mat. 24, 14; Luk. 21, 24)
- 6 Beste batzuk, "ez zaitzatela" ordez, "ez gaitzala loak artu" irakurtzen dute.
- 19 Doayen bidez, Espiritu Santuak ayen biotzetan egiten zuan eragiña.

PAULO DONEAK TESALONIKA'KOAI  
EGINDAKO ESKUTITZA

- 2 3 Jaunaren bigarren etorrera-aurretik sinismen-ukitzea sortuko da. (Mat., 12; Luk. 18 8); gero, antikristoa agertuko da, bera jaungoiko dala esango duan pekatu-gizon gaiztoa.
- 7 Gaiztakerizko ezkutua: Satanas'ek.

- 9 Gaizto ori, Antikristo ori, Satanás'engandik sortuko da, ta aren miragarriakin lilluratuta, askok jarraituko diote.
- 3 15 Bai; kristauak senide gera guztiok Kristo'rengan. Senide pekatariak, senide izaten jarraitzen du; ez da etsai. Samur-samur ar zazu, bigunkiro ekarri zazu bide zuzenera, senide dezun ezkerro.
- 16 Pakcaren Jauna: Kristo. Alkartasun Zarrean, Jauna, "Yahvé" edo Jaungoikoa zan.

PAULO DONEAK TIMOTEO'RI  
EGINDAKO ESKUTITZA

- 1 3 Atzerritar erakutsi oyeke, Alkartasun Zaarreko patriarkai ta gizon ospetsuai buruzko judutarren jatorri-zerrendak eta ziran.
- 20 "Satanás'i eman nizkion": Elizatik kanpora bota nituan, esatea da (excomuni6n), Satanás'ek gorputzean zauritu ditzan.
- 3 2 "Bein bakarrik ezkondua": itzez-itzez: "emazte bakarren senarra".
- 7 Kristau ez diranen aurrean.
- 8 "Diakonu" itzak, laguntzalle adierazten du.
- 16 Aintzara eramana: Kristo'ren zerura biurtze gogarrarian.
- 4 10 "Batez ere fededun"; Jaungoikoak gizon guztien ardura dauka, ta guztiak zeruratu nai ditu; ala ere, ardura geyagoz zaitzen ditu sinismenaren alde lanean eta burrukan dabilzan kristau zintzoak.
- 5 9 Iru eratako alargunak ziran: 1) seme-alabak izanik, elizaren laguntza-bearrik etzutenak (V, 4); 2) "benetako alargunak"; lurrean bakarrik gelditu ta bakarrik bizi ziranak (V, 3-5); auei elizak laguntza ematen zien; 3) elizaren zaibepean egon ala ez, elizkizun batzutarako deitzen zitzaizenak.
- 16 Alargunai elizak laguntzen zien, Apostoluen Egiñetan ere irakurtzen dan bezela (6, 1).
- 18 Deut., 25, 4; Luk., 10, 7.

- 6 8 Janariak eta jantziak: bizi izateko aiña euki ezkerro.
- 11 Jaungoikoaren seme oyeke: eginkizun zerukoya daukan gizona da; beraz, birtutez betetako bizitza eraman bear du.
- 15 Aita Jaungoikoari dagokio izadiaren egitea, baita zeruratzea ta izakiak zaitzea ere; Berari, "aldi egokian" Jesukristo'ren bigarren etorrera ipintzea ere. (Tes., 4, 14; Apost. Egiñ., 3, 20). Noiz izango da ori? Ez dakigu.

PAULO DONEAK TIMOTEO'RI EGINDAKO  
BIGARREN ESKUTITZA

- 1 6 Paulo'rengandik artu zuan Timoteo'k apaizgoa.
- 15 Asia ori, oraingo Asia Txikia da.
- 2 18 Ildakoen piztuera grezitarrentzat gauza gogorra zan. (Ikus ontaz, "Apost. Egiñ.", 17, 32; Kor. I, 15-12).
- 19 Zenbakiak (Núm.), 16, 5, 26.
- 3 8 Jammes eta Mambres: Moises'en kontra ibilli ziran bi azti. Baño erri-irudimenak sortutakoak dira; ez ditu iñon aitatzten Irteera-Liburuak (Exodo).
- 4 6 Joateko ordua; eriotz-ordua.
- 16-17 Paulo bakarrik utzi zuten bere jarraitzalleak. Ala ere pozik dago, atzerritarren aurrean Kristo aitortu bait-du. Auzian etzan erabakirik artu. Orregatik, "leoyaren aotik askatua izan nitzan".

PAULO DONEAK TITO'RI EGINDAKO  
ESKUTITZA

- 1 6 Paulo'k ez du bi aldiz ezkontzea debekatzen, apaizgoa artzeko izan ezik.
- 12 Itz oyeke Knosos'ko Epimenides olerkariak Kreta-rrerentzat esanak dira.
- 3 5 Jayotza berri ori Batayoa da; Batayoa egiten gaitu Jaungoikoaren semetzako ta zeruaren oñordeko ta jabegai.

PAULO DONEAK FILEMON'I EGINDAKO  
ESKUTITZA

- 4 Nere Jaungoikoari; serbitzen dedan Jaungoikoari. —“Zaitudala”; beste batzuk “zaituztedala” dakarte.
- 5 “Zuk dezun”: beste batzuk “zuek dezuten” dakarte.
- 10 Nere seme: Paulo'ren seme ori, Onesimo da, Kristo'ren sinismenera ekarri bait-zuan.
- 16 Anai: kristau. Kristau guztiok anai-arreba bezela artu bear degu alkar.

PAULO DONEAK EBREOTARRAI  
EGINDAKO ESKUTITZA

- 1 1 Gurasoai; aurrekoai, asabai.  
2 Er., 2, 7; 7, 14.  
6 Er., 97, 7.  
7 Er., 103, 3, LXX'ak dakartenez.  
8-9 Er., 44, 6-7.  
10-12 Er., 101, 26-28.  
13 Er., 109, 1.
- 2 2 Ikus “Apostoluen Egiñak”, 7, 38 ta 53.  
5 “Etortzeko dan mundua”: Alkartasun Berrikoa.  
6 “Norbaitek”: 8'garren Eresiaren egilleak.  
6-7 Er., 8, 5-7.  
7 Pixka batean: Jesus'en lurreko bizialdia da, giza-gorputza artu zuan-da.  
12 Er., 21, 23.  
13 Er., 17, 3; Is., 8, 8.
- 3 2 Egin zuana, Jaungoiko Aita da. — Jaungoikoaren etxe guztian: Israel'go errian.  
7-11 Er., 94, 8-11; LXX'ak dakartenez.  
13 “Gaur” ori, aitatutako 7'garren ataleko “gaur” da.

- 4 4 As., (Gen.) 2, 2.  
5 5 Er., 2, 7.  
6 Er., 104, 4.
- 6 2 Esku-ezartze ori, Kristo'ren gudari egiten gaituan Sendotza Sakramentua da.  
14 As., 22, 27.
- 7 2 Melkisedek'i buruz, errege ta apaiz batera izan zaila dio Asiera-liburuak. Ez du, ordea, aren jatorriaren berririk ematen.  
11 Kristo'ren apaizgoak ba-du bere Legea: Berri Ona.  
17 Er., 109, 4.  
21 Er., 109, 4.
- 8 5 Irt. (Ex.), 25, 40.  
8-12 Jer., 31, 31-34.
- 9 20 Irt., 24, 8.
- 10 5-7 Er., 39, 7-9.  
16-17 Jer., 31, 33.  
19 Toki santuan: zeruan. Jesukristo'k idiki digu Jaungoikoarenganako sarrera ori, bere eriotzaren bidez.  
25 Egun ori, azken-aldiko Jaunaren etorrera da.  
30 Deut., 32, 35; 32, 36; ta Er., 134, 14.  
32 Argitara iritxi-berri; batayoa artuta.  
37-38 Is., 26, 20; Ab., 2, 3.
- 11 5 As., 5, 24.  
18 As., 21, 12.  
34 “Atzeritarren guda-txabolak”; beste batzuk “atzeritarren erasoak” dakarte.  
39 Agintzari ori, Jesus'en etorreran bete zan.
- 12 5-6 Itz., Num., 11, 12.  
20 Irt., 19, 6. —Sinai-mendiko oroipena dakar.  
21 Deut., 9, 19.  
23 Zeruetan idatzitako len-semeak aingeruak dira.  
26 Ageo, 2, 6. —Sinai-mendian Jaungoikoak lurra dar-daraka jarri zuan, gizonai bere aunditasuna agertzeko.

- 28 Erreiñua: zerua. — Gorde dezagun grazia; eskerrena agertu dezagun.
- 13 5 Deut., 31, 6; Josue, 1, 5.  
6 Er., 118, 6.
- 10 Txabola artako morroyak; apaiz lebitarrak. Ayek baño aldare bikañagoa degu kristauok; orain Jaungoikoaren Semea bera eskeintzen zayo Opari Aitari.
- 12 Atetik kanpoan: Jerusalem'dik kanpoan, Golgotamendian.
- 13 Etxetik kanpora: lur ontatik, edo judutarren erri-tik, edo Sinagogatik, Kristo'rengana.

## SANTIAGO DONEAREN ESKUTITZA

- 1 1 Amabi jatorriai: erbestean zabalduta bizi ziran israeldar kristauai.
- 3 Erasoaldiak pozik artu bear ditugu, Kristo'ren antzeko egiten gaituztela gogoratuta. Ikus Fil., 2, 29; 4, 4-5.
- 23-24 Ixpillua, arpegia apaintzen laguntzeko da. Jaungoikoaren itza da, berriz, guk gure egiteen bidez orraztu bear deguna.
- 2 5 Beartsu oyek, "gogoz beartsuak" dira; oyentzat da zeruetako erreñua, Jesus'ek esan zuan bezela. (Mat., 5, 3; Luk., 6, 20.)
- 7 Izen eder ori, "Jesus" izena da.
- 8 Leb., 19, 18.
- 11 Irt., 20, 13, 14; Deut., 5, 7.
- 13 Epaitua: emen, ondamendirako epaya.
- 15-17 Anai, naiz arrebaren bat: kristauren bat. — Emen, Santiago'k Paulo'ren aurka ari dala dirudi. (Ikus Errom., 4, 2 ta 3, 24); baño, ez. Begira Paulo'k diona: Zeruratzeko lenengo ta bein Kristo'rengan ipiñi bear da sinismena. Santiago'k: Sinismena artu ondoren, egintzak bear dira, sinismenaren fruituak egintzak dira-ta. Egintza gabeko sinismena, illa da.

- 23 As., 15, 6. — Zintzotasuna, Berri Onaren "azitik" dator, eta batayo-uraren bidez.
- 26 Sinismenaren bizitza egintzak dira.
- 3 1 Artuko degula: Vulgata'k, artuko dezutela dakar.  
2 Izketan erortzen ez dana: izketan pekatu-rik egiten ez duana.
- 14 Ebreatarren iritzian, biotza bururakizunen eta maitasunaren bizitokia da.
- 4 6 Esak. (Prov.) 3, 4.
- 5 14-15 Azken-igurtzi Sakramentua ageri da emen.
- 16 Sendatuak izan zaitezten: beste batzuk, "salbatu" zaitezten dakarte.
- 20 Bere anima: pekataria onik atera duan zintzoaren anima. — Pekatu-pilla aundia estaliko duana; bere pekatuen barkamena iritxi duana.

## PEDRO DONEAREN LENENGO ESKUTITZA

- 1 13 Gerria estutzeak, zerbait egiteko gertu dagola adierazten du. — Grazi ori emen zeruratzea da; edo-ta batayoa.
- 16 Leb., 19, 2.
- 24 Is., 40, 6-8.
- 2 3 Jauna, Jesukristo da.
- 6 Is., 28, 16. — Giltzarri ori Jesukristo da, sinisten dutenentzat osasunaren asiera; sinisgabeentza, berriz, erorgarria.
- 7 Er., 112, 22.
- 8 Is., 8, 14.
- 9 Itza: Jesukristo'ren Berri Ona. — Judutarren eskubideak kristauren eskuetara aldatu ziran, ayek ez bait-zuten Berri Ona aintzat artu.
- 10 Os. 1, 6, 9; 2, 1, 25.
- 14 Eskutitz au egin zanean, Neron zan zesar. Oso gaiztoa zan arren ere, aren esaneko izan zitez-tela agintzen zien Pedro doneak.
- 22 Is. 53, 9.

- 24 Izan gera sendatuak: beste batzuk "sendatu zerate" dakarte.
- 3 9 Izan zerate deituak: beste batzuk "izan gera deituak" dakarte.
- 10-12 Er. 34, 12-16.
- 18-19 Kristo, aragiz il egin zan; il-da bereala, inpernuetara jetxi zan, zintzo il ziranak zeuden tokira; eta irugarren eguncan, bere anima gorputzera biurtu ta aintzaz beterik piztu zan.
- 4 13 Kristo'ren gorapen-agertzea, azken-auzian izango da.
- 14 Kristo'ren agintzaria da ori. "zeruetako erreinua zuena dezute-ta. (Mat. 5, 10)
- 18 Zerurako bidea estua dala dio Jesus'ek, eta andik sartzeko zaildu egin bear dala ta indar egin.
- 5 1 "Presbiteros" itzak, berez, "agurea" esan nai du, "zaarra"; ala ere, Elizaren lenengo denboretan izen ori, apostoluak eskuak ezarri, ta elizaren baten buru ziranai ematen zitzaizen. Itz berak, apaiza adierazten du. (Ikus BAC'en 214 liburuan, 215 orrialdean. Aurreraxeago, 287 orrialdean dio, "presbiteros" itz orrek ez duala "zaarra edo agurea" adierazi nai, bizibidea, baizik; beraz, batzarraren edo elizaren "buru diranak" adieraziko du; orainko apaizak, alegia. —Aintzan eskuartu: Pedro'k Jesus'en irudi-aldatzean artu zuan esku, ta Jainko-Semearen edertasuna ikusi zuan, Santiagorekin eta Juan'ekin batean.
- 13 Babilonia ori, Erroma da, noski, emen. —Markos, nere semeak: Markos ori etzan Pedro'ren semea; Pedro'ren lagun zintzo-zontzoa baizik. Markos onek idatzi zun bigarren Berri Ona.

#### PEDRO DONEAREN BIGARREN ESKUTITZA

- 1 4 Auen bidez: bere aintzaren eta al-izatearen bidez. —Grazi donetzallearen bidez, benetan eta egiz, Jainkoaren semetzakoak egiten gera (Joan, 1, 3, 1). —Egin gaitzen: beste batzuk, "egin zaitezten" dakarte,

- 13 "Txabola au", bere gorputza da. Alaxe dio Paulo doneak ere. (Kor. II, 5)
- 16 Aunditasun ori, Kristo'ren irudi-aldatzea da. Iru apostolu izan ziran gertaera arrigarri aren testigu: Pedro, Juan eta Santiago. Jesus aintzaz beterik ikusi zuten, etea Aitaren aotsa entzun ere bai. (Ikus Mat. 17, 1-9; Luk. 9, 28-36; ta Mark. 9, 1-8)
- 17 Mat. 17, 5.
- 19 Artizarra: eguzkia esan nai du emen.
- 2 5 Beste zazpiakin batera: itzez-itz, "zortzigarrena", Noe.
- 10 "Aintzatsuak": auxe bera dakar Judas doneak ere bere eskutitzean, 8'garren atalean; an "aingeru onak" adierazten du; emen, ordea, "aingeru gaiztoak" edierazi nai duala dirudi. (Ikus onetzaz BAC'ren 214 liburua, 319 orrialdean; baita 555 orrialdeko 8'garren atala ere)
- 16 Zenb (Num.) 22, 28.
- 3 7 Azken-egunean, mundua ta munduko gauza guztiak suak kixkaliko ditu ta ondatuko.

#### JOAN DONEAREN LENENGO ESKUTITZA

- 1 1 Itza: Jainkoaren bigarren persona, Jesukristo.
- 2 Emen diona, Juan donearen Berri Onaren asierako azalpena da. Jainkoarengan "bizia zegola, ta bizia gizonen argi dala" dionekoaren azalpena, alegia. (Juan, 1, 4)
- 5 Jainkoa egiaren argi da, ta gizonai jakinerazirik, gizonen argi. (Juan, 1, 5)
- 6 "Ez degu egiaren arauz egiten"; ez gabiltz egiaren bidetik.
- 2 3 Jesukristo'k diona: "Norbaitek maite ba'nau, gordeko ditu nere aginduak". (Juan, 14, 23)
- 19 Etzirano guretakoak: benetako zintzoetakoak; gure artean ere ba-dirala gezurrezko anak.
- 23 Edo, Jesus Jainkoaren Seme aitortzen ez duanak.

- 27 Espiritu Santuaren igurtzia: Berak egiten digu argi, Jainkozko egia ezaguerazten digunean.
- 3 2 Jesukristo da izatez, Aita Jainkoaren Semea; baño gu ere, semetzako artu gaitu.
- 8 Etsayarengandik dator: etsayaren ikasbideari jarraitzen dio-ta.
- 4 3 Sinismen-ause oyen bidez dago munduan, Antikristo'aren bideak gertutzen ari bait-dira.
- 5 7 Gaur eguneko Vulgata'k atal au onelaxe dakar: "Iru dira zeruan aitortzen dutenak: Aita, Itza ta Espiritu Santua; ta iru auek bat dira". Antziñako liburuak ez dakarte orrela, ta, dirudianez, XIII gizaalditik aurrera sartu zan Vulgata'n.
- 16 Atal au illuna da ta azaltzen ez erreza. Bat da bi aditzen egillea: sinismenduna, kristauna. Baño, gizonak bizitarik ezin dezayoke inori eman, aibat gutxiago betiko bizitarik. Ori Jainkoak bakarrik egin dezake. Kristauak artu egiten du bizitza, ez eman. Orregatik, batzuk, atal-zati oni "Jainko" itza erantsitzen diote, onela: "Jainkoak bizitza emango die"; beste batzuk aditza pasivan ipintzen dute; "bizitza emango zaye" (dabitur). Eta beste batzuk —Brook'ek, eta Cahine'ek, eta Büchsel'ek, eta Ambrog'i'k, eta Plummer'eta—, bi aditentzat egille bera onartzen dute. Santiago'ren atala (5, 20) beren alde artuta. Eta onela euskeratzen det nik: —Zein da "eriotzarako pekatu ori? Iritziak ez datoz berdin. Fede-ukatzea kontrako biraoa? Edo-ta, kristauengandik baztatu diran antikristoen eta sasi-igarleen pekatua? Azken-iritzi ontakoak dira San Agustin eta San Beda. (Ikus ontaz, BAC. 214 liburuan, 515'garren orrialde)

#### JUAN DONEAREN BIGARREN ESKUTITZA

- 1 1 Eskutitz au "Andre Aukeratuari" egiten dio. "Andre" ori Asia'ko Elizaren bat da; Andre izen orretan, Eliza osoa ere sartu diteke, Kristo'ren emaztea dan ezkerero. Eta Aukeratua izena, Eliza Jainkoak aukeratutakoak osatzen dutelako.

- 5 Beste batzuk "alkar maite izan dezazutela" dakarte.
- 11 Elizaren lenengo denboretan, eliztarrak gutxi ziran, eta oso alkartuta bizi ziran, fedearen batasunez lotuta. Baño, norbait ayen artetik aldentzen zanean, etzuan ayekin artu-emanik izaten, beste batzuk ere galdu etzitezen.
- 13 "Aukeratu" izen ori —len esan degunez— ez da benctakoa. Izan ere, zail da bi aizpak izen berdiña izatea. Efeso'ko Eliza da "Aukeratua" ori noski-baño-noskiago.

#### JUDAS DONEAREN ESKUTITZA

- 8 "Aintzatsuak": aingeruen arteko mallak, noski. (Ikus Pedro donearen II Euskutitza, 2, 10)
- 9 "Moises'en gertaera" deritzan liburitik artutako itzak.
- 11 Kain'ek bere anayari gorroto izan zion bezela. —Moises'en eta Aaron'en aurka.
- 14-15 Henok, 1, 9. Liburu au ez da Espiritu Santuaren argiz idatzitakoa; ala ere, lenengo gizaldietako kristauen artean oso ezaguna zan.

#### JUAN DONEAREN AGERPENA

- 1 1 "Apokalipsis" Grezitar-itzak "agerpena" adierazten du; beraz ezkutuan dagon zerbaiten agerpena. "Apokalipsis" izeneko liburu au Itun Berriko azken-liburua da: Jesukristo'k Juan doneari egin zizkion agerpenak dakarzki.
- 2 Aitarengandik Jesukristo'k dakarkigun Berri Ona.
- 4 "Danaren": ebreozko "Yahvé" (Jainkoa) izenak orixe adierazten du: Dan + a (erderaz, "el que es"). Jainkoaren betikotasuna ta alda-eziña adierazten ditu.
- 8 "Alpha et Omega": asiera ta amaya. Grezitarren alfabetoaren lenengo ta azkenengo izkiak.




- 9 Joan'i Jesus agertu zitzayon; eta Jesus'engandik jakin zuena zazpi elizai azaltzen die.
- 18 Bizi dana: Jesukristo. Ill eta berriz piztuta gero, betiko bizi da Aitaren eskui-aldean, eta bere azpian daude guztiak.
- 20 Nortzuk dira zazpi elizen aingeruak? Azaltzalleak ez datoz batera. Zazpi elizak zuzentzen zituan espiritua; edo-ta, zazpi elizen zuzendari, gotzayak, noski.
- 2 4 Maitasun gabe ez dago bizitzarik, eta bizi ez dana, ez da ezer (Juan, I, 3, 14).
- 11 Bigarren eriotza: betiko ondamendia suzko leizan.
- 12 Atalidas erreñuko erri nagusia.
- 14 Aragikeria; itz unek Liburu Santuetan sarritan sasi-jainkoenganako gurkeria adierazten du.
- 20 "Jezabel zure emazteak"; beste batzuk, "Jezabel emakume orrek" irakurtzen dute. — "Aragikeriak": emen, sasi-jainkoenganako gurkeriak.
- 22 Gaxotasun bat bialiko diot.
- 28 Goizeko izarra emango diot: almena ta agintaritzta emango dizkiot. Cañera, piztuera goragarria ta goraldi aintzatsua adierazten du.
- 3 14 Amen'ek: Aitorle jatorrak, egiaren Jainkoak.
- 4 5 Zazpi krisallu: Jainkoaren aurrean dauden zazpi aingeruak. (Ikus, 3, 1; 8, 2)
- 5 5 Irabazi duan ori Jesukristo da bere nekaldi, eriotz, eta piztueraz; orregatik Aita Jainkoak zeru-lur-inpernuekako nagusi egin zuan. (Fil. 2, 8; Juan, 2, 22-27; Apost. Egiñak, 10, 42) Kristo'ren garapena Satanas'en eta munduaren aurka izan zan.
- 6 Bildotsa: Jesukristo gurutziltzatua.
- 7 3 Ebreetarrak beren otxeetako ate-buruetan egin zuten ezaugarria dakar gogora. (Irt. 12, 22. Ikus Ezek. 9, 4)
- 8 13 Arranoa, zoritxarren czaugarria.
- 9 1 Izar ori, Diabruaren izarra da. —Leize-zuloa: inpernua.

- 3 Larrapoteak (salta-perikoak): inpernuko espirituak, bekokian Jainkoaren sinalerik ez daukatena kalte egiteko ipiñiak. Edo-ta, atzeritarren erasoak, Partiarrena, an nonbait.
- 5 Asia'n bost illebeta irauten zuan larrapoteen gaitzak.
- 11 Abaddon: Ondatzallea; eta ebreetarren artean, inpernua.
- 17 Zaldizko-talde ori, inpernuko zaldizkoak dira; ayen armak, berriz, sua, kea ta azufrea dira.
- 10 1 Aingeru onek pakea ta maitasuna dakarzki.
- 12 3 Irensube ori diabru guztien buru dan Satanas da, Jainkoaren eta Semearen etsaya. Zazpi buru ta amar adarrak diabruaren indar aundia adierazten dute.
- 4 Diabruaren asmoa azaltzen du: Jainkoaren erreñua ondatu. Orixe nai zun basamortuan Kristo zirikatuaz, (Luk., 10, 18; 22, 31), eta judutarrak Jesus eriotzera eraman zutenean, (Joan, 13, 2, 37; Luk., 22, 53), Seme ori, Mesias da, Jesukristo.
- 6 Emakumea, Mesias'en ama, Eliza da, Jainkoaren Israel; eta hurrean gelditzen da. Eta lur ontako basamortuan, Elizak Egiaren ogia ta Eukaristiaren mana izango ditu janari.
- 7 Mikel, zeruko gudari-taldean buruzagia da.
- 12 Diabruak galdu egin du zeruko gudaketa, ta lurrekoen aurka ari da, berekin eramateko ta Jainkoari guda egiteko (Ef., 2, 2) Tximista bezela zerutik erortzen ikusi zuala dio Jesukristo'k. (Luk., 10, 18; 11, 20)
- 13 Ez die sinisgabeai erasotzen, Jainkoaren mende-koi baizik; auen irudi emakumea da, ta emakumea Eliza Ama da.
- 14 Israeldarrak Faraon'en mendetik alde egiteko, basamortura joan ziran bezela, emakumeak ere basamortura egiten du iges. Eta israeldarrak mana manda janaritu zituan Jainkoak, emakume oni ere Jainkoak ematen dio janen.

- 16 Urak, erasoen irudi dira; eta emen ibaya, Kristo'ren Elizari judutarrak egiten dituzten erasoak.
- 17 Diabrua, Eliza berria azpiratu ezinda, kristauen aurka asten da.
- 13 1 Pizti ori, Erroma da.  
3 Piztiak zauri bat dauka buruan; zauri ori, Erromako agintari nagusietako bat da, Zesar Augusto edo Neron.
- 16 Antziñako morroi-jopuak beren nagusien ezaugarria craman oi zuten gorputzean ezarrita.
- 14 1 Irensubearen aurrez-aurre Bildotsa jartzen digu, Jerusalem'go elizaren irudi. Bildotsaren inguruan, Jainkoari beren garbitasuna eskeñi dioten 144.000 aukeratuak.  
7 Auzi au ez da gizon guztien azken-auzia, kristauai eraso izan zien Erroma sinisgabeari dagokien auzia baizik.  
9 Erromako agintari nagusia —zesarra—, beren mendekoak jainkotzat zeukaten.
- 13 Espirituak: Eliza zaitzen duan Espiritu Santuak. Ez diogu eriotzari bildurrik izan bear, Jaunarengan il ezkeru.
- 14 Gizaseme ori Jesukristo da; Bera etorri da uzta biltzera ta Jainkoaren mandiotan gordetzera.
- 20 Erritik kanpora: Jerusalem'dik kanpora.
- 16 2 Zigor au, Ejito'ko zazpigarrena da.  
3 Ejito'ko irugarren zigorraldia.  
10 Ejito'ko bederatzigarren zigorraldia.  
12 Amar errege oyek atzerritar agintari nagusiak dira, kristauai erasotzeko Erroma'ri laguntzen diotenak. Erromatarren ondoan egon ziran Jerusalem'go ondamedian.  
15 Esna ta erne bizi bear degu, Jauna, gutxien uste degunean, etorriko bait-da. (Mat., 24, 43; Luk., 12, 39). —Jantziak egite onak dira.
- 18 2 Len esan danez, Babilonia ori Erroma da.

- 4 Irten zaitetz arengandik: erritik alegia, zigorra laxter datorkio-ta.
- 19 7 Bildotsaren (Kristo'ren) eta Elizaren arteko eztaayak.  
20-21 Guda orren ondoren, Jainkoak bere etsayen buru egiten dutenak leizera amilduko ditu, ta beste etsai guztiak ezpatatz ilda geldituko dira.
- 20 1 Aingeruak irensubea artu ta leizean lotzen du; antxe zeuden piztia ta sasi-igarleak ere.  
2-4-5 Milla urte: urte-askoak adierazten ditu.  
6 Kristo'ren alde odola ixuri dutenak, zeruan sari aundiagoa izango dute.  
12 Illak, berriro piztuta gero, beren egiteai dagokien saria jasoko dute. Sarritan irakurtzen da au Liburu Santuetan. Biblian (Er., 61, 13; Jer., 25, 14; 32, 19; Erro., 2, 6; Tim., II, 4, 14).
- 21 6 Ur bizia: Espiritu Santuarengandiko bizitza.  
16 12.000 estadio: 2.200 kilometro.  
17 144 besokada: 64 metro.
- 22 5 Kristo'rekin bat eginda zintzo bizi diranak, zeruan errege izango dira betiko.  
12 Jesukristo, usterik gutxien degunean, etorriko zai-gu, eriotza lapurra bezela da-ta.  
14 Vulgata'k: "Bildotsaren odoletan garbitzen..."  
15 "Txakur" oyek sodomakeri-zaleak dira.  
17 Espirituak: Espiritu Santuak Kristauen biotzetan. —Emazteak: Elizak, Espiritu Santuaren eragiñez.  
20 Zatoz, Jesus Jauna: Ikus "Maran atha". (Kor., I, 16, 22)



## ARKIBIDEA

### JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA

Mateo Doneak dakarrenez ... .. .	9
Markos Doneak dakarrenez ... .. .	81
Lukas Doneak dakarrenez ... .. .	125
Joan Doneak dakarrenez ... .. .	199

### APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK

Apostoluen Egiñak ... .. .	255
Paulo Doneak Erroma'koai egindako eskutitza ... ..	333
Paulo Doneak Korinto'koai egindako Lenengo esku- titza ... .. .	365
Paulo Doneak Korinto'koai egindako Bigarren esku- titza ... .. .	396
Paulo Doneak Galazia'koai egindako eskutitza ... ..	417
Paulo Doneak Efeso'koai egindako eskutitza ... .. .	429
Paulo Doneak Filipos'koai egindako eskutitza ... .. .	440
Paulo Doneak Kolosas'koai egindako eskutitza ... ..	448
Paulo Doneak Tesalonika'koai egindako Lenengo esku- titza ... .. .	456
Paulo Doneak Tesalonika'koai egindako Bigarren esku- titza ... .. .	463
Paulo Doneak Timoteo'ri egindako Lenengo eskutitza ...	467
Paulo Doneak Timoteo'ri egindako Bigarren eskutitza ...	477

Paulo Doneak Tito'ri egindako eskutitza ... ..	484
Paulo Doneak Filemon'i egindako eskutitza ... ..	488
Paulo Doneak Ebreotarra egindako eskutitza ... ..	490
Santiago Donearen eskutitza ... ..	514
Pedro Donearen Lenengo eskutitza ... ..	523
Pedro Donearen Bigarren eskutitza ... ..	533
Joan Donearen Lenengo eskutitza ... ..	539
Joan Donearen Bigarren eskutitza ... ..	548
Joan Donearen Irugarren eskutitza ... ..	550
Judas Donearen eskutitza ... ..	552
Joan Donearen Agerpena ... ..	555
Oarrak ... ..	595

a-  
i,  
i-  
u-  
  
u-  
r-  
  
...  
u-  
  
ñ  
e-  
r-  
  
a-  
e-  
eu  
ia,  
al,  
ñi  
z-  
  
u-  
al-

**LABAYRU-IKASTEGIA**

**BIBLIOTEKA - DERIO**

Sarr 33.899 / 99

Gaia.

Tokia.

## ELIZ-ATARIAN

Talde baten deitura da, "Eliz-Atarian"... apaiz-talde baten izena. Bai, elijio-etxetako apaiz eta erri-apaiz, sei-zazpi eratara jantziak, taldean bildurik, alkar-lanean ameslari.

Eta "Eliz-Atarian" talde onek, liburuak, euskal-liburuak atera nai ditu sortaka.

### CAI NAGUSIZAT:

Teoloji... Otoitz... Kristau-ikasbidea...  
Jakintza... Eziera... eta Gizartea...

### ASMO BAT:

Liburuak, erriarentzat ao-goxatu.  
Erria jomuga, erria elburu.

### BIDE BAT:

Errikoi, baña ez gogor eta ez mordollo.

Errikoi, baña iritzi zabal eta oparo.

### AMES BAT BIDEAN:

Ibilli eta eragin, Eliz-giro berritan...

Ibilli eta eragin, Eliz-Batzar Nagusiaren argitan...

Nork uste dezake, Eliza'ren muiña arkitu duanik ziur? Nork uste dezake, Eliza'ren barru-barruraño sartu danik?

Orregatik esaten degu "Eliz-Atarian": Eliza'ren inguruan, babesean, barrurago naiean, Eliza'ren giroan ibilli nai degula, alegia. Arrokeri gabe, erronka gabe, apal, baña adoretzu. Eta onela eskeini nai diogu gure erriari, ain bearrezko dan, adimen janari ugaria.

"Eliz-Atarian" apaiz-taldea, liburu-kezketan.

"Eliz-Atarian" liburu sortak, euskal-etxe guztietan.

